



Aita Arana gaztea, apaiz berria.



E U S K A L T Z A I N D I A  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque

BILBO

2000



**Prestatzailea : Patxi Altuna S.J.**

\* \* \*

Itxura emailea: Ricardo Badiola Uriarte

\* \* \*

© Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO  
E. posta: info@euskaltzaindia.net

ISBN: 84-85479-99-8  
Legezko Gordailua: BI-97-00

Fotokonposizioa: IKUR, S.A.  
Cuevas de Ekain, 3, 1º - 48005 BILBO

RONTEGI, S.A.L. inprimategia  
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO (Bizkaia)

1718

Yñigo-ren egunaria.

Diario de Yñigo.

Egunari eta urteari  
Jainkoaren grazian  
Ziandui bitoz beteari  
Zeruratu artian.

Alf.

# AURKIBIDEA

Oharra eta eskerrak .....	XIII
Aita Jose Ignacio Aranaz hitzaurrea: Aranaren ezagutzak eta harreman sarea, <i>Jose Luis Lizundia</i> .....	XV

\*\*\*

#### I. ATALA: HAURTZARO-GAZTAROAK (1838-1866)

1. Aurretikoak .....	3
2. Haur ongi hazia (1838-1854) .....	8
3. Herritik jaurtikia (1854-1856) .....	13
4. Tormes ondora (1857) .....	16
5. Loiolan eri (1858) .....	17
6. Salamankan berriro (1858-1860) .....	19
7. Carrionen (1860-1863) .....	22
8. Berriz eri (1864-1865) .....	25
9. Loiolan geldia (1866) .....	28

#### II. ATALA: ZARAUTZ-URDUÑA (1867-1873)

1. Itsumutila (1867) .....	31
2. Liburuak (1868) .....	33
3. Etxean (1868) .....	36
4. Hilu-buluak han-hemen (1868-1869) .....	40
5. Zarautzen (II.69 – IX.70) .....	43
6. “Estado de guerra en Guipúzcoa” (1870-8-29) .....	48
7. Urduñan (1870-1872) .....	51
8. Espainiako Historia kendu Aranari (1872) .....	54

#### III. ATALA: ETXETIK URRUN (1873-1880)

1. Teologia Poyannen (1873) .....	57
2. Euskal Akademia (1873-4) .....	59
3. Apaiz berria (1874) .....	63
4. Hirugarren probantza (1874-1875) .....	66

IX

5. Azken zinitzak (15-VIII-75) .....	69
6. Zergatik? (1875) .....	71
7. Artxibari (1875) .....	73
8. Erien bisitari (1876) .....	77
9. Loiola itxia (1876) .....	79
10. Boudigaud-tik alde (1876) .....	82
11. Poyannen berriz (1876-7) .....	84
12. Loiolaren ametsetan (1877) .....	87
13. Lana lanaren gainean (1877-8) .....	90
14. Lagunarteko bilerak (1878) .....	92
15. Albiste onak (1878-9) .....	96
16. Guadalupen erromes (1879) .....	98
17. Erbestaldiaren amaiera (1879) .....	101

#### IV. ATALA: MUTIKOEN IRAKASLE (1880-1883)

1. Lagun zahar artean (1880) .....	107
2. Udaleku berria (1880) .....	109
3. Liburu zahar bila (1880) .....	112
4. Euskal Akademia berriz (1880) .....	115
5. Tren bereziak Urduñarantz (1881) .....	117
6. Euskal Akademiaren azkena (1881) .....	120
7. Sabino Aranari elizakoak (1881) .....	122
8. Loiolara (1881) .....	124
9. Ur bila (1881) .....	126
10. Artxibo-sagua (1881) .....	130
11. Urduñara berriz (1882) .....	133

#### V. ATALA: URDUÑAN ETA LOIOLAN (1880-1883)

1. Aloriako eliza berria (1882) .....	137
2. Mendibururen mendeurrena (1782-1882) .....	140
3. Aranak bi idaztiño (1882) .....	143
4. Mutiko bat hil (1882) .....	145
5. Sermoia vs. Dotrina (1883) .....	148
6. La Pia Unión (1883) .....	150
7. Vedruna eta Azara (1883) .....	152
8. Euskal katadera Gasteizen? (1883) .....	157
9. Aita Arana sermolari (1883) .....	160
10. Aita Cros Loiolan (1883) .....	163
11. Igande eskolak (1883-1887) .....	165
12. Izkirimiriak (1883) .....	171

**VI. ATALA: "ETXEKOAKIN OHI BEZALA, ALAITASUN AMORIOZKOA" (1883-1891)**

1. Azken zortzi urteak .....	173
2. Erromesaldia Itziarra (1883) .....	174
3. "Izarkitxo batzuen igaroa" (1884) .....	176
4. Isastiren eskuizkribua Azkoitian (1884) .....	179
5. "Bilerako bandera, lauburu berri ederra" (1885) .....	182
6. Garagarza jesuita ohiaren heriotza (1886) .....	185
7. "Meza Santuan idurimen izugarria" (1886) .....	187
8. "Neska xartxo, gortxo, bizar piska batekoa" (1886) .....	189
9. "Proyecto de Academia Euskara" (1886) .....	191
10. "Makina 280 zaldi indarrekoak" (1887) .....	192
11. Andra Mariako eskila erori (1887) .....	194
12. "Bai, pekatu da liberalkeriyá" (1887) .....	196
13. "400-bat ume konfirmatu" (1887) .....	199
14. Lehia gogorra (1887) .....	201
15. "San Migel Aingeru, gugatik erregu" (1887) .....	203
16. Arana-d'Abbadieren arteko harremanak (1868-1891) .....	206

**VII. ATALA: ARANA DURANGON (1887-1891)**

1. Arana eta Durango orain arte (1887) .....	215
2. Lehen egunak (1887) .....	219
3. Atanasio Ezterripa apezpikua (1888) .....	221
4. Udako oporrak lehorrean? (1888) .....	225
5. Aita Arana eta Canovas del Castillo (1888) .....	229
6. Kapanagaren arrasto bila (1888) .....	232
7. Itzultzaile trebea Arana (1889) .....	236
8. Resurrección M <sup>a</sup> de Azkue Durangon (1889) .....	239
9. Predikari onak Durangon (1889) .....	241
10. Arana Deustura lau Apezpikugana (1889) .....	243
11. Larramendiren baserrian (1889) .....	245
12. Gabonak Durangon (1889) .....	247
13. Durangon danga (1890) .....	250
14. Ricardo Reynolds dohatsuaren festa Azkoitian (1890) .....	254
15. Loiola-Durango-Zumaia-Loiola-Durango (1890) .....	256

**VIII. ATALA: ARANA KASTIGATUA (1891-1896)**

1. Mojen instituzioa berriz? (1890) .....	263
2. Sabino Arana Durangon Aita Aranarekin (1891) .....	267

3. Aita Arana Bilbon Sabino Aranarekin (1891) .....	270
4. “Amets zerukoi antzekoa” (1892) .....	274
5. Ia mila urteko Haritza (1892) .....	277
6. San Inazioaren mendeurrena Loiolan (1892) .....	280
7. Aita Aranaren “Getsemaniko baratzea” (1892) .....	283
8. D <sup>a</sup> Teresak ikusi bai, baina nola! (1892) .....	287
9. “Izpirituko pozaldi berezia” (1892) .....	290
10. Mahatsa dolarean bezala (1892) .....	292
11. Azken gabeko azkena (1892) .....	294
 <b>POST SCRIPTUM</b>	
Nagusien arrazoiak .....	298
 <b>1<sup>a</sup> MONOGRAFIA</b>	
Pormenores de la 2 <sup>a</sup> guerra carlista .....	301
 <b>2<sup>a</sup> MONOGRAFIA</b>	
Loiolako obrak (1884-1887) .....	337
* * *	
Epilogo, Jose Antonio Arana Martija .....	367
* * *	
<b>PERTSONA- ETA TOKI- IZENEN AURKIBIDEA</b> .....	<b>383</b>
A. Pertsona izenak .....	<b>385</b>
B. Toki izenak .....	<b>411</b>



## AITA JOSE IGNACIO ARANAZ HITZAURREA ARANAREN EZAGUTZAK ETA HARREMAN SAREA

Patxi Altunak Aita Jose Ignacio Aranari buruz paratu duen liburu honek erakusten du azkoitiar jesuitak zituen ezagutza ugariak. Pertsona eta toki ezagutzak eta joan den mendeko pertsonaia askorekin zuen harreman sarea.

Harritzekoa da, bai Loiolan, Urduñan, Durangon, nonahi egin zituen egotaldietan nolako harreman sarea sortu zuen. Hasi Antoine d'Abbadie eta Sabino Aranaraino, garai haretako euskaltzale, idazle, politiko eta besteekin zituen harremanak. Fitxategi antzerako bat egin dugu ongi ikusteko zenbat harreman izan zituen, gutunez, bisitaz edo bestez, orduko lagun askorekin eta ikusten da bere harremanak nondik norako hedadura zuten. Joan den mendearen ondar inguruko euskaltzale ospetsu gutxi izango ziren berarekin harreman gabe. Bestalde, ez zen bere erlijioso egoitzan geldirik egotekoa. Bidaia asko egiten zituen, agintariak debekurik jarri ezik behintzat, horrelakoak ere jasan baitzituen. Urduñatik edo Durangotik astero, inoiz astean bi aldiz ere joaten zen Bilbora, Loiolatik Donostiara eta beste. Urduña inguruko herri, eliza, mendi eta abar azaltzen dira bere ibilaldietan. Poyanne inguruko Landasetako herrixkak ere bai, Durangaldeko herri guztietatik pasatu zen eta bere auzo gehienetatik ere. Harritzekoa da zer zehaztasunez ematen dituen baserri, mendi eta basoen izenak. Harrituta utzi gaitu, nahiz eta pentsatzen dugun aski ongi ezagutzen dugula gure merinalde zaharra.

Hara hor pertsonaien zerrenda: Antoine d'Abbadie, Aginako Urduñakoa, Domingo Agirre, Jose Maria Ampuero, Pedro Ampuero, Arginzoniz (aita eta semea), Felipe Arrese Beitia, Aristides Artiñano, Pedro Astarbe, Resurreccion Maria Azkue, Luis Arana Goiri, Sabino Arana Goiri, Santiago Arana (Sabino eta Luisen aita), Arzak, M.R. Arbelbide, Pedro Pablo Astarloa,

Azillona, Txibita Azpitarte, Frai Baertel, Federico Belaustegigoitia, Bengoatarrak, Gaspar Bereziartua, Damaso Bernaola, Pedro de Biñela, Luis Luciano Bonaparte printzea, Arturo Campion, Julio Cejador, M.R. Duvoisin, Egibar, Eskauriaza, Karmelo Etxegarai, Ramon Etxezarreta, Monseñor Anastasio Ezterripa, Balbino Garitaonaindia, Pedro Martin Gaztañazatorre, Abbé Intxauspe, Andres Iturzaeta, Kapanaga, Larragan, Jose Larrea (Laudioko parroko itzultzailea), Estanislao Labayru, Lasuen, Eusebio Lopez Tolosakoa, A. Eustakio Madina, Jose Manterola, Urduñako Aita Mendibe, Mendiburu, Telesforo Monzon, Munitxa, Novia de Salcedo, Orue durangarra, Fidel Sagarminaga, Jazinto Sagastizabal, Marcelino Soroa, Julian Unamunzaga, Gregorio Uria, Julio Urkixo, Urralburu zeanuritar euskaltzale eta jesuita karlista, Pedro Miguel Urruzuno, Van Eys, Julien Vinson, Ladislao Zabala, Zabalburu, Zatarain, Jose Bizente Zengoititabengoa.

Gai zenbait ere aipa daitezke, hala nola, “Proyecto de ortografía”; *Euskara* aldizkaria (Berlinen argitaratzen zena joan den mendean); Gernikako Arbola; Academia vascófila; Laurak bat; Calahorrako sineralak; Aristides Artiñanoren “Proyecto de Academia Bascongada” famatua, ondorioz Euskaltzaindia geroago sortuko zuena, 1886an, Durangoko Euskal Jaietan saritua; “Encartaciones” izenaren gainean etimologia jakitekoa litzateke; Baionako *Eskualduna* aldizkaria; Fray Juan Antonio de Unzueta euskal idazlearen xehetasunak ikertzea; pare bat herri kantu ere ipintzen ditu Patxi Altunak, ez dakit gehiago dauden, hala nola, Ihorretako “Eguen zuri”, gaur egun ere ezaguna dena; Abadiñoko “Gabon gaboneta” kanta eta abar.

Guretzat egunotarako lekukotasun interesgarri bat du, berak nola Bilboko ibaiari **Ibaizabal** deitzen dion. Durangaldean dagoen mendi baten izena “Jondonemendi” dakar Berrizko herri baso bat dena gaur egun eta “Jandolamendi” izenarekin ezagutzen dena. Agian, hagianimo, zahar baten aztarrana izan.

Durangoko familia handikienetariko jendea ezagutzen du, karlista eta baita ere euskaltzale zirenak garai haretan, hasi Ampueroarrak (Jose Maria eta Pedro); 1886ko Euskal Jaiei buru eta alkate izandakoa. Jose Maria Orue, Karlos VII. bere etxean egon zen, gaur ere bi jauregiek elkarren ondoan han dira; Martin Gaztañazatorre, karlista familia ezaguna, gaur ere irauten duena, PPko zinegotziarengan, hain zuzen, bere azken oinordekoa; Lasuen, Munitxa, Egidazu eta Bengoa “Lapikotarrak”, hauek ere karlista familia ezagunak; Larragandarrak, apaiz eta arzipreste joan den mendean izandakoa eta baita frankismoaren azken garaian ere, Larragan izan zen Andra Mariako azken arzipretea.

Euskaltzaleetan ere, Balbino Garitaonandia, durangar idazlea. Abbadiarekin harreman asko izan zituen, gehien beharbada; berak lagundu zion Durangoko geltokira, Oñako desterrura bidali zutenean; Julian Unamunzaga, Ihorretako alkatea, Euskal Jaien garaian, 1891n; gaur ere familia handiki horrek irauten du Durangon, etxea orain urte gutxi bota dutelarik, autopistaren saihebidetara egikeran, Mallabierna hain zuzen, mallabitarra baitzen jatorriz; Sagastizabaldarrak; Ramon Etxezarreta, euskal idazle zalduna, gaur kultur etxea bere jauregian dago bere izenarekin; Arginzoniztarrek, joan den mendeko III. Karlistadari “Convenio de Amorebieta” delakoaz bukaera eman ziona eta gero bere familia abertzaletu zena, Durangon gelditu zen oinordekoetan behintzat; Damaso Bernaola apaiza eta euskal idazlea, hau ere durangarra, Dogsonen laguna dirudienez. Pedro Astarbe, handikien administraria; Andres Iturzaeta, Otxandioko apaiz eta euskal idazlea; Felipe Arrese Beitia, otxandiar poeta famatua; Jose Bizente Zengotitabengoa, berriztar karmeldar entzutetsua; Frai Baertel, Hego Euskal Herrian sermoilaririk famatuena behar bada; durangarra, karmelita, aita bohemiarra zuena.

Durangoko familietan harremanik gehien Ampuerotharrek eta Arginzoniztarrek bazuen ere, familia handikiekin, ohi bezala eta euskaltzale garai haretan, harremanik zuzenenak Balbino Garitaonandia apaiz euskal idazlearekin izan zituen. Hogetaka aldiz bildu du Patxi Altuna paratzaileak honekin izandako bisita, ibilaldi, harreman eta abar. Honekin harremanak izan zituen baita ere; honen bidez agian, Garitaonandiaren bidez, oiartzuar Iñarra apaizarekin, Don Manuel Lekuonaren familiakoa, bestalde.

Bilbo inguruan ere bere harreman sarea ondo hedatua zuen. Sabino Arana Goiriren aitarekin izan zituen harreman ugari, baina gero bere bidez agian, Sabino eta Luis Aranarekin. Sabino Aranarekiko harremanetan ikusten da, ez bakarrik mutiko garaian, baita ere gero, Barcelonan estudiatzen zegoenean ere izan zituela harremanak, bereziki, Durangora etortzen zirelarik. Harremanak, gutunez, bisitaz, gaur Sabin Etxea dagoen Aranatarren etxera joanaz edo Aranatarrek Durangora joanaz eta abar. Xehetasun gehiago jakitea interesgarri izango litzateke, Sabino Aranak bere euskaltzaletasunean zer eragin suspertzaile izan zuen Arana azkoitiarraren bidez jakiteko. Bilbo inguruan beste pertsonaia garrantzitsuekin harremanak agertzen dira, hala nola, Aristides Artiñanorekin, berau izan zen “Proyecto de Academia Bascongada”ren eragile; Fidel de Sagarminaga, Foru garaian azkenengo diputatu nagusi izan zen foruzalea; hau ez zen karlista, liberala baizik, euskaltzalea; Novia de Salcedo famatua; Estanislao Labayru, historiagile entzutetsua; Zabalburu zaldunarekin. Azken urteetan baita ere, Resurreccion Maria Azkue Euskaltzaindiaren sortzaile izango zenarekin.

Donostia-Tolosalde inguruko euskaltzaleak ere agertzen dira, hala nola, Eusebio Lopez Tolosako inprentari famatuarekin harreman ugari izan zituen; Ladislao Zabalarekin; Marcelino Soroarekin; Karmelo Etxegarairerkin; Arzakekin; Julio de Urkixorekin, azken urteetan, noski; Usurbilgo Zatarain jaun batekin, agian, Anbrosio Zatarain hil berriaren aita izan zitekeen; Bergarako Telesforo Monzonekin, beharbada hau ere Telesforo Monzonen aita edo osaba; Azillona jaunarekin, agian, hau Azillonako markesa, "Ferrocarriles Vascongados"eko buru izana eta euskaltzalea eta dirudienez, gero, jesuita sartu zena.

Iparraldeko edota Frantziako euskalariekin ere harremanak izan zituen, gehien eta dudarik gabe, Antoine d'Abbadierekin, baina baita ere agertzen dira Duvoisin, Arbelbide, Luis Luciano Bonaparte printzea, Julien Vinson, Van Eys eta beste.

Urduñan egon zen garaian ikusten zen Araia eskualdeko jendearekin ere izan zituela harremanak, hasi Urduñako alkate zenbaitekin; agertzen da Aginako izeneko jaun bat ere, gaur egun ere urduñar familia ezaguna, HBko zinegotzi, Bizkaiko Batzar Nagusietan ahaldun eta Mahai Nazionalako kide izandakoa; Federico Belaustegigoitia, laudioarra, seguru asko Federico Belaustegigoitia euskaltzain urgazle eta lehen euskaldun berrietako Euskaltzaindiaren arautegiak egin zituenaren aita; Jose Larrea, Laudioko parrokoa, itzultzailea, Amurrión geroago agertzen dena; interesgarria litzateke nor zen hau hobeto jakitea, zeren eta itzultzaile izan bazen eta euskaltzale, garai haretan esatea nahi du, nongoa den jakinda gero, Laudio, Amurrión, Sudupe eremu euskalduna zela garai haretan. Inork ez du ikertu, nik dakidala behintzat, Jose Larrea delako hau. Eskauriara, hori ere Aiara inguruko deiturak jakina; euskaltzale eta abertzale izan dira geroztik Eskauriazatarrak; Julene Azpeitiaren senarra ere horkoa zen Enrique Eskauriatza, hain zuzen. Urduñan zegoelarik, inguruko herrien eta herrixken deskribapen zehatza egiten du. La Muerako bainuetxea, gaur egun ere, udaleku egoitatzat erabiltzen dena; Arrastariako lau herriak, Tertanga, Aloria, Artomaña eta Delika; baita Urduñako lau herrixkak ere azaltzen dira, Belandia, Mendeika eta Lendoño biak, Izarra ingurua eta abar.

Durangon denbora gehiago egin baitzuen eta bidai lagun onak, Balbino Garitaonaindia batez ere, arestian esan bezala, inguruko bazter guztiak arakatu zituen, deskribapen zehatzekin. Baserri izenekin, auzo interesgarri bat denean; hala nola, Abadiñoako Gaztelua, auzo benetan interesgarria, arkitekturaren aldetik, gero Alfred Baeschlin arkitekto suitzarrak ere *Arquitectura rural vasca* delako liburuan ondo deskribatzen duena, baina lehenago Aita Jose Ignacio Aranak barraiatu zuena. Izurtza eta Mañariko baserri eta auzoak,

Abadiñoako beste batzuk, hala nola, Muntzaratz, Astola, Traña, Gerediaga; Berrizko mendebaldea, Olakueta, gaur geltokia dagoena; Garaiko zenbait baserri agertzen ditu; Ihorretakoak askotan bere izen eta guzti, hala nola, gaur Euskal Telebista dagoen baserria eta izena bat ere hedatu ez duena Ertzilur ruti, hain zuzen.

Pasealdi horiek aprobetxatzen ditu herrietako jendeekin harremanak izateko. Horren ondorioa izango zen adibidez, Gregorio Uria bere eskribau zintzoa, abadiñarra, nor joan zitzaion Oñako desterrura eta ikusi ezinik itzuli. Toki batera joaten bazen, deskribatuko zuen gauza seinalagarriren bat, hala nola, Santi Kurutzera joaten bazen, lehenago ermita izandakoa eta orain baserria dagoena, esango zuen nola puntu haretan zegoen hiru herrik bat egiten zuten mugarría, Durangok, Izurtzak eta Abadiñok; edo Jondenemendiko ibilaldia egin bazuen, Garaitik Oizera dagoen bidea, mendizaleak erdaraz “la teta del Oiz” deitzen dutena, horri ere bere deskribapena emango zion eta handik ere zer ikusten den. Ikusten da obserbazio dohai berezia zuela, bazterrak barraiatuz. Baita ere adiskideak egiteko, arestian diodan legez.

*Ezagutzak* izango litzateke gure hitzaurrearen izenik orokorra agian, zeren eta ezagutu zituen pertsonak, pertsonaiak, euskaltzaleak (alde batera utziko dugu bere desgraziarako hainbeste ezagutu zuen Maria Teresa Aristegi de Gordon anderea) euskaltzaleak, euskal idazleak, herrietako agintariak, karlista handikiak; baina inoiz edo behin agertzen da foruzale liberalen bat ere, euskaltzalea zelako, noski; adibidez, Aristides Artiñano eta Fidel Sagarmínaga. Ezagutza honen ondoan bazterrak ezagutzeko griña eta askotan aukerarik ez zuelako, ibili zen bainuetxerik-bainuetxe, Areetan, Zestoan, Betelun eta besteetan, baina Konpainiako buruek ez zioten uzten beti irteerak nahi beste egiten, dirudienez. Baina inguruetako ibilaldiak aprobetxatzen zituen bazterrak zehatz-mehatz aipatzeko, deskribapen jakingarriak idazteko, kantu bat edo beste biltzeko eta abar.

Bere euskarekiko griñan, orduko hiztegegileak, Novia de Salcedorenak eta besterenak aipatzen ditu. Aita Añibarroren 250. urteurrena dugularik, bere liburuaren argitalpena prestatzen ibili zen, Tolosako Lopez Mendizabalen inprenta famatua izango zenean, hain zuzen.

Elizak ere aipatu ditugu, Urduña bueltako eliza eta parrokia gehienetan ibili zela dirudi; Durango inguruan behintzat, mezak eta predikuak toki askotan eman zituen. Uste dut aukera guztiak baliatuko zituela, hasi San Agustingo ospitala; Andra Mariako arziprestaduko eliz nagusia, Andra Mari Uribarrikoa; Santa Anako parrokia; Santa Susana komentua, Jesuitetatik hurbil dagoena; Izurtzako San Nikolas parrokia; Mañariko Andra Marikoa,

Abadiñoako San Trokazkoa, Garaiako eta Ihorretakoa San Migel parrokiak. Elizetarako bidai horiek ez zituen nonbait alferrik bisita hutsez uzten. Otxandioko parrokoarekin, Andres Iturzaetarekin harremanetarako baliatzen zituen, hau euskal idazle izan baitzen. Ez ote zituen orduko zenbait liburu bilduko eta oharrak egin? Bere liburutegiaz ez diosku gauza handirik Patxi Altunak, baina, agian, ez ote zuen altxor interesgarri bat izango? Non ote daude?

*Jose Luis Lizundia Askondo*

## **OHARRA ETA ESKERRAK:**

*Aranaren EGUNARIA-k bi zati ditu, 1.300 orrialde danera eskuizkribuan. Lehena gaztelaniaz idatzi zuen, bigarrena euskaraz. Nik lehena beste era batera moldatu dut, kontaera gisa, eta euskarara aldatu, noski; euskara batura, zer esanik ez. Baina irakurleak han-hemen topo egingo du batuak ez diren hitzen formekin. Arrazoia da horiek Aranagandik zuzenean harturiko zati edo esaeretan daudela, aipamenetan, eta horregatik kakoen artean ezarriak; esate baterako zenbait toponimo, "Turreta", "Abadiano", "Goyaz", eta abar. Hori lehen zatian, bigarreanean euskaraz idatzi zuenez gero, nik aski izan dut grafia –eta grafia bakoitza– gaurkotzea, morfologiari eta sintaxiari dagozkionak ukitu gabe.*


*Ez bedi harri irakurlea, otoi, baldin bizpahiru zati lehen irakurriak baditu han edo hemen; "berri iakitera bezala" atera nituen; ez eta, baldin konbentu usai pixka bat hartzen badio ezinbestean liburuari.*

*Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Aita Egilleorri, Loiolako artxibariari, jatorrizko testu lodia behar adina denborarekin neure baitan edukitzen utzi zidalako; Jose Luis Lizundiari, liburuaren hitzaurrea, eta Jose Antonio Arana Martijari, azken hitza oratu dutelako.*

Patxi Altuna S.J.

**Jose Ignacio Arana:**  
**EGUNARIA**





Berorrek dioen bezala "I. Parte": 1800-1867

# I. ATALA

## HAURTZARO - GAZTAROAK

### (1838-1866)

#### 1. AURRETIKOAK

Haren bizitza kontatzeko izan genezakeen idazlerik hoberena dugu, eta hori ez naiz ni, noski. Ni haren idazkari soila naiz, hark idatzia berridazten eta birmoldatzen ari naizena. Berak utzi digu luzaki eta zehazki kontatua bere bizitza, ia 1.300 orrialdetako eskuizkribu, gaurdaino inoiz argitaratu gabe, EGUNARIA deritzan batean. Altxor aberats eta jori bezain ilun eta izkutua da, maiz irakurgaitza. Zerbaitegatik egon da ehun urte zoko batean, inork eskua erantsi gabe, batere lanik hartu gabe hura argitzen eta desestaltzen. Neke handia baitzuen berekin. Lehenik irakurri, ahal zenean, ez beti, eta askotan luparen laguntzaz; gero informatizatu 875 foliotan; azkenik munduaren hasierako "nahas-mahas huts" hura bezalakoari moldea eta kontakizun itxura eman.

Esan gabe doa hori izango dela liburu honen iturburu nagusia, ezin hobe. Osatua, hori bai, han eta hemen argitaratu zituen olerki mordoaz eta bertsoz, edo berak maiteago duen hitzez esateko "hitzneurtuz" edo "neurtitzez",<sup>1</sup> eta Loiolako artxiboan dauden zenbait eskutitzez eta jesuiten Erromako Etxe Nagusitik igorri dizkidaten bere bizitzaren azken urteetako beste zenbaitez.

Bere bizitzaren berri emateaz gain bere bizitoki anitzetako gertari politikoaren oihartzunak jakinarazten dizkigu; bai eta idazten ari den liburuen proba-zuzenketak, beste euskaltzale eta euskalariekin dituen harremanak,

---

<sup>1</sup> Beste liburu baten gaia dirateke horietan gehienak.

1800-1835.

3

I. Arana-tarrac. Arcotia-Larraul... &c.

Arana-tarracren izengoya Euskalerristan antina-  
 amunara da, eta leku oso onen onkin daiten  
 era dira Zubela-mendi eta Pirineo aldean, eta  
 parroian, Araban, Birmingon eta Guipuzcoan.  
 Gueuz zabaldun ran Portugalen eta American.  
 Gay onetan iracur bedi bota orribulorion artean  
 Aita Larramendi-e diena lusterarion gantico li-  
 buruetan "De la Antiguedad (s. del Ornamento)" (pag. 26). (1)

II. Jose Francisco de Arana, aitaren abletic  
 Larraul-go Arana-etama onen ran, eta Besti-  
 bar-co lara opatua imbari ruten asabaen  
 belauuncena; Arcotian berria Bary-ehena eta  
 Barchina gaudario dioten beela. Dana dala, onen  
 era Francesen contra lara naicua guida kemo-  
 ran euntida onen asieran eguin beasirandis  
 ruben, eta bein-batean ayen atzaparrotatic  
 ibay batera saltata igas-eguin ere zuen. Gue-  
 rra pakedemboran bere eheco lambide ta ara-  
 roai orpoz-orpoz jarrastoric, prestatarion guci on  
 an bere somere eci ta aci itubien. Larago-  
 ran garay artan cegoan Ama-Virginea Porti-  
 llo-caron anagtarion eta cofradion eheceuae

(1) Bt. F. de Arana fabrika-egortico martirio, s. de la vida de Arana. Vt. Arana  
 de ora onen, s. F. de Arana, s. de Arana American. Bt. de Arana, s. de Arana, eta bota  
 miltura bitaumbite berde orrotico bira.

Testuaren hasiera: asaben berri.

mojen Kongregazio berri bat asmatzeko eta sortzeko lanak, eta lantegi horretako bidean aurkitzen dituen oztopoak eta topatzen dituen emakume pegakorrek eta sortzen zaizkion burukomin saminak eta abar. Ez da beraz ikerlanik egin behar Aranaren bizitza kontatzeko, bakanketa eta hautalana egin behar da. Ez baita dena garia bere izkribuan, lasto ugari ere badago eta ordu askotako lana da bata eta bestea bereiztea eta gero moldea ematea.

Nik liburu enea baino harena gehiago den honetan, gauza gutxi ezarriko dut neure baitatik. Kontatzeko modua aldatuko dut, hori bai. Hark "Egunkaria" delako liburu motan kontatu ohi diren moduan esan ditu mila gauza -- berriki hil dira Ernst Jünger eta Julien Green, "Egunkari" unkigarrien, literatur mota gutxi estimatuaren, idazleak --; nik beste modu batera, kontakizun edo kontaera liburuetan esan ohi diren modura, adieraziko ditut ahalean.

Helburu honekin, batez ere: jaio zeneko mendeurrena zela eta, Aita Aranari bere herrian 1996ko abenduaren 20an, Euskaltzaindiak eta bere herriak egin zioten omenaldian Jose Antonio Arana Martijak esan, eta gero EUSKERA aldizkarian argitaratu (XLII, 1997 1+2, 13. or.) zuen bezala, baitatik "euskal idazle, olerkari, hizkuntzalari eta historiagile" eta horrez gain "XIX. mendeko bibliograforik onenetakoa" izan zen Aita Jose Inazio Arana Irazusta azkoitiarraren bizitza eta obra ezagutaraztekoarekin.

Bestela esan: mugaz haraindiko Bonapartek, van Eysek, Georges Phillipsek, d'Abbadiek, Duvoisinek, Dodgsonak, Intxauspek, Juan Leon Lizardik, Julien Vinsonek; bai eta honaindiko Lardizabalek, Agirrek, Antiak, Urruzunok, Arzakek, Kampionek, Soroak, Arresek eta abarrek; halaber Azkuek, Manterolak, Txomin Agirrek, Karmelo Etxegaraik eta Sabino Aranak behin eta birritan kontsultatu; eta arrotzen artean Zorrilla Josek, Rubio y Ors Joaquinek, Sardá y Salvany Felixek, "El Concilio III de Toledo" idatzi eta Aranari itzularazi zion Simonet Fco. Javierek, eta izenik gabe aipatzen duen Alemaniako kontsul Durangon, bai eta Berlingo Unibertsitateko EUSKARA aldizkarian idazle zenak, eta azkenik garai hartako predikari ospetsuenak ziren Baartelek, Pagadizabalek, Orkaiztegik, Makazagak eta Praderak ezagutu eta bere adiskidetasunaz ohoratu zuten gizonaren oroitzapena ez dadin gure artean itzal eta suntsi. Gutxi baitira, egia esan, baldin inor bada, joan zen mendean hark adina lan euskararen alde egin eta mende honetan hain gutxi ezagutzen diren euskalariak.

Aita Villasantek honela deskribatzen du Aita Arana bere *Euskal Literaturaren Historia*-n, 284. or.: "fué sin duda de los más profundos conoedores de la literatura y bibliografía vascas. Cultivó también asiduamente la

poesía". Honela ere bai: "Uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1880" (ib.).

Lehenago, Aita Arana hil eta berehala, Aita Felipe Zugazagak, Aranarekin Loiolan bizi izanak, Hilberri bat argitaratu zuen Resurreccion M<sup>a</sup> de Azkuek eskatuta, honek sortu berria zuen *Euskalzale* aldizkarian. Aita Zugazagaren idazlana EGUNARIAren lehen orrialdeetatik hartua da. Beraz haren lantxoak eta ene liburuak iturburu bera dute eta horregatik dute elkarren antz pixka bat lehen lerroetan. Nik hark baino lan handiagoa egin dut, baina bien edantegia bera da, luze-laburrak gorabehera.

Irakurleak edantegi horren egiturari eta taxuari antzeman diezaion, jakin beza Aranaren eskuizkribuak bi zati handi dituela. Lehenak, gazteleraz idatzia, hiru atal ditu bere aldetik. Lehen atala, 48 orrialdekoa, aitonen eta gurasoen eta bere 1838ko jaiotzaren berri ematetik hasi eta 1867. urtera luzatzen da. Bigarren atala urte horretatik hasi eta 1872garrenerainokoa da eta 195 orrialde hartzen ditu. Eta hirugarren atala 1873an hasten da eta 1884an bukatzen eta 474 orrialde besarkatzen. Beraz, 717 orrialde dira danera, Biblia deitu ohi den gisako paper mehean idatziak.

Hori gazteleraz idatziriko lehen zatia, zeren bigarren zatia, 1884an hasten dena, osorik euskaraz idatzia baitago. Honek 563 orrialde ditu berak bakarrik eta bera da izkribuaren 4. zatia bere osoan: 1884-1891 biak barne, alegia. Ez du barne-zatirik, baizik urte bakoitzaren bukaerak eta berriaren hasierek seinatzen dituzte mugak, azkena 1891garren abenduaren azken eguna. Eta hor amaitzen da EGUNARIA, gezurra badirudi ere, zeren badakigu 1896an hil zela. Gogaitu egin ote?

Jose Antonio Arana Martijak lehen aipatu omenaldi berean esan zigun eta gero EUSKERA berean argitaratu, Azkue liburutegian dagoen Aranaren *Ensayo de una Bibliografía Bascongada*-ko 1363 fitxetatik azkena Azkuek 1896an argitaratutako *Proyecto de Ortografía*-rena dela. Hortik ondorio hau ateratzen du: badakigu Jose Inazio Arana hil arte jarraitu zela fitxatze lanean.

Areago dakigu, diot nik: hil zen arte aritu zela EGUNARIA ere idazten, beste paper-sorta guretzat betiko galdu batean, agian. Hona zergatik. EGUNARIA hasi aurreko orrialde, zenbaki erromatarrez markatuetatik XXV.ean, hitz hauek irakurtzen ditugu:

"1892. De exercitiis an. 1892, vide EGUNARIA, el 7 de Setiembre de 1892. Propositorum compendium.

1893. De exercitiis et propositis, vide EGUNARIA, 24 de Set. 1893.

1894. De exercitiis et propositis, vide EGUNARIA, 7 de Set. de 1894. Asmo doneak.

XXV

1892. De exercitiis an. 1892, vide Egunaria, el 7 de  
Septiembre de 1892. Proposicionum Compendium.

1893. De exercitiis et prop. vide Egunaria, 26 de Set. 1893.

1894. De exercitiis et prop. vide Egunaria, 7 de Set. de  
1894. Anno deusale.

1895. De exercitiis et prop. vide Egunaria, 7 de Diciembre.

De 1895. De exercitiis et prop. <sup>1896</sup> vide Egunaria.

1896. De exercitiis et prop. 1896, vide Egunaria  
22 Septiembre.

Oñako bost azken urteetako gogo-jardunen berri jakiteko EGUNARIA-ra igortzen gaitu.  
Beraz hil arte aritu zen hori idazten.

1895. De exercitiis et propositis, vide EGUNARIA 7 de Dic. de 1895.

1896. De exercitiis et propositis 1896, vide EGUNARIA 22 Septembris".

Latin erraza da hori. Ikusten denez, bere bizitzako azken bost urteetako gogojardunen berri jakiteko, EGUNARIAko hor ipintzen diren orrialdeetara igortzen gaitu. Beraz azken bost urteetako EGUNARIA ere idatzi zuen. Non dago, ordea? Badakigu 1891ko azkenaldean bere Probintzialak eta Erromako Aita Jeneralak zigortu zutela bidaliz bizitzera Burgosko Oñara, iada orduko Leongoaren ordezkari Teologia Fakultate bihurtua zenera. Han 1896ko abenduaren 19an hiltzean, zer egin zen azken bost urteetako orri-mordo hartaz? Zergatik ez mordo hori guri heldu zaigun EGUNARIAri josi? Edota bereiz josi, tomo lodiegia gerta zedin beldur baziren? Zer egin zen eta non da? Ez dakigu deus ere, ez eta egunen batean Loiolako edo Deustuko zokoren batean agertuko bada ere, zeren Oñako etxea jesuitek ixtean eta saltzean barreiatu baitziren hango liburutegiak.

## 2. HAUR ONGI HAZIA (1838-1854)

Azkoitian sortu zen 1838ko maiatzaren 26an, Elizak San Felipe Neriren festa ospatzen duen egunean, berak bere EGUNARIAn urteoro gogorazi ohi digun bezala. Jose Inazio ezarri zioten bataioan izena, nahiz amak "Iñigotxo edo Jox-iñixio" deitzen omen zuen; berak gehienetan "Joseinazio" erabiltzen du, baina "Iñigo" ere bai behin bederen.

Aiton-amonen berri emanez hasten da. Aitona aitaren aldetik Jose Franzisko de Arana, "Larraulgo Arana-etakua omen zan eta Beotibarko baza ospetsua irabazi zuten asaben belaunekua; Azkoitian berriz Baroi-etxekua edo Baroikua, gaurdaino dioten bezela", diosku bilobak. Haren lehen emazteari Gabriela Larrañaga zeritzan eta bi seme izan zituzten, Jose Manuel eta Franzisko. Gabriela gazterik hil, ordea, eta aitona berriro ezkondu zen Maria Antonia Larramendirekin, zeinek beste seme bat, Jose Inazio, eman baitzion, iloba jesuitari izena emango ziona.

Irakurleen ezagutzarako diot neure aldetik "Baroikua" izenez ezagutzen den etxe bat baino gehiago dela Azkoitian eta gure Jose Inazio zela Errebalean, Santa Klara konbentu ondoan dagoenekoa eta Santa Kruzetik ez urrutikoa. "Baroy-bekoa"-n behin lo egin zuela esaten digu. Errebalekoa bera al da hori ala beste bat? Halaber "Dukekoa" izeneko etxea ere bazela eta badela Azkoitian, "Aingeru Guardako" ermita baino goraxeago, EGUNARIAn

behin baino gehiagotan aipatzen dena. Han bizi ziren Gamundi senar-emazteak, Aita Aranaren adiskideak, eta haienean afalduko du behin baino gehiagotan; are han bizi dira bizpahiru jesuita gainerakoek erbestaldian.

Hiru semeetatik bi, Jose Manuel eta Jose Inazio, etxean omen zeuzkan aita berekin; "Franzisko berriz Valladolidko Kanzillari Errealaren aldean kargudun". Hiruretan zaharrena, Jose Manuel, gure Jose Inazio jesuitaren aita, Albisturen ezkondu zen 1835eko urtarrilaren azken egunean, Artola zeritzan Amezketa auzo edo baserri bateko alaba Josefa Dolores de Irazustarekin.

"Bitartean", dio eskribuak, "D. Carlos Vgarrenaren aldeko gerra aurrera zihoan Zumalakarregi Euskalerrian buru hotsandiko zala, eta Jose Manuel Aranak ere" -- aita, alegia -- "armetara joan behar izan zuen...".

Zortzi seme-alaba izan zituzten, zazpi seme eta alaba bakarra, gazteena. Gure Jose Inazio danetan bigarrena zen eta, berrogei eta hamazortzi urte bakarrik bizi izan bazen ere, senide guztietan gehiena bera bizi izan zen. Beste anaia bat ere, Jose Antonio, hirugarrena, jesuita egin zen eta gazterik Manilara destinatu zutelarik, han hil 26 urte zituela. Jose Inaziori idatzi zion haren eskutitz batekoak dira hitzok: "Omnes multa quaerunt de "Jossiñisio", bere forma maitagarri eta guzti ("mundo guztia zure galdezka ari zait", alegia). Jose Joakin, laugarrena, herri-apaiz izan nahi zuela eta, Arantzazun, Iruñean eta Salamankan aritu zen ikasten, Jose Inazio bezala, baina 1859ko udan Azkoitian hil zen uztailaren 3an. Umetan hil ziren Jose Luis, Jose Remigio, Jose Miguel eta Maria Luisa, arreba txikia.

Jose Inazioz gain urte mordoxka, 44, bizi izan zen bakarra Antonio Maria zen, zortzi senideetan azkenaurrekoa eta urte askotan zehar Jose Inaziori munduan gelditu zitzaion senide bakarra. Ez da harritzeko suharki maite eta haren heriotza saminki deitoratu izatea, Durangon hil ondoko egunean jakin zuenean. Diodana sinesteko, aski bedi jakitea Aita Probintzialak hiru egun pasa etxera joaten utzi ziola eta ondoko egunetan lagunak dolumin-karta mordoxka eskuratu zitzaiola; hiru bakarrik aipatzeko, Arzak, d'Abbadie eta Sabino Aranarena.


Jose Inaziok haurtzaroa Azkoitian eta Amezketa ahaideen artean igaro zuen. Azkoitian "amaren titia laga beharrean arkitu zan eta Trokotxoko eta Aranburuko etxeko andreak bere inude euki zituben" Amezketara arte. Lauzpabost urte zituela ekarri zuten gurasoek berriz etxera eta hartu zuen Sendotzako Sakramentua. Ez zituen edozein izan aita-amabitiak: Konde Valleko senar-emazteak, alajaina, Murua jauna eta Gaitan de Ayala andrea. Etxean "hazi zuten ederki guraso maiteak".

Bitartean aitaren anaia Jose Inazio Azpeitiko Paula de Unanurekin ezkondu zen. Hiru alaba izan zituzten eta hirurak munduratu ahala hil, neska



2)

-beti nere pensakizun <sup>originen</sup> gogo asmo ita eta  
eguite qui-guiac. *Alabiz.*



Ahaide hurbilen leinu liburua.

txiki zirela. Izeba Paula alargun hau Jose Inazio jesuitak oso kuttuna zuen. Azpeitian bertsoak bildu eta osabari bidaltzen zizkion eta elkarri etengabe egiten eskutitzak, EGUNARIAren kontraerak dirauen bitartean. Hiru alabatxoak ez ezik, senarra ere laster galdu zuen, 1856an, kolera denboran.

Lehen letrak herriko maistra, San Jose elizondoan bizi zen Gabrielarekin ikasi zituen, eta sei urteko zela, maisu jaun Barrutia zeritzanaren eskolara pasa. Eskola zaharretik, Jesusen Lagundiak han zeukanetik, Elizatariko berri-  
ra aldatu zen laster, baina aldi berean "kontu ateratze eta esku letrak" -- hala deitzen ditu berak -- hobeki ikasteko, D. Fr. Jose, Marsalgoan bizi zen fraidearekin, eskolak hartzen hasi zen. Oroitzen da nola, oso mutiko zela, joan zen aitarekin Bilbora behin edo bitan; baita ere nola izan ziren urte haietako batean, 1849an, Azkoitian Probintziko Junta edo Batzarrak.

Osasun erkin samarragatik edo etxeko semeen zama pixka bat arintzeagatik, Ezkiora eraman zuten gurasoek, ahaidea zuten eta hango maisu zen Jose Maria de Azpiazurengana. Gainera amaren izeba zahar batzuek ere han bizi ziren. Zortzi edo bederatzita urte zituen orduan mutikoak eta hamalau hilabete egin zituen Ezkion. Ormaiztegira inoiz edo behin Meza entzutera jaixten omen zen, "nun Zumalakarregi apaiz jaunaren meza aitzen zuen". Han zegoela, gertatu omen zen Errapitako karlisten altxaera eta inguru hartan ere zerbait mugitu omen zen bat edo beste.

1849garren urteko udan etxera ekarri zuten gurasoek berriro eta ordu batzuetan "erakuste apartekoak hartu-azi ziozkaten" semeari Barrutia maisuarekin; baita dibujo-eskola batzuek ere Eizagirre jaunarekin. Hainbat seme-alabaren amaren osasuna akitua eta unatua zegoen nonbait eta, 1850garren urtean ustegabeen ama hil zitzaien, aita Bilbon zen egunetan preziski.

Asko luzatu gabe, 1850ean, aita berriz ezkondu zen Asteasuko emakume Josefa Antonia Udakiolarekin eta denbora gutxian bi alaba izan, Nikolasa eta Justa, eta, handiagoa dena, urte gutxiren buruan, mutiko batez erditzean, hil zitzaion bigarren emaztea ere. Juana Acha, Rafaeltxo, eta Patxi "Tole" Usabiaga ere maiz agertzen diren ahaideak dira.

Albistur izan zuen hurrengo ikastokia gure Jose Inaziok. Han ba omen zen apaiz koadjutore D. Esteban Zelaieta, gramatika irakasten aritzen zena, eta hara jo zuen gure Jose Inaziok. Hau joan orduko, ordea, beste bat, Bilabonako Pedro Manuel Echabeguren, gero jesuita egin eta Puerto Ricon hil omen zena, ari omen zen harekin gramatika ikasten. Elkarrekin urtebete bizi, elkarrekin jardun eta, D. Estebanekin gramatikaz gainera, D. Felix de Eleizgarai herriko organistarekin eta haren seme D. Toribio, gero Gasteizko Katedralean organista izango zenarekin, ikasi omen zuten musika. Harreman

handiak izango ditu hauekin Jose Inaziok Loiolan biziko den urteetan batik bat, bai eta elkarlanean kantu eta letra ez gutxi antolatuko. Diodan bidenabar Eleizgaraitarrak orduan eta gero ia gaurdaino organista azpeitiarrak izan direla.

Hurrengo pausua, hurrengo ikastokia -- inongo maisuen ikasgaiak denbora gutxian iresten baitzituen nonbait -- Arantzazu izan zen, eta han Frai Domingo de Albeniz irakasleak, Azkoitiko semeak, irakatsi zizkion Giza-zientzia edo Humanitate direlakoak eta latin gehiago. Hamasei laguneko taldea aritu omen zen urte hartan Albeniz irakaslearekin gai horiek ikasten eta hango bakean eta bakardadean aurkitu omen zuen "la cuna dichosa de su vocación religiosa". Tiple on-ona zen beste semea ere hara igorri omen zuen aitak gramatika eta musika ikastera, eta ez omen zien gutxi gozarazi hara joaten zirenei "con su magnífica voz de tiple".

Arantzazutik Iruñera: hala erabaki omen zuten gurasoek. Aurrera gabe ohar gaitzen puntu batean: Baroiko diru-egoera ez zen, itxura guztien arabera, nolana hiko. Jose Inazio Iruñera bidaltzeko, Jose Antonio tipleak senideetan hirugarrenak Arantzazun aurrera segitzeko eta laugarrena Jose Joakin urte hartan Humanitateak ikasten hasteko, diru boltsa handi samarra behar zen. Kontua da gure Jose Inaziok eta bere lagun Etxabegurenek jesuita izateko erabakia hartua zutela eta Loiolan lekua eskatua. Hango Buruek, Aita Moreyk eta A. Olaskoagak, bata hartu zuten, baina Jose Inaziori Iruñean beste urtebete ikasteko eta orduan hartuko zutela esan. Hamabost urte bakarrik zituen.

Aranak berak non edo non "Batzar Hazitegi" deitzen duen Iruñeko Seminario Konziliarrean bi gairen matrikula egin zuen 1853-54 ikasturtean: 3. mailako latinarena eta gerkeraren hastapenena. Bizi zen etxe bereko kideak laster egin zituen lagun: bata inprimaria Nikasio de Goienetxe eta bestea Juan Bautista Olaetxea, gero Ikastegietako erretore izango zena. Eguberrietan beste lagun, nor zen ez dioen batekin, etxerantz abiatu ziren egun seinalatu haiek gurasoekin igarotzeko, eta hara non egiten duten topo guardia zibilekin Lekunberrin. Hitz bi egin eta aurrera joaten utzi zieten eta iluntzerako Tolosan ziren lo egiteko eta gure Jose Inazio Azkoitian biharamunerako.

Egun batzuk han igaro eta Iruñera berriz tipi-tapa 1854. urtea ia sartuan. Ez zitzaion berehalakoan iritsi hain irrikatzen zuen hurrengo uda. Loiola zuen bere ametsa. Ez du azterketa konturik aipatu ere egiten. Etxera itzultzeko garaia heldu zitzairenean, trabak aurkitu zituztela, hori bai. Esparteroren altxaera gertatu berria eta, hiritik ateratzen ez uzten, San Nikolas Atea itxiagatik. Halako batean gauzak baretu zirenean eta San Nikolas Atea ireki, hor dihoaz bi gazte, handik urte batzuetara elkarrengandik kilometro batzuk

bereiz dauden bi herrixketan, Loiolan eta Errezilen, urte asko biziko ziren eta elkarren lagun min eta elkarren laguntzaile izango ziren, apaiz Juan Bautista Pagadizabal -- gero Errezilgo Erretore izana -- eta gure Jose Inazio. Azpirozko aldapan Donostiatik Iruñera zihoan tropa-andana batekin egin zuten topo. Bidaniara iritsi zirenean, han laguna utzi eta jarraitu zen azkoitia-rra bere herrirantz.

### 3. HERRITIK JAURTIKIA (1854-1856)

Lehen lana Loiolako agintariak zirikatzea izan zen. Ez zeukan ahaztua zer agindu zioten. Baina hitza jateko asmorik ez izanda ere, Jose Inazio ohar-tzen zen urtebetean jesuitentzat -- eta beretzat -- gauzak asko okertu zirela, agintariak zalantzak izan zitzaizkela eta bere Loiolan sartzea arrisku handian zegoela. Egunetik egunera handitzen eta zabalagotzen zihoazen Espainiako Gobernuak jesuitak erbestera jaurtikiko zituelako marmarrak. Hori gertatzen bazen, kito Arana jesuita izateko hartzea, ordukoz bederen!

Baina ez; marmarrak marmar, irailaren 11an sartzen utzi zioten eta jesuita izaten hasten, eta hamabi egunen buruan sotana jantziarazi. Ez ordea orduarteko beste nobizioek soinean zeramatena bezalakoa, baizik jesuita frantsesek jantzi ohi zutena, beldurrez hara abiatu behar izan lezaten egun gutxiren buruan. Halaz eta guztiz ere, ezer gertatzen ez balitz bezala, jesuita berriek betidanik egin behar izaten dituzten hilabeteko gogojardunak egiten hasi ziren. Baina oraindik lehen hamabost egunekoak burutu gabe zituztenean, bertan behera utzi eta erbestera abiatzeko pardelak egiten hasi behar izan zuten. Azaroaren 27an abiatu zen Jose Inazio Loiolatik beste lagun taldetxo batekin. Irunen geldialditxo bat egin zuten, Lardizabaldarrek hala nahita; hauek "en un mirador junto al camino real, obsequiándolos" hartu omen zituzten. Baionatik gauerdian atera eta goizaldera iritsi omen ziren Akizera eta egun gutxiren buruan handik Hagetmau-ra aldatu.

Etxe berrian nola edo hala kokatu zirenean, gogojardun Loiolan hasi berritan etenei martxoaren 6an ekin zieten berriro eta dohatsuki amaitu. Udaren azken aldean Nobiziaduko lehen urtea burutu zuen Aranak, bigarringo zeregin berriekin hasteko; alegia, urtebetean ikusi gabeko ikasgaiak eta liburuak berriro hartu eta, Erretorikari eta Poetikari ekiteaz gain, Humanitateak eta gerquera ahantzi samarrak berriztatzeko. Bi urte ondoko boto erlijiosoak 1856ko irailaren 14an egin zituen eta gero ere Erretorika eta Poetika ikasten jarraitu, harik eta hurrengo udan bien azterketak egin zituen

Diario episc. 1854-1858. E...

Reseña de visitas a Episcopios y Capitanías.

1854. Loyola. - H. Gijón de S. Sebastian desde el 11 de Set. hasta el 19 del mismo.

1854. Loyola. - H. Gijón de mar desde el 5 de Nov. hasta el 22 del mismo, interrumpida por la capitanía los 16 días. Del 22 al 29.

1855. Xagotman. - H. Gijón de mar 25 y 26 semanas, desde el 6 de Mar. hasta el 19 del mismo día de San José. Del 19 al 27.

1855. Xagotman. - Gijón de Comand. desde el 19 de Set. hasta el 27 del mismo.

~~1856. Xagotman. Desde el 19 de Set. hasta el 27 del mismo.~~

1856. Xagotman. - Desde el 19 de Set. hasta el 27 del mismo.

1856. Xagotman. - Gijón de Com. de 21 a 29 de Setiembre.

1857. Xagotman. - Com. de mar 13 al de mar. 22 al de

1857. Xagotman. - Gijón de Com. del 1 al de Agosto.

1858. Salamanca. - Com. de mar 14 al de mar. 23 del 14 de Agosto y al

1858. Salamanca. - Gijón de Com. desde el 20 de Set. hasta el 8 de Set.

1858. Salamanca. - Com. 17 al 6 de mar. 22 al 12 de mar.

1859. Salamanca. - Gijón de Com. de S. Sebastian desde el 20 de Set. hasta el 27 del mismo.

1860. Salamanca. - Com. 17 al 6 de mar. 22 al 7 de mar.

1860. Salamanca. - H. Gijón de Com. del 7 al 13 de Agosto.

1861. Carrión de los CC. - Com. 17 al 20 de mar. 24 al 27 de mar. 1. 2. 3. 4.

1861. Carrión. - Gijón de Com. del 16 al 23 de Agosto.

1862. Carrión. - Com. 17 al de mar. 22 al de

1862. Carrión. - Gijón de Com. del 16 al 23 de Agosto.

1863. Carrión. - Com. 17 al de mar. 22 al de

1863. León. - Gijón de Com. del 13 al 21 de Setiembre.

1864. Loyola. - Com. 17 al de mar. 22 al de

1864. Loyola. - Gijón de Com. (indiferente) del 1 al de Agosto.

1865. Loyola. - Com. 17 al de mar. 22 al de

1865. Loyola. - Gijón de Com. del 26 de Set. al 2 de Setiembre.

1866. Loyola. - Com. 17 al de mar. 22 al de

1866. Loyola. - Gijón de Com. del 23 de Set. al 1 de Set.

1867. Loyola. - Com. 17 al de mar. 22 al de

1867. Loyola. - Gijón de Com. del 23 de Set. al 1 de Set.

1868. Loyola. - Com. de mar 17 al 6 de mar. 22 al 29 de mar.

1869. Loyola. - H. Gijón de Com. del 23 de Set. al 6 de Set. (interrompida por la Capitanía del 26 de Set.)

1869. Loyola. - Com. 17 al (privado) del 8 de mar. 22

1870. Zaragoza. - Com. 27 al 7 de Julio (en la cap. del Sr. de Aguilafuente)

1870. Zaragoza. - Com. 17 al 6 de mar. 22 al 29 de mar.

1870. Loyola (indiferente). - H. Gijón del 18 al 20 de Julio.

1871. Orduña. - Com. 17 al 6 de mar. 22 al 29 de mar.

1871. Orduña. - H. Gijón del 23 de Julio al 31 del mismo.

1872. Orduña. - Com. 17 al 6 de mar. 22 al 29 de mar.

1872. Orduña. - Gijón del 11 de Set. al 19 del mismo.

1873. Orduña. - Com. 17 al 6 de mar. 22 al 29 de mar.

1873. Orduña. - Gijón del 21 de Set. al 8 de Set.

1874. Orduña. - Com. 17 al 6 de mar. 22 al 29 de mar.

1874. Orduña. - Gijón de Com. desde el 11 al 18 de Set.

1874. Orduña. - Gijón de Com. desde el 11 al 18 de Set.

1875. — Leizor. — Ejer. de año, 1.º al 6 de Mayo. 2.º al 29 de Junio.  
 1875. — Leizor. — Ejer. de año, del 17 al 26 de Julio.  
 1876. — Leizor. — Ejer. de año, del 18 al 23 de Dic.  
 1877. — Bayanne. — Ejer. de año, del 8 al 16 de Set.  
 1878. — Bayanne. — Ejer. de año, del 1.º al 9 de Setiembre.  
 1879. — Bayanne. — Ejer. de año, del 1.º al 9 de Setiembre.  
 1880. — Orduña. — Ejer. de año, del 7 al 15 de Agosto.  
 1881. — Orduña. — Ejer. de año, del 7 al 15 de Agosto.  
 1882. — Orduña. — Ejer. de año, del 7 al 15 de Agosto.  
 1883. — Loyola. — Ejer. de año, del 11 al 27 de Nov.  
 1884. — Loyola. — Ejer. de año, del 5 al 13 de Noviembre.  
 1885. — Orduña. — Ejer. de año, del 20 al 28 de Noviembre.  
 1886. — Loyola. — Ejer. de año, del 15 al 23 de Noviembre.  
 1887. — Loyola. — Ejer. de año, del 16 al 24 de Setiembre.  
 1888. — Loyola. — Ejer. de año, del 31 de Agosto al 8 de Setiembre.  
 1889. — Loyola. — Ejer. de año, del 29 de Agosto al 7 de Setiembre.  
 1890. — Loyola. — Ejer. de año, del 31 de Agosto al 8 de Setiembre.  
 1891. — Oña. — Ejer. de año, del 21 de Set. al 29 de Setiembre.  
 1892. — Oña. — Ejer. de año, del 21 de Agosto al 29 de Setiembre.  
 1893. — Oña. — Ejer. de año, del 22 de Set. al 30 de Setiembre.  
 1894. — Oña. — Ejer. de año, del 31 de Agosto al 8 de Setiembre.  
 1895. — Oña. — Ejer. de año, del 20 de Noviembre al 28 de Diciembre.  
 1896. — Oña. — Ejer. de año, del 22 al 30 de Setiembre.

Urteroko gogojardunak, non eta noiz. Ipintzen dituen azkenak Oñan hil baino hiru hilabete lehenago eginak dira.

arte. Berak ez du horrelako konturik esan ohi, baina sines dezakegu atsegin handiz aritu zela gai haiek ikasten, gero *Euskal Poetika* liburua idatziko zuena. Horrenbestez amaitua zuen Lagundiko Juniorado deritzan lehen ikasketa aldia.

Bigarrenari ekiteko, Hagetmau utzi eta, Filosofia hiru urtez ikastera Salamankara joan behar zutenek hara abiatu baino lehen, Akademia Poliglota delako saio handi-eder bat antolatu zuten, oraindik han gelditzen ziren "junior" gazteagoei agur egiteko, eta bisita egitera etorri zitzairen Aita Probintzial Olaskoagari ongi etorria emateko. Han entzun ziren bospasei hizkuntzetan olerki eta hitzaldiak. Gure Jose Inaziok ere parte hartu zuen -- "poema dixit, abiturus musis postremum alloquutus et philosophiae laudes canens" -- , Poetika ikastean (Oihenartek bere emaztearen eritasunean baino) aldekoago izan zituen Musei azken agurra emanaz eta Salamankan zain zego-kion Filosofiaren ohoreak kantatuz. Guk dakigunez bere biziko lehen Poema zen, gero ondoko urteetan egingo zituen ehunka neurtitzen aitzindaria. Egokia benetan gaia! Lastima haren arrastorik guganaino ez heldu izana! Handik bospasei urtetara, anaia Jose Antoniok egingo dion beste eskutitz batean eskatuko dio Salamankan egin zuela dakien beste olerki baten kopia, honela hasten omen zenarena:

"Salamankara etorri  
ta aurrenengo lana  
gure Obispo jaunak...".

Ez du lerro gehiago aipatzen; halere ez dirudi lehengo poema bera denik. Hark gainera latinez egin dirudi, non eta ez den beste hizkuntza batean (euskaraz?) eginiko olerki baten mamia. Hala izatekotan, anaiaren eskutitzari eskerrak dakigun olerki hau izango litzateke Jose Inazioren euskarazkoetan lehena.

#### 4. TORMES ONDORA (1857)

Garai hartan Lagundiak ez zituen bere probintziak orain bezala zatituak. Probintzia hauei, Galiziatik hasi eta Nafarrorainoko guztiei, Leon, Zamora, Salamanka, Palentzia, Burgos eta Errioxa barne, "Castilla" zerizten. Junioradoa guztiek antzina Burgosen eta gero Loiolan bezala, Filosofia guztiek Salamankan egiten zuten. Batera bizi ziren, beraz, galiziarra eta nafarra, Zamorakoa eta Santanderkoa.

1857ko uda aurrera zihoan eta zeuden tokitik Salamankaraino joateko zortzi egun edo behar zituzten. Horiek horrela zirela, irailaren 1ean edo 2an, ez zaio Aranari ongi gogoratzen, abian jarri ziren kotxeetan eta Irundik 4an pasa ("notaron al punto la diferencia de trato, de modales y de costumbres entre España y Francia") eta Gasteiz, Miranda, Burgos ("a las 7 de la tarde del domingo 5"), Dueñas, Palentzia, Torquemada ("do una jícara de chocolate costó 4 reales"), Valladolid, Tordesillas eta Toro zeharkatuz, Zamorara ostegun 9aren goizeko 5etan iritsi ziren. Ordubeteko atsedenen ondoren 6,30etan kotxeetara igo berriz eta "andando por malos caminos, prados y bosques con gran traqueteo" hilaren 9aren arratsaldeko 3etan heldu ziren azkenean Salamanka dontsura.

Bizimodu berria hasi zuen han Jose Inaziok, bere bete-betekoa, igande eta gainerako jai egunetan apaiz zirenekin kartzelara eta gaixotegietara eta batez ere hurrei Kristau Dotrina irakastera ateratzen baitziren (Jose Inaziok gero biziko den toki guztietan gogoz eta suharki egingo dituen lanak). Eguberriak etxeko giro gozoan igaro eta udaberrian jesuita teologo amerikar bat han apaiztu zelarik, hari zorionak emanez *Octava Real* bat egin omen zion Jose Inaziok.

Ez zion ezerk susmarazten osasunak batbatean kraska egingo zionik. Filosofiako lehen ikasturtea eta ondoko azterketak ustez ongi eginda gero "tuvo J(ose)I(gnacio) A(rana) en los días inmediatos un ataque fuerte y repentino de sangre, que junto con los grandes calores de aquellos días degeneró en ataque cerebral que, gracias a Dios, con prestos y eficaces remedios de sangrías, nieve, etc. se pudo atajar, aunque en pocos días quedó el enfermo casi esqueleto por la mucha sangre extraída; pero recuperado casi a los 15 o 20 días con los continuos cuidados de los Superiores, en especial de los PP. Gomez y Beltrán y el médico Marcelino Rodríguez y con algunos baños de la misma ciudad de Salamanca, se hallaba en buena convalecencia al fin de Junio y principios de Julio de 1858". Geroak esango zuen hala zen.

## 5. LOIOLAN ERI (1858)

Hori ikusirik, Nagusiek bertantxe Loiolara igorri zuten "a restablecerse mejor con los aires naturales y baños de mar". Uztailaren 21ean abiatu ziren y "llegó algo cansado de tanto traqueteo de coche y bastante flaco a Loyola el 29". Erbestera baino lehen, bi hilabete eta erdi bakarrik bizia zen Jose Inazio Loiolako etxe handian, nahiz artean erdia bakarrik eraikia egon, ez osoa, gaur den guztia. Ez zitzaion, halere, berria irudituko, baina jendez urritua bai,



batez ere jesuita gaztez; han ez baitzen gehiago Frantziara ihesi joandako nobiziorik ez juniorrik.

San Inazio egunean ez zuen Elizako elizkizun handia ikusi gabe gelditu nahi izan, nahiz ez zen beheko jende artean eseri, baizik goiko balkoe-tribunetako batean. Ia damutu zitzaion joana: ordu eta hiru laurdeneko sermoia egin baitzuen apaiz gazte zela jesuita sartutako nobizio argi, zoli Nepomuzeno Lobok, gero Probintzial izango zenak.

Sorterriko aireei eta inguruko pasierei eskerrak, hobekuntza nabaritzen eta pisua irabazten joan zen egunetik egunera, baina "siguió algunos dias J. I. A. con la cabeza delicada". Hala izan behar! Pixkabana bere oldezko lantxoak egiten hasi zen tartetean, haatik; inguruko moja-konbenturen batetik neurritzak eskatzen zizkiotenean, adibidez. Hala Azkoitiko Santa Klara, bere jaiotetxe ondoko Konbentuko Abadesak eskatu zion egin zitzaion, otoi, Asisko Franziskoren zaurien gainean, eta bai egin ere.

Zer esanik ez, eguraldi ederra egiten zuen arratsaldeetan etxeoak eta gainerako lagunak ere bisitatzen zituela; emeki-emeki ibiliaz eta beti Ordenako Anai lagun bat aldamenean zuela, Lagundiko Arauek agintzen zuten bezala. Albiste onak izan zituen etxean. Orduan ikasi zuen bere anaia Jose Antonio eta Jose Joakin aurreko urteetan Carrionen ikasten arituak zirela eta lehenak jesuita izateko gogoia zuela, bigarrenak berriz herri-apaiz izatekoa, eta uda hartantxe joatekoak zirela bata Hagetmau-ra nobizio izatera eta bestea Iruñera, non izan baitzen D. Vicente Manterola jaunaren Erretorika ikasle. Albiste horiek orduan lehen aldiz ikastea eta hori baino bere etxeo berri gehiago ez izatea ez da harritzeko, seguru baita erbestera joan zenetik ez zuela etxeo eskutitzik hartu, ez eta berak etxera idatzi.

Etxera joan zen arratsalde horietako bateko pasadizu polit bat kontatzen digu, Arana gizon txikia ez zela erakusten diguna. "En el corredor de casa que da al rio tenían los dos hermanos en la pared o poste dos señales de su altura; en la primera tenía José Antonio escrito en la raya "cum Pampelone veni" (Iruinetik etortzean, alegia) y llegaba hasta la frente de José Ignacio con fecha 10 de Julio de 1857, esto es, la altura de 163 cms.; y en la segunda "cuando fuí a Pamplona", señal de José Joaquín, fecha 25 Sept. de 1858 y llegaba a la altura de José Ignacio menos 3,50 dedos, o sea, 164 cms., de modo que José Ant. tenía de alto el 20 de Julio de 1857 163 cms. y José Joaquín el 25 de Sept. de 1858 164 cms., teniendo ese mismo año José Ign. (1858) la altura de 169 0 170 cms".

Ezin esan taxu oneko gaztea ez zela. Hor daukagu ezin hobeki pintatua gure Jose Inazioren izateko modua: ezer itzurtzen ez zitzaion pertsona, dena behatzen eta ikusten zuena eta kontatzeko orduan xehetasun zalea. Udan opo-

rretan itsas-bazterrera hurbiltzea aspaldiko ohitura da hemengo jesuiten artean (Bakio eta Getaria 80 azken urte hauetako lekukoak) eta Loiolakoek garai hartan Zumaian alokatu ohi zuten etxe bat hartarako, non ez zen arrazoi bereziak gatik eta baimen bereziarekin hau edo hura beste lekuren batera joaten, Betelura adibidez, Arana bera bezala ikusiko dugunez. Taldetxoka joan ohi ziren Loiolatik Zumaia eta Jose Inaziori abuztuaren 10ean joateko esan zioten beste lauzpabost lagunekin. Hamabost egun oso eman zituen han eta "con aquellos baños, alimentos sanos, descanso y paseos de 11 a 26 de Agosto se puso muy fuerte J.I.A. y como si no hubiera estado enfermo".

Egun horietako batean Getariko Bikario jaun D. Eusebio Echanizek, beste apaiz D. Miguel Oyarzun, azpeitiarrak, gero jesuita sartuko zenak, eta Getariko alkate Larrumbide jaunak gure Aranarekin batera Askizatik jira bat egin zuten eta San Antongo gaztelua ikustera eraman alkateak. Elkanoren oroitarriak dituen latinezko hitzek bertso hau iradoki zioten Aranari:

Fede biziarekin  
Biotza alaiturik  
Eta jakinduriaz  
Burua orniturik,  
Getarian jaun andi  
Sebasti Elkanok  
Mundu guzia aurrena  
Ibilli du itsasoz.

Uste baino lehen itzuri zitzaizkion opor egun haiek eta 26an berriz Loiolara itzuli zen. Bere gisa aritu zen Salamankan baztertutako Filosofiako bigarren ikasurteko gaiak irakurtzen ("empieza sus estudios privados", dio berak), baina baditu bestelako denbora-pasak ere; esate baterako, euskarazko eskola partikularrak ematen dizkio Aita Gobernari; zenbait bisitariri Etxe Santua deritzaguna erakusten die, hala nola Gaztelu, Goikoetxea jaunei eta Oiartzungo beste bati, bai eta Manterola senar-emazteei. Hilaren 14an Puig nobizioak lehen botoak egin zituela eta OCTAVA REAL bat egin zion, eta egun gutxiren buruan, irailaren 27an, Napoleon enperadorea eta bere emazte Eugenia ezagutu ahal izan zituen, Loiolan bisitan izan zirenean. Etxe Santua eta gainerakoa astiro ikusi zuten eta alde egiterakoan "dejó una limosna la Emperatriz".

## 6. SALAMANKAN BERRIRO (1858-1860)

Urriaren 4an, astelehenean, gutxiena espero zuen eta bizikiena poztu zuen albistea eman zion A. Blas Olano erretoreak: osoro sendatua ikusten

zutela medikuek eta itzul zitekeela Salamankara bere ikasketak jarraitzera. Biharamunean abiatu ziren hura eta Madrida zihoan Anai Zabalo. "Para el viaje del H. Arana y Zabalo, éste a Madrid, tuvieron 1.500 reales". Bidaiaren xehetasun guztiak kontatzen ditu. Hona batzuk: "7, miércoles, tarde. Salida de Vitoria para Valladolid por Burgos a las 7; dos asientos de diligencia cuestan 440 reales y se pagaron". "Asiento de Arana de Valladolid a Salamanca costó 130 reales en el interior", eta abar. Hilaren 10ean heldu zen Salamankara.

Beharrik ez zuen ikasturterik galdu; esan nahi baita, 1858-59 ikasturtean Filosofia 2. maila ikasi zuen eta 1859-60an, zegokion bezala, 3a. Hil horretako egun batean, ez dio zeinetan, Manterola jaunak bere Doktor tesia irakurri eta defendatu zuen "en el salón llamado el General", eta han izan ziren ikusten eta entzuten Arana eta bere ikaskide batzuk: "hizo un discurso latino y argumentación con brillo; había estudiado antes en Toledo y era natural de San Sebastián".

Ikasturtean barrena ez ziren eskas izaten bertsoak eta olerkiak egiteko paradak, eta ugariak eta hoberenak Eguberrietan, arratseko 7ak aldean etxe-ko antzerki saloian etxe-ko lagun guztiek, apaiz zirenek eta ez zirenek, elkarrekin jostatuz eta olatuz bizpahiru ordu pasatzen zituztenean. Eguberri haietan Poesiazko Akademia batean Jose Inaziok latinezko ELEGIA bat eskaini eta irakurri zion Aita Vinader-i Guzman el Bueno-ren gainean. Aurrerago Aranak "Hamalauko" bat egin zion, botoak egin zituela eta, Lobo Nepomuceno apaizari, Loiolako Basilikan behin ordu eta hiru laurdeneko sermoia entzun zionari.

Orain arte ez digu esan etxe-ko Akademia eta gainerakoetan bertso edo olerkirik inoiz euskaraz egin zuenik, eta Salamankan egin omen zuena ere anaiaren eskutizari eskerrak ezagutu berri dugu, baina beste giro berri honetan bai: Salamankako Apezpiku berri Sr. Justo Rodrigo, gero Burgosko Artzapezpiku izanari Poesiazko Akademia txiki bat eskaini omen zioten eta Aranak gazteleraz eta euskaraz egin neurtitzak.

Nobiziadoa bukatzean eginiko botoak urtean bitan berritu ohi zituzten eta, hori zela kausa, Erretorika ikasle guztiak behartuak zeuden, guztien gelaz-gela pasatzen zen kuaderno batean poesia bat idaztera, aurreko egune-tan moldatua, noski, ez bertatik bertara asmatua. Loiolan daude gordeak urte askotako halako kuadernoak. Haietatik hartu eta argitaratu nituen behin Orixek-eta parada bertsean latinez eta are gerkeraz eginikoak, besteak beste. Orain bada, Errege egun inguruan "De laudibus castitatis" gai harturik, latinez EGLOGA bat eiho zuen gure Aranak. Ekainean Aita Jauregi Probintzial berriaren bisita hartu zutelarik, hari ere OCTAVA REAL bat dohatu zion eta igandero izaten zuten, nahiz eta Junioradoa atzean utzia izan, gerkerak eta lati-

na lantzeko -- eta lantzeko modurik onenetakoa neurtitzak egitea zen -- "Academia de lengua" zeritzaten eskola. Eta euskara lantzekoa? Ez zitzaion oraindik bere ordua heldu, baina helduko zitzaion aurreraxeago eta Aita Aranaren eskutik, hain zuzen.

Lehen Manterola jaunak Doktoregoa bezala, uztailaren 13an Pedro Aldalur azkoitiarrak Eliz-araudi edo Canonesko lizentziatura atera zuen Salamankan, horretarako agiriko azterketa bat eginez. Han izan zen entzule -- nola ez! -- gure Azkoitiko seme Jose Inazio, besteak beste.

Ezin hobeki etorri zitzaizkion, ikasturte latzaren nekeak arintzeko, irailaren hasieran Salamankatik gertu dagoen Nuestra Señora del Cueto deritzan tokian izandako udako oporrak. Hango "leche, fresas, paseos" gogoratzen zaizkio batik bat. Bai halaber Ermita hartako aldare nagusiko burni-hesian irakurri zituen bertsoak:

De aqueste campo tesoro  
De todo el cielo alegría  
De tierra exempta María  
Se escribe con letras de oro  
Dulcemente se penetra  
Que en gracia y hermosura  
Como flor es fina y pura  
MARIA al pie de la letra.

Oporretatik itzuli, ia segidan urteroko gogojardunak amaitu eta bihar-munean hasten du Jose Inaziok ikasturte berria (1859-60), Filosofiako azkena. Urteberri arteko konturik ez du kontatzen; bai haatik Gabonak ondoren berriz eskolak hasi eta Aita Vinaderri, lehenaz gain, bere ikasleek egin zioten Akademia batean latinezko bi olerki egin zituela berak. Egun haietakoxe batean hartua izan behar zuen Loiolatik bere anaia Jose Antoniok idatzita eskutitz bat, non esaten baitzion: "Empiezan a sacar los Tercios Bascongados para la guerra de Africa" eta bospasei hilabeteren ondoan beste bat berarena, esanez: "Banderas de los Tercios Bascongados depositadas en Loyola". Hori dela eta, "hizo por estos días en verso Jose Ignacio una pequeña improvisación sobre "Los españoles en Marruecos", baita beste bertsotxo batzuk ere beste nobizio batek botoak egitean.

Filosofia ikasketak amaitzean, hiru urte haietan ikasitako gai nagusi eta oinarrizkoenen "De universa Philosophia" zeritzan programa bat ematen zizun Dekanoak. Han egon ohi zen bildua 50-edo ikasgaietan, "Thesis" izendatuetan, Filosofiaren muina eta mamia ("53 en total", dio, "contando astronomía, física, etc."), eta hura gainditzea beharrezko zen, Eliz-mailan

Lizentziatu izateko. Ongi eta ohorezki garaitu zuela diosku Jose Inaziok ekaineko egun batean, eta Jainkoari eskerrak emateko latinezko Oda bat egin zuela.

Albiste txar zaparradak eraso zion Azpeiti-Azkoititik batbatean. Ikusi dugu lehen ere haren etxean heriotzak herrestan gertatu zirela: ama, esaterako, gazterik hil zitzaiola, aita Bilbon zen bitartean, eta bigarren aldiz ezkonduko aitak bere bi alabatxo, umetan hilen, bideari jarraitu ziola, aurki kolerak harrapatuta. Bada orain, Paula izebaren eskutitz batek diotsa bere senar, gure Jose Inazioren izen bereko osaba Jose Ignazio hil dela, bai eta honen alabatxo Dolores 14 urtekoa ere. Hori bakarrik ez, Jose Joakin anaia, herri apaiz izateko ikasketak egiten ari zena, Azkoitian hil zela uztailaren 3an eta azkenik bigarren ama ere, ugazama, Josefa Antonia Udakiola hil berean hil zela.

Ikasturtearen nekeak arindu behar bazituen lehen, orain horietaz gainera albiste triste haiek bihotzean egin zioten zauria sendatzen eta barneko bakea aurkitzen saiatu behar zuen ahaleginean. Ez zioten alde horretatik kalterik egin igaro udako toki berean, Santa Maria del Cueton, berriz eman zituen opor-egunek. Han tolestatu zituen zenbait bertso: bat Teologiara aurreratu zitzaizkion lagunei eginiko bertsozko agur-karta; bestea San Inazio egunean Loiolako Santuari egina. Nonahi kanporatzen zaio bor-bor olerki eta neurritzetarako duen grina ezin hezizkoa eta bizi guztian iraungo diona.

## 7. CARRIONEN (1860-63)

Eta berriari ekiteko garaia heldu zaio gure Jose Inaziori. Gazterik asko hornitu da letrazko jakinduria ez gutxiaz. Bete berriak ditu 22 urte eta orain arte beretzat ikasten aritu izan bada, ondoko urteetan inori irakasten aritu beharko du. Hau da "maisualdi" edo "maisutxiki aldi" garaia deitzen zaiona. Lagundiak jesuita gaztea igortzen du, Filosofia bukatu eta, apaiz egiteko Teologiari ekin aurretik, bere Probintzian dituen ikastetxeetatik batera: ea nola moldatzen den ikasi dituen gaietatik hau edo hura mutiko taldexka bati irakasten.

Palentziako Carrion delako herrixkan Jesuitek orduan zuten ikastetxera bidali zuten, 50 urte handi geroago Orixe ere egingo zutenera. Ertaineko mutikoei gramatika eta latina eta antzeko gaiak irakastea suertatu zitzaion lehen ikasturtean, 1860-61ean. Abiatu baino lehen abuztuaren 15ean Ama Birjinari Oda txiki bat egiten dio, agur moduan, eta egun bereko arratsaldeko 6tan abiatzen da kotxean bere helbururantz. Ez doa bakarrik, beste bi gazte

ditu bidelagun. Biharamuneko goizeko 7tan heldu ziren Valladolida (hala dio Jose Inaziok behin eta berriz izen horren adlatiboa), handik trenez Palentziara eta Fromistara eta handik zaldi banatan Carriona zuzentzeko, non hartuak izan omen baitziren arraiki.

Han ere olerkiak olerkien gainean eta neurtitzak neurtitzen gainean egiteko parada izango du, batzuetan Jaialdi agirikoetan mutikoen harridura ez txikiarekin. Irailaren 27an bere anaia Jose Antoniok Loiolan Nobiziadu ondoko botoak egin behar dituela? Olerki gaztelerazko bat Jose Inaziok Palentziatik, zorionak emanez. Palentziarako Apezpiku berria, Jeronimo Fernandez, hautatu dutela eta bisita egitera joatean, ikastetxeko mutikoei jaialdi bat eskaini nahi diotela zorion eta poz-agurrak emanez? Jose Inazioren bertso saio bat ezin falta. Irailaren 30ean, San Jeronimo egunean, Apezpikuak bere santu-eguna ospatzen duela? Etxeko jesuita guztiek bazkaritan zorionak eman, eta Jose Inaziok eta bestek neurtitzak eskaini. Ikasturte bukaeran ohi-tura dela etxeko eta kanpokoen aurrean Literatur-ekintza bat egin dezaten mutikoei, beren irakasleek lagundurik noski, txosten, olerki eta lantxo batzuk irakurri? Urte hartako gaia "Eliza erasotua eta San Pedro" izan zen eta hartarako bi Oda prestatu behar Jose Inaziok: bata frantsesez eta bestea latinez.

Udako oporrik aipatu gabe, ustez osasunez ongi zebilen seinale, hurrengo ikasturteko eginbeharrak zein izan zituen kontatzen digu: bat, ikasleen begirale jolas-orduetan; bi, maila txikikoetan inoiz eritasunez-edo gertatzen ziren irakasle hutsuneak bete, haiek ordezkatzuz, eta azkenik lehenbiziko aldiz, guk dakigula, baina gero urteetan zehar ia biziko den etxe guztietan izango duen kargua; hau da, etxeko liburuzain izatea.

Leridatik Jose Escolá apaizak, "Director de la Academia Bibliográfica Mariana" omen denak eskatzen dizkio euskarazko neurtitzak eta, egin eta igorri bezain laster, bai Escolák berak, bai Aita Probintzialak zorionak ematen dizkiote. Txolarteetarako beste egiteko batzuk kausitu ditu: argazkigintzan aritu, italiera ikasi Don Nicolas Nicolairekin eta litografia pixka bat ere bai Anai Alcalarekin.

Orduarte eginiko literatur-lan guztiak deus ez ziren, uda hartan bere gain hartu zuen obrarekin berdinduz: "empieza también a componer la TRAGEDIA DE S. PELAYO". Aurrerago ere izango digu honen berri, orain hasi baizik ez baitu egin. Olerki samalda darraikio ondoko 1861-62ko ikasturteko hilabeteetan: Abenduko Ama Birjina Orbangabe sortuaren egunerako; urteoro bezala Eguberrietako arrats luzeetako jostaldi eta antzerkizunetarako; Salamancan ohoreskatu nahi duten Terueleko Apezpiku berri D. Francisco de Paula Ximenezentzat; San Jose egunean bere santu-eguna ospatzen duen Aita

Probintzial Jose Maria Jauregientzat, eta, gehiagoren artean, ikasturtearen amaieran izan ohi zela ikusi dugun Akademiarako "una despedida <ADIOS, CARRION>, cantada muy bien por los músicos dirigidos por D. Leon de Elorza". Berea dela ez dio, baina hala izateko itxura guztiak ditu; beste honako honek ere bai: "Por julio hizo Arguiñano Pablo imprimir la marcha de S. Ignacio en vasco y castellano".

Mutikoekin txangoak eginik, araka itzazu Gaztela lehorreko eremu zelaiak hona eta hara; eta, ibili eta ibili, har ezazu inoiz bazterra jotzen ez duen Gaztelako eguzki ederra; eta beste inora mugitu gabe, eman itzazu udako oporrrak etxean eta etxe inguruan, ilunabarreko zeru garbia behatuz..., eta hor duzu gainean ustekabeen ikasturte berria hasteko eguna, "maisú txiki" aldiko azkena. Hori gertatu zitzaion gure Aranari. Ez digu esaten nolako eginbeharrak dituen ikasturte berrian, 1862-63an: eskolak eman, liburutegia zaindu ala zein beste.

Joan urtean bezala, abenduko Ama Birjina Orbangabe sortuaren eguna ezin neurtitz batzuk egin gabe igarotzen utzi. Aurten neurtitz batzuk baino zerbait gehiago egingo du: "Canción para cantar en el comedor de los colegiales en honor de la Concepción Inmaculada". Leridatik berriz ere D. Jose Escolá bertso eske du eta aurten beste gehiagoren artean Soneto bat igortzen diola diosku; ez ordea euskaraz den, lehen bezala, ala gazteleraz. Pazkoaldian "hubo día de campo en la dehesa a una legua del Colegio".

Hilabete baten buruan bi eskutitz hartzen ditu Azkoititik D. Fernando de Echeberria delako batek eginak; ez diosku nor den, baina bai zer diotsan: "sobre la versión del Evangelio de San Juan al vascuence. Concurso al efecto con premio por la Diputación, según decreto del 30 de Abril". Beste Anai Chopitea delako batek kartaz galdegiten dio "Eneco, Iñigo, Ignacio" izenen arteko erlazioaz. Zer erantzun ote zion! Puerto Rico-ra destinatua doan Anai Garcia-Frutosi Hamalauko edo Soneto bat igortzen dio agur eginez.

Ikasturtea amaitu, mutikoak Leonen azterketak egin ondoren nor bere etxera sakabanatu eta Jose Inazio, "maisú txiki" aldia osoro bukaturik, Leona doa ongi merezitako oporrrak hartzera beste zenbait lagunekin, eguerdiko 12etan abiatuz, "unos a pie, otros en tartana a voluntad... Pasando por Moratinos y San Nicolás llega la caravana, después de pasar el Páramo de Campos en parte a Sahagún a las 7,30 del oscurecer, quedándose en una posada estrecha de mediano nombre, donde no hay camas para todos y se cena gato por liebre". Ez du graziarik falta idaztean.

Sahagundik lehen gauan atera eta goizeko 10etan iritsi ziren Reliegora, "en cuya única posada no hay comida alguna y apenas de beber, mátanse galli-

nas a palos en el corral y se preparan con huevos, y se hace el rancho bueno". (Ezin uka gazteleraz oso egoki idazten duela!). Iristen dira azkenean 29ko arratsaldean, Leongo jesuiten San Marcos ikastetxe zoragarrira, egungo egunean Eliza eta Ostatu noble-ospetsu denera. "Partido de pelota el domingo, filósofos contra teólogos; ganen éstos...".

Hamabost egun-edo han igaro ondoren, opor-egun luzeagoak hartzeko Sandovala joateko esaten diote, non ematen baititu egun batzuk filosofoekin, beste batzuk teologoekin. Han ditu gehiagoren artean bere lagun min Anai Cesareo Txurruka, Mintegiaga eta Eugenio Uriarte, filosofia ikasi berriak horiek ere, eta haiekin egiten ditu paseoak eta txangoak inguruko tokietara, batez ere Lancia-ko aztarnategira, non aurkitzen baitute inskripzio zaharra duen katilu bat. Eta orain zer?

## 8. BERRIZ ERI (1864 - 1865)

Teologia ikasten hastea dagokio Leongo San Marcos ikastetxe handian eta hiru urteren buruan apaiz egitea. Urteroko zortzi eguneko gogojardunak beti bezala irailaren azken egunetan egin omen zituzten; baina gezurra badi-rudi ere, ikasturte berriaren lehen eguna, Meza Nagusian "Veni, creator Spiritus" kantatu eta gero, "lectio brevis" izaten zenekoa eta jesuita gaztea Apaiz egiteko bidean ipintzen zuena, ez du aipatu ere egiten.

Azaroaren hasieran Aita Probintzial Jauregiren bisita dute eta, egun batzuen ondoren alde egiterakoan, bazkal ondoko kafea liburutegiko aretoan hartuz, agur egiten diotenean, Soneto edo Hamalauko bat eskaintzen dio Jose Inaziok. Hil beraren 8an Leongo burnibidea estrainatzen dute hirian hots eta ospe handiarekin ("son convidados el P. Rector y otros del Colegio") eta gure Jose Inaziok, hori dela kausa, beste Hamalaukoa egiten du. Eskatzen dion edozeini bertsoak egiteko prest dagoela esan behar: Manresatik abenduko 8ko Akademiarako bi olerki eskatzen dizkiote eta igortzen ditu "2 composiciones en verso para un alumno del Colegio".

Eguberriak ospatuz sartzen dira Urteberrian, 1864an. Errege egunez "se tuvo un pequeño Ensayo o Academia de lengua inglesa dirigida por nuestro profesor de inglés Hno. Longini, italiano". Beti gazteleraz egiten ibili gabe, ingelesez ere egitea oso ongi iruditu zitzaion segurki Jose Inaziori, eta are hobeki, euskaraz egiten balitz halako zerbait. Aurrerago biziko den bi ikastetxetan ikusiko dugu asmo hori burutan aterako duela eta asteroko euskarazko eskolak ezarriko eta "saio"-ren bat, berak dioen bezala, agirian egingo.



Aipatu ditugun gaurko Eliza eta Ostatu noble-ospetsuaz gain, bazuten Leonen jesuitek beste "Misioetako ikastetxe" izendatu bat, Loiolan Carlos IIIak, 1767an handik jesuitak jaurtiki eta gero, ezarri zuena bezalakoxea: misioetarako prestatuko ziren apaizak eta erlijiosoak hazi eta altxatzeko ikastetxea. "Las glorias del reino de León" izenpean antolatu zuten ikasturte bukaeran Saio edo Akademia bat, eta Aranak ekarri zuen bere aletxoak: ("Discurso preliminar, 3 partes y 25 composiciones; la 12 y 13 recitadas por J. I. A. "). Azpeititik D. Miguel Oyarzun apaizak, gero jesuita egingo zenak, kartatxo bat idazten dio "sobre las canciones bascongadas del caballo blanco de José Gros". Azpeitiko "graziosoren" batek ipiniak, seguru asko.

Maiatza da eta bere EGUNARIAn ez da zortzi hilabete horietan Teologia hitza bera ere agertu, 1864ko gertaeren berri ematean. Gaixorik ote dago? Ez digu Teologia ikasten hasi eta ari dela esan, ez zein gai dituen lehen ikasturtean kontatu. Luzamendua eta atzerapena eman ote diote Agintariek, apaiz egiteko eta izateko behar adina osasun ez duelako? Eta hara non jakiten dugun modurik estrainioenean, baietz, Teologia ikasten aritu dela eta ikasi dituen gaietatik bi zein izan diren ere bai. Honela kontatzen du berak: "A fines de Abril cayó gravemente enfermo J. I. A. con ataque cerebral, pero, gracias a Dios, con sangrías por los pies y otras partes y otros medios, salió del trance, quedando sumamente delgado y débil, y fué poco a poco con leche, etc. restableciéndose. Se hallaba muy mejorado a fines de mayo". Eta ia hurrengo lerroan: "Por junio, restablecido bastante, empezó J. I. A. a repasar las materias de Teología dogmática y moral, pero en los exámenes no se examinó más que de moral en atención al tiempo pasado por la enfermedad...".

Sei urte igaro dira buruko lehenbiziko odol-kolpeak eman zionetik; biak garai bertsuan, udaberri azkenean, ikasturtearen hondarrean, gaitzak haren gorputza ahulenik eta makalenik harrapatzen zuen momentuan. Harritzekoa da, haatik, erabat sendatzen ezpada ere, zein laster hobetzen den bederen eta indarberritzen. Harritzekoa da halaber nola orain, buruko odol-kolpea dela-eta, ia bi hilabete eri egon ondoren, ikasten dugun Teologiako bi gai berrikasten ari dela, nahiz azterketa batarena bakarrik egingo duen. Zorigaitz hori izan ez balu, geldi gintezkeen jakin gabe.

Uda eta oporrak hurbil daudelako eta bere herriko aideak eta giroak, eta batez ere Zumaiaiko bainuek on handia egingo diotelako, Loiolara joateko esaten diote bere Buruek: "disponiendo los Superiores que para mejorar se pasara a Loyola y de allí a los baños de Zumaya". Abuztuaren 10ean heldu zen Loiolara eta handik egun gutxitara joan Zumaia beste lagun batzuekin: Aita Goiriena, Garciarena, etab. Ez du denbora alferrik galtzen eta bainuak hartzeaz gain, besterik ere egiten du: arrain batzuk harrapatu eta Austriako jesuiten

ikastetxe Linz deritzan hirikora igorri Aita Hinderkhor (?) alemaniar naturalistari. Leongo lagunek Lanciako aztarnategian egiten ari diren aurkikundeen jakinarean gainean daukate: antzinako inskripzio batzuk eta Domizianoren txanpon bat aurkitu dituzte. Berari Loiolan liburutegiaz ardura dadin agindu diote, beste lantegirik gabe, eta Kataloan zeregin hauxe bakarrik azalduko da: "curat valetudinem", alegia, osasuna zaintzea.

Loiolako egunak luzeak dira, neguan batez ere, zeregin handirik ez duenarentzat. Hala izan behar 1865. urte hartakoak Jose Inazioentzat ere, baldin ordu mordoxka liburutegia zaintzen eta eskutitzak idazten sartu ez balu, eta hartzen zituenei erantzuten. Ehunka eskutitz aipatzen du bere EGUNARIAn. Egiteko horietan harrapatzen du 1865garren urteak eta, Valentzian Zigorranga Jose bere laguna apaiz egiteko dela-eta, Oda bat igortzen dio. Handik egun batzuetara Probintzial berri Aita Labarta Loiolara doala bisita egitera, eta hari ere neurtitzak. Aita Labarta honek denbora gutxi iraun zuen Probintzial; Erromako Aita Jeneral Becks-i ken zezan eskatu zion eta hark kendu eta Aita Felipe Gomez ordezko izendatu zuen. Berezi xamarra zen Labarta hori. Nafarroako Artaxonan jaioa, Nafarroa "reino por sí" izendatu ohi zuena. Lagundi guztiko profeso zaharrena zen; ia ehun urte zituela hil zen Madrilen, Bergarako Kondesaren etxean eroso ostatatua zegoela.

Hurrengo batean Carriondik idazten diote, bere barruan poz emango zion albiste bat kontatuz. Carrionen bigarren ikasturtearen hasieran tragedia bat oratzen hasia zela esan zigun, eta ez genuen gehiago haren berri izan, baina dirudienez ixilean eta izkutuan xarra-xarra jarraitu zen gero ere lanean, zeren hara nola mezutzen duten handik uztailaren 2an bere "El joven Pelayo" izeneko tragedia antzeztu zutela "con buen resultado".

Abuztuan Isabel II bere seme-alaba eta ama Cristinarekin datorkie Zarauztik bixita bat egitera. "A la entrada en la iglesia para la misa echó vivas uno de los hijos de Hurtado Mendoza, pero sin ser casi correspondido".

Jose Antonio Arana Martijak Azkoitiko Udaletxeko omenaldian irakurri zuen txostenean asko goraiatu zituen, eta bibliografia aldetik interesgarritzat jo, gure jesuita gaztearen zenbait obra. Bada komeni da jakitea gaztetan eta bere gaixoaldiek uzten zizkieten txolarteetan eginak edo hasiak bederen direla horietako bi lan, garai honetan egiten baitizkigu haien aipamenak: "Dic. 1865, 1º dic., carta del H. Lizargarate desde Roma sobre *Claros Varones Guipuzcoanos, S.J.*". Ez ahantz, Jose Antoniok esan digun bezala, 1871an burutu zela liburuaren inprimaketa Tolosan. Bada orain badakigu noizko zegoen iada Jose Inazio hasia liburu hori prestatzen edo materialak biltzen, bai eta Anai Lizargarate ere lankide izan zela, Jose Antoniok esan digun bezala.

Beste liburuaren aipamena hau da. Aurreko hitz horien ondoren honako beste hauek idazten ditu: "Id. (latinezko "idem") de Churruca desde León sobre el *Tratado de Versificación Vascongada*". Nolanahi aditzen direla hitz hauek, bistan da gutxienez irakasten digula lan hori ere Jose Inazioren asmoen arteko bat zela eta buruan zerabilela. "De Churruca desde León sobre": agian hitz horiek anai Txurrukaren jakin-nahia bakar-bakarrik adierazten digute, eta ez nahitaez orduko *Tratado* delako hori egina zegoela, baina nolanahi ere 1872ko data, nik FONTES-en 1992an argitaratu nuenak daramana eta Jose Antoniok errepikatu diguna, bukatua zegoeneko data dateke segurki, eta ez inola ere Jose Inazioren buruan eta gogoan –gutxienez!– ernatu zenekoa. Ez da dudarik 1865ean iadanik ernatua zuela eta Anai Txurrukak horren berri bazuela.

Interesgarri da, hori dela-eta, jakitea zein urte jotzen zuen Aranak bere lan zientifikoak egiten haste-urtea bezala. Azken urteetan, Oñan lekoratua zegoela eta inork laguntzen ez, Erromako Aita Asistenteagana jotzea erabaki zuen eta bizian zenbat lan eta nolakoak egin zituen jakin zezan, igorri zion "liburu sorta bat izkira honekin: Para el R. P. Asistente de España, S.J., en Fiésolle. Dos libros y algunos opúsculos, en los cuales ha colaborado el P. José I. de Arana desde 1866 a 1891". Beraz orain aztertzen hasiko garen urtea jotzen zuen bere iker-lanen hasiera. Bere bizian zehar 25 urte.

## 9. LOIOLAN GELDI (1866)

1866ko urtarrilari Loiolan ematen dio hasia. Frantziako Toulouse probintziako Aita Nagusia iristen da egun batzuetarako Loiolara eta bazkalondo batean kafea hartzean frantsesezko bertso batzuk egiten dizkio. Baina berea ez da frantsesa, eta ez gaztelera, euskara baizik, eta orain arte ez bezala, EGUNARIAN tarteka-marteka euskarazko zatiak itzurtzen zaizkio. Ikus:

Manuel de Soreasu, Mirakil baserrikoak, urtarrilaren 7an 91 urte egin omen zituen, beste batzuen ustez gehiago, eta bat-batean euskarara aldatzen du solasa: "Apirilaren bostian karobiko arriya prestatzen zegoan sendo ta pizkor bere ilobakin". Denbora gutxi barru gauza bertsua egiten du; Urtiagaberri baserrira txangoa egin duela esan ondoren, honela dio: "Martitako azpian sortaldean dago Urtiagaberri. Emen bizi dira irukiak: Magdalena, Joxe Mari ta Ventura Gabilondo, ta zazpi-bat urteko senide koxkorak dira. Beren ama da Agustina de Soraluze ta aita berriz Emeteri Gabilondo".

Albiste txiki multzoa metatzen zaio hurrengo egunetan. Erromatik bi hilabeteren buruan Anai Lizargarateren bi eskutitz hartzen ditu. Azkoitiko

Balda baserrian, San Inazioaren amaren jaiotetxean, sua izan zen ekainaren 7an: "no hubo gran perjuicio y se sacó fuera el archivo". Azkoitian Gipuzkoako Batzar Nagusiak egon ziren bilduak eta uztailaren 7an Loiolako jesuita gazte ikasleek Literatur Saio bat eskaini zieten: "Acuden los Junteros y otra mucha gente principal del país y de fuera. Sale bien". Jose Maria Lardizabalen eskutitz bat hartzen du Zaldibitik. Gero harreman handiak izango dituzte –ez ahantz Loiolatik erbestera bidean Lardizabalenean egin zutela geldialdia Irunen; lehendik familia ezaguna zuten seinale–.

Abuztuaren 1ean, San Inazio egunean baino festa handiagoa izaten den egunean, Loiolan sermoia On Bizente Manterolak egin zuen eta Jose Inazio Aranak Oda bat moldatu, goizeko Meza Nagusia gai zuela. Manterolari berari bidali omen zion gero. Leongo bi laguni igortzeko "Ama Birjinaren Konzepzioko Ofizio laburra" delako liburuxka litografiatzen du Loiolan; ez du esaten, baina berak euskaratua, dudarik gabe. Erreskada luze hau amaitzeko, urriaren 12an Hazparneko apaiz Juan Leon Lizardi euskaltzaleak bisitatzen du.

Loiolan geldi, esan dugu, baina noiz arte? Ez ote die berriz ere egoera politikoak berari eta bere Ordena-lagunei erbestera babes bila alde eragingo? Oraingoz Jose Inazioaren haurtzaroa eta gaztaroa ezagutu ditugu eta ezin uka poesia eta literatur lanetarako ongi trebatua dela; ezin uka bertsozaletasuna eta bertsozintzarako erraztasuna gorputzaren xularme guztietatik dariola.

## II. ATALA ZARAUTZ - URDUÑA (1867-1873)

### 1. ITSUMUTILA (1867)

Loiolan ari da Jose Inazio, hilabete batzuk lehenago izan duen buruko odol-kolpe bigarrenetik sendatzeko ahaleginak egiten. Apaiztu gabe dago oraindik, Teologiako lehen ikasturtea Leonen egiten ari zela gertatu baitzitzaion ezbehar hori eta sendabide bila etorri baitzen Loiolara. Hemen ez du eginbehar jakinik; "curat valetudinem" omen da bere egiteko bakarra, dio Probintziako Katalogoak, "osasuna zaindu". Denbora pasa eta indarrak handitu ahala hasten da pixkabana, haatik, honat-harat sermoiak egitera edo gogojardunak ematera joan behar duen apaizaren itsumutil eta zerbitzari izaten.

Denetan adiskideena Aita Garagarza du, Hondarribiako semea, 1833an jaioa, apaiz egin da gero Lagundian 1861ean sartua; 1872an egin zituen azken botoak, ez ordea Profesio itzaltsuko lauak, baizik hiru soilak. Idazteko ongi dohatua, sermolari eta gogojardun emaile bikaina. Honekin ateratzen da batez ere Aita Arana, baina ez urrutiko hirietara. Izan berria da Zamoran eta Palentzian abuztuaren bete-betean sermoiak egiten, eta hara ez dio lagundu, noski; hark halere Zamoratik eskutitz bat egin dio. Aldiz Elgoibarra elkarrekin joan ziren Pazkoetan; han egin omen zen "solemnemente la aparición de Jesús resucitado con máquinas "ad hoc", baile de ángeles durante el canto de la Gloria, etc". Azpeitian kartzelako gatibuak bisitatzera laguntzen dio; Zarautza oso lagunak dituen Narrosko Markes-markesak, Guakiko Kondesa, Villahermosako Dukea, Alzurutarrak, Agirretarrak, Legarratarrak ikustera ere sarritan.

Beste batean Lasartera joan behar Aita Garagarzak gogojardunak mojei ematera eta, Orion geldialdi bat egiten dute, oso ezaguna duten erretore jaun

Makatzaga, "que tiene el libro *Jesusen Biotza*" Mendibururena, bisitatzeko, eta Azkue pintatzailea, gero Loiolan lan batzuk egingo dituen, ere bai. Aranak biziki miresten du Orion la "vista de la ria, lavadero, orilla del mar, muralla empezada, casas antiguas con armas ("arma-arriakin")".

Lasarte dute muga eta, Txikierdin eta Zubietan barrena ("Zubietako bailera ederra", dio), jotzen dute Lasarte; eta biharamunean Hernanin, Urnietan eta Andoainen barrena ibiliz Aita Kardaberazen bataio-agiria Urnietan aurkitzen. Hiri hau hitz hauekin deskribatzen du: "Iglesia pobre, casas quemadas, casa del Sr. Antía filovasco", zein egun pare bat geroago joaten omen baitzaie Lasartera oles egitera eta "autor del Calendario *Zeruko bidea*" deitzen baitu. Andoaingo elizari, aldiz, ederra deritza eta han hurrengo joanaldian Larramendiren bataio-agiria eta eskutitz batzuk ere aurkitzen dituzte. Hurrengo arratsaldean Donostiara doaz eta begian jotzen dute Arana hango toki hauek: "El Bulebar o Donosti berriya, puerto, iglesias de Santa María y San Vicente, calles, Misericordia, Castillo, Convento de la Concepción, valle de Loyola...".

Erramu igandea gertatzen den asteburuko meza, sermoi, konfesio eta gainerakoetara laguntzen dio beste behin Arronara, larunbatean joan eta astelehenean itzul, oso eguraldi ederrarekin. Itzulera horrela egiten omen dute: "Gurutzeaga-mendi, Bisutzbide, Endaya-gaiña con preciosa vista de mar, prados, bosques, Oztarteko-zelaia, Aittolamendi, Izarraitz". Bistan da natura arras maite duela.

Paseo-ibilaldiak ere maiz egiten ditu harekin, maizenik Martirietara eta Elosiagan (Santa Luzia) konpondu duten kanpo-etxe berrira eta Urrategi aldera. Hemengo ermitako sarreran harri batean hau omen zegoen –orain ez jakin egongo den– idatzia: "Esta ermita mandó azer Francisco Lopez de Irazaga, a celebración de la Limpia Concepción de la Madre de Dios, 1617". Behin biak, Arronako Bikario Etxaniz jauna hartu eta, Granada baserriko Dolores eria konfesatzera doaz, honako itzuli hau eginez: "por Odrio, Etumeta, Erdoizta, oyendo claro el ruido de la mar, a vista de Santa Engracia, Alzola"; gero Etumetatik Ezkurrua baserrira ondoratu eta handik jaisten omen da arkaitz handi bat dagoen erreka zurora, non baitago Granada; han konfesatu zen Dolores eria. Sutondoan ongi berotu, abendua baitzen, zerbait jan, eta etxekoei Loiolara konfesatzera joateko esanik, Ezkurruatik eta Odrioko bide beretik itzuli omen ziren alai eta kontent.

Beste batean, udaren erdian, bere lagun min Urraburu eta Gallo, junio-  
ren irakasleak, han zirela eta, honako ibilaldi hau egiten dute: Izazpi eta inguruak, Oñaz, Atzerreka, Zelaieta, Izazpi, Arrietamendi, Kiskitza, Matxinbenta,

Beasain, San Martin, Noarbe, Urrestila, Ezkio ondoan Zelaietako zuhaiztiak, inguruko herriak, trenbidea eta Antiguako Amaren eliza ikusiz; han Santa Isabel zela-eta, erromeria eta jende pila omen zegoen.

## 2. LIBURUAK (1868)

Baina liburuetarako ere ateratzen du denbora, eta San Inazio ondoko igandean, Loiolan estrainengo aldiz kantatzen den *San Inazioren martxa* berriak kemen eta adore handiagoak ematen dizkiola esan behar, batez ere argitaratzeko baimena Erretore Aita Olanok ematen diola jakinik eta noiz edo behin bazkari onak eginik: "comida vascófila con D. Miguel, 3 Arreguis, etc.". Gelditzen zaio diru pixka bat, haatik, Azpeitiko Martinezenean abenduaren 5ean erosten dituen liburuak hil beraren 21ean ordaintzeko: "Santo Tomás, media fiesta, feria en Azpeitia; ida al pago de libros vascos (28 reales)".

Irailen iada martxa berriaren probak zuzentzen ari da. *Aita Antxietaren Bizitza* ere burutua edo oso aurreratua bide dauka, zeren irailaren 22an Urrestilan bizi diren Antxietatarrei ikusteko eta irakurtzeko utzi diezaien baimena ematen baitio Erretoreak, eta urriaren 9an berekin etxera daramate. *San Inazioren Bizitza* ere ez dago geldirik, zeren irailaren 28an tipi-tapa doa Aita Garziarekin Albisturren barrena Tolosaraino "para la impresión de la *Vida de San Ignacio*" eta azaroaren 18an hartzen ditu Loiolan lehen probak zuzentzeko. Klean Pablo de Gorosabel inprimatzailearekin topo egiten du.

Ez naiz ausartzen esatera orain kontatuko dudanerako ere denbora atera zuenik; atera ez bazuen, ez zen behintzat izango ikusteko urrutira joan behar zuelako, etxeko atarian izan baitzen; eta atera bazuen, ongi merezia zuen, uda hartan ez baitirudi oporrik hartu zuenik. Urriaren 13an, domekan, "partido de pelota con muy buen tiempo por la tarde *ante el Colegio*, con mucha gente de Azpeitia y Azcoitia, entre Jose Joaquin (harakina) de Azcoitia y el mozo de Munategi". Ez dakigu nork irabazi zuen.

Abenduaren 12an, osteguna izanagatik, izan omen zen "laia-apustuba", diosku euskarara lerraturik: "zorzi Azpeitiarrek Markinan: lau Odriotar lau kale-ondokoen kontra". Hau nork irabazi zuen ere ez.

Granada-errekian Aita Garagarzarekin eta beste bi lagunekin izan zen hartan egin gauza bera egiten du beste batean ere: azken hitzak euskaraz kontatu, honela: "Ezkurruako zezen "Kurioso" zeritzanaren kontugai ederra,

hango 87ko atsoak esana: Olanoko Manuela zana sihaskan zerriaren kontra gorde zuen, ama begira zeukala. "Kurioso" Madrilen ere toriatua zan".

Lasartera Aita Garagarzari lagunduz egin zuen atze-aurrea hamabost egun luzatu zen eta ez zen goian esanaz agortu. Ia azken egunean arratsalde batean trenez Errenteriara doaz, hango Erretore jauna ezaguna baitute, baita Juanmartiñena familia ere, "3 matrimonios ricos de Navarra, euskaldunak de Aldaz, casa hermosa, cena, noche". Biharamunean Aita Garagarza meza ematera doa hara bere lagunarekin eta honek honela idazten du: "fábrica de 800 personas, de lienzos".

Hamabost eguneko txango horren ondoren Loiolako bizi-giroan murgiltzen da berriz ere. Fernandez izkiriatailea lehendik aditza dugun *El Pelayo* drama kopiazen hasi zaio; eta Tolosatik Aita Garziak egin duen *San Inazioaren bizitza*-ren laburpena-ren 1.000 ale eta apirilaren 21ean *San Inazioaren Bizitza*-ren bukaera hartzen dituztela diosku. Fernandezi egunean bi ordu idazteagatik pezeta bat ematen omen dio eta "gaurdainoko 28 egunakgatik 112 erreal eta bi gehiago, "para descontar a los quince dias".

Pazku astelehena ez omen da lehen bezala gorde beharreko jaia, baina gehienek hala egiten omen dute, Azkoitian ezkil-errepika eta guzti; Azpeitian ere bai, "por poco entran a fuerza a tocar campanas, entusiasmo del pueblo". Elgoibarren aldiz, igande eta astelehen, bertsolariak dituzte ("apuesta de trovadores bascongados varios"). Horiek berak biharamunean Batistarekin eta Azpeitiko beste bertsolari batzuekin datoz Elgoibartik, Azpeitian palankajoko ondoren lehian aritzeko, arratsaldeko hiruretatik aurrera.

Udaberriari eguraldia pixka bat gozatzean jendea aiseago ateratzen da etxetik eta Loiolan, orduan eta orain, gehitzen bisitariak eta bisitak. Gure Jose Inaziok honako guzti hauena hartzen du: Durangoko lagun min On Carlos Orue apaiz "baskofilo", geroztik min-mina izango duenarena; On Vicente Manterola magistral doktorarena, Martirietan hirurreneko igande goizeko Meza nagusian sermoia egitera datorrenarena; euskalari aleman Georges Phillips, Vienako Akademiako bazkide denarena; Mr. Antoine d'Abbadie berarena eta harekin datozen P. Perry eta Anai jesuita inglandar Sidgreavesena, etorriak "para hacer observaciones magnéticas, que las hacen en la huerta. Marchan los Sres. precedentes; apuntes de Mr. d'Abbadie sobre el vascuence", eta azkenik Kardinal Barillirena, zeinek bazkalondoan, kafea hartu bitartean, euskal olerki bat entzuteko gogoaz azaldu baitzuen eta Jose Inaziok atsegin eman.

Udaberriak jendea ez ezik, albiste on batzuk ere badakartza Loiolara. Batetik San Inazio Gipuzkoako ez ezik, Bizkaiko eta Arabako ere Patroi izen-



datu da: "en Loyola ha habido al mediodía café, reunión, versos, música". Bestetik Zumaian uztailaren 1ean bilduriko Batzar Nagusiek Loiolako etxeak osatzeko falta duena eraikitzeke eta obrak burutzeko erabakia hartzen dute. Hautatuak izan diren diputadu berriek, Dorronsorok, Labakak eta Unzetak, ez diete hainbestez negarrik eragin Loiolako biztanleei. Azkenik entzute handikoa izan zen honako beste albiste hau ere: Zuazolatar bat Azkoitiko Santa Krutzen moja sartzea, Aita Garagarzak hitzaldia eginik eta Guakiko Kondesa eta beste handizki batzuk han izanik.

Aita Garagarza da dudarik gabe hizlaririk egokiena eta gogokoena edozein elizkizunetan. Jaunaren Igokunde egunean Itziarren da goiz eta arratsalde sermoi egiten, nahiz hango eliz-santutegiak beste lau apaiz dituen: Rementeria, Leizaola, Lizarraga eta Azpiazu. Azpeitian maiatzeko Loreetan ere berak egin du egunoroko hitzaldia. Egun bateko hitz-gaia hau izan omen zuen: "partidos, caridad". Orduan ere zakurrak hankutsik, diot nik! Ikusi dugu halaber Jose Inazio duela bere "itsumutil" zintzoena, euskalzalea eta lagunik onena izateaz gain.

Udako oporrak hartzera ere elkarrekin doaz, baina ez urruti, baizik etxetik oso gertu, Zestoako Gesalagara ("iturri gazia", idazten du ondoan), ez eta denbora asko, hamar egun. Ez dira, haatik, zenbait gauza berri ikasi eta ikusi gabe itzuliko. Olatxa baserriko Lili etxea ikuskatu gabe ezin gelditu; ez eta Urkoa edo Urkoa-ballera ("edo ordeka", dio), "do está la de 98 años, Manuela Josefa de Sesneaga o Cisniaga". Beste batean Akuara doaz, "Akuako ordeka edo bailara", dio, eta hango esan batzuk aipatzen dizkigu: "Akua, 8 etxe ta 9 bizitzakua"; "Akuarrak Akuan, okela gutxi zakuan"; "Aizarnarrak Aizarnan lapurtu ta jan"; (esangunza) "makila zurbeltxuzkoa, toleran saardoginan".

Hona azkenik, ingurune arras bestelakoan sartu aurretik laburki bederen esan beharreko gauza batzuk, ia guziak Loiolarekin zerikusia dutenak. Burgosko ikastetxea itxi behar izan da egoera politikoagatik eta hango liburu asko Loiolara dakartzate. San Inazio egunean, Bizkaia eta Arabarentzat ere jai-eguna baita lehen aldiz, jende asko bildu da; Azpeitiko Erretorea ere berria da, D. Agustin Jauregui, eta "se puso la nueva piedra u obelisco de mármol, llamada La Salve". Otsailean Lepantoko Garaiteaz bezala, abuztuan Japongo Kristau-herriaz egiten dute "junior" direlakoek saio edo ekinaldi literario-poetikoa. Datorren ikasturtean ere hauen irakasle izango da Jose Inazio, besteak beste, bera bezala oraindik apaiz ez diren beste hiru lagunekin batera: Urraburu, Iturria, Perez Aedo. Horrez gain Loiolako Obserbatorio delakoaren arduradun izendatu dute eta hori dela bide, izango du zer eska Antoine d'Abbadieri.

### 3. ETXEAN (1868)

Antoine D'Abbadie jaunaren bisita 1868ko irailaren 3an izan zuen Loiolan eta handik egun gutxitara entzuten ditugu EGUNARIAN bigarren karlistadaren lehen dunbotsak. Ia egunoro iristen zaizkie Loiolara albiste txarrak.

20an honela idazten du: "Rumor de alboroto de la marina junto a Cádiz y en Sevilla, Madrid y otras ciudades. Ida de la reina a San Sebastián, do se halla". 23an honela: "Siguen noticias públicas alarmantes. Carta del Rdo. P. Provincial mandando hacer novena al Sagrado Corazón, etc.". 24an: "Siguen noticias graves sobre el estado actual de España: recado de la Reina desde San Sebastián a Loyola por medio de la Condesa de Guaqui para que oremos por ella". 27an: "Siguen rumores de alarmas". 28an: "Siguen malas nuevas de las cosas de España. Un buque inglés delante de San Sebastián y Zarauz". 29an: "Noticias tristes varias del Puerto de Santa María. No hay noticias de los Nuestros de Sevilla (Sevillako jesuitenik, alegia), a donde hay gran revolución con Cádiz. En Santander los Nuestros acudieron a servir a los heridos. Prim, ministro nuevo; la real familia va a Francia".

Eta hileko albiste txarrak hitz hauetan biltzen ditu: "Este mes... principió la gran revolución de España y fuese a Burdeos al fin la real familia".

Hurrengo egunetan ez dira gauzak hobetzen eta Loiolatik alde egitea pentsatzen hasten dira. "Van el P. Garagarza con el H. Silvano a Bayona por Zarauz disfrazados. Preparativos para viajes de varios PP. y HH.". Halere, egia esan, inon dauden ondoena Euskalerrian daude, baina ez dira fio: "Gran revolución por toda España menos aquí en las Provincias Vascongadas". Alde guztietako etxeetako jesuitak jaurtikitzen hasi omen dira eta egun batetik bestera berei ere ordua etorriko zaien beldur dira: "Noticia de haber sido los Nuestros expulsados de toda Cataluña y Aragón y Castilla, menos de Carrión y Salamanca"; "llegan otros Padres y Hermanos de León"; "llegan varios del Puerto de Santa María".

Hemengo zenbait herritan ere ikara sortzen da noraezean eta txingarrak ez dira falta Azpeitian eta Azkoitian: "Mayor alarma fuera en ambas villas". "Intentona en Azpeitia de quitar la vara al Sr. Alcalde. Jarana en San Sebastián y Tolosa". Hori urriaren 4an. Horregatik ez ditu batere lasaitzen, Donostiako Biltzarrak 6an eman nahi izan dien esperantzak: "Junta de San Sebastián da esperanzas sobre Loyola". Muga igarotzekotan eguneroko sotanek ez diete balio eta gizon laikoen jazki bila hasten dira: "Trajes varios, encargos". Eta biharamunean: "Sigue la busca de trajes", eta azken orduan: "Negocios de libros con el P. Ortega, que litografió griego ayer".

Aranarekin zer egin? Haren osasuna ikusirik, ez dute oraindik bere herri-girotik atera eta berekin Frantziara eraman nahi, zer gerta ere, eta Martirietara biltzeko agintzen dio Aita Erretoreak: "Por disposición del Rector P. Portes, salida a los Mártires de Azcoitia para mejorarme en salud, con el P. Garagarza y el Hno. Coadjutor Altube". Hauek bizpahiru egun han igaro eta badoaz. Arana ez da halere bakarrik gelditzen: Aita Lasurtegi zaharra eta Anai Korta ere han daude.

Egun gutxiren buruan herrira jaisten da eta etxean sartzen, bisitatxo bat egitera. Han Martirietan baino hobeki zaindua egongo dela iruditzen zaio eta Loiolara eskutitz bat idazten du. Laster du erantzuna: "Carta del P. Ministro Garcarena con firma del Rector Portes: aquí en casa hasta nueva disposición y que haga el traje seglar".

Bizimodu berria egiten hasten da: edozein laiko bezala jazten eta edozein gizasemeren kaleko bizitza eramaten. Hori bai, ondoko Santa Klaran meza sarri entzunez eta Santa Kruzen, mojak bisitatuaz batera, errosarioa eta litaniak errezatuz. Ez da, haatik, Azkoitian jazkera aldaturik bizi den jesuita bakarra; Martirietan utzi dituen Aita Lasurtegi eta Anai Kortaz gain, Dukekoan bizi diren beste bi anai laguntzaile, Landa Juan eta Abaitua Antonio, ere halaxe jazten dira.

Arropa berriak egitera Azpeitiko jostun bat datorkio eta zehaztasun guztiak ipi-apa ematen dizkigu: "1º, 1 karrik num. 66, que es grueso y morado; medidas 98, 97+ 48,97 decímetros hasta casi la rodilla. 2º, un pantalón de paño pardo 101,34,72, cintura 3 Ay (?) 46 con vuelta o vuelo; 3º, un chaleco de X, abrigado, 53,66; 45,45, total 30, y poco ancho o abertura en el cuello para acomodar a la corbata; 4º, gabán del paño nº 66".

Badaki Estatuko berri ere, ez du informazio falta. Ahaideen, lagunen eta ezagunen bisita asko hartzen ditu etxean. Egunkari "El Pensamiento Español" asterokoa eta egunerokoa ere hartzen ditu edo bederen eskuratzen dizkiote lagunek. Horien bidez jakingo du urriko 12an Madrileko Erreboluzio Biltzar Nagusia bildu dela "suprimiendo y extinguiendo después con la misma fecha 12, junto con las asociaciones y comunidades religiosas, la Compañía de Jesús apoderándose de sus temporalidades, etc". Erabaki berak omen zuen beste atal bat, debekatzen zuena talde handietan bizitzea, sotana jantzita ibiltzea eta Lagundiko Buruen mendean izatea Espainian eta Espainiatik kanpo. 24ko egunkari lehen aipatuak Madrilen osatu duten behin-behingo Gobernuo kargudunak eta kargudunen izen guztiak aipatzen dizkigu; bederatzi danera.

Hiru egun bakarrik igaro diren arren, Azpeitiko jostuna datorkio berriz, honako hauek ekarriz: "Karrik, pantalón y chaleco que se prueban y se aprue-

ban. Falta el gabán del paño felpo del nº 98, que cuesta 4 reales la vara. Las medidas del gabán que se hará para el martes 27 son 55 y 87 sin contar lo altibajo".

Loiolan ia inor ez da bizi. Etxe Santuaren eta Elizaren ardura izateko eta han mezak emateko eta igande eta jaiegunetako elizkizunak egiteko, bi apaiz; etxeko atea zaintzeko Anai laguntzaile bat eta baratza maneatzeko besteren bat. Beste inor ez. 22an zabaltzen da hotsa, Aizarnako Olaskoaga jaunak jasoko dituela arratsalde hartako 4etan Loiolako giltzak. Eta bi egun geroago: "Ayer se cerraba Loyola y se hacía el inventario a cargo de la Diputación por el Diputado de partido Olascoaga (Aizarna), D. Damián de Larrar fiscal, alcalde Larrañaga y el escribano de nº Aguirrezabalaga". Diogun beste iturri bate-tik dakiguna: 9632 liburu kontatu ziren liburutegiko 61 apaletan. Horrenbestez lasai samar da gure Jose Inazio: "Queda lo principal asegurado", dio. Baina liburutegiaren egoerak ematen dio kezka: "Biblioteca revuelta: D. Ramón García con D. Juan Altube".

Loiolako etxea hutsik gelditzen da. Hango bospasei jesuitak inguruko familia ezagunen eta adiskideen etxeetan barreiatzen dira. Hauek dira: Garziarena Jose M<sup>a</sup>, arduraduna, eta Aizkorbe, biak apaizak, eta beste lau Anai laguntzaile: Echabe, Silbano, Etxeberria eta beste bat. Lehendik ere baziren batzuk Azpeitian erdi izkutuan bizi zirenak eta horiek han jarraitzen dira: "otros en Azpeitia en las casas del Sr. Altube, Ibero, etc.". Ostatuan ere biltzen da bat, Aita Ramon Garcia, itzulpenak egiten ikusi duguna eta ikusiko duguna.

Udazkeneko eguraldi goxoek lagundurik, bazkalondo luze-ederrak ezti-ki igarotzen ditu Aranek etxeko baratzean. Hala diosku behin, nola lau lagun ia batera bisitatzera etorri eta haiekin etxeko anaia "Jose Joaquin y el padre pasamos bien en el mirador de la huerta". Paseoak ere sarri egiten ditu bere lagun Palacios, Olano eta bi Hurtado-ekin, eta, zer esanik ez, Aldalurtarren batekin, baita Azpeitia aldera ere izeba Paula de Unanue bisitatzera. Maiz inguratzen zaizkio Granadako Dukea, Guakiko Kondea, Parrokiko Bikarioa eta herriko medikua ere; baita Urrestilako Antxieta eta Zuazolatarrak ere. Granadako Dukeak Parisa alde egiteko gogoia omen du.

Gure Jose Inazioren izaera ongi agertzen duen puntua! Ematen ez digu, bada, bere arropa guztien zerrenda! "Ropas mias de uso propio: pañuelos 11, blancos de hilo 7, de cenefa 1, azulejo 1, pardos diferentes 2 o 3, 1 de seda. Pantalones 2, uno negro y otro pardo. Chalecos 1, Gabán 1. Karrik 1...". Zertako segi?

Badu zenbait pasadizu ere kontatzeko. Batean 4 guardia zibil ikusten ditu etxe aurretik pasatzen; bestean Bilbora doan kotxe-dilijentzia Azkoititik

hamabiak laurden gutxitan igarotzen dela diosku; Azkoitian zortzi apaiz direla danera; hurrengoan Aita Garziarenak ordaindu diola Azpeitiko jostunari kontu osoa eta "con o sin sombrero son 680 reales vellón en junto". Halako batean Martirietako Aita Lasurtegui zaharra han baino kaleko etxe edo moja etxe batean hobeto egongo litzatekeela uste duelako eta hala dioelako, "disgusto del Padre con mis prisas".

Albiste triste bat ere heltzen zaio egun gutxiren buruan: "El sábado 17 de Octubre 1868, día triste de la expulsión de los Nuestros de Loyola, se llevó a Azpeitia en carro la efigie de plata de San Ignacio; la de mármol hecha en Roma queda aún en Loyola". Zer gerta ere, Azpeitira eramán zen San Inazioaren zilarrezko irudia eta han ezkutaleku batean gorde. Aurrerago esango digu non. Egun gutxiren buruan Aita Garziarenak 500 erreal ematen dizkio oinetako eta gainerako gauzak erosteko.

Aspaldixe ez dugu entzun Jose Inazioaren ahotik neurtitz eta olerki, proba eta liburu konturik. Ezta politikari buruzko albisterik ere, agian ongi ezagutzen duen Aita Garagarzak eskutitz batean honako aholku hauek eman dizkiolako: "Orden, poco estudio, arreglo de cosas, familia con afabilidad con todos". Baina urriaren 5ean Aita Eugenio Labastari eskutitz bat egiten dio Gasteiza *San Inazioaren Bizitza*-ren gainean eta esaten Aita Garzia ere *Glorias de María* deritzan liburuxka itzultzen ari dela. Dukekoan Gamundi senar-emazteekin bazkaldu eta gero la "noche casa de Baroy- (Barón)bekoa"-n pasatzen du. Hurrengo bi egunetan ere errezu batzuk Dukekoan egiten ditu han bizi diren bizpahiru jesuitekin.

"Baroy-bekoa" aipatu du hor; izan ere, bada dioenik Azkoitian bi Baroi eta are hiru zirela. "Baroi-etxekoa" edo "Baroikoa", bi moduetara omen zen Azkoitian bere aita ezaguna. Hala esan zigun eskuzkribuaren hastean berean. Geroztik maiteago du "Baroya-(etxea)" deitu bere aitaren etxea: "comida en casa de Baroya (Padre)", diosku azaroaren 26an, eta "llegada a casa de Baroya (paterna) a las 7,30", 1869ko abuztuaren 30ean Arantzazutik buelta. "Baroy-bekoa" hau beste bat al da? Laster ordea "goiko etxea" aipatuko du.

Hona egoera politikozko ziprztin batzuk, ondoko egunetan ugalduko direnak: "Sigue la Revolución y Gobierno provincial hasta Diciembre 15 o 25", diosku azaroaren 19an, eta biharamunean erdia ulertzen ez zaiola: "Prim y Prats, pretendiente D. Juan I. emperador. Pueblo y ejército de voluntarios". Egunkari berri bat sortu omen da: "Periódico nuevo (a lo Padre Cobos), "El Papelito", semanal, "periódico para hacer reir y llorar". Suscribense el Vicario de Santa Cruz, Zabalza, Landa y otros. Yo en nombre y con Francisco Eizaguirre a media peseta trimestre, suscrito. Llega el nº de hoy, 23".

#### 4. HILU-BULUAK HAN-HEMEN (1868-69)

Ondoko egunetako politika gordintzearen eta gudu prestaeraren zantzua dateke Carlos VIIaren presentzia eta gudu-deia Iruñean: "Proclama de Carlos VII que está en Navarra, Pamplona, 1º de Diciembre". Ochoa eta Muzkiz ere Lizarran omen daude eta elkarren kontrako albisteak iristen zaizkie Nafarroatik: "Noticias varias de Navarra". Gaztelatik aldiz albiste on-onak: "Noticias de Carrión y Castilla: retrato y Vivas a Carlos VII".

Espainiako bazterretan eta batik bat Andaluzia aldean gauzak ez daude hobeto: "Nueva revuelta en Cádiz; desorden y anarquía en varias partes de España". Egun gutxiren buruan: "Cádiz y Sevilla con nueva revolución, en Cádiz más de 1.000 muertos". Eta biharamunean: "Cádiz, Sevilla, barricadas de revolución; supresión Guardias Civiles en varios puntos. Bajo Aragón revuelto". Eta urte zaharrari azken agurra egiteko: "Noticias de los horrores de Cádiz. En Valladolid tifus, guerra en Andalucía".

Bertsogileak ere ez ziren geldirik egon; bertso paperen bidez hasi ziren elkarren lehian eta hala eskuz-esku ibili ziren "Bersotxuak, gezurjario libera-larenak" eta "Bersu berri-berriyak", jendeak gogo handiagoz irakurriko zitue-nak gertuan zituzten egunetan, Gabonetan.

Aita Probintzial Felipe Gomezen bisita izan zuten Azpeiti-Azkoiti-Elgoibarko zokoetan erdi ezkutaturik bizi ziren jesuitek eta, bera gehiegi ez ibili eta nabarmentzearen, besteak ibilarazi zituen eta bilarazi: hala nola "reunión de varios en Zumarraga". Donostiara ere joan nahiko zukeen, baina ez zen ausartu; iruditu zitzaion Loiolara joaten errazago zuela eta hala egin zen "a la casa grande" (Loiola izendatzeko modua). Ez zuen poz txikia hartu gure Jose Inaziok; bazuen zenbait gauza harekin jarduteko eta erabakitzeko: "sobre la *Vida de San Ignacio, Historia Provinciae Castellae* y de varios manuscritos y libros, archivo; idem de salud y apuntes; casa en Biarritz, Bayona, rue d'Espagne, "et varia indirecta" sobre ordenar de Misa".

Gai garrantzitsuak guztiak Jose Inazioentzat: San Inazioaren bizitza, gainerako eskuzkribuak eta artxiboa; iparraldera lehen bere aurretik Teologia ikastera joan ziren beste lagunak bezala joateko eskua eta baimena; d'Abbadie eta gainerako euskalzale eta idazleak ezagutu edo agurtzekoa, baina batez ere, zuzenean galdegin gabe ("varia indirecta"), berak teologia bukatu eta apaiz izan nahi zuela, sendatua zirudiela, urteren bat atzeratu zela eta ea nola zego-en arazoa. Hartu zituen erantzunez ez dio gauza handirik, baina zerbait bai: "permiso para versos religiosos, idem *Vida de San Ignacio* pronto".

Loiolako liburuen eta liburutegiaren etorkizunak ematen die beldur. Zer

gerta ere, "ida a Loyola por libros; entretenidos en la Biblioteca. Tarde vuelta a Loyola por libros para D. Chomin Landa. Queda *Vita S. P. Ignatii cantabrice* para que lo vea el P. Garciarena". Azpeiti-Azkoitiko handizki eta jesuita batzuek (Landak, Etxabek, Olanok, Garziak, Garziarenak) bilera dute Azpeitian Altuberen etxean "cuestión de libros y biblioteca". Handik egun batzuetara "un tiro de noche a la casa de Altube". Gogoko ez dituenen batek jakin du bileraren berri. Baina Jose Inazioren liburuak mugitzen hasi dira eta Pablo Martinez Azpeitiko inprimatzaileak probak bidaltzen dizkio.

Ohi bezala, Eguberri egunean bazkari handia egin zuten aitaren etxean ("comida en casa Baroya"), arratsaldean Loiolara joan-etorri bat ere bai eta itzultzean "txokolata grodarik *goiko etxian*" eta "gastaina erriak, bisigu ta txermen sagar, postre orduan, apaltzen" bertso artean. Jose Inaziorentzat ere ez zen garai txarra neurtitz batzuk egiteko: "Versos para Reyes en euskara".

1869ko urtarrilaren 15ean Gorteetako hauteskunde orokorrak dira eta hiritarrei bihotzak sumintzen zaizkie, antza, zeren bi alderdi politikoen jarraitunen zirti-zartak areagotzen baitira. Jose Inaziok ez du kupidarik bere izen eta guzti esateko nor diren Gipuzkoako errepublikanoak: "Zabala Justo, Manuel Ezcurdia, candidatos Pablo Ibarzabal (Eibar), Genaro Emparan (Azpeitia), José M<sup>a</sup> Murua (Irún)". Horrez gain beste gai batez arituko zaigu luzaki eta hasiera aski handiroki iragarriko: "6, miércoles. Noticia religioso-literario euskara. El mes pasado y éste han salido varios papeles, y alguno que otro librito en "vascuence" muy oportunos, y en "euskara o baskuenze" contra protestantes y liberales con motivo de esparcimientos, malos papeles y libros; v. gr. contra un librito malo el bueno *Mañubel eta Pachico*, contra el mal *Inaziyo Egijariyo*, *Berso berriak Pepechok jarriak*, y *Bersu berri-berriak Drokek eta Antonek jarriak*; id. otros dos contra el mismo papel".

Bi egun geroago gaztigitzen digu bertso gehiago atera direla *Inazio egijariyo*-ri erantzunez: "son 44 zorzikos", eta biharamunean gaineratzen, herriko jendeak kantatzen dituela bertso berri horiek eta beste erantzun batzuk ere atera direla bertsoan *Inacio Egijariyo*-ri. Bestalde Carlos Orue, Loiolan eza-gutu zuen apaizari, Durangora igortzen dizkion bertsoen artean bat da "papelito 66, *Txakur amorratua*". Hilaren 15ean berean aipatzen ditu "euskerazko 20 berso berri eder para Aldalur"; Aranak berak eginak, seguruenik. Eta hauteskunde eguna igaro baita, isiltzen dira oraingoz bertso-paperak.

Errege egunean, ohi den bezala, eta San Pedro egun inguruan ere bai, oraindik azken botoak egin ez dituztenek Nobiziadua bukatzean egin zituzten botoak berriztatzen dituzte. Hori dela eta, Loiola inguruko lagun eta adiskideen etxeetan, Zumarraga eta Elgoibartik hasi eta Zarautzeraino, barreiatu-

rik bizi ziren jesuita guztiak elkartu ziren hartarako Loiolan eta eguerdian elkarrekin bazkaltzeko: "Comida de 1ª clase, juntos 26, con café".

Ezarian bezala Jose Inaziok halako batean honako hau botatzen du: "Idea del P. Cortes sobre enseñar baskuenze". Ez dio besterik, ez nork eman, ez non, ez nori. Baina egun gutxiren buruan topo egiten du Jose Inaziok Aita Garziarenarekin eta honek esaten Probintzialarekin "negocio de la enseñanza consultado", eta Azpeitian hura Gramatika ikasten hasteko leku bila dabilela. Aita Garziarenak bilatu uste duenean, "Casa de D. X. Eizaguirre, cuarto y sala en el piso bajo, 1º, local del Sr. Iceta; id. en el concejo viejo, pende del Ayuntamiento y su junta del lunes 18", kontua nahastu egiten da, beste kandidatua ere azaltzen direlako, eta azkenean On Francisco Arregui apaizak defendatzen duen Oregui apaiz jaunak irabazten du. Probintzialak ez du minutu bat galtzen: "D. Chomin Landa e yo destinados para Zarauz; Ochandorena escribiente". Ez dago gaizki!: izkiriatazale eta guzti biziko da Zarautzen.

Loiolan azkeneko konponketak egiten ditu: han uzten ditu Irundik Lardizabalen partez iristen zaizkion euskal liburu batzuk, eta trukean handik hartzen Humanitatezkoren bat, Zarautzen beharko duelakoan. Hilaren 18an jakiten da: "los votos ganados en ambas villas por los buenos o zuri. Protesta en Azpeitia sobre Manterola; en Azcoitia Hurtado y los boineros de la fábrica". Laster jakiten dira hauteskundeetako kopuru zehatzak: "Votos del distrito de Azpeitia 6712 contra 731 (negros)". Galtzaileak ez egon ados, nonbait, eta "Alarmas del pueblo de Azpeitia por carabineros; canciones populares, acusaciones por ellas". Azpeitia utzi baino lehen sekretutxo bat kontatu nahi du: lehen Loiolatik eraman zutela penaz esan zigun San Inazioaren zilarrezko irudia, Azpeitiko parrokiako "Soledade" deritzan kapilako zoko batean dagoela ezkutatua.

Atze-aurre batzuk egiten dituzte Zarautza. Zalgurdiko jarleku bakoitzak 16 erreal balio du. Ezer baino lehen bizitoki bila hasten dira eta, hara non jakiten duten han ere irakasle baten beharra dutela. Jose Inazio prest dago eta ia lehen egunetik hasten da Alzurutarren haurrei pribatuki zerbait irakasten.

Baldin erlijioso guztien egoera bada txarra, mojena ia okerragoa. Gipuzkoako Gobernadorea kontra dute. Otsailaren 6tik 15era bitartean mojen kopurua komentuetan gutxitzeko ordena ateratzen da. Egundik gutxiren buruan gauza bitxi asko gertatzen da. Altsatsuko trenean Burgosko Gobernadorea hilik aurkitzen dute eta "Regeneración del 25 de Enero: Romancero de la Revolución sobre Topete" dela kausa, Probintziko Gobernadoreak dekretu bat ateratzen du: "incautación de objetos de ciencias,



enseñanza, artes, libros, manuscritos del clero de toda España desde el 25 de Enero", eta marmar txarrak hedatzen dira moja eta apaizen kontra "sobre incautación de objetos eclesiásticos para el Estado"..

Hori azken sastada zen; orduz gero edozeren beldur izan zitezkeen, baita liburutegi osoa hartu eta eramango zutenaren ere: "temores de traslado de lo incautado. Lista de libros, libros en guardilla", eta ondoko hitzak, inork ez ulertzeko, ulertu behar zituenak baizik, gerkeraren eitezko letraz idatzi zituen Aranak: "Akribaion én oikó agío kai én errekartes kai munategi"; alegia, artxiboa Etxe Santuan eta Errekarten eta Munategin" (hango bi baserriren ize-nak). Gu gazteak ginela geure arteko maizko hizpidea izan ohi zen baratzean eginiko zulo handi batean ere ezkutatu zituztela liburuak.

Zarautza erabat joan aurreko egunetan, Zestoan izan zen batean neska gazte bat ezagutu zuen han, "D<sup>a</sup> Joaquina Zulaica, linguista joven de Cestona". San Inazioaren bizitzako liburu auzia ere konpondua utzi nahi du: "cuestión" Vita S. P. Ignatii, coste castellano 86 reales por pliego (16 páginas); vult Mart. (Martinezek nahi, alegia) 96 id; vide total". Latin-gaztelera mordoi-loa! Otsailaren 10ean azkenik Zarautzen kokatzen dira gabeko 12etan.

## 5. ZARAUTZEN (II.69 - IX.70)

Etxe-bizitze batean hiru lagun hasten dira bizitzen, bi apaiz eta Anai laguntzaile bat, izkiriatazale izateaz gain atezain lanean arituko dena. Kokatu eta biharamunean hartzen du "Mr. Antoine d'Abbadie, membre de l'Académie des Sciences" delakoaren eta hilabete batzuk lehenago Loiolara egin zuen bisita batean ezagutu zuenaren lehen eskutitza, zeini gero beste asko jarraituko baitzaizkio bi aldetatik. Aita Epelde frantziskotar azkoitiarra, Zarauzko San Franzisko komentuan bizi dena adiskide kutuna du eta izango du urte askotan; eta egun batean beste hiru lagun, D. Tomás, D. Ramón Aguirre eta D. Manuel Amilibiarekin, joaten ez zaigu, bada, gure Jose Inazio ehizera Urdaneta aldera! Baina ez da dena ehiza, Zarautzatu eta bost egunetara hasten da eskolak ematen: "Tarde inauguración de la clase de Gramática latina y escritura con sólo 7 alumnos".

Hori astearte batean, eta lau egunen buruan, Jainkoak lekuko izan zedin eramán balu bezala, honako hau: "Santa muerte a las 8 de la noche del ilustre y santo religioso franciscano Fr. José Antonio de Uriarte, 1<sup>o</sup> vascófilo contemporáneo de España, eminente por su virtud y sabiduría, y después de recibidos con mucha devoción todos los Sacramentos propios para el tránsito a la

dichosa eternidad". Oraindik biharamunean "De profundis" al ilustre finado Fr. José Antonio Uriarte de cuerpo presente en su celda... La celda es la de arriba o 1º piso, ángulo del convento con ventanas a la huerta. Era el finado natural de Arrigorriaga de Bizcaya; ha fallecido a los 55 o 56 años, sucumbido por sus trabajos mentales, gran misionero, 1º vascófilo de España y santo religioso. Su bula "Ineffabilis" en bascuende de Bizcaya la hemos visto en la celda del finado con el P. Epelde. Id. el *Diccionario analítico del bascuence* o lengua bascongada por Salcedo Novia, manuscritos en 4 tomos". Biharamunean ehorztea eta Jose Inaziok "pequeña poesía vasco castellana a Uriarte".

Ematen dituen eskolen saria eskuratzen laster hasi da: "De parte de los Alzurus entrega de paga de enseñanza desde febrero 14 o 15 hasta abril 420 reales. Pago de la casa hasta marzo, 100 reales". Bestalde modu adigaitz samarrean idazten du: "Noticias varias: A(ita) gure-gutarraren carta. Vide Lauburu euskaro o confederación".

Urte hartan, 1869an, abuztuaren erdi aldean, Jose Inazio egun batzuetarako Arantzazura joan aurreko egunetan, hilu-bulu handi samarrak gertatu ziren Zarautzen eta inguruan: "Noticia de la sublevación republicana de la fragata por Guetaria y está delante de Zarauz otro barco grande hecho en Orio o astillero de Aguinaga". Hilabete eta erdi geroago honako beste hau: "Aparece a la mañana ahorcado en un farol un gato con un paskin contra carlistas". Egun batzuk geroago: "Noticias de alarma en Pamplona; noticias alarmantes de Vitoria, Tafalla." "Novedad de tiros en Azpeitia", ekainaren 28an, eta San Inazio aurreko egunetan "Tristes noticias de Pamplona" eta "Noticias de alarmas en Pamplona; carlistas "ubique" (nonahi, alegia).

Hemendik urrutixe bai, gogorkeria handiagoak: "Tristes nuevas de las barricadas de Jerez hace pocos dias" eta, lehen ere ikusi genuen bezala, horrek berekin ekarri ohi zuen literatura merke ugaltzea, liburu koxkorak zabalduz: "Folletos de Gabino Tejado: "Toda la verdad sobre la presente crisis", "Solución lógica de la presente crisis". "Item (berebat, alegia) de otros, v.g. "Un militar a sus compañeros de armas", "La honra de Cádiz por un inconsecuente liberal", "Dios, patria y rey", 1868, París. "La libertad de cultos en España", por Urruela, pbro., Sevilla".

Politikan hilu-buluak ez ezik, atmosferan elementuen irabiaka eta iraultza galant askoak ere izan zituzten egun haietan. Otsailaren hiru azken egunetan eta martxoaren hiru lehenetan, zozo-mikoteetan, ezin esaneko eguraldi txarra: "28, dom. En la noche del domingo al lunes tormenta en la mar, que sube hasta la calle y derriba parte del camino real y parte de la muralla del embarcadero; olas que suben hasta el tejado de Narros". "Marzo, 1. Sube otra

vez la mar, algunas oleadas por la calle y olas que llegan a casa del Duque, jardines. Trae la mar un bombo o bergantín y un bote sin tripulación; rompe el bombo y arroja el bote al arenal entero". "2, martes. Vientos y mareas fuertes, tempestad por la noche. Sube de nuevo la mar hasta la calle y rodea la casa de Amilibia. Otro bote roto por ello". "3, miérc. Lluvias y temporal de gran viento, la mar muy brava". Egun batzuetan baretzen da itsasoa eta 18an berriz "Mar bastante alborotada y crecida", baina itsasoa handiena eta zakarrena 22an egon zen. Ikus: "22, lunes santo. Tempestad, vientos y lluvia continua y deshecha; mar hinchada y brava; ayer y hoy ha sido de lo más borrascoso con relámpagos, truenos; se ha perdido otro barco en San Sebastián; ha traído la mar a las costas de Zumaya, Guetaria y Zarauz maderos enormes labrados", eta hilaren azkenean "lleva la mar parte del jardín de Cond. de Guaqui".

Liburu horiek baino interesgarriago dira guretzat sailean aipatzen dizkigun beste hauek: *Misio santuaren oroipena* liburuxkak; "D. Luis Hurtado aquí; noticia suya de la Biblioteca de 14.000 volúmenes de Fernández Navarrete y familia en Abalos"; *Vida del mártir Berriochoa*, hilberria zen Bizkaiko Diputadu Arrieta Mascarna jaunak idatzia omen zuena; Kardaberazen eskuizkribua "*Vida en bascuence de la Ven. Madre Josefa del SS. Sacramento*, copia por Alejo, maestro de escuela; Juan Andrés Zabala (Azkoitiarra) me (lo) cede para copiar", eta On Gregorio Arrueri eman omen zion kopiatzeko; bai halaber *Perroni* zeritzan liburua itzultzeko, eta bide batez apirileko zorra ordaindu omen zion, 240 erreal; Aita Epelderekin Uriarteren hilobian errezu eta bertso txiki batzuk egin ere bai. D'Abbadieren eta On Nikolas Soralezaren eskutitz bana, "Historia Universal" idazteko asmoa duela gaztigatzen diola bigarrenak.

Loiolako liburutegiak oraindik ere buruko nekeak ematen dizkio eta On Agustin Jauregi Azpeitiko Erretoreak mezu hau helarazten, 9632 liburu dau dela han pilatuak. Ekainaren 1ekoa da beste hau: "sacan hoy mismo de Loyola la Biblioteca en cajones para San Sebastián", eta ekainaren 13an liburu guztiak eraman dituztela, eta iada liburutegiaren salbamendua iragartzen du: "Biblioteca de Loyola vacía". Maiatza eta ekaina hil egokiak dira apaiz bertsozale batentzat erlijiozko neurtitzak egiteko eta hala egiten ditu Jose Inaziok: "Música de Sebastián Aldalur, mi letra" maiatzeko "loreetan" kantatzeko. Makazaga jaunari eginiko eskutitz batean bidaltzen dizkio bertso batzuk.

Hiruzpalau albiste txiki emanez sartzen da bete-betean udan. Bat, Hondarribian legez kontra egin ziren kleroaren kontrako Biltzarrak, Gipuzkoako 36 edo 40 biltzarkideek salatuak. Arrue Gregoriok argitara eman duen beste liburuxka *Baserritarren etxeko eskola* deritzana. Zazpi lagunek

batera Hendaiara egiten duten txangoa d'Abbadieren gaztelua ezagutzeko eta Arantzazun egiten dituen zortzi eguneko gogojardunak. Azken biok berri xeheagoa merezi dutelakoan gaude.

Ikasleek San Inazio bezperan, ostiral batean, azterketak egin orduko, Jose Inaziok abuztuaren lehen egunean hamabost eguneko oporrak hasteko asmoa du eta bainuak ahal dituen gehiena hartzeko. Antoine d'Abbadieri kar-tatxo bat egiten dio, aurki bere etxean bisita egingo diola-edo esateko, eta lau egunen buruan zazpi lagun abiatu ziren goizeko 5,30etan Zarautzik Donostiarantz; ez guztiak jesuitak, lau bederen emakumeak, azpeitiarrak. "Comida en casa de D. Marcos A. Muñoa; brindis, versos".

Biharamunean goizeko 6,30etan atera Hendaiarantz, D<sup>a</sup> Jacoba M<sup>a</sup> Luisarekin eta Bergarako apaiz D. X. Bengoarekin, "Aizpurdin" bazkaldu, eta arratsaldean Mr. Antoine d'Abbadieren château edo gaztelua ikustera: "su hermoso edificio, posesión de su señora, D<sup>a</sup> Denis Virginie Vincente de Saint Bonet, gran pianista con una sola mano; sus aves, coco, aguilas, perros... Observaciones astronómicas, literatura, inscripciones, biblioteca vascongada, cuestiones". Txundituak denak eta Jose Inazio ez gutxienik! Biharamunean Hendaiara itzuli, han bazkaldu berriz ere "Aizpurdin" eta bederatzietako tre-nean Baionarantz, Jose Inaziok sakelean duela d'Abbadiek egin dion amoina, 5 franko eta koska. Egun eta erdi han igaro, Kanbon Intxauspe kalonjeari bisita bat egin, eta arratsaldean Donostiara itzultzean, d'Abbadie jauna bera dute trenean lagun Hendaiaraino.

Aldagarri berria hartzeko ere astirik gabe ia-ia, gaztetan ezagutu zuen Arantzazura doa, han isilik eta bakarrik gogojardunak bere gisara egiteko. Uztaileko Ama Birjinaren eguna zen. Zarautz, Donostia, Azpeitia. Donostiatik igarotzean "juego de la cucaña en la Concha junto al puerto; música, gentío. Ave Maria euskeraz". Azpeitian izeba Paula, besteak beste, bisitatu eta Loiolara lotara. Biharamunean goizeko 6etan atera eta Zumarragan ere bisita batzuk eginez eta Urretxun Urrietako apaiz Antia urretxuarra, lehen "vascófilo" deitu zuena ikuskatuz, izan zuen "encuentro en Urrejola o Urresola con D. Jose Lazaro de Egaña, casas de baño, peña oradada, molino de S. Elías antes de Araoz, caseríos Arrieruz, Guesaltza, Peñazulo. Llegada a Aranzazu a las 8,30".

Iritsi baino ez da egin, baina hango bazterren eta fraide batzuen izenak lehendik -han ikasi zuenetik- ezagutzen ditu eta sailean ematen dizkigu. "20, viernes. Ejercicios". Lehen egunean hango fraideen izenak: "Elias Arregui, Superior; Domingo Albeniz, Juan Jose Salazar, Santiago Lascurain, Manuel Arcaya, Jose Ignacio Urrestarazu, Ignacio Zubia, Domingo Gogendi,

Erostarbe (9 sacerdotes), Fr. Patricio". Inguruko toki ikusgarri eta miresgarrienak gero: "Sitios de Aranzazu: Arlepo, Arrion, Erroitegui (lugar de grajos), Gashaoroco koba, Gaztelua (Peña del Castillo), Deabruaitz, Gogordo, Aloña, Catabera, Urbiya, Belariturri, Arbianburu, Praileburu, Aitzgorri, San Adrian, Urbiya (sitio prado de pastores), Iturrigorri, Caserios de Arricruz, Guesaltza, Arrola, S. Elias (cueva), Peñazulo ("do hoy después de 17 años me ofrecen casa"), Benta, Sindica, Gomiztegui, truchas de Iturrigorri". Egun batean atentzioa ematen dio fraideek "Veni, Creator" euskaraz kantatzeak. Gogojardunak bukatzen dituen azken arratsaldean zortzi ikasleekin Aizgorrira doa eta miresten ditu hango ikuskizunak, Urbiako artzaiak eta ikazkinak.

Fraideei agur egin eta zortzietan badoa Oinati, Bergara eta Plasentziarantz, hiruretan bisita bat baino gehiago eginez, Oinatin batez ere Madalenako kapera, "do vivió S. Francisco de Borja" ikusiz, eta ahal duen oroz jesuiten senideren bat; Plasentzian Ariznabarretarrak, esate baterako. Debara korreoa eta handik oinez Alzolatik, San Antolindik, Azkaratetik barne, Azkoitiko Zabale baserrian erreberoa hartuz", eta llegada a casa de "Baroya" (paterna) a las 7,30".

Irailen eskolak hasten dituzte eta 17an Bergaran azterketak egin behar 7 mutikok. Horretarako jakin behar da aita Demingok lortua zuela epaimahai ofizial mixto baten izendapena, Donostiako, Zarauzko eta Guichongo, iparraldeko, ikastokietako ikasleak aztertzeke. "Sale mal en Geografía Vidaurre y mal en latín Narbaiza, los demás bien en todo". Biharamunean 40 graduko beroean, Loiolan barrena ("yo llego a las 12 a la "casa grande"), itzulia Zarautza, non alkatea emakumea dela esaten baitigu. Urriaren 1ean Oinatiko Unibertsitatearen irekiera eta, uda eta oporrak igaro baitira, berriz ere gerrahotsa bazterretan: "revuelta y fuego en Barcelona"; "estado de sitio por toda España; partidas revolucionarias en Cataluña, Aragón, Valencia", "horrores de Vals, Barcelona, Valencia, Zaragoza", "sucesos horribles del bombardeo y toma de Valencia". Hori guztia hilabete baten barruan.

Hemen ere ez daude gauzak guztiz bare eta geldi, baina beste toki haietako ondoan huskeriak dira hemengoak. Urriaren 11an Zarauzko udala Azpeitiko epaitegira doa eta azaroaren 5ean atxilotua daramate hango espetxera, eta ez dute askatzen, harik eta hamabost egun igaro arte. A ze musika eta suziriak egun hartan Zarautzen!

Urte batzuk lehenago Loiolan bezala, Aita Garagarzaren apaiz-lanetan "itsumutil" aritzea maite du, eta hark Durangora joan behar duen asteburu batean laguntzen dio, bide batez hain hartua duen On Carlos Orue, apaiza eta

bertsogilea, bisitatuz. Ez zen hutsaren truke egin gertatu bisita, Zarautza itzuli eta hamabost egun baino lehen eskuratzen baitzaizkio Durangoko apai-zaren bizkaierazko sei olerki; "item otras de circunstancias". Eibartik Durangorainoko bidea oinez egin zuten, alajaina!. Itzuleran Loiolara hurbildu ziren, non ikusi eta "ezagutu" baitzuen Jose Inaziok txakur txiki-polit bat, Carlin zeritzana, eta, ez tut ez murt, berekin eraman zuen Zarautza, gabeko 10etan etxeratuz.

Bizi diren hiru lagunek etxebizitza ez dute erabat atsegin eta berriaren bila dabilta. Begiz jo dutena Bizkonde kaleko 18 zenbakiduna da eta jabea On Francisco Egaña du; harekin hitzegin eta laster moldatzen dira. Ez dakigu zenbat pagatu behar izan zuten, ez eta pagatu behar izan zutenik; behar izan bazuten, Jose Inaziok 320 erreale kobratu berriak ditu ematen dituen eskolen sari eta aski izango ziren. Egun gutxiaren buruan guztiz etxekotzen dira eta Jose Inaziok berehala ikasten du nola derizten ezker-eskuineko etxeei: "Casas vecinas al nº 18: Dolores-enekua, Gorriya-nekua, Damiana-, Sagasticho-, Landa-, Sagarnanekua".

Eguberriak gertu dira eta horiek heldu baino lehen nahi ditu bizpahiru lan bururatu, gero beste egitekorik gabe Azkoitian jaiak emateko. Batetik D'Abbadie jaunari Eguberri eta Urteberriko zorionak opatuz eskutitza idazten dio. Bestetik Erromatik Anai Lizargaratek eskatu berriak dizkio "Gipuzkoako Gizaseme Ospetsuen" bizitzako paperak eta fitxak, eta hara igortzen dizkio Urtezaharra bukatu baino lehen Guakiko Kondearen bidez. Horrenbestez joan daiteke lasai Azkoiti aldera eta hala egiten du Gabon egunean, biharamunean parrokiari D. P. Arambarriren Meza berria entzuteko. Familiarekin eta hainbat ahaide eta adiskiderek zortzi egun eder igaro eta Urtezaharrean berriz Zarautza itzultzen da, hango bi lagun jesuitekin batera afaltzeko.

## 6. "ESTADO DE GUERRA EN GUIPUZCOA" (1870.8.29)

Gasteizen, Iruñean, Tafallan gertatu zela hor goian irakurri dugun bezalakorik ez zen abuztu arte gertatu Gipuzkoan, ez da gutxiago ere; kanpoan zerbait bai. Urtarrilaren 8an Madrilen ministro arteko krisia sortu zela; martxoaren 13an Madrilen Enrique de Borbon hil zuela Montpauzier jaunak duela, Carlos VIIa eta Cabrera biziki haserretu zirela eta betiko banandu; 50 soldadu sartu zirela herrian, eta beste zerbait. Bitarte horretan hiru eskutitz idazten dizkio d'Abbadieri Jose Inaziok. Aitak aldiz, idatzi ordez, Zarauzko bidea hartzen du San Jose eguna –ez ziren alferrik biak Jose– bere semearekin

ospatzeko. Agian berdela jango zuten bazkaritan, berdel harrapaketa ikaragarria egin omen baitzuten Martxoan hango itsasgizonek.

Aurki izango du berriz aita ikusteko parada, zeren Aste Santua Jose Inaziok Loiolan eman baitzuen eta Antxieta, Zuazola eta inguruko gainerako adiskideak agurtu. Aiako erretorearen etxean maiatzako egun batean hartzen duten kafe denboran "Jauregui D. Ignacio con boina blanca en el café" egon omen zen, baina horrek baino atentzio handiagoa ematen diote han ikusten dituen Kardaberazen liburuek eta Mendibururen obrek. Laster herriko San Pelayo festak dira eta eskolako mutikoak –sei baizik ez!– Donostiara doaz azterketak egitera. Zarauzko San Pelayotan "baile de 19 miqueletes y de 46 o más chapelchuris" eta egun gutxiren buruan Berzadira doa Carlos VII.aren euskal karta bat eramanez.

Biharamunean Alkizan egiten du egun pasa eta Aguerreberri baserria bisitatzen, "do se bañó el mártir Berriochoa", eta arratsaldean "koblakari" Agustin Lazkanoren euskal bertso eta kantu saioa entzuten. Ez dakigu ze saltsa darabiltzan esku artean, baina hamar egunen barruan Baionara, Bergarara, Plasentziara eta Azkoitia-Loiolarako joan-etorriek gehiegixko dirudite. Baionan Manterola jaunari lagundu omen zion Meza eta Duvoisin ikuskatu, besteak beste. Bergara bidean jakin du "La boina Blanca" izeneko aldizkaria arestian hasiko dela irteten Zumarragan, eta hara iristean "La Enseñanza"-ko mojak bisitatzen ditu, eta hiru egunetan Valleko Kondearen eta On Antonio Ezterriparen etxean, ez dakigu nolako bilerak egiten, beste zenbait jendekin.

Asteartean itzulia egiten du Valleko Kondearen zalgurdian eta Azkoitira iristean bazkaria egiten bere etxean eta kafea Granadako Dukearen etxean hartzen, Bergaran izan diren lagunetako hirurekin: Gamundi Jose, Aldalur Pedro eta Barrutia Benignorekin. Izeba Paulari ikustalditxo bat egin Azpeitian eta gaberako Loiolan da gogojardunak egiten hasteko. Bukatzean Zarautza berriz eta ahal duen bainu guztiak hartu. Damurik ez asko, Loiolan norako berria eman baitio Aita Probintzialak: Urduñarakoa.

Bai, Zarauztik alde egin behar dute hiru lagunak eta Urduñako kolejiotan irakaskuntza lanean aritu, datorren urriko ikasturte berritik aurrera. (Eta zer egingen da Carlin txakur txikiaz?). Hasteko "se mandan para Orduña dos grandes cajones, uno de cuadros, libritos, otro de libros y un cofrecito con candeleros". Etxea lehenbailehen hustu nahi dute, giltzak bere jabeari eman eta zor duten alokairua ordaindu. Lagunei agur egin eta Loiolara doaz abuztu-irailak pasatzera eta bizpahiru bidaietan Urduñarako den tresneria eramatera. Zumarragan Bermejo jauna ezagutzen du, "La boina blanca"-ren zuzendaria.

Hiru haiek Zarauztik atera zain egon direla esan behar bake-giroa asaldatzeko. Uztailaren azkenetan "rumores de Carlos VII, de levantamientos"; "vanse los miqueletes todos; bulla y rumores"; "señales de levantamientos, tiros"; "novedades y desasosiego de gentes, estado de guerra en Guipúzcoa, chicos de Azcoitia, Azpeitia; sale Amilibia de la posada con otros para el monte y Azpeitia, luces de noche en Izarraitz, Araunz"; "diversas noticias"; "600 carlistas en Azcoitia, muchos en otras partes"; "noticias de levantamientos en Vizcaya, Alaba, Navarra y Aragón"; "los miqueletes de Azpeitia hallan 80 armas y entran con ellas en Azpeitia"; "carabineros y soldados de refuerzo para Urdampilleta"; "guardias carlistas de Azcoitia, Cherloye"; "van los carlistas de Azcoitia por Vergara y Oñate, según noticias"; "van a Azcoitia y hasta Azcarate los miqueletes y tropa que estaba en Azpeitia con Urdampilleta sin resultado".

Hori guztia astebete eskasean, uztailaren 26an hasi eta hil beraren azkena arte, eta ez dira hor amaitzen kardabak. Irailaren 3an "llegan 200 de tropa de línea a Azcoitia" eta 4an "pasan más tropas a Azcoitia, llevan a San Sebastián a algunos presos carlistas, cura de Madariaga"; "vanse las tropas de Azcoitia a las 9 de la mañana hasta Elgoibar. Noticia de que vuelven a casa los carlistas mozos. Noticia de prisión del emperador Napoleón". Madariagako apaiza ez da eramaten duten bakarra; ez diete gainerako erlijioso, moja eta apaizei ere barkatzen: "Salida hoy mismo de los religiosos de S. Francisco de Zarauz, quedándose el presidente, el P. Elola, y algunos legos", "llevan preso a San Sebastián al Rector de Azpeitia, D. Agustín Jauregui, con general sentimiento", "carta de D. Gregorio, Zarauz, de donde han echado a los frailes del pueblo, sigue persecución de curas".

Egun horietanxe gertatu zen, izan ere, abuztuaren 29an, Azpeitiko matxinada delakoa, buruzagi omen zen -hala nahi liberalek- parroko erretore jaun On Agustín Jauregi preso eramán zutenekoa. Nahi izan bakarrik ez; epaitu ere, halakotzat epaitua izan zen, elizako koruan gorde omen zituelako "La Azpeitiana" izeneko arma-fabrikari eginiko fusilak. Aita Garziarena, Loiolako Santutegiaren zaindari gelditua ere, kartzelaratu zuten. Organista On Jose Inazio Aldalur apaiza eta Azkoitiko erretore On Pedro Aldalur erneago ibili ziren, haien bila joan zireneko mugaz haraindira ihes eginak baitziren. Hiru urte geroago 1873ko abuztuan buruzagi karlista Lizarraga Balentinek, ezizenez "Kalatra" deituak, ez Lizarraga Antoniok, hartu zuen Azpeitia.

Jose Inazio Loiolan dago, Urduñara joateko azken egunak pasa zain, eta han barruan ere ez daude oso lasai. Agorraren 5ean "registro de Loyola por los miqueletes hasta las 11; estaban cercando a Loyola desde las 5 de la mañana". Hil beraren 14an "oficio de Rocaverde a la 1,30 ordenando entrega de lla-



ves del Colegio y su evacuación en término de 48 horas por los dos capellanes". Ondoko egunetan "sacar trastos y preparación para la salida", "dos baúles y cajas preparadas para Orduña", "a las 4,30 se presentan el alcalde Platero de Echaniz con el alguacil a recoger las llaves, que luego se las entregan a los dos miqueletes destinados para custodia del edificio. Se colocan los Nuestros en Azpeitia en dos casas: Mendiola e Ibero. Yo a dormir a Azcoitia".

## 7. URDUÑAN (1870-72)

Loiola inguruko baserrietako lau mutiko daramatzate berekin Urduñara, han "morroi txiki" lanetan aritzera, gaztelera eta gramatika pixka bat ikastera: Luis, Gabriel, Jose Ignacio eta Juan Jose. Loiolatik astelehen batean atera eta astearte arratsaldeko bostak laurden gutxitan Urduñan dira. Ostiralean Baionarantz doa A. Arana, ez digu esaten zertara; bai ordea hemendik ihes eginda han bizi ziren Valleko Kondea, Iturbe jauna, Olazabal Tirso jauna, Aldalur eta Alberdirekin egon zela, bai eta Donostian kartzelan zegoen Aita Leza nafarra bisitatu eta hiri honetan jesuitek eraiki berria zuten "la nueva casa colegio en la Avenida de la Libertad" ezagutu zuela. Biharamunean bederatzitortan Urduñara. Unibertsitatea balitz baino areago "distribución de cátedras y oficios", eta pixkanaka "llegan al colegio 30 alumnos internos y duermen ya en el colegio".

Jose Inazioekin batera Zarauztik etorri den Txomin Landa izendatzen dute ikastetxearen zuzendari eta jesuita taldea osatzen dutenen artean Aita Garagarza ere badago. Egun gutxitan ikasleak 120raino igotzen dira. "Se descajona el Gabinete de Historia Natural y de Física, que ha llegado bien" eta biharamunean d'Abbadieri karta bat egiten dio eta handik zortzi egunera beste bat. Urtearen azkenerako falta diren hiru hilabete eskaxak neke-poz handirik gabe igarotzen dira; Amurrion, Artomañara, Tartangara ibilaldiak egin eta haietako apaizekin ezagutzak harturik, pilota partiduren bat jokaturik eta "Correspondencia Vascongada" irakurririk, hala nola Iparragirrez artikulu bat lehen zenbakian. Eguberrietan mutikoen olgetarako lau antzerki edo komedia jokatzen edo antzezten dituzte, mutikoek berek, aurreko egunetan behin eta birritan entseaturik: "Las cinco partes del mundo", "Diálogo de los zapateros", "Los gitanos" eta "El ventero", eta Urteberrian, 1871an, sartzen dira elurte handien artean, Mirandako trenan Urduñara iristen ez dela. Urtarrilaren azken egunean 8 gradu dituzte zeropean.

Aranaren eta d'Abbadieren arteko harremanak maizten diren urtea da Urduñako lehenbiziko hau. Hamabost bider azaltzen da haren izena; esateko

edo idatzi diola edo haren eskutitza hartu duela edo liburu batzuk igorri dizkiola. Lardizabal apaiz Zaldibiarrek ere egiten dio eskutitz bat. Etxeko liburutegia berritzeari ekiten diote eta Bilbora egiten duen bidai batean "Euskalduna" inprimategia ezagutzen du, bai eta karlisten kasinoa ere, eta zenbait adiskide bisitatzen, haien artean Aristides Artiñano jauna; eta bizartegi baten ondotik igarotzean, bizarra kentzen du "dejando bigote y perilla".

Urduña inguruko herri-herrixken izenak mila bider aipatzen ditu, mila bider oinkatzen eta antzinako aztarrenak usnatzen: Ujuli, Unza, Iñozo. Laudioko Erretore jauna den On Jose Larrea "vascófilo" dela esaten digu. Jesuitek oso hartua duten On Pedro de Piñera, lehen alkate izana, ateratzen da Diputadu martxoaren 9ko hauteskundeetan, maiatzaren 8 arte albistea ezagutzen ez den arren, eta handik hiru egunera "come al mediodía en el colegio el Sr. diputado D. Pedro M. Piñera". Erramu igandean "procesión de la Borriquita. Llevan en hombros una borrica con el Señor encima". Pazko arte esan daiteke ez dela beste gauza berezirik gertatzen eta batik bat Jose Inazioren liburuei dagokienik batere ez. Uztailaren 22an laburki ematen digu hango Lore Jokoen berri: "concurso de bardos por Mr. d'Abbadie". Urteroko "Historia Domus et Litterae annuae" idazte-lana bere gain baitago, amaitua du abuztuaren 10ean oportetara abiatu baino lehen.

Zarautza doa ama hilberria duen eta Zarauzko semea den Landa Txominekin. Hala deitzen du beti bere laguna, nahiz ikastetxeko erretore den. Hilaren 10ean abiatu eta Plasentzian, Zumarragan, Azkoitian barrena doaz; bazkaltzera Azpeitiara, "a casa de Ibero, do está el Marqués de San Millán cojo, con sus tres niñas", Loiola aipatu ere egin gabe. Zarautza gauerdiko hamabiak jo eta gero, hamabost egun igarotzera. Etxe batean esaera hau entzuten du: "- Ikusi onelako? - Ez, nere begiyak gaitzik ez diyo egin".

Azken egunean d'Abbadieren eskutitz bat hartzen du eta 29an Bergara, Plasentzia eta Durango zeharkaturik eta Bilbon lagun batzuekin bazkaldurik, "salida para Orduña a las 3 con D. Pedro Piñera, D. Pablo Arguiñano. Llegada bien a Orduña a las 4,45 o 5".

Kontatzea ahaztu zaizkion edo azalpen luzeagoa merezi zuten albiste bizpahiru utzi ditu azkenerako. Egun batean diputadu errepublikano Pablo Soler izan zela ikastetxea bisitatzen. 26an, larunbatean, Australiako Daulikako Apezpiku jauna, "que ha bautizado los hijos de D. Carlos VII, cenó y durmió en el Colegio. Llegó el Sr. Obispo con los Sres. Bustó y su Sra. y D. Manuel de Goicoechea, primo de ella y vascófilo, miembro de la Real Academia de la Historia en Madrid, su bibliotecario con otra Sra. y se fueron a Luyando, a donde se fué el Sr. Obispo al día siguiente. Goicoechea llevó el libro de *Claros*

*varones guipuzcoanos*". 30ean, larunbatean, –hori oker dago, 26 eta 30 biak larunbata ezin dirateke– Busto eta Goicoechea jaunak han dira berriz ere bazkaltzen, kotxea eramanik Berberanako Konde-Kondesentzat, "que ceden ahora la huerta al colegio". Han dira egun berean Joaquin Alcazar eta bere ama eta On Jose Cruz, "y trae –amak, agian– preciosidades de Habana para el gabinete y tabaco".

Bere semeak ekarriaz Urduñaturik, elkar jotzen dute han eta egun pare bat elkarrekin igarotzen Mendia, Leal, Izaga, Alberdi, Alzuru, Ibero, Bobadilla eta abarrek, marka hausten duelarik Cesareo Eguidazu jaunak, hiru semetxo han utziz. Ikasturtea zenbait albiste alairekin hasiko dute eta hasiko du Jose Inaziok: "Llegan los carlistas presos de Valladolid; idem. organista de Llodio, pbro. D. Pedro de Lasuen". Laudioko beste albiste bat ere ikasi berria du nonbait, aurrekoa dela-eta: "Noticia de D. José de Larrea, pbro., párroco de Llodio, traductor de *Las Glorias de María*, y de D. Galindez, ambos vascofilos". Azkoitian kokatu berrialdi hartan Aita Ramon Garcia esan digu Jose Inaziok liburuxka horixe bera itzultzen ari zela; gaztelerara, noski. Beste albistea, hau Jose Inaziori dagokiona: "Carta y dos opúsculos de Mr. capitán Duvoisin desde Bardos, cerca de Bayona".

Urriaren 1ean ikasturtearen irekiera nagusia ("empieza el curso con 600 reales de deuda"). 90 barneko ikasle omen dituzte, kanpoko beste hainbeste eta gehiago. Errekarteko Patxi azaltzen da bere seme bat morroi-txiki izatera ekarriaz. On Sebastian Aldalur ere bai, musika irakasle izateko, eta ongi iristen dira "8 cajones de Física". Luzakizunik gabe "una carta larga" egiten dio Jose Inaziok Mr. d'Abbadieri; hamabost egunen buruan honen erantzuna hartzen du eta biharamunean astirik galdu gabe beste bat egiten Jose Inaziok.

Hotz ikaragarria dute abenduaren hasieran; bederatzi gradu eta erdikoa zeropean. Ama Birjinaren egunean, hezurak eta mamiak berotzeko-edo, ikasle dantzari-txikien saioa da eta haiekin batera ez du lotsarik Aita Garagarzak berak ere auresku dantzatzeko. Bi liburuxka igortzen dizkio Jose Inaziok Mr. d'Abbadieri, *Novia* y *Espíritu carlista*, eta ez dio Gabon gauan jateko kapoirik igortzen, beharko ez duelako, ez Durangon mordo bat pilatzen ez delako: "Llega la jaula de capones de Zarauz", "Llegan más capones".

Urte berriari, 1872koari, ez diote hasiera txarra ematen ez tristea, zeren alde guztietatik albiste onak eta alaiak datozkie: "noche teatro; conclusión a las 11,30 con *jorrai dantza*". Ez dirudi gose izango direnik ere hurrengo egunetan: "mátase el cerdo de 14 arrobas casi". D'Abbadieri bidaltzeko liburu-kajoi bat prestatua dauka otsailaren 2an eta, hona batbatean guztiz ustegabeko albistea: "Se acaba el tratadito *Teoría de poética general*", gorago aipatu

genuen *Arte métrica bascongada* ez bezalakoa, noski, eta inondik ezagutzen ez genuena. Guadalupe omen deritzan nobizia batek, agian nobiziagaiak, Madoz-en *Diccionario Geográfico de España* ematen die dohan. "Permiso para la Vida de San Ignacio" eskuratzen du; d'Abbadieren eskutitza 24an hartu eta berak 30ean erantzuten dio; Txominek eta biek Serapiori eta Agustini pilota partidua irabazten diete, nahiz biharamunean hauek irabazi.

Zerbait arraroa somatzen du gure Jose Inaziok hainbeste berri aldekotan; edota beharbada datozkien eta oraindik ez dakizkien gertari beltz eta kontra-koen seinalea atzematen horoskopoen. Otsailetik martxora igarotzean, hone-la dio lerro berriaren erdi-erdian: "Febrero de cinco jueves, cosa rara!". Eta asmatu balu bezala, Martxoan berean etxeratzen zaizkien berriak hauek dira: "Noticia de que a Loyola van cuatro compañías de soldados", "temores de alarmas políticas", "noticias alarmantes de la situación de España", "graves rumores de alarma general para el día 2, 5, etc. de abril".

Eta apirilean sartu orduko, beste horrenbeste. Uztailaren 15ean d'Abbadieri eskutitz bat idazten dio eta gudu-aldi gogorrenaren zantzua abuztuaren 5ean hitz hauetaz amaitzen da: "El "Euskara" ha cesado". Abuztuaren 11an d'Abbadieri honako gauza hauek igortzen dizkio: "el discurso de Fuente, do están los escritores vizcaínos, y el *Oficio de la Concepción* en vascuence, impreso en Roma y otros papeles con Echeguren que va a Bayona y Poyanne". Hitz hauei eskerrak dakigu batzuetan Erroman argitaratzen zituztela euskal liburuxka batzuk.

Oraindik ez baitira borroka zalapartak erabat isildu, 22an handik alde egitea erabakitzen dute eta Santurtzira joatea oporrak hartzera: "casa piso de D<sup>a</sup> Esmeralda con vistas al mar".

## 8. ESPAINIAKO HISTORIA KENDU ARANARI (1872)

Kanpoan egon diren bitartean gauzak ez dira Urduñan batere hobetu. Hilaren azken egunean "publicase en Orduña el manifiesto del novísimo Ayuntamiento contra el Colegio" eta irailaren 2an oporrak eten eta Urduñara itzultzen dira, okerrak nola zuzenduko: Isasi Andres jauna eta beste zenbait handiki biltzen dira ikastetxeko arazoa dela-eta. Publicase la "Vindicación de los Fueros de la verdad ultrajada" kolejoari egin jazarpunen agiriekin. Baina Udalak ez ditu onartzen Isasi Andres jaunak eta beste batek arazoa konpontzeko agertu baldintzak eta erabakitzen da kolejioa ixtea. Alferrik da San Franziskon egiten den "junta de más de 50 capitulares a las 6,30 de la mañana

sobre el asunto del Colegio". Lehengo moduan dirau Udalaren eta ikastetxe-aren arteko kalapitak. Halere hilaren 9an erdi konponketa bat egin dela esan behar alkate herrenarekin.

"Sale una compañía de soldados al monte". "Noticia de descarrilamiento en Cataluña". Eta etxeko komunitate osoak gogojardunak hasten ditu, ezer gertatzen ez balitz bezala. Bukatzean alkate herren jauna datorkie etxeko obrak ikustera, eta bertantxe hasten dira mutiko ikasleen gurasoak, kolejio ixte konturik jakin nahi ez dutenak, asaldan Urduñara beren semeak ekartzen -"Ilegan los de Zarauz y Azpeitia"- eta irailaren 29an bildu ikasleak ia 90 dira. Bada txakoli dakarren Zarauztarren bat ere eta harekin penak ahanzten zaizkie.

Urriaren 1ean ikasturte berriaren hasiera Espiritu Santuaren mezaz; han zen Udal berria. Uztailaren 27an kontatu zuen Jose Inaziok erretore berri Aita Olanok erreparoren bat ipini ziola bere Espainiako Historiako programari, 28. zenbakiko ikasgai "adversus liberales"-gatik, bizi zuten politika giroan hura hala irakastea kaltegarri izan zitekeelako-edo. Orain adierazten digu Erretoreak erabaki duela ikasgai hori bake-zurrean D. Bernardok eman dezan. Ez ote da izan hau, eman behar izan duten kolejio irekitzearen ordaina? D'Abbadieren eskutitza hartzen du Aita Aranak eta kolejiora ikasle bilbotar berri bat heltzen da, Sabino Aranaren anaia Luis.

Oraindik ere armen txingar batzuk distiratzten dira inoiz edo behin Bizkaiko zeruan. Ikasturtea hasi eta hilabete baino lehen, "folleto de D. Benigno Rezusta sobre la Revolución de Guipúzcoa". Santa Zezilia egunean "alboroto republicano en Bilbao". Hiru egun geroago "salen los soldados de guerra para Bilbao; pasan otros de Vitoria allá". Beste hiru egun igaro eta, "noticias alarmantes de republicanos y carlistas. Voluntarios de Orduña con uniforme".

Abenduan ere horien antzeko zirti-zartak: "noticias de presos republicanos de Bilbao"; "nueve voluntarios liberales en la dotación de Sagarmínaga; rumores de levantamientos"; "proclama y noticias de Velasco; lo de Mañaria, Navarra"; "noticia del ataque nuevo de Mañaria". Baina orohar albiste onekin ematen diote buru urte zaharrari, zeren hilaren 8an, Birjina Orbangabearen egunean, haur ikasle batzuek lehen Komunioa egiten dute, eta haien artean Luis Aranak. Hilaren 10ean esaten zaigu *Claros Varones*-en 12 liburu heldu direla; 27an "cuestión del *Diccionario trilingüe*" con D. Alejandro, eta urte zaharrean d'Abbadie jaunari mandatuak, eta Juan de Landaburu pintatzailearen bitartez karta.

Bukatzerakoan doan urte zaharraren mementuari dagokion iritzi hau ematen digu Jose Inaziok: "Diciembre 1872. Sigue algo la sublevación republicana y se

aumenta mucho la carlista. Buenos tiempos por Navidades. Tristes nuevas de Roma: esfuerzo de los liberales contra el Papa y Compañía de Jesús. Circulares y pastorales de prelados españoles sobre el culto, clero y religión".

Baina hemendik aurrera, goragotik hasita, ondoko bost hilabeteetako, apirileko-abuztuko, eta hurrengo bi urteko albisteak, gerrako notiziez zirtatuak baitaude, euskarara aldatzeak asko galduko luke. Beraz hobeko dugu testua dagoen dagoenean utzi eta entzun Urduñan bizi zenak nola kontatzen digun Urduñako eta inguruko tropen mugimendua, hiru urte haietan barrena. Hau izango da liburuaren *I. Monografía: Pormenores de la 2. guerra carlista* titulupean liburuari bukaeran eransten diodana.

### III. ATALA

## ETXETIK URRUN

### (1873-1880)

#### 1. TEOLOGIA POYANNEN (1873)

Aita Arana Urduñan 1870ko irailetik 1873ko abuztua arte bizi izan zen eta gerra-txinpartak, irakurri dugunez, 1873ko lehen erdian oraindik bizirik zeuden. Beraz gure kronikaren jostorrazak 1873ko abuztuan Urduñara garamatza berriro, Urduña baketsura, Aita Aranaren pausuei jarraituz ondoko hilabeteetan han zer berri gertatzen den jakiteko.

Izan ere, Aranari ez zaio ahaztu nola, Azkoitian bizi zela, bildu zen behin 1868ko abenduan, Loiolan erdi ezkutuan Aita Probintzialarekin, eta nola han liburuen kontua ez ezik aipatu zion "et varia indirecta, sobre ordenar misa". Bada, duela oso egun gutxi, agintariek agindu diote Urduñatik atera eta ia bederatzi urte lehenago Leonen utzi zuen bidea berriz har dezan: teologia ikasketak, alegia. Ez ordea Leonen, handik ihesi atera behar izan baitzuten orduko teologoek, baizik Lagundian sartu berritan ongi ezagutu zituen iparraldeko Hagetmau-n eta Akizen eta han inguruko lurraldeetan; konkretuki Poyannen, non baitzeuden orduan jesuita euskaldunen eta beste zenbaiten Teologia eta Filosofia Fakultateak, bai eta Humanitateak eta Retorika ikasten ari ziren gazteen bizitokia ere. "Hirugarren Probantza" delakoa egiten ari zirenak, aldiz, Larbey-n zeuden, Poyannetik ordubetera-edo.

Ia bederatzi urte lehenago, esan dugu eta asko dirudi, baina kontuan edukirik orduko bere lagunek Leonen ikasten ari ziren Filosofiako hiru urteak osatu; gero, auzkalo non, maisu-txiki garaiko hiru (edo lau edo bost) urte egin, eta orain, Jose Inazio iristean, Poyannen ikasten ari diren Teologiako lau urteak ikasi behar dituztela, ez da harritzeko oraindik han idorotea Jose Inaziok

Nobiziadoan sartzean eta ondoko bizpahiru urtetan kide-kide izan zituen lagunak.

Bizitoki berrian beharko dituen arropak eta lanbide berriko tresnak prestatu, Urduñan egin dituen lagunei eta ezagunei agur egin eta, abuztuaren 5ean, asteartean, abiatzen da goizeko 9etan Bilborantz: "mi baúl sobre un carro de paja llega bien a Bilbao, gracias a Dios". Gurdixka zahar batean doa. Baionan geldialdi bat egin eta ostegunean iristen da Poyanner. Heldu orduko jakin du 200 lagun bizi direla etxean, hiru etorburutakoak: Gaztela, Aragoi eta Napoleskoak.

Ondoko egunetan, etxetik bi pausu ematera ateraz gero, hegoaldeko jende ezagunarekin, gerratik ihesi etorriarekin egiten du topo: Valleko Konde-Kondesak, Guakiko Kondesa, Aguilafuentes, "Angel el de Zarauz", Orue durangoarra, Egaña zestoarra, Aldalur Jose Inazio azkoitiarra, Arrese eta abarrek. Beste batzuk ere, Elio jauna eta Azpeitiar Alzuru, D. Domingo, Iturbide eta Zabala, ez dabilta oso urruti, noizik eta behin agertzen baitzaizkio.

Badu orain ere esku artean libururen bat, zeren "corrección de pruebas para Bilbao" idazten baitu egun batean, eta horretan berean entzun batera aski miragarri egiten zaigun beste esaldi hau: "Vascófilos de casa". Bildu direla-edo esan nahi bide du. Egun gutxiren buruan argituko zaigu.

Ez daude hegoaldeko albiste politikoen arras ezjakinean. Honelakoak maiz iristen zaizkie: "Noticias varias de Loyola, do el Rey con 5 o 6000 hombres ha comulgado"; "llega el zapatero que ha estado con el rey en Loyola"; "léese en el refectorio la carta-relación de la com(uni)ón de las tropas reales en Loyola el 8 de Setiembre"; "llegan el P. Arostegui y los HH. Echarri Albino y Pedro Echeberria que han visto y hablado al Rey en Vergara"; "llegan los PP. Garciarena e Iturri; cuenta el P. Garciarena a los teólogos lo de Loyola"; "lectura del Orden General de Ollo del 8 de Octubre y el Rey en Estella el 10. Pónese el mapa de España en el tránsito de abajo".

Urriaren 1ean da ikasturtearen hastea Poyannen. Teologiako zein mailari ekin zion Jose Inaziok? Teologia ikasi behar izaten zen lau urteetatik demagun lehena amaitu zuela Leonen, bigarren aldiz "sub finem cursus primi" eritu zenean, berak karta batean dioenez. Eta lehenaz gain zenbat gai zituen iada bere gisa ikasiak Loiolako, Zarauzko eta Urduñako bakar-ikasaldietan, edota zenbat eman zizkioten ikasiztat eta homologatu Poyannen? Ez jakin, berak ez baitigu deus esaten. Manuel Revueltak, lehen aipatu eta gero aipatuko dugun historialari jesuitak, honela dio: "estudió teología en privado de 1871 a 1873



en Orduña y en Poyanne". Zernahi gisaz, uste baino lehenago ikusiko dugu aldareko mailatan gora igotzen meza ematera.

Egun batzuk lehenago d'Abbadieren txartel bat hartu du Aranak eta honek egun berean gutun bat egin dio. Geroxeago iparraldeko desterruan bizi diren jesuiten eta jesuiten etxe guztien diruzain nagusia den Aita Beolaren eskutitz bat hartzen du Baionatik, "con la factura de los instrumentos procurados el 24 de Mayo de 1873 por Mr. Antoine d'Abbadie".

Aurrera gabe diogun geure kabuz bi hitz Poyannez. Baionatik urrun ez dagoen herrixka horretan etxalde zabal bat, bere "château", baso, belardi eta guzti, erosi zuten 1869an hegoaldeko jesuitek, iparraldera ihesi joan behar izan zutenean. Gaztela deituriko Probintzia osoko nobizio, junior, filosofo eta teologo guztiak sartu ziren etxe hartan. Ez zen nolana hiko! Bi jantoki zituen; batean teologoek eta bestean gainerako guztiek jaten zuten. Ikasturte 1869-70koan 180 lagun egon ziren danera han bizitzen, eta jesuita gazteen ia dozena bat belaunaldik han eman zituzten bizitzako urterik ederrenak. Ez ziren handik mugitu 1880. urtea arte, salbu teologoak, Salamankan eman zituzten 1870-73 hiru urteetan. Anai Iturria Gregoriok, latin eta gerquera irakasleak, honela zioen behin: "Cuanto al País, basta decir que es como las provincias vascongadas, con la diferencia que los montes son llanos en su comparación. La gente es también muy sencilla y parece que sólo les falta hablar vascuence para ser como la de las provincias".

Poyannek betiko markatuak utzi zituen han bere ikasketak egin zituzten jesuita gazteak eta handik igaro ziren euskaldunek bederen elkarri ertsiki lotuak iraun zuten beti. Ia esan zitekeen Gaztelako Probintzia bi motatako lagunetan banatzen zela: Poyandarretan eta ez Poyandarretan. Baina egia da halaber, Lagundi barruan gero izan ziren karlisten eta integristen arteko liskarren hazia Poyandar askoren ondare tipikoa, txarra noski, izan zela. "Cartas de Poyanne" izeneko paperek ezin hobeki kontatzen dute nolakoak izan ziren hango egun gazi-gozaok.

## 2. EUSKAL AKADEMIA (1873-4)

Urria bukatzen utzi gabe, 30ean, ostegunean, hona hemen ustegabea, lehengo "vascófilos de casa" hura argitzen diguna. Handikiro ematen digu Jose Inaziok haren berri, AMDG eta guzti, bai baitaki Lagundia Lagundi zenetik lehen aldiz sortzen zela horrelakorik haren baitan:

"1873, 30, jueves. AMDG,  
principio de la Academia C(atólica) de Bascófilos  
a las 6. Primeros académicos:  
P. Oyarzun, Churruca, Embil, Olano, Echeverría y  
Arana".

Bere izena azkena, baina egin genezake apustu bera izan dela erakunde berri honen bihotz eta arima, hori onararazteko Buruekin hizketatu eta arrazoiak ikusarazi dizkiena: ea zergatik, alegia, beste hizkuntzak ikasteko edo, latina edo gerquera bezala, ikasiei eusteko eskolak bai, eta euskara txikitandik dakitenek hari eusteko ez? Aspaldiko egia eta ez frogatu beharreko arrazoia dirudi horrek, baina Aranari Poyannera iritsi eta esnatu zitzaion arte, hila bezala egona. Taldearen idazkari nor izan zen ere badakigu, Aita Cesareo Txurruka, "Secretario Nato de la Bascófila Academia" izendatzen baitu harroko eta umoretsu bere burua 1874ko karta batean.

Ez dira horiek guztiak; falta dira hor euskalzale on askoak, Aizkorbe, Atxukarro, etab., baina teologia bukaerako "ad gradum" delako azterketa latz-latza, Damoklesen ezpata bezala, buru gainean dute zemaika eta ezin bes-tetan denborarik galdu. Noizean behinka beste batzuk ere joaten ziren bilerara; hala ekainaren 10ean Bidaurre eta Betelu ere han izan zirela badakigu.

Martxan jarri arte lan gehiago nonbait, edo beren artean eztabaidatu nahi, zer egin bileretan edo zein liburu har aztergai, kontua da hurrengo astean bi bilera egin zituztela, asteartean eta ostegunean, eta hartako edo bestetarako *Ofiziotxo*-aren lau ale hartu zituela Jose Inaziok Azpeititik egun haietako batean. San Estanislao egunean, azaroaren 13an, bi bisitari berri eransten zaizkie euskal Akademiako bilerara: Aita Bidaurre eta Atxukarro, eta hauek "idea de la Academia" proposatzen omen die besteei. Baldin egun bereziren bat fortunatzen ez bazen, hala nola Xabierko Frantziskorena, eta hori zela bide aldatzen bilera eguna, osterantzean ostegunetan biltzen dira. Inoiz gertatzen zaie kanpoan bizi den lagun euskalzale baten eskutitza edo are neurtitzak hartzea, eta orduan haiek dira irakurgai eta aztergai bileran, hala nola Larbeytik Aita Urraburu Zeanuriko seme prestuak abenduko Ama Birjinaren egunerako zortziko batzuk bidaltzen dizkienean, eta areago dena, biharamunean eskutitz bat "sobre zorzikos".

Urraburu Juan Josek merezi du beste bi hitz egitea haren gainean, gizon handia izan baitzen eta euskalzale beroa bezain karlista porrokatua, lehengo historialari berak "sueños carlistas del entusiasta Urraburu" aipatzeraino. Zeanurin 1844an jaio eta Lagundian hamasei urte bete gabe sartu zen. "Junior" zirenen Erretorika eta gerquera irakasle zen 1868an Frantziara ihes egin zute-

nean; eta halakoen irakasle izanak Ingalaterrara igorri ohi zituzten teologia ikastera sari gisa; Urraburu 1869an. Hogeita zortzi urte zituela apaiztu zen eta bost urte geroago lau botoetako profesioa egin. Orduko filosofia ematen hasia zen Poyannen, horretan Ingalaterratik itzuli bezain laster hasi baitzen.

Urte batzuk geroago, desterrua amaitu eta filosofia eta teologia ikasleak Burgosko Oñan kokatu zirenean, filosofiako irakasle izaten jarraitu zen, irakasle arras estimatua; hain estimatua, non Erromako Gregoriana izeneko jesuiten Unibertsitatera eraman baitzuten irakasle. Filosofia eskolastikoak besarkatzen zituen hiru urteetako gai guztiez tomo bana idatzi zuen, Filosofia fakultate askotan testu liburutzat edukiak. Gero, 1890 aldean, Aita Arana Oñako bakartegian bizi izan zenean, Oñako Erretore izan zen eta ez zen gutxi ahalegindu Aranari laguntzen, Agintariek han ezarri zioten zigorra kemenez jasan zezan. Zeanuritarrak eta bestek gaztetan euskaraz ondutako olerki batzuk baditugu eta azalduko ditugu. Hona Urrabururen baten lehen bertsoa:

"Altxa gaur burua Euskaldun herria  
Pozez beterik, zeren Birjinaren  
Loriak kantatzen ditugu, Amaren  
Semeentzat onesgun izekia"

Azken bi hilabeteetan heltzen zaizkien politika-albisteak hauek dira: "Gran victoria de Oteiza-Mañeru, Navarra"; "Nota oficial de la batalla del 7 entre Estella y Los Arcos, Navarra"; "Cuartel real del 9. Gran victoria del 7 y 8 de los carlistas".

Gipuzkoako berriak ez dira hain aldekoak: "Nuevas alarmantes de Guipuzcoa sobre Lizarraga, Olo, Santa Cruz, Moriones, Loma, Primo Ribera"; "llega una de San Sebastián embarcada de balde hasta Francia por apuros de guerra"; eta gure etxeetan nolako giroa bizi zuten aski ongi erakusten duen honako beste hau: "Lectura del pastoral católico carlista del Sr. Obispo de Urgel en el comedor del Château".

Lehen ere, Urduñan edo, ikasi genuen Arana izendatu zutela etxeko Obserbatorioaren arduradun. Poyannen ere azaltzen dizkigu hartarako dituen jaidura eta dohaiak, zeren azaroaren 26an idazten du: "Terremoto de varios segundos, dirección oriente-poniente; oscilación a las 4 y 40 minutos de la mañana, observada en el colegio y pueblo".

Pirinioz honaindiko apaiz banaka batzuk joaten zaizkio noizean behin bisitan: Azpeititik On Franzisko Arregi, Oriotik On Jose Maria Lersundi eta Andoaindik On Patrizio Orkaiztegi izan ditu denbora gutxian. Mr. d'Abbadieri, Eguberriak hurbil direla eta, eskutitz bat egin dio esanez, etxez eta lurraldez aldatu dela eta abuztuz gero elkarren hurbilago bizi direla.

Horrenbestez Gabonetako oporretan sartzen dira ia konturatu gabe eta egun horietan elizkizun eta jatordu luzeagoak ez ezik, jolas-bilerak eta antzerkiak ere badituzte gabeko 10ak edo geroago arte.

1874. Urteberri eguna beti izan da Lagundian jaiegun handia, urtean den handiena. Han izan ziren Meza nagusian lehenik eta bazkarian gero bai Poyanneko parroko jauna, bai eta Cassengo alkatea. Larbeyko ia jesuita guztiak ere bai, Anai Eraña iruñarrak egin baitzituen gainera egun hartanxe lehen botoak.

Otsailaren 2a ere bai, jaiegun handia, batez ere apaiz jesuitaren bati orduan suertatzen bazitzaion azken boto handiak, inor "profeso" bihurtzen dutenak, egitea. Urte hartan Aita Mendiberi, Liedenako seme, baina euskaltzaleari, Teodizea deituriko gaiaren irakasle zorrotz eta Jose Inazioaren lagun-lagunari ("Pinchon" deitzen zion gutunetan) eta beste hiruri suertatu zitzairen. Han ziren Muruako markesa eta Roke Eriz, Gipuzkoako diputadu ohia. Han ziren halaber Larbeyko jesuita gazte, Hirugarren Probantza egiten ari eta botogilearen lagun minak zirenak. 11etan teologoen liburutegian euskal literatur saioa edo akademia eskaini zioten Aita Mendiberi bakarrean bere lagunek, baina Roke Eriz jauna eta Larbeytik joandako batzuk, Urraburu, Bidaurre eta besteren bat ere han zirela; eta halako festatxoetan ohi denez hitzalditxo eta olerkiak egiten zizkietela zorionak emateko. Gero arratsaldeko 3etan izan zen lau Aita profesoentzat Akademia handia. Badakigu 1871. urtean zehar egin ziren Literatur-bilera guztietan irakurri ziren olerki guztiak bildu eta Urduñara igorri zirela eta Junioradoa Salamankan egon zen urteetan gauza bera egiten zela.

Hilaren 17an Loiolako bi gizon baserritar heldu ziren Poyannera, seme bana bidelagun zutela. Katalango Gaspar eta Errekarteko Patxi ziren, beren seme Jose Inaziok eta Frantziskok jesuita izan nahi zutela eta han uztera etorriak, hartu nahi bazituzten. Nola ez! Loiolan ez zen ezezagunik eta bi mutiko haiek gutxiago. Bigarrena, Frantzisko, urteen joan-etorrian "Hermano Garate dohatsua" bilakatuko zen.

Astean hiru egunetako ordu eta erdiko paseo-aldietarako lagun ia jakin-jakinak ditu; hauetako ia beti bi dira Txurruka, Aizkorbe, Atxukarro, Zubimendi, Oyarzun, Olano, Mintegiaga, Betelu, "Perico" Echeberria iada apaiztuak, eta Enbil eta Gallo, bera bezala oraindik gabeak. Hauetako hiru, Mintegiaga, Txurruka eta Enbil, oso solista onak dira kantuan eta badakigu Maiatzeko Pazko astelehenean dotoreki abestu zutela. Aldian behin Poyanneko batzuk Larbey ondoko errotara joaten dira arratsalde pasa eta han ondoko baso batean ordu batzuk berriketan eta kantuan ematen, Larbeytik haratzen direnekin.

Urtarrilaz geroztik albiste askotxo izan dute Euskal Herriko liskarrei buruz. Bil ditzagun munta handienekoak bederen: Eguberrietan Errege Azkoitian izan omen zen; "noticia de la toma de Portugalete y Desiertos; 1200 prisioneros en Durango ante el Rey; real decreto sobre las 4 Provincias Hermanas"; "derrota de Moriones en Somorrostro"; "rumores de batalla contra Serrano y Loma; noticias varias de la derrota de Serrano"; "muerto Ollo en armisticio", "nuevas de principio de nuevo combate por Balmaseda: Serrano, Concha, Echagüe"; "partes sobre la entrada en Bilbao de los liberales Concha y Serrano"; "llega el H. Olano que el lunes 15 ha estado en Loyola con el Rey y la Reina"; "rumores graves contra Concha"; "se confirma la victoria carlista de Estella; muerte de Concha". Euskal Herritik kanpo ere kupida handirik gabe jokatzeko dute liberalek jesuitekin. Madrilgo eta Salamankako etxeetatik jaurtikitzen dituzte, Portugaletik ere bai, eta haietako batzuk Poyanneren biltzen dira ihesi.

Euskal "akademikoen" beren bilera zintzo izan dute astean behin, "euskerakillerak" deitzen duena Aita Aranaren batean eta "Academia vascófila" bestean; baina ekainaren 30ekoak azkena izateko traza du, ikasturtea azkenetan baita eta egun handiak baititu oso gertu Aita Aranaren. Euskal liburuen grina bizirik du oraindik, hori bai; Hiribarrenen eta Géze-ren obrak eskatzen dizkio Aita Beolari egun batean eta Géze-ren *Gramatika* hartu duela mezutzen bestean.

Bururatu zaion olerkigai handi baten berri ematen digu halako batean: "Idea de Jesukristoren Erregetza (*Reino de Cristo*), *Eresikintza handiya*, 33 kantalditan, neurtitz hamarreko handiyetan, munduaren asieratik bukatzeraren ñoko, gauza piko danak Kristogan Euskal Erregek besarkaturik". Eman ote zuen inoiz burutan asmo hori, olerki hori? Beste libururen baten probak, "penúltimas pruebas", bai, hartu zituen Bilboko Larumbe inprimatzaileagandik abuztuaren 4an, baina ez dakigu zeinenak. Igaro apirilean eskutitz bat egin zion D'Abbadie jaunari Aranari, Poyannen bizi zelako berri jakitean, eta bai aurki erantzun ere Aranaren.

### 3. APAIZ BERRIA (1874)

Bero handiekin hasi dute uztaila inguru hartan; hilaren 2an beroneurkinak 33 maila seinalatzen ditu zero gainetik. Ibili behar duten hanbat kilometrotarako ez batere eguraldi ona. Bost dira apaizgai berriak eta Aranaren gainetakoak izenak dira Noguera, Garzón, Gómez eta Hayes ingelesa. Bordelen

barrena Périgueux alderantz abiatzen dira eta hango apeztegian hartzen ostatu, nahiz elizkizunak hurbileko herrixka Trelissac deritzanean izango diren, goizero 7,30etan hasirik: ostegunean, 23an, diakono-ordetza, eta larunbatigandetan diakonotza eta apaizgintza, hiru egunetan Monseigneur Joseph Dabert apezpiku jaunak ordenak eman zizkielarik. Meza ondoren "a la casa de campo con Monseigneur, el cura de Trelissac, varios PP. del Seminario. Comida, brindis, dístico en la mesa".

Jose Inazio, apaiz berria! Etxeko seniderik ez, ahaidarik ez, ezagunik edo lagunik ez; esaterako, bakarrik; zeren egun batzuk lehenago, 8an, hara iristen den familia batek ez dirudi gure Jose Inaziotatik joan denik: "Llega una familia de Azpeitia, Guibert". Beste modura esango luke beragatik joanak balira, gehiago baitirudi ezezagunak dituela: "una familia". Nor bisitatzera joana ote da?

Inolako luzakizunik gabe, biharamunean berean ateratzen dira Bordele-rantz, handik Baionarantz eta hortik aurrerantz bost apaiz berriek Aita Oyarzun lagun dutela. Hayes ingelesa ere berekin daramate. Baionatik hurrengo goizean Hendaian, Behobian eta Oiartzunen gaindi "paso a España hacia las 11"; ez ordea lehenik txartel bat d'Abbadieri igorri gabe. "Centinelas carlistas. Lastaola, preparación de mulas para el monte; almuerzo. Los tres arrieros de a 12 pesetas, y pasando por cerca de San Marcial, Santiago, etc., llegada a Oyarzun con algo de lluvia para bien, a las 6 de la tarde. Compañías carlistas en Oyarzun".

Bere izeneko herriko parrokian meza Aita Oyarzunek goizean eman eta 8ak aldean errepidean aurrera atera omen ziren "y a los tres cuartos empezamos a caballo por bosques y montes con harto lodo hacia Andoain; quedando algo en el puente y venta de Pagollaga, salimos a Urnieta a vista dos horas de Hernani, Irún (?) a las 11 poco más o menos, llegando luego por el camino real a Andoain, donde comimos". Han Tadeo Antxieta eta Ortizekin, besteak beste, egon ondoren, "fuimos en el Correo a Tolosa, donde estaba el Rey". "Sisteaga" etzalekuan afaldu eta lo egin ondoren, "echamos a andar en coche por la cuesta de Albistur, Bidania, Goyaz, hablando con varios jefes carlistas, que con el Rey iban a Azcoitia", eta 30eko eguerdiarte, 11,30ak aldean, heldu omen ziren dohatsuki Loiolara. (Aita Hayes ingelesak ere kontatu zuen bere aldetik bidaiaren azken zati hau: Tolosatik hasita nola joan ziren Don Carlosekin eta soldaduekin aldapan gora eta nola aritu zen erregerekin hizketan Loiolan eta nola zen errege "muy inteligente, pero un tanto niño, con sólidos principios pero amigo de diversiones, etc." (ik. Manuel Revuelta, *La Compañía de Jesús en la España Contemporánea*, tomo 1º, pág. 441).

Biharamunean San Inazio eguna. "Cinco nuevas misas en el altar mayor de la Santa Casa", dio laburki, baina bihotza sarrastaturik Jose Inaziok. Hemen bai, baditu ahaideak eta entzuleak: "A las 6,30 padrino mio el P. Landa, rector del colegio de Orduña; comunión, besamanos durante una hora. Fiesta nosotros en casa y los de fuera en Azpeitia". Eta gero: "Chacolín de Azcoitia; vimos entrar el batallón de guías del Rey". Arratsaldean bisitatxo Katalangoan eta Errekarten –"erreberua de Gaspar"–, Poyannen utzi dituen haien semeen berri emateko.

"1, sábado. la 2ª misa en la capilla antigua donde celebró San Francisco de Borja". "Fiesta grande por la mañana en la Iglesia de Loyola. S. M. D. Carlos y D. Juan su padre son recibidos bajo palio por 6 PP. y asisten con otros generales y gran gentío a la Misa Mayor, Te Deum, ejecutado todo con primor por el Sr. Aldalur y otros. Gran gentío, salvas, vivas. Vuelve el Rey a Azcoitia". Hayesek hau dio: "El entusiasmo de las turbas fuera de la iglesia fue indescriptible". Ez du ordea Jose Inaziok hogeiegun-edo baizik etxekoekin egoteko, lagunak agurtzeko, danekikoa egiteko, eta Azpeiti-Azkoititik hasten da, Santa Kruz, Santa Klara, Martirietatik. Bilboko Larumbe inprimatzailearen probak atzetik dabilzkio nonahi.

Beste jende asko du agurtzeko eta guztiei eman nahi die Apaiz Berriaren besarkada edo bedeikazioa. Plasentziatik abiatzen da: "visitas a Maiztegui, Dª Pepita Aguilafuentes, Dª Carlota y Dª Dolores Arana". Handik Bergarara: "Conde del Valle, D. Antonio de ... –ez ote Ezterripa?–, púlpito de S. Francisco de Borja, su cuadro, (hermita) Santa Ana". Handik Elgetara oinez ilunpean, Berraondo eta Amezuatarrak bisitatzeko. Handik Elorriora eta ohean gaixorik dagoen Domingo Retolaza jauna, On Luis Borda apaiza eta besteren bat agurtu ondoren, handik Durangora oinez. Han hau idazten du beste ezer baino lehen: "Extractos por medio del escribano Landaburu" eta "las cosas copiadas con Landáburu". Haietaz jabetzen dela?

Hango jesuiten bizitexean bizi da Aita Pedro Garagarza, laguna; han Oruetarrak, han On Ramon de Echezarreta "viejo vascófilo", han topatzen du Urduñaz geroztik asko ezagutzen duen D. Pedro Piñera diputadua, semea kalonje duena, eta batarekin eta bestearekin eta inoiz bat baino gehiagorekin –eta guztien izenak ematen ditu, baina nik ezin–, egiten dituzte txangoak Mañariara, Iurretara, Urkiolako San Antoniora. Beste txangoa Larrabezuara Garagarzarekin eta apaiz berri ingeles Hayesekin; handik Zornoako Begoña Birjinagana eta handik "a la iglesia juradera *Goiko eleixea*; Sr. Bernaola". Arratsaldean Santa Marina mendira, "la guarnición carlista. Vista de Bilbao y contornos, cañonazos. El jefe Amesti de Gernika, sus soldados. Zabalo el predicador. Bajada de los 7 que subimos. Noche alegre".

"12, miércoles. Salida de los 3 PP. por *Goiko eleixea* al monte para Gernika en los caballos del Sr. Bernaola y del Sr. cura. Encuentro con varios jefes carlistas. El bosque *jesuitiarena*". (Esan nahi ote du mendi haren jabe jendearen esanetan (bestela ez zukeen "jesuitia-" esango) Aita Goiriena jesuita zela, karlista porrokatua, karlismoaren aldeko izateaz gain karlismoaren alde borroka egin behar omen zelako, sotana utzi, edota utzi gabe, bizi zen Durangoko kolejiotik alde egin eta Agintarien baimenik gabe eta ezjakinez, mendira jo zuena, eta Amorebietatik Mundakarainoko mendietan gudan ibili zena? Azkenean Lagunditik bota zuten ezinbestean). Gernikara eguerdia baino lehen heldu ziren. Bazkaldu eta arratsaldean Arbola ikustera eta artxi-boa eta "anfiteatro de los *Auta probinziakuak*, Sres. de Vizcaya; el viejo "erakuslari" Pepe: "Señor y no Rey". Arrazuara joan ziren gero karlista buruzagi D. Juan de la Cruzekin eta han bisitatu "el ex-Padre Goiriena en su casa con barba". Horra bera! "Vuelta al oscurecer a Gernika. Noche sardineras cantoras. Paso de Dorregaray de Bermeo a Navarra".

Aita Garagarza Gernikan utzi eta beste biak, lehenik kotxean Lekeitioraino Arteaga gaindik eta gero oinez Ondarrutik eta han inguruko mendietatik, Motrikurantz doaz. Han ere hiru apaiz, Urreistieta, Eraño eta Migel Echeberria, oso ezagunak dituzte. Hilaren 15ean, Ama Birjinaren Jasokunde egunean, Agustinetan meza eman eta Loiolarentz abiatzen dira, Sasiolan, Mendaron, Gillemonen eta Madariagan barrena. Seietarako Loiolan, biharamunean bidaldi berriari ekiteko.

#### 4. HIRUGARREN PROBANTZA (1874-75)

Agortu zaizkie oporretako hogeitau egunak eta berriz Poyanneratzeko epea heldu. Aita izan zuen meza-entzuleetako bat goiz hartan Etxe Santuan, baita bere arrebaorde Nikolasa eta Justa ere. Koinatua jesuita zuen Bizenta anderea, Seguraren alarguna, berekin zutela, abiatzen dira haren kotxean Jose Inazio eta Aita Hayes laguna Tolosan eta Andoainen barrena eta Soravillasen gaua pasatzen: "dormimos los dos PP. en una casa y D<sup>a</sup> Vicenta en otra".

Pagollagan amuarrainak gosaldu eta Oiartzuna bazkaltzera. Erretore Jaunaren deitura Sein da, Aita Aranaren lagun min bilakatu eta honi Aita Mendibururen bizitza bat idatz dezan eskatuko diona. Txalupan Bidasoa gurutzatu, Behobiaraino oinez jarraitu, handik kotxean Hendaiako geltokira iritsi eta gabeko bederatzietako trenean Baionara 10,15etan: "Fonda de Pirineos, cena de los dos PP. y D<sup>a</sup> Vicenta. Euskaldunak etxe hartan asko".



"Entrevista con el Sr. Secretario del Mons. Obispo y vascófilo Mr. Intxauspe". Poyanneren kotxean 7,30etan. Han filosofia ikasten ari den bere koinatuarekin Bizentak hiruzpalau egun igaro eta, atzera Azpeitira baitoa, eskerrak eman eta agur egiten diote Aranak-eta. Agorraren lehen egunean txintxo egon behar dute Larbeyn Hirugarren Probantza egiteko eta bezperan bideari ekiten diote oinez Aita Aizkorbek eta biek.

Baina zortzi bakarrik bildu dira lehen egunean. Horietako hiru Aranaren arras lagunak: Atxukarro, Aizkorbe eta Oyarzun, eta Aita Gallo ere bai, nahiz euskalduna ez izan, Burgosko Cespedeskoa baizik, baina euskaldunen lagun fina. Beste bost gaineratzen zaizkie irailean zehar. Bigarren Nobiziadoa deitu izan zaio Hirugarren Probantza delako honi eta nornahik pentsa lezake bizi-modu geldi eta geldo samarra dutela hori egiten ari direnek. Tokia ere, Larbeykoa, hala modukoa da, bakartia, Poyanne bera baino bakartiagoa. Eskerrak Poyannetik hurbil zegoen, bost kilometro eta erdira, eta bi etxeetako gazteek maiz elkar jotzen zuten erdibidean, beren kontuak kontatzeko. Hasteko 30 egunez isilik San Inazioaren gogojardunak egin behar dituzte, haiek buruan eta bihotzean hausnartuz, eta orduarte baino otoitz, meditazio eta irakurtze espiritual ugariago, etxetik ateratze urriago eta inoren bisitak hartze nahiz inori egite bakanago. Hitz batean, zer konta gutxiago haien bizitzan. Izkribuak ere exkax: d'Abbadie jaunaren eskutitz pare bat, lehendik eza-gunak ditugun *Ofizio laburra*-ren ale batzuk Azpeititik eta Intxausti kalonjearen liburuak, berak igorriak, eta kito!

Urriaren 1ean hasten dituzte hilabeteko gogojardunak. Egun berean d'Abbadie jaunaren beste eskutitz bat eta liburu batzuk heltzen zaizkio. Gogojardunek barrenean zenbateraino erasan zioten, ez du gauza handirik kontatzen; bakar-bakarrik latinezko distiko hau jalki zitzaizola otoitzean:

"Virgo, Parens iustus Joseph Jesusque Redemptor  
Sint mihi summus honor, sint mihi dulcis amor",

eta azken eguna hurbil zelarik, erabaki bat bakarria hartu zuela: "vencerse siempre por Dios ordenada, suave y fuertemente, y conformarse siempre con la voluntad de Dios N. S. bajo el amparo de la Inmaculada María Madre Virgen". Bat bakarria, baina sendoa, alajaina!. Bere bizitzako kinka larri batzuetan izango du horren beharra!

Hurrengo hilabeteetan ere albisteak falta dira. Gehienez eskutitz eta liburu kontuak. Hala Aita Olanok Durangotik liburuen gainean idatzi diola; *San Inazioaren euskarazko bizitza*-ren lehen alea hartu duela abenduaren 13an; osteran idatzi diola Aita Olanok hogeitau egun geroago liburu beraren sei ale igorri eta esanez Aita Probantzialak lau beretzat hartu dituela; berak d'Abbadieri

egin diola eskutitza eta liburua igorri; baita Duvoisini ere, liburu berorren ale bat eta *Ofizioa*-ren beste bat bidalirik, eta egun gutxiren buruan d'Abbadieren erantzuna hartu duela.

Egun handiren bateko elizkizun berezia ere kontatzen du, hala nola Abenduko Birjina Orbangabearen egunekoa. Meza nagusi ederra izan zela eta Poyannetik bi kotxeak bete joan zela jendea, haien artean Aita Garagarza, Txurruka, Enbil, Mendia Serapio eta abar. Eguberrietan ere bestetan baino bixita gehiago hartu zutela; Aita Mintegiaga donostiarra eta Mendia Serapio zumarratarra zortzi egun han egonak zirela eta beste askok egun berean egi-ten zutela atze-aurrea. Arratsalde batean, 26an, Mintegiaga, Oyarzun, Aizkorbe eta laurak atera zirela ibilaldia egitera. Beste batean Aita Probintzialarekin atera zela, Probantza bukatu ondorako harekiko ze asmo zuen-edo jakin nahiez.

Aztura eta grina berri bat, denborarekin biziki gure Jose Inaziogan handituko eta errotuko dena, eta urteen joan-etorrian arazoak sortuko dizkiona, hasi zaio iadanik sortzen, eta da ahalik jende gehiena konfesatzeko irrika eta batez ere emakumeak eta mojak. Agian ez da bere nahia hutsa, hartarako dohaia eta antzea baizik, eztiak erleak bezala erakartzen dizkiona. Urteetan zehar egunero-egunero zenbat lagun konfesatu dituen esango digu eta hil bakoitzaren bukaeran danera zenbat izan diren. Bost hilabete bakarrik baita apaiztu dela eta horietan ez baita inon geldu eta tinko egon, 1874. urte osokoen berri honela ematen digu: "Confesiones de este año 1874 o 1º de Sacerdocio, de 12 a 18". Eta horrela ia bizi guztian.

1875eko Urteberri egunean ere jai handia, ohi bezala. Hilaren 14an inondik ere uste ez zuen albiste bat heldu da Larbeyra: (Aita) Garagarza Lagunditik atera da. Bai, abenduaren 18an atera zen. Nekez uler daiteke zer zartako eta bihotz-ondoko hartu zuen Aranak Garagarzarekiko zuen miresmena eta maitasuna ezagutu gabe. Apaiz bikain, bere buruari uko egiten zekiena zen; eritetxeak eta kartzelak bisitatzea maite zuen eta Aranak haren itsumutil izatea Loiolako gaixoaldian. Sabino Arana hamar urteko mutikoari lehen Jaunartzea egiteko dotrina-eskolak eman zizkion Donibanen. Jatorri onekoa zen, anaia bat Pontevedrako gobernari izatera iritsi zen.

Berrogei egun du hantxe Larbeyn Arana eta biak elkarrekin egon zirela. Eguberrietan Durangotik, non bizi baitzen, Poyannera joan, berak bakarrik gogojardunak egin eta Lagundia uztea erabaki zuen. Durangon, Manuel Revuelta historialariak dioenez, "la salida de la Compañía del P. Garagarza produjo estupor en los amigos, que no acertaban a comprender la razón de aquella decisión en hombre tan activo, sensato y virtuoso". Berrogeita bat urte

zituen eta hamahiru bakarrik zeramatzan Lagundian, apaiz eginda gero sartu baitzen, esan bezala. Edonola egia da geroan ere apaiz zintzo eta Aranaren adiskide izaten jarraitu zela. Bixita bat baino gehiago egingo dio Baionan ondoko urteetan.

Aranak eta D'Abbadiek elkarri gutun bana egin, Intxausperi beste bat, hau joan, hura etorri, bere liburutxoaren ale gehiago hartu, Géze-ren liburua eskuratu..., horiek eta horien antzekoak dira Larbey-ko gertari sotilak urtearen bi lehen hiletan. Hainbestez amaitzen dituzte Hirugarren Probantzako sei hilabeteak otsailaren azken egunean: "28, domingo. Fin de los seis meses de Tercera Probación".

## 5. AZKEN ZINITZAK (15.VIII.1875)

Hala ere, inor ez da mugitzen bere lekutik eta Larbey-n segitzen dute gero ere, Hirugarren Probantza oraindik luzatzen balitz bezala. Udaberrria aitzinatu zaie eta Jose Inaziok, oso behatzaile zolia baita, martxoaren 7an igerridio: "tiempo primaveral muy templado. En flor los almendros y brotando otros árboles". Halaber apirilaren 10ean bisitari berriak dituzte: "Aparecen golondrinas que vinieron hace pocos días". Esan beharrik ez, eguraldiak pasiora gomitatzen du eta Jose Inazioren lagun gogokoenak Atxukarro, Aizkorbe eta Oyarzun dira. Erramu igandetik Pazko ondoren arte oporrak dituzte, esaten ez digun arren zertan dautzan.

Eskutitzak ez ditu falta, Azpeitiko bere ahaideenak batez ere, baita Aita Txurrukaren osaba Joakin Brunetena ere, euskaraz gainera, baina politikako albisteak ez dira ia batere islatzen. Apirilaren azken egunean bat: "una hoja suelta sobre Cabrerías, su apostasía y traición". Handik bi hilabetera Aita Ortégaren gutuna Urduñatik "con noticias del Rey del 13 al 17, lo que el Rey hizo en el Colegio. Acto de Consagración del 16, comunión general de carlistas".

Berak ere idazten ditu batzuk, lehen baino gutxiago hala ere: Erromara bat Aita Jeneralari eta beste bat Anai Lizargarateri; honen ahaide bati beste bat Tolosara; Aita Olanori; Anai Larrañagari; d'Abbadie jaunari Parisa, hark egun batzuk lehenago egin dionari erantzunez. Mendekostetan Poyanneko bost irakasle, aspaldiko lagun, datozkio bisitan: Aita Mendibe, "Pinchon" deitzen zutena, Urraburu, Txopitea, Uriarte eta Rodeles.

Hirutasun Santuaren igandean Campenne izeneko herrixkan haurren lehen Jaunartzeak direla eta, bezperan haien eta haien gurasoen eta gainerako-

en aitortzak entzuten aritu da gabeko 9,30ak arte: "de mañana, 2 y media, y a la tarde y noche 5 horas de confesiones". Biharamunean 19 mutiko eta 25 neskatila jaunartzen. "Comida en casa del cura de los 44 niños. Visita de la niña del Barón de Campenne, mademoiselle Bertha, de 11 años. Promesa de Bautismo de los niños y estandarte que lleva la Bertha". Urte mordoa igarota ere Bertha honekin eta bere amarekin gutun-harremanak izango ditu eta Urduñara ere bisita egitera joango zaizkio.

Maiatzeko konfesio kontuak honela mukurutzen ditu: Trimestre marzo-abril-mayo, "167 confesiones particulares, 27 generales: total 194", eta landaren eta naturaren egoerari dihoakionez, hau diosku: "Campo hermoso, frondoso, frugífero, florido. Fresas, cerezas, habas. Trigo en cabeza, toda la cosecha muy bien hasta ahora"

Jesusen Bihotzaren festa urte horretan handikiroago ospatzen da Poyannen, 200 urte betetzen baitira Santa Margaritari agertu zitzaionetik eta 30 Pio IXgarrena Aita Santu egin zenetik, eta hori dela kausa, Larbeyn bizi diren ia guztiak hara doaz elizkizunetara eta egun pasa.

Badirudi udako oporrak hasi arte Larbeyn jarraitu beharko duela honezkerero, besteek bezalaxe. Ekainaren 2an Loiolan Patxi Errekarte, geroko Anai Garate Dohatsuaren aita, hil dela jakiten du. Etxean bizimodu aldaketatxo bat gertatzen da: "cesan las costumbres de Loyola y léense en el refectorio las costumbres de la Provincia de Castilla", eta horretarako Aita Probintzialak Madrildik eskutitz bat idazten du hori aginduz.

Beste gutun-trukatze bat du d'Abbadierekin, hau oraindik Parisen dela, eta berari San Inazioen Bizitzaren 25 ale helarazten dizkiote. Aita Jeneralari Erromara egin zion eskutitzaren erantzuna eskuan du, hari idatzi eta hilabete eta erdira: gogotik aritzeko lanean artxiboan! Horretarako ongi etorriko zaizkio aurki Lapurdiko Getarian hasiko dituen oporrak. Hara bidean Poyannen gelditzen da San Inazio eguna ospatzen; eta bide batez egun batzuk lehenago apaiztu diren bere lagun Txurruka eta Enbil besarkatzen ditu eta esku-muinatzen. Abuztuaren 2an Getarira abiatzen da beste hamar lagunekin; ez da asko, etxeak hamazazpi ere hartzen ditu. Hala lau lagun berri gehitzen zaizkie lehengoei egun gutxiren buruan.

Lehen egunean lehen bainua itsasoan eta azkenean bederatzigarrena goizeko 10etan. Egun horietan nolako eguraldia egin zuen kontatzen ez badigu ere, badakigu bero handia egina izan behar zuela, zeren hilaren 10ean eta 11an esaten baitigu trena hartu zuela "con gran calor", eta biharamunean Akizera itzuli "con calor atroz". Ibilaldi batzuk egiteko giro ederra dago behintzat eta hala Donibaneko mendietara igotzen diren batean, Hondarribia eta Abbadie

ikusi ez ezik, Aizkibelko kanoi-dunbadak ere entzuten omen dituzte. Kanean oina ipini orduko, hegoaldeetik etorritako jende ezaguna topatzen du Getaria inguruan: "D<sup>a</sup> Dolores y Pilar Aguirre y Alzuru, D<sup>a</sup> Luisa, casa de la Vinuesa, D. Ramón Vinuesa, familia de D. Tirso Olazabal, su Sra., madre".

Egun gutxi haiek aski izan ditu Getarian ere lagun berriak egiteko; adibidez, Arispe ikasle gaztea, geroko euskal idazle oparoa, besteak beste *Eskaldunak* poema onduko duena, eta Etcheberry alkate jaunaren bi seme, bata iada apaiza eta bestea artean apaizgaia, eta Mr. l'abbé Saubaber-Bidart euskaltzalea: "un ejemplar de la Vida de S. Ignacio a él; se encargó de escribirme".

Oporrak bukatu zaizkio eta berriz Poyanneren Baionan barrena, non ematen baitio Intxauspe kalonjeari mezu bat Mr. d'Abbadierentzat. Halaber ateratzen du denbora pixka bat Muruako markesa, Valleko Kondesa eta andere Jacoba Balzola bisitatzeko. Biharamunean Akizerako trenan hartu eta On Jose Cabanillas eta bere alaba Doloresekin egiten du topo; haiekin txor-txor ari dela, behar baino urrunago dohakio trenan eta atzera Akizera itzuli behar.

Gabeko 9ak arte ez da iristen Poyanneren, Laluquetik Extrat jaunak bere kotxean eramanik. Afaltzera jaistean Aita Probintziala ere jantokian zegoela ohartzen da eta kontu kontari bere etorkizunaz galdetzen dio Jose Inaziok: "que quede en Poyanne por estos dias". Izan ere, egun gutxiren buruan azken botoak egin behar ditu eta horretarako lehenik hiru eguneko bakarraldia ere bai. Cabanillas aita-alabak eta haien ahaide On Gaspar Cienfuegos norabait joan beharrak direla eta, agurtzen ditu. Iristen da abuztuaren 15a, botoak egiteko eguna, eta egiten ditu bere azken botoak, ez Aita Mendibek eta Atxukarrok hilabete batzuk lehenago bezalako lauak, egiten dituen "profeso" bilakatzen dutenak, baizik hiru sotil. Hori ez da, haatik, Jose Inazioren bizitzan inongo desohorea edo orbana, aitzitik halabeharrez gertaturiko eta aldezturik ikusirikoa gauza.

## 6. ZERGATIK? (1875)

Aski dugu atzera begiratu bat ematea. Gogoratzen zaigu noski nola hartu zuen Jose Inaziok buruko odol-kolpe itzala Salamankan, Filosofiako lehen ikasturtea egiten ari zela, ikasturtearen bukaeran Jainkoari eskerrak, "y dado ya el examen de costumbre"; eta nola herriko haizeek erabat sendatua, itzuli zen berriro Salamankara urriaren hasieran Filosofiako 2. ikasturteari ekitera, lehengo bere lagun berberekin eta ikasturterik galdu gabe. Bigarren eta hiru-

garren ikasturteko ikasketak goiko ala beheko mailatik egin zituen duda egin genezakeen, baldin berak honako hitz hauek erantsi ez balitu oin-ohar gisa: "N.B. En Salamanca, empezó a mediados de Oct. de 1858 el H. Arana el 2º año de filosofía y demás estudios accesorios, siguiendo sin novedad en ellos los siguientes cursos de 1858 a 1859 y de 1859 a 1860". Erne ibili da gure zalantza guztiak uxatzeko.

Filosofiako hiru urteak burutzean gauza bertsua egiten du, ohartxo bat idatzi gisa honetan: "Junio-Julio. Habiendo ya dado el *Examen de Universa Philosophia* con feliz éxito, gracias a Dios, se halló ya libre el mes pasado junio José Ign. Arana". Badakigu uda hartan, 1860an, "maisutxiki" deituriko hiru urteak egiten hasia zegoela eta hala hasi zituela, Agintariak Carriona igortzen zutela lanbide horretarako; eta hori egoki bete zuela, dirudienez, zeren hiru urteen ondoan Leongo teologia fakultatera joatea agindu baitzioten, teologia ikasten hasiera. Baita hasi ere.

Uda nola igaro zuen eta gogojardunak nola egin zituen kontatu ondoren, urria iristean ez *Veni, Sancte Spiritus*, ez "Lectio brevis", ez ikasketak hasi zituztela, ez ezer ere zioskun. Zergatik? "De Universa Philosophia" izeneko azterketa berak uste bezain ongi egin eta teologia "goiko mailatik" abiatu ikasten hasi ote zen, ala ez hain ongi eta "beheko mailara" pasa behar izan ote zuen, berrogeita hamar urte geroago Orixeri gertatu bezala? Ez dakigu. Zernahi gisaz azterketa horretatik urtebete baino lehen, maiatzean, badakigu berriz izan zuela buruko odol-kolpea. Alferrik esango digu "por junio restablecido bastante, empezó J. Ign. Arana a repasar las materias de teología dogmática y moral", ondoren aitortu behar baitu "pero en los exámenes no se examinó más que de moral en atención al tiempo pasado" eta berriz joan behar izan zuela Loiolara osasuna zaintzera.

Zertako gogora berriz ondoko atze-aurreak, Loiolatik Azkoitira, Azkoititik Zarautza, Zarautzik Urduñara eginak, 1873-74 ikasturtean teologia ikasi eta apaiz egitera Poyannerak bildu zen artekoak? Baina ze teologia ikasi eta zenbat! Haren osasuna eta haren burua batik-bat ez zegoen ikasketa sakon eta buruko neke handietarako. Ez zuen, alafede, bart arratsean idatzi, 2-II-1868, orduko Aita Probintzial Labartak honako hau: "Al Sr. Arana es imposible enviarle a ninguna parte y así parece lo mejor siga donde está", Azkoitian, bere etxean, alegia. Eta *Revue* historialariak honela dio: "Los dos últimos (Arana y Arostegui) padecían enfermedades nerviosas que, sin impedirles un trabajo moderado, les cerraban las puertas del sacerdocio" (p. 177). Nagusiak ez zeuden seguru hura inoiz apaiz izateko gai zenik ere, bi bider izan zuen buru-kolpearen ondoren. Luzamendutan ibili ziren teologiako ikasketak egitera joaten ez utziz. Hobe zeritzaten ikasketa horiek axaletik eta arinki egite-

ari, beste lagunek bezalakoak egiteagatik buruak kraska egiteari baino. Eta ez zebiltzan oso oker, Aranak berak aitortuko baitigu ez behin edo bitan baizik dozenaka aldiz, goizean ohetik jaikitzean, ez zuela kemenik izaten meza emateko eta maiz eman gabe gelditzen zela. Azkenik halere, duda askoren ondoren, apaizgintzako bideari jarrai zekion erabaki zuten, nahiz teologiako ikasketak bide zidorretik ibiliz egin.

Leondik lehen ikasturte osoa aprobaturik atera zela suposaturik ere –baina Moralaren azterketa bakarrik egin zuela esan digu berak–, bigarren ikasturtean ipin zezaketen Poyannen gorenik; eta baldin, okerrenean jarriaz, filosofia ere Salamankatik nota aski onekin aprobaturik ez bazekarren –ez dakigu, berak "con feliz éxito" esan arren–, Orixeri bezala ondoko ikasketak behetako mailatik ibilirik egin araziko zizkioten seguruenik. Bistan daude bi gauza: bat, Poyannera teologia ikastera joateko Urduñatik ateratzen denetik apaiz egin eta Larbeyra Hirugarren Probantza egitera joan arte, ez dela urtebete baizik igaro, eta hainbestez Teologiako oso ikasketa laburrak egin ahal izan dituela, eta ez goi mailakoak; eta bi, horren ondorena, ez dituela lau boto egin baizik hiru, ez gehiagorako gai ez zelako, baizik sortzetik senide guztiek zekarten erikortasunak, bere bizian zantzu nabariak izan zituenak, utzi ez ziolako ikasketak behar bezala egiten.

Egun horretako eliz-festa eta jaiak aski luzaki kontatzen digu. 1875, abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokunde eguna zela eta eguraldi ona, baina bero handia egin omen zuen eta Aita Probintzialak meza emanik, goizeko 6,30etan egin omen zuten "Incorporatio in Societatem Iesu in Sacello (capilla) Poyannensi" Anai Ernetak eta biek. "Comida en el Château; en el centro yo, junto al R. P. Provincial y el P. Superior, con flores. Yo la bendición. Testigos D. Gaspar Cienfuegos y D. X., pbro.". Kafea, noski; eta akademiak ordubete iraun omen zuen: "cantos, composiciones en vasco y castellano, piezas de Beethoven (terceto). Siguen los abrazos. Tarde a las 7,30 bendición solemne, yo de Preste". Egun handia eta aspalditik amets egina Aita Aranarentzat.

## 7. ARTXIBARI (1875)

Hor dugu Aita Jose Inazio Arana oso-osoro jesuita egina eta Lagundian erabat txertatua. Orain hasi da hitzaren beteko jesuita izaten, nahiz lehendik ere apaiz-eginbideak bere gain hartzen, gaur hemen eta bihar han meza ematen edo hitzaldi bat egiten edo aitortzak entzuten edo eriak bisitatzen zituen. Azken bi zeregin hauek ditu maiteenak, apaizari gehiena dagozkionak, haren

ustez, eta horretan ematen ditu ordu asko. Eskutitzak bere lagunei idazten ere bai, haatik. Poyannetik atera baino lehen Azpeitiko Erretore On Agustin Jauregiri, Gipuzkoako Diputazioko haurren hezkuntza-batzordearen buru denari, egin dio eskutitz bat hilaren 25ean "sobre instrucción primaria", esanez prest dagoela haurrentzat *Euskal Gramatika* oratzeko, eta bizitoki berri-  
ra etorri bezain laster egiten ditu beste gutun batzuk Azpeitira, hara doan Aita Agirrerekin igortzeko.

Etxe barruko kudeaketan ere badu, ordea, eginkizun berria, zaharra gehiago berria baino, lehen ere izana baitu bizi izan den beste etxeetan: artxi-boaren arduraduna izango dela esaten diote, eta han ditu laster Larbeytik eka-  
rrita bere kutxa eta arropak, bai eta Poyannen bertan lehendik gordeak zeuden Loiolako artxiboko hiru kutxa handi. Ez dirau luzaro han, ordea, zeren artxi-boaren egoitza beste toki batean izan dadin erabaki dute Agintariak, Baionan, eta hara aldatuko da Arana laster bere tramankuluekin.

Baionan bi etxetan barreiaturik bizi dira bi dozena jesuita eskas eta hiru-garrena ere, Guichongoa, ez dago Baionatik oso urrun. Bata, eta lehena, 1868an eresia, Rue d'Espagne 25, 2.ean dago. Hor hiruzpalau lagun bakarrik bizi dira egotez, Aita Beola haste-hastetik; baina horietaz gain baita iragaitean han egunero suertatzen direnak eta noizean behin han ostantatzen diren Aita Probintziala eta bere lan-taldexka ere. Oso leku estrategikoan zegoen, mugatik hurbil eta Espainiara itzuli behar zutenei kontsul-etxean pasagiria lortzeko eroso. Honek 1880 arte iraun zuen.

Bestea etxe eder-handi bat zen, Boudigaud deritzan Baionako alderri dotorean 1873an Mr.Molinier-i alokatu ziotena. Bigarren honetantxe kokatzea erabaki zuten Agintariak artxiboa eta honaxe garraiatu zituzten Poyannetik hiru kutxa handi haiek. Hementxe ostantatu zen Arana, orain arteko bi bakar-tegietatik alde, eta ezin hobeki bizi izan, beste zortzi lagun berekin zituela: Alberdi, Obieta, Arostegui, Ceballos apaizak eta Segura, Elorza eta Larrañaga Anaiak. Bazen auzotegi horretan kapilatxo agiria eta han hasi zen Aita Arana meza ematen eta hitzalditxo egiten, igandeetan batez ere.

Azkenik Guichon dugu leku berria, Baionatik urrun ez dagoena, non Hegoaldetik ihesi joan zirenen semeentzat ireki baitzuten jesuitek ikastetxea, aski elitista eta aristokratikoa, halako gurasoen halako semeei zegokiena. Ikasle gehiena izan zituenean 47 izan zituen eta jesuitak 13 izatera iritsi ziren. Mutikoen arduradun Aita Unzueta zen. Adiskide "onak" zituzten: Campo-maneko Kondea, Baenako Markesa, Quintanarko Markesa, etab. Han ikasi zuten Muruako Markesaren seme Pedro M<sup>a</sup> Muruak, Valleko Kondearen seme Ignacio Murua Balzolak, eta sona handiko deitura zuten Lamamié de Clairac-ek,



Bizente Monzon bergararak, Lardizabalek eta abarrek. Hiru etxeetako jesuita guztien buru Aita Doncel zen, nahiz Rue d'Espagne-n bizi zen.

Baionan zenbait eratako mojak bizi ziren, Karmelitak, Loretak, Kaputxinak, eta haiek berekiko arreta eta ardura eskatzen zuten. Bazen hirian eritetxe edo Ospitale bat ere, San Leon zeritzana, eta hauxe izango zen, esaterako, Aita Aranaren bigarren bizitokia. Jainkoak daki zenbat joan-etorri egin zituen hara Baionako hamabost hilabete haietan. Horrez gain hura, eta lagunak ere bai, erbesteratuen aitortzak entzutera joaten ziren Katedralera, non baitzegoen kapilatxo bat espainolentzat; Biarritzera eta Donibanera ere bai astean behin dotrina irakastera.

Osterantzean hemen kontatzea merezi duen gauza gutxi gertatzen zaie aldi horretan Baionako jesuitei. Hori bai, jesuita hark eta honek han inguruan dituzten hiruzpalau etxetan egunero egiten dituzten atze-aurreak, gaur nor joan den hemendik hara eta bihar nor etorri handik hona, zein bisitari izan dituen eta abar, kontu horiek bat ere utzi gabe kontatzen dizkigu Aranak, baina guretzat ez dute batere interesik.

Badu, aldiz, jakiteak hegoaldeko zein jende-mota topatzen duen etxean eta kalean, hemengo politikaren zer surmur iristen zaizkien eta batez ere artxiboari eta liburuei dagozkien berriak.

Kalean maizenik lehen aipatu ditugun Guichongo ikasleen gurasoekin eta hauen lagunekin egiten du topo, oina etxeko atarian ipini orduko, baina baita betiko lagun zintzo Azpeiti-Azkoitikoekin ere; hala nola Jose Inazio Aldalur eta Ignacio Iberorekin. Batzuk han daudenak dira, beste batzuk han daudenak bisitatzera joanak: "visitan la casa los Sres. Aldalur, los tres hermanos, y D. Agustín Jauregui". Ibero jauna ere ez dago bakarrik, Felix Ibero semea Guichonen du, eta batean esaten zaigu "Sr. Ibero, su hija y su suegra"; bestean "Sr. Ibero, su hermana y madre de su señora D<sup>a</sup> Rufina de Azpiazu con el niño José María". Halaber "D. Telesforo Monzon, que come con nosotros, su señora, hijo". Honako beste hauekin ere bai: On Pedro Lasarte apaizarekin, Rameri jauna, Eloy Lamamié, José Clairac, Gaspar Cienfuegos, Juan Jose Unceta, Jose Cabanillas eta Asturiasko familia Menendez Suarezekin; Biarritzen bizi diren Zarauztar-Azpeitiar D<sup>a</sup> Pilar Alzuru eta Serafinekin; Aita Obietaren lehengusina D<sup>a</sup> Victoriarekin, Balzola Jacoba eta honen ahizpa Mariarekin; Irun ondoko euskal kaputxino Frai N. Andoainekin; fraide Garate kaputxino, berriki "profesioa" eginez geroztik, "Aita Lumbier" deituarekin eta horien Nagusi Frai Martzialekin.

Bizi den etxean bizirik eta duten eginbidea izanik, ez da harritzeko liburu eta paper hotsa entzutea. Aita Doncelek Aranari "lo del archivo, capítulo

catecismos" galdegiten dio egun batean. Behin *Cartas de San Ignacio* deitu libururen 2. alea hartzen dute; gero Aita Henaok idatziriko *Genealogía de San Ignacio*-ren eskuizkribuaren kopia egiten ari dira Aita Alberdi eta biak; batean *Necrologia Societatis Iesu* libururako Katalogoei ekiten die Aita Ceballosek; bestean Aita Garziak paratutako *Vida de S. Ignacio vasco-caste llano*-ren ale bat, zeinen euskarazko itzulpena Aranek egin baita, Aita Fita Larramendizaleari helarazten diote; beste batean Grico delako inprimolari batek, orrialdeak ongi josteko eman zizkioten hamar liburu itzultzen ditu konponduak; hurrengoan Oinatiko (han jesuitek izandako ikastetxeko, noski) artxiboa eta Cubako *Album vascongado, 1868-69* eta Guichongo liburutegiko, zein libururen bi edo hiru ale berdin baitituzte, haiek guztiak igortzen dizkiete; artxiboko kutxa berri gehiago ere bai, eta azkenik *Cartas de Poyanne* izen famatuko 2. zenbakia,

Karlisten gerrari egunik urdinenak igaro zaizkio eta albiste on berri gutxi iristen dira haien zain daudenen belarrietara. Aranaren EGUNARIAk urtearen azkena arte honako hauek bakarrik jasotzen ditu: Gasteiztik datorren kaputxino Frai Andoainek "dice haber pasado hoy por Elizondo la Reina Margarita en coche"; egun gutxiren buruan "rumor de entrar en Oyarzun los negros"; geroxeago "óyese cañoneo hacia Guipúzcoa"; azkenik Jacoba Balzolak eskutitz bat hartzen du Donostiatik "sobre el bombardeo de San Sebastián por los carlistas" berri emanez.

Getariko oporren ondoren, Boudigaud-en etxekotu eta berehala, irailaren 16an, egin zion gutuna Aranek d'Abbadieri. Bi hilabeteko isilaldiaren ondoren, abenduan, lehenik Aranek d'Abbadieri eta hurrengo astean d'Abbadie jaunak Aranari egiten diote elkarri gutuna ez, baizik bisita: "15, miércoles. Mañana (goizean, alegia) a Bayona... Mr. Inchauspe, su casa y secretario de l'Évêché; su visita y otros canónigos. D. Antoine d'Abbadie. Café". Hilaren 23an: "Jueves. Visita de Mr. Ant. d'Abbadie, que viene en coche: su conversación, desayuno, archivo. Cartas de San Ignacio y cuadernos Carlos VII, cartas de Motrico, astronomía. Con él en coche a Bayona". Bien artean, 18an, Aranek d'Abbadieri kartatxoa.

Esan dugu urtarrilean atera zela Lagunditik Garagarza, eta apaiz izaten ez ezik, bai eta Aranaren adiskide zintzo izaten ere jarraitu zela. Bada, urrian izan zuen Aranek haren berri Valleko Kondearen eta Muruako Markesaren bidez; eta Aita Doncelekin eta Obietarekin Baionara kotxean doan batean, "vuelta en coche del expadre Garagarza; sus historias, su visita al P. Provincial" diosku; eta hori gutxi balitz bezala, hilaren 15ean "viene al oscurecer el expadre Pedro Garagarza para hacer Ejercicios. Se le pone en el cuarto de mamparas", baina biharamunean "el expadre Garagarza pasa al cuarto del P. Ministro". Bukatzen

ditu eta "a Bayona y estación a las 8 con Pedro Garagarza y visita antes a D<sup>a</sup> Jacoba. Sr. D. Miguel de Mocoroa en la estación (alcalde de Tolosa); Sr. Elejalde, cura de Marquina". Ez eta oraindik jesuita izaten jarraitzen balitz ere!

Hileta eder batzuen urrin gozoaz amaitzen dute 1875. urtea. Eguberri egunean hil eta 26an ehortzi zen Tolosa Gipuzkoako kaputxino Frai Antonio: "Gran gentío; canónigo Intxauspe y otros curas. Cantos a 2 y 3 voces. Entierro en el Campo Santo de la huerta en caja, sin estola, con capucha que le cubre la cabeza, que mira al Norte, junto al ciprés".

## 8. ERIEN BISITARI (1876)

Karlisten gerraren porrotak milaka jende zahar eta gazte haizatu zuen iparraldera, eta lehendik haizatuei berebiziko zastada eman bihotzean, jesuitak barne, eta hauetako askoren ametsak desegin. Entzun lehengo historialaria: "La derrota del carlismo produjo una gran desilusión en muchos jesuitas, también en los ardorosos jóvenes de Poyanne. La comunidad de Poyanne no era neutral en política, sino que simpatizaba apasionadamente con la causa de Don Carlos... El contraataque carlista que produjo la muerte del general Concha (fue) celebrado con TE DEUM".

Alde guztietan entzuten dira azken gatazkaren oihartzunak: "Noticias varias alarmantes". "Noticias tristes de guerras". Okerrena ez dira oihartzunak, baizik guztiek beren begiz etortzen ikusten dituzten gazte zaurituen andanak: "Llegan 55 heridos carlistas al Hospital San León" (27.II). "Los otros 50 heridos siguen en las salas de abajo a la izquierda" (28.II). Eta ukigarriagoa dena: "Paso y paso de miles de carlistas a Bayona" (1.III); "Pasan unos centenares de carlistas a Bayona" (2.III).

Aranari eta bere lagunei lehengo lana hamar halako gehitu zaie eta artxi-bo eta liburutentzat asti gutxi gelditu. Hartzen badugu EGUNARIko martxo-ko berri zerrenda, ikaraturik geldituko gara ikusirik hil horren hogeita hamai-ka egunetatik hogeitan hiriko eritetxeren bat bisitatzen duela, eta inoiz bi bider ere bai; behin "vuelta Hospital S. León"; eta gero "tarde con el P. Artola a Don Esteban; vane los dos al Hospital militar; yo quedo en el Hospital civil S. León. De tres a cuatro agonía y dichosa muerte de... Otro enfermo muy grave viaticado esta mañana. Otras visitas de enfermos y enfermas". Eta Aita Arana ez da soldaduen kapilaua, noski; beste egitekoak ditu etxean, eta erite-txeak baditu bere kapilauak, l'abbé Choribit adibidez. Eskerrak lan horretan

asko laguntzen dioten mugaz haraindi ihesi etorritako apaiz batzuek, hala nola D. Esteban Sanzek eta D. Casimiro Barriosek.

Bi eritetxe ditu, izan ere, hiriak: lehendik ezagutzen dugun hiritarren San Leon zeritzana eta bestea militarra. Bigarren honetan du lanik handiena Aranak: soinean zeramatanarekin bakarrik eta zauriturik, hara iristen ziren gerrari karlistei gorputzeko eta arimako zauriak sendatzen. Horiek ez hartzen zauritu guztiak eta, badira haiek bere etxean hartzen dituzten familiak: "3 carlistas viejos en casa de D<sup>a</sup> Jacoba", "Prepáranse algunos heridos para irse a San Juan de Luz", bai eta karlisten Ambulanzietatik eritetxera lanera etorriak eta eriak hobera jotzen hasi bezain laster, Nafarroako muga aldera eramaten dituztenak: "Pasa un coche de heridos carlistas mejorados hacia frontera de Navarra".

Zauritu batzuen berri xeheki eta poliki ematen digu eguna joan eta eguna etorri. Entzun, adibidez, Manuel eta Lazaro gazte nafar bikote honen azken kinka: "Viene al oscurecer Manuel de Orduña, que fue criado del colegio de Orduña". Gero "vuelta al Hospital San León. El enfermo Lázaro". Biharamunean "confesión de Lázaro, oficial navarro". Gero diosku pixka bat hobeto dagoela; gero "confesión de Manuel, joven de Piedramillera, Navarra, enfermo herido; algo mejor; Lázaro algo peor y en otro cuarto". Handik laster "Manuel sigue peor, Lázaro no bien", eta hilaren 21ean "anoche murió el oficial Manuel, el de Piedramillera. Lázaro sigue muy débil; agua de Lourdes; viene su señora madre a verle". Gero berriz "Lázaro peor, sigue con su señora madre", eta azkenik 26an "Lázaro Eraso el oficial murió anoche a las 9. Quedan 12 o 13 heridos". Egun batzuen buruan, ordea, kopurua handitzen da eta "aún hay 22 heridos carlistas. El viernes Virgen Dolorosa, Patrona Generalísima de los carlistas".

Esan daiteke maiatzean ahitzeaz dagoela karlista zaurituen kopurua ospitalean. "Cuatro solos enfermos carlistas", esaten zaigu maiatzaren 11an eta handik egun gutxitara "los cuatro heridos carlistas mejor". Biharamunean aldiz aitortzen "otros cuatro enfermos españoles". Baina iada azkenak dira eta ez dira gehiago aipatzen, ezpada esateko sendatu direla eta Espainiara doazela eman zaien eskupekoa sakelean dutela. Bakarrak irauten du oraindik ekainean: "Mariano, de Guadalajara, algo mejor después de amputado el pie". Ondoko egunetan ere hobeto omen dago eta Aranak, Getarira oporretara abiatu baino bi egun lehenago honela diosku: "Mariano mejor y levantado en la ventana". Hiriko San Leon eritetxean ere badu nor bisita: "Pio el chico riojano sin un brazo", "El chico Pio algo mejor", eta halaber Nikanor, Karolina eta honen haurtxoa, nahiz hor bere kapilauak badituzten. Urnietako Jose Manuel de Arruabarrena ere hor dago gaixorik eta Aita Aranak eskutitz bat

egiten dio haren gainean On Manuel Antonio de Antía, Urnietako erretore eta euskal idazleari.

## 9. LOIOLA ITXIA (1876)

Boudigaudeko etxean eta kapilan iheslarien bisita asko hartzen dute; konfesatzeko datozenen, edo gaixo eta zaurituentzat eskupeko bat emateko, edo hegoaldeetik haratzen diren jesuiten bidez hartutako albisteen berri jakiteko edo hitz-aspertu bat egiteko. Hala dakigu Miguel Areilza jauna eta iloba, Gaytan eta semea, Aldalur Jose Inazio eta Inazio Ibero, Jose Furundarena, Suance, Moneo eta Iribas jaunek bisitatzen dituztela. D. Jose Juanmartiñenari bakarka gogojardunak ematen dizkio Aranak edo egiten laguntzen eta honek bukatzean 60 erreal ematen dizkio zaurituentzat.

Bai eta bertako jende elizkoien bisitak ere. Elisabeth Otsabide anderea lapa bezala itsatsi zaio eta han du txitean-pitean konfesio eske edo mintzatze-ra joana; ekainaren lehen hamabostaldian sei bider gutxienez. Honek Joana eta Maria ditu batik bat lagunak, gero ere maiz Aita Aranarengana joko dutenak inori laguntzeko, batera otoitz egiteko edo konfesatzeko.

Askok luzatu gabe erantzuten dio "con apuntes y versos de S. Antonio" Mr. d'Abbadieren eskutitz bati. Halaber Paristik eskatzen dizkion euskal liburuak igortzen dizkio, eta horiei gehitzen "Semaine" para d'Abbadie; el libro del año pasado 75, "Testamentu zarreco ta berrico historia", bai eta jostera bidaltzen *Mayorazgo de Loyola* izeneko liburua. Noizean behin irakurtzen dugu "trabajos de archivo" ere; ez dakigu ez den egun batzuk lehenago Aita Probintzialaren ordezkoa etxean izan delako, eta "inspección del archivo" egin omen duelako. Artxiboak beste lanak ere baditu berekin: "Tráense cartones y libros encuadernados, libros vascos, *Testament y Egunaria*, cerca de dos francos". Bere EGUNARIAren orriak ere idatzi ahala, zatika josi egiten ote ditu? Verlinden, Grico eta Lasarre, inprimalari eta paper-dendariekin harremanak badituzte. Arretatsu dabil eskribau baten bila eta Pedro de Guibelalde Gipuzkoako Anoetakoa hartzen du azkenean.

On Pedro Guibelalde apaiz eskribauak Aita Henaoren kopiatze lana amaitu eta Aita Mendiburuk Larramendirekin, dantzak zirela eta ez zirela, izan zuen liskarra kontatuz, lehenak Probintzial Aita Idiaquezi egin zion karta kopiatzeari ekin zion eta bukatzean Aranak hileko soldata ordaindu, 45 libera.

Hainbeste lan eginak Aita Aranaren inoiz ona izan ez den osasunari erasan egin behar nahitaez. Urtebete pasatxo da meza eman zuela eta dagoeneko hasi da "sin misa por destemplado de estómago", eta sei egun geroago "sin misa por el estómago". Eguberriak ondoren "purga con citrato de magnesia; bien, eficaz", baina zortzi egunen buruan "sin misa por mala noche; purga, constipado". Zail eta irmo da, halere, eta oso ibiltari ona. Besteak kotxean dabiltzanean, hark nahiago du oinez joan: "los PP. Goyena y Moga, P. Choli, Alberdi y Valcarcel en coche; yo a pie a Bayona". Eta egun batzuk geroago: "Vuelta por Anglet a pie, los demás en coche". On egiten bide zion ibiltzeak.

Hegoaldetikako bisitak ia beti ongi etorriak izaten dira, hango berri jakiteko irrikaz egoten direnentzat. Azkoititik denbora gutxian bi hartzen dituzte: bat Arana Martirietan egon zenetik ezagutzen duguna, Anai Larrañagaren anaia apaiza, D. Jose Ramon, eta bestea Aita Alberdiren lehengusu bat, Aranguren. Hor du Aita Aranak parada polita pixka bat olgatzeko: "Tarde a Bayona con los dos Larrañaga; encuentro con D. Jose Ign. Aldalur; vuelta de sus compras, dos tomos del P. Isla (Fr. Gerundio) comprados por un franco". Erosketa horiek direla eta agirian utzi nahi dugu, Aita Aranak ez dituela inoiz liburuak beretzat erosten, liburutegirako baizik, liburuzain eta artxibari denez gero. Aranak ez dauka bere liburutik eta ez du inoiz esaten daukanik. Hiru egun geroago, "a Biarritz, refugio y vuelta por Anglet en coche con los Sres. Aldalur D. Jose Ign., D. Jose Ramón Larrañaga y el H. Larrañaga y yo"; eta beste egun batean "imprensa Laserre, libritos para Larrañaga cura". Beste azkoitiar bat ere, D. Pedro Irizar, han inguruan dabil egun haietan bere emazte Amalia Palaciosekin, nahiz uztaila baino lehen ezkututzen diren.

Ez dira beti haatik hain ongi etorriak. Albiste mingarri bat ekarri zieten egun haietako batean: "haber sido expulsados de Loyola los de la Compañía de Jesús el 14 de mayo presente, pero aún no habían salido. Loyola fue cerrada por orden de Cánovas el 13 de Mayo de 1876. Era", diosku lehengo historialari berak, "como la derogación de los fueros, una medida de represalia". Egun gutxiren buruan agertzen dira Poyannen Loiolatik iraitziak: "20, sábado: vienen de Loyola expulsados los Hermanos Coadjutores Goyena y Arandia para Poyanne. Hoy habrán salido de Loyola los últimos, el P. Garciarena y X". Eta astelehen 22an: "Llegan el P. Garciarena y el H. Romero" eta luzaro gabe biek hasten dituzte urteroko gogojardunak. Eskerrak uda hurbil den; Getariko oporrek ez diete kalterik egingo, bai baita-kigu txit adikatuak zetozeLa Loiolatik, Aita Garziarena batez ere; hainbestearaino non zinez uste izatera heldu baitzen bere bekatuakgatik utzi zuela Jainkoak Loiolan gertatu zena gertatzen.

Jende askok nahi du horrekin hitz egin eta Loiolan azken egunetan eta aurrekoetan zer gertatu zen eta Loiola nola geratu zen jakin. Berak dakizki

gauzak ondoena. Ez alferrik deitzen du Aita Revuelta historialariak Aita Garciarena: "El jesuita más implicado con el carlismo". Ez zaigu ahanzten 1870eko Azpeiti-Azkoitiko matxinadan ere espetxeratua izan zela On Agustin Jauregirekin batera eta epaitua, alkate Larrañagak eta bere bi morroito Emparanez eta Etxanizek salatuz, eta bi hilabeteko kartzela eman ziotela. Dirudenez Boudigauden jartzen da bizitzen, zeren egun batean hau irakurtzen dugu: "Comida con el P. Beola 4 de Boudigaud: PP. Garciarena, Moga, Arana y H. Larrañaga". Ahal duen oro Aita Arana hartzen du bidela-gun.

Diogun geure aldetik beste zerbait Aita Garziarenaz, ongi merezia du eta. 1827an sortu zen Berastegin eta Jose ezarri zioten izena batai-ontzian. Hogeitamar urte zituela, apaiz eginda gero, sartu zen Lagundian eta "profeso" izatera iritsi zen, Aita Garagarza ez bezala. 1894an, Arana baino bi urte lehenago, hil zen Loiolan 67 urte zituela, Lagundiari, Loiolari batez ere, zerbitzu handiak errendatu ondoren. Loiolako artxiboan bada hark Aita Probintzialari Loiolako ordu txarretan egin karta-sorta handia. Gaurdaino ez dut aurkitu halere haren euskarazko eskutizik edo olerkirik batere, orduko Berastegiko hizkera pixka bat islatuko zigunik.

San Inazio Iruñeko setioan zauritu egunaren urteurrena, Mendekoste festa hurrengoan, handikiro ospatzen dute Guichonen eta han dira Arana eta biak. "A comer a Guichon casi todos. Varios convidados: D. Roque Eriz y su hijo Rafael, D. Telesforo Monzón, Rameri, Melitón, Conde del Valle y D. Sebastián Urra. Vuelta con el P. Garciarena... A Bayona y Sancti Spiritus con el P. Garciarena; Sr. Ibero (rue Basque 6, 1º)".

Batean Guichona doa Anai Larrañagarekin. Beste batean Baionako Katedralera, eta haren bila dator etxera Irizar D. Pedro jauna bere semearekin eta ez aurkitzen. Hurrengoan Aguilafuenteko markesa ere bere senar, anaia eta alabatxoarekin datorkio bila, berekin hartu eta Guichona eramateko. Beste jende asko ere hara doa egun horretan, ikasleen gurasoak batez ere. Ikasturte bukaera eta sari banaketa dute ekainaren 11an, arratsaldeko 5etatik 7etara, eta han dira Valleko Kondea, Muruako Markesa, Ibero bere alabarekin, Jose Ign. Aldalur eta lehendik ezagutzen ditugun gainerakoak.

Orainarte ezezaguna genuen Bikario jaun Mr. l'abbé Irasarryrekin harreman handiak ditu Aranak, ez dakigu nola sortuak. Zortzi egunen buruan lau bider aipatzen du Aranak haren izena eta horietatik bitan haren etxea aipatuz: "casa de Mr. l'abbé Irasarry cerca de Lorette; libros viejos, Mr. Migne". Jean Pierre Duvoisinek ere, Evêché kalean, 8, 2. goan bizi omen zenak, apirilaren 2an idazten dio, eta ondoko egunetan, 13an eta 20an, egiten elkarri bisita, baita

beste bat ere ekainean Aranak. Uztailaren 5ean berriz Aita Aranak: "tarde, visita a Mr. Duvoisin e hija, su escrito basco-bibliográfico", oraintsu arte Loiolako artxiboan zegoena eta "Fontes"-en argitaratu nuena.

## 10. BOUDIGAUD-TIK ALDE (1876)

Getarira, Lapurdikora noski, doaz batera Arana, Garziarena eta beste zenbait lagun. Aranak, jakina da, lehen egunetik hasten ditu bainoak, goiz-goizekoak: "Baño a las 6,30. A las rocas del mar con un libro del Obispo de X "La masonería y los jesuitas, 1876". Osterantzean olgeta gutxi dute eguna pasatzeko eta dena da hau albistatzea eta hura agurtzea. Batzuek, kortesiaren esanera, aurreratu egiten zaizkie eta, kanpoan bizi izan arren, etxera joaten bisitatzera: "los Sres. D. Melitón, D. Liborio Rameri y D. Telesforo Monzón". Eta agurtu ez ezik "gran comida". Baionara doan batean Mr. Duvoisin bisitazten du berriz eta honek bost egun geroago eskutitz bat egiten.

Ziburun ihesi joanen multzo handia bizi da eta hara doanean, ezinutzizkoa da hango ezagunak agurtzea: Lardizabal, Mandiola, Urreta, Cabanillas, Pedro Legarza, Pedro Alberdi, eta abar; baita Aita Garagarza izana ere, eta emakumeak, zer esanik ez, Sras. Rameri, Prudencia, Luisa y Martina. Lardizabaldarrak bereziki joaten zaizkio Getarira beste egun batean: "tarde visita de los Sres. de Ziburu, D<sup>a</sup> X. Lardizabal, hermana de D<sup>a</sup> Lorenza, D<sup>a</sup> María Lardizabal de Monzón y su hermana Porfira, soltera, y D<sup>a</sup> Josefina, mujer de D. Ignacio Lardizabal". Gero txokolatea eta gozokiak, hori bai, eta "destemplanza de noche, sin baño". Beraz Monzon baten emaztea Lardizabal zen.

Gabeko ondoeza gorabehera, bi egun geroago Ziburura doaz berriz Getariko opor-etxean dauden jesuita guztiak egun pasa, esku-gurdi txiki batean jatekoa daramatela; Ziburuko aldapa gainean, Bordagainen, gelditzen dira, ordea, eta han bazkaltzen elizatxo suntsitu baten ondoan, Telesforo eta Meliton lagun dituztela.

Eta kito. Amaitu oporrek eta 29an Baionan dira 8etarako San Inazio eguneko festa prestatzeko. "Misa cantada. Marcha de San Ignacio en vascuence hasta las 11,15". Gomiatu batzuk ezin falta eta "gran comida hasta las 2,30. Refresco en Baudigaud a las 6". Ardoa Nafarroatik ekartzen zutela kontatzen digu behin: "Llega el carro de vino de Navarra para casa".

Erdi oporretan segitzen dute oraindik, halere, eta egun batean Roke de



Eriz, Gipuzkoako Diputatu Nagusi ohiari, egin zioten bisita Asparrenen zeukan etxean: "Asparren con la posesión de D. Roque de Eriz, su Sra. D<sup>a</sup> Concha, hijos José, Rafael, Dolores y Tomasa, criados varios y criadas Francisca e Ignacia; comida, café, piano, poesías". Beste batean, abuztuko 15eko Ama Birjinaren egun seinalatua baitzen, Larbeyra doaz, han lagun min Aita Txurrukak egingo dituen botoetara: "Comida grande con versos y bombas; café. Academia de mucho entusiasmo". ("Bonba" izeneko neurtitz asko", dio behin). Ondorengo egunetan joan-etorri asko egiten dute elkarrekin hona eta hara; eta behin Getarira doaz eta, nola ez, "baño con el P. Churruca lloviendo y tronando".

Oporrik ez duena Pedro Guibelalde eskribaua da; egiteko guztiari ezin horrek buru eman eta eskribau berria, Leandro Plazaola, hartu beharrean aurkitzen da Aita Arana. Hilabete pare bat geroago beste eskribau bat ere aipatzen du, Domingo Ibarra, zeinekin behin xake-jokoan jokatzen baitu: "ajedrez con Domingo Ibarra" eta "quedan a dormir en casa Pedro y Domingo, escribientes". Ez zuen arrazoi faltarik Aita Venancio Sorondo hernaniarrak, aita Probintzialaren lagunak, Arana adiskide minari behin idatzi zionean: "V. necesita muchos escribientes". Eta gero: "a ese paso dentro de 100 años habrá que celebrar el centenario del P. Arana". Asmatu, gainera.

Guibelalderi 44 libera ordaintzen dio eta 15 eguneko lanagatik 12 Plazaolari. Hartara badu beta 20 gizon-emakume euskalduni, hilean bi bider euskarazko hitzalditxo bat eskatu diotenei, egiteko. Bai eta Baionako Historia Naturaleko gabinetea eta udal-liburutegia ikustera joateko ere. Mr. Dulaurand omen da liburuzaina eta lehenbiziko egunean honako bi liburu hauek ikusten ditu, besteak beste: *librito de la Virgen en vascuence* y *Diccionario de Van Eys*, holandés, eta Aranak *San Inazioaren bizitza euskal-erdarazkoa* ematen. Hurrengo egunean "apuntes de Henao, P. Moret y Aleson" eskuztatzen ditu.

Duvoisin jaunarekin hartu-emanak maizkoak dira. Egun batean haren bisita hartzen du Aranak eta bestean berak egiten: "visita Mr. Duvoisin e hijo sobre Bonaparte, bascuence", eta irakurtzeko ematen Lardizabalen liburua eta han ezagutzen haren neskame Maria. Beste bi euskalari berri ere ezagutzen ditu; misiolari Mr. d'Arbelbide, "vascófilo, casa de Misioneros de los de La Croix", eta urriaren 10ean Julien Vinson jauna (Bour-neuf 26) datorkio etxera. Egun gutxiren buruan, urriaren 23an, Bonaparteri idazten dio eskutitza.

On Pedro Garagarza apaiza ere badatorkio sarri samar: behin bazkaltzera, gero gogojardunak egitera. Baina eguberriak baino lehen Madrida aldatu da (calle de la Cruz, 27). Ignacio Ibero aldiz ezin etorri; eri egon da denbora asko

samar eta aski larriki; Aita Garziarenak bisitatu izan du eta hobera jo, baina artean ospitalean zegoen. Azkoititik ere etorri zaio adiskide zintzo eta erdi ahaide bat: Patxi Tole izengoitia duen Francisco Usabiaga. Beste ezagun asko ere Erromara bidean igaro dira handik, erromes gisa doazenak: "muchísimos peregrinos conocidos que van a Roma".

## 11. POYANNEN BERRIZ (1876-7)

Hartu behar diren neurriak hartzeko pertsonarik egokiena Aita Garziarenari deritzate Agintariak eta Boudigaudeko buru izendatzen dute. Astebete baino lehen orain arteko Nagusi Aita Doncelek eta biek etxean bazkaltzen dute, etxearen jabe Mr. Molinièr-ekin mintzatu ondoren "sobre cerrar la casa de Boudigaud. Inventario, registro de trastes". Aranek etxe-aldatze horren berri jakin baino lehen bi eskribauei, ez hiruri, ordaintzen die 46 libera batari eta 31 besteari, eta jakin ondoren, eskutitza idazten dio Aita Probintzialari ea zer egin eskribauekin. Pedro Guibelalde 25,50 libera hartu eta Salamankara joateko gogoazazaltzen du eta berehala abiatzen da trenean.

Bi euskalari presturen agurrekin ematen dio hasiera azaroari: eskutitz batekin eta bisita batekin. Lehena Luis Luziano Bonaparterena; bisita berriz Julien Vinsonena. Berak bere aldetik d'Abbadieri egin dio eskutitza. Aldalur jaunak Baionara doan batean zortziko bat eskaintzen dio bere *Arte Métrica Vasca*-n sar dezan.

Luzamendutan ibili gabe Poyannetik datoz bi Anai, Urdapilleta eta Lecanda, eraman behar diren gauza guztiak kutxetan sartzeko: "encajonamiento del archivo en 10 cajones"; "se llevan muchas cosas a Guichon y cambio de piano". Jende askori agur egiteko garaia heldu da; ez hainbeste erbestetik etorriei, horiek beti oin bat aidean dutela bizi baitira, hona nahiz hara joateko prest, baizik herriko jendeari, herriari lotua bizi denari, mojei eta gainerrakoei: "Sor Ana Maria, Josefina: lloros de despedida".

Boudigauden ematen duen azken mezara jende asko dohakio, nahiz aste eguna den. Azken orduko egitekoak gelditzen zaizkio dindilika: Domingo Ibarra eskribauari 30 libera ordaindu; Poyannerako diren kutxak ongi begiratu: "carros varios cargados de cajas; baúles para la estación; 4 toman dos vagones"; Aita Garziarenarekin batera Molinier jaunaren eskuetaratu bere etxea, ordainduz, eskerrak emanez eta agur esanez; hiru azken egunetan moja Karmelitetan meza eman eta erregali hartu txokolatea eta azukrea; Baionan Duvoisin jauna bere etxean bisitatu eta biharamunean harena berarena etxean

hartu. Horrenbestez bere gau-zakua eskuan duela eta, lehen aipaturiko Anai Urdapilletaz eta Lecandaz gain, Aguado ere lehiatzen dela "con carros (5) y coches (2) para llevar los dos vagones de muebles y archivos de Boudigaud a Poyanne", dinbili-danbala bazkalondoan iristen dira Poyannera. Artxiborako eta artxibariarentzako izango den gelan egokitzen da eta hainbat lagun zahar agurtzen ditu, Aita Mendibe batez ere. Laster hasiko da honekin paseoak egiten arratsaldeetan: "26, martes. Tarde paseo una hora con el P. Mendive".

Lehen egunetan dena da artxiboa apailatze kontua: "cajones del archivo, arreglo de estantes; de los muebles de Boudigaud"; "arreglo del archivo". Hilaren 12an hauxe dio: "Clases de more", ohi bezala, alegia. Bera ematen hasi dela esan nahi ote du, ala hasi direla? Larbeytik datoz aspaldian ikusi ez dituen lagunak eta Larbeyra doa bera ere egun gutxi barru haiekin solastatzera. Aita Suarez han bizi denak "lleva el libro de *Ensayo poético* para algunos días". Luis Luziano Bonaparteren eskutitza abenduaren 11an hartzen du eta 20an "llegan los libros de Bonaparte a Poyanne". Izan ere, Arana egun batzuk lehenago Larbeyra joan da gogojardunak egitera. Azken egunean jesuita ona izateko asmo handiak erakusten ditu eta horiek betetzeko laguntza eskatzen:

Jesus da Mariaren biotz Jainkotuak  
bedeinkatu ni eta nere asmo santuak.

Poyannera orduko, ondoko herrixka Cassen-a doa Eguberri bezperako konfesio ugariak entzutera: "confesiones hasta las 12 menos cuarto de la noche; de 90 a 100". Zazpitan afaldu eta berriz ere konfesatzera: "media noche dos misas y unas 200 comuniones"; "2 acostarme, 6,30 levantarme", eta jaikitzean adierazten diote "la muerte santa de don Manuel de Arana (QEPD), mi amantísimo padre". Azkoitian hil zen. Egun gutxiren buruan hartzen du eskutitz bat: "Carta sobre el fallecimiento de mi buen, excelente padre D. Manuel Arana en Azcoitia el 23 del presente, testamento hecho, recibidos los SS. Sacramentos, dando consejos a la familia". Gabonetako arratsetan, ohi bezala, afalondoko hitz-aspertu luzeagoak, antzerkiak, kanta eta bertsoak.

Artxibo bat ongi zaintzea, lantzea eta zuzen "eramatea" ez da uste bezain erraza; gehigarriko lan asko inguratzen zaizkio. Poyannekoa azken urteetan asko handitu da, Espainian, ikusi bezala, ixten joan diren etxe eta kolejoetatik etorri zaizkien liburu eta agirikin. Horiez gain, erosten dituzten liburu eta bilduma berriak. Hala urte berriko martxoan "llegan grandes cajones de Roma con libros: obras de San Isidoro por el P. Arévalo". Hori dela bide, langileak nahitaez ugaldtu behar eta bi nobizio, Tejado eta Lamartine, eta Anai laguntzaile bat hasten dira han lanean. Domingo Ibarra eskribauak handik alde egin eta haren ordez Mariano Sanchez sartzen da.

Lan horrek ez dio Aranari apaiz lanetan aritzea eragozten, igande eta jaiegunetan batez ere. Inguruko Guichon, Cassen, Mugron eta beste herrixka batzuetara hedatzen da Poyanneko jesuita apaizen jardutea, beti ere asteen hiru egunetako arratsaldeko paseo alditxoari lekua ostu gabe. Lehengo etxeetan ez bezalako lagunak ditu orain eta bidelagun berriak, baina aspaldikoak; maizkoenak Mintegiaga, Txopitea, Mendive, Olano. Ez ahanz filosofia-teologia ikasleak ez ezik Humanitate eta Retorikakoak ere han bizi direla eta horien guztien irakasleak batetik mordoxka direla eta bestetik gehienak Aranaren kidekoak.

Berak, dirudienez, fisika eta erabat zientziak dei ditzakegun gaiak irakasten dizkie. Hala irakurtzen dugu egun batean: "Academia astronómico-física de 2 a 4 de la tarde con unas 20 o 30 personas francesas, curas de Montfort, Onard, S. George, Gamarde". Eta ikasturtearen bukaeran: "Academia lírico-músico-física hasta las 8,15; Mrs. Coidrois, Joufroi, Cournaud. Iluminación con luz eléctrica, espectroscopos, cohetes... hasta las 10,30 en el jardín". Besteek ere badituzte beren agiriko irakas-azalpenak: "examen ante el P. Provincial de Hermanos retóricos y humanistas" eta San Juan Crisóstomo egunean, urtarrilaren 27an, urtero bezala jatorduan, gainerakoak bazkaltzen ari diren bitartean, "retoriko" batek pulpitotik mintzaldia gerkeraz egiten die; urte hartan Ignacio Iberok berriki gaixo egonak, hain zuzen.

Aita Aranak baditu oraindik noizean behinka txakalaldiak eta bururen-goak, goizean meza ematea galarazten diotenak: "sin misa por noche mala". Euskalarietako karta-harremanek betiko moduan segitzen dute, haatik; uda bitartean d'Abbadie jaunak eta biek hiruna eskutitz egiten diote elkarriz; ez hainbeste Duvoisinek, baina honek bere liburuxka bat igortzen dio 1877an, eta Bonapartek ere halatsu, honi eskutitzaz gain "paperak" batean eta liburu batzuk bestean igortzen dizkiola: "el P. Mendia prepara libros para Abbadie y Bonaparte".

Berak eta bestek eskuartean dituzten idazlanen berri ematen digu. *Historia Collegii Orduniensis* idazten ari omen da Aita Ziorzaren laguntzaz, eta aurrera kolejiotik eta gainerako etxeetatik igorriko dizkioten etxeko berriak latinez apailatzen ikusiko dugu, berak gero Aita Probintzialari eta honek Erromara bidaltzeko. Orain baino lehen ere aipatu izan duen *Officium parvum* bat, baina oraingoan "Jesusen Bihotzarena" eta hiru hizkuntzatakoa (*Officium parvum SS. Cordis Jesu*, trilingüe) igortzen dio Erromara Aita Asistenteari.

Eskuartean euskal lantxo bat omen duen apaiz nafar batez, Leizako abate On Jose Bizente Iribarrenez, beste hau kontatzen digu: gogojardunak egiten

han izan omen zen eta laster "va a imprimir un catecismo euscaro". Aranak azken egunean *San Inazioen Bizitza* eta *Ofizio laburra* delakoa eman omen zizkion.

## 12. LOIOLAREN AMETSETAN (1877)

Aranaren kontraeratik piska bat atera eta, itzul ditzagun begiak Gipuzkoa aldera ea zer gertatzen den han. 1877ko urtarrilean Gipuzkoan gerrateak iada gainbehera handia egin du, jendearen bizi-giroa asko jabaldu da eta gero eta gehiago dira hara, baina ez Loiolara, lasai-lasai biltzen diren jesuitak. Bakean bizitzeko eskuratzea gehiena kosta zitzaien etxea, Loiolakoa izan zen; asko baitziren kontra erasotzen zutenak, eta ez Madrileko gobernukoak bakarrik, baita ondo-ondoko kristauak ere beren pentsamolde liberalagatik, jesuitak etorririk, karlistek berriz laineza eta arrandia har lezaten beldurrez: "no faltan quienes se oponen resueltamente a nuestro retorno en los mismos pueblos de Azpeitia y Azcoitia", idatzi zuen egun haietantxe Aita Probintzialak. Horregatik pixkanaka hurbiltzen joateko baimena eman zien Jeneral Quesadak eta bazterrak aztoratu gabe gutxika azaltzeko eskea egin.

Martxoaren 28an, asteazken santu egunean, eskuratu zizkioten Aita Legarrari Loiolako giltzak, esanez hiru lagunek bakarrik bizi behar zutela han, berak eta beste biek, baina ez edozeinek, baizik Gasteizko apezpikuak hautatuek. Berak izan ziren nahikoa, haatik, Loiolari odol berria txertatzeko eta Elizan aurreko urte eta erdian ikusi ez bezalako elizkizun distiratsuak eta jendez gainezkakoak antolatzeke.

Bertantxe hasi zitzaion Aita Legarra elizkanta eta letra berriak eskatzen Poyannerari Aita Aranari Loiolako elizarako eta bai igorri ere honek. Aita Aranarenak ziren, Liturgia berria etorri arte, Loiolan eta bestetan kantatu izan diren kanta asko eta oraindik ere kantatzen diren zenbait; esate baterako "Agur, Jesusen Ama" lerroz hasten den famatua. Loiolak bizia hartu zuen berriz ere; ez baitziren elizako elizkizunak bakarrik, baita hainbeste denbora itxia egonak eman zion famak eta ikusmirak erakarritako jende xume andana, eta gogojardunak egiteko hara biltzen hasi zena, eta abar. Catani Nuntzio jaunak, adibidez, Aita Cotanilla lagun zuela han egin zituen inork ezagutu gabe, bai eta Granadako eta Zaragozako Artzapezpikuek ere.

Urte hartako San Inazio eguna nolakoa izan zen, han egon zirenen ustez ezin esan omen daiteke: Gasteizko, Iruñeko eta Dauliako apezpikuak, hoguei jesuita baino gehiago, ezin kabitu adina jende, suziri-agurrak, Aita Lobo

Probintzialaren sermoi luze-ederra, orkestra handia, prozesioa, Apezpiku Meza, eta batez ere sei mila lagun-edo (sic!) eliza barruan eta hamabi mila kanpoan, ehunka jendeak Jauna harturik, eta abar. Han zen beste mila askoren artean Aita Cotanilla, Nuntzioaren laguna, Lagundian 42 urte lehenago sartua eta Loiolan inoiz izan gabea. Honela zioen: "En todos rebosaba el gozo de ver a los jesuitas en Loyola". Bazkaria ere festaren betekoa izan omen zen: "más de setenta cubiertos y estuvo amenizada en prosa y verso y con cánticos acompañados de piano y violín". Hura Euskalerrriaren plebiszito bat bezalakoa izan zen Loiolaren alde.

Poyanneria berriz itzulirik, han ere festa handiak izan zituzten ikasturtearen bukaeran eta San Inazio egunaren inguruan. Han zegoen egun haietan Dauliako Apezpiku jauna, bai eta Lagundiko zenbait Buru; zer esanik ez, Valleko Kondea, Tirso Olazabal bere amarekin, Aldalur Jose Inazio eta abar. Letra-saio edo Akademia delakoaren egitaraua inprimatu eta guzti egin zuten. Gai nagusia "Las Navas de Tolosa" izango zen. San Inazio egunean izan orde, domekara, abuztuaren 5era, atzeratu zen. Goizean Dauliako Apezpiku jaunak emandako mezarekin hasi zuten eguna, Aldalur jauna organoan zela. Eguerdiaren jende asko zen jantokian. Apezpiku jaun eta etxeko jesuitak ez ezik, lehen esandako Tirso Olazabal, Aldalur, Bengoa eta beste mugaz bestaldeko zenbait.

Letra-saioa 4,45tan hasi zen eta zazpietan azkendu. Esanez gain han ziren Mr. Cornau eta Mr. l'abbé Candellé, Mr. d'Oris eta beste zenbait. Emakume espainiar batzuk ere bai: Lorenza Lardizabal, Bergarako Kondesaren alaba Isabel, adibidez. Aita Aranak ere ondu zuen olerkia, titulu hau zuena: "Gurutzearen garaitupena Euskaldunakin Navasen". Gorde zaigu zorionez; sei hamarreko nagusi dira eta lehen bertsoa honela da:

"Atozte, korri, kantatutzero,  
euskaldun anai maitiak,  
gurutze galai Jainkozkoren  
mirari guziz handiak;  
Gurutze baten gugatik illik  
Jaungoikuaren Semiak  
Desegin ditu beti-betiko  
Etsayen asmo guziak,  
Distiatzen du mundu osoan  
Gurutziaren argiak".

Azken hitzak Apezpiku Jaunak egin zituen eta biharamunean txori bakoitza bere kabira: Apezpikua Pabera, Isabel de Bergara Biarritza eta jesuita gazteak, filosofoak eta retorikoak, oporretara Montprivatera. Aita Aranak

kontu batzuk garbitzen ditu, "arreglo de lo del archivo y escribiente Mariano", d'Abbadieri hiruzpalau egun lehenago gutuna egiten dio, Aita Probintzialari bere barrengo kontu ematen dio eta 9an Getarira abiatzen da dozena bat lagunekin hogeit hamar-egun edo igarotzera. Hamaika bainu hartzen ditu danera.

Ama Birjinaren Jasokunde egunean, abuztuaren 15ean, Aita Urraburuk eta Aita Velezek azken zintzak egin behar baitituzte -hauek lau, ez hiru; horregatik dio bertsoak "lau izar"-, guganaino heldu diren neurtitzak egiten dizkie Aranak. Hona lehen bertsoa:

Urraburu ta Velez  
Urrezko buru bi  
Koroiturik ederki  
Dirade agiri;  
Jesusen Lagundiak  
Bere seme biri  
Lau izar politenak  
Gaur diozka jarri.

Eta egun batzuk geroago apaizberritu diren Aita Retolaza, Mendia eta beste sei laguni bertso jaialdi bat eskaintzen diete.

Getarin inguruko lagunak agurtzen dituzte egun haietan. Hendaian Zuberno gaztelua eta familia Ramery. Gero "ida al Château por junto a las Tumbas" eta han d'Abbadie jauna eta Mr. Laborde Noguét, Ustarizkoa. Beste egun batean Baionan moja karmelitak, A. M. Josephine, "familia Ibarrola, D<sup>a</sup> Angeles, su madre, la Capitana carlista D<sup>a</sup> Sonia Bravo", Brigida eta abar bisitatzen dituzte. Aita Mintegiaga, Aranaren aspaldiko laguna, gehitu zaie udatiarrei eta Aranak han eta gero Poyannen makina bat ibilaldi egingo du harekin. Hendaikatik jira, Rameri jauna bisitatuz, D'Abbadie jaunaren gaztelua ikustera darama, beste batzuk Getaritik zuzenean doazen bitartean: "pianista la Señora con el P. Alarcon, Cotanilla, Uriarte e yo. Refresco y salida a las 6,30". Gero "merienda con la familia Ramery todos", lehengoek eta berriki datozen beste bospaseik, Monzonek eta abarrek.

Beste egun batean Hendaia, Hondarribia eta Guadalupera, eta Rameritarren etxera. Han dira Dauliako Apezpikua, Eriz, Zurbano, Zabala; bidean lagunak eta ezagunak agurtuz heldu dira. "Vuelta para las 8 en tren de 7,30". Getariko lagunei halaber biharamunean agur esan eta 27an, oporrak amaiturik, Poyanneren berriz. Haraxe iritsi zen urriaren 2an "el hermano del Hno. coadjutor Garate de Loyola", hiru anaia jesuitetan gazteena, Andres, berak ere hark bezala Anai laguntzaile izan nahi zuela esanez.

Urteroko gogojardunak hasi bezperan, Bonaparteri eskutitz bat egin zion eta honek handik hilabetera erantzun. Aita Probintzialak eman zizkien gogojardunak. Hauek berriro iradoki zioten gure Aranari lehengo olerki edo poema-gai hura: "Idea del otro año sobre el Reino de Cristo y un poema vasco; idem sobre el "Gran Oriente Lucifer", etc". Horiek egin eta berehala hiru ama-alaba agertzen dira, gero urte askotan Aita Aranari oso atxikituak biziko direnak: Helena Daurys, eta Esther eta Sofia alabak. Poyannen deino, ia hilerio etxean ditu konfesatu edo solastatu nahirik, eta gero, dagoen tokira, eskutitzak egingo dizkiote noiznahi eta bisitak ez gutxi.

Artxiboa ez dauka bertan behera utzita: "arreglo de archivo"; "empiezan los HH. novicios a venir a ayudar en el archivo". Sanchezek, antza, diru gehiagoko eskatu zion eta bost durotan berbatu ziren. Carriona doazen Aita eta Anai ez gutxi artxiboa ikusten izan omen ziren eta Anai Oregik "trae dos badanas de a 7 fr. para el archivo". Horrez gain "Historia Provinciae Castellanae", jesuitena noski, idazteko mandatua ematen diote eta eskatu dizkion San Inazioaren eskutitzen hiru tomo igortzen dizkio d'Abbadieri.

### 13. LANA LANAREN GAINEAN (1877-8)

Madrileko agintariak eta Loiolako etxearen egoerak berak nobizioak hara itzultzeko jartzen zituzten eragozpenek saminko kezkatzen zituen hauen Nagusiak. Zergatik nobizioak preziski? Sinbolo bat zirelako eta gazte berrientzat amu irensten erraza. Baina Frantzian ere ezkerren indarra handitzen ari zen, eta edozein momentutan nobizioak handik bota zitzakeen Gobernu ezkertiarak eskura zezakeen botereak. Hauteskunde aurreko egunetan larritasun handiak hertsu zituen askoren bihotzak: "Excitación grande por las votaciones; carteles por las esquinas y los árboles". Nobizio ez zirenak pixkanaka alde egiten hasiak ziren; hala nola Larbeytik; etxea itxi eta geroztik Hirugarren Probantza Manresan egin zuten. Poyannen mezak eskaintzen zituzten korapilo hura noizbait aska zedin: "Misa por difuntos y cuestión Loyola".

Bai eta Poyanne bertatik ere. Abenduaren 8an, gaur Beato den Franzisko Garateren anaia Jose Inaziok Nobiziadu bukaerako zinitzak egin zituen (hirugarren anaia, Andres, arestian ikusi dugu jesuita izateko Poyanneren iristen). Bada egun berean barreiatu zen hango jende artean, filosofoek laster Carriona aldatzen hasi beharko zutelako albiste. Galiziako La Guardiara joan berria zen destinatua Franzisko Garate bera.

Lehen zeregin gutxi izan balu bezala, orain beste batez zaletu zaigu Aita Arana eta hartan jardungo du, Poyanne utzi eta gero, beste bizilekuetan ere.



Halako batean honela diosku: "Catecismo en la escuela del pueblo con dos novicios media hora". Egun batzuk lehenago atentzioa emana zion, S. Georgeko abade berriak hala egitea: "Cura nuevo Mauriac que enseña catecismo". Geroztik S. George herrixkari txera hartu ziola esan behar eta hango kapilau egin zela. Herrixkak izen osoa S. George d'Auribat bide zuen. Txitean-pitean joango zaizu hara elizako eginkizunetan abadeari laguntzera. Baina hara bakarrik ez; Cassen, Laurede, Onarde, Audon eta abarretara ere bai noizbehinka.

Herrixka horietara joateko eta erabat ibiltzera irteteko lagunik maizkoenak Aita Mintegiaga eta Mendive ditu, inoiz biekin batera ere bai: "paseo con él y el P. Mintegiaga", dio urtearen azken egunean. Villada eta Garrastazu ere bai, teologiako irakasleak hauek, baina askoz gutxiagotan. Eguberri bezperan konfesio gehiago: "tarde a confesar..., sigo confesando hasta las 9,15 y después de 11 a 12". Beste egun batean "Visperas por la tarde en S. George; las aristócratas de S. G., Chontons, Fartois, Daurys, M. Condroy, la Loentius, Mad. Ducros August" guztiak elizan, nonbait.

Eguberrietan berekin dute Probintzial berria, Aita De La Torre, eta gazteek inola ere haren aurrean luzitu nahi bere dohaiak, urteroko "tertulia y composiciones, cenando antes, y representación Cándido" antzeztuz. Hasi dira gutxika filosofoak Carrioneko bidea hartzen; hilaren 27an hiru lehenengoak. Aranak egun horietan ondoeza du eta Eguberri aurreko bi egunetan ez du mezarik ematen. Kartak d'Abbadieri, Bonaparteri eta lehengo Sor Ana Maria-ri idatzi bai. Berari Bonapartek eskutitzaz gain bere erretrato bat bidaltzen dio eta Aranak trukean beste gutuna eta bertsoak, eta Ama Birjinaren estampa eta bere argazki bat.

Hainbeste lan bere gain eta, Aranak ez dio 1878ko urte berriari irmo eta sendo ekin; lehen hiru hilabeteetako sei egunetan ez da meza emateko gai izan, flakezia zela kausa, baina Jainkoari eskerrak eguna aurreratu ahala, txorabioa gutxitzen zaio eta beste edozein egunetan bezala ari daiteke lanean. S. Georgeko eskola du bereziki begikoa eta hara joaten da dotrina irakastera, batzuetan bakarrik, besteetan nobizio pare batekin. Liburutegia eta artxiboa ere bere-bereak balitu bezain maiteak ditu. Han ere, ez beti baizik aldizka, nobizioek laguntzen diote astean hiruzpalau egunetan: "Bulario y otros libros que llegan para la Biblioteca; papel de Dax para el archivo".

Bere osasunak galarazten ez dion beste gogo-gogoko lan bat eskutitzak idaztea da. Urtean ehun karta idazten duela esatea gehiegi esatea ote da? Urtearen lehen erdian d'Abbadiek eta biek hiruna eskutitz egiten diote elkarri; horietako batean, martxoaren azken egunean, Ezenarroren kartaren hiru kopia igortzen dizkio Aranak; d'Abbadiek berriz behin 50 libera Aranari.

Honek Oyarzabal marinelaren liburua (1576) dauka d'Abbadierentzat. Epe berean Bonapartek *El sembrador en vascuence* liburuxka igortzen omen dio, eta hila amaitu baino lehen eskutitz bat egiten Aranak hari eta beste karta bana elkarki, hogeita hamar egunen buruan. Duvoisini bat, "con dos ejemplares de carta vieja Ezenarro" eta hark erantzuten euskaraz.

Van Eys-en liburu batzuk ere hartzen ditu eta On Agustin Jauregiren liburuxka bat. Iruinetik EUSKARA aldizkari berriaren hiru lehen aleak hartzen ditu. Londonen hizkuntz irakasle eta filologo omen den Sabino Visars-en eskutitz bat ere bai. Tolosako Mendizabalen alargunaren seme Eusebio Lopez, hemen lehen aldiz eta gero mila bider aipatuko duenaren karta ere bai, *Jesusen Biotza*-ren hiru alerekin. Alejandro Novia de Salcedori, aldiz, Aranak berak idazten dio "y cartas Ezenarro para él" esaten. San Inazioaren bertsoak Azpeitian berrinprimatuak ere hartzen ditu, bere izeba Paulak igorriak.

#### 14. LAGUNARTEKO BILERAK (1878)

Otsailean Aita Santu berriaren albistea heltzen zaie, Kardinal Pecci orain Leon XIIIa bihurtuarena. Egun haietanxe hasten da filosofo gazteen Poyannetik Carrionako joaira, habia berri bila. Hirunako taldekatan ateratzen dira eta egun gutxiren buruan Poyanneko etxeari igertzen zaio nolako hustualdia hartu duen, eskolarioak ez ezik irakasleak eta zenbait Anai laguntzaile baitoa haiekin batera. Hala nola Aita Mintegiaga, Aranaren paseo-laguna, Poyanneko eta inguruko zenbait herrixketako adiskideei agur eginda. Hara iritsi eta hilabete bat baino lehen bi eskutitz idazten ditu Poyannera, toki berriaren berri emanez.

Horiek joan bezala, beste batzuk etorri egiten dira; hori bai, egun gutxitarako bakarrik. Hala nola Urretxuko Anai Ibargurenen aita-amak, "euskaldun prestubak" dio Aranak, semeak nobiziadu ondoko zinitzak egin behar zituelako martxoaren bazter egunean. Gogojardunak egitera datozenak ere egun gutxitarako; esate baterako Ziburutik Lardizabal Jose Inazio, Josefinaren senarra, Urreta jaunarekin batera; bai halaber Valdespinako markisa, eta On Jose Yurrita. Donostiatik hiru dama edo andere, D<sup>a</sup> Dolores Goenaga de Bermingham, D<sup>a</sup> X de Labaca y D<sup>a</sup> Rosa X "recomendadas de D. Roque y Rafael Heriz y Luis Hurtado de Mendoza". Ez dira gutxi hartara joaten diren apaizak, hegoaldetik batez ere. Hala urrian hiru batera doaz, hirurak Erretererikoak edo han daudenak bederen: Zalakain, Luis Anabitarte eta Echeverria jaunak.

Arana poetaren aiurri poetikoa agertzen zaigu pasarte honetan lehen beste batean bezala. Otsailaren 23a da eta "sol hermoso", dio; "siguen días primaverales, salen flores, brotan los frutales, cantan y gorjean las aves y pájaros. Línea de salida del sol hoy, extrema izquierda de la puerta del Château con el hierro de la pared, que sirve para cerrar la puerta". Hau ere haren aiurria, nahiz bestelakoa. Maiatzeko domeka batean Lauredera doa meza eman eta mintzalditxo egitera. Arratsaldean Bezperetara ere bai. Etxeratu arratsean eta Lauredeko bide nagusiaren ondoko etxe guztien izenen zerrenda ematen digu, alajaina, "desde la transversal hasta Poyanne, a saber: Demets, Colt (o Ducas), Manior, Laport, etc, etc, hasta 9; en la otra línea Debiñé, Lestage, Laforge, hasta 7".

Baina dena ez da artxiboa eta ikasketa eta gogojardunak Poyanneko jesuiten artean; badakite jaiak hartzen eta lagunarteko bilerak egiten ere; desterruan bizi direnen aringarri hoberik ez da. "Julio 8. Día de campo los teólogos. Pesca en el lago con los PP. Herran y Mendibe; merienda con ellos y los PP. Urraburu, Gallo, Embil y Guezuraga. Vuelven mojados muchos del campo". Hil beraren 18an: "Día de campo los HH. novicios y retóricos. Merienda de peces en el bosque con los PP. Bombardó, Uriarte, Mendive, Herran, Gallo, Embil y Hno. Jerónimo Larrañaga". Eta biharamunean: "Baño en el lago con el H. Erneta". Ikasturtea koroatzeko, letra-saio bat San Inazioaren egunean, "Juliano apostata" gai zutela eta etxeko ez ezik, herrixka zenbaiteko apaizak ere han zirela; 5etan hasi eta 7ak laurden gutxi arte.

Abuztuan sarturik oporrak gainean dira eta eskolan Dotrina irakasteari azkena emateko garaia da. Gehiago atzeratu nahi ez duten lana da beste hau ere: Poyannen daramatzaten zortzi urte haietan hil diren hegoaldeko jesuiten gorpuzkiak lurpetik atera eta bildu: "quedan colocados en el Campo Santo en dos grandes cajas con divisiones de 8 y 6 los 14 cadáveres exhumados S.J.", eta horrez gain 1709tik 1766ra han hildako guztien argibideak ezarriak dauzka txarteletan. Papertxo bat argitaratzeko ere presa du gure Aita Aranak; hilaren bostean "empieza la impresión del papelito "Jesusen Biotzaren canta", eta 8an "impresión de la hojita "O Biotz Santu". Ama Birjinaren festan, 15ean, ia urterro bezala, azken botoak, zenbait profesioa, hala nola Aita Atxukarrok, Alberdik, Muruzabalek, Villadak.

Horrenbestez jendea prest dago, eta irrikaz, oportetako bidea hartzeko. Aranak ez du luzatzen: "en tren de 2,30 a Guetary" eta "llegada a Guetary a las 3,30. Primer baño". Eskutitz bat d'Abbadie jaunari idatzi, bederatzi bainu hartu danera, Hendaia eta Hondarribira txango bat lau lagunekin egin: "embarque de Bidasoa con la familia de Rameri a las 7,30. Subida a N<sup>a</sup> S<sup>a</sup> de Guadalupe... Vuelta por Fuenterrabía, parroquia. Comida en casa de Rameri a

139/ Boyanes. 1.º 3.º cony. (1879) (1879) Franjin 1879. Gauraguita = 2.º cony. de 1878. 71.

14. M. de... (1879) ...  
 15. ... (1879) ...  
 16. ... (1879) ...  
 17. ... (1879) ...  
 18. ... (1879) ...  
 19. ... (1879) ...  
 20. ... (1879) ...  
 21. ... (1879) ...  
 22. ... (1879) ...  
 23. ... (1879) ...  
 24. ... (1879) ...  
 25. ... (1879) ...  
 26. ... (1879) ...  
 27. ... (1879) ...  
 28. ... (1879) ...  
 29. ... (1879) ...  
 30. ... (1879) ...



Hona hemen elkarren segidako bi orrialde, 1878ko ekainaren azkeneko eta uztailaren hasierako

las 5, D. Melitón Rameri y familia". Bederatzi familiako eta lau jesuita: "vuelta en tren para las 8,30", eta, gezurra badirudi ere, dagoeneko oporrak amaitu dira, 17tik 30era besterik ez; bederatzi bainu baizik hartzeko denborarik ez. "Vuelta a Poyanne con 10 fr. del P. Beola y 26 fr. y 16 misas de estipendios, habiendo ido con 20 fr.". Haruzkoan baino diru gehiago honuzkoan. "Llegada a Poyanne a las 9,30 de la noche".

Biharamunean bisita asko; haien artean "Madame Daurys Elene y su hija Esther" eta ondoko lau hilabeteetan, hots, Eguberriak bitartean, beste lau ikustaldi egingo diote Daurystarrek. Beste ezertarako astirik gabe gogojardunak hasten dituzte irailaren batean eta zortzian, Ama Birjinaren Sortze egunean, amaitzen, egun batzuk lehenago apaiz egin direnek lehen meza ematen dutenean.

## 15. ALBISTE ONAK (1878-9)

Liburuen eta bestelako idatzien zirti-zarta handia entzuten da ondoko hilabeteetan. Iruñeko EUSKARA aldizkariaren 6. zenbakia hartzen du Aranak. Euskal liburutxo bat *Egikera onerazkoak* deritzana ere bai postaz. Halaber *Historia de Orduña*, Aita Garcia Frutosek egina. Berebat Madriletik "los tres tomos manuscritos del P. Luengo y Catálogo de Paraguay y Annuas". Bestalde Bordelera eta Parisa doan L. Castillo delako jaun bati uzten dio Aranak "para ver, la *Teoría de la poesía*". Prudencia Olazabal Rameri andereari karta bat egiten dio zortziko "akrostiko" bat igorritz, hark berehala erantzuten eta orduan Aranak hari beste karta bat idazten, "los 20 zorzicos de Guadalupe" igorritz. Etxeko aita Nagusiari gainera "Breve noticia de los 20 difuntos" izeneko cuaderno eskuratzen dio eta Aita Uriartek idazten galde-tuz "sobre sortitza y el Génesis".

Hori dela eta, diodan neure aldetik, ikusia naizela Loiolako artxiboan orain baino gehiago ibiltzen nintzen garaian, Aita Uriarteren idazlan luze bat euskal aditzaren batasunaz, Aita Aranari behin egin zion eskutitz batean honela laburtzen ziona: "me he persuadido de que a lo menos el auxiliar es uno sólo, y que el *euki* de las gramáticas ordinarias o *eroan* de van Eys es un engaño de los que no han querido advertir en que nuestra conjugación es muy diversa de la que han adoptado las lenguas neo-latinas; tan de *izan* son las formas *det, dezu, du, etc.* como *naiz, zera, da, etc.*".

Euskalari adiskideei erantzuten ez da hain laster izan eta batean d'Abbadieren hiruri erantzun behar izan zien: "carta respuesta a tres de d'Abbadie".

Duvoisinek bat bakarrik idazten dio "sobre Luis Bonaparte" eta Bonapartek ere beste bat.

Etxeko kontuei dagokienez, diogun Aita Urrabururi agindu diotela Erromako Gregoriana Unibertsitatera filosofia irakastera joan dadin "de parte del Papa y el P. General" eta hari bere beteko agurra egiteko "los PP. del Château comemos en el teologado por despedida del P. Urraburu; versos a él". (Hor agiri da Aranak filosofoen, ez teologoen irakasle zelako, Château-ko jantokian jaten zuela komunzki, ez teologoenean). Egun gutxiren buruan Aita Santuak hartu zuen Zeanuriko semea Aita Mazalarekin eta Aita Kleutgen-ekin batean. Beste kontua: Anai Abaitua, mahai-zainak, ardo errekaitu ona egina dauka, dirudienez, uzta onari eskerrak: "cuenta sus 40 barricas de vino este año", mezakoak barne zirela, agian. Bestea: esan dugu Arana eta Mendive oso lagunak zirela. Behin elkarren pisu zehatza jakin nahi izan zuten eta pisatu ziren: "peso del P. Mendibe hoy dia, según el peso de la "boucherie", 91 kilos; idem del P. Arana 78". Gora zenbat ziren esan gabe hori ezer ez esatea bezala da. Urriaren azken aldera hasi zuen Dotrina eskolan bi nobiziorekin.

Poyannen gero eta jende gutxiago dago eta daudenak ez daude lasai. Nobizioek San Estanislao bere patroia eguna ospatu azaroaren 13an eta, ilundu baino lehen, ateratzen dira Murziarantz lehen hirurak, Guendica, Pages eta Beristain, eta ondoko egunetan jarraitzen zaizkie beste bost hirukote-edo. Loiola dela eta ez dela, albisteak gero eta hobeak dira: "noticia del P. Idirin sobre darnos Loyola", baina Agintariei esan zaie ez dela komeni nobizio tropel handiegia hara batera joatea eta batzuk horregatik Murtziara igorri dituzte.

Arana ez titan dago. Albiste horiek gatik eta beste honegatik: apaiz egin eta Larbeyra Hirugarren Probantza egitera joan behar izan zuenean, Poyannen eten zen Euskal Akademia berriz osatu eta berriztatu ahal izan du. Akademikoak berriak dira, noski; oraingo teologoak. Ikus: "Azaroa, 1, viernes. ACADEMIA VASCOFILA en el cuarto o archivo de 5 a 5,30 con los PP. Zameza, Guezuraga, HH. Vinuesa José, Echebarria, Gangoiti, Aramburu, Olasagarre. No vino el H. Apraiz por ignorar la hora". Hil beraren 13an berriz biltzen dira: "Academia EUSKARA a las 4,30 con los PP. Zameza, Guezuraga, Sr. Valderrama, HH. Olasagarre, Apraiz, Gangoiti, Vinuesa (faltan Aramburu y Echebarria)". Abenduaren 8an hirugarren aldiz: "Academia EUSKARA a las 4 con los PP. Zameza, Guezuraga y HH. Echeverria, Apraiz, Gangoiti, Olasagarre, Vinuesa y Aramburu".

Hori bakarrik ez. Euskal dantzak ikasi dituzte, guztiek edota seguruago ume- edo gaztetandik zekizkiten batek edo bestek. Gogoan dugu, noski, nola

egin zuen dantzan Urduñan orduko "Padre" zen Pedro Garagarzak. Hala orain Eguberri ondoko egunean "26, jueves: merienda-cena a las 6,30. Tertulia con baile de palos o parte de "jorraidantza". Bi egun geroago berriz: "tertulia como el jueves". Urte zaharrari azkena emateko ez zegoen gaizki!

## 16. GUADALUPEN ERROMES (1879)

Euskal Akademia biltzen jarraitzen da, noski, Eguberriak igaro eta gero ere, hamabostean behin, gutxi gorabehera. Otsailaren 2an eta 16an (hau "en la Biblioteca grande") dute bilera bana, baina martxoaren 9koa adierazteko Aranak darabiltzan hitzei jaramon egin behar badiegu, zerbait handiagoa eta ederragoa izan zela esan behar, zer zehazki esaten ez digun arren: "9, dom. Conferencia Académica con los teólogos vascos; cartas, composiciones". Intentzio ona izanez gero, aztiatzen da gutxi gora-behera zer izan zen: letra-saio bat, gazteleraz egiten ziren askoren antzekoa.

Ezbeharrak ere etorri zaizkie; goi-beheak arras asaldaturik dituzte euri-tez eta zaparradaz Urteberria hasi orduko, eta ez dira berehalakoan baretuko. Hilaren bederatzian honela deskribatzen du Aranak egoera: "Lluvia y vientos. 3º dia de tempestad. Sale de madre el Adour y llega hasta el pueblo de Onarde". Otsailaren 19an oraindik badiraute zirimol-haizeek eta euri jasek: "Lluvia tempestuosa. Sigue la gran inundación del Adour. Quedan anoche sin poder venir el H. Mendiguchia y Francisco por la inundación de Buglosse". Eta 22an azkenean: "Disminuye el Adour", hilabete eta erdi hasi zenetik, alajaina, eta horri eskerrak hasten da Doctrina eskolan. Egun batzuk geroago la "1ª nevada de este año; de 11,30 a 2,00 tres pulgadas de nieve".

Esan dugu Loiolako egoera hobera jotzen hasia zela eta, jendeak han bizpahiru jesuita berriz lanean ikusi orduko, haranzko jaidura azaldu zuela. Herri agintariak eta konkretuki Quesada jeneralak jendearen Loiolarako emana ikusirik eta herriarekin ahalaz ongi egon nahirik, eskua denborarekin beste pixka bat zabaldu zuen eta 1879an lau apaiz jesuitari utzi Loiolan bizitzen biren ordeaz, eta geroxeago, Gasteizko apezpikuaren erreguei eskerrak, hamabi apaizi eta sei Anai laguntzaileri. Poyannen festa: "café por la noticia de anoche sobre 12 PP. y 6 HH. para Loyola", eta 27an: "Café por el decreto sobre Loyola". Inondik ez ordea nobizioei uzten.

Desterruan Loiolatik urrun egonagatik, Euskal-Herri hegoaldekoaren egoeraz ongi ikasiak zeuden, hango jendeak egiten zizkien eskutitzei eta handik gogojardunak egitera iparraldera joaten zirenei esker. Esan liteke beti zela



Poyannen horretara joandako norbait. Urtearen haste-hastean bi gazte, Tolosako Laskibar bat eta Sorabillako Larrieta Juan, izan ziren han zortzi eguneko gogojardunak egiten. Zumaiako apaiz Beobidetar Manuel ere, "euskarazko gogojardunak" eginda han du Aranak bisitan; jesuita izateko eskean joan da eta baiezkoa eman diote. Etxera bezain laster eskutitza egiten dio Aranari eta hiru liburutxo eta euskarazko paper batzuk igortzen: "desgracias de marinos". Tomas Eleizalde Bergarakoak ere eskutitza idazten dio eta *Christauaren Gordairua*-ren ale bat eta "Egarri naiz" bidaltzen; laster erantzun zion Aranak.

Bere euskal lanak eta olerkiak direla eta, beste lagun berri bat ere egin du oraindik-orain: Jose Manterola. Salamankan, duela hogei urte edo, ezagutu zuen eta orain karta bat eta euskal olerki bi igortzen dizkio helbide honetara: Avenida de la Libertad 26, 2º, S.S., eta Poyannen izan den Solis Juan jaunaren bidez liburu batzuk ere bai. Iruñeko beste lagun berri baten eskutitza ere hartzen du, Anselmo Rodriguez Undiano, Nafarroako Euskal Elkartearen idazkari nagusiarena. Erantzuteko betarik eman gabe lau egunen buruan "Euskara" aldizkariaren hamaika zenbaki ere igortzen dizkio.

Aita Aranaren lagun zahar Jose Joakin Ollo, Hondarribiko erretorea, eta honen lagun Rameri jaunak, Prudencio eta Liborio, Erramu igande ingururako erdi txango erdi erromesaldi bat paratzen ari zaizkio Aranari. Hau prest dago eta beste jesuita bat eramango du berarekin, Aita Saenz. Bitartean bihotzak berotzen joateko "Guadalupeko Ama Birjinari euskarazko otoitza" igortzen die. Ez pentsa, halere, Aranaren osasuna batere hobetu dela; oraintxe ere hiru hilabeteen hiru egunetan utzi du gaitzak meza gabe eta uda bitartean beste lau. Batez beste hilean meza bat galtzen du goiti-beheiti.

Baina gogo suharrez ekiten dio egitasmoari Erramu igande bezperan. Poyannetik 5,30etan abiatu eta Akizen barrena Baionara 12,30etan; hemendik 5,30etako trenean Hendaiara 7,15etan. Han zeuzkaten zain Rameri familiako zortzi lagun. Erramu igande goizean meza Hendaiako parrokiari entzun eta 10,30etan Bidasoan barrena txalupa batean Hondarribira Rameri bi anaiak, Elena Olaskoaga eta bi jesuitak. Han erretore jaun Jose Joakin Olloren etxera bazkaltzera eta kafea hartzera esanak eta beste hiru apaiz: Angel Berrotaran, Zabala eta Artola. Arratsaldean denak batera Guadalupeko Santutegira: "en el monte Aizquibel de Oleasso" bezperak eta elizkantak, Gurutzeari "Gurutzepie" deritzana eta Ama Birjinari "Mantupie". Dena euskaraz. Bi mila pertsona hortxe-hortxe.

Ez da zer konta dena. Astearte arratsaldean Aita Saenzekin Kaputxinoen komentura doa ezagunak albistatzera; handik Hondarribira, non zazpietan

egiten baitu, eliza jendez beterik, euskarazko sermoia, 27 minutukoa. Ostegun-ostiraletan ohiko prozesio eta elizkizunetara doaz batera eta "vascó-filo" eta maisu omen den Otaegui jauna ezagutzen du. Larunbatean itzuliari ekiten diote txalupan Hendaiara joanik, handik segitzeko trenez Donibanera eta Ziburura Rameri jaunekin. Hauei ondoko hilabeteetan, eta gero ere bai, sarri egingo dizkie eskutitzak, eta haiek hari are sarriago. Bi herri horietan bisita piloa egiten du: Mascarna familia ugaria, Olaskoaga jauna, Elenaren aita, Lardizabal Inazio, Josefina emaztea, Pinarko Kondesa, Berako apaiza, Tirso Olazabal eta abar. Trenean Hendaiara eta gaua Rameriren etxean.

Kristoren Berpizte igandean Aranek Hendaiako parrokiaren eman zuen meza eta gero euskaraz egin 37 minutuko sermoia, meza nagusia Aita Saenzek eman bitartean. Rameritarrekin bazkaldu zuten eta jaun erretor Mr. Durronty, maiatzaren 24an jaiotakoarekin –Aita Saenz eta Arana 25ean– Baionan lo egin, astelehen-astearteetan Intxauspe, Aldalur, Duvoisin eta abar bisitatu, eta arratsaldeko 6etan Poyannera berriz, astebete luzea kanpoan emanda gero.

Lagun zaharrak betiko moduan. D'Abbadieri eskutitza eta euskal liburuxka batzuk bidaltzen dizkio eta hark erantzun 40 libera igorritik. Beste batean, Tirso Olazabal errekaritari balitz bezala, hiru liburu helarazten haren bidez: *Apuntes sobre huracanes*, Aita Viñasena; *Euskerazco berri onac* eta *Baserritar jakintsuaren echecho escola*", Moguel-Arrue. Bonaparte jaunari ere karta eta liburuxkak eta honek Aranari bere argazkia eta Aita Santuarena. Baina supituki ezbeharrak gertatzen da Bonaparteren etxean: iloba kutun Luis Napoleon eraman dio herioak ixtripu ergel batean Afrikan, eta Aranaren eskutitza negar-eresi bilakatzen da, Luis Lucianori nahigabea eta doluminak, eta emazteari bi iruditxo igorritik. Duvoisinekin zorretan da Arana eta honek eskutitz bat egiten dio Gabonak ondoren. Hamar egunen buruan Duvoisinen "carta edificante" delako bat hartzen du eta orduan Aranek hari urtarrilaren azken egunean 8 orrialdeko karta luzea idazten.

Udan gogojardunak egin nahi dituzten apaizak eta erabat edotariko ostalariak ugaltzen dira. Hauetan egungo euskal irakurleentzat ezagunena Pedro Miguel Urruzuno dateke, zein maiatzaren azken egunean (1879) agertu baitzen Poyannen ate joka, jesuita izan nahi zuela eta. Apaiza zen orduko eta hogeita bost urte zituen. Hamabost egun bakarrik iraun zuen han: "Fuese hace dias, el 15, el cura de Elgoibar Sr. Urruzuno por defecto fisico de la garganta". Lau gazte batera igorri zituen Aita Legarrak Loiolatik nobizio izaten hasteko: Urrutia, Bereciartua, Irureta eta Zubizarreta. Beste egun batean Arabako zortzi apaiz doaz batera zortzi eguneko gogojardunak egitera. Zortzien izenak ematen dizkigu: "Pedro Ramirez, Francisco Salazar cura de Labastida, Bernabé Salazar cura de Salinas de Añana, Antonio Moraza id. de Comunion, Jose

Lopez de Torre id. de Rivabellosa, Domingo Cerrillo id. de Quintanilla, Francisco Riyo id. de Peñacerrada y Miguel de Anda id. de La Puebla de la Barca". Tirso Olazabalek ere beste hainbeste egunekoak egiten ditu egun bere-tan. "Llegan otros tres navarros ejercitantes". "Vanse a las 8 de la mañana los ejercitantes D. Melitón Robredo y D. X. Ugarte, presbítero de Güeñes, Vizcaya". "Acaba los SS. Ejercicios el Sr. Obispo, Illmo. Ciriaco Sancha".

Olerki eta liburu zarata ere entzuten da egun batzuetan. Aita Sagari Erromara doala eta, *San Inazioaren bizitza bi hizkuntzakoa* bidaltzen du Batikanora. Elkano gai duen "Oda euskara" bat igortzen dio Tito Plazaolari gero Manterolari eskurarazteko. Halaber Eusebio Lopezi Tolosara "Ana Vicentak S. Luisi kantaera ta bersuak", "San Inazioaren bizitza" eta "Barrionak". Bitartean Guadalupekoan Franzisko Artolak agindu zion zor-tzikoa hartzen du: "Viene el zorzico de Letamendia y Artola sobre "Los náu-fragos cántabros". Arantzazutik Fr. José Epelde, aspalditik laguna duen eta urte askotan izango duenaren kartatxoa eta liburu bat ere bai. Erromatik Lizargarateren *Ensayo biográfico* liburuaren bi ale. Durangotik San Inazioaren Bizitzaren sei ale. Madrildik "520 papeletas para el archivo". Arrueren *Baserritar* liburua eta Manterolaren *Cancionero Vasco*-ren bi tomo. Arestian esan dugu Madrillgo apezpiku laguntzaile Ciriaco Sancha Poyannen izan zela gogojardunak egiten eta, ohi bezala, literatur-musika saio bat eskaini zioten gazteek.

## 17. ERBESTALDIAREN AMAIERA (1879)

San Inazio eguna ospatu gabe ez doaz Getarira oporretara. Bi nobizioak bi lehen urteen ondoko zinitzak egiten dituzte gainera egun horretan eta hain-bestez jai handiagoa dute. Meza nagusia, noski, parrokiaren gainera, bazkaria etxean zenbait gomitatekin: bi herrixketako parrokoak, medikua eta Coudroy agure zaharra. Arratsaldean bi orduko jaialdia, olerki, kantu eta abar.

Abuztuan hasten dira barreiatzen Poyanneko egoiliarak txandaka. Apaizak Getarira; teologoak Mont-Privatera, baina egun batzuen buruan junior eta nobizioei tokia uzteko. Hiruan hartzen du Aranak lehen bainua eta danera hamabi. Hara orduko mezutzen dio d'Abbadie jaunari han dagoela eta honek karta eta telegrama igortzen, Châteaura bisitan joateko eskatuz. Baita joan ere multzoa, Donibanera eta Hendaiara txangoa eginez, trenaren Urruñako pausalekutik Aurkiakoborda eta Aitzaben barrena oinez ibilirik. D'Abbadie senar-emazteek etxean oso ongi hartu zituzten. Beste egun batean

Baionan eta Biarritzen zehar joan ziren, etxetik eramandako otamena hartzulo batean jan eta Baionako kaputxinoei oles eginez.

Konfesioak entzuteko ere ateratzen du denbora nondik edo handik; esan genuen apaiz egin lehen momentutik nabarmendu zela lantegi horretan: "Conf. Madame de Spens y niñas Elisabet y Paule y Institutriz alemana Rose". Biharamunean "confesiones cerca de 2 horas de unas 21 personas en 4 lenguas".

Ez du askoz gauza gehiago egiteko astirik. Manterolari eskutitza idazten dio eta zenbait neurtitz helarazten; Bonaparteren karta hartzen du, baita Soraluzerena ere "a quien se devuelven algunos papeles sobre guipuzcoanos eminentes", eta bi egun geroago "carta a Soraluze devolviendo sus papeles: composiciones de los Papas a D. Jose M. Manterola". Eta kito, horrenbestez Getariko oporrenak egin du: "baño 12 y último en Guetary este año". Geroaren berri baleki, ez zukeen azkeneko "este año" hori bakarrik ipiniko!

San Bartolome egunean, Poyanneko herri-festak ohi direnean zezen eta guzti, 16 gazteren apaizgintza izan zen, Madrilgo Apezpiku laguntzaile Sancha jaunak sagaraturik, eta haien artean, euskal Akademiako eskolei esker, ezagunak ditugun hiruronak: Apraiz, Olasagarre eta Arambururenak. Arratsaldeko jaialdian bertsoak eta jorraidantza. Aranak bertso txiki hau egin zien:

"Amasei Goi-aingeru  
Zerutic lurrera  
Goicean jechi dira  
Mezac entzutera:  
Apaiz berrien Mezac  
Enzunic batera,  
Pozic cerura dira  
Berri ematera".

Astebete geroago apaiz berrien agiriko mezak parrokian, teologoen kaperan eta Châteaukoan banaturik; eta Apraiz gaztearen aitabitxi Arana izan zen. Luzaz iraungo du lotura honek. Gau berean hasi zituzten urteroko zortzi egunetako gogojardunak, baina hileko albisteak ohar honekin burutzen ditu Aranak: "Este mes de Agosto ha hecho grandes calores y hay sequía general desde mediados de Julio".

Zortzi egun isilik pentsa eta pentsa. Berriz ere aurreko urteetako kanta-gaia oroitzen zaio Aranari, baina inoiz baino zehaztuago, eta euskaraz gainerra, ematen digu gaia: "Atzo ta gaur Kristoren erresuma espiritukoaren ganeko Eresikinda goienerako (juandako urtean bezela) (poema épico Reino de

Cristo) ikasbide ta pensakizun txit egokiak: 1. Erresuma hau zer da. 2. Gudua (edo bi banderak) mundu honetan Kristoren da bereen artean, ta Antikristo ta haienen artean. 3. Garaimen betiko zerua". Azken egunaren gauan honela dio "variación atmosférica y perturbación gástrica en unas 30 personas de casa. De noche grandes aguaceros y truenos".

Hain zuzen, Aranak oraindik Poyannen iraungo duen denboran d'Abbadiek egingo dizkion hiru eskutizetatik azkenean "discurso sobre "Aurages (sic) et latitudes" hartzen du. Epe berean Aranak eta Bonapartek elkarki eskutiz bana aste baten barruan. Duvoisinek batere ez, ez eta Aranak ere hari. Beste batzuek eta batzuen obrek betetzen dute ausarki horren hutsunea. Behin mandatu batzuk hartzen ditu Baionatik: "el Zorzico de los náufra-gos", los libritos *Kristaua Eleizan*, *Basarritar jakintsuaren*, *versos de Antía*. Bestean Aita Fitaren hitzaldien lehen edizioaren ale bat; Arantzazutik Frai Epeldek Asisko Franzisko santuaren euskarazko bi bederatziurren bidaltzen dizkio; izeba Paulak Azpeititik San Inazioaren Bizitzaren sei ale eta bi liburuxka *Irmekerak*; Manterola jaunak "eskutiz edo eskuskribu luzea ta orribile" (?) "Euskal izkribatzaleena eta bere "Cancionero"-ren iragarki orria; gaztetan Iruñean ezagutu zuen Juan Bautista de Pagadizabal Errezilgo erretoreak eskutitza "sobre su librito vasco"; Bordeleko irakasle omen den andereño L. Falkowska delako batek bisita lehenik; egun gutxiren buruan, hura Bordelera itzultzean, gutuna agurtuz, eta Bordeleratuz gero "carta del Sr. Dic. de L. Falkowska", eta azkenik Jose Mari de Echaniz Arrankudiagako apaizak karta, Mogelen, Astarloaren eta Uriarteren argibideak eskainiz.

Artxihoan eta liburutegian badira zenbait berrikuntza, hilabete pare bat geroagoko gertariarekin zerikusia izan dezaketenak, nahiz Aranak ez dituen inoiz elkarrekin lotzen. Halako batean ezarian bezala esaten digu "el P. Villada vuelve de Bayona al Archivo" eta geroxeago "cuestión de Biblioteca con el P. Villada" hango zenbait gorabeheraren jakinaren gainean jartzeko. Garcia Villada delako hori liburuzain eta liburuzale famatua da eta *Metodología y crítica históricas* izeneko liburu bat argitaratu zuen. Hurrengo egunetan oraindik artxihoari eta liburutegiari dagozkion gauzak irakurtzen ditugu: "estantes nuevos en el cuarto próximo a la biblioteca"; "traslado de varios libros al Château", "trabajan un poco para la biblioteca por la noche", "arreglo de bibliotecas" eta ondoren beste bitan hitz horiexek. Esan behar beste esku bat hasi dela hor lanean eta Aranak buru izatea utzi duela.

Apaizak sailean doaz gogojardunetara. Donostiatik hiru batean: Valderrama, Sarobe eta Buenechea. Hauek bukatu eta aldegiten duten egun berean beste bi apaizek hasten dituzte. Handik hamabost egunetara "vanse el pintor de Orio Azkue y otros dos ejercitantes". Bertan gelditzeko eta jesuita

izateko doazenak ere ez dira falta, gehienak Anai laguntzaile izan nahi dutenak. Hala azaroaren 28an hiru heldu ziren batera: Esteban Goenaga, urrestildarra, Jose Joakin Usabiaga, beasaindarra, eta Jose Franzisko Garmendia, gainzatarra.

Urriaren berriz hasi zen Arana herriko eskolan dotrina ematen, eta txintxo eman ere; Gabonak bitartean hiru. Aita Probintzialari eskutitz bat egin ziola diosku urriaren erdi aldean; zer esaten edo eskatzen zion ez, baina hilabete barruko gertariak adieraziko digu. Negua saminki sartu zaie. Azaroaren erdian 5 gradu zeropeko izotza dute eta abenduaren 9an eta 14an 9 gradukoa, halako moduan non inguruko aintzirak izozten baitira eta 9 zentimetro loditzen.

Abenduaren 8a, bestela ere Ama Birjinaren festa izateagatik Lagundian egun handia izaten bada, ordukoa are handiagoa izan zen. Bi nobiziok egin zituzten nobiziadu ondoko zinitzak eta bietako bat azpeitiarra zen, kontaera honetan behin baino gehiagotan atera zaigun Ibero jaunaren seme Felix, beste hiruzpalau jesuitaren anaia. Han zen aita bere seme Jose Marirekin –aurrera-go bera ere jesuita izango zen– eta Azpeitiko apaiz D. Cosme Olascoagarekin. Guztiek batera bazkaldu zuten jantoki handian: "1ª clase con café".

Hona orain bat-batean eta inolako zalapartarik gabe Aranak kontatzen diguna eta aurreko zenbait mirarizko gauzatxoren argigarri datekeena: "18, jueves. Gran helada, niebla, granizo, nieve. (Dia de) campo los retóricos y humanistas. Llegan unos postulantes. Carta del R. P. Provincial al P. Superior con mi destino a Orduña". Horra hitz gutxitan esana. Hain sotilki amaitzen da zazpi urteko bizialdia iparraldean! Han gelditzen dira hainbat lagun eta ezagun, hainbat literatur-saio eta olerki. Gero "preparativos para Orduña", "carta a Prudencio Rameri y Sr. vicario Ollo", "Confesiones Elene, Esther"; Poyannen, S. Georgen eta Cassen-en egin agurrak, eta ia bestetarako astirik ez du: 18an jakin eta 22an "salida de Poyanne para Bayona", 23an "salida de Bayona para Orduña" eta egun horretan berean "a Orduña a las 6,30 de la noche".

Egia da arras ongi ezagutzen duen lekura datorrela; ikastetxe hori 1870ean berriz ireki zenean, lehen sortzaileetako bat bera izan zen, Zarauztik aita Txomin Landarekin joanda, eta Poyannera etortzeko mezua ere han bertantxe hartu zuen. Horregatik, zazpi urte igaro diren arren, bihamunean ikastetxeari ikustaldi bat ematean, "niños, amigos y conocidos antiguos, padres de los colegiales" topatzen ditu. Horien artean aipatzen dituenak D. Santiago de Arana, Eguidazu apaiz jauna, D. Cándido Soraluze, ondorengo orrietan askotan aurkituko ditugunak, eta etxeko artean oraintsu arte

Poyannen laguna izan duen Aita Atxukarro, zeinekin egiten baitu lehen ikus-taldia Urduñako Santutegira; Uriarte, Txurruka, Izaga, eta abar.

Eguberri egunean Zorionak, besarkadak eta ongi etorriak, baita beste ezerk baino poz handiagoa eman dion Donostiako Diputazioaren sari jasotzea ere: "Trae el Sr. Gros el premio "tintontzia" y un diploma por la composición a Elcano". Ondoren jantokian etxeko jesuita guztien eta zenbait gomitaturen aurrean, hala nola, Gros jauna eta emaztea, Muñoa eta Ameztoy jaunak, irakurrarazten diote Elkanori egin olerkia eta eskura ematen *Euskal izkribatza - Ileen indarneurtzen* liburuxkaren 20 ale.

Hasi da dagoeneko, etorri eta hurrengo egunean, eskutitzak idazten, bai eta bera iparraldeko eskutitzak hartzen, eta lehena Bordeletik L. Falkowska andereño-irakaslearena eta bigarrena Poyanneko nagusi Aita Gonzalezena. Hasi da halaber gauzez ondoezak izaten eta goizeko meza eman gabe uzten: "31, miérc. Sin misa por indisposición de la noche". Eta hitz hauetaz amaitzen du 1879garren urtearen berri ematea: "Llegan los Condes del Valle, M. de Murua, su señora y otras. Carta a Madame Daurys; id. a Mad. Sophie de la Fourcade, Sr. D. José Manterola".

## IV. ATALA

### MUTIKOEN IRAKASLE

#### (1880-1883)

#### 1. LAGUN ZAHAR ARTEAN (1880)

Zazpi urte dira Aranak Urduña utzi zuela. Iparraldeko zazpi urteak zinez aberasgarri izan ditu. Han egin da apaiz, han ezagutu ditu Bonaparte, Duvoisin, Intxausti, han sortu du bi bider etxeko lagunekin Euskal Akademia, han elkartu da berriro, Salamankan Filosofia hiru urte elkarrekin ikasi eta gero, "Maisu txiki" izatera barreiatu zirenez geroztik, gehiago ikusi ez zituen bere lagun bihotzeko, Mintegiaga, Txurruka, Mendive, Atxukarrokekin; han ugaltu ditu bere ezagupideak liburutegi eta artxibo gaietan, eta orain bere Euskal Herrira eta, nolazpait esateko, bere, berak ere sorturiko, Urduñako ikastetxera dator, berriro mutiko gazteen irakasle izatera.

Frantzian egin duen eta batez ere ezagutu duen bizimoduarekin alderatuz, igerriko dio mira bizimodu berriari. Hemen ez du han bezalako eritetxerik, ez han adina soldadu zauriturik laguntzera, solastatzera, konfesatzera joateko.

Gabonetan ikasleetako asko, gurasoak urruti baitituzte, ez dira bere etxetara joaten, baizik Urduñan berean oporrak ematen gelditzen, eta Urteberri bigarrenez iada eskolak hasten dituzte, nahiz ordu gutxiago egunean. Hilaren biaman Aranak honela diosku: "Matemáticas con 7 de los 12 discípulos". Hainbestez badakigu urte horretan zer gai irakatsiko duen. Fisika ere bai, dirudenez, maiatzaren azken aurreko egunean esaten baitigu: "Academia de Física de 1 a 4,30 con mucha gente". Badakigu halaber honako lau gazte hauek, Oliver, Arroyo, Iturria eta Zabala, "maisú txiki" gisa ari direla han eskolak ematen eta mutikoak atsedean aldietan begiratzen eta zaintzen.



Ez du berandutu nahi paseoen hasiera eta hartako lagunak ez ditu falta. Jesuiten artean ibiltzaileenak Txurruka, Atxukarro, Uriarte, Izaga eta nagusi Txomin Landa bera ditu. Irakasle laikoen artean ere baditu batzuk oso ibiltariak eta oso lagun zintzoak, batzuek lehengo egonaldian ezagutu zituenak: D. Hilario, D. Emeterio, D. Ramón, D. Rufino, D. Pedro Cuadra eta gehiago ere bai. Azken hori, Artomañako dorretxe baten jabe dena, merezimendu handiak uztatua da ikastetxearen ordu txarretan; alkateari eta herriko zenbait liberali aurre egin zien eta jesuiten alde atera; horrek kartzelaldia ekarri zion. Hilaren 3an egiten du lehen paseoa, Aita Atxukarro eta Uriarte batetik, eta D. Emeterio eta D. Fernando irakasle laikoak bestetik lagun dituela.

Batean bata eta bestean bestea, inguruko herrixka, mendi eta mendate guztiak arakatzen dituzte, ikasle taldekak batekin ere bai inoiz. Urtarrilaren azkenetan, esate baterako, Iturrigorri izeneko arkaitzera igo ziren "por bosques y veredas, paso peligroso de la Peña; ánimo a pasar D. Victoriano Salmón y 6 colegiales que quedaban atrás. Vistas de Iturrigorri, el mar, Bizcaya, Alaba, Guipúzcoa (Aizgorri), Navarra, Rioja y Burgos; hermoso y claro día".

Baina astean bizpahiru arratsaldetako paseo laburretara ia beti Arana eta pare bat irakasle laiko ateratzen dira eta herrixkaren bateraino, Aloria, Artomaña, Lecamaña, Londoño, Unza, Aloña, Delica edo La Muera de Arbietoraino heltzen, eta haietako apaizen adiskide min egiten. D. Gervasio, D. Melquiades, D. Timoteo, D. Manuel eta abar etxeakoak bezala dira eta Aita Aranarekin konfesatzen dira komunzki. Oraindik ez du astirik izan, Poyannen bezala, kristau Urduñatarren arimak zuzentzen hasteko laikoen artean.

Ondorutzen zaion lehena D<sup>a</sup> Teresa de Lezameta, herriko alkate jaunaren emaztea da; egun batean konfesatu eta biharamunean senarrarekin dohakio bisita egitera. Honetaz aurreraxeago esango zaigu Larramendiren hiztegi baten jabe dela; baita Aloriako San Iñigoren liburua kopiatzeko eraman duela ere. On Benito apaizak aldiz Lardizabalen *Gramatika* bat omen du. Anai Huertas ere badakigu ari dela Poyanneko "Cartas Anuas" eta "Gaztela Probintziako Historia", Aranak latinez idatziak aldatzen. Horietaz diosku Manuek Revuelta historialariak: "no pueden disimular las convicciones carlistas de su autor" (id. 314). Baina Martxoaren 22an oraindik ez ditu osoro aldatu nonbait, Aita Probintzialaren laguntzaileak, Aita Muruzabalek, berriz eskatzen baitizkio. Diogun bidenabar Aita Muruzabal hau Probintzial gertatu zela oso laster.

Esan genuen Urduñara orduko hasi zela eskutitzak idazten, bai eta hartzen, eta iparraldeko lagunak ez zirela nagienak izan. Baronesa de Spens ere erne dabil eta 3an eta 12an karta bana helarazten dio. Daurys-tar Sophie,

Esther eta Helena ez hainbeste, martxoaren 13a arte ez baitute txintik ateratzen. D'Abbadieri 16an ematen dio bere bizileku berriaren berri eta hark 28an 1880ko "Annuaire" igortzen eta Aranak berriz ekainaren 3an idazten. Bonaparteren isiltasunari luzetsita dago Arana eta epailaren 28an egiten dio Printzeari karta eta igortzen liburuxka batzuk. Honek maiatzaren 9an erantzuten dio.

Ez eskutitza, baizik bisita egiten diote bere bi lagun min azkoitiarrek, bizitzera Urduñara aldatu dela jakin bezain laster. Bi anaia ziren, Jose Inazio eta Sebastian Aldalur, iparraldean ere behin baino gehiagotan bisitatu zutenak, han bizi izan baitziren gerratik ihesi. Beste bisita are pozgarriagoa du, bere etxekoena baita: anaia Antonio de Arana Baroja ezkondu da Juana de Achonekin eta, Madrildik itzulia eginda, Urduñara doaz anaia bisitatzen. Biharamunean anaia jesuitak ematen die meza Antigua, behinola Poyannetik etorrita Loiolako Etxe Santuan bezala, eta han dira senar-emazte berriak ez ezik, emaztearen ahizpa bi, Cecilia eta Maria, eta senarraren arreba-orde Justa; bai eta Pantaleon de Mendiola eta Juana de Arostegi, Aita Arostegiren arreba ere, Aita Aranaren oso hartua.

## 2. UDALEKU BERRIA (1880)

Jose Manterolarekin gutun trukea maizkoagoa da. Arestian irakurri dugu iazko azken eskutitza harentzat izan zela. Horrek eskutitzean Aranari bertsoak eskatzen dizkio ia beti, baina behin kartarekin batean Donostiako *Lore-Jokoen* egitaraua eta bere *Cancionero*-aren zati bat ere igortzen dizkio. Beste batean ez dakigu nork, Lopezek ala Manterolak, ("Cartas de Lopez y Manterola" esaten baitu): "librito vasco *Euskal unziaren zerurako laguna*" helarazten dio. Aranak bere aldetik, eskeari abegi ona eginez, ia beti eskutitzean bertsoak igortzen dizkio. Behin ordea, ekainaren 21ean, *Arte métrico eúskaro* Manterolari bidaltzen diola diosku.

Beste bizpahiru lagunek ere idazten diote edo bisitatzen dute. Bata da Arantzazuko Frai Epelde; eskutitza idatzi ez ezik, bertsoak eta *Arantzazuko Historia* ere bidaltzen dizkio. Halaber Jose Mari Orue, Durangoko familia karlista ezagun eta Aranaren kutun bateko seme apaizak. Mikaela Maiztegi kartarekin batean 24 euskal liburuxka igortzen dizkio. Poyannetik igorri ez, eskatu egiten dizkio Serafin delako batek bertsoak, eta ez edozein gaiaz, baizik Camoens poetaz. Literaturako irakasle izan behar, dudarik gabe, delako Serafin hori, eta agian Portugaldarra, zeren Aranak "versos eúskaros sobre

Camoens para Serafin" egin eta bidali ondoren, egun gutxiren barruan hartzen ditu "carta y versos portugueses de Serafin sobre Camoens".

Harreman sarritakoak izaten hasi da eta hemendik aurrera areagotuko ditu Tolosako liburuzale eta inprimizaile Eusebio Lopezekin. Lehena idazten Arana da, otsailaren 13an gutuna egiten baitio Astigarragaren 8 ale, Egurenen beste 8, Larramendiren 4 eta Lardizabalen 3 eskatuz. Hiru egunen buruan *Jesusen Biotz sagradua*-ren 6 liburuxka hartzen ditu harengandik. Beste bi egun geroago Tolosa beretik *Diccionario Manual Bascongado y Castellano*-ren 8 ale heltzen zaizkio. Epailaren 15ean Egurenen *Manual*-aren 6 ale eta Lardizabalen *Gramatica*-ren 3 eta apirilaren 12an Larrokaren *Escu liburua*-ren 2 ale.

San Jose egunean, etxeko Nagusi Aita Txomin Landa lagun minak, guru-tze eder bat ematen dio erregali JOSE Inazio Aranari eta Aranak trukean hari euskal eskuizkribu bi: *Zenbait erregu* eta *Euskarazko neurtitzaldi*, hiru parte. Erramu igandean On Rufino kapilaua eri dago eta Arana doa eritetxean meza ematera haren ordez. Oinatiko, Errezilgo eta Urnietako mojekin egiten du han topo. Astotxoaren prozesioan jende piloia izan omen zen. Beste ustegabe-ko topaketa bat ere kontatzen digu. Egun horietako batean Arbieta eta La Muerara doa ibiliaz Aita Txurrukarekin eta hara non aurkitzen dituzten "Zaldibiako artzaia; beste artzai bi eskaldunak".

Aste Santuko oporretan ere ez dira ikasle gehienak etxera joaten, bai aldiz askok bere gurasoen bisita izaten. Han dira Amezttoy, Gros, Muñoa, Michel familiak, bai eta Ponce jauna, Barona emaztea, Prudencia Olazabal eta abar. Azken honekin Pazko hirugarrenez etxeratzean, Aranak eskutitzak idazten dizkie Irungo Olo eta Zabalo apaizei. Portugaleteko Cirion familia ere han da, Urduñako ikastetxeari lehen ordutik lotua; hain lotua, non Aranak meza ematen baitie Antiguán familia osoari, Antonio mutiko ikasleari eta On Manuel kapilauaren aitonari.

EGUNARIAn ageri den Sabino Aranaren familiaren lehen aipua aldi honetan agertzen da. Otsailaren 23an irakurtzen dugu: "Libritos y apuntes a D<sup>a</sup> Pascuala de Goiri de Arana (Campa de Albia, nº 20, Bilbao)". Apirilaren 25ean aldiz "Vienen las familias Ustará, Uriarte y Arana, y con ellos D. Benigno de Orbegozo (Calzada de Begoña, nº 1, Bilbao). A la estación con ellos; D<sup>a</sup> Pascuala Arana e hijo, padre de Santiago".

Ohitu gara iadanik edo ez gaitu bederen asko ikaratzen ia hilero ematen digun berri kezkarri honek: ondoezagatik mezarik eman gabe. Oraingo honetan gauza desberdin samarra da; batetik "indisposición, cólico" diosku; eta bestetik "Sangré algo por la boca" eta biharamunean: "Sin misa por sangre".

Bestelakoak dira, pozgarriak alegia, heltzen zaizkien Loiolari buruzko albisteak. Harritzekoa da albiste horiek Gipuzkoatik zuzenean ez, baizik Poyannetik inguru hartzen dituztela: "Noticias de Poyanne sobre Loyola", eta gero: "Carta del P. Superior de Poyanne al P. Landa sobre salir el sábado o lunes para Loyola algunos novicios". Ikusi dugu nolako kontrakarra ipini zuten urteetan zehar Madrileko agintariek Loiolako etxea berriz zabal zedin eta nobizioak han bizi zitezen, konkretuki. Baina zentzuz eta taxuz egiten utzi nahi izan ez zutena, azkenean ezinbestean eta bortxaz egin behar izan zuten. Hona zergatik.

Frantziako eguratsean haize berriak eraunsten hasiak ziren 1880an, klerikalen kontrako jendea Gobernuaz nagusitu zenetik. Hori dela eta, biziki ikaratu ziren jesuiten Buruak, alde batekoak eta bestekoak, pentsatuz ez ote zituzten Frantziako Agintariek jesuitak etxe guzietatik, eta konkretuki Poyannetik, trumilka eta supituki haizatuko, handik egun gutxitara gertatu zen bezala, eta ez ote ziren hango nobizioentzat eta erabat handik desterraturik etorriko ziren jesuita frantsesentzat lehorperik gabe suertatuko. Zuzenean Canovasengana jotzea erabaki zuten. Honek Probintzialari martxoan arazoa konpontzeko hitza eman zion, ez hutsaren trukean, halere. Erreguak eta otoiak etorri zitzaizkien jesuitei Enbasadatik eta Batikanotik, arren, zuhurki eta soseguz joka zezaten, eta ez samaldan itzuli Loiolara, garaite bat erdietsi balute bezala, ez eta igorri hara "a los enemigos notorios de la dinastía reinante".

Apirilean erabaki zuten Lagundiko agintariek nobizioak eta juniorrak Loiolara itzultzen hasi zitezen eta teologoak Oñara. Launakako eta bosnakako sail txikietan hasi ziren ekainaren 3an irteten Poyannetik eta azken nobizioak hilaren 17an atera ziren. Hizpide gutxiago ematearren, ez zituzten nobizio guztiak bidali Loiolara, baizik batzuek Murtziara; halaber filosofoak Carriona eta teologoak Salamankara. Aita Blas Olano izan zen aro berri hartako lehen nagusia Loiolan ekainaren 29tik hasita. 129 jesuita zituen bere mendean eta haietatik 63 nobizioak ziren, gainerakoak edo apaizak edo anai laguntzaileak. Hizketatuak egon balira bezala, berehalaxe hasi ziren jesuita frantses, bere herritik bortxaz jaurtikiak, hegoaldeko jesuiten etxeetan babesa bilatzen. Hala irakurtzen dugu ekainaren azken egunean: "Vuelta del H. Erneta para Miranda por los desterrados PP. franceses, que van a Carrión"..

Urduñan ekainaren azken egunetan ikasturtea bukatu, emaitzarik onenak atereei jaialdi batean sariak banatu eta hegaldatzen dira 150 edo 160 ikasle, nor bere etxera, batzuk bila etorri zaizkien gurasoekin batean. Liborio Rameri jauna bere hiru seme Luis, Javier eta Leopoldoren bila etorri da. Valleko Kondea ere han da. Hainbestez amaitu da 1879-1880. ikasturtea, zeinen bigarren eta hirugarren ekinaldiak bakarrik eman baititu Aita Aranak Urduñan.

Saria haatik lehen orduan ekinek adina irabazi du eta guztiak bi taldetan doaz egun gutxiren buruan Algortara oporretara.

### 3. LIBURU ZAHAR BILA (1880)

Aita Arana hilaren 8an ateratzen da Aita Txurrukarekin Algortarantz Bilbon barrena, non biek bisitatzen baitute Egidazu familia eta gero Algortara jarraitzen. Bidaia edo txangoren bat egiten dute ia egunero. Esate baterako, iritsi eta bigarren egunean Aita Txurrukarekin berarekin Areetara, Portugaletera eta Santurtzira doa. Beste batean Bilbao eta Begoñara, non eman baitzuten biek meza. Bestean Andueza jaunaren atoi-ontzian Bermeora, 15 jesuitek ontziaren jabea eta semea gobernatzaile zituztela.

Aita Cesareo Txurruka Mutrikuko familia ezaguneko eta nobleko semea zen, 1843an jaioa eta hamazortzi urte zituela Lagundian sartua, liburu hone-tan askotan agertuko den Evaristo Txurruka injineroaren anaia. La Habanako kolejio famatuan "mais txiki" hiru urte izan ondoren, Poyannen bateratu zen Aita Aranarekin 1873an, non, ikusi dugun bezala, Aranak "Euskal Akademia" sortu eta Aita Txurrukak hartako "Secretario nato" deitzen baitzuen bere burua. Hainbestez esana dago, zen etxekoa izanik, euskaraz bazekiela.

Oker aritzeko arriskurik gabe esan daiteke Arana eta Txurruka zirela, pixkanaka ezagutzen ari garen garai hartako talde euskalduneko bi lagunik minenak. Hona erakusbide batzuk, besteen eskutitzetan aurkitzen ez ditugun bezalakoak: "Nere aspaldiko anai zintzo Arana" hitzekin hasten du Txurrukak Leondik 1866an Loiolara Arana eriarri egiten dion karta bat, eta hauekin bukatzen: "Agur, ba, nere biotzeko atal Iñigo; zuk badakizu zenbat maite zaituan zure anai sudur andik. Cisario". Latinez ere berdin: "Carissime, tu scis quantum te amo", 1868ko beste batean. Umore oneko gizona zen, esaldi hauek erakusten duten bezala: "Conque, Sr. Arana, no me salga Vd. "ut soles" (= ohi duzun legez) con una pata de gallo o con cornada de burro". "Basta, Txurruka" (esaten dio bere buruari), "que se me escapa el tiempo y la burra". Diogun, oraingoz besterik ez esateko, kantatzeko abots zoragarria zuela eta euskalzale amorratua zela, beste eskutitz baten bukaerak erakusten digunez: "Guzioi eskumuinak, batez ere nere euskaldun pijuai. Aupa, mutilak, viva gure euskera ederra!".

Algortan utzi ditugu oporretako lehen egunean. Joaten ziren leku guztietan ateratzen zitzaizkien bidera edo joaten etxera familia ezagunak, hala nola Galindez, Ubarri, San Pelayo edo Zirion (hau garagardo ugari jesuitentzat

zeramala), eta beren semeekin solasean aritzen ziren eta gero txalupetan Algortaraino eramaten, behin Aita Arana zorabiatua portura heldu zelarik. Hau zen bezain bainuzalea izanagatik, hilaren 13an hartu zuen lehen bainua eta oporretako hamabost egunetan lau baizik ez. Azkena Sorgintxulon. Azken egunean, oporrei agur egiteko eta, Bilboko nasa guztiko lantegi guztien zuzendari zen injinero jaun EvaristoTxurruka, egun hartan etxekoekin bazkaltzen zelako, lehen motako bazkaria izan zuten eta bazkalondoan Arana eta bi anaiak ibaiko obrak ikustera joan.

Delmas inprimatzaile jaunaren eskutitza hartzen du Algortan, Sagarminagak egina duen *Euskal Hiztegi*az galdetuz. Erantzuteaz gain, handik bi egunetara elkartzen dira hartaz mintzatzeko. Murga deritzan liburu-etxetik ere izan berriak dira Urduñan kolejioa ikusten, eta, ez bat eta ez bi, heldu zaie berriz Urduñara itzultzeko eguna. Bilbora Aita Txurrukarekin joan, anaia Evaristoren etxean bazkaldu, Delmas jaunarekin beste hitz-asper-tu bat egin eta 3,00etako trenean Urduñara.

Bi hilabete falta dira oraindik ikasturtearen hasteko eta horiek egun aproposak dira ibilaldiak egiteko. Horiek On Ramon Huerta kopiatzaile, Aranak azkeneko aldiz aipatu digunean, Poyanneko "Cartas Annuas" eta "Gaztela Probintziko Historia" kopiatzen ari zenarekin, egiten ditu maizenik. Irailaren 16an Aloriara joatea erabaki zuten eta han ziren biak beste bi irakasle laikorekin: Rufino jaunarekin eta Lezameta guretzat iada ezagunarekin. Egun horretan ez zuten elizan ezer sumatu. Bost egun geroago, ordea, berriz doa Arana toki berera lehengo hiru lagunetako birekin: On Ramon eta On Rufinorekin. Han zen laster On Manuel erretorea ere, zeinek "libro grande de la *Cofradía de Sancto Iñigo desde 1541 hasta 1790*" erakutsi baitzien.

Hurrengo ikustaldira Aita Florez, Urduñara destinatuturik etorri berria, darama berarekin: "paseo a Aloria con el P. Florez" eta, On Manuel eta On Silverio apaizak ondoan dituztela, ikuskatu zuten berriz "libro viejo grande"; eta eskaturik edo eskatu gabe biharamunean, urriaren 1ean, "Cura de Aloria D. Manuel trae el libro visigodo grande de Sto. Iñigo". Aloriaz ematen digun azken berria hau da: "Nuevas de la iglesia antigua de Aloria sacada a remate en 1871 o 1872". Arana ez da, lan bati ekin behin eta, gero bertan behera uzten duena. Azaroan oraindik irakurtzen dugu arratsalde batean joan zirela hara Aita Florez, D. Ramon, D. Melkiades apaiza eta gure Arana "por la via". Zer egin zen gero liburu hartaz ez digu kontatzen, baina hor goian esana digu berekin eramana zuela Lezameta jaunak kopiatzeko. "Iñigo" izena dela eta, lehen ere galdegin zion norbaitek Aranari "Ignacio-Iñigo" izen bikoteaz, eta orain aita Mendivek San Iñigoren berri eskatzen dio.

Liburu haren berri gehiago ez dakigu, bai, ordea, aurkikunde hark besteak egitera zirikatu zituela. Hiru egun segidan ateratzen da Aita Florezekin ibiltzera, hirugarrenean On Rufino ere berekin dutela. Laugarrenean Anai Huertas du Aranek lagun bakarra eta Artomañara doaz tipi-tapa, eta hara non topatzen dituzten *Libro de Visitadores del Obispado de Calahorra desde 1549*. Idem, *Cofradía de San Sebastián en Artomaña*. Geroxeago Saratxora doaz Arana, Florez eta Huertas, hirurak. Hurrengoan Artomañara hirurak eta Aita Txurruka.

Bonaparteren eta d'Abbadieren batere eskutitzik ez du hartzen epe honetan, berak ordea bana idazten die. Bi hilabete geroago, haatik, "Carta grande con tres opúsculos del Princ. L. L. Bonaparte (certificado)". Errezilgo erreto-re Pagadizabalek eta Aranek elkarriz egiten diote eskutitz bana. Manterolak eta Labayruk egiten diote maizenik eta ia beti bertsoak eskatzeko; azkeneko honek batez ere. Manterolak Gabon aurreko egunetan bere *Cancionero*-aren 3. tomoaren lau ale helarazten dizkio. Aita Legarrak ere eskatzen dizkio Loiolatik eta zintzoki igortzen Aranek. Hartzen dituen eskutitzei erantzuteko eta eskatzen dizkioten bertsoak egiteko ere ez du denbora gutxi behar. Entzun hau, bestela.

Labayruk Aita Aranaren ezagupidea egin zuenez geroztik, sarri idazten dio karta eta eskatzen bertsoak. Lehena da "Begoñako Euskal Epaitegiak" ("sobre Jurado vasco") galdegiteko eta Aranek bi egunen buruan erantzuten dio. Handik egun gutxitara "encargo versos vascos de Labayru con el P. Arostegi"; hogeita lau ordu baino lehen "carta del y al Sr. Labayru sobre las 10 composiciones para Begoña" eta azkenik biharamunean "carta y paquetito al Sr. Labayru con el Sr. alcalde que va a Bilbao". Egun bateko atzerapen horren errua ez zen izan Aranarena; egun batzuk lehenago, Aita Landak egin beharreko zensura luzatu zen nonbait, eta hau zioen: "Aita Landari Begoñako karta aztartzeko lenbaitleen", eta biharamunean "aprobación de los versos de Begoña". Orduan igorri ahal izan zizkion Labayruri, eta honek bertantxe idatzi eskerrak emanez.

Hona zergatik Aranaren presa. Irailaren 8an etxeko zazpi jesuita erromes doaz Begoñara, hango Ama Birjinaren eguna ospatzera. On Evaristo Txurrukaren etxean ostatatzen dira ia denak. Urduñan jendetza izugarria bildu izan arren, han ikusten dituzte Sebastian Aldalur, Frai Epelde, Intxausti donostiarra, Aranburu azkoitiarra, eta abar. Biharamunean Urduñara berriz eta hara non Bilbotik beranduago atera den Aita Arostegik dakarzkion iadanik inprimatuak Begoñako Amari egin bertsoak: *Ama Birjiña Begoñacuari Guernicaco erromesen cantia* (Bilbao, impr. A. Emperador, Cruz 5). Bi egun geroago "llega la lira o cítara, premio de Begoña por los versos eúskaros,

"Cuncta Pater", "Euskara cantia", lehen esan digunez, Labayruk eskaturiko "las 10 composiciones para Begoña".

Badira bertsoak edo paperak eskatzen ez, baizik igortzen dizkiotenak. Hala Benigno Orbegozok eskutitza eta paper inprimatuak. Joakin Beristainek euskarazko bertsoak Arantzazuko Ama Birjinaz. Frai Epelde Arantzazukoak berriz aspaldian idazten ez eta, Aranak igortzen dizkio bertso batzuek eta hark hartu dituela adierazten. Izeba Paulak Azpeititik *Kristabaren bizitza*-ren bi ale eta bi bertso-paper *Arantzazuko Amari* eta *Sobre pecados capitales*. Egidazuk Durangotik *Vida bilingüe de San Ignacio*-ren hamabi ale dakartzkio. Ez digu esaten nork ez nondik bidali dion *Ilustración Hispano-Americana sobre el árbol de Arbioto*. Ez halaber non bildu diren Aita Pedro Jose Etxeberria eta Pagadizabal apaiza "sobre libritos eúskaros" jarduteko, baina bildu direla bai. Bai eta nork igorri dion Iruñetik *Lengua euskara*: Arturo Kampionek berak.

#### 4. EUSKAL AKADEMIA BERRIZ (1880)

Urriaren 1ean, gogojardunak egin eta gero hasten dira eskolak, Meza Nagusian "Veni, Creator" kantatu ondoren, eta astebete lehenago badira iada hurbiltzen diren ikasleak, hala nola Gernikako "Ignacito P. T. de Altube con su abuela D<sup>a</sup> Margarita y los tres nietos Lucas y Carmen Altube y otro pariente suyo". Hau bezala beste gehiago ere bere familiak dakartza eta han agiri dira egun haietan honako hauek, besteak beste: Egaña, Larranz, Alzuru, Azpiroz, Ibero, Irimo, Hurtado, Ameztoy, Gros, Pagadizabal, Zirion, Alzugaray, Arana, Ubarri, Michel, Zabalo, Muruako Markesa hiru semerekin, Aguilar Gobernari jauna bere semearekin eta Federiko Belaustegigoitia, Aita Atxukaroren urtemugan ere izan zena. Egidazu Cesareok ere, ez Estanislaoak, han du bere seme Jose Mari. Arrankudiagako erretore Etxaniz jaunak, aldiz, nahiago omen ditu Carriona bidali "a bastantes de sus sobrinos".

Ikasturte honetan ere ez dakigu zer gai ematen dituen Aranak eta zein mailatako ikasleei. Bidezko da pentsatzea iaz bezala Fisika bederen ematen duela. Horren ordez beste gauza bat dakigu: beharra sortuz gero, beste zenbait gai ere emateko prest dagoela. Hala Anai Oliver mintxo gertatu zen batean, haren eskolak berak eman zituen. Egia da, maila apala zela, presta maila, alegia. Baina Aita Izagak ematen zuena goragokoa zen eta honen ordez ere eman zuen Espainiako Historia. Are, negua hastean Aita Txurruka ere mintxo gertatu zen, zenbait haur bezala, eta haren Geografia eskolak Aranak eman zituen egun ba-



tzuetan. Bere gaiez gain, noski. Hainbestez esan behar, gaztetango odol-kolpe-ek pentsaraz zezaketan baino hobeki dabilela Aita Arana osasunez, ia hileroko ezin meza emana aldebat utzirik. Gauza bera erakusten digu pilota partidoak jokatzeko eta mendian ordu luzeetan ibiltzeko duen gaitasunak.

Leandro de Plazaola, Aranaren idazkari ohia, orduan Nafarroako postan enplegatua zena, joan zitzaion behin bisita egitera eta hartaz baliatu zen Arana zenbait liburuxka Nafarrora bidaltzeko. Kampioni *Vida de San Ignacio*, *Ama Virjinaren Oficio laburra* eta *Begoñaco canta Guernicatarrenac*. Aldiz Undiano jaunari "Versos a la Virgen de Orduña", premiados; id. "de la Virgen de Iziar"; "de los Guerniqueses a Begoña".

Ez dago garbi nork nori helarazi zion, hark d'Abbadieri ala d'Abbadiek hari (honek igorria taxuzkoago dirudi) "carta y folleto sobre *Orome de Africa*". Beste kasu honetan ez da dudarik: Aita Probintzialak eta Anai Lizargaratek Ernst Meyer-en *Atlas de Choix* hari kendu eta daramate berekin. Poyannen ere izan zuen Aranak Obserbatorio bat, makina batzuk d'Abbadieren bidez zuzkituak gainera; bada orain Urduñan ari zaizkio halako bat apailatzen eta "café por el nuevo Observatorio no del todo acabado" diosku. Berlingo Unibertsitatean ateratzen zen EUSKARA aldizkariarena azaroko alea hartzen du, "Itziarko Ama Birjinari Debako bertsoak" dakartzana (bereak, noski), eta Aita Probintzialak "Urteroko Albisteak" ("Cartas Anuas") lastertzeko eskatzen dio.

Urriaren 22ko Santa Zezilia eguna parada polita izaten da, edo aitzakia, kolejioko ikasle-kantari antzinakoak biltzeko. Han ziren bezperatik joanak Gobernari jauna, Egidazu Estanislao eta "ingeniero de Vitoria Sr. Olabide, antiguo discípulo". Egunez Meza nagusia, suziriak, musika, jende pila eta bazter guztietan arratsaldeko zezenketako txartelak. Arratsean "comida-cenabanquete con música, poesías, bombas, piano, instrumentos", eta afaltiarren artean etxeko apaiz jesuitak, Gobernari jaun García Salazar, Egidazu, D. Bernardo Mendía, hots erretorearen aita, Meliton Pazos, Olabide, Lukas Altube, Chalbeau, D. Federico Belaustegigoitia" eta abar. Biharamunean pilota partidoa: Pazos eta Olabide Txomin Aita Aranaren eta Huertasen kontra. "Vanse los militares Olabide y Pazos". Gobernari jaunari etxera baino lehen *Vida bilingüe de San Ignacio* ematen dio "con inscripción basca" urte zaharreko opari.

Lehen bi bider Poyannen bezala, Urduñan ere nahi du etxean EUSKAL AKADEMIA, hau da, euskal eskola antolatu, euskara dakiten eta hobetu nahi dutenentzat. Honela idazten du azaroaren 28an, domekan: "*1ª Sesión Académica-Católica-Vascófila* a las 6,30 de la noche en el salón de dibujo".

Hemen, han ez bezala, isilik gordetzen ditu euskaltzainen izenak, zenbat diren ere esan gabe. Gauza bera egiten du abenduaren 5eko bigarren bilkuran, baina 19ko hirugarrenean honelo dio: "*Academia bascófila de 6,30 a 7,30* con varios nuevos señores", ez nor eta zenbat diren, ordea.

Abenduan asko dabil herrixka batera eta bestera: "paseito con D. Rufino y P. Florez", "A Aloria y Muera con el Sr. D. Rufino, José Escuza y su hermano médico", "A Lecámaña con D. Rufino y D. Ramón", "paseito con el P. Florez", "A Artómaña con el P. Florez; dias de Melquiades cura, que hoy entra en los 80 años de edad con dentadura completa, sin tos y salud robusta", "tarde a Saracho por el bosque Sta. Cristina con D. Rufino y el P. Florez", "A Aloria con D. Román; Sr. cura D. Manuel; en otra casa Silberio", "tarde a Sta. Cristina con el Sr. Ugarteburu", "A La Muera, Arbieto con el Sr. Gobernador García Salazar, Brunet, Pinedo y 4 niños". Hori hilabetea. Ezin uka zinez ibiltzailea dela.

Eguberrietan familia pila bat inguratzen da Urduñara bere semeak ikus-tera. Zarauztarren batek hango berri hau ematen dio; "casamiento el domingo pasado de la Excma. Marquesa de Narros, de 68 años, con el Sr. Brigadier Benla, de 62 años". Urduñara direnetatik gehienak ezagunak ditugu eta ez ditugu aipatuko. Bai, aldiz, Fermín Alegría jauna, hortz-osatzailea, oraino ezezaguna. Honek ere seme bat du han ikasten. Arana irailean hasi zen esaten "mal de dientes grande". Gero behin Aita Landa eta Uriarte Bilbora joan direla esan digu "por la dentadura" eta orain Eguberri egun berean "viene el dentista Alegría". Hauxe du Aranaren bere parada; joaten zaio, eta 29an esaten digu: "Sr. Alegría, molde de la dentadura inferior". Hura egon, nonbait, okerre.

## 5. TREN BEREZIAK URDUÑARANTZ (1881)

Orain arte kontatuak agirian ipintzen digu Aranaren bizitza lauzpabost ardatzen inguruan mugitzen dela: eskolak, paseoak, eskutitzak-bertsoak, ikus-taldiak eta liburuak. Ibilaldiei dihoakienez, gaurgero askiko da komunzki norantz diren esatea: adibidez, Lekamañara, non apaiza On Ramon Azpizua baita; Amurriora, Tartangara joaten da betiko lagunekin, pixka bat txandakatu eta ezer berezirik gertatu gabe. Hala Delikara eta Zagitasko hartzuloetara ere (*zagiti* "canal" omen da) joaten da Tortopelapetik, eta Tortopela bertara beste batean Parol ondoko Zamarrotik. Aloriara ere bi joanaldi egiten ditu. Bietan ditu lagun A. Florez eta Rufino, lehenean gainera On Ramon, eta Aloria ondotik mendira igo omen ziren laurak, eta gero Uzkiekora eta

Unzara. Bigarrenean aldiz Aloriara iristean errota eta parrokia ikuskatu omen zituzten.

Badira ordea onuratsuago direnak. Hala Artomañara bi joan-etorri egiten ditu eta bigarrenak aipamen berezia merezi du: "A Artomaña sobre nieve y sol hermoso con Chomin; Sr. cura Melquíades, de 80 años; Misales viejos del s. XVI de Calahorra". Halaber Saratxora egin zuenak On Rufino eta On Ramonekin, hitz hauek eransten baititu: "escuela e iglesia", eta honek zerikusia du gero Durangon eta Loiolan emango dituen urteekin, herri horien inguruko auzoetan berak ere elizaxoen babesean eskolak antolatuko baititu igandeetan, Poyannen ere aritua zelarik lantegi horretan.

Bidaian artean kontatzekoa da, nahiz hau ez den liburu eta objektu zaharren bila egina, hortzak konpon zurrean baizik, Bilbora egin zuena Alegria jaunarekin egoteko. Hiru egun egiten ditu Bilbon eta hiruretan bisitatzen du hortz-osalaria eta azkenean honela dio: "Dentista, 20 duros". Zer esanik ez, beste lagunik ere bisitatu zuela, Egidazu, Paternina, Orbegozo, On Melchor Andonegi, "capellán de las Mónicas de Begoña, vascófilo. Sus versos de Navidad éuskaros". Azken egunean Erruki-etxeko liburutegira sartu-irten bat egiten du On Alejandro M<sup>a</sup> de Meñaca liburuzaina agurtzeko, eta 3etako trenean Urduñara berriro.

Aita Arana kanpora bezala, beste batzuek kanpotik Urduñara etorri dira egun pasa. Errege eguna da horretarako egun egokia, han ikasten ari den seme-ari bide batez opari edo bezuzaren bat egiteko. Han izan ziren Errege egunean "Sres. Arana con sus dos hijos y D. Federico Belaustegigoitia". Handik hilabetera juxtu, otsailaren 6an, han aurkitzen ditugu berriro "Familias varias en casa: la de Arana, madre y hermano del colegial Sabino Arana". Hau, izan ere, bost urte izan zen Urduñako ikasle, 1876tik 1881ra. Hil beraren azken aldera berriro han dira inauterietan joanak Olabide, Amezttoy, Arana, Lucas Altube etab.

Otsailaren 2an ohi bezala zenbait apaiz jesuitak azken zinitz handiak egiten dituzte, hala nola Mikel Oyarzunek, Benantzio Markiaranek, Hilario Retolazak eta Serapio Mendiak. "Uno de los que más influyeron en Sabino (Arana) fue su padre espiritual P. Serapio Mendia" dio Manuel Revueltak. Batzuen guraso eta senideak han dira. Festa handia, zer esanik ez: "café con versos; tarde teatro, composiciones a los Padres profesos". Aita Serapio Mendia dela-eta esan dezagun, haatik, Sabino Aranak Galiziako Laguardian ikasi zuen 1880-1881 ikasturtean, ez zela han bizi izan Aita Serapio, bai ordea Venancio Mintegiaga, Angel Alberdi eta Jose M<sup>a</sup> Olano, ez Blas. Manuel Revueltak dioena Urduñako urteei dagokie, agian.

Urteberriaren lehen hilabeteetako Aita Aranaren eginbehar ezinutzizko bat da "Anuas" direlakoak etxe guztietara eskatzea, biltzea, kopiatzea, latine-  
ra itzultzea. Martxoan zehar hogeita bost bider irakurtzen da hitz hori haren  
EGUNARIANn. "Café por el trienio de Anuas acabado", dio martxoaren  
7an, eta 14an badu nork eraman zati bat Loiolara Aita Probintzialari: "Lleva  
el Sr. Azpiroz, de Azpeitia, para el P. Provincial las Anuas de 78-79".

Zumaiako Manuel Beobide apaizak hiru liburuxka igortzen dizkio postaz  
eta gainera bertso paper bat San Joseren eta igandeetako eskolen gainean.  
Hona berriz ere igandeetako eskola gaia! Aranak bere aldetik gutun bat egiten  
dio eta San Joseren bertsoak itzultzeaz gain, gai hauetaz ondutako bi hama-  
rreko sartzen dizkio kartan: "Ave Maris Stella" eta "Nombre de Jesús".  
Labayruk ere idazten dio *Vida de Zumarraga*-ren hiru ale helaraziz batean eta  
bestean Begoñako Amari eginiko bertsoekin irabazi zuen zitararen diploma  
igorritz. Gasteizko apaizgaitegiko Erretoreak ere han Apezpiku berria dutela  
eta, bertsoak eskatzen dizkio eta Aranak zortziko batzuk bidaltzen. Hilabete  
eta erdi geroago hartzen ditu inprimatuak Gasteiztik, Apezpiku berria zela eta  
igorri zituen zortzikoak: "Erakasle on", "Atoz, atoz betea" (bederatzi bertso)  
eta "symphonia "Vascongados" semilatino en honor del Sr. nuevo Obispo  
Illmo. D. Mariano Miguel y Gomez". Aita Oyarzun Bilboko Residentzira  
destinatu baitute, Aita Aranari galdezka da euskerazko liburuxoen gainean.  
Azpeititik izeba Paulak eskutitza egiten dio "con dos ejemplares vascos de  
Villacastín". On Pedro Soraluzek paper batzuk igortzen dizkio "sobre LAU-  
RAC-BAT" (bandera)".

Bonaparte Printzearen, Aita Fitaren eta Aranaren artean zenbait eskutitz  
gurutzatzen dira "urtzi" eta "belater" hitzen etimologia dela eta ez dela. Aranak  
eskutitz luzea egiten dio Aita Fitari eta, hemen aipatzen ez badu ere,  
Bonaparteri berari ere bai, biek elkarri eginiko kartak argitaratzean azaldu  
genuen bezala, eta horregatik hogeitaz egunen buruan erantzuten dio  
Bonapartek.

Martxoaren erdi aldera Bonapartek egin zion eskutitzari erantzuteko  
Aranak betarik hartzen ez, nonbait, eta beste bat idazten dio Bonapartek  
maiatzaren 16an. Aitzitik D'Abbadie isilik egon da Aranari *Oromo de Africa*  
zelako hura igorri zionetik eta apirilaren azken egunetako batean idazten dio;  
honi, bai, erantzun zion Aranak agudo eta d'Abbadie jaunak, dirudienez,  
lehen eman zizkion 40 liberaz gain, beste hainbeste eman berriz, baldin ongi  
ulertzen badugu honako hau: "Carta de Prudentxi Ramery sobre 40 fr. de  
d'Abbadie". Kampionekiko zorra kitatua zuen Aranak liburuxka batzuk  
bidali zizkionetik, baina berriz idazten dio eskutitz bat bertso batzuekin eta  
bi egunen buruan beste bat. Guadalupe delako batek bere amari karta egiten

dio; eta Aranaren iruzkina lausoz inguratua dugu: "cruz para mí por versos punzantes".

Manterolari ere eskutitza eta neurtitzak igortzen dizkio. Eusebio Lopezek eta Gibelaldeak, aldiz, berek idazten diote eta bertsoak igortzen, eta Eusebio Lopezek gainera egun batzuen buruan Astigarragaren hiztegiaren sei ale. Benigno Orbegozok eskutitzaz gain "catecismo de Mogel y el de sílabas de Gareme" eta Aranak ordainetan gutuna eta zortziko bat. Errezilgo erreto-re Pagadizabal jaunak eskutitzaz gain liburutxo bat, ez dakigu zein, helarazten dio. Bartzelonatik Bartolomé Gram delako batek ere idazten dio. Aranak bestalde Ciudad Real-era noizbehinka idazteko ohitura hartu berria du, bere arreba-orde Nikolasa eta Urduñako ikastetxeko irakasle baten alaba Ludgarde han moja sartu zirenez geroztik.

Aste Santua eta Bepizkunde eguna ohi bezala handikiro ospatu ziren; Meza Nagusia orkestra eta guzti eta usadiozko mutil ikasleen familiekin: "pasan Arturo Campión y otros". Familiarik gehienak etxera itzuliak zirenean, Pizkunde ondoko bigarren igandean "la familia de Arana". Handik hogei egunera Urduñako herri-festak dira: "toros en las eras" eta, zer esanik ez, "gran gentío de Bilbao, trenes especiales". Bada, orduan ere han da Santiago Arana. Gero ikusiko dugu zergatik.

## 6. EUSKAL AKADEMIAREN AZKENA (1881)

Ez da eguneroko gertaria bi mutikok ikastetxetik ezer esan gabe ihes egi-tea. Bi Anai laguntzaile bazter guztiak miatu ondoren haiek aurkitu ezin eta, gabeko 10etan esku hutsik itzuli ziren etxera. Biharamunean "los hallan en el bosque entre Saratxo y Via Férrea en Lecámaña y los traen al colegio antes del mediodía". Ikasleek noizbehinka aste egunean, berez eskolak izan behar lituzketenean, kanpo-eguna zeritzana izaten zuten. Behin Aretara joan ziren guztiak, "arbolado de la ferrería de Torres o Inunzibai, bajo nogales junto al puerto del marqués del Faley". Laudioko elizan meza, orkestra eta guzti: "casa del Sr. Federico Belaustegigoitia, su señora Dolores, niños, su hija y madre, y otras familias".

Gasteizko Apezpiku berria ikasturte bukaeran lehen bisita egitera etortzekoa baita, haren etorreraz baliatzen ari dira etxeko toki berezi batzuk pixka bat apaintzeko, eta horien artean bat kapera edo etxeliza. Aspaldi xamarretik ari zen Lekuona zeritzan jaun bat hamalau olio-margo lauki paratzen kapera-rako, Lagundiko Santuak eta Dohatsuak irudiztatuz.

Ez dugu uste gauzak bere neurritik ateratzea edo Arana gehiegi goraipatzea denik esatea, bere bizitzako egintzarik eta lantegirik esanguratsuen eta bere euskaltzaletasuna hobekiena adierazten duena direla inguruan zituen lagunei, besteri ezinean, euskara lantzeko eta hobetzen laguntzeko egin zituen ahaleginak. Ikusi dugu bi denboralditan egon zirela bizirik euskarazko ikastaldiak Poyannen eta iaz konkretuki bi bilkura izan zituztela; bada orain suhar eta erru handiagoz hasi direla esan behar, zeren urtarrilaren hasieratik apirilaren bukaeraraino hamar bilkura izan baitzituzten.

Egia da ez zela erabat gauza berria eta ezezaguna, Nobiziadua bukatu orduko izaten baitzituzten junior izendatuek beste hizkuntzak, frantsesa, inglesa, italiara, nahi zuenak nahi zuena, ikasteko bilkurak eta eskolak, ia beti ostegun arratsaldeetan. Baina euskara ikasteak eta hobetzeak ezertarako balioko zuenik ez zuen orduarte Lagundian inork pentsatu nonbait. Egia da halaber ez zuela batere zerikusirik gero Euskaltzaindia izango zen erakunde ofizial eta edozein giza-motatako jende euskaldunez osatuarekin; ez eta antzik eman ere. Komentu bateko erlijioso-andana baten bilkura xumea eta sotila zen, beren artean gehiena zekien baten gidaritzapean euskara lantzen aritzen zena. Baina aldi berean ezin uka, batetik, bizi zen denboran, eta geroago ere, ez zela halako ohiturarik inongo Ordenatan edo Kongregaziotan, eta bestetik geroko zenbait ekintzaren, hoberen noski, aitzindaria izan zela. Ez zaigu ahantzi behar Euskaltzaindia sortzeko oraindik hogeitamar urte baino gehiago falta direla.

Baina nola eta zergatik ez dakigula, goizetik gauera, maiatzako bilkura egitea egokitzen zen egunean, Aranak honako hau idazten du ezin laburkiago: "sin academia euskérica", eta ez da geroztik euskal eskolarik inoiz aipatzen. Ez da harritzekoa. Ez da bizi, Poyannen bezala, berrogei edo berrogeita hamar teologo gazte batera bizi diren, eta dozena batek baino gehiagok euskaraz dakien etxean; halakoak Urduñan dozenerdi bat izango ziren, "maisú txiki" deituak barne.

Ikasturtearen azken jaialdia, aurten Apezpiku jaunaren aurrean egingo dena, prestatzen ari dira guztiak su eta gar, nor bere ahalekin heinean. Egitaraua xeheki paratua dute, musika eta kantuak, mintzaldi eta neurtitzak barne, eta Bilboko inprimategi batera inprimatzeko eramanak. Bizi duten festa-bezperako giroa are gehiago galdatzen du gertari honek: "regalo a los PP. Atxukarro, Txurruka y Arana de parte del Ayuntamiento de Bilbao de la obra intitulada "Calderón: el alcalde de Zalamea", traducida al bizcaino por D. Luis de Iza y Agirre (de 200 solos ejemplares)". Poyannetik etorririk han dago gehiagoren artean Madame Daurys. Apezpikua trenez heldu zen eta kolejio guztia gelto-kira atera zen "con uniforme y charanga y los Padres de manteo y mucha

gente". Afarian Apezpikuarekin batean han ziren haren bi kapilauak eta Bernardo Mendia, Mendiatarren aita, Yurrita jauna, Egidazutar biak, Aldalur eta abar.

Bi egun luzatu ziren jaialdiak. Lehen egunean Apezpikuaren meza 8etan. 11etan Akademia edo letra-saio liriko-poetikoa gai honetaz: "Glorias de la Vasconia Católica" 1,30etatik 4ak arte". Jende piloak. "Helena no asiste", Helena Daurys, alegia. Bigarrenen lehen mailako bazkaria, kafea: Mendia, Yurrita, Egidazu jaunak. Txurrukak bere abots zoragarriarekin kantak eta zortzikoak kantatu zituen, Aldalur pianoan zuela. Biharamunean Apezpikuari agurra txarangaren, neurtitzen eta suzirien artean. Badoaz pixkanaka familiak eta Egidazuk berekin daramakio Bilboko udalari "El alcalde de Zalamea"-ren partetik euskarazko hamarrekoa, esker onaren erakutsizat. Madame Helena Daurys ere konfesatu eta bi egun geroago badoa, elizarako 40 libera utzirik.

## 7. SABINO ARANARI ELIZAKOAK (1881)

Ikusi dugu hogei egunen buruan bi bider izan zirela Urduñan "la familia de Arana", apirilaren 24an, eta "Santiago Arana" maiatzaren 8an. Bi bidaiak horiek baino lehenago esan gabe utzi dugu apropos Jose Inazio Aranak apirilaren 7an dioen hau: "siguen con escarlatina los alumnos Paternina y Arana" eta biharamunean: "El niño enfermo Paternina ya levantado; su señora tia allí; el otro algo mejor". Horra zergatik arkitzen ditugun hain denbora gutxian bi bider Urduñan Sabinoren etxeak.

Bi hitz Sabinoren familiaz eta haurtzaro-gaztaroez. Santiago zuen aita, eta ama orain baino lehen atera izan zaigun Pascuala Goiri. 1844an ezkondu ziren eta zortzi seme-alaba ekarri mundura, nahiz haurtzaroan hil ziren bi. Sabino gazteena zen eta, egun batean, aita-amek hiruzpalau seme-alabatxorekin batera, Sabino umetxoa ere besoetan hartu eta zalgurdi batean Loiolara eraman zuten, San Inaziori, ohi zenez, haurra eskaintzeko. Aski da ikustea Loiolako bisitari ospetsuen sinaduren liburua. 1865ean sortua zen, Aita Garagarzak prestaturik lehen Jaunartzea iparraldean egin. Hamaika urte zituela ekin zion batxilergoari Urduñan eta 1876tik 1881era aritu han bertan, esan bezala. Aita Aranak bi bizialdi egin zituen Urduñan: lehena 1870etik 1873ra eta bigarrena 1880tik 1883ra. Beraz Sabino bi azken ikasturteetan izan zuen gehienez Aita Aranak ikasle, edo ezagutu zuen bederen. Luis aldiz, senideetan azkenaurrekoa zen, 1862an jaioa. Irakurri dugu nola 1872. urteko urriaren 26an iritsi zen

Urduñara ikasten hastera ("entra el alumno Luis Arana") eta nola handik hila-bete eta erdira egin zuen han berean lehen Jaunartzea.

Gatozen berriro honenbestez Aita Aranaren kontakizunera. Apirilean elgorriari buruz eman zaizkigun zertzeladen ondoren, ez zaigu gehiago Sabinoren osasunaz deus esaten ekainaren 16a arte. Egun honetan, aurretik ezer esan gabe, hau iragartzen zaigu bat-batean:

"16, jueves. Corpus Christi...Dase el viático a Sabino Arana agravado con calentura catarral. Están allí su madre y hermana". Eta hortik hasten da hogei egun dirauen informazio zehatza Sabinoren osasunaz:

"17, viernes. Sigue muy grave el alumno Sabino de Arana. Consulta de médicos por la mañana, Dr. Uribe, Bilbao, etc."; eta egun berean, beste gauza batzuen ondoren: "Sigue grave Sabino Arana; están sus padres y hermanos".

"18, sábado. Siguen enfermos bastante graves los cuatro colegiales Arana, Albisuri, Celestino San Pelayo y Villa".

"19, domingo. Consulta de médicos sobre los enfermos. ... Albisuri levantado y los otros tres enfermos algo aliviados. Quedan los padres y hermana de Sabino Arana".

"20, lunes. Los tres enfermos algo mejor... Los tres enfermos al oscurecer algo recargados con el bochorno de hoy".

"21, martes. S. Luis Gonzaga. El enfermo Arana más grave.... Sigue grave el enfermo Arana; los otros dos mejor".

"22, miércoles. El enfermo Arana mejor y los demás mejorados más. "Laus Deo".

"23, jueves. Siguen bien los enfermos".

"26, domingo. Queda entre enfermos uno solo, Sabino Arana".

"30, jueves. Acábanse los exámenes de bachilleres, incluso el enfermo Sabino Arana, para el mediodía".

Julio, 3, domingo. Sigue mejor el enfermo bachiller Sabino de Arana, acompañado de su padre D. Santiago y una hermana; llegan su madre y varios hermanos suyos".

Honela amaitzen da Sabino Aranaren eritasunaren txostena, lekuko batek ia egunez-egun egina. Horrezkero ez zaigu gehiago zipitzik esaten Sabinoren eritasunaz; egia esan, Aita Aranari ere ez zaio egun asko gelditzen haren berri jakiteko.



## 8. LOIOLARA (1881)

Egun horietan beste gauzak ere gertatu dira ikastetxean eta gertatu zaizkio Aita Aranari. "Llega de regalo la "Biblia sagrada" de Amat en un grueso y pesado tomo, edición de lujo con grabados". Bere semeen bila betiko familiak datoz: Pagadizabal anai-arrebak, Gros jaunaren emaztea, D. Nicolás Soraluze, Ibero, Gros jaunaren emaztea, zeinen bidez Aita Aranak Manterolari igortzen baitio *Vida de la Venerable Madre Josefa*-ren liburua, etab. Are jende eta familia gehiago dator biharamunean sarien banaketara, haien artean Loma jenerala eta emaztea, zein baitira esertzen aulkiburuan, eta Piña jenerala eta Escuzatarrak eta Olabide eta Soraluze eta Ebaristo Txurruka etab.

Etorri den jendea biharamunean barreiatzen hasten da eta Pagadizabalen arreba Manuela de Muñozak, Juanito mutiko ikaslearen amak, bi kaliza uzten ditu erregali. Ez da erregaliak egiten dituen bakarra: Aguila Fuenteko markek "regalan casulla, manípulo, estola por el final de estudios de este Colegio de su hijo Manuel Carvajal y Hurtado". Gaspar Miranda batxileraren aitak "un regalo de dos candelabros".

Horrenbestez uztailaren 4an badoaz etxeko batzuk oporretara Algortara, bizimodua eta bizitokia aldatu eta burua pixka bat haizatzeko gogoarekin. Lehenak joaten Mendia Serapio, Sorondo, Florez eta beste batzuk dira. Arana hurrengo eguna arte gelditzen da eta orduan Txurruka, Retolaza, Izaga eta besteren bat doaz.

Zer egiten duten, gauza jakina da gutxi gorabehera. Aranak behintzat bainuak hartu; oraingo honetan 10. Joaten diren toki guztietan ikasleen gurasoekin, aitekin batez ere, topo egin eta solastatu, adibidez honako hauekin: Txurruka Evaristo, Bastera, Chalbaud, Ansoleaga, San Pelayo, Cirión. Bizpahiru txango handixeago egin ere bai. Ederrenetako bat Somorrostrora hango meatzeak ikusiz: "valle hermoso de Baracaldo, minas varias, trenes aéreos de hierro". Bazituzten gidariak: Isasi, Egidazu Estanislao, Oraa, Ipiña jaunak. "Almuerzo en Gallarza en minas; visitar gente minera". Beste egun batean Aita Txurrukarekin, Oraa jaunekin eta Ignacio Galindezekin Portugaleten barrena Santurtzira. Bazkaria 16 mutiko ikaslerekin batera.

Oporrak gorabehera, buruak ez du atsedetik. Hala Retana jaunaren bitartez Pagadizabali lau bertso euskarazko igortzen dizkio: "Salvea", "Erromeriya", "Begoña" eta laugarrenaren izenaz ez da oroitzen, ez du ipintzen. Tolosako Eusebio Lopezi eskutitza idazten dio eta proba zuzendu batzuk helarazten, eta hori bitan. Lan horren fruitua egun gutxiren buruan bilduko du, Urduñara itzultzean. Hilaren 29an Eusebio Lopezen eskutitz bat

hartzen du eta "100 ejemplares del librito eúskaro *Ama Birjiña eta S. Luis Gonzaga*", 24 pezetan bakoitza.

Urduñara itzultzeko egunean Aita Txurrukarekin abiatzen da Algortatik eta Bilbon Egidazu jaunaren etxera joaten. Urduñara eguzki galdan iritsi omen ziren bostetan. Lehen ibilaldia Lezameta alkate jaunarekin egiten du. Etxeko nagusi berria dute hilaren 25etik hasita: Aita Benantzio Sorondo izendatzen dute Buruek erretore. Kafea, musika, bertsoak bazkaritan. Aita Sorondo Ernaniko semea zen, 1842an jaioa eta hamabost urte zituela Lagundian sartua. "Profeso" izatera iritsi zen, Aita Probintzial baten baino gehiagoren idazkari izan zen eta, Aranaren Oñako urte beltzetan, ongi jokatu zuen harekin, Aita Urraburuk bezalaxe.

Kafea, musika, bertsoak eta abar beste egun batean ere bai, hilaren azkenean; ez digu esaten zergatik, baina apika erretore berriari omenaldia, edo hobeki esan, zaharrari agurketa egiteko. Hasteko mezatan pianoa Miralles Manuel jaunak joa, eta Aita Etxeberriaren eta Txurrukaren kantuak. Gero "comida de 1ª clase en el comedor grande con los convidados" eta hamaikaren izenak ematen ditu. Ondoren "piano, cantos, bombas hasta las 3,30" eta horretara joan ziren beste hiru jaunen izenak eratzekitzen ditu. Azkenik "bendición solemne con letanías, cánticos y piano". Ezin gehiago.

Dagoeneko beste bidaia prestatzen ari da gure Aita Arana, nahiz haren Urduñatik ezkutaldia lauzpabost hilabetetako soilik izango den. Hainbestez Aita Epelde frantziskotarrari eskutitza eta neurtitzak igortzen dizkio Arantzazura. Biharamunean Paulgo San Bizente egunean euskarazko bertsoak Ospitaleko mojen nagusiari eta bestean kanpo-eguna egiten du Artamañara, Pedro Landaren lurraldera: "a Uzkiano, su alto sobre Inoro, la Virgen de Goikogana en Oyardo; Unza y bajada a comer a Artomaña".

Abuztuaren 2an, berriz, Jose Manterolari "Euskalerriko Erromeriyak" bertsoa igortzen dio eta 6an Aita Probintzialak, bezperan gaua pasatzera etorri denak, 1879-1880ko "Anuas" direlakoak daramatza. Duela lau hilabete eraman zizkion Loiolara Azpiroz jaunak 1878-1879koak. Egun berean Aranak lauzpabost eskutitz idazten ditu (Madame Daurysi, Manterolari, d'Abbadieri eta Aita Fitari, bioi "mandando la composición de los dos Papas "Lumen in coelo". Guganaino heldu da eta hona olerkia osatzen duten hogeitazortziko nagusietatik lehen bertsoa;

"Aitu zaizkizu gurutze-penak  
Aita Pio txit santua,  
Aingeruekin igo artzera  
Zeru erdiyan tronua;

Bandera ordez gurutza alcharik  
Salbatua da mundua,  
Gurutze-giltzaz Jainko Jesusek  
Iriki zigun Cerua".

Aita Aranaren ondarea zein den badakigu: "Queda el baúl grande lleno de libros y papeles". Ama Birjinaren Jasokunde eguna handiki ospatzen dute eta 16an, astelehenean, "salida de Orduña para Loyola en el tren de 10,30... Despedidas varias en el colegio y estación... Miranda-Vitoria-Zumárraga". Loiolara kotxean Torrealto jeneralarekin... "Fiestas de San Roque en Azcoitia". Lehen oroitzapena: S. Roke eguna, herriko festak! Ez da, alafede, besoak antxumaturik egotera etorri Loiolara. Bi lantegi handi burutuko ditu: bat, etxe handi hartarako, egunero hainbeste ur gastatzen denerako, ur-iturbegiak aurkitu Loiola inguruan; bi, hango liburuen anabasa eta desordenua pixka bat atondu eta txukundu, eta liburutegi egoki bat paratu.

## 9. UR BILA (1881)

Aita Arana lehen egunetan txunditua agertzen zaigu ikusiz jendearen emana Loiolara. Ez zuen uste hainbatekoa zenik. Har dezagun gogoan Aranak ez duela "Loiola" ezagutzen, esaterako: Loiolak espiritualki Gipuzkoako kristaudentzat esan nahi zuena, alegia: Etxe Santua, Basilika, hango elizkizunak, gogojardunetarako jendea. Urte gutxi bizi izan zen han; gaztetxea, makaltxoak zen orduan; ez zen apaiz eta Loiolako etxea eta Santutegia itxiak zeuden, nobiziorik gabe. Urte asko igaro dira ordutik hona eta bizigiroa bestelakoa da. Armak aspaldi isildu ziren.

Horregatik guztiagatik miraz dago, Loiolak duen ekarria eta etxearen bisitarien kopurua ikusirik: "Gente viendo el Colegio", "Varios señores viendo el Colegio", "Gente varia viendo el Colegio". Hori du ia eguneroko leloa. Askok ez da baina egun haietanxe, besteak beste, gure bi ezagun han izan zirela badakigu: Madrileko Apezpiku laguntzaile Sancha jauna zortzi egunetako gogojardunak eta Urduñako alkate jaun Lezameta hirurrena egiten. Emazte D<sup>a</sup> Teresarentzat gutuntxo bat eman omen zion Aranak.

Beste jende asko ere bai, halako gisaz non Aranak behin idazten baitu: "Llegan muchos ejercitantes para empezarlos mañana"; eta bestean "vienen varios ejercitantes". Iruñeko Apezpiku jaunak ere egin zituen eta San Inazio jaio zen leku zehatzaren galdezka ibili ere bai. Santa Kruzko mojetan egun batzuk igaro eta gero Loiolara doa, agur egitera; horretarako Etxe Santuan

ematen du meza San Inazioaren aldarean eta gero artxibora, liburutegira eta, berriz Etxe Santura joanik, ikasten du San Inazioaren jaioleku zehatza; gero igotzen da kupularen boil-erdiko barandara eta berriro Santa Krutzera itzultzen da. Burgosko eta Gasteizko Dean jaunek ere egin zituzten han garai bertsuari gogojardunak. Villahermosako Dukeak ere bai. Ez zuen bizkitartean asmo bera eraman jeneral Quesadak, irailaren arratsalde batean han izan zenean: "con dos ayudantes llega en coche, entra en la iglesia y solo, de prisa, sin hablar más que con el P. Ruiz, vase".

Apaizak eta laiko gizonezkoak bakarrik ikusi ditugu orain arte Loiolara gogojardunak egitera joaten eta hala norbaiti irudi dakiok Loiolako ateak emakumeentzat oraindik itxiak daudela. Hala balitz, gauzak lehen bezala egongo liriteke, batere aurreratu gabe, zeren ehun eta berrogei urte lehenago Kardaberaz denboran ez dirudi Loiolan emakumei gogojardunak eman zitzaizkienik. Hori ez da horrela, Kardaberazek ematen zizkien emakumei ere, laster ikusiko dugunez. Gero Aranaren garaian apaizei talde berezietan ematen zitzaizkiela ez da dudarik. Pedro Miguel Urruzuno euskal idazlearen izena irakurtzen dugu, adibidez, apaiz-taldetxo batean: "Llegan para Ejercicios varios Sres. curas: Barriola, Gibelalde, Urruzuno...".

Ez da hala, ordea, eta Loiolan ere gauzak aldatzen hasiak ziren. Arana hasi ote zen aldatzen? Kuestioa da emakume taldeei ere ematen zitzaizkiela. Hala esaten zaigu: "varios Sres. y Sras. en ejercicios"; "entran en ejercicios o triduo algunos hombres y señoras"; "entran en ejercicios 11 mujeres eúskaras y 12 hombres". Eta aurrerago, ia Loiolatik alde egin bezperan, Aranak berak emango dizkio emakume taldetxo bati: "1º dia de Ejercicios con 4 mujeres solas".

Aita Aranaren giza-maila eta apaltasuna adierazten du ezerk baino hobeki honako xehetasun honek: Loiolara iritsi eta zuzenean "abrazo a los Hermanos Coadjutores veteranos". Horregatik zuten Anaiek (legoek) hain maitea joaten zen edozein etxetan. Edozein bizimodutara moldatzen zen errazki, intzirik eta hasperenik egin gabe. Non-nahi aurkitzen ditu, agintzen zaizkion eginbeharren ondoan, bere gogoko "hobbyak": konfesatzea, ibiltzea, idaztea, bisitatzea. Urduñatik etorri orduko Azkoitiko Santa Krutz bisitatzen izan da; bere etxearen ondoan dago eta umetatik du harako joera.

Bisita askotxo izan zuen lehen egunetan. Ez da harritzeko. Aurrena bere senideena: Antonio anaia, arrebaorde Justa, izeba Paula eta koinata Juana. Gero adiskide eta ezagunena: Pagadizabal, bi Aldalur, Segura jesuitaren ama, Zestoan dagoen Olabide. Baserri Ormaetxera eta Katalangora bera doa. Beste batzuk Azpeitira bidean aurkitzen ditu, egun ez bada bihar: Ibero, Muguruza,

Elorza eta Azpeitiko apaizak: Galdos erretorea, Elorza, Ibero, Lapeira, D. Felix, etab. Zuazolatar Pedrorekin ere topo egiten du eta haren etorki-zuhaitza uzten dio ikusteko eta honek hiru egunen buruan atzera ematen.

Inora joaten lagunduko dionik ez zaio falta. Laster aurkitzen ditu hartarako prest anai ikasle Smith eta Urra gazteak, oraindik teologia ikasi gabe nobizioei eta juniorrei latina irakasten dietenak, "maisú txikiak", alegia. Horiakin igo zen arratsalde batean Izarraitzera. Baita Anai laguntzaile Iribarren ere. Baita mezadun heldu batzuk ere, hala nola Aita Ordaz, Ochoa eta Idirin. Beste arratsalde batean Errezila doa Aita Ordazekin: "vuelta caseríos, molinos, el castaño enorme junto a un puente, viaducto y caserío". Beste batean, Loiolako gainerako jesuita guztiak erbestera joan eta bakarrik utzi zuteneko garaiak gogoratuz, Martirietara igo omen zen beste birekin: "el cura D. Ramón en la calle; iglesia, órgano, casa mejorada".

Urbietatik hasita Errezilaino zaldiz joan omen zen "con el mozo, el buen Pablo de Agirre"; "euskeraz itzeginaz", dio gaztelera baztertuz, eta gero erreka ondoan dauden baserri guztien (hogeita bost edo) izenak ematen dizki-gu euskaraz jarraituz: "Landeta ondoko Urbietatik Errezilaino Arrainerreka alboan etxeak dira hoek: Urbietá, Olatxo, Olabekoa, Olagoikoa edo Barreola, Artañola, Estradaberri, Estradazarra, Zurrúnzola, Erkiziagoikoa, Erkiziabekoa (media distancia de Landeta), Elurre (sobre arroyo), Useta, San Esteban (iglesia), Loidi azpikoa, Loidi garaikoa, Bildain (v. Domingo Erkiziaren jaiotetxea), Ondarra, Zabaleta, Tellería, Echeaundia, Echezarra, Landarrume, Errota-txiki, Ibarzabal, Errekondo, Gurutzeaga (hilerri edo kanpo santua), Armendia".

Oinatzera Anai Hiribarrenekin doan batean elizan maistra gazte euskalduna, M<sup>a</sup> Jesusa Errasti, topatzen du, biharamunean iristekoa zen apaiz berriaren zain zegoena. Arian ez arian, hau esan omen zion: "Itzai asko, egur eramaten Azkoitiko Dukekora". Beste behin Azkoitiko parrokiari Matutiak entzun eta beste hiru lagunekin atzera etxerantz zetorrela, Larrumeetatik igarotzean ehun urteko haritzaren ondotik igaro zirela diosku.

Zumaiara joan eta bainu txiki bat bederen hartu gabe Arana gelditu? Zaila. Goizeko 4etan jaiki eta hor doa beste bi lagunekin, Oikina gainetik, Santa Kruzen eta San Lorenzon barrena. Hamarretarako han ziren, Zestoan minutu batzuetan agurtu ondoren Inazio Aldalur eta Olabide jaunak, zeinen semea irailaren 8an jesuita-sotanaz jantziko baita. "Baño bajo San Telmo". Zumaiaraz gero, On Manuel Beobide nahitaez bisitatu behar, eta honek "libro parroquial sobre Elcano (1647)" erakusten dio. Urbistondo azpeitiarrari Joloko balentriagatik 1852an eman zitzaion ohorezko ezpata eta alabak gero Loiolarako eman nahi izan omen zuena, Loiolan erakutsi zen.

Arantzazura erromesaldi handi bat egin zen Loiola inguruko herrietatik, irailaren 1ean nor beretik abiatu. Aranaren kontuen arabera Azpeititik 500 lagun, Errezildik 400 eta Azkoititik mila inguru jarri ziren abian. Bezperan aitortza piloan izan omen zen Loiolan eta, eguna argitzean, "badihoa goiz" –dio euskaraz Aranak– "jende asko Azkoiti aldera Aranzazurako, gizon da emakume, gona txuri ta gorri, euri ta guzi, pozik. Aita Olanok: "Gaur egualdi txarra dezue Aranzazurako" – "Bas! Borondate ona euki ezker, egualdi txarrik ez dago". Hori ostegunean; larunbatean oraindik "llegada de los romeros de Aranzazu, de 6.000".

Eginkizun entretenigarri berri bat aurkitu du Aranak Loiolan, edo agian horretarako ekarri dute, horretan ere trebe zelakoan. Hura bezalako etxe handi batean, ehun lagun baino gehiago bizi direnean, ur behar handia sortzen da; eta euria suilaka egiten duenean hainbestean moldatzen dira, baina lehortea denean, oso gaizki. Nondik edo handik iturburu edo iturbegi berriak inguratu behar. Ikus nola kontatzen duen berak: "Fuentes y cañerías de las aguas de Loyola. El H. Echeberria y obreros abriendo catas hasta la madre de Azcoitia, baños de San Juan". Eta pare bat egunen ondoren: "Tarde a San Juan y madre de la fuente de Loyola con el P. Rodeles. Medida de 541 pasos de Loyola la primera casa Beristain (esquina oriental), Larrekoak, Aranburu y otros". Ur bila eraman bide dute Agintariek Arana Loiolara.

Ez da lau egunen buruan konpon daitekeen arazoa. Eguna joan eta eguna etorri, hartuko du ahoan hizpide hori eta Loiolan dagoeno ez du bertan behera utziko: "Medición de la cañería de las fuentes de Loyola desde la Ferruginosa hasta la pared de la huerta con el H. Urrea y el H. Echeberria, hortelano". Beste batean: "Tarde, medición de la huerta desde la pared sobre el campo hasta la casa de las vacas sobre la cañería de las fuentes con los HH. Echeberria y Iribarren".

Epegabe segi ez dezadan, hona azkena: "Tarde, medir parte de las dos cañerías de fuentes del Colegio y prado desde la casa de Bacas (sic!)". Ondoko egunetan ere hain ugariak dira gai honi dagozkion aipamenak, non monografikoki tratatzea merezi bailuke. Esate baterako Sokin eta Ferruginosa eta Munategi ondoko basora joaten ikusten ditugu egun batean; bestean Errekartera "cata madre de las fuentes de Loyola con el H. Iribarren; medidas"; bestean "sobre la madre de las fuentes de Santa Cruz con los HH. Astrain, de 74 años, Smith y Urzain".

Errazkiago burutuko du bere gain hartu duen beste zeregin hau. Arana familiak bere hilobia nahi du eta nor egokiago hartaz arduratzeko: "al campo santo de Azpeitia con el H. Iribarren", eta handik jaistean izeba Paularen etxe-

ra sartu-irten bat egin ondoren, esaten digu: "Encargo del campo santo". Bi egun geroago "visita con el hermano Antonio Arana Baroikua; color sepulturas de familia". Badirudi xextra gabe konpondu zirela familiak beren artean: "Justa (arribaordea, alegia) sobre arreglo de sus familias con Nicolasa, la de M<sup>a</sup> Martina (qepd); id. sobre sepultura del padre José Manuel de Arana (qepd)".

Etxekoek ez ezik auzokoek ere eskatzen zizkioten nonbait "hobizbideak", edo hilobi-harrietarako esaldi egokiak eta, behin "Euskalzale"-an (1898ko azaroan) halakoen aukera bat eskaini zuen. Hona bat:

Bizi zeran artean  
Erregu Jaunari:  
Egin mesede ori  
Il zan lagunari.

## 10. ARTXIBO-SAGUA (1881)

Halaz eta guztiz ere ez dauzka atzenduak artxiboa, liburuak, euskaltzaleen eskutitzak. Gertatzen dena da Urduñatik ez zuela ia tresneriarik ekarri –hala idatzi zuen handik alde egitean: "Queda el baúl grande lleno de libros y papeles"– eta gainerakoak igorri zain egon behar izan duela: "de Orduña las "Anuas", libros y otros papeles", ez ordea kutxa handia; eta hogeita bost egunen buruan hartu zituen. Loiolara etorritz gero nabarmenki berretzen zaio Aranari letrei edo kulturari buruzko lana.

Denetan aurrena d'Abbadie jaunari egin zion eskutitza. Arturo Kampioni igorri zizkion "del P. Mendiburu un índice de *Otoitzgaiak*, su *Irakurraldiak* (inérito), *Milagros de S. Franc. Xavier*". Itziarko historia laburraz eta Ama Birjinaren bederatziur renaz mintzatu zitzaizkion behin Itziarko Bikario On Inazio Zubelzu eta honen idazkari eta legegizon On Bizente Aizpuru azpeitiarra, eta urtearen azkena baino lehen bidali zizkion Bizente Aizpuruk *Ama Birjina Iziarkuaren bederatziurrena*-ren 4 ale.

Labayru jauna han izan du berarekin hitz egiten. Jose Manterolari Arantzazuko *Aita Gurea* liburuxka igortzen dio behin. Geroxeago, nobizioen eta juniorren irakasle "maisú txiki" den anai Urraren bertso, Arantzazuko Ama Birjinari eginak, eta gainera "el plano de Loyola y facsimile del sello de Guipúzcoa en 1672". Beste batean "bajo sobre papeles, v. g. Carta a Mandi, 2 sobre Iziar, 3 ardo-kanta, 4 facsimile de Martin Garzia de Oynaz", eta Manterolak Irigoyenen *Apellidos vascos* bidali ondoren, Aranak azaroaren

11an "carta larga para José Manterola" idazten du eta honek gero Donostiako Lore-Jokoen egitaraua hari igortzen.

Eusebio Lopezek Aranari "Arantzazu" gai duten sei liburuxka eta Orkaiztegi jaunaren bat bidaltzen dizkio; liburuen katalogoa eta *Imitación de Cristo* edo Kempis-en edizio berriaren luxozko azaleko bi ale ere bai; halaber *Ama Birjina eta Luis Gonzaga* liburuaren 25 ale, bai eta bi liburuxka, Mendibururen liburuarentzat letra-moldea aukeratzeko; eta aukeratuz geroztik hogeita lau ordu baino lehen adierazten dio, Mendibururen liburuak gisa hartan lau mila erreal balioko duela; Aizkibelen *Euskal Hiztegia*-z ere agertzen dio lehia. Izeba Paularen bidez beste euskal liburuxka batzuk ere helarazten dizkio: *Beata Margarita M<sup>a</sup> de Alacocque*.

On Felix Murgiondok eta On Pedro Gibelalde ere, lehenik gogojardunak egin eta gero Arana zirikatzen dute, Kardaberazen eta Mendibururen obrak eta San Franzisko de Salesen *Vida devota* argitaratzearen egokitasunaz. Bada Mendibururen liburuaren bat argitaratua ikusi nahi lukeen besterik ere, Errenteriko mojen Bikario jaun On Jose Gil Zalacain eta bere lagun José M<sup>a</sup> Juanmartiñena. Luis de Izak Santurtzitik idatzi dio "sobre su clase de lengua eúskara en Bilbao". Portugaleko Setubal-dik 1876-77ko eta 1877-78ko *Hist. Coll. Neo-cantabricensis* helarazi diote.

Urduñatik iritsi berrian hiru hitz hauek idatzi zituen: "archivo, su estado". Ez zen nonbait oso txukuna, egun gutxiren buruan hiru nobizio lortu baitzitu han egunero ordu batzuk lanean aritzeko eta geroxeago sei. Inguruko herrietako artxiboetan zer dagoen nahi du jakin eta Azpeitiko parrokioko ikustera joaten da berehala Anai Smith eta Urra "maisú txikiekin". Ez zen horratio esku hutsik itzuli: "se trae para copiar el documento procurado por San Ignacio sobre la Cofradía del SSmo. Sacramento en Azpeitia". Hurrengo batean Azkoitikora doa eta han "plano de Loyola y su heredad" dio soilik, aditzik gabe; aurkitu zuela-edo esan nahiko du. Ez ase hainbestez, nonbait, eta biharamunean Azkoitiko Udaleko idazkariarengana jotzen du, Anai Hiribarren lagun duela: "documento de 1484, Nov. sobre bandos oñacinos y gamboinos".

Granadako Dukearen etxea ere aztertu nahi du eta Anai Urrarekin doa arratsalde batean. Gaminde jaunaren familia osoa agurtu eta berak idoro nahi zuena honela aurkitzen du: "El desván y libros viejos". Sangarrengo markesaren Lasako etxea ere bai eta berak erakutsi omen zien "su casa, armas, la espada De Boabdil, rey moro de Granada, con esmaltes e inscripciones árabes". Azpeitian izeba Paularen liburuak ere -agian Aranarenak berarenak direnak eta erbesteratzean izebari utziak, zeren kako artean "libros del tío J.I.A." ezartzen baitu- miazten hasten da hara doan batean eta hauek atzematen ditu: "Obrita del P. Cardaberaz (4 tomos de Ejercicios), librito del P. Franc<sup>o</sup> García



sobre S. Ignacio", eta biharamunean erreparatzen "Trabajo sobre los 4 libros de Ejercicios por el P. Cardaberaz". Izeba Paula aipatu dugunez gero, diogun liburuek ez ezik beste gauza batek ere eragin ziola mirespena, honek kalean, orde: "tienda de Castiella que atraviesa tres calles".

Artxiboan ez ezik liburutegian ere lantegi handiei ekiten die. Hasteko "quítase parte de los estantes en la gran biblioteca, destinada ya a una gran capilla doméstica con coro" eta goiko liburutegi handira, atalurre gaineko goiko solairura daramatzate; baina kapera handi berriak koroa izango baitu, horri eusteko ipintzen dute trabeska Zumaiako pinu-tantai sonatuaren pusketan 10 metroko bat.

Argitasun handirik gabe, zer esan nahi duen jakiteko modurik gabe, ematen ditu maiztxo Aranak, lehen esan bezala, zenbait albiste txiki. Hona batzuk. Anai Iribarrenekin eta Pedro Aldalur eta Arozena jaunekin tipi-tapa zihoan batean, ekarri zuen solasak "sobre *Gabon-cantac* de 1762". (Beheraxeago Madrilera moja Sor Antonia Domingo dela-eta, berriz aipatuko dira han 1762ko *Gabon-sariak* deitzen direnak, Aranak Madrilera eskatzen dizkionak, deus ere argitu gabe). On Roman apaiza eta Melitón de Iturria bidaia bati ekin aurreko egunean agur egitera etorri eta "llevan *El discurso del P. Larramendi* (Objecciones y soluciones)". Azilona jauna arratsalde batean bisita egitera joaten zaio eta "sobre Academia Euskara Literaria-Histórica" aritzen dira partzunean. Gehiagotan ere arituko dira. Baita Arana Azilonaren etxera doan beste egun batean ere.

Pedro Soralezek igorrorik hartzen ditu "Euskalerría" ale bat eta "El anunciado vitoriano" bi, urriaren 20koa eta azaroaren 5koa, eta ari dira "sobre reunión bascófilo-provenzal en París entre los "Felibris du Midi" (Mr. M. Faure)". Aita Luis Segurak idatzia duen *Antídoto en fábulas* liburuarekin batera ematen die Aita Aranak eskupean Langarrego Baroiari eta bere emazte San Millango markesari bere *San Inazioaren bizitza*. Beste bat: "A. Txurrukaren eskutitz euskerazkoa Orduñatik" hartu duela kontatzen digu. Loiolako artxiboan dago eta honela amaitzen du Txurrukak karta: "Bilbon, esaten dutenez, euskera erakutsiko dute eta maisutzat hartu nahi dute Santurzeko eskola-maisua. Agur".

Manterolak igorrorik ere bai abenduaren 8ko "Beti-Bat"-en bost ale; baina horretarako Aranak bidalia zion aurretik kartatxo bat eta *Mariaren Gloriak* liburuxkaren ale bat. Bi aldeetatiko isilune luze samar baten ondoren d'Abbadie jaunari ere idazten dio, laster bizitoki berria izango duela esanez, segurki.

Ikus bestelako albistetxoak. Oroitzen gara, noski, nolako buruko minak ematen zizkieten bere hortzek. Bada orain honela dio: "Caída del mejor diente incisivo superior centro". Abuztuaren 21ean hauteskundeak izan ziren

Azpeitian eta Azkoitian: "Mucha gente y barullo en ambas villas". Azkoitiko Baroikuan haur bat dator mundura urriaren 23an: "Anoche a las ocho, según dicen, da a luz un robusto infante la cuñada de Juana de Acha en Baroikua de Azkoitia. Su bautizo a la tarde, su nombre Rafael". Euskaltzaindiak Aita Aranari duela bi urte mendeurrenagatik Azkoitian oroitarria ipini zionean, hango pertsona adintsu batzuek honela zioskuten: "Bai, Baroikuko Rafael mutil zaharra ezagutu genuen; erlojeria on baten jabea zen; herrian estimatua, zuzena; Aita Arana hau haren osaba-edo izango zen".

Urrestilako Bikario jaun Sorozabal gaixo dago eta hara doa gure Arana Aita Legarra zarauztarrarekin hari diosala egitera. Uste ez zuten Azpeitiko jauntxo saila aurkitu zuten: "Sres. Antxieta, Zuazola, Astiria, Elorza, Galdos, Lapeira, D. Felix Ibero, Aizpuru...". Hamar egunen buruan berriro dohakio Arana Loiolako Aita Ministro Tomas Gomezekin, eta Sorozabal Bikario jauna hasten zaie esaten 74 urte beteak dituela eta, nola ezagutu zituen Loiolan 1816an, mutiko zela, Italiako desterrutik etorri berriak ziren Aita Arevalo, Sorarrain eta Goitia zaharkituak. San Carlos Borromeo egunean, azaroaren lauan, Carlos erregeren alde festak dira Lasaoan. Aranak bere jaioterrira itzuli den arren, jarraitzen du hilean behin gutxienez -irailean hirutan, azaroan bitan- meza eman gabe uzten ezinaren ezinez.

## 11. URDUÑARA BERRIZ (1882)

Urriaren 5ean Aranak hau utzi du idatzia ezarian eta bestela bezala: "Con el R.P. Provincial sobre Orduña, Hist. Castell. Soc. Iesu". Beste perpaus askok bezala hitzez-hitz hartuz gero ez dute gauza handirik iradokitzen; izan daiteke soilki gai horretaz, han bizi diren lagunez, hitz egin zutela. Baina izan daiteke gehiago ere: horretaz hitz egin eta, akordio batzuetara heldu zirela. Azken honek dirudi aditzeko modu zuzena, baldin aurrerago azaroaren 20an idatzia ere irakurtzen badugu: "Carta del P. Antonio Martinez, Ministro de Orduña, sobre mi ida, en nombre del P. Sorondo", erretorearen izenean, alegia. Horrela ulertzen da beste hitz hauen esanahia: "Entérase el P. Ministro del estado del archivo", hots, zein egoeratan gelditzen den.

Lau hilabete bakarrik egin ditu Aita Aranak Loiolan eta berriz lehengo tokira igortzen dute, Urduñara. Zergatik? Dударik gabe egin behar zuena egin zuelako; hots, ur-iturburuak bilatzera ekarri zutelako eta segurki aurkitu ere zituelako, eta laster ikasturte berria hasiko delako eta eskolak eman behar dituelako. Berak egitatearen berri ematen digu soil-soilik; bezperan "prepara-

tivos de viaje" dio, eta agur egiten dioten zazpi edo zortzi lagunen izenak ipintzen ditu eta arratsean ohera baino lehen etxeakoak besarkatzen. Hilaren hamabostean: "Helada, misa, desayuno. Salida de Loyola para Durango, Bilbao y Orduña con el P. Tomás Gomez a las 7,30 de la mañana en el coche ordinario de Azpeitia a Bilbao". Abendua baino lehen ere elur-eraso ederrak izanak ziren Loiolan eta Munategiko teilatuetaraino jaitsiak.

Eibartik aurrera herri horretako jendearekin "euskaraz hitzeginez". Durangora ordubata aldean. Otordua egin eta bisitak: Orue, Oraa. Honen etxean Mendibururen gainean euskaraz solasa (hona Mendibururen hurbileko mendeurrenaren lehen erreferentzia). Biharamun goizean Bilbora kotxean Markinako jendearekin Bilboko Atxuriraino. Mandatu batzuk egiteko Egidazu jauna eta On Benigno Orbegozogana; baita Meñaka jaunagana ere Novia Salcedoren hiztegiak mintzatzeko. Berriz ere Egidazutarrekin egon biharamunean eta 12etan bazkaldurik, Aita Txurrukarekin, Sasuategiren alar-gun Angela Agirrerekin eta Alegria hortz-osatzailearekin, Urduñara arratsaldeko 4etarako.

Lau hilabeteen gauza gutxi aldatu da, baina zerbait bai; ikasgelak, antzokia, elizako zoladura berrituak aurkitzen ditu. Etxeko jesuitak ez, horiek eta irakasleak lehengo berberak dira eta haiekin –Aita Florez, D. Rufino, D. Serapiorekin– egiten ditu lehen paseoak. Gabonetan inguratu diren familietan gehienak lehendik ezagutzen ditu: Cirion, Gros, Txurruka Evaristo (bi seme ditu han ikasten), Amezttoy; baina haien artean ikusi ditu lehen joaten ez ziren batzuk ere, seme han ikasten hasi berriak ikustera joanak: esate baterako, Apalategi, Kareaga, Azkoitiko Alberdi eta Epelde eta Azpeitiko Lizurume, zein baita Loiola ingururako diren Aranaren eskutitzen eramaile.

Lezameta senar-emazteak ongi etorria ematera dohazkio haren berri ikasi bezain laster. Artomañan bizi da oraindik Melkiades apaiz zaharra, laurogeita bat urtekoa, bere ilobek ongi begiratu, eta hara doaz Aita Arana eta Florez urteberri ona opatzera. Urruzuno Pedro Migel apaiz euskal idazlea berriki aipatu dugu Loiolan gogojardunak egiten izan den taldetxo batean. Bada orain Aranek eskutitza egiten dio eta hark Mendarotik hamar egunen buruan erantzuten. Urtearen azken egunean Merladet jaunak berrinprimaturiko Astarloaren *La Apología de la Lengua Bascongada*-ren iragarkia hartzen du eta Aloriara Aita Florezekin joan-etorri bat eginez amaitzen du urtezaharra.

D'Abbadiek La Habanako argibide batzuk nahi ditu; Aranek hango Observatorioko jesuita zuzendariari haiek eskatu eta, "Carta extensa" hartzen du "del P. Viñez del Observatorio de La Habana sobre el estado atmosférico según datos pedidos para Mr. d'Abbadie, para el paso de Venus ante el sol el 6

de Diciembre de 1882". Biharamunean beste hau: "Llegan las observaciones meteorológicas del P. Viñez de La Habana, y Prólogo de 1873 para Mr. d'Abbadie". Eta handik bost egunetara, Aranak egin dion gutunari erantzunez, "Mándame Mr. d'Abbadie las observaciones de La Habana". Luis Izak ere itzultzen dio noizbait "La Oda Vasca a la Virgen de Begoña".

V. ATALA  
URDUÑAN ETA LOIOLAN  
(1880-1883)

1. ALORIAKO ELIZA BERRIA (1882)

Lehen buruan gogoratzea merezi du, nahiz Baionan eman zituen urteetatik ongi ezaguna dugun, Aita Aranaren pobre eta zauritu eta hiletsiekiko grina eta atxikimendua. Hori nabari du Urduñan ere, nahiz hemen zauritu gutxi aurkituko zituela uste genuen eta esan dugun. Iritsi eta egun gutxitara egin zuen lehen agerraldia On Rufinorekin herriko eritegira. Egin bazuen, egin zuen; geroztik han da gutxienez astean behin. Martxoan, esate baterako, bost aldiz izan zen. Esan behar bertako kapilaua izendatuko balute, ez lukeela gaizki hartuko. Bide batez hango mojekikoa ere egiten du, nahi duten oro konfesatuz eta maiz meza emanez.

Horrez gain txolarteetan-edo, baldin halakorik badu, egina du bere baitatik liburuxka berri bat, honako hitz hauek diotenez: "Entrégame el P. Rector con aprobación el opúsculo *Loiolako oroitza txiki bat* y otros papeles". Aita Legarrak egina datekeen *Mariaren gloriak* liburuxkaren hamabi ale ere hartzen ditu postaz. Bai eta Marzelino Soroak berak igorritik, bere *Anton Kaiku* antzerkiaren ale bat. Aranak, jakina, eskerrak emanez kartatxo bat egiten dio eta kartan bertso hau igortzen:

Soroa Lasa jauna  
Eskerrak milaka  
Jarri gaituzulako  
Farra ta algaraka.  
Jostaldi polita da  
Anton Kaiku-rena,  
nola egin zendubena  
leen Iriyarena.

Gero berriro Soroak Aranari idazten dio *Euskerazko Neurtitzak* bidaliz. Manterolak 1881eko Donostiako Lore Jokoak igortzen dizkio, Aranak "Euskarazko hitz-jostaldiak 1881" izendatzen dituenak.

Bonaparteri, Londonera doan lagun baten bidez, igortzen dizkio "algunos libritos, papeles y cinta". Eustakio Madina Okendoko apaizak egin dio eskutitz bat euskaraz eta gainera Elizkanta baten ("Ad regiam Agni dapem" hasten denaren) itzulpena helarazi. Horretan arituko da urte askotan eta Aranarekin harremanetan iraungo. Harenari Aranak ere euskaraz erantzuten dio bost egunen buruan eta haren *Berbaneurtua* itzultzen. Azilona gero eta kartsuago darraikio bere asmoari eta oraingoan bere ametsetako "Akademiararen Estatutua" datekeenaren zenbait kapitulu idatziak igortzen dizkio.

Lanen aringarri badituzte etxean berritasun eta oroigarri batzuk. Abenduaren azken aldian Isaac Albeniz pianojolea izan zuten han kontzertu bat ematen, lehen Manuel Miralles izan zuten bezala. Elizan estreinako aldiz kokatu zuten 12.000 errealeko lanpa dilindari handi-eder bat, Villafuenteko markes-markesa Goyenetxetarek oparitua, eta Obserbatorioan, zeinen buru Arana dela baitakigu, ipini anemometro edo haizearen abiada neurtzeko tresna berria. Otsailaren 11n ospatu zuten kolejoaren aro berriko 12. urteurrena, berekin zitzutela kafea hartzen, kolejoaren jaiotorduko laguntzaile Pedro Cuadra, Emeterio Zugazaga eta On Rufino. Iruñeko LAUBURU, Mendibururen mendeurrenaz mintzo dena hartu du Aranak, bai eta Orkaiztegi apaiza argitaratzen hasi den astekari ASTEONA ere. Aldiz Okendoko apaiz On Eustakio Madina euskaltzalea, arestian aipatua, Urduñara dohakio bisita egitera: "sus conferencias, versos" eransten du Aranak. Arturo Kampioni ere egin dio eskutitz bat Mendibururi buruz.

Herrixketara egiten dituen joan-etorriak aipatu ditugu eta oraindik aipatuko noraezean. Ez hainbeste, etxetik gertuago dagoelako-edo, La Antiguara eginak. Baina bai, egiten ditu, eta hango Ama Birjinarekiko jaidura bertsoetan azaldu zuela badakigu. Maiatzaren 14an La Antiguako Ama Birjinaren korozateko festa zela kausa, bildu zen Urduñan han inongo dudarik gabe sekula santan bildu zen jendetzarik handiena, elemenia bat; hainbestekoa non Bilbotik hamaika tren-bagoi heldu baitziren eta inguruko lau herrietatik, Tartanga, Delika, Artomaña eta Aloriatik, mundu guztia haratu bere bandera eta parroko gurutzeeekin. Korozate egun bezperan heldu zen Gasteizko Apezpikua, agintari guztiak bidera aterarik. Gobernadore jauna berriz korozate egunean berean agertu zen. Egun horietanxe izendatzen du Apezpiku jaunak La Antiguako kapilau On Rufino Campos.

Aloria aipatu dugunez gero, diogun lehen irtenaldietako bat hara izan zela. Lehen azaldu zigun Aranak hango erretore On Manuel de la Viñak herrian eliza berria eraikitzeko zuen asmoa; asmo hori ez da gehiago asmo hutsa, abian da eta 23an zimenduak ipintzen hasiak dira. Aranaren harridura ez zen txikia izan ohartu zenean langileak euskaldunak zirela ("trabajadores vascos"). (Diogun bidenabar kolejioan ere ez zela falta euskal giro pixka bat, Erretore Aita Venantzio Sorondoren urtemugan mutikoek aurrekuaz eman baitzizkioten zorionak).

Hurrengo batean Eliza berri horren neurriak zein izango diren zehazten digu: "Medidas ancho de la iglesia nueva 5,90, alto X, largo X (ez zaio gogoratzen); iglesia vieja ancho 5,35 ms. (altar largo 2 o 3 ms.), alto 3,80 ms.". Handik puska batera Anai Bidaurreta eta Larrañaga daramatza berarekin, Aita Ministroaz eta Palacioz gain: "meridiano marcado para la Iglesia futura con la bajada y auge de 19 gr. y 29 mg.". Oporretatik itzultzean Aita Florezekin joango da arratsalde batean Aloriara eta honela aurkituko du eliza: "concluidas las paredes y sin bóveda aún la iglesia".

Ibilaldi horietarako denbora nola ateratzen duen ez da mirari txikia. Izan ere, ez da sinestekoa zenbat jenderen bisita hartzen duen, zenbat jendekin dituen harremanak, zenbat konfesatzen dituen eta zenbat eskutitz idazten dituen urtean barrena. Egun bat aipatzeko, martxoaren 18a egingo dut: lau eskutitz idatzi zituen egun horretan eta hiru hartu. Hori ez da noski egunero gertatzen, baina maiz bai. Abuztuaren 15ean zazpi hartu zituen. Konfesioak ekainean 201 entzun zituela diosku. Eta hori guztia eguneroko eskolak emanda gero: otsailaren 7an irakurtzen dugu: "empiezan los exámenes de medio curso en varias clases: en Retórica PP. Sanchez y Arana". Hala ere paseoak gauza sagaratua dira Aranarentzat.

Lurralde hartan bizi izan garenoi ere –urtebete bakarrik, egia esan– ezezagunak egiten zaizkigu arakatzen dituen zenbait herrixkaren izenak; gure gogoangarrian behar bezain tinko irarri ez zirelako edota aldiri horien izenak harrezkero igaro denborak, berrogeita hamar urtek, suntsitu dizkigulako. Hala egun batean Zartutela eta Zamarrotik barne itzuli omen ziren etxera. Bestean Belandia eta Mendeikatik. Lendoño eta Artomaña ezagunagoak zaizkigu.

Merezi du halere bereziki aipatzea Kristoren Berpizkunde bezperan azken herrixka horretara egin zuen ibilia On Rufinorekin. Elizan On Melkiades apaiz jauna aurkitu zuten eta honek erakutsi "libros parroquiales antiguos desde 1540". Aste Santua aipatu dudanez gero, diodan urtero bezala familia mordoxka joan zela semeengana, mezak eta prozesioak asko jantzi

zituztela soldaduek eta troparen jazki-uniformeek eta musikek –ez ziren alferrik bi batailoi oso Urduñan zeudenak– eta astotxoarentzat ere izan zela lekua prozesioan.

Artxiboa eta liburutegia azkenaldi honetan ahaztuxe dauzkala dirudi, baina ez erabat; nolabaiteko arrazoia honako hitz hauetan aurkitu uste dugu: "Acabada la estantería y pintura; se arregla y ordena la Biblioteca". Artean ez zegoen, alegia, lanerako eroso. Ez dugu bestalde uste familiaren hilobi kon-tuak denbora gehiegi galarazten dionik, nahiz bere senideek behin eta berriro gogorarazten dioten: "Carta de la cuñada Juana Acha sobre sepultura del padre. "Obiya" y sus medidas en Bilbao".

## 2. MENDIBURUREN MENDEURENA (1782-1882)

Eusebio Lopez Tolosako inprimatzaileak ezin setatiago ekin dio bere lanari Urteberriz. Lehenbiziko bi hiletan bost eskutitz egiten dizkio Aranari eta behin Urduñara bertara joaten mintzatzerara. Lehen eskutitzarekin batean probak igortzen dizkio, ez digu esaten zerenak, baina pentsa dezakegu Mendibururen liburuarenak direla, harentzat letra-molde egokia hautatzeko helarazi baitzizkion oraindik-orain bi liburuxka. Bigarreanean gainera espreski dio: "carta de Eusebio Lopez, de Mendiburu", eta honi Aranak erantzuten dio; ez dakiguna da zer erantzun zion.

Gauzak horrela direla, Eusebio Lopez Urduñara doa, esan bezala, urtarilaren 20an Aranaren eta bien artean zenbait puntu argitzera. Hona bien arteko solasaren laburpena, Aranak egina: "sus cuestiones de Mendiburu, semanario "Asteona"; 24 reales de los libritos". Ez dio besterik. Biharamun goizean Tolosara itzultzen da, ez ordea esku hutsik. On Pedro Gibelalde eta Florenzia Eznarrizaga kopiaitzaile-inprimatzaileentzat eskutitz bana baitarama eta Orkaiztegi, "Asteona" astekariaren apaiz sortzailearentzat, San Inazioaren *Vida bilingüe*-ren ale bat; berak mahai gainean uzten dio "el ejemplar completo de Mendiburu *Jesusen Biotzaren Debozioa*". Hurrengo eskutitzetan liburuaren paper-mota eta Hitzaurrea nolakoak izan behar duten bate-ratzen dira.

Ongi begiraturik, batek ez daki bietarik nork duen Mendibururen liburu-a argitaratzeko lehia handiagoa: Aranak ala Eusebio Lopezek. Honena agi-rian dago aurreko lerroak irakurririk. Mendibururenak haatik ez dio kuku egiten, zeren ordainkizunei buru egiteko biderik ez duelarik, dirua erdiestea –nahitaezko baldintza– bere gain hartzen du eta berehala hasten da adiskideei



eta lagunei, Oiartzunen ospatuko den mendeurrenaren berri ematearekin batean, dirua eskatzen eta biltzen.

Behingoan urrezko ontza ematen dio Sancha deitura duen Azpeitiko emakume batek. Beste emakume Maria Escuza deritzanak 100 erreal, Errenteriko Jose Gil de Zalakain apaizak 520 erreal, Federiko Belaustegigoi-tiak 100 eta Isabel Erkiziak 470, ez bere sakeletik, baizik ezagunen artean bildutik. D'Abbadie jaunak ere 1882ko Urtekariarekin batera 50 libera igortzen dizkio, eta Antonio Legorburu jaunak 60 erreal. Aranak bere aldetik lortu du Apezpikuagandik liburuaren erosleek irabaztea 40 eguneko bekatuen barkamena.

Lehenaz gaineko lantegi honek Arana eskribitzaile bat hartzera behartzen du: "El escribiente Angel de Agirre empieza a escribir". Beste leku batean kopiaitzaile deitzen du eta lanean hamabost egun daramanean, zortzi orrialde bakoitzeko zazpi erreal ordaintzeko ituntzen dira. Inprimatze lana Eusebio Lopezen gain dagoen bezala, salmenta eta zabalkundea egitea, dirudienez, Florentzia anderearen eta On Pedro Gibelalde apaizaren eskuetan gelditu da eta hartara hiru lagun zintzoren sorbaldetan atsedeten du Aranak. Biei buruz idazten baitu gauza bertsua: "Carta de D<sup>a</sup> Florencia con cuentas y lista de lo de Mendiburu", eta bi egun geroago: "Carta de Don Pedro Gibelalde con una cuenta y lista de nombres sobre lo de Mendiburu".

Baina berak bildua izan arren, diru horren jabe ez izaki Arana, etxeko diruzainari kontu eman diola diosku: "Al P. Ramón Mendiá 390 reales para la cuenta de D<sup>a</sup> Florencia y Sr. Gibelalde por lo de Mendiburu". On Gabino Sein, Oiartzungo apaizari egiten dion eskutitzaren gaia zein den ez digu esaten, baina ez zen oso urruti ibiliko: mendeurren egunerako festak nola antola pentsatzen hasteko ordua zela edo. Aranak bildu diruari aski irizten dio non-bait, zeren ez du eskupeko gehiagorik aipatzen.

Areago, laster hasten da Tolosatik probak zatika hartzen eta zuzentzen. Martxoa amaitu baino lehen hau irakurtzen dugu: "Carta y pruebas del primer pliego de Mendiburu por López", eta biharamunean iada zuzenduak itzultzen dizkiola. Apirila amaitu baino lehen, berriz, "pruebas de López con primer pliego en limpio". Probak aipatzen dituen ia aldiro Lopezenak dira, apirilean bost aldiz eta maiatzean beste lau, "carta y pruebas de López"; baina behin honako beste hau dio: "Cartas a D<sup>a</sup> Florencia Zabala –Zabala senarraren deitura da– y López, Tolosa, con pruebas". On Jose Joakin Egaña jaunak albiste hau ematen dio: "sobre lo del Centenario de Mendiburu y la instancia presentada por él y otros dos en la sesión de la Diputación de la noche del 14 de Abril y su retirada".

Ikusi dugu berriki Florentzia Eznarrizaga lanerako prest dagoela ("Carta de dicha D<sup>a</sup> Florencia con motivo del P. Mendiburu") eta Pedro Gibelalde ere bai, eta lan eske Aranarengana jotzen dutela batak eta besteak. Aranari ez zaio erraza guztiekiko oreka gordetzen. Errege ondorenean Urduñan izan zituen bisitatzen Zabala-Eznarrizaga senar-emazteak eta La Antiguan eman zien Aranak meza. Inauteri aurreko egun batean erregaliak igorri zizkioten eta Aita Txurrukari bereziki "arto-opila y lukainka" eta Jesusen Bihotzaren estanpak 1745ekoak, Mendiburuk Tolosan misioa eman zuen garaikoak. "A las 6 merienda-cena con "artopilla" y sidra de D<sup>a</sup> Florencia".

Liburuaren argitaratzea iadanik abian ipini badu ere, Oiartzunen Mendibururi egin behar zaion omenaldia prestatzen ez da hasi ere egin. Eskerrak han duen On Gabino Sein, erretore jauna, lagun leiala. Maiatzaren 14an egiten dio Aranak lehen eskutitza eta hark ez baitio erantzunik ematen, 19an eta 26an beste bi, lehenean baino zehazkiago gaia azaldurik: "carta sobre centenario Mendiburu" batean, "carta de ayer y apuntes sobre centenario Mendiburu" bestean. Orduan gogatzten da On Gabino Aita Aranari erantzutera, baina ez dugu ezagutzen eskutitzaren edukia. Edonola Aranak ekainaren 6an berriz idazten dio, auskalo zer; 9an On Gabinok "notas de parientes del P. Mendiburu" igortzen eta hurrengo kartan Aranak ez dakigun zerbait kontatzen. Azkenik uztailearen 7an, Mendiburuaren omenaldi eguna gain-gainean dagoenean eta berak Oiartzuna joan gabe gelditzera osotoro etsi duenean, "fechas del P. Mendiburu al Sr. Sein" igortzen dizkio, bera hartaz eta gainerako guztiaz ardura dadin. Hor eteten da bien arteko karta-trukea.

Zer gertatu da Arana halako etsipenean erortzeko? Ez dakigu, baina zerbait susma dezakegu, baldin lerro artean Aranari itzuri zaizkion esaldi batzuk hausnartzen baditugu. Maiatzaren azken egunean jakinarazten digu Aita Probintzialari idatzi diola "sobre *Loiolako Oroimena*, libro, y *Centenario del P.Mendiburu*". Gogoan dugu agian nola Eguberri egunean esan zigun eskutitz luzea idatzi ziola hari berari. Hark ez erantzun orduan nonbait eta orain berriz egin dio Aranak, itxuraz ondorio hobearekin, zeren ekainaren 4an Aita Probintzial Muruzabalen gutun bat eskuratzen du "sobre Mendiburu". Zer ziotsan ez dakigu, ez digu tutik kontatzen. Baina segi dezagun.

Oiartzun-inguruko apaizak ez daude geldirik, gogatsu eta maratz baizik mendeurreneko omenaldian esku hartzeko ("carta de Prudencia Ramos con copia del Sr. Vicario de Fuenterrabía sobre los sacerdotes del Arciprestazgo en el Centenario Mendiburu"). Arana ere ahal duen ate guztiak jotzen ari da, urrundik bada ere, jendea mugiarazteko. Gasteizko Eliz-auzitegiko Laureano Irazabal jaunari igortzen dio "apunte sobre el P.Mendiburu". Bonaparte Printzeari beste liburuxka bat. "2 pliegos Mendiburu" Kampion jaunari. D. M.

Zabaloren bidez Sein apaizari karta bat, helbide eta guzti, elizgizon honentzat: "Mr. l'abbé Duc, chanoine honoraire (bas. Pyr.) Punaster". Soraluzeke aldiz Aranari igortzen dio prestatu duen liburutxo bat Elkano, Mendiburu eta Iparragirreraren gainean. Baina Arana ez zaigu Urduñatik mugitzen.

Ikasturte bukaerako azterketen egunak hurbil dira eta mutikoek adorez eta kemenez ekin diezaieten, "kanpo eguna" delakoa eginez doaz Izarrara. "Vuelta todos a pie". Mutikoak aztertu behar dituzten irakasleak hasi dira hurbiltzen. Hauek bitarikoak izan behar dute akordioaren arabera: hiru jesuita eta lau laiko, hain batzuk zein besteak tituludunak. Oñatik datoz jesuitak: aita Ontaneda, Iñiguez eta Cienfuegos; Bilbotik laikoak: Mieg, Bereziartua, Laita eta Biel. Elkarrekin bazkari guri eta mardul bat eginez ematen diete amaiera.

Bizkitartean Urduñako jesuitak oporretara joateko epea heldu da eta uztailaren 4an Algortara doa Aita Arana ere, Aita Florez eta Etxeberriarekin. Han dagoela gertatzen da Mendiburu Italiako Bolonia ondoko aldira edo auzo batean hil zen egunaren, 1782ko uztailaren 14aren, mendeurrena, eta Oiartzunen apaiz multzoak eta jende xehe piloak jaialdi ederra ospatzen dute Arana gabe. Zerk etsiarazi dio Aranari Oiartzuna gabe gelditzera? Zer ziotsan Aita Probintzialak eskutitzean? Makurki pentsatu gabe esan dezakegula uste dugu honako hau edo arras antzekoa ziotsala: "Ez dizut ematen baimena Oiartzuna joateko". Egin duen okerren baten zigorra ote da? Geroak esango.

Azkena eta handiena balitz! Bestetara joatea ukatuko ez baliote! Aranari ez zaio jalkitzen haatik hitz samin erdirik ere, agian bai begitik malko beroren bat. Egun horretan EGUNARIAN hau bakarrik idatzi zuen: "Dia P. Mendiburu"

Biharamunean hasten zaizkio iada Oiartzungo omenaldiko berriak iristen: "15, sábado. Llega "Euskalerra" con lo de Mendiburu". "16, domingo. Parte telegráfico de Pº Soraluze sobre centenario Oyarzun". "17, lunes. De parte de López por el correo 12 ejemplares del papel "Oroimenac" y "recuerdo del centenario de Oyarzun". "19, miércoles. Carta de Dª Prudencia Ramos sobre la fiesta de Oyarzun". "20, jueves. Carta de Dª Florencia Eznarrizaga de Zabala sobre lo de Oyarzun". Hitz horiek aski klarki adierazten digute zenbatetaraino egin zuten Aita Aranaren mira bere lagunek egun eta toki hartan. Eskutitz horiek nahigabea hein batean eztatzen diote eta laguntzen oporrak ongi samar igarotzen.

### 3. ARANAK BI IDAZTIÑO (1882)

Aranarentzat uda hartako oporrak ez ziren izan besteetakoak bezalakoak. Hori sinestarazteko aski izango da esatea hiru bainu bakarrik hartu zitue-

la eta horietatik lehen baina beroa Areetan: "6 reales". Egia esateko, eguraldiak ere ez ziren gehiegi lagundu: "tarde lluviosa; lluvia, viento huracanado, tarde lluvia; vientos; vientos fuertes (se bañan algunos); tarde tormenta". Horiek dira bost egunetako eguraldiak. Batzuk ondoezik sentitzen dira ("delicados de estómago", "algo indispuerto"). Bestetan bezala ikasle eta guraso ezagunekin elkarteak eta topaketak egiten dituzte: Egidazu, Uribe, Chalbeau, Oraá, Galindez; bestetan bezala atze-aurre batzuk Areetara, Getxora, Santurtzira On Luis Izarekin, On Inazio Galindez eta On Blasekin, eta Lekeitiora Anduizaren alargunaren atoi-ontzian.

Mendibururen mendeurren egunean Plentziara joan zen Aita Florezekin, agidanean barneko penak eta bihozmina kontatuz. Sopelan, Getxon, Barrikan eta Etxeberrin barrena ibili ziren, Etxedun deritzan iturri ondotik, Plentzia gaineko basoraino joan, eta herrian 2,30etan sartu. Eliza eta Mentxakatarren etxea eta herriko plaza ikusi eta, 5etatik 8etara itzulia etxera, bero galdatan. Urduñara itzuli bezperan, berriz Algortara, Areetara, Portugaletera, Santimamiara, Deustura eta Olabeagatik tranbian Bilbora, tokian tokiko jende ezagun guztiei agur eginez, eta biharamun goizean Urduñarantz, hara 10,30etan iritsiz.

Etxeratzean Azilona jaunaren lehengo zenbait kapitulu haiek orain osatuak "Estatutos del Consistorio eúskaro de San Sebastián" aurkitzen ditu; Madame Daurys-i eskutitza idazten dio; eritetxera bisita egiten du; 9 mutiko morroi azpeitiar bi asteo oportetara bidaltzen dituzte; On Bizente Aizpuru legegizon azpeitiarrari *Congr<sup>o</sup> histórica de Iziar* liburuxoaz galdeginez karta idazten dio eta San Inaziori bere egunerako neurtitz batzuk bezperatik paratzen. San Inazio eguna hotsandikoa izan zen. Meza nagusia 9etan kantuekin eta armonioarekin. Egun horretan ezin huts egineko jendea han da; haien artean Fermin Alegria hortz-osatzailea, eta ikasle multzoa. Arratsaldean halaber Jaunaren Bedeinkapena handikiro.

Mendibururen mendeurrenaren sona ez da oraindik isildu. Soraluzek Larramendiren eta Mendibururen gainean eginiko idaztiño bat argitaratzen du Gasteizen. Eusebio Lopez etengabe ari zaio Aranari Mendibururen probak igortzen eta hau zuzenduak hari itzultzen. D<sup>a</sup> Florentziak eskutitz bat idazten dio "sobre 573 reales de Mendiburu". Posta egiztatuz "llegan las mil y pico fotografías de la Vda. Sandinos (Paris) para Mendiburu", gero Eusebio Lopezi helarazten dizkionak.

Ez dira eskas euskal letrei buruzko berriak, zein ere xumeak diren. Hona batzuk: Aranak bere bi idaztitxo ematen dizkio etxeko Buru, Aita Sorondori "para la censura y revisión". Eta horretaz gain: "*Teoría de la poética en preguntas y respuestas*, eta *Officium trilingüe SS. Cordis Iesu*".

Iruñetik "Euskara" izeneko aldizkariaren 49. zenbakia hartzen du, 217. orrialdean honela hasten dena: "*Loiolako oroitzu txiki bat*"; eta Aita J. Eugenio Uriarteren eskutitza ere bai, 1761an Liman eginiko euskal bertsoekin, Madrilen On Manuel Goikoetxea liburuzainak kopia omen dituenak; bai eta Tolosako apaiz Patrizio Orkaiztegi jaunaren euskarazko neurtitzak, Izaskungo Ama Birjinari eginak.

M<sup>a</sup> Cruz de Ortiz, Saratxoko andereak, bi liburuok helarazten dizkio Aita Rodelesi: *Vida de San Ignacio* eta Kardaberazen *Vida de la Venerable Madre Josefá*; eta On Meltxor Andosegi apaizak halaber Begoñatik, Eustakio Madinak bi hizkuntzatarata itzulitako Santa Teresazko orri alderrai bat. On Ebaristo Txurrukak Bilboko zein-hobe lehiaketako euskal olerkia igortzen dio; bai eta Eusebio Lopezek Tolosatik, Aizkibelen *Hiztegia*-ren hiru iragar-kiz gain, Santa Teresaren *Besamanos y Eskumunak* inprimatua; eta halaber Aita Luis Segurak Oñatik bere *Antídoto a fábulas* liburuaren ale bat.

Aranak gaztetan Carrionen ondu zuen antzerkia -inoiz "drama", inoiz "trajedia" deitzen du- ikasleak hasi zaizkio kopiatzen, eta Sebastian Aldalurrek berekin daramatza obra horren lau "koroen" letrei musika ipintzeko. Ez dakigu zer dela-eta, "Karitateko Alabak" deriztenetako Sor Antonia Domingo bati, idatzi zion Aita Aranak *1762ko Gabon Sariak* eskatuz eta bide batez liburutxo bat igorritz. Hilabete baten buruan hark idatzi ziola badakigu ("Carta de Sor Antonia Domingo"), baina zer esaten zion ez. Ez ahantz, gainera, goraxeago ere aipatu zaizkigula Madrileko Sor Antonia Domingo eta "Gabon-Kantak", 1762koak.

Mendibururen mendeurrenak, udako oporrek eta hainbeste eskutitz idatzi beharrak pixka bat ahantzarazi diote Aranari inguruko herrixketako elizlana. Aloriako Eliza berria, esate baterako, azken apaindurak hartu zain dago bedeinkatu eta kristaumentzat irekitzeko: "Iglesia nueva con bóveda nueva"; "dos capas pluviales para Aloria y piano"; "A Aloria con Mariano pintor; Iglesia casi toda embaldosada".

#### 4. MUTIKO BAT HIL (1882)

Ikasturte berrirako zenbait aldakuntza eta berrikuntza egin beharra sentitzen zuten lehendik ere eta "recibidor nuevo alfombrado" egiten dute eta hara jaisten Kontzepzioko kuadroa. Komunak hala modukoak ziren nonbait eta "se han hecho dos nuevos escusados para los PP., del nuevo sistema de limpieza". Batez ere toki handiagoaren beharra dute somatzen hain estu ez bizi-

tzeko, hala irakasleak nola ikasleak. Horretarako kolejoaren alboko etxe bat erostea erabakitzen dute eta 22.000 erreal ordaintzen. Fisikako gabinetea hobeki hornitu nahi lukete eta aparailu eta lanabes berriz dohatu. Hori dela eta, "llegan una buena máquina magneto-eléctrica de Mr. X (ez zaio gogoratzen izena) y otras máquinas".

Ikasleak 180 izango dira gutxienez eta, ikasturtea irailaren 15ean hasten baita, ez urriaren 1ean, bezperan egiten dute irekiera mezatan "Veni, Creator", ohi bezala, abestuz jende piloarekin. Han dira guraso zahar eta berriak eta ikasketak bukatu dituztenenak bakarrik falta dira. Orain arte beti mutikoen aitak aipatu izan baititugu, oraingoan aipa ditzagun amak: Llona, Virginia Sautu, Barona, Eznarizaga Florenzia eta koinata Demetria Zabala, Markesa Sardoal Arostegi, Escuza, eta abar. Ameriketara diru piloa egin eta hamazazpigarren mendean ikastetxea eraiki zuen herriko seme Urdanegi jaun gogoangarriaren urtehurrena laster da eta haren oroitzapenetan hotsandiko meza da Elizan.

Bilboko festak ere orduantxe ohi dira eta Tartangako Benta gainean ikusten dituzte Bilbora jaisten zezenak. Aristides Artiñanok pare bat egun lehenago egiten dio bisita. Igokunde aurreko zortziurrenean urteroko gogojardunak egiten dituzte. Ez diosku deus Aranak, Kristoren Erregetzaz egiteko asmoa zuen poema hartaz, ez eta inolako bestelako asmoz. Bukatzean bi lagunek egiten dituzte azken botoak, bietako bat Aita Aizkorbe, eta eguerdian festa egiten diete etxeko lagunak: "Versos en refectorio y café, cánticos, chilibitas. Refresco a las 6". Egun batzuk lehenago Anai Arturo Oliver-i, etxez aldatzen delako, Aranak *Octava Real* bat egiten dio.

Irailaren 1ean parrandan ibiltzeko umorearekin jaiki da Arana, dirudiezez. Laudiora doa Aita Txurrukarekin, han honen beste bi anaiekin elkartzeko asmoz. Beste jauntxo batzuk ere han dira; hala nola Federiko Belaustegigoitia, Olabarria, Lucas, Guinea familia Galo Sauturekin, honen anderea eta Bazterra jauna. "Encuentro con ellos en Amurrio".

D'Abbadie jaunak hiru egunetan bi eskutitz idazten dizkio. Lehena Paristik Haitira doala esanez. Bigarrena "por el correo de parte de Mr. Abbadie el nº 42 (Set. 15-82) de la revista "La Reforme Sociale" con artículo de D'Abbadie sobre "La municipalidad del pueblo basco", según su carta de anteayer". Ez dakit Aita Manzanedo, hizlari famatua, gai horren berorren alde mintzatu zen Bilbon pulpitotik (ezetz uste dut); badakit aldiz espetxean sartu zutela hantxe urriaren 12an "por su sermón de San Antón".

Iruñeko Apezpiku Jose Oliver y Hurtado jauna, izen bereko jesuitaren senidea, tarrapatan dohakie telegrama bidez bisita iragarritz eta hamar egun iragaten ditu han. Egun berean iristen da Aita Probintziala Francisco de Sales

Muruzabal; honek ordea astebete baizik ez du han igarotzen. Esan ote zion Aita Aranari zergatik ez zion utzi Oiartzuna joaten? Galde ere egin ote zion Aita Aranak?

Urriaren lehen egunetan elgorria sortu zen berriz zenbait ikasleren artean, oraingoan iaz Sabino Arana jo zuenean baino bortizkiago: "seis niños con sarampión". Hori urriaren 6an eta lau egun geroago "los niños enfermos del Colegio de sarampión son hoy 11; siguen mejorados casi todos". Baina guraso batzuk ez ziren iritzi bereko eta "dos médicos de Bilbao por los dos enfermos Saracho y Encío". Aita jesuita batzuk ere kutsatu dira, dirudienez, eta Arana gaixo daudenen ordezkariak ematen eta guztiekikoa egiten, danera ezin iritsirik dabil. Aita Florez da erietako bat eta honen ordezkariak hamai-ka egunez eman behar izan ditu.

Guztietan larriena haatik Gasteizko mutiko Fernando Turnau dago eta han ditu ohe ondoan etxeok. Olabide jaunaren iloba da. Sarachok eta Enciok hohera jo eta are jaikitzen hasi direla esaten zaigun bitartean, Turnauren egoera ez da batere hobetzen; gurasoak eta osaba Olabide han daude kolejioko eritegian: "esta mañana a las tres o antes accidente grave del niño Turnau; llámase al médico; se le da la unción y después vuelve en sí". Eguna joan, eguna etorri lelo triste bera entzuten dugu: "sigue grave el niño Turnau". Eguberri egunean "sigue algo peor el niño Turnau" eta biharamunean "muere esta mañana entre 7,30 y 8 el colegialito Felipe Turnau, de Vitoria, hijo de D. Gumersindo Turnau". Gero betikoak: meza, hileta, gorpuari Bilboko bideraino ahuku egitea etxeok guztiek uniforme jantzian eta txaranga jo eta jo ari direla. Gorpua Gasteiza eraman zuten.

Arana eritegi zalea dela badakigu. Eguberrietan beharrak handitzen dira eta prest dagoen jendea gutxitzen; hori dela eta, astebetean hiru bider eman behar izan du han meza. Garai horretako bisitarien artean bat On Telesforo Monzon da bere seme Bizenterekin Bergararik etorria; bestea Azpeitiko brigada-buru karlista Aizpuru jauna. Eta mutikoen gurasoak, zer esanik ez. Esku hutsik ez, gainera: "Vienen desde hace tres días dulces, capones, botellas y otros regalos de Navidades de parte de las más de las familias de los colegiales". Bestetan ez aipatuak bakarrik ipintzeko: Llamas, Zelaya, Angulo.

Azaroaren 19an iristen zaie "notición del futuro colegio en Deusto". Delmas argitaldarien izena azaltzen zaigu berriz: "Cartas y pruebas de impresos de parte de E. Delmas con dos ules", eta biharamunean erantzun diola eta probak igorri. Abenduaren 8an hogeita hamabi mutikok egin zuten lehen Jaunartzea. Eta bi egun geroago, bukatzeko hona Aranaren izkirimiria: "hoy día DIEZ en la misa de DIEZ predica el P. DIEZ".

## 5. SERMOIA vs. DOTRINA (1883)

Aranak goizeko 6,15etan eritetxean meza emanaz hasten du Urteberri eguna eta Errege egunean ere hartuko du astia hara beste bisita bat egiteko. Gero eguerdian bazkari handia, hori bai. Gomitatuen artean Fermin Alegria. Beste familia asko ere han dabil semeak ikustera joanda. Gehienak lehendik ezagunak: Tolosako Zabala familiako Florenzia eta Demetria, Txurruka, Barona, etab. Turnau familiak zorigaitza jasan berriegia du han azaltzeko, baina egun batzuk geroago bai, badoaz eta opari egiten dute: "un grande y magnífico estuche de servicio completo de 12 cubiertos (cuchillos, tenedores, cucharas, etc.)".

Emaitzen artean kontatzekoa da Erreteritik hartu zutena. Urduñan opor eta jaiegunetan biltzen diren jaunen artean behin baino gehiagotan aurkitu dugu semea ikustera joandako baten Amezttoy deitura. D. Benito de Amezttoy Erreteriko fabrika baten nagusia zen nonbait eta hona erregalia: "Hace pocos dias llegó de la fábrica de Rentería una gran cantidad de lienzos blancos en piezas de fábrica para el Colegio, de valor de más de 2000 reales, regalo de D. Benito de Amezttoy". Fabrika honetaz esana zigun Aranak 1868an, Erreteritik erbesterantz lehen aldiz igaro zenean, 800 langile zituela. Askotxo orduko!

Familia berriak bi bakarrik aipatzeko, Zatarain, Usurbildik semea ikustera etorri den ama, zeini Aranak bi euskal liburutxo zorrorarazten baitizkio, eta Larrazabal; gero Escauriaza eta Ampuero ere bai, Aste Santuko jaietan. Ignacio Ibero etxekoa bezala dute, orain gainera alkate izendatu berria da eta Aita Venanzio Legarrarekin batera doa. Bertakoentzat ez da dudarik oporrak egun aproposak direla paseatzera irteteko eta, batean Artomañan zehar Unzara eta bestean Aloriara ibilirik, konturatu gabe itzurtzen zaizkie egunak. Han ditu beti laguntzeko prest Aita Florez eta Don Ramon.

Hilaren 7a, domeka, egun handia izan zen Aranarentzat. Goizean eritetxean eman zuen meza eta gero egun osoa Alorian; hango eliza berri San Juan Bautista izena daramanaren bedekitze eta dedikitze festa ospatu zuten, inguruko herri Delika, Artomaña, Tartanga, Antigua, Lekamañako apaizekin eta Urduñako eta beste herrietako jende askorekin batean. Sermoa Aita Aranak, jakina. Arratsaldean, ohi zen bezala, bezperak, errosario etab. elizan, eta kanpoan kanpai-hotsa isildu gabe eta suziriak. Eskupekoren bat hartu zuen Aloriako elizarako, hala nola Florentzia Zabalaren 100 erreal.

Mendibururen mendeurrena antolatzeke hartu lanekin ez da agortu Aranaren euskal letren aldeko ekintza, ez eta samindu haren espiritua



Oiartzungo omenaldira joaten ez utziarekin. Etengabe hartzen eta itzultzen ditu Eusebio Lopezek igortzen dizkion probak. Mendibururen *Jesusen Biotzaren Debozioa* liburuarenak dira eta urtarrilaren 20an esaten digu 179. orrialderainoko errenkada egina dela eta zuzendua. Inprimatzailea bera joaten zaio Urduñara otsailaren 27an lana lasterarazteko eta apirilaren 17an zazpigarrenetik 22garrenenainoko probak eta pleguak iada eskuan ditu. Martxoaren eta apirilaren artean hamazortzi bider gurutzatu dizkiote elkarri probak.

Bestelako letra lanak ere baditu etxean. "Resumen de ministerios del 81 al 82" eskatzen dio Aita Probintzialaren laguntzaile eta bere lagun kide Aita Gallo zoliak, urte batzuen buruan Loiolako Erretore eta hantxe Erretorikoen irakasle izango denak, eta Aranak egun batzuen buruan igortzen dio. Zenbait kolejio eta bestelako jesuiten bizitexetatik hasten zaizkio iristen "Urteko berriak eta historia" deitzen zitzaien "Annuae et Historia Domus"-en 1880tik 1881era eta 1882rainokoak. Oraindik 1876tik 1880rainokoak bukatu gabe ditu eta apirilaren 6an irakurtzen dugu lehen aldiz "1º ejemplar limpio del cuadrenio de *Historia Provinciae Castellanae* 1876-1880" eta aste pare bat geroago Loiolara igorri diola Aita Probintzialari.

Eginkizun txiki batzuk ere sortzen zaizkio eguneroko bizitzakoak. Liburutegiaren eta artxiboaren arduradun denez gero, bere gain da liburu berrien erosteaz axolatzea, eta hala "llegan compradas para la biblioteca algunas obras buenas, como *Historia Ecclesiástica* por Henrion e *Historia Universal* por César Cantró". Aldizkari berri "AURRERA, Revista decenal ilustrada" (para enaltecer las glorias de las provincias vasco-navarras) Madrilen sortu den baten lehen alea igortzen dio Madrildik Daniel de Basalduak. Bi egunetara "carta a D. Daniel de Basaldua y devolución del nº del AURRERA a su Administrador (S. Marcos, 10, 2º, izda, Madrid)". Baina hamabost egunik gabe Daniel de Basalduaren "epistola" hartzen du, "con oda impresa "AURRERA!", por Allis de Ansorena".

Beste zenbait arazo, berriz, arras pertsonalak ditu. Durangon Euskal Festak nahi lituzketela eta, Orue Carlos apaizak eskutitza egiten dio eta Aranak berehala d'Abbadie jaunari helarazten. Arroako apaiz Eusebio Etxanizek bertsoak eskatzen dizkio, bai Aranak laster igortzen ere "Misiolarien etorrera" izenburu dutenak. Lehengo urteetan ikusi dugu nola otsailaren 2an, Ama Birjinaren Elizan sartze egunean, izaten diren zenbaiten azken botoak, baldin egin beharrekorik etxean egokitzen bada. 1883an hiru apaiz bizi ziren etxean azken botoak egin behar zituztenak: Aita Palacio, Diez eta Alcolado. Bazkaritan hirurak mahaiburuan jarri baitzituzten, oihal gorri bat eta San Inazioaren irudia atzean zituztela, Aranak honako lauko txiki hau bota zien:

Con idénticos primores  
por corola a San Ignacio  
brillan hoy tres flores  
Diez, Alcolado y Palacio.

Hori bai, arratsaldean Saratxon barrena Artomañara ibilaldia Aita Florez eta D. Ramonekin. Handik hamar egunetara badute beste festagaia: "Aniversario, 13 años de principio de este colegio en 1870; de entonces solos los PP. Izaga y Arana y los HH. Domingo Iribe y Inchausti Juan", nahiz hasieran 14 lagun ziren etxean elkarrekin bizitzen: lau apaiz, lau jesuita gazte, oraindik meza eman gabeko ikasleak, eta sei Anai laguntzaile. Astebate bat geroago beste festagai bat: "Comunicación de la Asociación Euskara de Navarra sobre medalla y diploma al P. Oliver por sus versos al P. Mendiburu".

Garizuma heldu zaie eta hartarako mihi eta hauspo ona dutenak hasi dira prediku lanetan. Garai hartan oraindik, ehun eta berrogeita hamar urte lehenago Larramendi Loiolara iritsi zenean bezala, ongi bereizten zituzten zer zen "sermoia" eta zer "doctrina", ordukoak baitira hitz hauek: "1735. El día 25 de marzo predicó la *doctrina y ejemplo* el P. Manuel de Larramendi...". Halaber Aranak idazten du: "*Sermones* de Cuaresma del P. Ministro en Santa María; id. los viernes *Instrucciones doctrinales* el P. Quiroga en San Juan".

Karten itaizura ez da agortzen. Apezpikuaren iloba eta Valladoliden bizi den merkataria D. Miguel Yurritak noizean behin idazten dio karta; orain aste batean bi, bigarrena euskaraz eta bi hilabete baino lehen beste bat. Poyannetik Madame Daurys eta Estherek ere bai. Eustakio Madina, Okendoko apaizak, eskutitzaz gain *Ferrocarriles de Ultratumbas* orrialdearen euskal itzulpena igortzen dio, eta hori gutxi balitz bezala, hiru egun geroago bertara dohakio itzulpenaz hitz egitera. Miguel Ortigosak eskutitzarekin batera bertso batzuk eskatzen dizkio eta Aranak, poetak esan bezala, "en horas veinticuatro" eskaileen eskuetara zituen. Zeberioako kristauek erromesaldirako bertsoak eskatzen dizkiote eta musika eta letra igortzen dizkie.

## 6. LA PIA UNION(1883)

Arreba Justarekin gertatu zitzaion penagarria! Idazten dio honek Azpeititik Aita Probintzialari, izeba Paula Unanue Aranaren heriotza santuaren berri emanez eta bere ahizpa moja bisitatzera Mirandan barrena Valladolida doala esanez. Aita Aranari beste horrenbeste egiten dio. Honi anai-arrebek elkar Mirandan ikusteko parada polita dela iruditzen zaio, eta Aita

Probintzialari baimena eskatuz eta honek emanaz, han doa kotxean pozik asko apirilaren 25ean gizonetzko eta emakumezko batekin. Ez alferrik! Ohartu gabe Bilboko tren a igaro ez zitzaien, bada!: "Pasa el tren de Bilbao sin advertirlo".

Aranak ez zuen haatik eguna alferrik galdu: "a casa de Olarte...; al Convento de la Congregación de los Sagrados Corazones de Jesús y de María, sus obras; parroquia de Santa María; familias de Encío...; familia de la Vda. de Olarte; D. Isidro Rojo, pbro, párroco de Santa María". Biharamunean Urduñara goizeko seietako trenean. Halere musu-huts geldi ez zedin, Loiolara arreba Justa kontsolatzera joateko baimena ematen dio Aita Probintzialak, baina ez da uda heldu arte joango. Loiolari dagokionez, albiste on bat iritsi zitzaien apirilaren 15ean: "Acuerdo de la Diputación de Guipúzcoa sobre concluir la obra de Loyola".

Martxoaren erdi aldean oraindik hotz eta izotz beldurgarriak dituzte: "amanece un palmo de nieve y sigue nevando"; "siguen las heladas y la media vara de nieve; sigue nevando casi todo el día"; "helada, 4 grados bajo cero"; "gran helada sobre la nevada, aún de un palmo". Hori dela kausa, Aranak martxoko berrien azkenean hitz hauek eransten dizkie 31ko albisteei: "Este mes relativamente mucha mortandad y enfermedad en Orduña, especialmente entre pobres soldados". Aste Santuko elizkizun guztiak, halere, ohi bezala ospatu omen ziren, ikasleen zenbait guraso han zirela, eta hauetaz gainera hiru Fraide frantziskotarren bisita izan omen zuten eta elkarrekin bazkaldu. Bat Jose Epelde, azkoitiarra, Kantabriako Probintziala, Aita Aranaren aspaldiko laguna zen, eta beste biak Fr. Inazio de Egia Otxandiokoa eta Fr. Angel.

Bizpahirutan aipatu dugu Aita Aranaren ospitale edo eritegietarako joera izugarria. Urduñan lehen egunetik hasi zela esan dugu bisitak egiten. Gutxi dira batere egin gabeko asteak. Baina eritegietan gaixoez gain mojak bizi dira eta ezinbestean horiekin ere harremanak sortzen zaizkio, konfesatuz batez ere, eta bat baino gehiago dira han ezagutzen dituen neska gazte erizainak, moja sartzen dituenak. Azken egunetan sartuak Matea eta Prantxiska.

Baina hori Aranarentzat gutxi da, horrek ez du asetzen eta, orain arte horrelako hitzik esan ez duen arren, hara nola jalkitzen zaion behin lumatik: "Siguen bien las señoras unidas de las caritativas"; eta nahiz lehen irakurtzean ez dakien batek zertaz ari den eta zeri dagokion, biharamunean ezartzen dituen hitzek argitzen dute gaia: "Bases y reglamento de la Pia Unión de Enfermeras de Pobres" eta esaten du batek: "Aita Aranak mojen Kongregazio baten sortzaile izan nahi du, alajaina". Egun gutxiren buruan, San Joseren Zaindaritza egunean, agertzen da lehen aldiz gehiagoren artean emakume baten izena, Casimira, Kongregazio edo Biltzar berri horren buru izateko

traza duena: "PIA UNION con D<sup>a</sup> Casimira Herran, D<sup>a</sup> Juana Aristegi, D<sup>a</sup> X Lezama, D<sup>a</sup> Rosa Lezama, D<sup>a</sup> Jesusa Luna", eta ondoko hiruzpalau orrialdeetan bost bider azalduko dena: "La Casimira y Jesusa con la lista de 24 señoras de la PIA UNION y 184 señores". Beraz ez dira emakumeak bakarrik. "Comunicación de la UNION PIA con el P. Palacio; D<sup>a</sup> Casimira y el P. Rector, que queda con el Reglamento".

Aita Arana ez dabil txantxetan eta Gasteizko Apezpikuaren oniritzia-edo nahi luke eginahalean. Antiguako Ama Birjinaren festa eguna dela eta, Apezpikuaren eta bere idazkariaren han egoteaz baliatzen da, honi berak egin Araudia emateko: "El Sr. Secretario D. Prudencio Cabezón lleva lo de PIA UNION". Lagundiko Buruek ez deritzate kontu horri txantxetako jolasa eta ezin dute begi onez ikusi Aita Arana halako saltsan sartua ibiltzea. Hala Aranaren kako-mako eta asmazioak lehen bait lehen errotik erauztea erabakitzen dute, Urduñatik kanpora jaurtikiz. Gai hori azken aldiz aipatzen duen aldian hauxe dio: "D<sup>a</sup> Casimira Herran y Jesusa Luma sobre PIA UNION". Zortzi egunen buruan Bilbon zen, Loiolara bidean. Loiolan ere, ordea, buruan erabiliko ditu txori horiek, ikusiko dugunez.

Orduko, esan bezala, Antiguako Ama Birjinaren festa handikiro ospatua zuten bere egunean, martxoaren zortzian ("música hasta más de las diez"). Bost egun geroago, Pentekoste igandean hasi eta ondoko lau egunetan joan ziren erromes Antiguara inguruko herrietako kristauak, egun bakoitzean herri bana: Amurrio, Arciniega, Gasteiz eta hango Apezgai-etxea, azkenik Urduña, aldiriak eta kolejioa bera. Biharamunean Apezpikua eta Gubernaria han zirela, "Mariaren Konpainiako Irakaskuntza-kolejioa" deitu izan zen ikastetxearen lehen harria bedeinkatzea egin zen. Mutikoek 5etatik 7etara "Academia de Física Experimental: electricidad estática" izan omen zuten.

Orduko halaber d'Abbadie jaunaren eskutitz bat hartua zuen "sobre lo de Durango y Marquina, Juegos Florales". Durangoko apaiz Carlos Oruerekin aspalditxotik dakar karta-truke handi samarra eta Tolosako Eusebio Lopezekin etengabeko probak elkarri igortzea. Oker ez bagaude, lehenbizikoa den eta ondoko asko izango dituen beste euskaltzale baten kartatxoa hartzen du egun haietako batean: "Cartita de D. Antonio Arzac, San Sebastián".

## 7. VEDRUNA ETA AZARA (1883)

Hainbestez Aita Probintzialaren Loiolaratzeko agindua ezin beterik ez du, eta bideari lotzen zaio maiatzaren 30ean. Ez doa esku hutsik. Aita Uriartek

argitara berria du Antiguako *Ama Birjina*-z liburua eta Aranak bi ale daramatza berekin Loiolara. Bilbon egiten du, ordea, hiruzpalau eguneko egona.

1883ko ekaina ez da, izan ere, beste ekainak bezalakoa jesuitentzat. Ehun eta berrogeita hamar urte dira Aita Agustin Kardaberazek ekainaren 12. egun batean, egin zuela hantxe bertan, San Andres kolejioko elizan, artean Espainiako ezein elizatan inork egina ez zuen Jesusen Bihotzaren eta harekiko debozioaren gainean sermoia, eta hori dela kausa, Jubileu Handi delako urtea ospatzen hasiak dira jesuitak. Hilaren lehen egunean han da Aita Arana, eta nor egokiago arratsaldeko elizkizunean gai hartaz mintzatzeko? Hala egiten du.

Abandoko Erresidentzirainoko bidean baditu lagunak: Estanislao Labairu eta Silberio Etxebarria. Beste lagun batzuk agurtzeko ere badu astia: D. Pascual Isasi, D. Benigno Orbegozo, Egidazu eta Alegria Fermin. Biharamunean Durangora trenean. Han zortzi minutuko (hala dio berak) hitz-mitz txiki bat Aita Lasa eta Apraizekin egin eta, berlina batean Loiolaraino Antolina Areilzaren senarrarekin; Miguel Areilzarekin batera Donostian bizi omen baita. Arratsaldeko 3etan kiskaltzeko moduko berotan jotzen dute Loiola.

Urte eta erdi baizik ez da Loiola utzi zuela eta hona berriz ere bertan. Ekainaren lehen igandean han ere festa handia, jakina, Jesusen Bihotzaren hila dela-eta; baina arratsaldeko euskarazko sermoia ez du Aranak egingo, Aita Oyarzunek baizik. Lehen egunetan senideen eta ahaideen agurrak eta komentuetako mojen bisitak ditu, aspaldian elkar ikusi ez balute bezala. Ezin utzizko beste lana du, oina Loiolan ezarri eta juxtu astebetara, Azpeitiko ospitale-ra joatea, Aita Ziaurriz lagun duela. Eta ezin utzizko aisia, inguruko muinoetan ibilaldiak egitea. Aurki arakatzen ditu Aldakaitz, Munategi, Iturrigorri eta Errekarte; bai eta Kiruri eta Azkiola ere, Zabale gainetik gero Olatzera jaisteko; bai eta beste batean Landetan zehar "Urbiti (Ur-bi-tia)" (hala dio), Antxieta zahar eta Kastiellara.

Komentuetan bisitatuena Azkoitiko Santa Krutz eta Santa Klara ditu, bidezko denez, han inguruan eman baitzuen haurtzaroa. Lehenean tratua handia du Sor Rosa de Santa Gertrudis presidentarekin; sarri idazten dio eskutitza mojak eta sarri joaten zaio Arana bisitatzerara. Ezagun eta adiskide pilo batekin egiten du topo Azkoitian: apaiz Aldalur, Zendoia eta Belokirekin, eta Irizar jaunarekin, zeinen semea baita Santa Kruzko bikarioa. Azpeitian Eleizgaray aitona bisitatzen du, alaba Juana ezkondua duena Fernandezekin, eta Josefa Iriondo okina eta Martinez ama-alabak, inprimatzaileak ("cuestión de libros"), eta Joakina Segura eta Azpiroz jauna, Elias Urduñako ikaslearen aitona.

Laster egingo ditu lagun berriak eta are bizian izango dituen atxikienetakoak, hiru ama-alaba. Hotsandiko deiturak dituzte, Vedruna eta Azara. Antonia, ama, Vedruna baten alarguna da eta bi alaba ditu, Nieves eta Pilar. Biotan lehena Azara batekin ezkondu, alargundu eta bi seme-alabarekin, Pilartxo eta Inaxitorekin, bizi da. Eta ez gaizki, dirudienez, morroiak ere bai baititu, laster jakingo dugunez. Bidegoianen bizi dira, gezurra badirudi ere, argiro salatzen baitute hain gurasoen deiturek zein alaben izenek jatorriz ez direla euskaldunak. Bestalde Zarautzen ere badute beste bizitetxe bat, beraz ez dira eskekoak.

Aranak ez digu ia beste argitasunik ematen familia eta deitura horietaz, gero horiek askotan aipatu bai. Hemendik aurrerakoa Enziklopedia batetik edoski dut edo bestela Donostiako Elizbarrutiko Artxibotik atera, esango dudan bezala. Bai batetik bai bestetik oso gauza gutxi, egia esan. Horrek berorrek haatik zerbait erakutsi digu: denbora gutxi zeramatela hemen bizitzen, zeren heriotzako liburuetan bakarrik aurkitu baitugu haien izena, birena, eta ez bataioko eta ezkontzakoetan. Alegia, ezkontuta eta seme-alabak berekin zituztela etorriak ziren Euskalerrira, Bidegoianera bederen, nik horko liburuak bakarrik aztertu baititut.

Ez da zer mintza Vedruna deituraz; aski da Joakina Vedruna izendatzea, Karidadeko emakume Karmeldarren Kongregazioa sortu zuena eta Santa izatera berriki heldua. Azara deituraren jatorria Huescan omen dago eta bi Azaratar XVIII. mendean pertsonaia ezagunak izan ziren, bat batez ere, Arazoen arduradun eta Espainiako ministro botere guztiko eta Estatuko kontseilari izan zena. Urte haietan, hain zuzen, Ciudad Realgo Apezpikua Antonio Cascajares Azara jauna zen, Loiolan 1883ko irailaren 8an izan zena, apaizgoaren lehen maila ohi diren "Ordena txikiak" jesuita gazte 30 baino gehiagori ematen; haietako bat Inazio Olabide, Raimundo baino hiru urte zaharragoa.

Nola, noiz eta zergatik ez dakigula, hiru ama-alabak eta Nievesen bi seme-alabatxoak Erniopeko Bidegoianen bizi direla esan digu Aita Aranak, non baitzen erretore D. Jose Antonio Arrue, eta gainera Zarautzen ere badutela bizitetxea. Eta hara non jakin dudan berriki Zarautzen badela Azara izeneko kalea, izen hori aspaldi samarretik duena, herriaren parte zahar rean baitago. Horrek biziki zirikatu du ene jakinmina eta aritu naiz Zarautzen batari eta besteari galdezka, baina egin ditudan ahaleginak gorabehera, ezin ikasi izan dut nondik datorkion Zarauzko kale bati halako izena. Nievesen senarragandik? Nor zen, bada, eta zer izan zen, bada?. Entzun.

Esan bezala, Donostiako Elizbarrutiko Artxiboak beste inon aurkitu ez dudan informazio hau eman dit. 1883. urtean hil zen Bidegoianen Nieves

Vedrunaren senarra, Azara, bi seme-alabatxo utzirik: "mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver del *ilustre* Don Ignacio de Loyola, María, Abdón, Senén, Luis Gonzaga de Azara y López Fernández de Heredia, natural de Zaragoza, hijo legítimo de los *muy ilustres* SS. D. Agustín y D<sup>a</sup> María de los Dolores, esposo de D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Nieves de Vedruna, vecina de Goyaz". Otsailaren 8an hil zen 40 urte zituela. Ez zen, horratio, ijitokumea!

Hiru urte eta erdi geroago Nieves eta Pilaren ama: "el 30 de agosto de 1886 dí sepultura eclesiástica al cadáver de D<sup>a</sup> Antonia de Fiol y Miguella, natural de Barcelona, de 77 años de edad". Gurasoak aita Palmakoa eta ama Barzelonakoa omen zituen. "Era viuda de D. Mariano de Vedruna, natural de Mataró, Barcelona".

Ez digu informazio honek dena argitzen, baina zenbait puntu bai. Orain badakigu, adibidez, Azaratarrak joan zen mendean "muy ilustres" zirela eta Jose Ignacio bera ere bai, "ilustre", -aski da hori sinesteko Jose Ignacioren izen guztiak irakurtzea-, eta ez gara harritzen, hura hiltzean, Nievesek eta bere senar Azarak Zarautzen ere pisua zutenez gero, Udalak herriko kale bati hain etxe handiko gizasemearen deitura izen ematea. Euskalerrira zergatik etorri ziren bizitzera ez dakigu, baina noiz etorri ziren, edo hobeki esan, noiz ez ziren etorri bai: ez bederen Nieves Vedrunak eta Ignacio de Loyola Azarak bi seme-alabak izan baino lehen, bataio liburuetan ez baita horien izenik ageri, esan bezala.

Orain ulertzen dugu halaber zergatik duten beste bizitetxea Bidegoiangoaz gain eta zergatik zituzten beren artean ikamikak, Aranak dioskun bezala: diru faltarik ez baitzuten, dirudienez, eta aitzitik Zaragozan eta Bartzelonan gurasoen ondare eta ondasunak bai, agian. Azkenik orain aise ulertzen da zergatik Pilarek idazten dion denboraldi batean Aita Aranari Bartzelonatik, zeren aita-amak han jaiok izanik, oraindik han ahaideak izango baitzituen, eta pisuren bat beharbada.

Vedruna jaun zenduak zein izen zuen ere orain ikasi dugu, Mariano, bai eta Antonia alargunaren deitura zuzena ere, Fiol. Aita Aranak behin bakarrik aipatzen du: adierazten digunean haren hilberria heldu zaiola, eta nik oker "Fiel" aditu uste izan dut, ez "Fiol". Vedruna Fiol ziren, beraz, bi alaben deiturak.

Horiek horrela direla, ama Antonia 1883ko uztailaren egun batean Loiolara doa aita Aranarekin mintzatzera eta bi egun geroago berriro. Hau da Aranak egiten duen familia horren lehen aipamena: emakume hori hitz egitera joan zitzaiola, lehendik ezagutzen zuen ala ez esan gabe. Biharamunean Nieves Vedruna joan zitzaion, Pilartxo bere alaba txikiaz hitz egitera, Bilboko moja-kolejio batera igorriko, bai ala ez. Lauzpabost hilabete dira senar gazte

Ignacio de Loyola hil zaiola. Hiru egun geroago ama berriro dohakio Aranari, bere beste alaba Pilarrekin "sobre lo de Goyaz" solastatzera. Zeren badirudi ezen beren artean zenbait gatazka eta eskatima zituztela; ikus bestela: "Pilar Alzuru sobre las Vedrunas" hitz egiten Aita Aranarekin, eta gero "ella a la tarde con las dos Vedrunas sobre su casa de Zarauz y su arreglo para Setiembre". Hiru ez al dira bixitaldi askotxo, ezagutzen ez den jesuita bati aste batean egiteko? Ala elkar ezagutzen zuten?

Pilar Alzuru delako hori, azpeitiarra baita, bai Aita Aranaren bai Vedrunatarren lagun mina da. Hori izan ote zen bitarteko? "Las dos Pilares" deitzen ditu inoiz Aranak; bai eta "neska zahar" izendatu; eta beste lagun zintzo bat, Pilar Agirre, badutenez gero, "tres Pilares" ere bai behin. Zenbaitetan Katalangan ostatatzen dira ("D<sup>a</sup> Pilar Vedruna y Pilar Alzuru en Katalangua", "pasan las dos Vedrunas a Katalangua"); Egibar baserrian ere bai inoiz, Loiolan egun bat baino gehiago egon behar dutenean. Madame Daurys Poyannekoa ere elkartzen zaie tarteka: "Pilar Vedruna con Pilar Alzuru y Marie Helène Daurys, que va con ellas a Egibar". Aranak bere lagun direnak elkarren lagun egiteko dohaia du.

Ezin gaitezke txikieria guztietan katea. Diogun laburtuz lehen aipaturiko gatazkek aurrera ere iraun zutela, zeren bigarren deitura Azara zuen apezpikua, Nievesen koinatua, agian, Loiolan izan zen egunean, hau irakurtzen baitugu: "convenio de caridad de Antonia, madre, e hijas Nieves y Pilar de Vedruna". Diogun halaber ama-alabek hamar eskutitz idatzi zizkiotela danera Aranari urte hartan zehar eta hiru bisita egin, lehen kontatuez gain; Aranak haiei aldiz bost eskutitz idatzi. Pilar biek ere bisitatu zuten bi bider. Bisita, zer esanik ez, konfesio eginez amaitzen zen maiz: "Carta de Nieves Vedruna (Redondilla 4, 3<sup>o</sup>. Tolosa) para confesarla a las 3,30". Diodan azkenik, urte handietan zehar iraun zuela elkarrekiko adiskidetasunak, bai haiek Aita Aranari bai honek haiei eskutitzak idazten zizkietela, eta are Aita Arana bizi zen tokira inoiz bisitatzera ere joaten zirela.

Abuztuaren 22an udako opor-egunei ekiten die Aranak Zumaian beste jesuita batzuekin. Biharamuneko meza Karmelita emakumeen kolejoan ematen du goizean eta bazkalondoan "al colegio de María y José de Carmelitas de la Caridad (fundación de Sra. Mas y Vedruna)" doa. Eta oporrek sei egun bakarrik irauten badute ere eta Aranak sei bainu bakarrik hartzen, beste lau goizetan hantxe ematen du meza. Ibilaldi bat Zarautza eta bestea Oikinara egiten dituzte eta 27an oporrak amaitutzat eman eta Loiolara.

Loiolan ere ez dirudi gure Jose Inaziok eten dituenik Urduñatik aterarazi zuten lotura eta korapilo haiek eta han amestu zituen asmoez zeharo etsi



duenik. Uztailaren 1ean Loiolako bisitarien artean han ditu Casimira Herran eta Juana Aristegi. (Juana Aristegi hau geroko Teresa Aristegi de Gordon dontsuaren ahizpa dateke). Abuztuan bi eskutitz idazten dizkio Casimirari, eta Eguberri egunean Casimira eta Jesusa de Luna dira Juana Aristegiren eskuz karta igortzen diotenak "devolviendo el Reglamento o Historia de la PIA UNION o Conferencias Josefinas, por haberse puesto la conferencia de San Vicente de Paúl el 2 de noviembre".

Gai hori ukitzen duten albiste txikiak maiz jalkitzen zaizkio lumatik: "Vanse para Valladolid las dos monjas Sor M<sup>a</sup> Ignacia de Jesús y Sor Angela, franciscanas clarisas de votos simples"; "se fue a Orduña con las 9 monjas fundadoras, salidas de Vergara el día 24"; "las HH. sirvientas de Servicio Doméstico (fundación de D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Luisa Vicuña)"; halaber Zaragozako mojenburua beste 5ekin Loiolan izan omen dela eta "llegan 4 ejemplares del librito de la Sor Vicenta M<sup>a</sup> Luisa Vicuña, presidenta de la Congregación de HH. del Servicio Doméstico". Hau guztia irakurri eta, esan behar ez dituela oraindik zapuztu Urduñan zituen Kongregazio berria osatzeko asmoak.

## 8. EUSKAL KATADERA GASTEIZEN? (1883)

Gehienetan bezala orain ere kultur-albisteek hartzen dute EGUNARIA-n lekurik handiena. Guztiak biltzen eta tolestatzen zaila da. Batzuk Mendibururi dagozkio, beste batzuk Kardaberazi. Honako hauek liburu inprimatzaileei, harako haiek idazleei. Badira Aranak berak eta etxeko gazteek egiten dituzten lantxoei dagozkienak ere. Hala abuztuaren 2an, Loiolara San Inazio egunerako inguratu zen jendetzaren presentziaz baliatuz, humanistek eta erretorikoek "Academia o Corona poética a San Ignacio de Loyola de 9,30 a 11,30 con muchos señores de Azcoitia, Azpeitia, San Sebastián, Tolosa" eskaini zuten. Aranak berak, Kubako kolejoan "maisú txiki" zen Eustasio Urrak eskaturik -lehendik ezagutzen dugu-, "versos vascos de la Conversión de San Ignacio" ondu eta igorri zizkiola esaten digu, eta Jesus haurrari eginiko bertso batzuk Santa Kruzko moja bati.

Inprimatzaileengandik hasteko, Eusebio Lopez Tolosako inprimatzailearen berririk ez du aspaldixko. Bizitzera Loiolara etorri dela ere agian ez daki ke. Florentzia Eznarrizagarena bai; igortzen dio "el cántico a la Virgen del 20 de mayo en Tolosa, letra de Orcaiztegi y música de D. Miguel de Lizargarate". Eusebio Lopezi aldiz Aranak idazten dio karta "sobre el libro Mendiburu" eta biharamunean etxean du erantzuna. Orduan Florentzia Eznarrizaga de

Zabalari eta Eusebio Lopezi, bie idazten die "sobre el libro Mendiburu" lehia pixka bat ager zezaten, bai eta agertu ere; emazteak handiagoa: "Carta de D<sup>a</sup> Florencia E. de Zabala sobre el libro de Mendiburu, su pago; asimismo cantidad 5411 rs. que tiene". Egun berean, hilaren 30ean, Retana jaunak dakar "la 1<sup>a</sup> docena de libros del P. Mendiburu (3<sup>a</sup> edición). Los ven los PP. con pareceres varios". A zer bermea eta geriza liburuaren egileari! Lopezek aldiz *Mendiburu gipuzkerara Arruek itzulia*-ren ale bat igortzen dio eta karta bat idazten sobre el *Recuerdo de Loyola*. Florentziak berriz bi egun geroago "dos docenas de libros P. Mendiburu, con carta del Sr. Antonio Sesé" eta geroxeago "4 docenas de Mendiburu".

Ondoren *Loiolako Oroimenak* liburuxkari ekin zion eta abuztuaren 10ean iada "litografía de papelitos para el librito "Recuerdo de Loyola" eskuartean du eta Lopezek azkenik uztailaren 1ean *Recuerdo de Loyola* edo *Oroimenak* liburuaren 25 ale daramazkio, bide batez Meza nagusia entzunik. Biharamunean oraindik han dago eta Aranarekin "arreglo de lo de Mendiburu" egiten du: "el librito "Recuerdo de Loyola" con López; deja 120 ejemplares del "Oroimenak-Recuerdo".

Gauzak Aranak nahi bezala ez doazelako-edo, urriaren 4an "carta a Eusebio López, larga, sobre Mendiburu y "Recuerdo". Ekarri zuen emaitza, dirudienez, zeren bost egun geroago, 9an, hau irakurtzen baitugu: "Arreglo de lo de Libros Vascos y López con D<sup>a</sup> Florencia E. de Zabala y su marido Ursino". Hilaren azken egunean Aita Aranak Tolosara joan beharra izan zuen, zortzi egunez han sermoiak egitera, Orkaiztegi apaiz adiskideak eskaturik, eta beste bisita gehiagoren artean Lopezi egin zion bat, ez musu-truk, alafede, baidiz "pagó el Sr. López Eusebio con recibo de 5760 rs. por la obra del P. Mendiburu, 5000 ejemplares". Lanak ditu sinesteak bost mila aleko edizioa izan zela! Florentziak ere bere aldetik *Oroimenak* liburuaren laurogei ale igortzen dizkio.

Azpeitiko Martinezekin behiala baino harreman gutxiago du; Claudio nagusia aspaldian makal samar dagoelako edo, lan txikiagoak agintzen dizkio. "Jesusen Bihotzaren 6. Jubileua" dela-eta, Jubileu horren 108 aleren eta 80 karta-azalen kostua 90 erreal izan dira; "pagados hoy 70 rs.", gehiago ez zeukalako. Claudio Martinez aita erdi gaixo dago: "confesión en vasco para viático"; beste batean ohetik jaiki eta eserita etxean dagoelako, seme Pablarekin du auzi txiki bat: "el hijo del impresor Martínez sobre el exceso de 40 páginas de Mendiburu, a razón de 90 duros millar, papel, trabajo y todo para López". Pablo horrexek egiten dion Gabon aurreko gutunean, Jesusen Bihotzaren "Ofizio" liburutxoaz egiten dio galde.

Ikusi ditugu Retana jauna Mendibururen liburuaren 3. edizioaren lehen dozena Aranari eramaten eta etxeko gainerako jesuitak liburuaren taxua ez arras ederresten: "con pareceres varios". Handik hiru hilabetera Mendibururen beste bi dozena hartzen ditu Tolosatik. Zenbait ale taxu hobekoak ziren eta hala irakurtzen dugu: "viene un ejemplar de Mendiburu de papel amarillo", bai eta "ayer trajo la Sra. de Acilona 12 ejemplares del P. Mendiburu de parte de D<sup>a</sup> Florencia de Tolosa, cuatro de ellos encuadernados en tela, uno en la badana". Areago, "un ejemplar de Mendiburu de lujo para el Seminario grande de Bayona por medio de Mr. Inchauspe, vic. gen."

Kardaberazen liburuen eta argitalpenen berri gutxiago dugu. Behin esaten zaigu Durangora Aita Apraizi igorri diola Katalango Gaspar Bereziartuaren semearen bidez "el ejemplar de *Ejercicios vascos* del P. Cardaberaz de 1761". Hori dela eta, etxe hartan norbaiti entzuniko "Jun du" jasotzen digu Aranak. Beste behin, berriz, "dáme la Madre Priora Sor Salvador un papelito del P. Cardaberaz y otro de otro Padre de 1756 de Loyola". Aita Kardaberazen papertxo delakoa beheraxeago "librito manuscrito" izendatzen du.

Aranaren bisitari eta kartagile seinalatuen artean bat Antonio Arzak apaiz euskaltzale, *Euskal Herria* aldizkariaren zuzendari eta euskal idazle askotarikoa izan zen. Loiolan bisitatu zuen Arana, arreba Josefa eta beste bi ahaiderekin 1883ko abuztuaren 19an, eta hantxe izan zen geroxeago hirurren bat egiten beste apaiz batekin, eta horiek bukatzean Mendibururen 4 ale eraman zituen berekin

Kartagileak ezagunak ditugu guztiak. Eguberriak hurbiltzean egiten diote eskutitz bana Santurtziko apaiz Ignazio Galindezek; Mendibururen liburu igorriagatik eskerrak emanez Bonapartek; Aranak lehen igorria zion kuaderno, euskal liburuen zerrendaduna, itzuliz "cartita vasca" Errezildik Juan Bautista Pagadizabalek; Aita Eugenio Uriartek "con notas de Franc<sup>o</sup> Asenjo Barbieri sobre el músico Juan de Anchieta (1470-1523)" Madrildik, eta Gabino Seinek Oiartzundik. Bestalde Abbadie jaunari berak bi egiten dizkio denbora gutxian. Tolosatik berriz Florentziaren senarrak berari "un libro de hidalguías" helarazten dio.

Ezezagunen artean Idiazabalgo Juan Bautista Gorrotxategi aipatu behar dugu. Bere osaba Gabiriako erretore Braulio Lasa jaunaren partez helarazten dio "un árbol genealógico grande incompleto, con lápiz, en una tela grande relativa a Loinaz de Beasáin y otras familias".

Irakaskuntza munduan garrantzi handiko izan zitekeen albiste bat iristen zaio behin Aita Aranari. Hiruzpalau egunetan aipatzen du kontua eta berak dakarren gisan diogu: "Carta del Director del Instituto Provincial de Vitoria

D. Félix de Ezeverri sobre Cátedra del Euskera y colegio de 2ª Enseñanza en Vitoria por la Compañía". Hau ez zen inondik ere Arana gaixoak erabaki zezakeen arazoa eta handik bi egunetara Aita Probintzial-orde Vicente Gomezi idazten dio Valladolida "incluyendo lo del Sr. Director del Instituto de Vitoria". Egitasmo horrek ez zion Aita Probintzialari grazia handirik egina izan behar, zeren astebete baten buruan erantzun baitzion "devolviendo la carta del Director del Instituto de Vitoria". Esango al zion, baldinba, Aita Probintzialak zerbait gehiago! Gu ordea arrazoirik jakin gabe eta ezer gabe gelditzen gara Aranaren dena isildu beharraz; bada berak ondoren D. Félix Ezeverriri idazten dionean ere ez digu idatzi ziola baizik esaten.

## 9. AITA ARANA SERMOLARI (1883)

Bada kulturazko beste zenbait berri xehe eta solte ere, kontatzea merezi duena. Beti bezala "Annuaire", edo Probintziko jesuiten urteroko lanen berri Erromari ematea, latinez prestatu behar izaten du Aranak, dakigunez, eta 1880tik 1882rainokoak uztailaren hasieran igortzen ditu Valladolida. Aurreratu samarrak dauzka 1883ko etxe batzuetakoak ere eta Urduñakoak, esate baterako, abuztuaren igortzen dizkio Oñara Aita Probintzialaren laguntzaileari.

Beobideren emazte Doloresek dendatxo bat du eta euskal liburuen zerrenda bidaltzen dio Aranari. Seigarren Jubileuko zenbait ale ere bai. On Benigno Orbegozok Mendibururen liburuaren 12 ale daramatza Bilbora, bai eta *Oroipenak* ale bat. Erromako Aita Santuari hauek gerrian eraman ohi duten gerriko-faja zabal dotore bat eiho diote Santa Kruzko mojek eta harekin batean igortzeko karta bat eskatzen Aita Aranari. Carlos Oruek ere Durangotik Mendibururen liburuaren 8 ale eskatzen ditu eta handik bertatik Elizalde jaunak beste bat. Erretratugile Amenabar jaunari Loiolako 2.000 argazki eskatzen dizkiote jesuitek.

Aita Oyarzunekin Urrestillara doa arratsalde batean, Antxieta-zarra eta San Martin barrena, hango Bikario jaun Sorozabal zaharra bisitatzera. Etxetik ateratzen ez dela dago egunetan herbalduta. Hain da zaharra, non "trató y conoció a los PP. Sorarrain y Etxezarraga venidos de Italia", ia berrogeita hamar urteko erbestaldiaren ondoren, oraindik 1815ean-edo bizirik Loiolaratuak. "El P. Sorarrain era flaquito y de estatura regular; decía la Misa en el altar de S. Ignacio con voz clarita y delgada. El P. Etxezarraga era de estatura alta, ni gordo ni flaco". Gazteleraz mintzatu ote zitzairen Bikario jauna? Ez litzateke harritzeko, damurik.

Sorarrain hori orduko oso zaharra izan behar nahitaez, diogu guk, zeren Aita Mendiburuk aipatzen baitu 1765eko eskutitzean esanez, nola Azkoitian, bere misioaren ondoren kendu ziren dantzak, gero berriz ezarri ziren. Eta nolakoak, alafede!: "Cuando andaban en la plaza no se podía pasar por ella, según me aseguró el año pasado el P. Sorarrain, que las había visto".

Loiolan bertan, Bizkaiturrin eta Mayordomokuan, zeuzkan Aranak, beste batean kontatzen digun bezala, han 85 urteko amona zaharra eta hemen "al viejo de 83 años Cristóbal, que conoció a los PP. antiguos Goitia, Zabaleta, y a los Prailes Churis, o la salida de los Premonstratenses, de Loyola". Ezaguna da, izan ere, herriak gainjantziaren koloreagatik hala deitzen zituen fraide horiek bizi izan zirela Loiolan 1797tik 1806ra, Urdazubiko komentua erre eta aterperik gabe gelditu zirenean.

Azpeitiko idazkari Bizente Aizpuruk Itziarko Amari Aranak eginiko zortziko baten letra daramakio Aldalur jaunari, honek musika ipin diezaion. Errezilgo erretore Pagadizabalek, Loiolan Olabide ama-alabekin eta beste andere batekin zen batean, Errosario Santu egunerako, urriaren 7rako, sermoia eskatzen dio Aita Aranari eta honek baietza ematen. Etxegaray Karmelok Markinan sarituriko bi euskal olerkien liburuxka helarazten dio. Urriaren 3an, udazken buruko egun epeletan, Zestoako urak hartzen ditu goxo-goxo Tomas Grosen familiak eta bere emazte Isabeletak eta hiru seme-alabekin; bai halaber Muñoaren alargun Manuela Pagadizabaldarrak bere anaia Errezilgo apaiz Juan Bautistarekin, Zestoako beste batekin eta Pilar Alberdirekin.

Agindu bezala, han dugu Errezilen Aita Arana Errosario Santu egunean. Jesuita azkoitiarra ez zen behinere hari luzeko hizlari edo predikaria izan. Osasunak ere, dakigun bezala, ez zion asko laguntzen. Aita Luis Martin, Probintzial lehenik eta gero Erroman Aita Jeneral izatera iritsi zenaren ordeko Probintzial Aita Matías Abadek, honela idazten zion behin laster ezagutuko dugun D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Teresa Aristegiri:

"...se me figura que el P. Olano no le expondrá a esos ministerios a dicho Padre, porque su salud no está para eso. Ya sabe Vd. la enfermedad que ha padecido y las recaídas que ha tenido durante su vida religiosa, lo cual me pone a mí en el deber de no exponerle a ministerios en que de ningún modo podría satisfacer y en los que, si se engolfase, habría peligro de una recaída".

Sermoi gutxitxo egin zuen bere bizian, (misorik eman sekula ez) eta ia beti mojei edo leku txikietako entzule eskumen apurrari eta oso gai ezagunez. Jesusen Bihotzaz esan behar zuena buruz zekien Mendibururen liburuaren probak behin eta berriz zuzendurik.

Errezila bezperatik joan zen: "Fiesta solemne del Santo Rosario con grande sermón vasco en Misa Mayor; idem a la tarde, corto; confesiones 51, más 3 confesiones generales. Vísperas. Procesión con rosario cantado en vascuence. D. José Arregi y D. José de Agirre, curas coadjutores. Limosna de sermón 70 reales". Mendiburuk ehun eta piku urte lehenago han misioa eman zuenean idatziriko beste hitz haiek datozkio bati gogora: asko ikasi gabeko apaizak ere balio zezakeela Errezil baterako "para sacar de los barrancos de las maldiciones, borracheras e impurezas, que son los principales de Régil, a los que hallare en ellos".

Bidarian ere izan zen "por el camino San José" Juan Bautistarekin eta iloba Antoniarekin. "San Migel, la Iglesia, Iturburu, calzada antigua (perrechicos) con buenas vistas por todo, parroquia de Bidania, la Virgen Dolorosa". Bazkari mardula Elola-etxean bi apaizek eta hiru emakumek: "café con los curas de Bidania y Goyaz: sus obras, túnel para la iglesia; nos acompañan al alto de Goyaz. Vase a Régil el Sr. Vicario desde cerca del camino para Beizama. Paseo por Elosiaga, la Virgen Antigua. Llegada a Loyola a las 6,15 al oscurecer".

Juan Bautista Pagadizabalek bezala Patrizio Orkaiztegik ere nahi luke Aita Aranak Tolosa aldetik jiratxo bat egin lezan, sermoi sail bat eginez Jesusen Bihotzaren Debozioaren gainean, eta ahal izanez gero, Errezilen baino egun gehiago egonez, ez baita alferrik Tolosa Errezil baino hiri handiagoa. Ez hirurren soila, alegia, baizik bederatziurrena. Hala omen ziotsan karta batean: "Plan de Novenario de Sermones del Sagrado Corazón de Jesús en Tolosa". Noiz? Hilaren azken egunean hasirik. Hara abiatu bezperan, Astiria-Antxieta senar-emazteen mutikotxoaren bataio hotsandikoan izan zen Azpeitian.

Loiolatik goizean-goiz abiatu eta Bidaniatik barna kotxean joanez, 9,30etarako Tolosan ziren. Ez baitzen bakarra kotxean. Gidariaz gain etxetik bidelagun bat zeraman, Lazkibar Esteban, maisu-txiki lanetan Gramatika eta Humanitateen irakaslea; eta Azpeititik honen osaba Eizmendi jauna, zeinen arreba hilberriaren gorpuari, hiletak Tolosan egin ondoren, Albisturen lur eman behar baitzitzaien. Aita Aranak Florentzia Eznarrizagaren eta honen senar Ramon Zabalaren etxean geldialdi bat egin zuela esan beharrik ez dago, ez eta Nieves Vedrunaren bisita hartu zuela ere.

Izan zuen zeregin ugari egun haietan. Eguneroko Meza edo Santa Maria parrokian edo San Franziskon edo Santa Klaran; ez beti baina gehienetan sermoia ere bai; Pilar Vedrunaren karta; lehen esanaz gain Nieves Vedrunaren beste bisita, bere haurtxo Pilar eta Inazio eta morroiak berekin zituela; horren berorren kartatxoa hiru eta erdietan konfesa zezan eskatuz, eta azkenik Zarauzko "bi Pilaren" karta eta bertango erantzuna; eta ez dira horiek izan

zituen zeregin guztiak. Horrez gain Eizmendi eta Lazkibartarrekikoa egin behar izan zuen Albisturen, eta Florentzia eta koinata Vitoria eta alaba Dolores eta ahizpa Demetriarekikoa Tolosan, hauen etxean Ursinorekin eta Anai Lazkibarekin batera bazkalduz eta xanpaina edanez egun batean, eta Patrizio Orkaiztegirekin eta honen lagunekin bestean. Eta, zer esanik ez, Santa Klarako mojekikoa.

Azken eguna izan zuen, haatik, hartuena. Meza parrokian eman ondoren, txokolatea erretore jaun Orkaiztegirekin. Gero ospitalera eta Eskolapioen kaperara eta Probintziako artxibora. Ramon Larrieta delako bat aipatzen du inguru horretan. Bi lagunen bisita eta Nieves Vedrunaren beste eskutitza. Eguerdian bazkari handia Lizarza aldean, han Ladislao Zabalak zeukan landetxean, bere lagun eta adiskide andanarekin, hamar lagun gutxienez. Handik trenera kotxean eraman zuten eta 4,45etan Zumarragan ziren eta bi ordu geroago Loiolan. Biharamunean txintxo-txintxo etxeko diruzainari kontuak eman zizkion: "85 reales de lo cobrado para el viaje a Tolosa y 200 reales de estipendio de sermones y 12 reales de estipendio de una misa".

## 10. AITA CROS LOIOLAN (1883)

Loiolan bertan ere izan zuten hirurren bat Jesusen Bihotzaren debozioa gai harturik. Bi lehen egunetan gazteleraz izan zen sermoia "con alguna gente". Hirugarrenean, igandea baitzen, handiroki ospatu zen festa goizeko Meza Nagusiarekin hasita, "a toda orquesta de la Capilla de Azpeitia, con gente regular", sermoia gazteleraz egin baitzuen Aita Arcosek. Aldiz arratsaldean "la función de 3 a 5 con un gentío igual o mayor que el 2º día de San Ignacio, con iluminación súbita de la araña grande, balcón todo de la Cúpula. Sermón del P. Oyarzun en vascuence, procesión y visita de altares con el Señor, llevando el palio los "PP. graves". Horra puntada! Han ere klaseak, mailak! Ez zen guztiz "inuzentea" gure Aita Arana!

Horrez gain antzinako ohitura bat berriztatzen hasi ziren urte hartako abenduan: hileroko lehen igandean Jesusen Bihotzaren elizkizuna arratsaldeko 3.30etan "como se hizo hasta 1868 y aun después algunos años". Estreinako sermoia Aita Aranak egin zuen, hain zuzen; euskaraz, noski: "sermón vasco. Bastante gente, aun con mal tiempo". Astebete geroago, ene lehen esana nolabait deuseztatuz, berak izan zuen sermoia, eta ez laburra, "unos 44 minutos", Azkoitiko parrokian Maria Sortzez Garbiaren bederatziurreneko azken eguneko elizkizun nagusian.

Bisitari eta kartagile seinالاتu batzuk aipatu ditugu lehen. Beste bi bisitari oso mota desberdinekoak ere baditu Aranak, Loiolara heldu berri honetan. Batetik Aita Cros frantsesa. Uztailaren hasieran Loiolara iritsi eta ia Gabonak arte han egon zen bere lanetan, denbora gehiena bere anaia batekin. Bata "archivero, anticuario" deitzen du Aranak, bestea "el escritor". Ez dituzte lan makalak egiten, ez eta eragiten: "Los PP. Cros desclavan el retablo de la Santa Angustia para fotografiarlo". Beste batean "sale el P. Cros, el escritor, para Ondarroa" eta lau egunen buruan beste anaia dihoakio atzetik: "el P. Cros, el fotógrafo, para Ondarroa". Handik etorri eta gero "fuese ayer el P. Cros a registrar los archivos de Tolosa"; eta Azpeitikoa arakatu nahi duenean, Aita Arana darama berarekin. Azpeitiarrek "capilla de la Soledad" deitzen dutenaren berri ikasi nahi zuen. Ez ditu Aranak gehiago aipatzen eta badirudi hor amaitu zirela Cros anaien azterlanak, non ez zitzaion ahaztu aipatzea honako honetan: "Vista de la pila de bautizo de San Ignacio: sus roturas, composturas, dibujos de abajo (eta Aranak berak egiten ditu zirriborro batzuk), en torno, aro de hierro".

Urteen buruan Inaziologo famatua egin zen, artean gutxi aztertuak zeuden artxibo askotako agiriak bildu eta ezagutarazi baitzituen. "Aranak gehiago aipatzen ez dituela" ez da guztiz egia; EGUNARIAn ez, baina Oñako azken sei urteetako itxuratik egun batzuk bederen irteteko baimena eskatuz idazten duen karta batean, bai; ematen duen arrazoia hauxe baita: "valerme de los manuscritos ignacianos del P. Cros".

Beste gisako bisita izan zen Isabel II.ak ia urteoro bezala egun batean eta bestean egin ziena. Azkoitira iritsi zen aurrena: "banderolas en las casas Juan-Torrea, Altamira. En Azcoitia para con tres coches en el medio y algunos caballos delante y otros. D<sup>a</sup> Isabel a las 6,30 para Juintorra; campaneó en Loyola, Santa Cruz y Azcoitia. Id. cohetes e iluminación en las tres casas de Guaqui y Villahermosa". Bidezko zen, bera Loiolara etorri baino lehen, Loiolako bizpahiru Aita aitzina zekizkion berari bisita egitera, eta hala joan ziren Juintorrera Aita Olano erretorea eta Cabrera. Ez zuen batere luzatu berea Isabel II.ak eta juxtu biharamunean han agertu zen ahoku ez txikiarekin: "con la Condesa de Híjar, Conde de Guaqui, Duque de Granada, Josi (?) secretario real y José M<sup>a</sup> Hurtado, alcalde de Azcoitia, de 4,15 de la tarde hasta las 6,15. Se las recibe con campaneó, palio, órgano, los PP. y HH. estudiantes en fila en la Iglesia. Sube después de hacer visita y ver la Iglesia a la Santa Casa y de allí pasa a la Escalera principal. Entran varios hombres y mujeres en la Clausura tras ella. Refresco y dulces en la Sala del P. Provincial. Vanse contentas y muy amables". Hainbestetaraino non hamar egun baino lehen berriz joan baitzen, oraingo honetan zuzenean Etxe Santura meza entzuter



11,30etan, Kondesa de Hajar-ekin eta beste norbaitekin: "entran dentro y toman algún dulce en la sala del P. Provincial y vanse a la 1,15 con companeo. Poca gente".

Bi egun horien artean egin zituen beste hiru bisitaldi ere, baina ez Loiolara, baizik Loiolan zehar oinez Azkoitira: bat Santa Kruzko mojei eta bestea San Juango bainu-etxe ondotik pasieran, eta hirugarrena "paso de Isabel II a pie hacia Azpeitia, Loyola, Toletxiki con su nueva esposa, Hurtado, D. Ramón Heriz, Concha, Tomasa, Aguilafuente, Sr. Beloki, Arocena".

Carlos VII.aren eta Margaritaren alaba printsesa Blanka ere izan zen etxe santua bisitatzen, Baroi-andere Phisa, Olazabal Tirso eta honen bi alaba heldurekin. Zeraindik barna itzuli omen ziren.

## 11. IGANDE ESKOLAK (1883-1887)

Lehen eta gero, hemen eta kanpoan "Igande eskola" izeneko haurren irakasaldiek ospe eta arrakasta handia izan zuten. Aita Jose Inazio Arana azkoitiarrak, Loiola inguruan bederen, berak lehenik sortu eta gero lana bere gain hartu zuela dirudi, ez baitugu hemengo jesuiten artean lehenagoko beste inoren izenik aurkitu, ez entzun, horretan aritzen zenarenik. Gu geu nobizio ginela Loiola inguruko herrixka eta auzoetara, hala nola Urrestilara, Elosiagara eta Oñazera, joaten ginen astero ostegun arratsaldeetan umeei dotrina, ez besterik, irakastera; bakarrik orde, apaizik gabe. Aranari bere euskal maitasunak eta haurrekiko zuen ardurak eragin zion lan horri ekitera, aldamenean beti Anai laguntzaile bat zuela. Lehenik Loiolan, gero Durangon ikusiko dugu lanbide horretan sartua, han hemen baino askoz gehiago.

Igande-eskola izenaz izendatuak agertzen dira batean eta bestean. Aurreko lerroetan hiru bider agertu zaizkigu aipatuak. Biztanle askotxoko herrietatik urruti eta isolatu samarreko baserri eta auzoetako hurrei, ez eskolarik, ez dotrinarik ikasteko maisurik, ez apaizik gertuan ez zutenei, erlijiozko eta lehen letrezko hezkuntza eman nahiak sorraraziak dira "igande eskola" direlako hauek. Baserri mordo baten erditsuan zegoen alderrian bilarazten zituzten inguruetako umeak eta andereño baten babesean ipintzen.

Gure artean ez dugula beste inor aipatua ikusi esan dugu; gure artetik kanpo, bai. Gogoan dugu nola Aranak berak miraz ikusi zuen S. Georgeko apaiz berri Mauriac hurrei dotrina igandeetan irakasten eta nola Arana gauza bera egiten hasi zen Poyannen eta inguruan. Nola Urduñan gero Saratxoko

apaizak berebat egiten zuela ohartu zen. Areago, Zumaiako bere lagun Beobide apaizak nola bertsoak igorri zizkion behin "igandeetako eskolen gañean". Mitxelena jaunak bere aldetik 1957ko EGANen laburki bildu zituenean Herbert Pilch-ek Gales hizkuntzaz bere artikulua batean ereindako gogotak, haren honako hitz hauek jaso zituen: "1920 aurretik, ez zuten haurrek galesez irakurtzen eta idazten ikasten, Biblia irakasten den *igande-eskoletan (Ysgol Sul)* baizik". Hiztegieta gero ikasi dugu lurralde anglosaxoietan hala egiten zela, 1780. urte inguruan Robert Raikes delako batek lehen aldiz halako eskolak (*Sunday School*) han ezarri zituenetik.

Baina sorrera Beljikan emana izan behar zien XVI. mendean Aita Bernard Olivier delako jesuita batek eta andereño Quinte Monnier delako bat aritu lehenik hartan, dirudienez. Hain urrun joan gabe, Aranak berak esango digu nola hartu zuen Palentziatik 1886an gai horretaz ari zitzaion gutun bat; Madrilen, izan ere, 1868 inguruan Loiolan urte batzuk bizi izan zen Aita Mariano Cortesek ezarri zituen 1857an. Bada Loiola inguruan ezarri zituena Aita Arana izan zela aitortu behar da garbiri. Halako lantegia idoro edo asmatu izanaren meritua ez zen segurki Aita Aranarena, bai ordea lan hartan aritzeko pertsona behar bezain umila eta apala izatearena, eta halakoa zen Arana.

"Martiriak" deritzan tokia Azkoiti inguruko leku eder askotatik bat da. Mendian dago, ez oso goian, ordubete eskasean igotzeko moduan; Loiolatik ordubete pasa. Ermita ederra du, Zeledonio eta Emeterio santuei eskainia. Mendizabal deritzan baserria 200 metro goraxeago dago. Loiolan aspaldiko ohitura zuten gazteek, "kanpo eguna" zioten ibilaldi pasa, Martirietara joatea. Aranak harako joera handia zuen; noiznahi dio arratsaldean pasieran joan dela haraino.

San Joseri han inguruan Elizatzo berri bat eraikitzeko ametsa izan zuen Aita Aranak. Martirietara gazteekin kanpo-eguna egin eta esango digu joan zela "etxerakuan Anai Saenzekin Larrumetik Jose Mari Larrume Haundikoa-rekin, Mendizabal gainera, San Jose Elizarako lekua ikustera".

Hamar egun geroago lanari eskuak ezartzeko prest dago eta lekua ere hautatua du: "Jose Antonio E.-rekin, Jose M<sup>a</sup> Larrañaga Larrumekoarekin, Jose Manuel de Epelde eskribientiarekin –ohar hirurei Aita Aranari berari bezala JOSE zeriztela, eta Arana beti izan zela oso San Jose zalea– eta beste 4-rekin sinalatzen du San Jose Elizaren lekua, Jose Antonioren soro baten ertzian bide ondoan".

Bi hilabete geroago berriz gai bera: "Mendizabal, Larrume ta Lete-ra. San Joseren senidetasun edo Kofradi, ta Eliza ta eskola gauzen gainean, 6 edo 7 gizonekin Azpirozen planuarekin".

Hogei egunera bi lagun doazkio Loiolara gai beraz hitzegitera: "Larrume haundiko Jose Mari Larrañaga Jose Manuel Epelde eskribientearekin, ermita Mendizabalgo eskola gainean. Id(em) (halaber, alegia) San Joserren bilera izentegia".

Hamabost egunen buruan urte horretako azken bilkura: "Azpeitira Anai Zabalarekin. Azpiroz jauna Mendizabalko San Jose eliz gainean".

Urteberriko martxo arte ez da beste bilerarik: "Mendizabalgo baserrira Anai Zabalarekin. San Joserren iduritxo ganbarako Elizan. "Dotrina eta Igande eskola"-ren ipinte asmoa", irakurtzen dugu 1885ko martxoaren 8an. Aurrerago eta gehiago zehazten ari dela ageri da eskola horiek izateko arrazoia. "Dotrina eta Igande eskola" esaera hemen aurkitzen dugu lehen aldiz. Oraingoz ganbaran kokatzen dute San Joserren iduria.

San Jose eguna hurbil da. Bezperan egiten dira zenbait prestakuntza: "Mendizabalera Anai Zabalarekin. San Joserren iduri bedeinkatzea. "Igande eskola" ganbaran ipintea". San Joserren iduria ez ezik igande-eskola ere ganbaran.

Santuaren festa egunak "goibel, euritsu" argitu zuen eta "elur pixka (zen) Izarraitz puntan". Lagun gutxiren artean ospatu zuten: "Mendizabalgo San Joserren hitzaldia Anai Zabala ta 24 lagunekin".

Loiola inguruan ez ezik, baziren nonbait "igande-eskolak" orduko Bizkaian ere. Hori adierazten digu albiste honek: "Zornoako igande eskoletako erakasle M<sup>a</sup> Antonia Egriari euskerazko liburutxo batzuen lista" eman ziola, alegia. "Badihoa bere izebarekin". Loiolako Igande eskolen sona iritxia bide zen Zornoazaraino.

Andereñoaren izena ere ikasi dugu. Loiolan ez dugu oraindik horrelakorik, baina laster aurkituko dute bat. Entzun hogei egun geroagoko berri: "Mendizabal, Letetxo, Agerreandi ta Egibar-era Anai Zabalarekin. Clararen igande eskolan Mendizabalen hitzalditxo". Klara, beraz, eta laster esango zaigunez, Klara Etxaniz de Oliva, gero urte askotan Aranaren oso lagun izango dena, bai eta moja sartuta gero ere.

Horren ondoko aipamenak argitasun gutxi ematen du: "Larrume haundiko Markos, Jose M<sup>a</sup> Larrañaga "xarra" hango eskola gauzen gainean".

Udan, dirudienez, ez da igande-eskolarik. Ez da bederen uztailaren 8ko albiste hau baizik aurkitzen: "Clara Etxanizen eskutitza eskola gainean", baina hil bereko arratsalde batean Bizkaiturrira eta Agerrera doa Anai Zabalarekin Konferentzia Josefinako (hasi da dagoeneko Arana gero buruko min batzuk emango dizkion "Konferentzia" horren alde lanean) eskribua eramatera. Ha-

laz ere 26a arte ez da esaten "Mendizabalgo Igande eskola lagatartetzea iru astean". Ofizialki egun horretan hasi, nonbait, eskolako hiru asteko oporrak.

Abuztuaren 9an, Zumaiara oporrak hartzera joan baino astebeite lehena-go, hauek aipatzen ditu zertako ez dakigula: "Berrozueta barrena, Loisti Agerreko igande-eskola ta Mendizabalkoa". Esan nahi ote du hiru horiek nahi dituela Loiola inguruan martxan ikusi?

Irailarekin berriz hasten dira eskolak; bi gainera baten orde: " Mendizabal da Agerreko igande eskolara A. Agirrerekin atsaldean".

Egun haietako batean aurkikunde kurioso bat egiten du. Arratsaldean badoa "A. Etxeberria da D. Gabriel Arrue, apaiz jauna, Bergarako Enseñanzako da Bidegoiango parrokoaren anaiarekin Elosu edo S<sup>a</sup> Luziaraino. Hango Eliza, eskola, apaiz-etxe ta ganbara Loiolako anzinako kanpo-etxetarako mayakin". Gazteek antzina hara ere noizean behin kanpo-egunak egiten, nonbait, eta aztarnak han ageri.

Urria osoa Urduñan, Bilbon eta Durangon ematen du Aita Aranak eta hil horretan igande-eskolen albisterik ez dugu. Azaroan itzultzean "Anai laguntzaile nobizio Oyarzabalekin Azkune goikora (Olaz), Agerre ta Mendizabal (martopila hemen). Jose Manuelen konfesatzea. Agerreko igande-eskola".

Hona non jakiten dugun urtearen ia bukaeran beste Igande-eskola bat ere badela: "Azpeitira Anai laguntzaile Oyarzabalekin. Bizkaiturriko eskolan lan oso eder euskerazko gaur jarriak". Euskara ere irakasten zuten, dirudienez, edo euskara zuten ezinbestean dotrinaren eta abarren irakasbidea.

Gehiago ere bai: "Aranguren basarriko bi ahizpa, Maria ta Pranziska, igande-eskolarako". Eta biharamunean: "Azkoitiko Baldako igande-eskolara Anai laguntzaile Abad-ekin".

Urteberria errege hurrengo egunetik beretik igande-eskola baten aipamenearekin hasten da: "Azpeitira Anai laguntzaile Oyarzabalekin. Lokatza, Bizkaiturriko eskolan askotxo".

Hara albiste bat garbiro azaltzen diguna, Kastilako jesuitek ere apostoladu-mota horretaz baliatzen zirela: "A. Celestino Suarezek junetoretik, Palenzian hil honen 6an igande-eskoletan esandako hitzaldi molderatuba", igorri ziola, alegia. Diogun bidenabar "mandatari edo erre kardari" zentzuarekin erabiltzen duela maiz Aranak "junetorle-" hitza, agian Larramendigandik ikasia.

Hamar egun geroago honako hau diosku: "Clarak eraman ditu Aranguren maestra Kukuerriko igande-eskolarako 4 paper kartoietan euskeraz".

Alegia, Kukuerriko igande-eskolako maistra Arangurenentzat eraman dituela esan nahi bide du.

Zenbaitetan asmatu egin behar da zer esan nahi duen Aranak. Ondorengo esaldiak "gaixo ta eskoletara" hau esan nahi du, "gaixoei lehen bisita eta gero eskoletara joan": "Atsaldian Anai laguntzaile Oyarzabalekin gaixo ta eskole-tara: Igaraberri, Echarreta, Sokin ta Agitatik San Jose iturrira. Letetxora jendia haur bikiakin. Leten haur Gregoriori paxa edo medaila. Larrume haundiko Jose xarra ta ume bat Marzelino, Arrietako igande-eskolan erakasle. Arangurengo M<sup>a</sup> Franziska, ahizpa ta etxeoak. Mendizabal onduan nausi Joxe Ant. beste batekin. Martopila Astarbean. Arrandalatz ta Munategiko igande eskola iluntzean".

Igande-eskolak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira eta etxeke jaun-en laguntza behar da: "Loiolako sakristian lehen batzarre auzoko gizon etxe-jaunena, eskola etxea ein da erakuslea jartzearen gainean. Kargudunak behar-gai hontan geldi dira Mayordomokua, Migel ostatukoa, Gaspar Katalangua ta beste bat". Eginkizun pisua, horratik, auzoko gizon etxe-jaunek lehen batza-rrean hartua : eskola-etxea egin eta irakaslea aurkitu.

Ez dakigu zenbat mugitu ziren, maiatzaren azkenaldea arte, ez baitzuten txintik atera: "Olazen eskola, Olatzoko Jose Luis Bikendi alarguna, Franc<sup>a</sup> Azp. Gorriti, Franc<sup>o</sup> kontuba (?)".

Irailaren azken alderaino ezin antzeman igande-eskolak direnik ere: "Anai laguntzaile Gamizko Eizagirrekin atsaldean Txakur-herriko Agerre ta Arrietara. Han 92 urteko atso Mariana ohian; hemen eskola-neskatxa asko. Aranguren bi ahizpa erakasleekin ederki; han aita Jose Olazabalekin. Etxekoen ilekiak eskola-tokiakin". Harritzen gaituena "hemen eskola-neska-txa asko" izatea.

"Olazera Anai laguntzaile Ribeirarekin. Eskola bukatuak hango Sebastiana ezkongaiak".

Handik hilabetera: "Olazko eskola ume gutxirekin".

Baina zortzi egun geroago: "Olazera Anai laguntzaile Blazkez-ekin; eskolan ume askotxo".

Atxuri-iturriko eskolarik ez zaigu oraino azaldu: "Azpeitira ta Atxuri-iturri ta eskolara".

"Agerre ta Olazera Anai laguntzaile Oyarzabalekin; hango igande-eskola".

Urteberriko Errege egunean "Larrume haundiko Jose 79 urtekoagana Anai laguntzaile Gonzalezekin ta han bere semeari San Jose Ermitako eskola paperak lagatzea berekin".

Bilbon hilabete igaro eta honako ohar labur honekin amaitzen du Loiolako igande-eskolen historia: "Azkoitiko Baroikoko mandatuba: Goikoetxea beste eskol-etxe bihurtu" (13-II-87). Egun horretatik aurrera Loiola utzi eta Urduñan eta Durangon biziko da, Loiolara bidenabarreko bisitatxoak soilik eginik.

Bizkaian ere "igande-eskolak" orduko bazirela ikasi dugu, Aranak "Zornoazako igande-eskoletako erakasle M<sup>a</sup> Antonia Egiari" eman omen zion liburuxko batzuen listari eskerrak. Halaz ere, Arana urriaz gero Durangon biziko den arren, ez hiru hilabete horietan ez eta 1888. urte osoan ez da Aranaren lumatik "igande-eskola" hitza behinere aterako. Zornotzan bakarrik ote dira halako eskolak eta Durango inguruan ez? Isiltasuna ez omen da ezezen froga. A ze egia!

1889ko urteberri egun arte itxoin behar dugu honako albiste xoil hau irakurtzeko: "Hemen (Santa Anan) Ampuero jauna ta beste batzuek Tabirara igande-eskolatik". Eta bost egun geroago, Errege egunean, beste hau: "Atsaldean D. Carlos Orue ta Aita Munarrizekin Yurretako igande-eskolako sari emaitetan". Bietan izen bat falta da, eta falta den izena Arana da, noski, edo Arana ere bai.

Urte horretako gainerako hilabete guztietan ez da gehiago igande-eskolaren aipamenik, baina bistan da bizi direla, isilik bada ere; eta bizi, seguruenik, Aranaren edo beste apaizen eguneroko laguntza gabe, bere andereñoak dituztela. Durangon, antza, lehendik zegoen ereina hazia eta langileak ere lehendik ari ziren lanean. Zeren 1890. urtean berriz, Guadianako urak bezala, lurpetik ateratzen da eskola horien izena, eta urtearen lehen egunean gainera, aurreko urtean bezalaxe, eta xehetasun ez gutxi emanez: "Urtebarri eta Jesusen Epaitza done edo Zirkunzizio jaieguna... D. Carlos Orue hemen. Aita Agirre ordubateko trenian Zalduan predikatzer. 3etatik 4,30etara urteroko sariztamenak eta jaialdiak Domeka-eskoletako eskola barriztuetako goiko eskolan; jende askoz. 1<sup>o</sup> saria Mañariko Artamendiri; 2<sup>a</sup> Izurtzako bati. Han Larragan, Gaztañaza, D. Carlos, Iturriaga, D. Balbino, abadiak, eta abadegai Yurretako Gaztañaza Torre".

Ekainean hogeitau egun ematera doa Loiolara eta iragaitean esaten digu egun batean "Anai Torrontegirekin Olazko eskolan" izan zela. Durangora berriz eta, urtea ia azkenetan zelarik, kontatzen digu izan zela "On Balbinokin Tabirapean; han Iturriaga ta On Isidoro Arbulo, On Carlos ta Errosario; eta eskola igandekoetarako kontu-neurtzak". Handik hiru egunetara "On Carlos Orue igande-eskolako sarietako neurtza ta kartak prestatzen".

Hurrengo urteberri egunean berriz: "Ohi bezela, herriko eskola haundiko saloian Igande-eskolako neskatxai sari ematea, ta erdera ta euskerazko hi-

tzaldi ta kantak 3,30etatik 4,30etara". Eta, aurreko urteetan bezala, Durango-koaren ondoren Iurretakoa Errege egunean: "Yurretako igande-eskolako sari emantza festara 3,30etan On Balbinokin. Hotz eta elurra. Hango apaizak ta Apata Monasteriokoa ta apaizgai morroi Itsaso ta morroipeco Demetrio Arana, Amezola, Lazpita, Arana". Azkenik uztailaren 19an, igandean, honela amaitzen da EGUNARIAn igande-eskolen berri ematea: "Arzipreste Gaztañazar euskeraz Igande-eskoletakoai".

Eguberri inguruan ez da ohiko aipamenik, baina aurrerago igande-eskolak gogorarazten dizkigun beste "dotrin-hizketa" direlakoak azaltzen dira. Ikus zer dioskun 1888ko martxoaren 19an, San Jose egunean, Durangon bizi delarik: "Meza nausian Andra Mari Elizan D. Domingo Larraganen San Joseganako doanditz ederra ta iluntzean bi mutiltxoren *dotrin-azaltze* alkarritzeta ederra". Handik hiru egunetara gauza bera: "Andre Maria Elizan mutiltxoan *dotrina-hizketak* egun hoetan". Eta bi egun geroago berriz: "Mutiltxoak iluntzian *dotrin-hizketa* Andre Marian gaur da bihar". Eta maiaztaren 17an azkenik, argibide berria emanik, honako testu luzeago hau: "Atsaldean Treña-Jauregi aldeko baserri aurreko arboladi-zelaian erdi-aparia erreberoaz; D. Domingo Larragan, Gartazatorre, Barturen, Azurmendi D. Liborio, abade etxekoa, D. Leandro ta 12-bat mutiltxo, Elizan *dotrina-hizketak* esanak, ta Aita Aranburu ta ni". Ez da zer galdegin afaltiar haietatik nori edo nortzuei izan zitzairen atsegina afarilege hura: mutikoei, dudarik gabe. Eta jaso zituzten sarietan onena ere bai, segurki, afarilegea.

## 12. IZKIRIMIRIAK (1883)

Gogojardunak egitera, lehen bezala, askotxo doa jendea, gizonezkoak nahiz emakumezkoak: "siguen "de more" las tres tandas de ejercicios, una numerosa en bascuence en la Iglesia y dos en la Santa Casa, menos". Gutxitan ikusizen horrelakorik Loiolan. Tarteka-marteka zenbait bisitari estrainio ere bai. Donostiako kontsul frantsesa beste bi anderekin eta Beljikako jaun bat. Demoiselle Sidonie de Pau deritzan bat ere bai, "hermana del diputado católico que tiene en su casa 11 Padres franceses; anciana devota de la Compañía de Jesús. La Catherina bonne de la Mademoiselle Sidonie de Castelbajar lleva los nombres de los PP. Olano, Idirin y Arana". Konstantinoplan Espainiako Enbaxadako idazkari zen Lapazaran jauna ere bai.

Estrainio ez direnak maizago eta ugariago: "muchu gente de visita: Zabala, Ulloa, Montarron, Aguilafuente, Hurtado, la de Eriz, Egaña, Manterola", eta bi jantokitan banatu behar jendea: "Comen con la Comunidad

los Sres. Rectores, etc.; otros como Mencia, Egaña, Olabide en el comedor de Ejercitantes". Guztiei jaten emateko neke gutxiago izango zukeen sukaldariak, baldin Juana Antonia de Olazabal asko izan balira. Honek Aita Aranaren izenarekin izokin eder bat igorri zuen San Inazioaren egun bezperan: "salmón de 10 libras con cestilla en forma de pez y dos melones".

Han-hemengo izkirimirien kontalari ona da gure Arana eta ez ditugu batzuk aipatu gabe utzi nahi. Urduñan kapoi piloa hartzen ohituak zeuden Gabon aurreko egunetan, mutikoen gurasoek opariturik. Loiolan ez dago halako konturik. Hartzen dituzten bakarrak, Aita Aranaren senideek igorriak: "La criada de Baroikua con capones". Jaiotetxea, Baroikua, noizbehinka bisitatzen du eta hango berri ematen digu. Azkoitira doan batean "Baroicua huer-ta" diosku: "uva, recolección".

Hortzek, dakigun bezala, aspalditik ematen dizkiote lanak eta Bilboko hortz-konpontzaile Fermin Alegria jauna oso maitea zuen. Lehen galduez gain, Isabel II. han zebilkien egunetan, "caída del diente medio principal de abajo", afaltzen ari zen batean. Ez dio zergatik. Baroikuko kapoiakgatik ote?

Txalintxoro izeneko mendi kaxkoa ez dauka saltzeko azkoitiarrak; harentzat Azkoitiko mendixka da, "a Txalintxoro de Azkoitia" dio, eta garai hartan hala izango zen; gero piztu ziren nonbait haserreak Azpeitiarren eta Azkoitiarren artean, eta haiek irabazi, dirudienez. Geroztik Azpeitikotzat jotzen da Txalintxoro. Behin baino gehiagotan aipatzen du Txalintxoroen omen zegoen "Munategiko metal-ura".

Gabon aurreko egunetan inoiz baino gogoanago ditu inguruko baserrieta-ko gaixoak eta zaharrak: "confesiones de los enfermos: la vieja M<sup>a</sup> Ventura de Aguerregoicoa y Manuel de 88 años de Berrozueta-echecho". Eta biharamunean: "Dichosa muerte de la anciana de 74 años M<sup>a</sup> Ventura de Aguerregoicoa a las 2 de la tarde. Escapulario impuesto al enfermo de Berrozueta-echecho-goicoa Manuel de 88 años". Bienbitartean "la Manuela de Agerretxo tuvo un robusto hijo ayer tarde después de irse a casa desde la casa vecina".

Loiolako etxe barruko obra eta hobekuntza berrien aztarnak ere ez zaizkio erreparatu gabe pasatzen. Oraindik ez dira hasi, baina somatzen ditu seinaleak. Begiak beti zabalik ditu Loiolan eta inguruan ikusten dituen gauzez oharrak egiteko: "ayer y hoy tiempo templado con mucha humedad y agua en los mármoles de toda Loyola". Ikus zer adierazten digun Urtezahar egunean: "helada fuerte; aurora con un gran cono rosado de vértice inverso". Ikusteko begi zoliak eta kontatzeko dohaia!

Obrei buruz ematen duen informazioa astuna eta luzea da, gaia agortze-rainokoa. Interesgarria, hori bai, hiztegiaren aldetik. Azkenean 2. *Monografía* gisa ematea hobe datekeela iruditu zait.



VI. ATALA:  
"ETXEKOAKIN OHI BEZALA,  
ALAITASUN AMORIOZKOA"  
(1883-1891)

1. AZKEN ZORTZI URTEAK

Urduñatik 1883ko ekainaren 2an etorri zen Arana Loiolara eta 1887ko urtarrilaren lehen hamabostaldian Urduñara berriro itzuli. Hiru urte eta erdi horietan ez zuen, noski, bere EGUNARIAN Loiolako obren eta berak sortu zituen "Igande-eskolen" berri bakarrik eman, nahiz guk bi gai horiek aparteko eta berezi bezala erabili ditugun. Beste albiste eta gertari zenbait ere konstatzen digu, agian bere bizitzako gorabehera handienekoak; beste paper eta neurtitz eta liburu zenbait ere aipatzen digu.

Gainera urte horietako eta ondokoetako EGUNARIA, esan dugun bezala, euskaraz idatzia dago 1884ko urtarriletik hasita hil arteraino; hobeki esan, EGUNARIA bukatu arteraino, zeren 1896an hil baitzen, eta nahiz EGUNARIA hil arte luzatu zela dakigun, guri ez baitzaigu heldu 1891. urtearen azkenrainokoa baizik. Beraz hemendik aurrera guk kako artean egingo ditugun haren hitzen aipamenak ere lehen gazteleraz bezala, orain euskaraz eginak izango dira eta ez, noski, gureaz, baizik harenaz; hori bai, azal-azaleko grafia, ez besterik, aldaturik; hark erabiltzen duena arraroa egiten baitzaigu gaur.

Arrazoi bategatik baino gehiagotatik uste dugu bidezko dela, azkenaldi honetan batez ere, beste ezer baino gehiago euskarari dagozkion Aranaren lanak agerian ipintzea. Bere bizitzan ez du ia egunik igarotzen utzi euskararen alde lan egin gabe. Ohar gaitezen "Arana apaiza, gizon heldu ikasia" orain dugula lehen aldiz euskaraz hitz egiten den Euskal Herrian, eta ez edozeine-

tan, baizik bere jaioterrian, bere euskara edoski zuen herrian. Azkoitian eta Zarautzen gaztetan, beste lagunak Frantzian ziren bitartean, eman zuen denboran ez zegoen oraindik umotua euskal lanak egiteko, salbu zenbait neurtitz.

Aita Arana ez da berdin sentitzen euskaraz hitz egiten ez den Urduña bezalako herrian, nahiz den Euskal Herria, eta euskaraz hitz egiten den Loiola edo Durango bezalakoan. Hemendik gertuago ditu eta eskumenean bezala euskal aldizkariak, euskal liburuak, euskal idazleak, euskal predikariak, euskal hiztunak, euskal bertsolariak eta euskal ohiturak; laburki esateko, berak arnasa hartu eta gustora bizitzeko behar dituen eguratsa, eguraldia eta giroa, eta hori nabarmentzen zaiola uste dugu lehenbiziko lerrotik azkeneraino.

Orain esnatu zaio erabat euskal kontzientzia, orain ohartu da ahal duenoro euskaraz baliatu behar duela, bai eta EGUNARIAn ere; eta izkribuak danera 1.300 orrialde dituelarik, 730 lehenak gaztelaniaz idatziko ditu, hots, bere bizitzako lehen berrogeita hamar urteko kontuak, baina gainerako 570 orrialdeak euskaraz, nahiz hauek bere bizitzako zortzi urte bakarrik besarkatzen dituzten.

Gehiago esan nahi nuke, baina ez dakit egia esango dudana: ez idaztean bakarrik, bai eta hitz egitean ere euskaraz aritzen da –zenbait jenderekin hala aritzen zela ez da dudarik– eta ez gaztelaniaz, Durangon bere lagun minenekin ere egin ohi zuen bezala. Duda egiten dut, haatik, egia esan, nola mintzatu ohi zen etxeko jesuitekin, Azpeitiko bere zenbait lagun handitxorekin, Antxieta eta abarrekin; bai halaber Azkoitiko beste zenbaitekin, hala nola Hurtadorekin eta Isabel II.ren laguntxoekin. Harritzen nau, gehiegitan miretsi ohi duela halakok eta halakok berari euskaraz idatzi izana.

Hor utzi digu behintzat garai hartako gipuzkeraren lekukotasun ederra eta leiala, grafia apart lagarik, morfosintaxia guztian. Hitz-altxorrean maiz baliatzen da Larramendiren hitzez eta uste dut merezi lukeela banaka biltzea, ez bainago ziur beste idazleek harengandik mailegatzen dituzten berberak diren ala desberdinak.

## 2. ERROMESALDIA ITZIARRA (1883)

Euskarari dagozkion lanen artean izan bedi lehena Juan de Antxieta pertsonaiaren egin, hiru Antxieta arretan lehena, XV. mendekoa, azpeitiarra, musikari famatua eta Azpeitiko erretore izana. Hori du bere arretan eta ikerketen gaia Aita Aranak, Eleizgaray batekin ezkonduko Antonio

Fernandez delako eskribauarekin batean. Haren eskribuen gainean dute biek sarri hizpidea: "Fernandez, Antxieta Juanen eskribu gainean", irakurtzen dugu hiruzpalautan. Azpeitiko artxibu edo "eskributegi" zaharrera doa Arana behin Anai Zabalarekin, Eizmendi artxibariaren giltzekin, Juan Antxietaren berri eske, eta bi artikulua idazten ditu. Bizpahiru hilabeteren buruan prestatua dute eskribu bat hartaz: *Juan Antxietaren bizitza* eta 200 erreal kosta zaie. Beste izkribu gehiagoren artean Antonio Fernandezek Itziarko "hiru hizkuntzako erakaste edo Dotriña Asteterena" ere kopiatzen du Aranaren mandatuaz.

D. Bizente Aizpuru legegizon azpeitiarra idazkari maratz eta langilea da eta Itziarko eskribuek daukate oso kezkatu eta lanpetua. Horien artean bat Dotrina da. Aranari kopiatzeko utzi eta honek diosku: "bialdu zaizka bere Iziarko paperak". Bidaniako Erretore jauna ere hartaz arduratzen da eta halako batean, Arana Anai laguntzaile Zabalarekin Azpeitira doala, topo egiten du artxibuko Eizmendi eta D. Bizente Aizpurrekin. "Itziarko liburutxoaren balioa jakiteko" Aranak beste batean Martinezen inprimategira laguntzen dio Aizpuru jaunari eta honek euskarazko papertxo batzuek erakusten dizkio. Baina Tolosako Mugerzarekin ere harremanetan dago D. Bizente, "Iziarko kondairatxo liburu txikia" dela-eta. Ekainaren 7an "liburutxo Iziarkuaren molde-probakin" dohakio Aranari eta uztailaren 27an "D. Bizente Aizpuru dakar liburutxo bera, *Iziarko Ama Birjinaren kondairatxoa euskeraz*". Mugerzak bere aldetik lau egun geroago helarazten dizkio Aizpuru jaunari "12 liburutxo Iziarkuak eta Jesusen Bihotzaren papertxoa".

Itziar inguruko apaizak, izan ere, herrialdeka erromeria handi bat prestatzen ari dira irailaren 8rako, Ama Birjinaren festa handirako, zortzi egun lehenago hasita. Hiru azken egunak dira, halere, nagusiak eta horietara mugarituko gara gauzak alferrik errepikatu gabe. Loiolatik AA. Arana, Aizkorbe eta Etxeberria doaz, Arroatik aurrera oinez. Bidean D. Bizente Aizpuru, D. Pedro M. Irure, Iturri eta beste batzuekin batzen dira. Biharamunean "egin behar dan "letra ta arteen" bilera-batzarrerako prestaera" dute goizean. "Musika parte azpeitiarrakin" da eta horregatik han daude D. Jose Ignacio Aldalur eta D. Toribio Eleizgaray. Goizeko eta arratsaldeko elizkizunak dotore atera ziren, baina azpeitiarrek gaueko jaialdian gaina jo nahi zuten: "Gabeko letra-musika batzarrea sakristian" izan zen, "Obispo jauna da beste jaun da andre haundizkien aurrean. Lau soinu-aldi Aldalur-en jo-kantalariak; lau neurtzaldi euskarazko ta bi gaztelaniazkoenak, ta bi pintura. Hiztunleak Alcala jauna, D. Vicente ta Carmelo Etxegaray, Manuel Beobide, Baertel, Arana, Zubiaga eta Jose Matias Balerdi".

Deba arroko herrien eguna da hurrengoa. Han dira Deba, Elgoibar,

Mutriku eta beste herrietako erromesak. Goizeko elizkizunak aurreko egunean bezala, gutxi gorabehera; baina "armatzen da iluntzean argizko prozesio ederra, San Inazioaren iduri-antz haundiya andetan dakartela. Kanta politak Elizan bukatzean. Apezpiku jaunak hitzaldia motx, bero, eder bat egiten du ("¿Estamos en el cielo o en la tierra?").

"Ama Birjinaren agorreko egun haundi ta Itziarko pesta-egun garaya", esanez hasten du Aranak 8garren eguneko kontaera. Azpeitiarrak dira gehienak: "Azpeitiarren prozesio berri, eder, haundia; goizeko 8etan Gaintzatik eleizara kanpai, musika, globo ta guzi". Ondarrutarrek ere elkar hartzen dute. "A. Arcosek barruko sermoia gaztelaniaz; kanpoan berriz hiru meza ta hiru hitzaldi: plazako hitzaldia A. Etxeberriak; AA. Aizkorkbek ta Aranak mendi aldeko Intxausti-aldapa ondoan jende asko ta askorekin. Bederatzi-hamar mila anima, gutxi gorabehera, kopuratzen dira". Ordubatean Apezpikuari, mahaian dagoela Pagadizabal, Garagarza eta besteekin, agur egiten diote lau jesuitek. "Atsaldean 2etan A. fraile Baartelen azken agurra Eleizan erromeritarrari eta Gaintzan D. Agustin Jauregirena" eta hainbestez abiatzen dira Azpeitira mendiz da kotxian, eramanik sorbaldan lau gizonek San Inazio herriz-herri Azpeitiraino. Gaintzako arkuban:

"Gorde zuk beti Euskalerrria  
Itziarko Ama Maria"

eta Deba eta Hirubideko arkubetan "Itziarren Itziarrari, Itziartik etxera, hobeak izatera", "Debak erromeritarrari", "Zumaiak erromeritarrari" eta modu bertsuan gainerako herrietan: "Arruen, Zestuan, Mainuetxian, Lasaon da Azpeitian musika, kanta, suziriak pasatzian. Azpeitiko erdikaletik eta elizkaletik Eleizara 8,30etan".

### 3. "IZARKITXO BATZUEN IGAROA" (1884)

Don Toribio Eleizgarairen aipamena egin dugu hor goian bere lagun Jose Inazio Aldalurekin batera. Aspaldi kontatu zigun Aita Aranak San Luisi buruzko zarzuela batez gain "Barcarola" bat egina zuela eta D. Toribio Eleizgarairi igorri ziola musika ipin ziezaion. Orain atzekoz aurrera, D. Toribiok egin du beste "Barcarola" bat eta Aranak esaten digu berari eman diola "mandatua haren letra egitea". Oso musiko ona zen Don Toribio, Azpeitian organista izana, eta oraindik hango koruan gordetzen dira haren zenbait kantu ederren partiturak, garai batean Azpeitian orain baino ezagunagoak zirenak, baina adinekoek oraindik ezagutzen dituztenak.

Hartzen eta itzultzen dituen proba eta papertxo eta neurtitzen kopurua konta ezina da. "Donostiako Bianchi jaunak ekarten dizkigu 6 orridi 1883ko Euskal Festa-koak, da nere neurtitzen agiria". Eusebio Lopezek "*Mogelen maiatz hitzaldietako lehenak*, berak argitaratubak" igortzen dizkio eta Pedro Soraluzeak *Salbazioko aingura*. D<sup>a</sup> Florentziak A. *Mendibururen Jesusen Bihotz*-eko 8 liburu lujozko ta bat lujogabia" dakartza. Pablo Martinezek Jesusen Bihotzaren kantetako 2.000 papertxo, misiorako beste 16.000ren enkargua (369 erreal) eta *Jesusen Bihotzaren* liburutxo, 12 orrialdekoa; San Inazioaren bederatziruena inprimatzen ere ari zaio Martinez jauna. Lehenenkoi Luis Luziano Bonapartek Londrestik karta egiten dio eta A. Larramendiren *Kristau-Dotrin euskerazkoa*-ren kopia berak kopiatu batekin bidaltzen.

Aranak berak Mendibururen liburu lujokua eta paper eta hitzneurtu batzuek helarazten dizkio Arturo Kampioni eta Oiartzungo Erretore Sein jaunari Mendibururen bizitza, lehendik egin zezan eskatua ziona, eta D. Jose Cola y Goitiri Gasteiza bitarteko baten bidez *Sant Inñigoren erreglako liburu 1527koa*. Bestalde D. Ramon Larrañaga Martirietako apaizari "6 paper moderatu Martiri santuenganako barkamen edo induljentiak erakusten ditubek". D. Estanislao Jaime Labayruri Bilbora eskutitza papeltxo batzuekin.

Inazio Aldalurri Jesusen Bihotzarekiko 6 zortziko handi igortzen dizkio behin eta Jose Joakin Ollori Hondarribira Ama Birjina Iturrikoaren zortzi eta Pedro Migel Urruzunok berari beste batean lau. Bartzelonatik (Lauria, n<sup>o</sup> 46, 2<sup>o</sup> izda.), han ikasten ari ziren garaian, eskutitz bat idatzi zioten Aranari bere antzinako ikasle Luis eta Sabino Aranak, "anai bilbotarrak" urtarrilaren 14an.

Bergarako seme eta Elorrioko erretore omen den Jose M<sup>a</sup> Gaitan de Ayala jaunak idazten dio Elorriotik "euskerazko gainean" irailaren 22an lehen aldiz. Azaroaren 1ean erantzuten dio Aranak eta hamabost egunen buruan hartzen berriz Gaitan jaunaren "karta luze bat "*Arrazoikinde guziekikoaren argi* eta euskerazko gainean". On Martzelino Soroak *Au ostatuba* izeneko antzerkia igortzen dio eta On Juan Antonio Makazaga Orioko Erretoreak "neurtitz eder euskerazkoak".

Isabel bigarrena, erregina izana, Loiolara datorkie, beste urteetan bezala, "Meza aitza Etxe Santuko kapila S. Inazioarenean". Segizioko lagunak omen zituen Konde de Hajar-en alarguna, mediku jaun Dr. Benjumea, emazte eta semetxo batekin, eta markes berri Villalegina, jaun Chascaró eta Pedro Soraluze. Aita Probintzialaren aretoan goxoki batzuk hartu eta "behera Komunitateagana jaitsi ta San Frantzisko Borjaren kapila ta *Erregutegi zaharra* ikustera igo genduen". Beste bisita bat, hau ez pertsona noblearena,

Frantziako Tolosatik etorri zitzairen: Duvoisin euskal idazlearen anaia jesuitarena.

Hiru heriotza minkor izan ditu Aranak denbora gutxian. Lehena Aita Lasurtegi azkoitiarrarena, bere aitagoia bezala zenarena; 1815-20an lehen deserrutik jesuitak etorri zirenean, Euskalerrian nobizio izateko beretu zuten lehen gazteetako batena. Kontaerari berari nabarmentzen zaio Aranaren samina: hilerrian gorputzaren aurrean hiru meza eman eta "jaisten dute Hiru-iturritara kaja eder batean Aita Lasurtegi zanaren gorputz hezur-hutsa". Aurrean oinez apaiza eta lau gizon omen zihoazen eta kotxietan hamahiru. "Arozenarekin iristen dira Loiolara ia 8etan. Enterratzen da A. Ramon Lasurtegi zana Konzeptzioko Kapilan, korupeko ilerako erdiko hobiyen, nun arkitu ziran atzo bost buru-hezur da hezurdi lehengokuak".

Beste hilberria Donostiatik iristen zaio martxoaren 2an, nahiz otsailaren 29an hil omen zen, D. Jose Manterola "Euskalerria"-ren zuzendariarena. Eta hirugarrena bertatik bertara heltzen zaio, Azpeititik, herriko parroko Erretore D. Ignazio Galdosena.

Joaten den leku guztietan bezala moja eta emakume saila itsasten zaio Loiolan ere. Utz ditzagun Vedrunatarrak, horietaz esan baitugu dakigun guztia. Orain aipatzekoak dira, nahiz haietaz gauza handirik ez dakigun eta bageneki ere kontatzea mereziko ez lukeen, Ribas Ana delako bat lehenik, inoiz "Anita zapuzka" Aranari izendaraziko diona eta inoiz "Anita ta moja Donostiakuak euskaldunak" aiparaziko; halere behin Aranak "liburu eskuskribatua neurtitzetan", berea noski, irakurtzeko utzi ziona. "Guardixako Isolina San Jose" bigarrenik; "etxe Guardixan eiteko dagoan Emilianaren ahizpa Isolina S. Jose" eta biharamunago semetxo bat egiten du, Jose M<sup>a</sup>. Hona beste aipamen batzuk: "D<sup>a</sup> Rosa ta Guardixako Isolina S. Jose", "Isolina S. Jose Errosarekin" Patxi Usabiagaren emaztearekin. Hirugarrenik Juana, Igaraberriko Sebastiana, Joakina Bereziartua Aizarnakoa eta abar.

Danetan pegakorrenak Ana, Isolina eta Rosa dira oraingoz. Juana Arostegi (lehen atera zitzaiguna) eta Isolina Martxoan Urduñara doaz eta handik idazten diote Aranari eskutitz bat "egun onak" emanez. Mojai itxura dute batzuek. Ikus bestela: "Erramona mojagaia, Juana, Anita han". "San Joseren senidetasun edo Kofradia" eta "Conferencia Josefina-paperdia" deritzana ere horien artean dabilta, eta Biskaiturri eta Agerre baserrietara ere iristen dira. Juliana Eguren delako bat San Jose Kofradikoa eta mojagaia dela esaten zaigu aurrerago, eta Bizkaiko Sodupera "Konferentzia San Joserenaren arautza edo erreglamendua" berekin daramanik badela ere bai.

Badakigu Aranak bere osasunaz eta bere buruaz erabat berri gutxi ematen duela: buruko odol-kolpeak, Meza ezin emana, hortzen makeskeriak eta apur bat gehiago. Orain ere badu pikerdia hortzetan: "horz goi ezkerreko bakarraren eroriera". Eta aitzitik naturako elementuak maiz aipatzen dituela. Ikus hau: azaroa da eta eguna euritsua izan omen den arren, "gabian berriz otsgarbi eta izarkitxo batzuen igaroa"; "paso de aerolitos", eransten dio esanahia argituz.

#### 4. ISASTIREN ESKUIZKRIBUA AZKOITIAN (1884)

Aranak behin, esan genuenez, Martzelino Soroari eskutitz bat egin zion bere "Anton Kaiku" komedia igorriagatik, zorionak emanaz. Egin bazion egin zion! Geroztik etengabe igortzen dizkio ontzen dituen jostirudi guztiak eta batzuk lehendik eginak dituenak, inoiz baita egiten ari den baten zatia ere, Aranak bere iritzia eman diezaion. Hainbestearainoko fidantzia hartu du. Hala *Alkate berriya* helarazten dio martxoan, eta lau batera, *Iriyarena*, *Anton Caicu*, *Gabon* eta *Au ostatuba*, apirilean; hurrengoan eskutitz bat egiten dio, *Urrutiko intxaurrek* deritzan "jostirudia ikusteko bialdurik", zeina itzultzen baitio Aranak hamabost egunen buruan eta eskutitza ere bai Donostiarra (Barrio de San Martin 40, bajo); eta maiatzaren azken egunean *Intxaurren* (beste) zatitxo bat ikusteko".

Ez dakit Eusebio Lopezek ez ote lukeen irabaziko txapela, joan zen mendeko azken laurdenean euskal paper eta liburuen tratu handiena Aranarekin izanarena. Loiolara bizitzera etorri geroztik, lehenez gain aipatu behar dira honako hauek: otsailaren 19an igorri zion Iturriagaren *Ipuetako liburua*; Mogelen *Maiatz hitzaldien* bi liburu, 7 pezetakoa bakoitza, martxoaren 9an; Aizkibelen *Hiztegi* eder azal lujoduna, apirilaren 5ean, eta *San Isidroren Bizitza* Agustin Kardaberazek egin eta orain berriro argitaratua, hogeitun geroago.

Larramendik ehunda berrogeita hamar urte lehenago Azpeitiko San Agustin zeritzan Elizan egin zuen sermoia edo doanditza, Mitxelenak "un magnífico aparato de pirotecnia verbal quemado brillantemente desde el púlpito en un día de gran solemnidad" iritzi ziona, berriro argitaratzeko lehen asmoa Azpeitiko Erretore On Agustin Jauregiren izan bide zen, eta ezinbestean Martinez inprimatzaile azpeitiarrari argitarazi zitzaion: "Martinezi San Agustinen Doanditza argitaratzeko D. Ag. Jauregiren partez". Apirilaren azken egunean "Martinezek bukatu du *S. Agustinen Doanditza*" eta egun gu-

txiren buruan badaki Aranak haren kostua: "500 Doanditza kosta dira 240 erreal edo 22 duro".

Durangon "Lore jokoak" 1885ean izan zirela gauza jakina da; ez hain jakina, agian, horien Buru nor izan zen; Aranak esango digu urtarrilaren 19an: "D. Jose M<sup>a</sup> Ampuero, jaialdi euskerazkoen Buru Durangon danaren eskutitza, bileraldiko siluarekin" hartu zuela. Bai eta honako beste hau maiatzaren 15ean: "Jose M<sup>a</sup> Ampueroren kartatxo ta jaialdi euskerazkoen papera Durangotik".

Beste liburu gehiago ere eskuratu zitzaion beste bideetatik. Hala Baionatik hango kalonje Intxauspe "jaun aiskideak euskeratutako *Kempis* neretzat". Paristik berriz Mariano Sanchezek urte berean Aita Largent-ek idatzirik *L'infanticide en Chine* liburutxoak igortzen dio. D. Jose Colak Gasteiztik *Elkanoren bizitzako liburu* edo paper piloa". Durangotik han zeuden *San Inazioaren Bizitza* euskera-gaztelaniazkoa"-ren 74 ale ekarri dizkiote. Gasteizko udalak "agiri edo diploma bat" ematen dio A. Legarrari, "S. Iñigoren liburu zahar antzinakoa hango agerkerdi edo exposiziorako eman zalako". Azkoitiko "D. Luis Hurtadorekin bere anai Jose Mariaren etxean Isastiren *Guipuzcoaco Condaira* eskuz eskribitua ekusten" izan zela eta "Elcano" honelaxe idatzia ageri zela. Nahiz ia berrogei urte lehenago, 1850ean, argitaratu zen (lehen aldiz!) Isastiren obra 1625ean idatzia, eskuzko kopia batek ezin ukatuzko balioa zukeen.

Martinez Pablo inprimatzaile azpeitiarra izu-zaparradan ari da San Inazioaren Bederatziurren berria, Aita Aranak egin, moldatzen. Oraindik-orain erosi du inprimagailu berria ("moldemakina") eta hala ere uztailean sartu garenan, oraindik ez ditu paperak moldatu. Bai ordea, aurten Aita Aranak berak San Agustingo Elizan egingo duen bederatziurrena hasteko egun gutxi falta direnean, nahiz eta juxtu, eta nahiz eta 12 ale bakarrik. Orain ikasten dugu bide batez hilaren lehen igandeoro atsaldeko Elizkizunean Aranak predikatzen duela Jesusen Bihotzaz.

Zumaian sei eguneko oporrak bakarrik, ez dakigu zergatik. Bainurik hartu duenik ere ez du esaten; bai kontatzen, Irunen izan ziren arratsalde batean, "A. Arana oinez etxera 6,30etatik 8,15ak bitartean" itzuli zela; "itsasoz besteak ordu berean". Bai eta, Getarira joan ziren beste batean, Fonda Elkanon sartu eta Juan Martin Larrazakoak bere seme Martzial eta hiru alabekin ongi hartu zituztela eta txakolin-sagardoa eman edateko. Aranak ateratzen du, ordea, asti pixka bat D. Anizeto Basurto apaizarekin "eskuskribuak bilatzen" aritzeko. Azken egunean "badatoz Loiolatik bi kotxe danok gaur etxeratzeke". Loiolara-eta, hor datozkio biharamunean konfesatzera "atsaldian Teresa, Juana, Aquilina, Dolores".



Beste bi heriotza gertatzen dira aipatu gabe ezin utzizkoak. Bata da D. Pedro Egaña, ia beti Zestoan egon ohi zenarena. Elizakoak hartu eta bi egu-netara, Zumaiako bainu-etxerantz atera ziren Loiolatik atsaldean "A. Oyarzun, eta anai Jorge Ibero beste birekin, eta A. Arana berakin Zestuaraino. Honek lagundu dio zerbait ia hilean dagon On Pedro Egaña, Ministro Espainakoa izanari, 7ak arte". Biharamunean hara non gaztigitzen dion hila-ren anaia Antoniok, On Pedro 9,15etan hil dela goizean. Inguruko apaizekin, Guaki Konde eta beste askorekin izan omen zen Zestoan bertan hileta.

Bigarrena Jorge Ibero gaztearena, beste hiru jesuiten anaiarena, izan zen. Ikasle "junior" zen oraindik eta alferrik eraman zuten udan Zumaiara itsas-haizeek on egingo ziotelakoan. Egun gutxiren buruan berriz Loiolaratu eta hilabete baino lehen izan zuen "heriotz dohatsua siloian jarrita zegoala, ohi bezela; hitzaldia bizia dardara pittin huts batekin".

Heriotz horiekin izango zuen zerikusirik edota ez, baina gauza da den-boraldi hartan kolera bolada zegoela inguru haietan. Funtsezko esanahia ongi hartzen zaion honako perpaus hau irakurtzen dugu abuztuaren 26an: "Arabitek botikayo X, kolera kontrako paper euskerazkoarekin moldera-tzen" eta bost egun geroago beste hau: "Inazio Ibiriku Azkoitiko botikarioa ta papertxo kolera gainekoak": oharra edo abisuak euskaraz, alegia, koleratik libratzeko. Liburu batetik hartuak ziren nonbait, zeren gero esaten baitzaigu: "Bihurtu zaio Ulazia egilearen kolera gaineko liburua, Zumaiara D. Ildefonso Zabaletari; Donostiara, Etxeberria apaiz jaunaren bidez". Beraz Ulazia libu-ruaren egilea, Zabaleta jabea, Etxeberria eramailea.

Don Juan Bautista Pagadizabal, Errezilgo erretore jaun ezaguna, Bitoriako Sinodora doa beste apaizekin eta *Sinodales de Calahorra* liburua darاما berarekin. Oiarzungo erretore Manuel Gabino Seinek kartaz erregutzen dio A. Aranari hiru egunerako joateko hara, arren. Agortu ahala argitaraldi berriak egiten zituzten nonbait, eta horretarako probak berriz zuzentzen; *San Inazioaren Bizitza*-ko probak, esate baterako, Mugerzak igorriak zuzendu ditu berriki Aranak. Loiolako jesuita ikasle gazteek ikasturte bukaeran, ohi bezala, "Loiolako gloriak" gaiaz egin dute "Letra azalde" edo Akademia, askotxo jenderekin eta egon dira goizeko 9,30etatik 12,30ak bitartean.

On Franzisko Mintegiaga delako baten eskutitza hartzen du Usurbildik, euskerazko liburutegi batez hitz eginez. Hau ez da segurki izango Aranak gaztetandik izan zuen kideko lagun eta deitura bereko jesuita baten anaia edo ahaidea. Sarri ikusiko dugu Deustutik Urduñara joaten festa egun bezperetan, egun batzuk ematera eta Elizako eginkizunetan laguntzera, Deustuko irakas-

le baitzen; hala balitz, ez da dudarik, esango zukeela ze ahaidetasun zuten. Aranak handik astebetara egiten dio erantzuna, baina batere argibiderik eman gabe.

##### 5. "BILERAKO BANDERA, LAUBURU BERRI EDERRA" (1885)

Hilaren azken egunean, aurretik ezer esan gabe, kontatzen digu ari dela egiten "prestaera A. Probinzial da Anai Etxarri ta A. Etxeberriarekin Loiolatik Durangorako". Kotxeratzen dira Elgoibarrerako, eta aurrerako, esandako hirurak eta Arana, lau. Elgoibarren jaisten da A. Etxeberria Lekeitiora joateko. A. Probintzialarekin D. Carlos Orue eta bere arreba Rosario: A. Arana eta Anai Etxarri atzean. "Danon keatutzeko, kotxian ordubete geldituta Ermuko herrira sartzean. Durangora iristea iluntzean. Durangoko etxean AA.-kin ta Anaiekin hurrengo eguneko 10ak arte".

Gero handik Bilbora jarraitzea biharamunean trenean, baina "jetxi beharra Zuazoko zubia pasa bitartean. Arratsaldean Deustuko obrak ikustera joan, eta hemen urriaren 1ean jalkitzen zaio Aita Aranari inoiz haren lumatik atera den esaldirik ederrena, bere-bere zinezko izaera ezin hobea islatzen eta letra handiz aldatzea merezi duena: "ETXEKOAKIN, OHI BEZELA, ALAITASUN AMORIOZKOA". Esaera trinkoa, hondo handikoa, zenbait gaitzerraileren ahoak isilarazteko modukoa. Urduña du bere bidaiaren azken helburua, non egingo baititu gogojardunak, eta bide batez On Ferminek Bilbon hortz bat atera diezaion nahi du: bigarren egunean "Deustoko Unibersidadeko obrak ikustera" doa D. Benigno Orbegozorekin.

Baina bi egunen buruan D. Ferminek berriz konponketa bat egin behar dio eta Abando aldera abiatzen da. Ondoko bi egunetako hitzak bere hartan aldatuko ditut, hor ageri diren pertsona batzuk eta beren lagunak ezagutzea interesgarri izan baitaiteke: "D. Fermin Alegriak berriz hortz behekoen moldeatzea. Luis da Sabino Arana eta Goirikuak (Ibañez Bilbokuan, 10ean, Bilbon) hemen" -- non? Alegriaren etxean? -- eta gero Zarraoa ta Uribe galaitxoak. Luis Arregi, bere emazte Andresa Bikuña eta alabatxo Polonia (San Frantzisko karrikan, 35ean). Leandro Plazaola ta bere nausiya moldetegian (Muelle de Marzana, 1) Benigno Orbegozo (Calzada 1,1º)-ren iduri ta txoriak ekusten".

Hori astelehenean. Asteartean: "Hortz moldeak iya eginak Alegriaren etxean. Karrika Matadero 1, 2ºkoan Mikaela Eizagirre neska xahar-xahar, Meltxora Sautu ta mutil zahar D. Tomas Sauturekin. Sofia Ormaetxe hemen

eta Galo Sautu eta Casimira, Sofiaren ilobatxoek erakuslea, eta Mademois. Boissieux... Fr. Felix hemen bazkaltzen eta berekin atsaldian Albiako San Bizente Eliza ondoko Aranaren etxeokoa: Luis, Sabino anai, ta bere ama ta izebarekin, eta San Mames ondoko D<sup>a</sup> Carmen Novia eta beste bi bere ahizpaen kanpo-etxe ederrian".

Asteartean Urduñako trena arratsaldeko ordubietan hartuko du, baina bitartean badu zeregin askotxo. Goizean goiz konfesatzen ditu "Casimira ta beste bi; Sofia Ormaeche Aldaizkoa ta Boissieux agur egiten". Egidazu, Alegria, Txurruka (Ribera 3,2<sup>o</sup>) jaunekin egoten da. Etxeko beste jesuitekin bazkaldu eta kafea hartzen du eta trenera doa. Orduko D. Federico Belaustegigoitiak bientzat biletea hartua du eta harekin eta "Gorbeako Artzai izengoitikoarekin" egiten du bidaia. Lehenbiziko bisita Mariaren Konpainiako mojen kolejiara.

Bi egun ditu oraindik libro gogojardunak hasi aurretik. Batean Enseñanzako mojen kolejio berera doa A. Palaciorekin, moja ezagunak albistatzera: Ama Guadalupe, Nieves Vinuesa, Gonzaga Arozena, etab., eta arratsaldean Arbietako bainu-etxera bi lagunekin. Bestean Antiguán ematen du goizean Meza eta arratsaldean Ahizpa Karidadekoen eskola-umeak bisitatzen. Han ikusten du Isolina San Jose iluntzean elkartegian.

Ondoko zortzi egunak gogojardunak egiten aritzen da; ez du eskutitzik ez bisitarik, salbu balkoian hotzez hilik aurkitzen duen txenara batena. Bukaeran betiko asmo eta erabaki onak. Ateratzean lehen bisita Bidegoiango Nieves Vedrunarena du eta bere bi seme-alabatxo Inaziorena eta Pilarena. Artomañara eta Aloñara doa, Melkiades apaiz zaharra 85 urtekoa agurtzera, eta Alorian D. Manuelek Eliza erakusten dio.

Azken egunean La Antigua, Enseñanzako kolejioa eta gaixotegia arakatu, arratsaldean hiru bisita hartu, haietako bat Nieves Vedrunarena berriz, eta biharamunean Bilbora; ez ordea lehen "Arauco alkate jaunarekin Ayuntamentuko Artxiboan apunte hartzen" izan gabe, eta Jesusa Escuzak, Isolina San Josek, Nieves Vedrunak eta Casimira Herranek agur egin gabe. Azken honi denbora asko baino lehen "Josefina"-en paper bat igorriko dio Loiolatik. "Bigarren klasian Bilbora 5etako trenian" eta "Bilboko egontzean izenartzen ta gelditzen, jendeari maleta fumigatze edo ketutzeko".

On Fermin Alegriak ez zuen bere lan guztia burutu eta harengana doa biharamunean beste inorengana baino lehen "hortz-iler ahosapai goikoan jartzera". Gero ez dirudi zeregin berezirik duenik, ez du bederen kontatzen, baina halere beste zortzi egun luzatzen du Bilbon egotea. Horietako egun bat du Ebaristo Txurrukagana bere etxera joateko (Ribera kalia 3, 2<sup>o</sup>) eta harekin

Aranako muellera eta handik haren obrak ikustera, nahiz Sestaon arratsalde berean koleraz hildako bat izan den eta nahiz Deustuko obretako lau laguni ohea beste etxe batera aldatu dieten kolera beldurrez; bestea "Abandoko Sabino ta Luis anayak eta D. Andres Arana, horien osabaren da Bizente Aranaren etxera atsaldean" joateko.

Loiolara bidean egun batzuk Durangon gelditzeko asmoa du: "Zornoza-ko mandatua Durangon geldi nekielakoa". Durangoratzeko eguna heldu zaio eta goizeko 5,30etako Mezatan beste gehiagoren artean komulgatzen da Nieves Vedruna. Bizente Arana Bilbotik Durangora doa 2,15etako trenean; "han zihoazen Lekeitioko Paskual Larrazabalen ama (Urduñatik) eta Dolores azkoitiarra, mirabe dagoana". Ez dio Aranak bera ere han zihoanik, baina hala dirudi. Durangon lehenbiziko lana, On Jose M<sup>a</sup> Ampuerorekin Konsejo etxe-ko Artxiboan paper antzinako batzuk ikustea; esate baterako, Erregina Isabel Katolikoa bere alabarekin 1483an Paduratik Durangora nola sartu zen dioen papera. Hamabosgarren mendeko beste eskribu batzuk ere bai. Azaroaren 1ean euskarazko hitzalditxoak egiten du Santa Susanan eta kapila batean hau ikusten du: "Bilerako bandera lauburu berri ederra"

On Balbino Garitaonaindia, gaixotegiko abade gazteari diosal egin, Durangotik kotxian 10,15etan abiatu eta Elorrion, Elgetan, Bergaran eta Zumarragan barna bi egunean heldu zen Loiolara. Berrehun erreal eraman omen zizkioten bidaiarako eta 53 itzuli omen ditu. Loiolara iristean hau jakiten du: "Irakurri zan heranegun jantegian A. Probintzialaren eskutitza, eskerrak S. Joseri emanaz, kolera izurritik libra gaitualako; ta Ama Birjinagana gaitezen orain, gaistoen eskuetatik gorde gaitzan ta lagun deigun Sagasta ta besteen denboran". Koleraren antzekoa hau ere, nonbait!

Soroa jaunaren liburutxoak aurkitzen du bere gelako mahai gainean: *Euskal naparren jokaera*; lau egunen buruan erantzuten dio eta hamar egunera Soroak berriro berari. Durangon agurtu duen Aita Apraizi karta eta pape-  
rak igorri dizkio. Martinezen inprimategian lan pixka bat pilatua daukate Arana datorrenerako: "bataioko aginduak berritzeko papera hobeto moldatzen"; "Martinezenian paper da liburutxo euskerazko batzuek".

Hilaren zortzian, Ama Birjinaren egunean, Urrestilako parrokian arratsaldian hitzaldia A. Aranak, Ama Birjina Sorrera Garbikoaren iduri berri ederraren aurrean. Hona abenduko lauzpabost egun segidakoren eguraldia: "12. Otxgarbi, euzki eder, goizean izotza, aintziarra ta arbolen izurtzea". "13. Aintziar izotz izurtzea atzo bezela; euzki eder". "14. Izotz aintziar izurtzea edo lantzurda, atzoko eran; euzki eder". "15. Izotz ta lantzurda atzo baino gogorragoak". "16. Izotz-aintziar-lantzurde; urak hormatze ta aintziartze, ta olio

ta koipiak ziatzia hotzarekin; euzki eder". "17. Euzki eder; goizean atzo baino hotz gogorragoa oraindik".

## 6. GARAGARZA JESUITA OHIAREN HERIOTZA (1886)

1886ko urteberri eguneko lehen hitzak ere egiten duen eguraldia deskribatzeko dira: "1. ostir. Egun guzia euri ta lainopian, mendi bururik agertu gabe, busti-bustiyak atari, Elizatari ta harri inguru danak, hotz haundirik gabe". Baina elurrak ere luzatu gabe erasan zion: "19, asteart. Egun agertzean, goibel, da elurtea guzian hiru edo lau onza lodikoa, eta ai du egiten elur gehixeago egun guztian". Behin otsailaz gero, elur gutxiago: "5, ostir. Bart elurra Loiolaraino; goizean barrenetako elurra euzki pixkatekin urtu da". Baina erasoko dio berriz ere gogotik.

Negu aldean aiton-amonak errazkiago gaixotzen dira eta Aita Arana baserriz baserri dabil konfesatzen eta konfesatu ondoren eskapularioak ezartzen. Orain tirria horrek eman dio, ahal duen guztiei eskapularioak ezarri. Egurtza azpikoan neskaxa Manuela konfesatzen du, komunioa, biatikoa eta azken oleazioa ematen dizkio eta "honi ta beste etxeko biri eskapulaio Karmengoa ezarritzea". Areago, Aizkiola aldeko Etxeberriko mutil gazte Tomas konfesatzera joaten da eta "bi eskapulario berari". Gor bati ere bai: "Eskapulaioa Jose M<sup>a</sup> Egaña agure gor Azkoitikoari". Keinuz eta aieruz galdegingo zion nahi al zuen. Joakina Bereziartuari ere ezarriko dio aurrerago eskapularioa eta are Ama Birjinaren abitua bedeinkatuko.

On Felix Murgiondok liburutxo berria *Zeruko argiya* igortzen dio. D. Antonio Arzak-ek bi pare paperdi: "Memoria presentada al Consistorio" eta "1885, Euskal Festak Donostian, Oroimengarriak". Astigarragaren *Hiztegi euskera-gaztelaniazkoa* ere hartzen du, bai eta On Ramon Azkarateren hitz neurtuzko liburutxo berri Beotibarko jazarre gainekoa. D. Pedro Aldalurek bihurtu ditu Arantzazuko kantatxoak eta Pablo Martinezi eraman dizkio moldekatzeko "Jesusen Bihotzari bihotzaldiak" direlako papertxoak. Bianchi jaunarekin Arzaki helarazten dio "paper bat 1765-1816 Loiolako berri".

San Inazio eguneko elizkizunak zirela-bide, ohitura zen, Loiolan bildu ohi ziren Apezpiku eta gainerako agintari hala herrikoak nola elizakoak nolazbait omentzearren, retoriko eta humanistek, han ziren urteetan, egin zezaten Akademia edo "Letra-azalde" izeneko jaialdi bat. Urte hartakoa "Eresialdi" edo "Neurtitzen Akademia" izendatu zen, eta izan ere, hala izan zen gai honi buruz: "El misionero de la Compañía de Jesús, bienhechor de los

pueblos". Eliz-agintariak bakarrik aipatzearen, han ziren bi Apezpiku jaun: Menorkako Mercader, Iruñatarra, eta Kolombiako "Pasto" izeneko hirikoa: "haundizki eta jende asko izan da", dio Aranak, "ezin liburulekuan ondo kabitzeraino".

Ospe handiagokoa izan zen festa, bi egun lehenago etorri zelako Durangotik A. Garcia Frutos, ekarririk "Aita Aranarentzat Euskera-jaialdietako bi sari: luma urre eta zilarrezkoa, eta paza edo medaila haundi zilarrezkoa Bizkaiko Diputazioaren partekoa, eta agiri bat". Handizki direlakoan artean han ziren "D. Aristides Artiñano (Barzelona), bere emazte, koinata Presentacion, alabatxo Piedad, beste bat eta seme-alabak Pedro ta besteakin" eta A. Aranarekin hitz-aspertu bat egin zuten.

On Luis Anabitartek karta egiten dio, baina barnean bertsoak dituela. Jose M<sup>a</sup> Ampuero jaunak liburutxo bat igortzen Durangoko Euskal-jaialdietakoa. Aita Txurrukak euskal eskola edo erakustokiak nahi lituzke Gipuzkoan eta horretaz mintzo zaio Aranari. On Pedro Migel Urruzunok ez dio ezer helarazten, baizik bera dohakio albistatzera. On Patrizio Orkaiztegi, hizlari egokiaketa Aranaren lagun handiak, azken arnasa urte berriaren haste-hastean eman zuen.

Jesuita izan nahi duten gazteak ez dira garai horretan falta. Pazko egunean sei gazte sartu ziren, alafede, Anai laguntzaile izateko: horietako hiru Azpeitikoak, Olazabal bi ta Zubimendi bat, eta hurrengo udazkenean 30 nobiziok hasi zuten Lagundiko bizimodua gogojardunak eginez. Berriz ere izango dira, baldin lehenengo Jaunartzea egiten dutenak, urte hartan Azpeitian bezala, 48 mutiko eta 60 neskatxo izaten badira. Honako hau bezalakoak, haatik, salbuespenak dira, baina ez guztiz bakanak: "gaur Nobizioen artean sartu, apaiz bizkaitar Mendieta kantari boz ederreko, Burgosen kantari izan dana". Gogojardunetara ere jende askotxo doa, hala gizonezkoa nola emakumezkoa: "Jardunza Santuetan daude 17 gizon da emakume, "aec" A. Ziaurritzekin, "oec" A. Etxeberriarekin". Halaber "jarduera doneak buka dituzte gizon da emakumeak: "ayec" A. Ziaurritzekin da "oec" A. Gilekin".

Baina baziren, nola ez, Lagundia utzi eta ateratzen zirenak ere. Gogoratzen gara, noski, aurreko orrialdeak irakurri baditugu, nola atera zen A. Pedro Garagarza, Gabonak inguruan Poyannen gogojardunak egin eta ondoren, haien asmo edo erabakien artean bat hori izan balitz bezala. Hori bai, apaiz leial eta Aranaren adiskide izaten jarraitu zuen. Orain beste berri triste bat ematen digu Aranak hartaz: hain zinez maite zuen laguna egun batzuk lehenago, maiatzaren 25ean, hil zela: "Mutrikoko moja ondoko etxean hil dalakoaren berri, Konpainian berriz botoak eiteko eskatuta". Ez zuen

damu txikia izan, nonbait, egin zuena egin izana. Astebete geroago "A. Probintzialak irakurri digu A. Garagarza zanaren azken karta". Ezin naiz gera, aurrerago osorik argitaratuko baditut ere, haren eskutitzen baten zati-txoa hemen erakutsi gabe. Poyannetik aspaldi idatzia da hau:

"Muzinduko zinan benturaz –diotsa A. Aranari–, ezeren berririk orain-dainokoan eman ez dizudalako. Arrazoiaren ertzik gabe ez zera eta ezaguera honekin mila barkaziyo bihotz-bihotzetik dizkitzut eskatzen. Hemen gaude gu lainoz bildurik Prantziyako bazter honetan, prantsez jendez danok ertzi-turik, kiskili-maskala prantsesa baizik entzuten ez degula".

Azken arte apaiz izaten jarraitu zuela, bai, badakigu, baina ez, Erromatik etorri zitzaion ala ez baimena, berriz Lagundiko botoak egin eta jesuita beza-la hiltzeko.

## 7. "MEZA SANTUAN IDURIMEN IZUGARRIA" (1886)

Garai honetan egiten du lehenbiziko aldiz agerpena Aita Aranaren bizi-tzako antzestokian, gaurdanik Aranaren izkribuan eta bizian toki handia, handienetakoa, hartuko duen D<sup>a</sup> Teresa Aristegi de Gordonek, iada bizpahirutan azaldu zaigun Juana de Aristegiren ahizpa denak. Bietara deitzen du Aranak: Teresa Aristegi eta Teresa de Gordon. Bilbotarra da. Ezin idatz daiteke bi hitz Aranaren azken bost urteetako bizitzaz D<sup>a</sup> Teresa behin eta birritan aipatu gabe. Irakurleak barkatuko digu gehiegixko iruditzen bazaio, baina sines beza ahalik gehiena laburtzen saiatu garela. D<sup>a</sup> Teresak bere ondoan eta inguruan, asko handizkatu gabe, tropela izenda daitekeen eta urteekin asko luzatuko, ugalduko eta berritzen joango den segizioa du: mirabeak, neskatxak, lagun egiten dioten andereñoak edo ez hain andereñoak, ez baitzaigu adina esaten.

Lehenago berri ez dakigu, baina Loiolan Aranaren ondoan ezagutzera ematen zaigunean, Igaraberriko Sebastiana Egiguren gertatzen zaio neskatxa horietan lehena. Honek emakume erkina dirudi; egun askotan gaixo dago eta Aranak baserrian bisitatzen du. Gaitza gero eta gehiago larrituz dihoakio eta goiz batean Elizakoak ematen dizkiote. Ondoko egunetan zertxobait hobetzen zaio osasuna, egun gutxiren buruan "meza 9takoan eta gero, D<sup>a</sup> Teresarekin" bi egun segidotan egoteraino.

Esan dezakegu Sebastianaren bidez ezagutzen duela Aranak D<sup>a</sup> Teresa, Elizakoak hartu ondoko onaldian "bere gauzak Teresa Gordon gainian" kon-

tatzen dizkionean. Lehenago ez dugu aurkitzen honen aipamenik eta handik laster "D<sup>a</sup> Teresa Gordon Beata Marianaren aldarerako lanian" ari dela esaten zaigu. Gero ikusiko dugu "Marianas" izeneko Kongregazio edo Instituto bat sortu nahirik leherrenak egingo dituztela D<sup>a</sup> Teresak eta Aranak.

Testu inguru berean eta elkarrekin zerikusia dutela, honako perpaus hauek irakurtzen ditugu: "D<sup>a</sup> Teresa Gordon, Santiagoko markesaren iloba moja izanarekin, goizean hiztokian ingeles irakurtzen", eta hori gutxi balitz: "bere karta Valladolidko Arzobispoari Sebastianaren gainean" eta guzia biritzeko "bera gaineko nere karta Ama Probintzial Karmelitari". Zer du Sebastianak, hartaz karta bana Artzapezpiku bati eta moja Karmeliten buruari idatzi behar izateko? Hor ez da kontua amaitzen, gainera. Biharamunean "D<sup>a</sup> Teresa ta Sebastiana, Valladolidko Arzobispo ta Jenerala Paula Puchganako kartaen gainean".

Laster Ingalaterrartzeko asmoa baitu, pila ditzagun hemen laburki hari buruzko berri batzuk. Lehena da bizitokiz aldatu dela: "D<sup>a</sup> Teresa Gordonen bizitzatoki berriyan". Aurrerago ikusiko dugu zenbat eta zenbat etxealdatze egiten dituen, ez baita, ez eta gutxiago ere, sosik gabeko pertsona. Hori bat. Bi, "D<sup>a</sup> Teresa Gordoni kopiatzen *Officium trilingüe SS. Cordis Iesu*" ari dela eta lau egun geroago "D<sup>a</sup> Teresa Gordonen *Jesusen Bihotza hiru hizkuntzan* egintzaren alda-izkira edo kopiya" beretu duela. Euskalduna ez ezik, "neurtitzalia" da, Aranaren hitzaz baliatzeko. Ez dakigu noizdanik zegoen haren etxean beste neskatxa hau, Maria Sagastiberri Bilabonakoa, baina D<sup>a</sup> Teresak erbestera abiatu behar baitu, hara baino lehen bere neskatxa etxera bialtzea erabakitzen du. Arazo guztietatik ia libro dagoenean, abuztuaren 11an bazkailondon, badoaz AA.Gomez Rodeles eta Tomas Gomez Loiolatik, eta kotxe berean D<sup>a</sup> Teresa de Gordon, bere mirabetxo neskaekin".

Aranari ez zaio ohartu gabe pasatzen kukuaren agertzea, ez eta haren berri eman gabe uzten. Apirilaren 21ean izan zen urte hartan: "Euzki giro ederra. Kuku soinu baratz ondoan; arbola asko ostrotuak, txori-kabiak eta txermen batzuek adarkatuak eta handizkatuak". Arkume berriak ere orduantxe izaten dira gozoenak eta hara non datorkion Aita Aranari "Mikaela Bereziartua, Aizarnako neskatxa, arkume batekin bere ahizpa Joakinaren partez". Joakina bera Betelun da, hara idazten baitio Aranak eskutitza, eta handik erantzuten Joakinak.

Garagarzaren hiltzetik hilabete eta erdi oraindik igaro ez denean, eta agian heriotza horrekin zerikusirik ez duela, Aranak lau hitz idazten ditu, hurbileko aurreko eta ondokoekin loturarik gabeak eta hartaz gehiago jakiteko gogoarekin uzten gaituztenak. Hona hitzak: "Meza Santuan idurimen izuga-



rria". Auzkalo zer! Geroko ezbeharren aurre-mezua? Geroago ere izango ditu beste bi, baina haiek gertatzen diren ingurunean guziz ulertzekoak dira, orduan Arana hondatua eta lur joa baitzegoen. Hor gelditzen da hori bere soilean.

Euskarari buruz albiste ona: A. Txurrukak denbora asko ez duela A. Aranari agertzen zion desira konplitu: "D<sup>a</sup> Florenzia Z.-ena Tolosatik eta Donostiatik Gipuzkoako Komisio Probintzialaren eskutiz seilutu edo ofizioa, Vizepresidente Jose M<sup>a</sup> Unzeta ta Sekretario Joakin Urreztietakoak firmatuba, euskerazko erakustegi edo katedraren gainean"; eta hogeitun egunen buruan "Juanito Eginok hartzen du bihar Donostian, D. Jose M<sup>a</sup> Unzetari emateko, eskribu euskera-katedra gainekoa". Eta beste batzuk ñimiñoagoak: Arantzazuko kantatxoak D. Pedro Aldalurek itzuli omen ditu. Soroak berriz ere karta idatzi omen dio. D<sup>a</sup> Florentzia Zabalarekin "paperdi S. Jose ta Jesusen Bihotzarekikoak" hartu omen ditu. Pio de Berruetabeñak Bolibartik karta egin omen dio D. Jazinto de Sagastizabali Durangora Juan Jose Mogelen berriakin. Mugerzak Tolosatik "San Inazio Bizitza"-ko liburuko orri askotxo helarazi omen dio zuzentzeko.

#### 8. "NESKA XARTXO, GORTXO, BIZAR PISKA BATEKOA" (1886)

Abuztuaren lehen hamabostaldian biltzen da Loiolan Probintzi osoko jesuiten ordezkari mordo bat, Probintzi mailako Biltzar Nagusia egiteko; eta, beste etxeetatik datozeinei tokia egiteko, bertako ahalik gehienak igortzen dituzte Zumaiara, oporretara. "Gaur goizean 55 Meza etxean" eman zirela; hainbeste apaiz zirela bilduak, alegia. Hilaren 11an A. Arana A. Ortegarekin kotxean Zumaiara doa: "Ojo! ta besteak Zarautzera", dio Aranak nora nahia-go zukeen garbi azalduz.

Zumaian aisiarik ederrena Aranarentzat bainuak dira, badakigu. Aurtengo oporretan bederatzi. Hortik aurrera gauza gutxi kontatzen du, salbu Anita Ribaren esetsaldiak, M<sup>a</sup> Teresa de Gordonen karta Baionatik, Beobideren barkutxoan ibilaldi batzuk Urolan gora eta oinezko ibiltea Getaritik Zarautzera. Loiolara itzultzeko bezperan karmeliten kolejoan "danak agur eitera eta Anita Ribarekin". Eta Loiolara itzultzeko egun berean "9garren mainu ona 11etan jende askotxorekin". Luze baino lehen, Anita Riba Valladolida joango zaigu, Aranak nola deritzan esaten ez digun juez emazte batekin.

Gero Loiolatik etorri den kotxe batean Loiolara doa beste hiru lagunekin. Abuztua amaitzeko falta diren egun gutxietan ez du ezer handirik egiten. San

Joseren Kongregazioko Juliana Eguren, Geronan dagoenaren karta aurkitzen du, bai eta Jose M<sup>a</sup> Lardizabal, Zaldibiako apaiz "xaharraren" a (78) ere, non ematen baitio bere anai Francisco Ignazioren hilberria. Zumaiara doan A. Mintegiaga agurtzen du eta Bidegoiango bi ahizpa Vedrunatarren ama Antoniaren hilberria jakiten eta D. Agustin Jauregirekin Azpeitira "S. Inazioren neurtzaldiak moldatzeko" joaten.

Aldiz irailaren lehen zortzi egunak ausiabar izugarrikoak dira Loiolan, ia Gipuzkoa guztiko herrietatik erromes baitatoz, iaz Itziarra bezala, Ama Birjinaren festa aurreko hiru egunetan. Bergara, Oinati, Mutriku, Zumarraga, Urretxu eta abarretik: "bideak bete dator arrotzez festara", diogun poetarekin. Apezpikuak Meza, D. Andres Goñi de Lujok sermoi gaztelaniazkoa 10,30etatik 1,15etaraino. Bai ote? Elizkizun osoa, agian. Arratsaldekoa Fr. Daniel Baertelek, pixka bat laburragoa. Gero "8,30etan gabaz iristen da kantari "Ama Birjina Izaskungo", S. Migel, S. Isidro ta S. Roke tailu-iduriakin, txaranga ta estandarteakin, Tolosako ta Berasteikoakin. Obispoaren hitzaldia ta Salve kantatua Elizan, da jende asko zelai inguruban gabaz geldi da, eta gizon da emakume askotxok Etxe Santuban ta Obra berrian lo ein dute".

Biharamunean Tolosakoek Azpeitira eramaten dituzte lehenik lau irudiak eta handik 10etan berriz ekartzen San Inaziorenarekin batera. Gainerakoa bezperako moduan, salbu goizeko euskal predikaria, Albisturko Pradera. Hirugarren egunean "8,30etan iritsi dira Aiako, Errezilko, Zumaia, Getaria, Arrue, Aizarna, Beizama ta beste batzuek". Hauek ere sermolari berria, On Juan B. Pagadizabal, eta arratsaldeko "6,15etan Apezpiku, Probintzial, Erretore... zubira, Isabel II. erregin zanari Juantorrera pasatzean agur eitera". Arratsaldean A. Aranari karta moldetu bat eskuratzen diote, D<sup>a</sup> Antonia Fiol de Vedrunaren, Bidegoiango bi ahizpa Nieves eta Pilar Vedrunaren amaren hilberrikoa. Hau da Aranaren eskribu osoan pasarte bakarra, non esaten baitzaigu, ez nahi bezain irakurterrazki, zein deitura zuen Nievesen eta Pilaren amak, Vedruna jaunaren emazteak.

Hirugarren eguna, Ama Birjinaren festakoa, Azkoitiarra da: "jende asko ta asko konfesatzen da komulgatzen", diosku Aranak; "Azkoitiko prozesioa, haundi-ederrenetakoa, iritsi da ia 10etan, ta azkenean oinez zubitik Loiolara Erregin izandako Isabel II; ta kanta ta musika eder Azkoitikoen ondoren, paliopian Apezpikuarekin sartu ta egon da Elizan goizeko ta atsaldeko Elizpestan". Sermolari A. Arostegi; "Elizan lau-bat mila ta kanpoan A. Etxeberriaren hitzaldia pelotatik hiru-bat mila edo gehiago". Arratsaldean sermoia euskaraz: barruan D. Pedro Aldalurek eta kanpoan D. Agustin Jauregik. Arratsaldeko festa TE DEUM eta guzti eta Obispoaren hitzaldia 3,30etatik 6,30ak arte. Gero ilunabarrean prozesioa Azkoitiarren argiekin:

"jendetza haundia atsalde guzian pake ederrian; handizki asko etxian da kanpoan".

Bi lehen egunetan ez da azaldu ere egin Isabel II; hirugarrenean, azkoitiarrerean bai, haatik, eta biharamunean AA. Erretore, Olano eta Colomarekin Juintorrera doa Apezpiku jauna "ta han Isabel II ta bi lagun, On Pedro Aldalur ta besteren batekin bazkaldu dute". Biharamunean D. Ignazio Aldalur "Agur, kanta"-ren gainean mintzo zaio Aranari eta honek hurrengoan "Agur berri bat San Inaziori" ematen dio D. Agustin Jauregi Azpeitiarrentzat; hurrengo igandean "Loiolan Jesusen Bihotzeko Elizpesta ta azkenean Azpeitiarren prozesio ederra "Agur berri bat, San Inazio" kantatuz herri guziak".

Egun horretantxe hartzen du Ingalaterrara joan zen D<sup>a</sup> Teresaren karta "Edinburgh Scotland-dik, Via Francia; Mrs. T. Gordon, St. Andrews Convent of our Lady of Merey Eskbank, Edinburg, Scotland, par Angleterre". Ez da edonor gure anderea! Aranak hamabost egun geroago erantzuten dio Edinburgora. Baina urriaren hasieran Madrilen (Hortaleza 89) da dagoeneko eta elkarri hiruzpalau aldiz idazten diote Gabonak baino lehen. Bestalde A. Aranak liburu bat igorri nahi dio Madrila eta ikus nolako emakumearekin igorri ziola esaten digun: "Madrila dihoan neska xartxo, gortxo, bizar piska batekoarekin". Horrek eta beste 19 urteko "Juantxo mutil motel tutulu"-aren pintaketak agirian ipintzen dituzte Aranaren eskribatzeko dohaiak. Azken honek, egia esan, Kardaberazen beste hura ekarri digu gogora: "mutil mutu, lotu, motel".

## 9. "PROYECTO DE ACADEMIA EUSKARA" (1886)

Egun batzuk geroago Urretako baserrira eta Erloko puntara doa A. Arana hiru lagunekin: Anai laguntzaile Oyarzabal, zapatari Mariano eta Azpeitiko artzai batekin, eta aurrera 85urteko agure Anton Inazio Azkunerekin. Erloko puntaraino joan ziren Elurtei ondotik gora eta han Erloko Ertzeka aitzean, Loiolako kupula gurutzea ageri denean, burnizko gurutze polita ipini zuten, zeinean zioen: "Erlo gurutzea, gorde euskal jendea: 1886".

Eustakio Madina Sodupeko parrokoak zintzo irauten du Aranari aldian-aldian eskutitza idazten eta neurtitzak igortzen; sei egunen buruan kartatxoak idazten dio berriz. Jose M<sup>a</sup> eta D<sup>a</sup> Rosario Orue anai-arrebek bisita egiten diote Loiolan eta Jose M<sup>a</sup> Ampuerok eskutitza idazten. Garai honetan ateratzen dira urtero Oñarantz Filosofia ikasten hastera, antzinako Idazle Klasi-

koen azterketa gainditu dutenak, eta hala doa aurten, besteak beste, Inazio Ibero, A. Pablo Villadarentzat Aranaren partez Moret Leon-en bi liburu zahar daramatzala. Santa Kruzko Mercedesi Sta. Brigidaren egunean "5 biko neur-titz" egiten omen dizkio eta "Martinez moldateikoari "Martxa berri bat" zuzendatua" ematen.

Artiñano jauna berriki izan zen familia osoarekin Arana ikusten Loiolan; geroxeago honek Eusebio Lopezen karta hartu zuen Tolosatik, Noviaren hiz-tegi gainean Artiñano jaunarenarekin batera, eta hamar egun baino lehen honek Bartzelonatik bere eskribu eder *Proyecto de Academia Euskara* igorri zion Aranari.

Azkue Orioko pintoreak Loiolan egin zituen lanak aipatu ditugu gaur baino lehen; orain deitura bereko eta herri bereko beste gazte baten berri ematen zaigu. Apaiz-berritu eta, lehen Meza ematera Loiolara joan omen zen urriaren 3an, eta han bere ahaide apaiz zahar D. Antonio Legarrarekin eman Etxe Santuko San Inazioren aldarean.

Martzelino Soroaz eta Carlos Esain eskola-maisu nafarraz kontatzen digun gauzatxo batek gauzka pixka bat harriturik, nola adi ez dakigula: "Marzelino Soroaren partez ta Carlos Esainen partez "Diario" edo "Eguneroko" paper batzuek". Haiek ere egunkaria idazten dutela eta zati batzuk Aranari igortzen dizkiotela? Horrek egiantzekoago al dirudi ezen ez Aranak bere EGUNARIAREN orrialde batzuk kopiaturik haiei lehen bidali eta orain itzultzen dizkiotela? Ez bata eta ez bestea seguruenik, baizik egunkari edo periodikoaren bi puska igorri dizkiotela.

Urtezahar eguna ohi bezala ospatzea galarazten dio A. Aranari lagun min baten heriotzak. Aspalditik zituzten harremanak, kontaketa honetan behin baino gehiagotan islatu direnak. Frantziskotarra zen, Probintzial izatera heldua, Arana bezala azkoitiarra. Hauxe diosku ohi duen laburtasunez: "Gaur hil omen da santukiro Zarautzen Franziskanoen Probintzial zan Aita Fray Jose Epelde (RIP); Aranzazura eramatekoa".

## 10. "MAKINA 280 ZALDI INDARREKOAK" (1887)

Ezin esan denbora luzetxoa daramanik A. Aranak Loiolatik atera gabe eta halere Bizkai aldera jiratxo bat egin nahi luke. Hortzak ontzera joateko eguna eman dio Fermin Alegriak –"ni hortz ontzera astelehenean juteko"– Horrez gain, Deustun hiru lagun handi irakasleren azken zinitzak dira Otsailaren 2an eta beste zenbait lagun ere oso gustora bisitatuko lituzke. Joan eta etorri, hila-

bete egingo du juxtu-juxtu, urtarrilaren 12tik otsailaren 12ra. Durangon gaua pasa eta 13an Bilboko Plazuela de Santiagoko bizitex berrian kokatu zen.

Deustura egin zuen bertan bisita. Han Luis Alberdi ari zen etxeko batzuei "bizar kentzen 11etan Deustuko kolejio handi ederrean" eta bera parada hartaz baliatu zen ilea mozteko. Ez zuen luzatu Pilar Azara Vedruna "neska ikasle" Bidegoiangoari ere bisitatxo bat egitea Jesusen Bihotzeko Abandoko kolejioan. Behin gabe bitan gainera. Bigarren aldi horretan Begoñara joan zen arratsaldean On Meltxor Andonaegi, Sta. Monika mojen kapilauagana, eta haren neurtitzei "Garbiteiko animen gainian" begiratu bat eman zien.

San Bizente Abandokoan "Meza nausi ta sermoia hango Patroi egunez; Sabino Aranaren izebak" han ziren nonbait. Biharamunean "jende asko Portugaleteko pelota partidutik". Hurrengo egun batean Begoñan ematen du Meza eta han Juan Cruz Unzeta erretore jauna agurtzen eta On Meltxor Andonaegirekin txokolatea hartzen. Ronda kalean ezagun bat baino gehiago bizi da, nonbait; han ezartzen ditu D. Juan Orue, D. Estanislao Labayru ta D. Fidel Sagarminaga "ta bere liburutei haundia". Arratsalde batean "Carlisten gaztelu izandako mendi tontor Pitxonera" egin zuen jira eta biharamunean berriz ere bertara.

D. Fidel Sagarminagaren etxean lehen ere izana zen eta orain beste ikustaldia ematera doa hango liburuei. Han ikusten ditu besteak beste A. Gabriel Henaoren bi liburuak *Averiguaciones*. Bi egun geroago beste begiratu bat ematera doa leku berera. Otsailaren 2an, esan bezala, festa handia da Deustun eta hara doa "AA. Segura, Obeso ta Guinearen azken boto erlijiozkoak" ikustera eta gero ohiko besarkada bana ematera: "1<sup>o</sup> mota mahaian".

Burgosko adiskide D. Jose M<sup>a</sup> Cortesen bisita hartzen du egun batean. Bestean hirugarren aldiz "Begoña-gain goieneko mendiko gaztelura" doa eta beste batean "Begoña ta Bolueta ondora ta Atxuritik etxera". Hirugarren aldiz topatzen du On Meltxor Andonaegi eta honek Mogel Bizentaren neurtitzen berri ematen dio. Hirugarren edo laugarren bisita halaber On Fidel Sagarminagaren etxera, hobeto esan, liburutegira (Ronda 11, 1<sup>o</sup>) eta Antonio de Iraolagoitia delako batek (Bidabarrieta 12, 4<sup>o</sup>) bere bi liburutxo helarazten dizkio: *Prontuario de Higiene* eta Mogelen liburutxo bat.

Ez zigun esan galdu zuenik, baina bai aurkitu duela; haren poza!: "ager-tu da atzo galdutako hortz-iler". Arratsaldean D. Ignacio Galindezekin "Sestaopeko Burniolara" doa (Sociedad Vizcaína). Han D. Manuel Oraak dana erakusten die, "makina 280 zaldi indarrekoak ta labe haundi gorituak".

Igaro da hilabetea, egin ditu eginbeharrak eta otsailaren 12an, meza etxean eman eta gero, "Durangoko tranbian sartzera Atxuriko karrikan".

Durangotik 10etako kotxean Loiolarentz, "elurra ai zala Ermu aldera iritsi arte". Loiolara atsaldeko 3,30etan. Ia zorroak eta pardelak askatzeko ere astirik ez zuen izan, zeren zortzi egunen buruan Urduñara joateko prestatzeko esan baitzioten. Santa Kruzen moja baten, Sor Tomasa de N<sup>a</sup> Sra. de las Mercedesen profesan buru izateko bakarrik izan zuen astia: "Meza nausi ederra kantaturik Azkoitiko apaiz da soinulariak. Hitzaldia erreja aurrean jarrita Aita Aranak. Han bazkaldu (bazkari haundi)". Inoiz ez da xehetasunetan sartu ohi, zenbat bazkaltiar, zenbat jaki eta zenbat edari; "haundi" esan eta norberak asma dezala.

## 11. ANDRA MARIAKO ESKILA ERORI (1887)

Inauteri igandean "irteera Loiolatik Durangorako 12.30etako kotxian" eta iluntzean Durangora: "hango musika soinua ta mozorro-jantzi batzuek plazan zebiltzaten". Kolejioan lo egin eta hurrengo goizean Bilbora trenean: "han mandatu batzuek eiten goiz-arratsalde ta Deustora ilunaldean". Hurrengo goizean etxetik ateratzean "zaldi iñauteri; ateri. Atzo ta gaur karriketan musika eder da maskaradun batzuk Bilbon". Ordubietako trenean Urduñara bidean Olabide jauna izan zuen bidailagun eta laurak baino lehen heldu ziren Urduñara. Bizkitartean "kofria paper da liburuz betia" ez zaio Bilbotik iritsiko laugarren eguna arte. Zenbat denborarako? Baleki urte erdia pasatxo baizik ez duela han egingo!

Kolejioan urte asko irakaskuntzan daraman maisua da Emeterio Zugazaga. Urduñako gerla-aldi txarretan kartzela ezagutu zuen; anaia Felipe jesuita izan zuen, lan honen hasieran aipatua, eta Loiolan urte askotan Kardaberazen eta besteren izkribu pila baten kopiatzaile maratza izana. Arana Urduñara iritsi berritan Emeteriok jasotzen ditu "luma urrezko Durangokoa ta beste saritxoak". Zugazaga baino lehenago kolejioan eskolak ematen hasia, agian maisurik zaharrena, hil zaie Pazkoa baino egun batzuk lehenago, D. Pedro Cuadra: "hil da donekiro bere etxe ta salan jarrita zegoala, 50 urte ta gehiago latin erakusten-ta bizi izandu dan gizon prestu hobeeniko santuba".

Laster hasten zaizkio Aranari emakume lagunak inguratzen, beren seme-alabak ikustera doazenak: "Bilboko ta Plenziako jaun da andre haundizki batzuek hemen". Horiekin bateratsu A. Arana ikustera espresuki etorriak, Azpeitiko bi lagun min, Antonina eta Dolores Irazu ahizpak, Betelura ere jarraitu izan zaizkionak. Bi egun bakarrik ematen dituzte han eta "trenian badihoaz Durango ta Azpeitirako". Betelu utzi eta Azpeitira itzulia da iada-

nik Joakina Bereziartua, "Txaibarkoa", dirudienez, Aranak hara egiten baitio karta; baina ez luzarorako, zeren maiatzean Joakinak Aranari igortzen dion erantzuna, bi albiste hauek emateko da: Betelura doala berehala eta Sebastiana Egiguren hilberria zela. Vedrunatarrek ere ez daukate ahaztua. Egun batean Bartzelonatik (Duque de Vitoria 7,2º) hartzen du Pilar Vedrunaren "karta luzea" eta egun gutxiren buruan bere ahizparena Bidegoiandik. Pilarrek ondo-ko hiletan ere Bartzelonatik jarraituko dio idazten, Nievesek aldiz Bidegoiandik.

Oraingo egonaldi honetan badirudi A. Florez duela lagunik nahiena pasia joateko. Etorri berritan Artomañan eta Alorian izan ziren biak; geroztik Bertanga, Saratxo eta Amurrio aldean, Tartangako igeltsotegian, Lekamañan eta Muera Arbietokoa. A. Florez bera aritu zen urte hartan Elizan ematen "garizumako ostiraletako, ohi den, dotrina edo erakaste kristauzkoaren azalduera".

Aranaren eskuizkribuko lerrorik ederrenetakoak dira, ene ustez, zenbait egunetako eguraldiaz ari dela lumatik jalkitzen zaizkion deskribapenak. Entzun martxoko bost egun segidako hauena:

"14, astelehena. Goibel, hotz, euritsu ta elurtsu. 11etan elurra zerbait, hasi bakarrik hemen. Orduña inguruko ahizpe danetaraino; Antigua gainean dana elurrez txuri".

"15, asteartea. Atzo goizeko modura goizean. Atsalde erditik aurrera elurra xehe-xehea ai da ta iluntzerako ontza pare bat lodikoa teiletu-gain guztietan. Hotz haundi ta haize meheia".

"16, asteazkena. Gabea elurtea gehitu da zerbait. Goizean berriz elurjasa".

"17, osteguna. (Garizuma erdi). Atzo ta heranegun bezela, goibel, hotz eta elur xehea tarteetan. Elurra goiz teiletu ta kanpoetan".

"18, ostirala. Goibeltxo; atzo baino bigunxeago; beheko elur gehienak urtu dira".

Eguraldi txarrak, beraz, hemen neguan ohi duen bezala. Kalte handiak eragiteraino batzuetan; orduan ez hain handiak, Jainkoari eskerrak. Aste Santuko eliz-festetan sartzera zihoazela, Erramu bezperan, hain zuzen, "gaberdi aldera euri, tximista ta turmoialdi gogor batzuek eta handik laster, bat batean, oinazkarra, hots eta zartara gogortziarekin, erori da parroki Santa Mariako eskila, torrian harri batzuk zerbait puskaturik, kalte haundi gabe".

Hilabete eta erdi geroago arte ez zitzaien iritsi haren ordeko eskila:

"Iskilatorrera gaur atsaldean jaso dute goizean iritsi dan "San Jose" izeneko kanpai berria, lehen puskatua eramana baino haundixeagoa ta soinu hobekua; ta jarri da azkena Burgos kale aldeko torretxoan". Baina hor ez dira bukatzen kanpai berri bat ipintzearen lanak; gero soinuak, bereak eta besteekikoak, egokitu behar dira eta hartan aritu ziren "Anai Zendoya ta beste batzuek, iskila-torreko kanpaien uztarri zuzenenak antola edo konpontzen". Oraindik aste-bete geroago Anai Zendoya eta besteak kanpai uztarriak konpontzen ari zire-la esaten digu Aranak. Kanpaien pareko abots ederrekin, ostiral santuko eliz-kizunean kantaltsean aritu ziren Pasioa kantatzen AA. Txurruka, Etxeberria eta Arana. A ze hirukotea! Zein baino zein abots hobekoa!

## 12. "BAI, PEKATU DA LIBERALKERIYA" (1887)

Apezpikuren bat haratzean kanpaiak jotzeko ohitura zen eta ez dakit no-lakoak joko zizkioten, kanpaia hondatu eta hamabost egun baino lehen, "Amerikako (Guatemala aldeko) Guayakilgo Apezpiku gazte, Jesusen Lagun-diko Roberto del Pozo, Aita italiar Cardellarekin" heldu zenari. Eskerrak, jesuita izanik, etxekoa zela eta lagunak desenkusatuko zitue-.Biharamunean ikasle guztiei eman zien Meza aldare nagusian eta gero zazpi kolejial konfir-matu zituen. "Kafia hartzeko Apezpikua-ta, gurekin; etorri dira ere herriko apaiz gehienak eta gero teatro edo jostirudi salara".

Egun batzuk geroago Kordobako Magistral D. Manuel Franzes eta Aita X. Duñabeitia, Franziskano kaputxinoen Probintzial Kantabriakoa, izan zituzten etxean bisitari. Bigarrenaren beste berririk ez dakigu; lehenarena bai, bi mojarren profesara etorria zela eta Antiguako Ama Birjinaren Uriko eta Kolejioko Patroitzaren festegunean, maiatzaren 8an, Meza nagusia berak eman eta 65 minutuko sermoia egin zuela. "Antigua bidean eskale asko" esa-ten digu Aranak. Biharamunean izan zen Enseñanzako ikastetxean bi moja profesen festa.

Elizgizonez gain laiko askotxo dabil, zeren Pazko egunetik aurrera egu-raldia ezitzen baitu eta etxetik ateratzera gehiago gomitutzen. Han dabil Valleko Kondia, etxekoekin bazkalduz, eta Luis Unzeta ere bai kafia hartuz, Bergararik etorrita, eta ez egun batean bakarrik; hurrengoan ere "Valleko Kondia ta Luis Unzeta etxean gaur gurekin". Halaber Egidazu hiru anaiak, Cesareo, Roberto eta Tomas. Muruako markesa Bergarakoa ere han dabil egun batzuk geroago bere alabarekin. Bai eta Don Gregorio Ulloa eta bere emazte M<sup>a</sup> Almarza ere, honen ahizpa Doloresekin Gasteiztik etorrita. Hauek



guztiek seme bana dute nonbait kolejoan ikasten. Gregorio Ulloa horrek fin jokatu du Aranaren Oñako egun tristeetan, bisita egitera bertaraino joanez.

Eskutitzak idazten dizkietenetara bagatoz, berriena eta kuriosoena "Encartaciones" hitzaren etimoa eta esanahia jakin nahi duen batena da. Aita Juan Kondek egiten dio Bizkaiko S. Salvador del Valleko Matamorostik lehen karta, J. Gabriel Maclennan delako baten partez. Hiru egun geroago erantzuten dio Aranak J. Gabriel Maclennan berari "Encartaciones izenaren sortze gainean". Laster du Matamorostik beste karta. Ez dakigu nolako etimoa proposatzen zion Aranak, ez eta Gabriel jaunak guztiz sinetsi zuen ala erabat arbuiatu. Dakiguna da ez dirudiela Aranari berriz idatzi zionik, bai ordea haren ordeztu A. Kondek Deustutik "Maclennan gainean".

On Agustin Jauregi Azpeitiko erretoreak hilberri triste bat emateko idazten dio: Amezua jaunarena, Aranaren lagun handiarena, parroko organista famatu, izena oraindik azpeitiar askoren gogoangarrian dagoenarena. Organo fabrika berak ipini zuen Azpeitian eta geure egunotan irekita ezagutu izan dugu. Aranak bere aldetik "karta Amezua zanaren gainean" egiten dio. Handik egun gutxitara berriz idazten dio D. Agustinek "Amezua zanaren 200 Meza gainean" eta bi egun geroago Aranak hari "karta ta 2000 erreal Mezatarakoen papertxo egiztaria" igortzen.

Lau emakume seinalaturen kartak, zeinen izenak Aranaren lumatik maiz isurtzen baitira, egun berean hartu zituela esaten digu: Inozentzia Olazabal, Joakina Bereziartua, Antonina Irazu eta Guadalupe Urkizurenak. Beste bat askitan aipatu duguna hiru egunetarako Bidegoiandik joana han da: Nieves Vedruna bere bi seme-alaba Inazio eta Pilarekin. Bigarren egunean Aranak adiskideei, ohi duen legez, etxea eta ikastetxea erakusten dizkie.

Eskutitzen ordeztu aldizkariak igortzen dizkiote beste lagun batzuek. Hala nola Donostiako lagun Etxeberriatar batek ekarri dizkio hiru hilabeteko EUSKALERRIAK eta On Antonio Arzaken kartatxoak. Beste batean Manterola jaunak helarazten dizkio Donostiatik "EUSKALERRIA-ren 9 liburu falta zirenak", Etxeberria jaun berak karta bat egiten diola gai horretaz Aita Mendiari. Aldiz ESKUALDUNA "paper euskera ta frantzeseko 4en lumeroa" D. Benito Amestoyk bidaltzen dio eta geroago beste bat ere bai. Lopezek Tolosatik aldiz "10garren orrialde Hiztegiarena", Noviarena, antza.

Ezin utz dezakegu aipatu gabe, oraindik euskal liburu kimua baizik ez den arren, "El liberalismo es pecado" katalanez Sardá y Salvany apaizak idatzia, Aranak euskarara itzultzea egun hauetantxe erabaki duena. Hiruzpalau urtetan zehar entzungo dugu, pixkanaka egiten arituko den itzulpena, Bartzelonara igortzen eta handik itzulpenaren probak hartzen eta zuzentzen

dituela. Hartara berriz ere beharko ditu eskribitzaileak! Jose Orbegozo ernaniarrak, egun batzuk hartan aritu eta, laster alde egin dio. Orduan Felix Tejada hartu du. A. Jose Vinuesa benetan gogatu dago Aranak "El capitalismo es pecado" liburua itzul dezan eta Santandertik idazten dio Aranari Aita Juan M<sup>a</sup> Soléren gainean, honek Sardá-ren liburutxo ingura diezaion. Egun gutxiren buruan Aranak karta bana idazten die Aita Vinuesari Santanderera eta A. Juan M<sup>a</sup> Solé-ri Bartzelonara. Laster hartzen du honen erantzuna (Lauria 21).

Donostiako "Hitz-jostaldia" izeneko Batzarraren karta molderatua hartzen dute Aita Txurrukak eta biek, Aita Santu Leon XIIIgarrenaren ondran izkriburen bat egin dezaten erregutuz. Ordukoa dirudien hogeitazortziko nagusiz onduriko kanta luze batetik hartzen dugu hau:

Zeruko Argi, "Legoi" bortitza,  
Iriki sarri ezpañak,  
Mundu guzia senda dezake  
Aita Santuben mingañak;  
Zure doktriñak ederrak dira,  
maitagarri ta lirañak,  
Animen ogi gozo-gozoak  
Nola ezti txit bikañak".

Maiatza bukatu baino lehen, Begoñako Amari ikasle guztiekin batera bisita egitea bururatu zitzaizen kolejioko Agintariei. Aste eguna hautatu zuten eta, hain zuzen, Aranak 49 urte betetzen zituena. Mutiko gehiegixko ziren 290, batere okerrik gertatu gabe halako bidaia egiteko. Goizeko 4etan jaiki eta 6etan kolejio guztia Bilbora abiatu zen "New" aparteko sei-bagoidunean. "Deusto ta itsasoraino bapore erremolkadorean. Ollargan edo Dos Caminos ondoan jatsita, igo dira txaranga, uniforme da ilera onean mutiltxoak Begoñara 7,30etan". Ondoren Meza. Egun ederra igaro zutela esan beharrik ez dago eta xehetasunak alferrik dira, Aranak ere ez baititu asko ematen. Bat ematen du. Eliz-atari zabalean bazkaria egin omen zuten, jende asko begira zegokiela, eta 3ak eta 4ak bitartean azken elizkizuna, "ADIOSA" elizan, ondoren Deustura jaisteko". Deustu ikustatu ondoren danak berriz baporera, han etxe aurrean bertan, eta Portugalete, Olabeaga, Zorrotzaraino jaitsi ziren eta itzultzean Bilboko Arenalean lurreratu. Zazpiak aldean trena berriz hartu eta 8,20tan Urduñan.

Maiatzeko Pazku bigarren egunean edo San Inazio Iruñean zauritua gertatu zen egun-hurrenean "festa haundia, paper molderatuan adirazia zegoan bezela", izan zuten, urtero bezalatsu, eta hiru apaizek eman Meza Nagusia, haietako bat Aita Mintegiaga, Deustutik hamar egunetarako joana, eta Aita

Rojas, etxeko jesuitetan gaztelerazko hizlaririk onenak, egin sermoia. Arratsaldean iritsi zen Beirut sortaldekotik Aita Jose M<sup>a</sup> Atxukarro, gero teolojiako irakasle izango zena, "bizar luze ederrez". Hurrengo igandean ere A. Mintegiagak ematen die Meza kongregante edo Jesusen Bihotz Bilerakoei eta arratsaldeko Elizkizunean ere hitzaldia A. Mintegiagak egiten du.

### 13. "400-BAT UME KONFIRMATU" (1887)

Aranaren garaian fama handixkoa izan, dirudienez, eta gurean erabat itzali zaien aurreko hiru jesuiten aztarnen bila maiz ageri da Arana. Oraingook nor izan ziren ere ez dakigu. Aita Jose Inazio Gerriko da bata, euskal idazleaz bestea, noski, Santander aldean batik-bat misiotan ibilia eta santu fama handiarekin hila. Inoiz Aita Pablo Villada historialariari "A. Gerriko zanaren berriyak" Oñara igorri izan zizkion Aranak.

Bestea Anai laguntzaile Manuel Ziorraga, aurreko mendekoa eta Lezaman jaioa. Egun haietako batean, Aita Mintegiaga han zegoela, Lezamako parroko On Markos Aspizua karta bat idazten dio Aranari "ta Anai Manuel Ziorraga (1737) zanaren bataioko egiztaldia" igortzen. Astirik galdu gabe doa "atsaldean 3,30etan A. Mintegiagarekin Lezama ta Arbietora Lekamañatik eta etxera Longaraitik". Han D. Marcos Aspizua parrokoak eta haren mirabeak hartzen dituzte eta "bataio liburuak 1537an hasiak" eta "erlikien artean Anai laguntzaile Manuel Ziorragaren alkandora puska haunditxoa (1799)" erakusten. Bi jesuita horien aipamen gehiago ere egiten ditu Aranak eta ekainean esaten digu Enseñanzako moja Nievesi eman dizkiola D. Pedro Cuadra hil berriaren eta Ziorragaren bizitzak. Aurki adereziko digu Aranak bi paper baliotsu horien bukaera tristea.

Hirugarrena da ezezagunena, izan ahal badadi, eta halaz eta guztiz ere hiruretan, dakigula, euskaraz zerbait idatzi zuen bakarra, Aita Goenaga, alegia. Bataio-izena ere ez digu esaten Aranak. Bai, ordea, Tolosako inprimatzailer Mugerzak karta eta horren 12 liburuxo igorri dituela, beste batean 24 (liburuxoa zein datekeen ez dakigu), eta hamarna errial balio dutela. Horixe da guztia.

Mutikoak beren kurtso azkeneko azterketak Bilbotik etorritako aztertzailleekin "hiru erabakitegitan" eztabaidatzen hasi direnean, Gasteizko Apezpiku jauna, On Mariano Miguel Gomez, doa parrokiari eta inguruko herriskei sei eguneko bisita egitera. Arratsalde batean "400-bat ume konfirmatu ditu Obispoak parrokiari", diosku Aranak, eta nahiz batzuk inguruko

herrixketakoak eta guztiak adin desberdinekoak izan, ez da duda ume parras-ta handia dela. Kolejioari bisita egin zionean, ikasleek hiru orduko "ikasola" edo letra-gudu bat eskaini omen zioten. Beste egun batean Enseñanzako moja etxera eta gaixotegi eta Santa Klarara egiten du jira, eta han agertzen zaigu bi egunetan Isolina San Jose, Azkoitiko "Guardixako" alaba; ez bakarrik, baizik Burutalde osoa: "hemen Emilia ta Isolina ta Sokin ahizpak". Karidadeko ahizpa direlako itxura osoa dute.

Isolina dabilen inguruan ez da mirakulua "Pia Unión edo Conferencia Josefina"-ren aipua agertzea. Bide batez jakiten dugu Zumarragako parrokoari "Conferencia Josefina"-ko paperak igorri zaizkiola. Hurrengo hitzek susmarazten digute zer izan dezakeen Aita Probintzial Martinek Aita Aranaren kontra, horren aztarnak ageri baitira. Aita Suarez Urduñatik Oñara doa eta "berekin A. Prob. Luis Martini eskutitza eta "Conferencia Josefina"-ko paper bi" daramazkio.

Deustutik irakasle taldetxoak etortzen hasiz gero, Urduñakoek ere opor-rak hasitzat ematen dituzte, nahiz egun batzuk Urduñan bertan segitzen duten, harik eta Areetako etxea apailatu arte. Oporren hasteak berrikuntzak dakartza: billar-mahai berria, pianoa eta "jokagaitxoak", Izarra izeneko herrixkaren ondoko baso batean egiten duten egun-pasa. Han dituzte bertako eta inguruko zenbait apaiz eta Urduñako zenbait irakasle. "Bazkal-bitartean neurtzaldi-bonbak" edo, bere hitzez esateko, "mota berezi bateko neurtzaldiak".

Alkate zaharraren ordeez berria, Gezala jauna, Bilboko Gobernadore jauna ohoratzen Urduñan da. Deustutik jesuita gehiago ari dira Urduñaraten, Arbieta-Muerako bainuez gozatzeko. Aldiz Urduñakoak Deustura doaz; haien artean bat Arana: "A. Mendiak" (etxeko diruzaina baita), "eman dizkio A. Aranari mainuetarako 8 duro edo 160 erreal".

Lehen egunean hartzen du Aranak Areetan lehen bainua beste bi lagunekin; handik itzuli eta Bilbora lagun batzuekikoa egitera: Egidazu, Aita Garziarena, Novia Salcedo. Era bertsuan bigarren, hirugarren, laugarren bainuak, uda hartan sekula baino gehiago, 14. Gainera zenbait bisita hartzen du: Ermuako markes jaun Valde-Espina, Gaitan beste azkoitiar batekin. Getxon kanpo-eguna ematen dute bederatzi lagun bilduz, Garziarena, Mintegiaga, Aranburu, Florez, Arana etab. Beste batean Somorrostro aldeko meatokieta-rra; bestean San Mamesko erruki-etxe handi ederrera. Eman dituzten zortzi egunei aski iritzirik, bihurtzen hasi dira batzuk Urduñara.

Aranak ez du egunik galtzen eta beste hamaika emango ditu oraindik han. Horietatik lehenengoan Bilbora doa A. Florez eta anai Uztararekin. Ibañez

karrikan, S. Bizente Abando ondoan, kalean topatzen dira haiek eta "D<sup>a</sup> Pascuala, Aranaren alarguna, ta bi seme Sabino ta Luis". Anai Manuel de Ziorragaren berri urrutitik ere igortzen ari zaio jendea; Orihuelako kolejiotik Aita Jose M<sup>a</sup> Beltranek karta egiten dio zenduaren gainean eta hamar egunen buruan berriz, han bertako Aita Bernardo Requesens erretoreak, "Anai Ziorraga zanaren gainean paperakin". Berak aldiz Baionako Lampaignère jaunari egiten dio, Arantzazuko Ama Birjina koroatzerakoan egin zituen hitz-neurtuak d'Abbadieri emateko eskatuz. Heldu da azken eguna eta Aita Probintzial Luis Martini eskutitz bat egiten dio. Gero A. Florezekin Areetara doa, "14garren ta azken mainua aurtengo, Jainkoak nahi badu" hartzera.

#### 14. LEHIA GOGORRA (1887)

Ekainaren 30a da eta Arana Urduñara doa atzera A. Florezekin 9etako trenean. Supituan Aranaren izenari oso lotua dagoen beste batena etorri zaigu gogora: non da D<sup>a</sup> Teresa? Bost hilabete dira emakume haren berririk ez daki-gula eta izenik irakurri ez dugula. Halako batean, abuztuaren hasieran, Madrildik idazten dio karta A. Aranari. Bost egunen buruan erantzuten dio honek eta bi egunetara hark berriz idazten. Hamabost egun igarotzen dira D<sup>a</sup> Teresak berriz idazterako, eta egiten du ez Madrildik, baizik Angletik ("Maisons Neufs aux cinq cantons", Anglet par Bayonne). Hogeita lau ordu-ren buruan erantzuten dio Aranak leku horretaraxe eta ia hamabost egun geroago arte ez du jasotzen D<sup>a</sup> Teresarenik, baina beste hiru egunen buruan baten ordeztu bi batera. Tuntu horretan iristen dira urriaren 5era, non hartzen baitu Aranak "M<sup>a</sup> Teresa Gordonen karta Kambotik" eta bertantxe erantzuten dio Aranak; eta hurrengoan seinalatzen digu: "Teresa Gordonek atzo bialdutako partea ta gero karta; beste eranzuera; ta karta M<sup>a</sup> Arangureni, haren dontzeila, Kanbora juateko". Hau Aranak, noski.

Biharamunean eskuratzen du "D<sup>a</sup> Teresa Gordonen karta Kambotik 7an". M<sup>a</sup> Arangurenik ez aipatzean, Aranak berriz idazten dio honi. Baina alferrik, bitartean D<sup>a</sup> Teresak beste irtenbide bat aurkitu baitu, Aranak 12an dioskunez: "Ostaturatu da gabeen D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Teresa Gordon Baionako (St. Sprit) M. Vergerekin", eta biharamunean azkenik: "Hemen D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Teresa Gordon M<sup>a</sup> Vergerekin".

Horrenbestez bi pertsonaren arteko istoria honen muga nagusi batera heldu gara eta hor eteten dugu oraingoz bien gutuneria, laster berriro hartzeko. Hor uzten ditugu biak: D<sup>a</sup> Teresa A. Arana baino lasaiago, gutxiago baita-ki arazoari buruz; A. Arana urduri eta larri, gerta dakiokenaren beldur.

Aita Inazio Ibero azpeitiarrak bezperan, S. Inazio egunean, apaiztu eta abuztuaren 1ean eman zuen lehen Meza Loiolan. Inazio zen, Jorge anaia gazteena Lagundian sartu berritan hil zena kenduz gero, gelditzen ziren hiruretatik bat. Hori zela-eta, Aranak hamarrekoak igorri zizkion. Bienbitartean Aranari gutxitan gertatzen zaiona egin zaio: esatea ahaztu noiztik dagoen han Sabino Arana, eta aldiz bat-batean botatzen digu: "Sabino Aranarekin egondeira AA. Txurruka ta Uztararekin". Ez zaio aldiz ahaztu kontatzea nolako ondoeza eman zion lau egun geroago, etxeko lagun guztiak kaperan Litaniak errezatzen bilduak zeudela: "Letanietan Aita Aranak ezin, da AA. Olasagarrek ta Etxeberriak jarraitzen".

Abuztuko osterantzeko albisteak elkarren gainean oldartzen dira eta abiada bizian igarotzen. Ama Birjinaren Zeruratze egunean A. Palaziok erretoretza uzten du eta haren tokia A. Baldomero Bidaurrek hartzen. Julio Tejedorek eskutitz bat euskaraz idazten dio. A. Probintziala eta Sorondo Urduñan zehar Sobronerantz doaz. Vedruna deitura da askozaz gehiena entzuten dena azkenaldi honetan, D<sup>a</sup> Teresarena isilduz geroztik; badute Bidegoiango bi ahizpek beren artean xextraren bat, ama hilez gero, eta Aranak konpon dezan nahi bide dute.

Gehiago luzatu gabe agirian jarri beharreko gauza dela uste dugu, nahiz oraindik proba askorik ez dugun, nola A. Aranaren eta Aita Probintzialaren arteko harremanak hoztuz eta ozpinduz doazen. Geroko berri jakiteak eramaten gaitu beharbada iratxorik ez den edo bestek ikusiko ez lukeen lekuan iratxoak ikustera, baina susmo txarra sorrarazten digute gertari hauek, banaka ez, baizik multzoan harturik: batetik A. Palazio, bestetik AA. Probintzial Martin eta bere idazkari Sorondo bitan elkartu dira Urduñatik kanpo eta beldur gara beste solasgaien artean ez ote zuten bat A. Arana eta A. Aranaren lagunak eta bizimodua. Bilboko bigarren elkartzeko horren biharamunean Aita Probintziala Urduñan azaltzen da eguerdiarte, eta bazkalondoan Salamankarantz jarraitzen du bidaia Aita Sorondorekin. Handik hogeitau egunera hartzen du Aranak "Aita Agintari Luis Martinen kartatxoa Valladolidtik "Iñigo"-ren liburugaiaren papertxoak atzera bialdurik", itzulirik, alegia.

Honaino ezer ez, esaterako. Baina ikus ondoko beste karta-truke hau; ekainaren azken aldera Aita Sorondok Aita Probintzialaren ordeztuz erantzuten dio Aita Aranaren kartatxo bati, eta honek orduan Aita Probintzialari egiten zuzenean bestea, udako oporrak Betelun ematen utz diezaion: baietz, baina lehenago elkarrekin hitz egin behar dutela.

Abuztuaren erdi aldera Aranak Loiolako erretore Aita Blas Olanori idazten dio esanez halako egunetan joango dela. Lagun handiak baititu

Enseñanzako kolejioan, hara doa azken egunean: "han agurrak eta mandatuak Loiolarako". Baina hara non hartzen duen "goizean juteko nagola, Probintzialaren karta; etorri arte itxedoteko ordena edo agintea". Asmoak aldatu eta bertan gelditzen da, noiz deituko zain.

Bere penak norbaiti kontatu behar eta, Aita Ramon Vinuesarekin eta Aita Mendiarekin ateratzen da ibiltzera, eta haiei kontatzen Aita Probintzialaren mezuak. Ez zuen ordea luzaki itxoin behar izan, zeren biharamunean hartzen baitu berriz "A. Probintzialaren berri: ni hanbat ( "lasterren" idaztea ahaztu bide zaio Aranari) Anai Bidaurretarekin juteko". Lehenago ezinik, abuztuaren azken egunean abiatzen da Loiolara. Miranda, Altsatsu, Nanklares etab.; 7etan Zumarragara. Hemendik Loiolara Martzelino Ugaldereen kotxe berezian, 80 errealian. Zein aldetatik etengo ote da soka?

#### 15. "SAN MIGEL AINGERU, GUGATIK ERREGU" (1887)

Loiolara bezain laster, Aita Probintzialari mezua igortzen dio Anai atezainaren bidez, heldu dela eta nahi duenean joango zaiola gelara solasaldi bat egitera. Bertantxe hartu zuen. Han barruan zer gertatu zen eta elkarri zer esan zioten ez dakigu; ez ze erru eta hutsegite egotzi zizkion Aita Probintzialak Aita Aranari, ez eta nola zuritu zuen honek bere burua.

Guk gauza bat dakigu: Loiolan ez zituela Aranak hogeita lau ordu ere egin; eta ohean lo zenbat? Askok ez, goizean "Mezagabe gau txarragatik" gelditu baitzen. Zer esan dio Aita Probintzialak? Aita Legarrak ematen dizkion 600 errealekin Zumarragara doa, handik trenean Tolosara "ta kotxian Tolosatik, Lizarzatik barrena, Beteluko bainu-etxe haundira, dana iturriko urak hartzeko". On egingo al diote! Atsedean beharra duela Aranak uste dute nonbait Agintariak eta zenbait lekutatik ezkutatu beharra. Han ere lehen gaua halamodukoa da, haatik; hurrengo goizean ez du behintzat Mezarik ematen "gau txarragatik". Aita Pereda du lagun egun batzuetan eta hark Iruineko Apezpikuari Aranarentzat eskaturiko "baimen apaiztakuak" iristen zaizkio, Bilbotik Sabino Aranaren karta luzea eta Angletetik D<sup>a</sup> Teresa Gordonen kartatxoa hartzen dituen egun berean.

Ama Birjinaren egunean, 8an, berak du "Meza nausi parrokoan hitzaldi euskerazkoa". Arratsaldean Betelura eta Arribara doa D. Martin Jose Errekalde apaizarekin eta haren iloba D. Zeziliorekin: "hemen saku-joku, kartak, sailajoku, dantzak eta gabeen 9etan suzko zezena". Biharamunean M<sup>a</sup> Teresa Gordonen bi karta hartzen ditu eta hurrengoan Tolosara eta

Donostiara doa, bietan ezagun eta adiskide asko albistatuz. Lehenean Pilar Vedruna (calle Mayor), Lopezen anaia eta emaztea, Retana bi anaiak, etab. Donostian areago: Balzola, Murua (Conde del Valle), Muñoa bi anaia, On Jose Balderrama apaiza, Arzak etab. Eguerdian atsedean alditxo bat hartzen du: Gaztelu-ertzeko bide gainera igotzen da eta portuko jendapilarekin batera "Errejentaren irteera Bilborako itsasoz ikusten, nola zihoan ontzi-torpedero deritzanean". "Begi-kristal ikuste laburrekoak eta guraizetxoak erosit", 3,45etako trenera. Tolosako egondeian Lopez zain dauka, bere etxera lehenbizi eta gero Betelura kotxean eramateko.

Beste bi ibilbide egiteko denbora bakarrik gelditzen zaio, uste baino lehen deitzen baitiote Loiolatik. Batean "Arribako malkorreko pulunpatei (cascada)"-ra doa, bestean San Migel de Excelsis-ko Santutegira. Arratsaldeko 7etan etxeratzean, Aita Demingo erretore-ordearen karta Loiolatik egin aurkitzen du: "lehenbailehen haratzeko A. Peredaren partez". San Migelgo ministro, On Migel Makirriaini, kanpoan baita, honako agur hau uzten dio Santutegirako:

"San Migel aingeru,  
gugatik erregu;  
Zeruko aingeruen burugoi lenena  
izan zaite bitarte Euskalerriena"

Hamabi egun egin ditu eta "sendazale Isidoro Casulleras-i 40 errial, mirabeari 8, sakristauari 4 emanda, Betelutik irteera Tolosa ta Loiolarako". "Betelu, agur", idatzi du azkena bere EGUNARIAn. Tolosaraino ez da bakarrik kotxean, beste gehiagoren artean Jose Vicente Balda bertsolaria du. Han D<sup>a</sup> Florenzia eta etxeko seme Jose Manuel eta gainerakoekin bazkaltzen du. Zumarragara 4etako trenian eta handik Loiolara. Biharamunean Etxe Santuko Erregutegi antzinakoan Meza ematen du eta Santa Kruzko mojei eta Baroiko senideei oles egiten. Betelurako A. Legarrak eman omen zizkion 600 errialen "kontu guztiz zinak bihurtu" ditu ("geldi dana hau da, 384 erreal da 40 ehun-ki edo zentimo") eta bospasei eskutitz idatzi, D<sup>a</sup> Teresari eta M<sup>a</sup> Arangureni bana.

Etxe ikusten beti izaten zen jendea eta irailaren azken egun epel-goxoek erakarririk gehiago; eta hala egun batean "Zabalburu, Bilboko senar-emazteak", diru franko eta izen handikoak, ikusten ditu gehiagoren artean. Bestean Azpeitira doa, "Martinez Pablorenian 12 papertxo S. Inazioren ibil-neurrikoak" jasotzera. Martxakoak esan nahi ote du? Askok ez duela, jakin genuen nola sartu zen nobizio Mendieta apaiz bizkaitarra, kantari ona. Oraingo hau bakana da: 63 urteko D. Carlos Perrieru, "Espainiako Ministro-arteko izana



Ultramar egintzetan", Lagundian sartzeko eskale joan omen zen Loiolara urriaren 1ean.

D. Ignazio Lardizabal isikaturik dago: Aranak Aita Santuarentzat egin dituen neurtitzak larru-zati mehe eder batean eztenkatuz igorri behar zaizkiola, eta Aita Legarrak dakar Donostiatik halako larru-puska bat. Astebete geroago landua dute "narru txuri izkribitua" eta Lardizabali igortzen diote Donostiara, honek Erromara helaraz dezan. A. Juan M<sup>a</sup> Soleri hasi zaio bidaltzen "Liberalkeria pekatua da" liburuaren itzulpenaren lehen orrialdeak.

Betelutik itzuli zen egun berean izan zuen "gabean puntuak hartzea" gogojardunei ekiteko. Zortzi egunetan badu zer pentsa, badu zer hobe eta zer alda, zigor handitxoren bat nahi ez badu. Aita Probintzialarekiko harremanak nahikoa tenka daude eta ez zaio komeni soka puska dadin. Loiolako Erretorea berritzen dute egun haietako batean eta lehengo Aita Blas Olanoren ordeztu Aita Eduardo Gallo, latinista eta humanista trebea, izendatzen; beraz Aranaren ezpalekoa. Durangoko On Carlos Orue ere apaiz talde batekin gogojardunak egiten ari da hantxe.

Hona berriz hiruren bizitzak elkarri lotuak, Aranak gogojardunak bukatzean; batetik "zortzi karta egun hoetan neri iritsiak" ate ondoan dituela diosku; horietako bi, D<sup>a</sup> Teresarena eta M<sup>a</sup> Arangurenena, zortzi egun lehenago Aranak egindakoen erantzunak. Aurki hartzen du berriz "M<sup>a</sup> Teresa Gordonen karta Kanbotik" eta honi berehala erantzuten. Biharamunean berriz "Teresa Gordonek atzo bialdutako parte ta gero karta; beste erantzue-ra, ta karta M<sup>a</sup> Arangureni, haren donzeila, Kanbora juateko".

Bestetik Aita Probintzialak Aranarekiko erabakia hausnartzeko astia izan du eta egun gutxiren buruan adieraziko dio. Adierazi baino lehen, ordea, Aranak D<sup>a</sup> Teresaz egiten duen azken aipuan hitz hauek irakurtzen ditugu: "Goizean jun dira Durangora, gabean etxeratzeko honuntz, D<sup>a</sup> Teresa Gordon da neska Maria Verger".

Azken hitz horiek urriaren 15ekoak dira eta egun berean bi lerro beherago honako hau dio Aranak: "*neure Durangotzekoaren jakintza*". Horra Aita Probintzialak oraingoz hartua duen erabakia Aita Aranari buruz. Ohar bide batez D<sup>a</sup> Teresa egun berean, goizean, Durangon izana zela. Beraz ez dirudi Aranagandik urruntzeko asmo handirik duenik. Aitzitik, handik egun gutxitara hau irakurtzen dugu: "D<sup>a</sup> Teresa Aristegi Gordon jun da eguerdian neska Miria txikiarekin Durangora han bizitzeko". Eta hori, oraindik Aita Arana Loiolatik mugitu ez delarik. Eta Miria Txikia nonbait aski ez duelako, Donostian M<sup>a</sup> Arangurenekin solastatzen da eta egun gutxitara irakurtzen dugu: "Etorri da M<sup>a</sup> Aranguren M<sup>a</sup> Teresa Gordonen bizilagun izateko".

Kontakizun honen azken atalera iristen ari gara, baina lehenik arnas pixka bat hartu eta jabe gaitezen, lehendik jabetuak ez bagaude, emakumeen artean ez ezik, gizasemeen artean ere bazituela Aranak adiskide fin-finak. Hona bat, Antoine d'Abbadie jauna. Bien arteko harremanen laburpen bat ematea zilegi bekigu.

## 16. ARANA - D'ABBADIEREN ARTEKO HARREMANAK (1868-1891?)

Geldialdi eta etenaldi bat egin dezagun, Aranaren eta d'Abbadieren arteko harremanei buruz oraino esandakoa laburbilduz eta osatuz. Nahiz zientzilaria eta euskaltzale zuberotar Antoine d'Abbadie jauna hogeita zortzi urte zaharrago zen (1810), halaz ere urtebete exkaxeko aldearekin hil ziren biak, lehenik Arana (1896), gero d'Abbadie (1897). Biei eskaini zien Euskaltzaindiak omenaldia, nori bere mendeurrena betetzean. Aita Aranari eskainiaz mintzatu gara hasieran. Joan zen urtean, 1997an, irailaren 20tik 25era, Eusko Ikaskuntzak deritzan elkartearekin batera, eskaini zion Euskaltzaindiak Hendaian eta Donibane Garazin d'Abbadieri berea. Han irakurri zen lan mordotik garautxo bat, osatua, baizik ez da nere hau.

Liburuaren hasieran aipatu ditugu eta liburuan barnako kontakizunean gero egiaztatu, Aita Aranak harremanak izan zituen zenbait euskal idazleren, euskaltzaleren, hizkuntzalariren eta bestelako zenbait letra-gizonen izenak eta, asko izanik ere, ez guztienak. Hastetik beretik esan behar dugu, izan ere, joan zen mendean, eta euskal letren munduan, doi-doi izango zituela bestek, Aranak bezain harreman estuak eta sarritakoak, hark adina euskaltzale, euskalari, euskal idazle eta, erabat esateko, euskal letretako gizonekin. Horiekin zerikusi handia duen lanbide bateko pertsonak aipatzea ahaztu zaigu han: inprimatzaileak, alegia, hauekin izan zuen gutuneriak eta hauekiko etengabeko proben hartze-itzultzeak beste ezerk baino hobeki erakusten baitigu beti esku artean zuela zerbait argitaratzeko gure Aita Aranak. Hona batzuk: Azpeitiko Martinez, Tolosako Eusebio Lopez eta Mugerza, Bartzelonako Muns, Bilboko Larunbe eta Delmas eta Madrileko Fortanet.

Bere karta-idazlerik zintzoenetako bat, zintzoena ez bazen, Antoine d'Abbadie jauna zen, eta aipatu dugu haren izena ere, nola ez! Baina zuzengabekeria handia egingo genioke d'Abbadie jaunari, eta Aita Aranari ere bai, noski, guztiak zaku berean sartu eta hori baizik esango ez bagenu, guztiakin gutxi gorabehera harreman bertsuak izan balitu bezala. Igaran denborak egin du iadanik zuzengabekeria hori, ez baitu agerian ipini zenbaterainokoa izan

zen bien arteko atxikitasuna, ez eta inoiz inork esan d'Abbadie jaunak letra gizon guztietatik bere eskutitzen erantzulerik zintzoena Arana izan zuela, damurik orduarte arras gutxi ezaguna, eta orain ere ez asko. Antoine d'Abbadieri egin zitzaion omenaldi sonatua izan daiteke parada polita Aranari ere trabeska bultzalditxo bat emateko, bortitza izan baitzen bien arteko atxikitasuna euskararen aldeko lanean, orain ikusiko dugun bezala.

D'Abbadie jaunarekiko harreman hertsu eta maizkoak hogeita hiru urte-tan barrena luzatu ziren, guk dakigula, 1868an hasi eta 1891 arte, baina seguru-erik bost urte gehiago ere bai, gero emango dugun arrazoiatatik.

Dena Loiolan hasi zen, hara igorri baitzuten Arana bere Nagusiek atse-den hartzera eta sendatzera, Leon-en teologia ikasten ari zela buruko bigarren odol-kolpeak erauntsi zionean. Han zegoela 1868ko irailaren 3an honako hau idatzi zuen bere EGUNARIA-n: "Llegan Mr. Antoine d'Abbadie (membre de l' Institut) y el P. Perry y el Hno. Sidgreaves escolar inglés, para hacer obser-vaciones magnéticas, que las hacen en la huerta". Eta biharamunean beste honako hau: "Marchan los Sres. precedentes: apuntes de Mr. d'Abbadie sobre el vascuence". Ez dakigu zer zirriborro izango ziren, baina bai, handik bost hilabetera, d'Abbadiek igorri zizkiola "carta y cuadernillo". Hori izan zen bizitzan zehar elkarri egin zioten karta-truke ugariaren lehenbiziko alea, zeini Aranak hamar egunen buruan erantzun baitzion.

Parisko liburutegi nazionaletik eskuratu eta, bada Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue liburutegian eskutitz horietako askoren kopia edo mikrofilma. Liburutegi honetako arduradunari galdegin nion esango al zidan, mesedez, ea zenbat eskutitzen kopiak zituzten danera batarenak nahiz bestearenak, eta erantzun zidaten d'Abbadiek Aranari idatzietatik bederatzirenak zituztela eta Aranak d'Abbadieri eginetatik hirurogeita bederatzirenak. Aranak eginen kopurua egiazkoari aski hurbiltzen zaio, egia esan; baina nik, Aranak berak EGUNARIA-n aipatuak kontatuz gero, kopuru hori biribilduko nuke eta ehunean goiti-beheiti ezarriko.

Aldiz Aranak bere EGUNARIA-n egunero ematen baitu, ez bakarrik edonori idazten dionaren, bai eta hartzen dituen eskutitz guztien berri ere, esan dezaket lehen kopurua, d'Abbadiek Aranari egin kartena, alegia, asko gehitu behar dela eta ia zazpitan biderkatu; hau da, Azkue liburutegiko bede-ratziak bakarrik ez, hirurogei idatzi zizkiola, gutxi gorabehera. Beraz berro-geita hamar-edo falta dira.

Orain esango dugunak esplikatzen du hori. Galdegin nien halaber Azkue liburutegikoei ea han zeuzkaten elkarri eginiko eskutitzetatik zein zen bakoi-tzaren azkena, hala d'Abbadierena nola Aranarena. D'Abbadierena 1876ko

maiatzaren 31koa zela erantzun zidaten eta Aranarena 1887ko uztailaren 25ekoa. Hamaika urteko aldea.

Baina EGUNARIA eskuetan hartuz gero, agerian gelditzen da bestela ere aise pentsa zitekeena, alegia, ez ditugula Bilbon haiek elkarri egin eskutitz guztiak. Konkretuki batetik d'Abbadie ez zela egon hamaika urte Aranaren eskutitzei erantzun gabe; aitzitik, beste hamalau urtez jarraitu zitzaiola eskutitzak idazten; bestetik Aranaren azken data, 1887 omen delako horretaz gero ere, hiru urtez segitu zutela elkarri idazten eta, jakina, d'Abbadieren azken hamalau urteetako eta Aranaren azken hiru urteetako, 1888., 1889., 1891. etako, karta bakar bat ere ez dugula Azkue liburutegian.

Zeren hemen ohar bat egin behar da: 1890. urtean ez zioten elkarri batera eskutitzik idatzi, ez dakigu zergatik –haren bizitza ikertu dutenek jakingo dute, agian–, eta urtebeteko isiltasun horren ondoren d'Abbadiek hartu zion aurrea Aranari, 1891ko martxoaren 20an "txartel edo tarjeta hilberriko sentieraz" igorriarik. Hogei egun lehenago hil zitzaion Aranari, izan ere, Antonio Maria anai maitea. Hilberri horren doluminari esker hartu zuten berriz albainua eta 1891ko urte horretan osoan hamazazpi eskutitz elkarri idatzi.

Azken lau urteetan, bada, bat kenduta, ohiko tentuan aritu zitzaizkion elkarri eskutitzak egiten, esan bezala. Areago, elkarri eskutitz gehiena egin zioten urtea 1891. izan zen, hamazazpi danera, nahiz martxoa arte eten ez zuen d'Abbadiek urtebete handiko isiltasuna. Arrazoia bistan da: uda hartan izan behar zuten Yurretako "Lore Jokoak". Honela mintzo da egun horietan EGUNARIA: "Yurretako abadeakin, Mr. d'Abbadieren karta gainean"; "Mr. d'Abbadieren karta Paristik Yurretako euskara festen gainean"; "D. Julian Unamunzaga alkatea d'Abbadieren festa gainean agorraren 30erako"; "On Balbino (Garitaonaindia)ren karta; Yurretari 1.000 fr. Mr. d'Abbadiek bialdu dizkala". Eta Lore-Jokoak Durangon ospatu ondoren, Aranak EL BASKO izparringiko zatiak igortzen dizkio ondoko egunetan d'Abbadieri.

Eta ia Lore Joko horiekin batera, 1891n, amaitzen da EGUNARIA, gezurra badirudi ere, eta egun horietakoxeak dira halaber elkarri egin zizkioleta guk dakigun azken eskutitzak, agian ez guztiak, orain esango dudanez. Zeren ez zaizue aiantzi behar Arana 1896an hil zela, d'Abbadie jauna urtebete bat geroago, eta ziur-ziur dakigula hark EGUNARIA idazten jarraitu zuela, nolazbait esateko, azken arnasa eman zuen arte.

Baina damurik guri EGUNARIA murriztua eta trenkatua heldu zaigu, azken bost urteetako orri-sorta gabe, 1891n amaitzen dela; halaz eta guztiz ere merezi onez pentsa dezakegula uste dugu elkarri, eskutitzak idazten jarraitu zutela azkeneko bost urte haietan ere. Zenbat? Azkenak noiz? Ez jakin. Baina

EGUNARIA lekuko dugula esan dezakegu Aranak 1891ko urriaren 6an idatzi ziola d' Abbadieri gure jakinean azkena dena; nondik eta Oñako desterrutik, eta d'Abbadie jaunak hilabete eta erdi geroago, azaroaren 24an, berea, zein Aranak hitz hauekin ezartzen baitu bere EGUNARIAN-n: "Mr. Ant. d'Abbadieren karta Hendaiatik Durangoko eta Loiolako gauzen gainean". Areago, esan dezakegu Aranak falta dugun bost urte horietako EGUNARIA ere idatzi zuela. Ikus lerrorik berandukoena: "1896. De Exerctiis et proposito 1896, vide EGUNARIA 22 Septembris".

Eman ditudan kopuruak ez dira arras zehatzak eta ezin izan daitezke. Zenbait alditan ezin jakin daitekeelako elkarri igortzen dioten pardedo edo sortatxoan eskutitza ere bidaltzen duten ala ez. Hala egun batean irakurtzen dugu: "liburutxo d'Abbadieri"; bestean "d'Abbadieri papertxoak" –badakigu bere EGUNARIA urte batzuetan gazteleraz eta besteetan euskaraz idatzi zuela– eta ezin jakin liburutxo edo papertxoekin batean kartatxo ere idatzi zion. Berebat d'Abbadieri dihoakionez, behin "Abbadie manda Annuaire", dio Aranak; gero "Iléganme *Euskarazko hitz-jostaldiak 1881* de San Sebastián". Eskutitzaz gain ala eskutitzik gabe?

D'Abbadieren eskutitzak ez dira beti eskutitz soilak eta hutsak, dirua dakarkioten Aranari: "Carta de d'Abbadie con 50 fr.", batean; "Ayer carta de Ant. d'Abbadie con 40 fr.", bestean. Inoiz kutxa handixeak igortzen dizkio eta ez liburuz beteak: "Llega el Hno. Domingo Erneta trayendo cartas y un cajón de instrumentos de d'Abbadie para el Gabinete", eta biharamunean Aranak ordaina: "Vase Erneta con cartas y papeles para d'Abbadie"; eta Eguberri aurreko egun batean: "Carta a d'Abbadie y libro de S. Ignacio", eta, Antoine zeritzanez gero, gehiago gustatuko zitzaiona: "Carta a Mr. Antoine d'Abbadie con apuntes y versos de San Antonio". Beste batean, berriz, "Encargo de los tres tomos de cartas de San Ignacio para Mr. d'Abbadie". Baina d'Abbadiek ere xuhur eta zikoitzetik ez du deus ere eta, "llegan once cajones de Física" aitortzen du Aranak.

Utz dezadan horretan, ez gehiegi luzatzeko, baina esanari beste puntu bat gehituz: elkarri mesedeak egin ez ezik, elkar bisitatzen ere zutela noizbehinka. Ikusi dugu nola elkar ezagutu zuten Loiolan. Ez dakigu elkarren berri zuten orduko eta d'Abbadie Loiolara Aranarekin egotera joan zen ala bestetara, eta gauzak hala suertatu ziren. Elkar ikusi zuten lehen aldia izan zen, baina ez azkena; ez eta gutxiago ere.

Handik urtebetera, hortxe-hortxe, Arana oraindik Aita Landarekin Zarautzen bizi zela haur batzuei latina eta gramatika irakasten, etorri zen behin, 1869ko abuztuaren 8an, "al Château o casa de Mr. Antoine d'Abbadie;

su hermoso edificio, posesión de su señora D<sup>a</sup> Denis Virginie Vincente de Saint Bonet, gran pianista con una sola mano; sus aves, coco, águila, perros, criados. Observaciones astronómicas, literatura, inscripciones, biblioteca vascongada; cuestiones". Agur egitean D'Abbadiek 5 fr. eman zizkion Aranari.

Sei urte igaro ziren 1875eko abenduaren 15ean hurrengo bisita egin zionerako. Orduko iada apaiz egina zen, nahiz ez berak nahi bezain agudo, buruko odol-kolpe bikoitzak utzi zizkion ondorenakgatik. Intxauspe kalonjearekin sartu-irten bat izan zen, ez baitu batere zertzeladarik azaltzen. Bi urte geroagokoan, 1877ko abuztuaren 16an, bai. Poyannen bizi zen eta udako opor-egunak Lapurdiko Getarian beste jesuita batzuekin ematen ari zela, esaten digu: "Tarde a Hendaia y Château de Zuberno"..." "Ida al Château por junto a Las Tumbas. Mr. Antoine d'Abbadie, su señora y el señor Laborda Nogues, de Vitoria". Bost egunen buruan dozena erdi bat lagun jesuita inguruan dituela, hara doa berriz ere: "A Hundaya y Château Abbadie con el P. Mintegiaga y otros. Familia Antoine Abbadie y señora; almuerzo... Pianista la Señora con el P. Alarcón, Cotanilla, Uriarte e yo; refresco".

Bi urte geroagokoa horien antzeko inguruneetan gertatu zen, berriz ere Getarian zegoela oporretan, 1879ko abuztuaren 12an. Honela dio: "Al Château de d'Abbadie Antoine desde el apeadero de Urruña, a pie, desde las 10,45 de la mañana por N. Aristegi (pitarra), Aurkiakoborda, Aitzabe... Llegada a las 12,45. Mr. Antoine d'Abbadie, Madame d'Abbadie, señor (exdiputado) Laborda Nogues; criados". Hori izan zen azkena, urte bereko Eguberrietan Urduñara igorri baitzuten Agintariak Arana, ez gehiago iparraldera itzultzeko.

D'Abbadiek ere bere aldetik egin zion, Loiolakoaz gain, beste bisita bat 1875eko Gabon bezperan, Arana Baionan bizi zen garaian: "Visita de Mr. Ant. d'Abbadie, que viene en coche. En conversación desayuno; archivo, cartas de San Ignacio y cuaderno Carlos 7º, cartas de Motrico, astronomía. Con él en coche a Bayona". On da jakitea D'Abbadie jaunaz gain emazteak ere idatzi ziola kartatxo behin, 1873ko urtarrilaren hamaikan, Arana Urduñako kolejoan irakasle zela: "Carta de la Señora de Abbadie sobre el pintor Juan de Landaburu. Respuesta". Bertantxe erantzun ziola, alegia.

Eskutitzen edukiari buruz ezer gutxi da EGUNARIA-ko aipamenek irakasten digutena, ia beti "Carta a" eta "Carta de" baizik ez baitigute esaten. Jakin-min berezia sortzen digun kartaz ere "urgente" omen delako, hau baizik ez digu kontatzen: "Carta de d'Abbadie urgente de 30 de agosto, y respondo dos líneas, y sobre viejo". Luzexego bat bada, baina hor Arana bitarteko baizik ez da, eskutitza besterena baita. Ikus: "Carta extensa del P. Viñes

del Observatorio de La Habana sobre el estado atmosférico según datos pedidos para Mr. Abbadie, para el paso de Venus ante el sol el 6 de diciembre de 1882". Beste bat korreotik heldu omen zaiona: "Mr. d'Abbadieren bi liburu-txo: *Exploration de l'Afrique*, eta *Sur quelques desiderata de l'Astronomie*; horrekin batera Mr. d'Abbadieren eskutitza Paristik", dio.

Eskutizetan elkarri zer kontatzen zioten jakiteko Azkue liburutegiko kartak onuragarriagoak izango dira, noski; nik, ordea, berandu eta epez kanpo ibili naizelako, ez dut astirik izan haiek irakurri eta aztertzeke. Arana bakarrik irakurri dut eta hura izan da ene iturburu bakarra.

Ez bakarra, zeren azken orduan jesuiten Erromako Etxe Nagusitik igorri dizkidate zortzi eskutitz luzeren fotokopiak, Aita Aranak berak azken bost urteetako Oñako desterrutik Aita Jeneralari eginak. Horietako batean Mr. Antoine d'Abbadie jaunaren gorazarrea egiten dio eta merezi du hitz horiek aurrekoei txertatzea, ez baitira bi orrialde baizik. Honela dio 1893ko abuztuaren 14an Aita Luis Martin, jesuiten Jeneral izendatu berriari:

"Es el caso, que el anciano Conde Mr. Antoine d'Abbadie, Miembro de los más antiguos y beneméritos del Instituto de Francia, amigo y bienhechor de varios PP. de la Compañía desde hace más de treinta años y profesor gratuito de Astronomía con algunos Misioneros de ella, al responder a una carta mía, en la que además de darle noticia de los Tomos 5º y 6º de las *Cartas de San Ignacio*, que no los posee aún, le insinuaba yo que acaso este verano u otoño irían a París alguno que otro Padre español, para procurar instrumentos para un gabinete de Física, y que sus buenos consejos como de tan conocedor y experimentado en la materia, les podrían ser útiles, al responderme el 24 de Julio, concluye la carta de este modo: "J'ai dépensé temps et peines á enseigner aux missionaires de votre Compagnie la manière de faire la carta d'un pays peu connu. La plupart n'ont pas profité de mes leçons, pour diverses raisons. Le seul dont j'ai été content est un novice breton, devenu prêtre depuis; c'est le P. Froc. J'ai même donné de mes instruments á quelques uns qui n'en ont fait ensuit aucun usage. Dieu seul tiendra compte de mes intentions. Agréez l'assurance de mes sentiments très distingués. Antoine d'Abbadie. Paris (rue du Bac, 120), 1893, Juillet, 24".

Eta honela jarraitzen da gero berriz aita Arana: "Descubro yo en lo transcrito, como creo lo verá también su Paternidad, algo de justo resentimiento de parte de aquel buen Señor, porque los de nuestra Compañía no han querido aprovechar de sus favores, lecciones e instrumentos dados gratis por él a algunos PP. y escolares nuestros. Sospecho también que esta su manifestación proceda de mi insinuación o como recomendación, para que favoreciera en sus

compras de instrumentos este año en París, si fuesen a eso algunos de los Nuestros de la Provincia de Toledo. El R. P. Granero me habló aquí de aquel Señor el año pasado, y a mi R. P. Provincial pareció bien asimismo mi indicación o recomendación.

En vista de esto, su Paternidad verá "coram Domino" si convendrá, como lo hacía S. Ignacio con los bienhechores, dirigirle alguna cartita de atención y agradecimiento a tan benemérito y activo sabio católico, cofundador en unión con otro hermano suyo de las Misiones de Africa en tiempo del Papa Gregorio XIV.

Conocí yo a ese Señor poco antes de la Revolución Española del 68 en Loyola, a donde regaló entonces un pluviómetro y otro instrumento, y desde entonces con alguna interrupción de año o año y medio ha tenido correspondencia literaria conmigo; y él me puso asimismo después en ella con los tres sabios filólogos y bascófilos, el Príncipe Luis Luciano Bonaparte, el Capitán J. Duvoisin y el Canónigo Ex-Vicario General de Bayona l'Abbé Inchauspe, que nos dió a los PP. que estábamos allí en 1875 y antes, las licencias de confesar y predicar.

Al llamarme una vez de Guipúzcoa, donde estaba con el P. Landa, a Bayona mi muy amado P. Provincial R. Felipe Gomez, obtuvo de él ese Señor que de paso me detuviera con él un par de días, para hacerle en versos latinos y eúskaros tres o cuatro inscripciones para su grandioso y espléndido Château de Hendaya, que años después estuvieron también a verlo conmigo desde Guetary los PP. Villada, Alarcon y otros. Al fundar nosotros el Colegio de Orduña, él nos dió algunos instrumentos para el incipiente gabinete de Física. El me manda cada año el "Annuaire des Longitudes" y me ha ido mandando otros libros científicos y lingüísticos en diversos tiempos; y cualquiera obra importante de esa clase o bien relativa al país bascongado, de cuya existencia le haya yo dado noticia, procura adquirirla a toda costa para su biblioteca particular. La última adquirida el año pasado ha sido "La políglota del Sr. Sardá en ocho lenguas, *El liberalismo es pecado*", edición monumental de Barcelona. Y baste con eso por lo que toca a ese buen Señor y venerable anciano bienhechor nuestro".

Hain hitz gutxitan nekez esan zitekeen gehiago Antoine d'Abbadie jaunaren gizontasunaz. Urte berekoa, 1893koa, da Aranaren azken urteetako paper xaharren artean aurkitu dugun honako beste olerki hau, Azpeitiko Euskal Jostaldiak zirela eta, Oñan egina; d'Abbadieri zion atxikitasun handiaren bere biziko azken agiria. Honela dio paper-mutur irakurgaitzak:



1893

BIZI BITEZ EUSKERA TA EUSKALDUNAK

(Azpeitiko Euskal-jostaldietan  
gaurko euskaldun obenen Aita-jaun  
On Antonio Abadie-koari).

KANTAURREA

Euskera bizi bedi  
Bizi Euskaldunak,  
Beren kristautasunaz  
Nunai ezagunak  
Ama-Erriaren alde  
Ume ta zaldunak  
Oituren gordetzalle  
Alkarren lagunak.

KANTALDIA

- |  |  |
|--|--|
| 1. Agur, gure biotzeko<br>Aita-jaun aundia<br>Abadi-ko Antoniyo<br>Aitoren Semia<br>Zurekin poztutzen da<br>Azpeitiko erria<br>Zeralako Euskaldunen<br>Ain maitalaria. | 4. Alai gaituzu danok<br>emen agertzian<br>Euskal amore bizi<br>ta alaitasunian<br>Euskal gauzak alcharik<br>Iru egunian<br>Inazioren etxe<br>eta sorterriyan. |
|--|--|

(Euskera bizi bedi...)

- |   |  |
|---|--|
| 2. Badakigu zerala<br>Euskaldun lenena<br>Jakinduri askotan<br>Jakintsu goyena,<br>Izar-jakintzan ere<br>Izar argiena<br>gizonak zeruratzen<br>Iayo zeradena. | 5. Piztuko gara danok<br>Zurekin batera<br>Euskaldun seme danok<br>Alkar maitatzera<br>Maitatzera Fedea<br>Maitatzera Euskera<br>Beltzebutar guztiei<br>Gozoa (?) egitera. |
|---|--|

(Euskera bizi bedi...)

3. Afrikatar beltzetan,  
Ijitarretan,  
Brasilgo erreinu ta  
Europakoetan  
Zure jakinduriya  
Egon da loretan;  
Maitagarriya zera  
Guretzat benetan.

6. Maitaturik euskaldun  
Oitura dontsuak  
Sortuko dira berriz  
Gizon ospatsuak  
Loyola ta Loinazen  
Oso antzekuak  
Okendo ta Elkanoren  
Pare jartzekuak

(Euskera bizi bedi...)

## VII. ATALA ARANA DURANGON (1887-1891)

### 1. ARANA ETA DURANGO ORAIN ARTE (1887)

Loiolan hiru urte eta erdi eman ondoren, gure Aranak Durangora destinatua joateko mezua hartu zuela ikasi dugu. "Neure Durangotzekoaren jakintza", idatzi zuen 1887ko urriaren 15ean, eta astebete geroago Durangora bidean jarri. Ohi bezala, albiste hutsa, murrizta; ez dio ez eta gogo onez ala txarrez doan ere.

Astebete horretan ez zen geldirik egon. Santa Cruzko mojei agur egin, Azpeitiko inprimatzaile "Martinez *Ongitu aldiko* papertxoaren pruebak" hartu, biharamunean zuzenduak itzultzeko; "Gibertenian, pranzeskoenean, A. Kardaberazen idurirako marko urreztaduba enkargatzen (izan) (108 da 85 ehunda neurkiko), Martinezenera biharko bialtzeko". Nafarroako euskarazko *Dotrina* bat ere hartzen du egun horietanxe, 1872koa, "ustez Aldunzinekoa", dio berak. Pertsona ospatsu, poeta gaztelar baten bisita ere bai, D. Jose Zorrillarena, "hots handiko hitzneurlea" omen denarena. Azkoitiko Juintorretik joan omen da Loiolara etxea ikustera. Halere egun haietan egin zuen gauzarik ausartena beste hau izan zen: abiatu bezperan karta bat idatzi "A. Olanori, ta bertan A. Probintzialaren errenkula batzuek hari" kontatu.

Loiolan ezagutu zuenetik ezin gainerik kendurik –Arana nora, hura hara-darabilen emakume Teresa Aristegi Gordon entzun dugu joan dela orain ere "eguerdian neska Miria txikiarekin Durangora han bizitzeko". Bidaltzen duten lekuetara aurea hartzen dio emakumeak. Aberatsa eta esku zabala da, arras jainkotiarra, pobreen maitalea, Lagundiaren oso ongilea; Lagundi erdiarekin du ezagutza eta inoren urtebetetzea denean, han igorriko ditu goxoak

eta ardo botila pare bat, eguna ospatzeko. Edozeini idazteko lotsarik ez du, pianoa jotzen badaki, idazlea eta are bertsogilea da, Ingalaterran etxean bezain ongi moldatzen da. Gerorago Probintzial Aita Matias Abadek Erromako Aita Jeneral Anderledy-ri behin karta bat idaztean, D<sup>a</sup> Teresari "nobili cuidam personae" titulua ematen dio. Aranari, haatik, bere bizitzako nahigabe handienak bide horretatik etorriko zaizkio.

Baina goazen oraingoz Aranarekin Durangora eta gero gerokoak! Elgoibar 9,15etan jo omen zuten eta gero "10,30etan tren berria estrenaturik Maltzaga, Eibar, Ermua, Zaldibar ta Olakueta egondeietatik Durangora 11,30etan".

Egona al zen lehen ere noizbait Durangon ala orain ezagutzen du lehenbiziko aldiz hiri hura? Bai, inoiz izana zen; irazean eta bidenabar, ordea, ez luzaro han bizia. Uda garaiez baliatu zen zenbait bider Durangoraino iristeko. Gogora ditzagun laburki bidai haiek, orain bizitzera joatean nola sentituko zen susmatzeko, bai baitirudi hara zerbaitek tiratzen zuela. 1868an egin zuen lehen bidaia honela kontatzen digu:

"Dic. 20. Preparativos para Durango. Posada de Arambarri: "Vita Sancti Patris Ignatii" con D. Leon y D. Txomin Landa... Durango, Goyencale, M<sup>a</sup> Martina de Astarloa... Salida (de Loyola) 11,30; llegada por Elgoibar, Maltseta, Eibar (a Durango) a las 4,15: PP. Felipe Gomez, Antonio Delgado, Olano, Azurmendi, Larauco, Aurquia, Barrenechea Jacinto; HH.Araujo, Lasuen, Municha. Don Carlos de Orue, amigo y familiar de D<sup>a</sup> Leona Jauregui... Residencia Gurutzeta. Don Carlos manuscritos, Congregaciones; Iglesias Santa María, Santa Ana, San Francisco, Tabira. M<sup>a</sup> Martina Astarloa: Goyencale, esquina 1<sup>o</sup> y 2<sup>o</sup>; Fernando el zapatero frente a Santa María, parroquia. Posada ("Vita Sti. Patris Ignatii" del R. P. Gómez). (Día de) Santo Tomás apóstol, comunión en Santa Ana. Misa en Capilla de D. Carlos Orue y familia; chocolate. Posada almuerzo. "Vita Sti. Patris Ignatii", aprobada con algo de corrección manuscrita... Diligencia a las 9,15 para Elgoibar, la de Errotakua de Emparan. Irazusta, también Osoros dos HH.; Lizariturri D. Francisco, párroco de Elgoibar, y un hermano de Lorenzo... A Azcoitia a las 2".

D. Carlos Orue, apaiza, lehendik ezagutzen zuen. Aipatu izan du Loiolan gogojardunak egiten ari zela, eta bere arreba Rosariorekin batera ere bai. Bizi osoan arras harreman onak izan zituzten eta gutuneria sarritakoa. Bertsozaletasunak elkartzan zituen bien gogoak eta karlista izateak.

Hurrengo urtean, 1869an, Aita Garagarza etortzen zaio Zarautza arratsalde batean eta biak biharamunean, azaroaren 13an, San Estanislao egunean, San Frantziskoko Elizan jaunartu eta abiatzen dira Eibarren barna Durangora,

nora heldu baitziren oinez Eibartik arratsaldeko 6,30etan. Larunbata zen. Biharamunean Aranak hango jesuitak eta M<sup>a</sup> Martina Astarloa eta D. Carlos Orue agurtu eta goizeko 9etan kotxean abiatu zen, 12,00etan Elgoibarra eta ordubietan Loiolara heltzeko. Orduan izan zen lehendik dakigun izeba Paularen Carlin txakurtzua beretzea eta Zarautza berekin eramatea: "llegada a Zarauz con Karlin a las 10 de la noche". Igandea zen.

Hirugarrena are laburragoa izan zen. Zarautzen eta Gipuzkoa osoan gauzak arras okertzen hasi zirenean, 1870ko irailean, Urduñara joanarazten dute bere Buruek Aita Landarekin batera, hango ikastetxea berriz irekitzea erabaki baitu Lagundiak. Hara doa lau mutikorekin, Luis, Gabriel, Jose Inazio eta Juan Joserekin, hauek "morroi-txiki" izan nahi baitute. "Comida con el Sr. Garagarza y Vicario de monjas, y en coche de Bilbao hacia Durango: Olano, Garaitabarrena, etc.; M<sup>a</sup> Marina Astarloa, plaza, (viuda) de Bidaurre, zapatero Fernando de Krutzeta". Handik Bilbora eta hiruretako trenean Urduñara.

1871ko irailean ere Azpeitian, Azkoitian eta Zarautzen egin ditu egun batzuk eta Urduñarantz itzuleran ezinutzizkoak ditu Plazentzia, Eibar eta Durangoko bisitak. Durangoko jesuiten etxean Aita Garagarza aurkitzen du etxeko ministro: "uva hermosa, libros" eta bisitatzen "D. Carlos de Orue y familia; noticias del Sr. Alcorta sobre cantos Bascongados". Bilbon D. Cosme eta D. Rafael Egidazurekin bazkaldu, Don Benigno Orbegozori oles egin eta arratsaldeko hiruretan berriz Urduñarantz.

Santurtzin eta inguruan eman zituen 1872ko udako oporrak eta ez zuen nonbait parada egokirik izan Durangora azaldu bat egiteko. Bestalde 1873ko abuztuan bere Buruek agindu baitzioten iparraldeko Poyanne herrixkara joan zedin, buruko gaitzak etenarazi zizkion Teologiako ikasketak amaitzera, arriskuan zegoen zenbait urtez Durangori bisitarik ezin egin izateko

Baina gauzak alde atera zitzaizkion. Seguruenik Aranaren burua ikasketa luze-zorrotzak egiteko gai ez zelako, handik urtebetera apaiz egiten utzi zioten eta halaxe egin zen 1874ko uztailaren 26an. Etxetik ez zitzaion inor joan eta bera etorri zitzaion etxekoei handik egun gutxitara Loiolan Meza ematera. Udan jende asko bisitatu nahi izan zuen eta atze-aurre asko egin eta haietako bat Durangora Elorriotik abuztuaren 7an: "salida para Durango después de ver a D. Luis Borda, pbro., y llegada a pie a las 11,30 de la mañana". Biharamunean bertako jesuiten bizitexean eman zuen Meza eta miraz ikuskatu zituen Aita Luengok Italiako desterruan idatzi zituen 40 tomo lodiak: "manuscritos del P. Luengo S.J. ; extractos por medio del escribiente Landaburu. D. Carlos Orue y otros amigos: D. Domingo Larragan, pbro., D. Ramon de Echezarreta, viejo vascófilo, D. Pedro M<sup>a</sup> Areitio, pbro., D. Pedro

Martín Gastañazar. Paseo con D. Pedro Piñera y Hayes a Yurrita". Lauzpabost egunetan Urkiola, Zornotza, Gernika ezagutu, eta han Aita Garagarza utzirik, beste biek Loiolarako bidea hartu zuten eta hilaren 15ean hara iritsi, 19an iparralderantz berriz abiatzeko.

Danera beste bost urte biziko da iparraldean toki batean eta bestean, hegoaldera etortzeko inungo arrazoirik ez aitzakiarik gabe. Hori 1879ko Eguberrietan izango du, orduan hartzen baitu bere Buruengandik Urduñaratzeko mezua. Hemen urte eta erdi biziko da Durangora azaldu bat egiteko abagunerik gabe eta ondoren lau hilabeteko lan bat ematen diote Loiolan eta bukatzean Urduñan da berriro 1881eko abenduan.

Loiolatik Urduñarako bidai horretaz baliatzen da Durangon geldialditxo bat egiteko: "ver las parroquias de Santa Susana, Santa Ana y Convento de San Francisco. Orue, Ampuero, Arginzoniz. Don Carlos Orue, pbro., sobre Euskaria y Mendiburu. El P. Lasa enfermo; PP. Lucas, Uriarte, Apraiz". Bilbon egun bat igaro eta 17an Urduñara.

Beste urte eta erdi arituko da Urduñan. Beraz esan dezakegu 1880. urtearen hasieratik 1883ko ekaina arte Urduñan bizi izan zela, salbu hilabete gutxi batzuk. Data horretan Loiolara igorri zuten berriz Nagusiek eta bidenabar Bilbon gelditu zen hiru egun eta Durangon bat.

Handik bi urtera gogojardunak egiteko aitzakiarekin Urduñarako baime-na ematen diote Agintariak. Gau bat ematen du Durangon, ez baitu gogojardunetara berandu iritsi nahi. Harantzakoan eta honantzakoan Bilbon egiten ditu bi egonaldi aski luze, hortzak konpontzeko, Luis eta Sabino Aranarekin bizpahiru elkartzeko, eta abar. Berriz Loiolarantzakoan Durangon gelditzen da lau egun eta betiko lagunak agurtzeaz gain, "On Balbino Garitaonandia, gaixoteiko abade gaztearekin" egiten du ezaupidea. Hau bertsozale amorratua eta fina da, besteak beste Gabon-kanta "Aurtxo txikia"-ren egilea, lau urte haietan Aranak Durangon izango duen lagunik leialena eta atxikiena. Azaroaren 3an berriz Loiolan.

Bi urte igaro dira Bilbon azkena izan zenetik. Oraingoan hortzen aitzakia, edo aitzakia baino gehiago, arrazoia du Bilborantz abiatzeko 1887ko urtarilaren 12an. Fermin Alegriagana jotzen du Bilbora orduko. Bilbotik ez da mugitzen hilabete osoan, ez eta Durangora ere. Ronda kale alderako grina biztu zaio: "Ronda kalia 33, 2º, D. Juan Orue; 29, 4º, D. Estanislao Labayru apaiza ta 11, 2º, D. Fidel Sagarminaga ta bere liburutei haundia". Honen liburategia ikustera beste bizpahirutan itzuliko da; aldiz Bilbon hilabete osoa egon den arren, Durangon agertzeko ez du astirik izan, salbu azken egunean, otsailaren 12an: "Durangoko tranbian sartzera Atxuriko karrikan. Durangotik

10etako kotxian Loiolarako"; beraz, batetik atera eta bestean sartzeko denbora besterik ez.

Ez zen hamar egunik Loiolara heldu zela eta bat batean agintzen diote kurtsoari goititzen zaizkion hilabeteetarako Urduñara joateko. Eguerdian irten Loiolatik eta lo egitera Durangora. Iluntzean "hango musika soinua, ta mozorro-jantzi batzuek plazan zebiltzaten. Han Aita Lasa makaltxo, besteak ondo". Hogeita batean Bilbon eta hogeita bian Urduñan.

Eta kito. Horra Durangoren zenbaterainoko ezagutzea zuen gure Aranak, bere Agintariak hara erabat bizitzera igorri zutenean: Loiolatik Urduñara edo Urduñatik Loiolara bidean egin zituen hamar edo hamaika egonalditxok eman ziotena. Ez handia eta ez txikia. Han urte askotxo bizi ziren jesuita batzuk ezagunak ez ezik oso lagunak zituen; euskararen eta politikaren gainean modu bertsuan pentsatzen zuten laiko batzuk eta familia eta apaiz batzuk ere ezagutzen zituen. Besterik ez. Hegoaldeko etxetan inoiz segidan bizi izan den urterik gehiena biziko da Durangon, lau urte, eta betero bizi, gainera! Zerk herrestatzen ote zuen hainbeste Durangora? Durangora ala Bilbora?

## 2. LEHEN EGUNAK (1887)

Entzun dugu tren berria estrenaturik Durangora 11,30etan heldu zela 1887ko urriaren 22an. Halabeharrez hara orduko bere lumatik ateratzen diren bi lehen izenak D<sup>a</sup> Teresa Gordon eta Balbino Garitaonaindia dira. Hau bere hitzneurtuekin atarian du biharamunean.

San Krispin egunean soka zezena kalean eta ikasleek orduerdi bat gutxiago eskola. Lehen ibilaldia luzetxoa da, Aita Ordazekin: Abadiño gaineko Sta. Kruzitik Mañaria bidera eta Tabirara. Astebete geroago Aita Ordaz berarekin "Berrizko parrokira Abadiano ondotik eta Olakuetako egondeitik goora, eta handik estrada txiki anzinakotik eta Ezterripa eta Zubibitartetik etxera".

Bestea A. Aranbururekin Abadiño, Apatamonasterio eta Martzaara. Egin ditu lehen topaketak D. Damaso Bernaola, D. Carlos Orue eta D. X. Iraola apaizekin. Hartu du Urduñatik bere kofre handia; egun batzuk geroago handik beretik "trenian erroa zerbait eta barruban paper latinezko batzuek" heltzen zaizkio, eta hainbestez esan daiteke urria bukatzerako bi oinak irmoki finkatuak dituela bere bizitoki berrian.

Etxeko bizilagunak aspalditik ezagutzen ditu eta gehienekin bezala hauekin ere ongi moldatzen da. Mezdunak, beraz gain, AA. Olano, Ordaz, Aranburu, Agirre dira (hau Jerónimo, dirudienez, nahiz izena ez den sekula agertzen, argitara berri dudana *Tratado de métrica vasca*, 1872, baten egilea), eta 76 urteko Aita Lasa; urtebete barru-edo etorriko zaizkie Aita Munarriz eta, lehendik etxean diren Anai laguntzaile Gogorza eta Gonzalez-ez gain, hirugarrena, Anai Usabiaga. Aita Agirre da predikaririk onena nola euskaraz ala gaztelera. Andre Maria Elizara, San Franziskora, Santa Anara, Santa Susanara edota kartzelara hedatzen dira beren ekintzak. Errege egunean, adibidez, hona non eman zuen bakoitzak meza: "Nik meza Andre Mariako Jesusen Bihotz aldarean, kartzelan Aita Lasak, Santa Susanan Aita Ordazek, Kapilan Aita Agirre eta Aranburuk". Kartzela A. Lasak du batez ere bere lan-arloa. "Animen" hurrengo egunean hasten da iada eskolak ematen Arana eta Gabonak arteko berrogeita hamar egunak aidean itzurtzen zaizkio. Laster aurkitzen du nork egin lagun eta ibilalditxo askotxo egiten du.

Osterantzean ez da gauza apartekorik gertatzen Gabonak bitartean. M<sup>a</sup> Teresaren izena ia orrialde guztietan azaltzen da, hori bai; hamalau bider azaroan. Batean bizilaguna aurkitu duelako, M<sup>a</sup> Aranguren; bestean erregalo egin duelako apaiz bizkar-estalkia eta M<sup>a</sup> Arangurennek urreztandu. Egun gutxiren buruan "M<sup>a</sup> Aranguren D<sup>a</sup> Teresarekin erdi hasarre" omen dagoelako eta berehala "D<sup>a</sup> Teresa utzita" bere ahizpagana Bilbora joan omen delako; gaur "mojen bizkotxoa" jesuiten etxeraten da, bihar "D<sup>a</sup> Teresaren bizkotxoa"; behin "D<sup>a</sup> Teresa Gordon ohian", gero "D<sup>a</sup> Teresa ta Maritxo ohian gaixo", baina ez larriki, biharamunean esaten baitzaigu "D<sup>a</sup> Teresa ta Mariatxo jaikita, hobeto" daudela. Eta hori azarotik atera gabe. Abendua hasi orduko "D<sup>a</sup> Teresak katarroa", baina badu astia bi Kardenal-jantzi berri meza-mutilentzat egiteko. "D<sup>a</sup> Teresa Gordon ohian gaixo gaur da bihar; bere konfesioa iluntzean".

Euskarazko paper soinua ere entzuten da, ez handia, egia esan. "D. Pedro eskolamaijabe hemen XIX Burutza euskerazkoarekin". Azpeitiko Martinezenetik Jesusen Bihotzaren 100 papertxo hartzen ditu. On Damaso Bernaola apaizari *San Inazioaren Bizitza*-ren ale bat ematen dio eta hark trukean Urruzunoren bertso batzuk. Urduñatik han zegoen Novia de Salcedoren *Hiztegia*-ren lehen zatia eta bigarrenaren parte bat igortzen diote. Ampuero jauna kezkatua dago "Egunak euskeraz" nola izenda, eta igortzen dizkio hiru paperdi Euskalerrarenak. San Franziskoko Bileran Jose M<sup>a</sup> Oruek, On Carlosen anaiak, "Hamarreko" euskarazko bati soinua ipintzen dio. D. Balbinok D. Carlosi hitzaldi euskarazkoa egiten dio eskolarako Aita Santuaren izenean. Han ziren D<sup>a</sup> Leona, Errosario, Carlos, Jose M<sup>a</sup> Orue eta Paca Ampuero.



Errugabeko Ama Birjinaren egunean Otxandioko parroku D. Andres Iturzaetak egin zuen "hitzaldi ederra" Andra Marian. Bezperan "iluntzean aurreko etxeetan koplak Ama Birjina eramatean Santa Mariara". Eustakio Madinak segitzen dio karta eta neurtitzak igortzen Sopuertatik, bai eta On Gabino Sein-ek ere Oiartzundik papertxo batzuk.

Baina euskal letrazko bisitarik hoberena hilaren 13an hartzen du: "Bilbotik etorri da D. Sabino Aranakoa (Ibañez, nº 10). Bere euskera kontu-ba. Berakin da D. Balbinorekin gaixoteiko Santa Luziaren erlikiak adoratzera. Han ere aita Lasa, D<sup>a</sup> Teresa Aristegi, D<sup>a</sup> Agustina. D<sup>a</sup> Teresaren letra ingeles hiru mila errealen D. Sabinok Bilbora darama, ta San Inazioaren bizitzako liburuak Barzelonara, D. Franzisko Munz-i emateko". Sabino Bartzelonan ari baita ikasten

Gabon festak gainean dira eta Durangoko kolejioan ez dira falta kapoiak erregalo. Inora irtetzeko eguraldi hobe egingo balu...!, baina Eguberrietarako "elurra jatxi da ta txuritu dira lehenengo aldiz negu honetan Durangoko teila-tuak". Inozente egunean "elurte gainean izotza; erdi oskarbi, eta elurra hiru edo lau onza lodi, ezer urtu gabe", eta azkenik Urtezahar egunean 7 gradu zeropean. Eta urte hartako albisteei azkena emateko ez du hau baino hoberik eta hitz hauetaz amaitzen da 1887. urtearen berri ematea: "Etorri da D<sup>a</sup> Teresa Aristegik emandako (kapilarako) kustodi edo Jainko-azaltokia. Jesus Astarbek ekarri du Bilboko Sabino Aranagandik D<sup>a</sup> Teresaren dirua".

### 3. ATANASIO EZTERRIPA APEZPIKUA (1888)

Gabonak ondoan Arana erabat etxekotua dela esan daiteke. Ezin esan eginkizun asko duenik, baina berak bilatzen ditu eginkizunak. Guztietan lehen eguneroko eskolak ematea da, noski, eta inor gaixotzen denean haren hutsartea betetzea. Horretan pijoa da. Aita Ordaz, esate baterako, ia hilabete egon zen gaixo maiatz-ekainetan eta Aranak ordezkatu zuen. Eta bestetan beste. Aldiz doi-doi irakurtzen dugu Aranak sekulan egun bat ohean gaixo eman zuenik. Gau txarra pasa, bai, eta horregatik meza ematea utzi ere bai, baina eskolak eman gabe gelditu, ez.

Berak bilatzen dituen eginkizunen artean, hala deitu ahal badadi, bat da ia eguneroko ibilalditxoa. Durangoko inguru guztiak arakatu dituela esan behar. Ezin jaso ditzakegu hemen hilaren ia egun guzietako "halakoarekin halako tokira" esaldi guztiak, etengabea bailitzateke eta aspergarria eta alferrikakoa. Baina bai aipatu bere ibilalditxoen pasealeku sarritakoenak: Tabirara edota

handik Izurtza ondora, Abadiñora, Astolara edo Iurretara joaten da gehiengandik; Bengoa-enera ere bai; Erdoitza, Gañotei (Gaindei) eta Goiuria ere agertzen dira noizbehinka. Inoiz Abadiñoko San Bizente ermitan ematen du Meza, Juan Elorza apaizak lagundurik. Inoiz Izurtzatik Santa Ageda menditxora joaten da eta handik Bitañoko etxadira, eta Saizabal basarritik, metal-iturritik eta Harri-labainetatik San Roke eta Durangora.

Ekaineko egun-goiz garbia argitu zuen batean egun-pasa egin zuen Mañarira beste lau lagunekin: bere etxeko lagun Anai Gogorza, D<sup>a</sup> Teresa, honen beste neskatxa Angela Goikolea eta Ahizpa Caridadeko Sor Franziskarekin. Igandea zen. Goizeko bostetan abiatu ziren Mañaria bidean San Antonio Urkiolakora igotzeko. Sor Franziska eta Arana oinez Mañaritik haraino. 7,30etan iritsi, 8etan Aranak aldare nagusian Meza eman, besteek entzun eta gosaldtu. Kapilau On Tomas Goientsak arras ongi hartu zituen eta bere etxean bazkaltzen utzi. Bigarren kapilau On Felipe Urigoitia zen eta iloba D. Tomas, Remigio eta Carlota ere han ziren. 10etan bigarren Meza; haren bitartean Aranak 20 minutuko hitzalditxo egin zuen euskaraz. Arratsaldeko Eliz-festan kantak euskaraz. Gero D. Felipe Urigoitiarekin Salbai, Agirre-mendi eta Anboto eta Gorbea aldeak ikusirik, Antzar-putzuraino, eta Santo Kristotik San Antonioren ermitara. Etxerako irteera kotxian bostak 6,30etan; iristea 8etan.

Etxerakoan ia beti gaixotegiari bisitatxo bat. "Tabira ta gaixoteia", "Astola ta gaixoteia", "Izurtzara ta gaixoteira" mila bider agertzen diren esaldiak dira. Ezin esan zenbateraino dituen maite gaixotegia eta gaixoak. Bide laguna batzuetan etxekoa du, Aita Ordaz edota Aita Aranburu; kanpoko Don Ascension eta Don Carlos apaizak ere bai aldian-aldian, baina ia beti, bostetik lauretan, esaterako, On Balbino Garitaonaindia, euskalzale sutsua. Mahaia eta ogia bezala dira, anaiak bezala, alegia. Honekin ateratzen denean, eskuarki etxera baino lehen gaixotegira bisita, hango kapilaua baita, eta sarri gertatzen zaie bidean apaiz talde batekin topo egitea, askotxo baitira Durangon eta inguruko herrixketan: Larragan, Orue, Zelaieta, Soloaga, Iturriaga, Etxezarreta, Areitio, Gaztañaza, Garitaonaindia, Arbulo, Azurmendi Salustiano, hau Etxanoko parrokoa, Julian Arana, Iurretakoa, bere laguntzaile Juan Lazpita duena, eta Juan Odon, San Pedro egunean Tabirako Elizan "hitzaldi euskerazko polita" egin zuena. Eta bat baino gehiago itzuri bide zaigu.

Gaixotegiak lana du berekin, gaixoekin eta gaixoez arduratzen diren mojekin. Konfesatu, hitzaldiak egin, hiltzeko menez daudenak ongi hiltzeko prestatu, mojek deitzen dutenean joateko prest egon. Jolasak antolatu jai-egun handietan, Gabonetan batez ere, eta Pazkoan gaixoei Pazkokoa eginarazi. Berriki Abadesa Bikaria berria izendatu diete, Erretore D. Domingo

Larraganen arreba. Berrizko mojek ere ezin esan nolako lana, nekea ez esateko, ematen duten. Eguneroko Meza ez den guztia –urteroko gogojardunak, asteroko konfesioak, hitzaldiak, mojen espirituko zuzenketa sarritakoa, eta abar– Durangoko jesuiten gain dago. AA. Olano eta Agirre dira haien ardura handiena dutenak. Sarri irakurtzen dugu goizeko 5etan atera direla harantza eta arratsa arte ez itzuli.

Aranak biziki maite ditu Eliz-festak eta elizkizunak eta badakigu San Franziskon eta Santa Susanan *Miserere* kantatua entzuten izaten zela ahal zue-nean, eta Ostiral Santu egunean "jende asko Bide-Gurutzetakuak Tabiraraino egiten" izan zela; Andre Marian "zazpi hitzak" A. Agirrek egin zituela "euskeraz jende haundiari" eta San Franziskon gaztelaniaz fraide batek; Santa Anan 7etatik 8etara iluntzean "Stabat Mater" "kanta ederra" izan zela. Bai eta "Euskal-erriak Aita Santuari" derizten euskal izkribu ederrak egun horretanxe iritsi zirela junetoretik, hau da, bidekari batek ekarrita, eta larunbatean Andra Maria elizan Alleluia kantatu zela eta Pazko domeka ondoko igandean "D. Domingo Larraganek Andre Marian hitzaldi eder euskerazkoa, ohi bezela" egin zuela eta segidan Tabiratik aurrera joan zirela biak D. Balbino eta Carlos Oruerekin; eta gero D. Martin Gastañaza- Torrerekin Abadiño aldera. Halaber otsailaren 2an "jende asko Abadiñoako San Blas erromerian" izan zela eta biharamunean ere "Abadiñoara jende asko nondinahi" joan, baita hurrengo egunean ere "Abadiñoako feriatara jendetza handia".

Abadiñoara joan zen beste aldi batekoa honela kontatzen digu. On Balbino eta beste batekin abiatu zen harantz ostiral arratsalde batean eta han antzinako gurutze ("San Blas begi" deitua)-aren izkirauak irakurri zituen: alde batean "larru biribilan", "Iesus Nazarenus Rex Iudaeorum"; kanpo biribilan, "Iesus Christus Filius Dei miserere nobis"; beste aldean barra biribilean "Monstra te esse Matrem, sumat per te preces"; kanpo biribilan "O suavitas, dulcedo, vita humani generis, Iesus Christus sui pro nostra (?)".

Egiten dituen ibilaldiak ez dira askotan ibiltze aldera eginak, ez eta hutsaren trukekoak izaten; ikusten denez, beste xederen bat ere izaten dute. Behin adibidez kontatzen digu D. Balbinok ekarri zituela egun batean gaixoteira Gaztañaza jaunarenak ziren Apezpiku "Ezterripa zanaren bertsoaldi latin da gaztelaniazko zaharrak ikusteko". Atanasio Ezterripa Treña-Jauregi Abadiñoako semea zen eta Mallorkako Apezpiku izatera heldu zen. 1668an jaio zen eta 53 urte zituela hil. Hain zuzen, Ezterripatarrak eta Oruetarrak senide hurkoak ziren, Jose M<sup>a</sup> Orueren emaztea Visitacion Ezterripa baitzen.

Paper haiek Aranari gogoia beroturik, On Balbinorekin Abadiñoara abiatu zen astebate barru; "han D. Vicente abadearekin Ezterripa Obispoaren jaiote-

guna ta bataio izkira bilatzen". Egun gutxiren buruan D<sup>a</sup> Atanasia Ezterripak bialtzen dizkio Aita Aranari Ezterripa apezpiku zenaren paper antzinakoak. Hamar egunera-edo Martin Gaztañaza apaiza, Jose M<sup>a</sup> Orue ta bere emazte Visitacion dohazkio berriz Aranari iluntzean Ezterriparen paper kontuaz jardutera. Beste hamar egun igaro gabe Arana D. Martin Gaztañaza-Torre abadearekin D<sup>a</sup> Anastasia Ezterripagana (n<sup>o</sup> 3,2<sup>o</sup>) doa Eliz-ondoan, bere paper Ezterripatarrenak eramanez eta lau egunen buruan D. Balbino Garitaonaindiarekin arratsalde batean Abadiñora, han Apezpiku Atanasio Ezterriparen jaio izkribua (1668) ikusi eta seinalatzeraz.

Apezpikuaren Treña-Jauregi bigarren deitura Abadiñoko bazter, ondoan jauregia zuen, baten izena da. Hala irakurtzen dugu: "Atsaldean Treña-Jauregi aldeko baserri aurreko arboladi-zelaian erdi-aparia erreberoaz". Baserriak ba omen zuen kapila-toki bat, bai ere gurutzea eta erdian atrila. Hara joan omen zen Arana arratsalde batean D. Antonio Arginzonizekin eta On Balbinorekin, bai eta Mañarira ere beste batean, eta bestean Abadiño ondoraño D. Domingo Larragan eta D. Balbinorekin. Arginzoniz aita-semeak hemendik aurrera maiz agertuko zaizkigu.

Ez dagoke gaizki hemen esatea ehuneta berrogei urte lehenago, goiti beheiti, izan zela jesuita bat Apezpikuaren izen-deitura berekoa, Atanasio Ezterripa, Durangoko semea, dirudienez, Matematikaren irakasle trebea. Iruñeko Kolejoan Mendibururen erretore izan zen eta Loiolan Larramendiren azken urteetan, Azpeiti-Azkoitiko matxinadaren aurrekoetan, horrekin bizi. Matxinada famatua altxatu zenean, Loiolako langile matxinadazale mutirituen alde jarri zen eta, han gertatuen lekuko izan baitzen, inguruko jauntxo eta zaldunen aurka fede eman zuen: langileak leku sagaratuan babesturik zeldela, soldaduek atzeman zituztenean. Aita Probintzial Idiakezek, jauntxoen zemaiez eta mehatxuz limurturik, Logroñora urrunduz Aita Ezterripa. Honek hara bidean Loiolako Erretore Juan Bautista Mendizabali honela zioztan ironia ttantto batekin: "Yo no entiendo la conducta del P. Provincial y ahora me parece que debemos suponer que los Superiores se manejan por superiores causas".

Sabino Aranagandik D<sup>a</sup> Teresaren dirua Bilbotik ekarri zuela irakurri dugun Jesus Astarbek edo familiak ere bazituen nonbait antzinako paperak. Astarbetar bat etxegile zen. Aita Arana egun batean, AA. Agirre eta Aranburu eta On Balbinorekin gaixotegira eta pasiora joan ondoan, etortzen zaie Astarberen alaba Carmen, Elorriaga (edo Elorrieta, bietara dio Aranak) etxe-ko antzinako izkribuekin eta erakusten hasten. Beste batean ere "D<sup>a</sup> Carmen Astarberen etxera" joan ziren, "Elorrietako izkribu antzinakoak irakurtera" eta gauzak ongi egiteko alabarekin baino amarekin konpontzea hobe izango

zelakoan, bi egunen buruan On Balbinorekin D. Francisko David-gana doaz. Han zegoen Antonio Astarberen emaztearen ama eta Anastasia Salazar eta ahizpa Eugenia ezkondua eta bilobak.

Hortik aurrera ez diosku besterik Aranak. Beste gehiagok ere bazituzten nonbait paperak: "D<sup>a</sup> Teresa Belarroa G.-ren alarguna... Bere senar zanaren paperak" esaten baitigu Aranak eta honek haien usaina hartu berehalaxe, nonbait.

Otxandioko seme Felipe Arrese Beitiarekin egin zuten topo Aranak eta On Balbinok Berrizko mojarata joan ziren batean. Ikus nolako hiru lanbide egozten dizkion Aranak: "Han Felipe Arrese pintatzaile, otailuzale ta neurtizlari; berak lagundu digu bidian luzetxo". D<sup>a</sup> Teresa Aristegik sei liburu eman omen zizkion liburutegirako. Urduñatik han zegoen Novia de Salcedoren Hiztegiaren lehen zatia eta bigarrenaren zati bat igorri omen zioten. Bilbotik D. Antonio de Iraolagoitiaren (Bidebarrieta, 12, 4<sup>o</sup>) karta bat eta liburu bat hartu omen ditu: Larramendiren *Corografía de Guipuzcoa* eta 1762ko *Gabon-sariac*.

D<sup>a</sup> Teresa haize-orratza bezala dabil, orain hona, gero hara, baina makalldiak ere askotxo ditu. Bi lehen hilabeteetatik hamabost egunetan ohian dagoela esaten digu Aita Aranak. Jaikitzen den oro gaixotegian aurkitzen dugu, non topatzen baitu maiz Aita Arana. Orduan komunzki konfesatu egingen da. Etxeko neskatxa Maria txikia du eta batzuetan elkarrekin gaixotegira joan eta biak konfesatzen dira. Inoiz edo behin Arana bera dohakio etxera bisita egitera Juanekin edo On Balbinorekin, bakarrik ez joateagatik. Behin Aita Olano ere bai. "Atzo ta gaur ohian D<sup>a</sup> Teresa; triste ta Durangotik juteko asmoarekin". Ernecatzen denean handik aldegitoko gogoak ematen dio: "8,30etako trenian D<sup>a</sup> Teresa de Aristegi Maria neskatxarekin Bilbora, han bientzat bizileku bat bilatzera".

Gaur edo bihar EGUNARIA irakur dezanak jakin ez dezan zer esan nahi duen, hitzen silabak puskatu, nahastu eta edozein modutan loturik ematen dizkigu. Batean: "buton-larkin-nelo-ute-reibo-abal (circunf. 48 cent., altura 10 id.)". Bestean: "aloiru-mastun-teiron-obar-kesin-rrapos". Beste batean: "D<sup>a</sup> Teresa gaur jaikita, garbitzen bera "izbol-terno-erbal-tzakiñ". Nork asma testu horietan dioena!

#### 4. UDAKO OPORRAK LEHORREAN? (1888)

Pazko egunetako festen eta oporren ondoren, 4an, asteazkenean, hasten dituzte berriz eskolak. Aita Aranarenak laburragoak izan ziren, 13an joan

baitzen Bilbora goizean 8etako trenean, eta ia hilabete osoa han igaro. Opor soilak baino gehixeago da hori! Gainera ez opor garaia da, ez oporrik aipatzen du; baina ez eta zertara doan esaten. Santiago plazako jesuiten bizitegian kokatzen da. Bidean jende ezaguna aurkitzen du: Angel Azkondo gernikarra eta Goikolea, Zornozako parrokoa. Baita D<sup>a</sup> Mikela Eizagirre, Pepita Albizua eta Justa Ribera ere. Atsaldean A. Aranbururekin "Bilbo berrian Etxeberri haundi eiten ai dirana ikustera, zein erakutsi baitigu Anai laguntzaile Altubek. Gero Gran Viako Jesusen Bihotzeko mojen kolejiora. Han Ama Samanez, beste bat eta neskatxa ikasle Pilar Azara Vedruna Bidegoiangoa, Nievesen alaba, ikusten. Ezin, bada, honi bisitatxo bat egin gabe egon. Amak ez zion gutxi eskertuko jakitean! Gero Deustura bidean goizean agurtu duen D<sup>a</sup> Mikela Eizagirreren familia osoa: Pedro Otaegi, bere emazte Franziska Eizagirre, Mikaela eta Fernanda mojavaia.

Durangotik bertantxe hartzen ditu D<sup>a</sup> Teresa Gordonen eta On Balbinoren kartak eta paperak. Arratsaldean Abandora doa, 16, 1<sup>o</sup> A, gero Novia Salcedo ahizpen etxera (Gran Via 16,6<sup>o</sup>), gero beste bitara eta azkenik Novia Salcedo Barrenkalebarrenara. Biharamunean D<sup>a</sup> Teresari eta On Balbinori erantzuten die Durangora. Arratsaldean Deustuko ikasleek, "letra-kindeek", Aranak "Jarduntza agirikoa" deritzan ekintza literario bat izan zuten Españaiko Dramaren gainean jende askorekin: ezin kabitzeraino denak hiztoki salan.

Zertara joan den esaten ez badigu ere, bere kontakizunek argibide pixka bat ematen digute. D. Fermin Alegria eta hortzen arazoa ez du behinere aipatzen, bai ordea D. Fidel Sagarminaga eta honen liburutegia. Hiru egunetan doa hara eta bitan D. Antonio Arginzoniz eskribalari Durangokoa arkitzen du han (calle Ronda n<sup>o</sup> 11, 2<sup>o</sup>). Egun haietako batean goizeko 8,30etan "burnibide ondoko harrobitik dinamita-tiro lehenengoak, harri puskak kolejiora botarik; puska ditu A. Cienfuegosen eskolako leihoko egur da kristalak".

Berriz itzultzeko asmoa hartu baizik ez du egiten lehen bisitan, baina bigarrenean D. Luis Ordozgoiti berekin du eta biak aritzen dira idazten 11ak arte. Bidean Garitagoitia eta Zugazti jaunekin egiten du topo. Biharamunean gauza bera: D. Luis Ordozgoitirekin liburutegian 11,15ak arte. Beste egun batean D. Roman Pagoaga apaiz, Merced-eko kapilaua, D. Fidel Sagarminaga, D. Antonio Arginzoniz eta Mikaelarekin batzen da.

Durangora iluntzean eta Bilbora berriz hurrengo goizean: atze-aurre arin horrek ere izango zuen bere arrazoa. Oraingo honetan Bilbo Deustu da eta Deustun ostatatzen da. Bidaia arin horren arrazoa D<sup>a</sup> Teresa dateke. Honek hiru egun lehenago, izan ere, Erromatik jesuiten Aita Jeneralaren eskutitz bat hartu du. Hona nola dioen Aranak gero: "D<sup>a</sup> Teresa Aristegi de Gordon-en

karta Durangotik Erromako parte ukagarriarekin eta eranzuera (nik) berari, ta carta ere A. Olanori". Ondoko hiru egunetan D<sup>a</sup> Teresa, bere neskatxa Mariarekin Durangotik etorrira, Bilbon da eta Aita Aranak joan-etorria egiten du eta Deustun kokatzen.

D<sup>a</sup> Teresa berriz ez da inon etxekotzen. Maiatzean esaten digu Aranak D<sup>a</sup> Teresa Bilbon eta Algortan dabilela etxe bila. Hiru egun geroago Pedro Alberdiren eskutitz bat hartu duela eta hau Colon de Larreategi P.M. (?), 3<sup>o</sup>, dch.-n, "D<sup>a</sup> Teresaren bizietxe berri gainean" bizi dela. Astebete geroago, azkenik, D<sup>a</sup> Teresa Bilbora joan dela goizean "biarko han bere bizitokia prestatzera: calle de Ibañez n<sup>o</sup> 10" –Sabino Arana bizi den ondo-ondoan–; prestatu eta arratsean Durangora itzuli zela, eta hurrengo "atsaldean Bilboratu, han bizitzeko (Ibañez 10)".

Luis Ordozgoitik pikardia negargarria egin dio: "Manuel Ziorragaren ta D. Pedro Cuadraren bizitza-izkribuak bidian galdu dizkit". D. Antonio Nemesio Iraolagoitia, "zahartxo", ez zen nonbait ase Aranarekiko solasaldiaz eta berriro dohakio ikustera. Goiz batean Arana 5etan Meza azkentzen ari zela "kontrako eztarriratzez ura, larritasun haundia". Maiatzaren 2an "liberalen festa ta musika kalietan". Deustuko egonaldi honetan ezagutu zuen "Deustuko ikasle Julio de Urquijo: bolapu ta euskera gainean". Deustuko azken egunean nortaz oroituko, eta Bidegoiango bi anai-arrebatxoez egiten da: "bi iduritxo Ignaziotxo ta Pilartxo Azara Vedrunari". Biharamunean etxeko "Aitan ta Anaian agurrak Durangoratzeko". "Bilbora tranbian joan, Egidazunean (Artekale 26) errezoak egin eta 7ak aldean Atxurira; 7,30etako trenian Durangorako". Han nork itxarongo, eta D. Jose M<sup>a</sup> Oruek, bere emazte eta Nievesekin, eta ematen diote D. Antonio Arginzonizen hilberria. Asko luzatu gabe dohakio Aranari aipatu umeen ama Durangora bisita egitera: "Hemen D<sup>a</sup> Nieves Vedruna, Azararen alargun Goiazen bizi dana".

Ekainaren hasieran gaude. Biharamunean eskolak, ohi bezala, eta Durangon betiko bizimodua, harik eta uztailaren azkenean, bi hilabete eskasen buruan, eskolak gelditzen direino. Antonio Arginzoniz zenaren hil-meza eta hobiratzeak Santa Anan izan ziren "Eliza bete jendekin". Aranak bere aldetik, hiru meza eskatu baitizkiote, hirugarrena San Franziskoko mojategi Elizan eman zuen; han ziren D. Antonioren anai-arreba, Teresa eta Guadalupe.

Euskalerriko toki askotan herriko festak udaberri azkenaldean hasten dira. Durangon eta inguruko herrixketan ere bai, Abadiñon, esan dugun bezala, San Blasetan izaten diren arren. Maiatzaren azken egunean Izurtzan "Santa Mariatik prozesioan 11ak aldian lau kalietan, ohi bezala, ta suziri, kanpai ta

txupinazoak". Egun horretan "bazkal azkenez –postrez, diogu guk– lehen aldiz aurten baratza hontako marrabi haundiyak".

Ekainaren 13an San Antonio Urkiolakoarenak ospatzera Bizkaia guztitik eta Gipuzkoa erditik etortzen da jendea: "tren danak beteak goiz da arratsalde Bilbo aldetik eta Gipuzkoa aldetik", diosku Aranak. "Bilboko musika edo soinularidi edo txaranga 28 lagunekoak hemen gaur. Dendatxo asko plaza ta Eliz inguruan". Loiola inguruko ezagunekin ere egiten du topo: "Hemen Inazio Mari Gogorza, Manuel, biak Berrozuetaoak, Gaspar Bereziartua". Bero ikaragarria izan zuten hilaren lehen egunetan, eguzkitan 49 gradu eta itzalean 37.

San Luis egunean Luistarren jai handia, goizeko Meza 6,30etan Aranak Santa Anan ematen diela. Gero Meza nagusia, Deustutik hartarako etorri den Aita Vinuesak gaztelaniazko hitzaldia eginik. Arratsaldean On Balbino eta D. Antonio Arginzonizekin, hilaren semearekin, Mañarira doa; "han gurutze zidarrezkoa, 1559koa, ta anziñako tailu-iduri ta inerdakoak (?) gordeak".

San Juan egunean goizean-goiz hasten dira soinu, suziri eta danbolina Barrenkaleko S. Juan festa berriagatik eta etxe gehienetan ageri dira lizar adar asko, ohi bezala. Festa eguna ez bada ere, hemen aipatzea merezi du gure Aita Aranak 50 urte egin zituela. Harentzat festa maiatzaren 26koa zen, San Felipe Neri Elizak ohoratzen duenekoak. On da hemen Aita Sorondok behin egin zizkion hitzok iradokitzen digutena entzutea: "disfrutaré las fiestas del 8 de Mayo en que antaño V.R. se ponía chaleco blanco y sombrero de copa". Hara gure azkoitiar literatua! Aita Estefania ere halaxe jantzita agertu omen zen Loiolako atarian, jesuita sartzean. Goizean gaixotegian Sor Mariana eta Sor Franziska elkartu ziren D<sup>a</sup> Teresarekin "egun onak neri ematen, emanik bizkotxoa eta Jerez botela bat bazkal-azkenerako". Beste lagun askoren zorionak ere hartu zituen; hala nola Manuela Irusta, Rosario, Leona, Pilar Agirre, Abreu, Klara Echaniz de Oliva, Vitoria eta abarrenak.

Azpeitiko Martinezekin baditu oraindik harremanak. Jesusen Bihotzaren hil ekainerako hartzen ditu "300 orritxo *Jesusen Bihotzari Ongitu aldia* (Acto de reparación del Corazón de Jesús)" direlakoak eta 100 iada salduak; eta egun gutxiren buruan organista Askazubi, Goñatiarra, joaten zaio Jesusen Bihotzaren kanta eske eta Aranak ematen "Yo te adoro", "Agur, bai, agur" hasten dena. Eusebio Lopez Tolosakoa ere oroitzen da noizik behin hartaz; Mogelen *Eguneroko lan* liburuaz mintzo zitzaion azken kartan. Egun berean Zaldibarko bainu-etxera egin zuen Aranak Aita Aranbururekin "oinez jua da etorri" eta hango parroku D. Jose Kruz de Astarloarekin egon zen.



## 5. AITA ARANA ETA CANOVAS DEL CASTILLO (1888)

Eskolak amaitu eta mutiko ikasleek beren etxeetara alde egitean, hara non ikusten dugun Aita Arana uztailaren 15ean, bi hilabete baizik igaro ez direla, Bilborako bidea berriz hartzen. Jende ezaguna agurtzea da bere lehen egitekoa Deustutik Bilbora eta Begoñara A. Landarekin ateratzen den bakoitzean: Cesareo Egidazu, Roberto Irusta, D. Estanislao. Begoñan apaiz ezagun batzuk ere bai: Ugarteburu, Vila, Olano. Hurrengo goiz batean Bilbon Mikela, Fidel, D. Antonio, D. Luis eta Manuela Irureta, D<sup>a</sup> Elisa Villabaso de Artecherekin. D. Antonio Nemesio de Iraolagoitia (Bidebarrieta 12,4<sup>o</sup>, dcha) "zahartxo"-k ikusi bat egin zion. San Mames gaixotegira eta kaputxinoen komentu berrira joan zen Deustuko irakasle A. Mintegiagarekin, beste batean. "Gero etxe ondoan Arias D. Ignacio, bere ama, emazte ta arrebarekin, ta Egidazu". Ez da ordea denbora guztian Deustun eta Bilbon egongo. Udan zehar honako toki hauek guztiak arakatuko ditu, Deustuz gain: Santurtzi, Durango, Betelu, Loiola, Bilbao, Loiola eta azkenik irailaren 13an berriz Durangon. Bi hilabete dira arra-arran Durangotik lehen irteera egin zuenetik.

Bilborainoko lehen joanera honela kontatzen du: "8etako trenian Bilbora. Zornotzaraino Durangoko bi apaizekin (bigarren motan 8 errial). Bilbon Egidazu (Artekale 26), Residencia (Santiago 1), Abando Ensantxe (Ibañez 10, B 1), D<sup>a</sup> Teresa kanpua. Han D. Sabino ta Luis Arana. Deustura 11etan". Baina helburua ez da hori, Santurtzi da, non igaroko baititu sei edo zazpi egun "kanpo handi", "kanpoetxe" batean. Deustuko askotxo dira han, Aita Ipiña erretorea barne, eta Aranburu eta Arana Durangotik. Lehen egunean "itsaso hasarretxo; bainu txikia". Ondokoetan ere ez du asko hobetzen eguraldia eta danera lau bainu bakarrik hartzen ditu.

Egun batean bazkaltzen 23-bat pertsona, izan omen ziren; 30 inguru beste batean. D<sup>a</sup> Teresa, nola ez, inguruan dabil bere neskatxa Angelarekin: "kaja bat boteila txanpañ erregaloz". Goiz batean lau lagun doaz Bizkaia ize-neko Sestaopeko burdina eta galtzairu ola handia ikustera. Hango langile-etxean ezagutzen dute Franzisko Aranburu, Beltxa, Santa Kruz apaizarekin ibilia. Akuran hartua zuten etxea uzteko eguna iristean, jesuita guztiak ateratzen dira Santurtziko kanpo-etxe hartatik eta txori bakoitza bere kabira. Arana "Bilbora tranbian; 10,15etarako Portugaleten. Bilbon Egidazunera (Artekale 26)", eta beste bisitatxo batzuk eginik, 11,30etan kolejiora. "Atsaldean Deustotik Anai lag. Benitorekin Abandoko Arana etxera ta han D<sup>a</sup> Teresa ohian, Pedro Alberdi eta Angelaren ama xaharra". D<sup>a</sup> Teresa Sabino Aranaren hauzoko da, beraz.

Egun handi baten bezpera edo bezpera aurea nabaritzen da Aita Aranaren orrialdeetan: "eguerdian iritsi da Santandertik A. Markiaren bihar Nafarroaratzeko". Biharamunean "Aita Sorondo ta Pardo Martin jauna Loiolarako jun dira lehenengo trenian Elgoibartik. Ni 10etakoan Durangora; han bertan ere D<sup>a</sup> Teresa". Badu haatik atsaldian D. Antonio Arginzoniz eta Sabino Aranarekin Tabirara ibilaldia egiteko astia. Baina etxera orduko "biharko gauzen prestaera, Betelura AA. Apraiz da Sangradorgana juateko".

Biharamunean "Durangotik 8,30etako trenian Bergarara. Hemen 10ak arte kotxerik ez eta Enseñanzako ikastetxean bisitatzen ditu zenbait moja, Inozentzia Olazabal batik bat, maiz idatzi ohi diona eta are neurtitzak igortzen. Zumarragara kotxean hiruretarako; hemen D. Bernardo Mendia, bizpahiru jesuiten aita, eta haren emazte-alabak ikuskatu. Gero 5etako trena hartzen du Tolosarako; jendetza handia omen dabil eta "Sagasta Donosti aldera". Tolosatik kotxian beste lau lagunekin Beteluko bainu-etxera 9etarako. "Apal ondoan kantak".

Ez al darabil parranda askotxo gure Aita Aranak aurtengo udan? Berrogeita hamar urte betetzeagatik eman ote diote amaina luzea? Betelun ez da jesuita bakarra, ikusiko dugun bezala. Sailtxoa dator eta aurretik ongi prestatutako balentria egitera. Lehen gauan 120-bat kanpotar omen ziren bainu-etxean. Handiki jendea dabil harat-honat. Gutxienez zazpi Aita jesuita ere han dabilta: Aranaz gain, Velez, Apraiz, Markiaren, Sangrador, Rufino eta Hidalgo. Don Emilio Cánovas, Antonio Gobernazio-ministroaren anaia, bi alabakin, Emilia eta X (ez daki izena); Infanta Cristina bere kotxean; Iruñeko Apezpiku Don Antonio Cabal, zeini Enrike Levenfeld mutikoak neurtitz hau eskaintzen baitio deiturarekin jokatu:

"Reciba el testimonio  
de adhesión inmortal  
Su Ilustrísima Antonio  
Obispo más CABAL".

Horren egilea nor datekeen bai ote duzarik? Infantaren kotxean erretiratu zen Apezpikua eta Loiolara alde egin. Igande arratsaldean Errazkin aldera ibilaldi bat egin ondoren, "D<sup>a</sup> Teresarekin, Infanta Cristina ta Dolores de Agirre, horren damarekin, hizketa. Bost konfesio: Emilio Cánovas del Castillo, bere bi alaba ta beste bat, Enrike Levenfelden konfesioak. Emilio, Emilia ta Enrikeri Sorrera Garbiko eskapularioa ezartzea Kapilan".

Ez dakigu oroitarrik ezarri zuten horman, baina bai Aita Aranak bere EGUNARIAN, hurrengo orrialde osoa alde-alde harturik, honako oroigarri hau idatzi zuela letra handiekin:

IHS

DIA 29 DE JULIO DEL AÑO DE 1888

EN LA CAPILLA DEL ESTABLECIMIENTO DE AGUAS  
Y BAÑOS DE BETELU TOMARON EL ESCAPULARIO  
DE LA INMACULADA CONCEPCION DE MARIA  
SACRATISIMA VIRGEN, IMPUESTO POR EL  
REVERENDO PADRE JOSE IGNACIO ARANA  
DE LA COMPAÑIA DE JESUS,  
EL EMMO. SR. D. EMILIO CANOVAS DEL CASTILLO,  
SU HIJA D<sup>a</sup> EMILIA CANOVAS Y VALLEJO,  
D. ENRIQUE LEVENFELD.  
A. M. D. G.

A ze lasaitua hartu zuen Aita Aranak egun hartan! Orduarte bainua hartzeko ere astirik ez: "lehenengo bainu osoa 11,30etan", idatzi zuen 30ean. Orduan alde egin zuten handik D. Emilio Canovasek eta bi alabek, bai eta D<sup>a</sup> Teresak eta bere neskatxa Errufinak, bai eta Durangoko Erretore D. Domingo Larraganek, nahiz "25 lagun berri etorri omen dira gaur eta gutxiago joan". Geldituen artean D<sup>a</sup> Dolores Subiola, Vda. de Agirre, Infanta Cristinaren dama, Guadalupe eta M<sup>a</sup> Teresa Arginzoniz zeuden. San Inazio eguna ez zen jai han Nafarroan, baina arratsaldean 4,30etako Errosario, hitzaldi eta Salbe ondoren "San Inazioren martxa neskatxakin euskaraz Kapilan".

Hamar egun bakarrik egiten ditu Aranak Betelun; abuztuaren 4an, bere eginbidea bete du eta badoa handik: "han lehen pagatxo ta agurrak". Bere paper batzuen artean bertso txo hau aurkitu dugu "Betelu" izenari buruz egina:

BETELU

Ardiyaren izketan  
daucat asiera,  
letra baten izena  
bigarren sarrera,  
iruba nai ba-dezu  
begira lurrera;  
nigana datoz asco  
udan sendatzera.

Asmakizuna deitzen duen hau 1889koa dela dio paper-muturrak. Irteera 9,30etan eta halabeharrez "argitzen da 8,30etan era ona, baina berandu, Infanta Cristinarekin hitz egin da konfesioa bidean eiteko; lagatzen da Zarautzerako. Berari ta Dolores Subiola damari agur eta 9,30etan Arginzoniz anai-arreba ta

neska Mariarekin kotxian Insalus ta Tolosara". Han Altunaren ostatuan 11etan eta gero Eusebio Lopezekin elkarrizketa: Ripalda euskaratu ala ez. Zumarragan "han haiek bere kotxian Bergarara ta ni Loiolara, D. Antonio (Arginzonizek) nere biajekoa pagaturik". Lanak ditu sinesteak, baina "D<sup>a</sup> Teresa hemen", Loiolan alegia, aita Arana iritsi orduko.

## 6. KAPANAGAREN ARRASTO BILA (1888)

Ez dirudi zeregin handirik ekarri duenik Loiolara. Beti bezala, Azpeiti-Azkoitiko ezagun eta lagunen bisitak, Agerre, Agerretxo eta Munategi base-riretara jira bat, zenbait eskutitzen idaztea eta Martinez liburugileari S. Inazioen 12 papertxo eramatea. Sei egun bakarrik ematen ditu han, besteak beste han izango delako hoguei egunen buruan berriz ere gogojardunak egiten. Orain Bilbora doa, oraingo honetan bai, oporretara, Areetan bainuak harturik; baina udako oporrak ez ziren inoiz hamazortzi egunekoak izaten, eta Bilbon hamazortzi egun emango ditu; beraz badu beste zereginik.

Ordubietako bazkarira garaiz iristen da hilaren 11an Bilboko bizitexede Erresidentzira, Loiolatik Azpeitiko kotxian 7,30etan aterarik. Lehen eskutitza D. Antonio Arginzonizi. Egun trinkoak eta interesgarriak dira, gehiegi luzatzeko beldurrez hemen hertsiki emango ditugunak, Sabino Aranarekiko orain arte ez bezalako harremanak agertzen baitituzte.

Biharamunean, igandean, Abandoko San Bizenten ematen du meza goizeko 6etan. Han aurkitzen ditu gero D<sup>a</sup> Paulina Arana, iloba eta alabatxo batekin, eta Bizente Zabala, Oinatiko beste jesuita izandako batekin. Arratsaldean Areetara eta Portugaletera doa On Tomas Egidazurekin.

Astelehenean AA. Villada eta Vinuesarekin Areetara arratsaldean. Etxeratzean "hemen D. Sabino Arana ta Eladio Madalena. Abandon Aranatarak".

Asteazkenean, Ama Birjinaren Zerura-Altzatze egunean, D. Pedro Zurirekin Abandon eta A. Villadarekin Areetan arratsaldean.

Biharamunean goizean A. Uriarterekin D. Fidel Sagarminagaren liburutegira eta arratsaldean AA. Villada eta Mintegiagarekin Areetara.

Hurrengo egunean A. Villadarekin Areetara goizean eta arratsaldean "D. Sabino Aranarekin D<sup>a</sup> Teresaren gainean". D<sup>a</sup> Teresaren eta D. Antonio Arginzonizen karta bana.

Hilaren hogeian, astelehenean, "E. Ramon eskribatzailearekin eskribatzen goizean".

Bi egun geroago "Anai Lazkibarekin Bilbora eta Abandora. Han Sabino Arana".

Biharamunean "Sabino Aranakoak eraman du Gernikarantz "Ortografia euskera" hitzaldia".

Hurrengo arratsaldean Bilbora. Han Saratxo jauna, Galo Sautu, Tito, Ignazio Plazaola "ta honuzkoan tranbian Orduñako andre handizki Dolores Madarini de Olaso ta Felisa Ugartebururen X seme bakar, Buenos Airesen izandako...". "Neretzat Aita Probintzialaren eskutitza Anitaren gainekoa. Loiolara juateko".

Larunbatean, 25ean, Bilbora goizean. "Han Jose M<sup>a</sup> Lezameta, Larrazabal diputadua, Neguritikoen X. Karta D<sup>a</sup> Teresari Loiolara. Antonio Arginzonizek neri karta Loiolara zuzenduba".

Biharamunean "D<sup>a</sup> Teresaren karta eta urrutizkiña edo telefonoa Loiolatik. D<sup>a</sup> Clara Etxanizen karta Donostiatik, hau bialdua D<sup>a</sup> Paulina Aranakoari. Karta D<sup>a</sup> Teresari Loiolara".

Astelehenean D<sup>a</sup> Teresaren bi karta. "Han zerbait D. Sabino Aranarentzat. Abandora atsaldean. Han Paulina ta X alargun Arana bakarrik".

Asteartean "D<sup>a</sup> Teresaren 26ko karta: Anita gaur dihoala. Bilbora atsaldean. Kolejio del Sagrado Corazon (Ensanche, Gran Via). Sabino Aranaren arreba han.

Azkenik asteazkenean Loiolara doa eta han Anita Riba aurkitzen du, egun hartantxe Donostiara joatekoa. Irakurleak barkatuko dit horrenbesteko zehaztasuna, baina merezi zuelakoan nago. Abandorako joera handitxoa azaltzen bide du aita Aranak. Pixka bat "abandoartu" ote zaigu?

Egun haietako batean oso bestelako jaia du Bilbon: Aita Inazio Aranburu, Durangoko bere lagun minaren "profesio itzaltsu edo solemnea" eta sakristian gero elkar besarkatzea, ohi bezala. "Bazkaldeian hura lehenengo lekuan Bilboko Aita ta Anai ta beste askorekin". Bilboko festez esaten digu lau egun iraun zutela, 19-22, eta hiru zezen-korrida izan zirela ("jende asko Bilbo-zezenetatik")

Hogeita bederatzian arratseko 8etan Loiolan da, hogeita hamarreko iluntzean gogojardunei ekiteko. Zortzi egun bisitarik eta eskutizik gabe, isilik. Zer konta falta eta, egun bakoitzeko errezoaldi bakoitzaren gomutagaia zein izan zen kontatzen digu; eta beste gauza kurioa: "S. Inaziotar ahizpeen araubidea hasiya". Euskal itzulpena esan nahiko du, ez orijinala berak asmatzea.

Oraindik beste bost egun gelditzen da Loiolan betiko lagunak agurtzen, konfesatzen, Santa Kruzko eta Santa Klarako mojak ikusten, anaia Antonio Mariarekin eta ilobatxo Errafaelekin eta Maria eta Juana Kamiñokuekin eta Salamankan ikasten ari diren Eleizgaray eta Gaytan de Ayalarekin hitz-asper-tu bat egiten eta Martinezenean D<sup>a</sup> Florentzia Tolosakoaren kontuak zuzen-tzen. Hilaren 9 igandean Azkoiti-Azpeitian hauteskundeak "da jende asko da onian".

Bi hilabete kanpoan ibili eta irailaren 13ean berriz Durangon da Aita Arana, biharamuneko Santa Kruz egunagatik Kurutziazako festan egoteko: "bart kanpai jotzea, ta suziri edo kohetiak eta argiyak; gaur goizean ere bai. Gero prozesioa eta Meza Nagusia. Atsaldian zezena sokaz, danbolin, txilibi-ta". Festan egoteko eta 15ean eskolak ematen hasteko.

Hurrengo egunetan lehendik ezagutzen ez dugun lagunik, lekurik, ibilal-dirik ez; betiko On Balbino, Ampuero, D. Carlos Orue, Aita Aranburu; beti-ko Tabira, Abadiño, Iurreta; betiko gaixotegia; betiko D<sup>a</sup> Teresa eta neskatxa Maria. Hobeto esan, Iurretara bestetan baino gehiago, San Migelak aurki bai-tira Iurretako Orozketan. Hiru egun lehenago "atsaldean D. Balbinorekin Orozketa barrio Yurretakora. Han Elizako atalberako izkirak gaizki izkriba-tuak". San Migelen kantak eta dantzak entseatzen gazteekin festa aurreko egu-netan, eta eguna, 29a, larunbata, iristean hauxe bakarrik esaten digu: "S. Migel pesta Yurretan".

San Krispin festa ere ez da urruti eta 24a iristean "Durangon suziri ta kan-payak". Han dabilta Errosario Orue eta Sofia Ormaetxe, elkarren eta Aita Aranaren lagun finak. Biharamunean areago: "dantzak, danbolin, zapatariak". On Balbino eta biak, eta Domingo Larragan, Iturriaga eta Don Modesto apai-zak Oruenera eta Tabirara atsaldean. San Estanislao egunean mutikoen festa; komunio guztiena eta armonioz kantak. Eguerdian "kafia ta D<sup>a</sup> Teresaren dul-zia". Abenduaren 3an Xabierko San Franziskoren eguna. Trañajauregira D. Balbinorekin eta gero Ampuero jaunaren Olabarrira.

San Franziskoko elizan "ikasle" mota orainarte ezezagun baten albiste ematen zaigu ilun samar gertatzen diren hitzen bidez. Honela irakurtzen dugu azaroaren 18an, igandean: "A. Aranburu hasi da atsaldean ikasleakin hiru egu-neko Jarduntza santuetan eta A. Agirre hitzaldiak eiten San Franziskoko *neskatxa ikasle adigayai*". Eta behin bakarrikako kontua dela inork pentsa ez dezan, bi egun geroago, asteartean; "A. Aranburu ta A. Agirrek hiru eguneko hitzaldiak; hark hemen kapilan, honek San Franziskoko *neska ikasleai*". Eta hurrengo ikasturtearen hasiberrian: "AA. Olano ta Agirre San Franziskoko moja ta neska ikasle hazikiyai". Azken hitz hau inondik ere Larramendirena

dateke eta "nobizia" adierazten ahal du, baina goiko "neska edo neskatxa ikasleak" ere mojaiak al dira?

Agirian jartzeko moduko hiru berritasun bakarrik gertatzen zaizkio egun haietan. Ampuero jaunaren semea Deustun ari baita ikasten, handik ekartzen dizkio Aranari "paper euskera gaineko batzuek ("Disertaciones Ortográficas") ta Kampionen *Gramatika*". Hori bat. Bestea 27an ireki zen estrainengo aldiz Bilboko jesuiten Erresidentzi berria. Azkena, D. Balbinorekin Tabirara eta Irurtzara joan zen hilaren azken egunean eta han Mañariako abadeak erakutsi zien Kapanagaren *Kristau-Dotrin* euskerazko 1656koa.

Dotrinatxoak Kapanaga beraren izen bila hasteko egarria pizten die eta Don Liboriorekin hango sakristiako liburu zaharrak miatzen hasten dira. Bigarren egunean izen-deiturak osorik aipatzen ditu: Kapanaga Martin Otxoa, baina beste saioek nahi zuten emaitzik ez zekartela ikusirik, orduko bertan behera utzi zuten bilaketa. Aurrerago "Santa Mariako apaizen liburutei txiki-ra" joaten dira eta "han Fray Juan Zumarragaren letra" aurkitzen dute.

Garai-ko elizan ere ibili ziren zer baiten bila eta arratsalde batean hango abade D. Franzisko Uskola eta bere ama xahar Nikolasarekin egon. Antzinako liburu bat erakutsi zien, 1554koa. Aranak ez digu izena aldatzen. Jauregiko eta gurutzeko izkirek hari atentzioa eman bai. Bidean bi andre ari omen ziren gastaña-oskolakaz, "zeinak eregitzen diran betrakiaiaz"

Abadiñora eta jauregi Torre-Muntsarazkora joan ziren biak handik egun gutxitara. Honela diosku Aranak: "Han burnizko ate ta 9 oin zabaleko hormak. Arma-harri ta atalbe-zuloan izkribiera: *Estos dicen que bibieron guardando la honra y fama que tubieron*. Han zezen-plaza etxean. Maintoni ama xaharra "iñume" bostekin, bere alaba Katalin. "Gastaina aletzeko maltxarda, betekiya, betrakiya ta sesbakiya" omen dituzte"; eta eransten dio berak: "iñumia, criatura ajena". Beste batean Abadiño-Ozio aurrera, Muntsarazko San Antoneraino. Bestean "Yurretatik Goixuriara ta handik, Elizalde ondotik ta Erzilurruti basarritik, bide arras, Arandiako zubi aurrera ta Durangora".

Atseginezko paseoak ere egiten ditu, hala nola "atzo ta gaur Abandoko baratzara", edo Anai laguntzaile Gogorzarekin "Santa Kruz, Durangoko tontor azkeneko etxe ta ermita antzinakora" joaten denean; "han ikustoki eder-rrak" omen daude ta "Durango, Izurtza ta Abadianoko harri-mugak" ageri omen dira. Halaber "Andikona-Berrizkora ta bere Eliza ederra ta Ama Birjinaren iduri eder zaharra ikustera D. Balbinorekin" doanean. Berebat San Andres egun bezperan joaten da "San Andres, San Roke ta San Julian edo Santa Poloniko Elizatxoetara A. Agirre ta D. Balbinorekin".

## 7. ITZULTZAILE TREBEA ARANA (1889)

Kanpoan bizi diren apaizen artean badu izen ona eta sona. Bergararik ikustera doazkio Vedrunatar Nievesen eta Pilaren Bidegoiango erretore On Jose Antonio Arrue eta honen anaia, D. Gabriel Arrue, Bergarako Enseñanzako kapilau dagoena. "Maian bazkari hobia ta kafia bi apaiz Arruekin. Hoekin Arginzonizenean. Han Boneta jaun Itziarkoa. Bizente Monzoni letra bi ta zorzikoak". Diogun ezarian Arginzoniztarren etxeak, lehen Aranak esan digunez Oruetarrenak ere bezala, bazuela kapilatxoa, non eman baitzuen meza Aranak abenduko Ama Birjinaren egunean; eta bi basurde ere bai bisitarien atseginerako.

D. Pedro Migel Urruzunori eskutitza egiten dio Aranak Mendarora eta hogeiei egun geroago Pedro Migel bera dohakio Durangora. Halaber On Juan Antonio Makazaga, Orioko Erretorearen "karta eder euskerazkoa" hartzen du eta D. Patrizio Orkaiztegirena Tolosatik, "Dotrinako liburu txiki"-aren euskarra gainean, eta biharamunean erantzuten. Loiolara doazen bi jesuitek "eraman dute liburu anzinako eder galant 1503an gaztelaniaz argitaratutako *Vita Christi del Cartujano*, 2. zati edo tomoa. Misal haundi baten lodiera ta haunditasunekoa, bi kolorezko letrak". Karmelo Etxegarairi liburutxoak igortzen dizkio eta Arzac D. Antoniori *Tabla diferenciala*.

Honixe igorri zion egun haietanxe On Balbinok eskutitz bat eta izkribu batzuen berri: "Verbo Euskaro", "Ortografia", "Versos de D. Eustakio Madina", "San Franziskoren gozo-kanta", "Lista de escritores euskaros", "Gabon Sariak de Leiza, 1762", "Capanaga".

Azaroaren erdi aldera "etorri da jun-etorletik "Gure Izarra" deritzan da Parisen dana euskeraz agertzen hasi dan paperdi asterokoaren 1º numeroa, zortzi orri txit haundi edo folio haundikoa". Bai eta "Baionako Egunkari euskera ta frantsesa *Eskualduna*, hil honen 5-8koa, lehen Urduñara zuzendu ohi zitzaidana". Aita Fita jesuitak, Espainiako Historiako Errege-Akademiako Buru izanak, karta egiten dio Dª Teresari *Biblioteca Bascófila* deritzan liburu gainean.

Aurreraxeago Paristik A. Burnichozen eskutitza hartzen du Aita Aranak, "euskerazko papertxoaren izen klaruen eske "Moniteur Bibliographique"-rako (rue Monsieur, 15)" eta berebat Parisko "Etudes religieuses"-ko eskribu berria eta San Inazioaren Bizitzako liburua eskuratzen.

Gabon jaien inguruan ohitura zen, eta da oraino, asko galdu bada ere, ahaideek eta lagun minek elkarri erregaliak egitea, ahal zuenak ahal zuena, noski; baserritarrek gastañak, intxaurrak-eta eman ohi zituzten. Jesuitekiko



askotxo sentitzen ziren zorretan, eta gastaña erreak baino erregali hoberik egin zezaketenak, noski, gehienak. Dударik duenari aise uxatuko dio Aranaren pasarte honek: "Gabon denbora hoetan etxe hontan erregalo, kapoi, dulce ta hortakoak, eman dituztenan gehienan izenak dira: San Franziskoko mojak, Legarreta, Orbeazkoa, Sarrionandia (bi), Iraola, Garrastarzu, Zuloaga, Orue D<sup>a</sup> Anastasia, D<sup>a</sup> Teresa Gordon, Lizundia...". Bakoitzak puskatxoa baizik eramaten ez zuela ere, bazen han etxeke hamar lagunentzat egun morderako ahamena. Gainera Aita Lasarekin egun haietako batean egonak ziren D<sup>a</sup> Leona eta alaba Rosario Orue eta hauek ere ez zitzaizkion esku hutsik joango. "Te Deum" kantatuz eta Aita Agirrek iluntzean Andre Marian euskarazko hitzaldia eginez amaitu zuten urte zaharra eta hasi berria: 1889koa.

Aspaldian ez dizkigu aipatu Aranak lehen berak moldatu behar izaten zituen "Historia y cartas anuas" zirelako paper haiek eta harrezkero eginkizun hori besteren gain gelditu ote zen pentsatzen hasiak ginen. Orain gugan batere dugarik geldi ez dadin, esaten digu "etxe honen hiru urte azkenengoen Kondaira latinezkoa eiten" ari dela.

Baina horiek guziak latinera itzuliak ziren, ez euskarara. Euskal itzulpenetan ere ordea badakigu, aurreko orriek eskerrak, aritua eta trebatua zela gazetandik, Loiolan eman zituen ordu geldo luze haietatik. Lehen esanak ez berriz esateko, *Ama Birjinaren eta Jesusen Bihotzaren Ofizio laburrak* eta *San Inazioaren Ejerzizioak* aipatzea aski izan bedi. Orain beste itzulpen bat ere egin dezan eskea datorkio. Anai Juan Antonio Zugastiren eskutitza hartzen du bi egunetan Toledotik eta hirugarrenean Deustutik bertatik. Eskatzen zaio itzul dezan, Franzisko Jabier Simonet delako historialari, Historiako Akademiakide baten *El Concilio III de Toledo* liburua. Laster ezarri zion eskua lanari eta uztailearen 21ean Pedro Alberdiri utzi izkribaldatzeko *Toledoko Batzar IIIgarrena*; hiru egun geroago irakurtzen dugu "Anai Zugastirekin Toledoko Batzarrekoa euskeratzen" ari dela.

Baina Aita Aranaren itzul libururik famatuena, egin zuen garaian egin zuelako eta zuen gaia zuelako, lehendik aipatua dugun "*Bai, pekatu da liberalke-ria*" izan zen. Sardá y Salvany apaiz katalanak idatziriko liburua zen eta, zortzi hizkuntzatarara itzulia argitaratu behar baitzen, Muns argitaletxeak Aranari eskaini zion euskarara itzultzea. Hilabete handietan zehar arituko da Arana Bartzelonako probak hartu dituela, zuzendu eta berriro itzuli dituela esaka.

Arzak Antoniori paper morderoxka igortzeko astia ere beti ateratzen du. Urteberria hasi eta berehala, esate baterako, "Paper boila" izendatzen duen eta bere baitan "Ortografia" eta "Gabon saria" omen dituenak. Berebat hamabost egunen buruan *Clásicos Eúskaros* deritzan izkribua.

Besteri igortzen diola egia bada, halaber esan behar hartu ere egiten duela. Eta ez berea dena eta inori irakurtzeko utzi diona bakarrik, hala nola D. Antonio Arginzonizi Arbelbideren liburu euskarazkoa; baita D. Damasori ere On Jose M<sup>a</sup> Lakoizketa Narbarte, Nafarroako Erretorearena, *Euskera-belar da zuhaitzenekoa* ere. Hori dela eta, hilabete baten buruan "karta L. L. Bonaparteren gainian". Intxauspek ere igortzen dio iparraldetik hango Apezpikuaren "Artzaingoako irakaspena".

Urrunagotik ere hasi zaio, orain arte Aranaren adiskideen artean ikusi ez genuen katalandar bat, eskutitza lehenik eta gero haren "*S. Inazioen liburu*"-ren truke "*Liburu ederra*" igortzen bitan. Joaquín Rubio Ors du izena idazle katalandarrak, Bartzelonako Unibertsitatean Literatura irakasle izanak, ekoizpen handiko idazleak, bat bakarrik aipatzeko *Lecciones de Historia Universal*, hiru tomotan, idatzi zuenak. Pazko igandean ere egiten dio Aranari karta. Aurrerago ere uda hurbiltzean hartzen du "Rubio Ors-en 3. Liburu ederra", Tolosatik Eusebio Lopezek bidalitako Mogelen bi liburu *Egunerokolan* 1833koak hartzen dituen egun berean. Lehen Loiolan Zorrilla ezagutu zuela badakigu; orain Rubio Ors-ekin hasten da harremanetan.

Rubio Ors-ek bezala Azkoitiko Clara Etxaniz, Martirietako igandeeskolako lehen maistrak ere egin zion karta. Azkoitian Aranak ezagutu zuetik maiz egiten zioten elkarri eskutitza. Egia esan, Aranak umetxoa zenetik ezagutzen zuen, "Altamira" izeneko etxeko, Baroikuen oso hartuko, alaba baitzen Clara, eta oso elizkoia, dirudienez. Donostian idatzia zen Pazkoko karta; bai eta Gabonak ondokoa ere, eta gainera moja etxe batetik: *Oblatas del SS. Redentor* zeritzanetik. Moja sartu berria zen, alegia.

Komentu batean mojen ondoan bizitzera joateko gogoia izan zuen bestea D<sup>a</sup> Teresa Aristegi de Gordon zen. Hala ziotsan behin karta batean Sor Juana de Santa Monikak Aita Aranari: "karta D<sup>a</sup> Teresaren gogoen gainean haien ondoan bizitzeko". Eta zer egin behar du "bere Eugenio" 8 hilabetekoarekin? "Maria Pereda txikia" neskak hartu berria zuela oraintsu ikasi genuen eta hilabete baino lehen Maria Calderon hartu duela esaten zaigu. Bai eta bere bizitegi berria ematen: Ensanche Henao, casa de Arellano, pral. "Testamentu" hitza ere ("bere kontu testamentu") aipatzen du behin Aita Aranak eta badaitteke haren egarri izatea bat baino gehiago.

Bilbotik Durangora eta Durangotik Bilbora dabil gelditu gabe, zenbait astetan bi bider. Honen ahizpa Juana ere asko lotu zaio Aita Aranari azkenaldi honetan. Gaixo egon berria da D<sup>a</sup> Teresa Bilbon eta orain berriz "gaixo, dieta, estarriko minez" omen dago. Santa Susanan ez dute nonbait begi onez ikusten, eta Aranak ere ez, hango mojekin bizitzera joatea, eta "Santa Susanan

M<sup>a</sup> Azpiazuri kartatxoa, D<sup>a</sup> Teresagana etorri dedin". Ez dio Aranak nork idatzi duen, baina dudarik gabe berak, berak baitu oso laguna aspaldiko Loiolako garaietatik M<sup>a</sup> Azpiazu azpeitiarra. Hamazortzian idatzi eta hogeian "D<sup>a</sup> Teresa jaikita gaur ordu askuan; M<sup>a</sup> Azpiazu etorri zaio Azpeititik 11etako trenian" eta biharamunean ere "D<sup>a</sup> Teresa jaikita Elizan da hemen gaur M<sup>a</sup> Azpiazukin". Bi egunen buruan, ordea, "D<sup>a</sup> Teresa ohian purgarekin". Horrek ez zion galarazi hiru egun geroago, Aita Aranak 53 urte betetzear, hartaz oroitzea: "D<sup>a</sup> Teresak eman ditu bi botela ardo, koinaka ta neur-titzak; cafia ta kopak".

## 8. RESURRECCION M<sup>a</sup> DE AZKUE DURANGON (1889)

Irakurri berria dugu nola joan zitzaion Aita Lasari Eguberri aurreko egun batean D<sup>a</sup> Leona Orue bere alaba D<sup>a</sup> Rosariorekin gabonsari batzuk eramanez. Bistan da oso hartua zutela. Kolejioan jesuitetan zaharrena zen, itzal handiko gizona, oso erlijioso ona, eta oker aritzeko arriskurik gabe esan daiteke guztiek zutela maitea eta etxeko aitona bezala ikusia.

Haren jaioteguna urtero izaten zen ongi ospatua, baina urte hartan hilabete bat lehenago izan zuen oroigarri berezia. D<sup>a</sup> Leona Oruek, izan ere, haren lagun handiak, bere jaioteguna ospatu zuen handikiro otsailaren 20an –"76 urte berak, A. Lasak 77 ta Aita Santuak 79"– eta "eguerdi ondoan D<sup>a</sup> Leonaren erregalo postre dultzekoa" izan zuten. Hilabete bat geroago Aita Lasari bere 77ak egiteko eguna etortzean, han omen ziren goizeko 11etan Orue eta Vinuesatarrak kolejioan A. Lasari zorionak ematera joanak: "bere erregaloak maiyan".

Aita Lasaren jaiotza-urteurrena oraindik gertaberri dugunean, ezin aipatu gabe utzi bost egun lehenago egin zuen txango bat, gezurra irudituko bazaiagu ere. Aita Aranarekin atera zen Durangotik goizeko 8,30etako trenean Arrateko edo Arriarteko Ama Birjinari diosal egiteko asmoz. Eibarren Juan Bautista Alberdi apaiza, anaia Candido eta koinata Barbara (Barrenkale 12) bisitatu ondoren, D. Serapio Larreategi apaiza ere agurtu zuten. Alberdi apaizarekin hartzen dute 11etan Arrateko bidea, aurrean Simona Arrat-etxeberrikoak eta mutiko txiki batek daramaketela astotxoan janari pardela. Han dagoen abade gazte D. Antonio Azpirirekin eta etxekoekin bazkari ederra egin zuten, bai eta sor eta lor miretsi eliza ederra eta gurutze handia ez ezik, inguruko ikusgai, mendi, itsaso eta lurbira asko eta asko: Gorbea, Anboto, Aizkorri, Izarraitz, Ernio, Andia, Urko, Deba, Elgoibar, Plazentzi, Azkoiti-Azpeitiak. Eibarren 7etako trena; guztiak Aranak aipatuak.

Loiola ere ikusi zuten han goitik. Astebete geroago, 28an hain zuzen, ospatu zuten han 200 urte lehenago, 1689an, etxe galant hari lehen zimendua ezarri zioten egunaren bigarren mendeurrena. Bide batez ospatuko zuten segurki, hainbeste urteren ondoren etxea berriki osoro eraikia gelditua. Han izan ziren A. Olano eta Munarriz.

Naturaren maitale suhar eta behatzaile zorrotz baita Arana, dakigun bezala, noiznahi ezartzen ditu honen antzeko oharrak bere idaztarian: "Bart eta gaur egun guztian da ilunduta aurrera jarraitzen du ekaitz izugarriak, tximist, turmoi, txingorrada, euri, haize handi ta guzti".

Dioguna sendoago sinesteko tarte luzeagoa hartu nahi izanez gero, hona 1889ko Errege-egun ondoko bospasei egunetako eguraldiaren berri: "6, igandea. Errege Santuen eguna. Bart hotz handi. Goiz Anboto, Mañari-mendi ta Aoiz elurrez edo txingorrez txuri. 7, astelehena. Goiz hotza ta goibel. Elur berria Anboto ta Aoizen. 8, asteartea. Hotz, goibeltxo. Elur gutxi ta Anboton bakarrik. 9, asteazkena. Euritsu. Elur pixka bat oraindik Anboton. 10, osteguna. Bart eta goizean ekaitz gogorra, haizetsu, euri ta bisuts. Uztargia atzoko modura 10etan. 11, ostirala. Ekaitz gogorra atzo baino gehiago; euri, txingor ta haize hotz bolada askoz. 12, larunbata. Ekaitz gogorra atzoko eran jarraitzen du; uholde haundia Mañari errekan. 13, igandea. Elurra Anboto, Mañari-mendi ta Aoizen. Segitzen du atzo ta lehenagoko ekaitz gogorrak gau ta egun guzian". Segi nezake, baina aski dela uste dut.

Areago, EGUNARIA-k goiti-beheiti dituen 1.300 orrialde mehe, trinko, hertsietan barrena urte askotan zehar ematen digu, hilaren eta aste egunaren izenaren ondoren, beste ezer baino lehen, eguraldiaren berri. Meteorologo batentzat iturbide gutxi izango dira hau baino hobek, 1867tik hasi eta 1891rainoko urteetan Euskalerrian egunero-egunero nolako eguraldia egin zuen jakiteko.

Bestetan urtaro berriak lurrari eman dion astinaldiaren ondorenak seinatzen dizkigu. Lehen ere bakarren bat ikusi genuen. Ikus orain beste hau, maiatzaren 10-11etan idatzia: "Abadiñora D. Balbinorekin. Han D<sup>a</sup> Juana Juaristi. Etxerakoan Arzipreste D. Domingo Larraganekin", eta gero: "Soloan gari arteko belar txar mugitia ("gastaitxodura"), azkiya eta olua eta zalbaia". Biharamunean Iurretan izan da Don Balbinorekin eta han ere lehengoa eta gehiago: "Yurretan gari arteko belar txar mugitia ("gastaitxodura"); olua ("avena"), zalgarra ta zalgamia ("cizaña"), azkiya, txidarra, zoragarriya, ludo-ya ("trigo perdido)".

D<sup>a</sup> Leona Oruek bere jaioteguna, ikusi dugun bezala, ospatu zuen egun berean suertatu zen, Don Resurreccion M<sup>a</sup> de Azkue, "apaiz maisua",

Durangora Aita Aranari bisita egitera joatea eta haren bila Goiuriz izatea. Hau ordea D. Balbinorekin "Arkandiako zubia ta Goixaripetik San Martin ermita Ametzaundikora ta handik Yurretara" joana zen arratsaldean eta elkar topatu ez. Atzera Bilbora joan omen zen Don Resurreccion 7,15etako trenean. Bigarren saioa ongi atera zitzaion, Garizumaren laugarren igandean joan baitzen "apaiz euskera erakuslea Bilbotik (Askao, 7)" bere liburutxo *Apuntes de Gramatica Euskara* berekin zuela eta ordainetan "eraman du *Arte Métrica Euskara*". Bezperan hartua zuen Aranak Lardizabalen *Testamentu Zahar da Berriaren Kondaira*-ko liburua "bigarren aldiz 1887an argitaratua".

Ez ziren hamar egun ere igaroak Nikasia Novia de Salcedoren karta bere ahizpa Pilaren izenean hartu zuenetik, "bere aita Pedroren *Hiztegi hiru hizkundeko haundia*-ren bi liburua erregalaturik".

Oruetarrak adina ez agian, baina askoz gutxiago ere ez, kolejoari oso atxikiak ziren, eta Aranari batez ere, Ampueroetarrak. Pasarte honetan ditugu guztiak bilduak Aranaren inguruan: "Karta D<sup>a</sup> Teresari, eta D. Rubiorenzat neurtza euskerazkoak, Ampuero jaunak D. Jose Liñani Bilbon emateko. Ampuero-enian Azuako alabari, Milagrori. D. Carlos Orueri Muguerzaren orritxo euskara-erderazkoa". Otsailaren 23koak dira hitz horiek. Lauzpabost egun geroagokoak beste hauek: "Gaixoteian D. Balbinorekin, ta Ampuero ta Orue, ta D. Liñan". Ampuero Jose Maria alkate izanak burdinola bat zuen Muruetan; berritu eta estreinatu nahi izan zuen San Fauston, Meza eta hitzaldia Aranaren gain utzirik, eta bazkaria gero. Hemen ere bere naturalista ukitua utzi nahi izan du Aranak: "soro batzuetan gari mordoskak burutzen".

## 9. PREDIKARI ONAK DURANGON (1889)

Inauteri giroan jendea sartua zenean, "kalietan danboliñ da jostaketak" ari zirela, D. Jose M<sup>a</sup> Ampuero joaten zaio Aranari etxera "D. J. Liñan da E.-ren carta BASCA gainean" hitz egitera. Ez dakigu gehiago ez kartaz eta ez Aranaren iritziaz. Bai hamar egun geroago Rubio y Ors-en beste "liburu eder bat" eskuratu zuela. Gaixotegian, ilunduta gero, egun haietakoxe batean, Jose M<sup>a</sup> Ampuero eta Jose Liñan topatu dira On Balbino eta Aita Aranarekin eta honek bi lehenei "*Ortografía Basca edo Izkribera euskerazkoa*-ren gaineko orri-sortak irakurtazi" omen zizkien. On Balbino ohean gaixo egon den egun batzuetan *Dotrina laburra* zuzentzen aritu da. D. Tomas Eleizalde Bergararik bere bi liburutxo igortzen dizkio eta L. L. Bonapartek Londrestik bere eskuzkribu "*Poesía religiosa inédita*". Donostiatik berriz egun berean

"Baroja-enian moldizkiratua dan *Justatxo* deritzan orri sorta edo 36 orriko kuadernoa, gehiena euskera neurtzetakoa".

Garizuman elizkizunak bestetan baino ugariago izaten ziren eta ez zen munta pixka bateko herririk, Aste Santuko sermoi pisuak egiteko predikari berriren bat, fraidea jeneralki, ekartzen ez zuenik. Bizkaian orduan predikari famaturik bazen, Frai Daniel Baertel frantziskotarra zen. Durangoko semea zelarik, pentsa zitekeen, esaerak dioen bezala, ez zela profeta izango bere herrian, baina hau salbuespen zela esan daiteke, zeren bere herrian eta probintzian, eta Araban eta Gipuzkoan sona handikoak izan baitziren haren sermoiak. Milaka egin omen zituen.

Durangon "ostegun gizen" edo "eguenzuri" egunean azaldu zen hura beste bi fraiderek: Egia eta Trekurekin. Fraide gernikar honek San Praiskoan egin zuen hitzaldia Garizuma aurreko igandean eta arratsaldean A. Agirrek Santa Susanan. Baertel, Egia eta Treku, han ziren hirurak hauster-egunean, soldadu ongi armatuak bezala, Garizumako sermoiak Durangon eta inguruko herrietan egiten hasteko. Beste Karmeldar bat ere, ez fama gutxiagokoa, Frai Jeronimo, erantsi zitzaizen eta Garizumako eta Pasioko bost igandeetan egin zituen honek Andra Marian sermoiak. Lehen igandean "hitzaldi ederra" bekatuaren kontra. Bigarren domekan han bertan "berbaldi ederra miñartze edo penitentzi gainean" eta hirugarrenean Eliza berean "lehengo igande moduan hitzaldi euskerazkoa 4ak eta 5ak bitartean". Bi azkenekoetan ere egin zituela bai, baina besterik ez diosku Aranak.

Beste Elizkizunak ere izan ziren, hala nola "Miserere" berri eder San Franziskoko mojetan". Ama Birjina Doloretakoan zer esanik ez: Santa Marian goiz eta iluntze hitzaldiak A. Munarrizek eta Santa Anan A. Agirrek, eta Aste Santuan areago. Erramu igandean parroko apaizak bere gisa moldatu ziren nola edo hala, ohitura zenez, baina Asteazken Santutik hasita, saiakerak: "Durangoko karrika eskinetan gaur atsaldean likurtargi ontzien saiakera egin da, jendea hori ikustera zabaldurik". Ostegunean lau Elizetan Ofizio Santuak: Andra Marian, Santa Anan, San Franziskon eta Santa Susanan. A. Agirrek prozesio aurrean, 3,30etan, hitzalditxo bat euskaraz Santa Marian. Ostiralean ere lau Elizetan Eginkizun Doneak goizeko 6etan Santa Anan hasita. San Franziskon Zazpi Hitzak gazteleraz A. Baartelek eta Iturriaga jaunak, bien artean. Andra Marian aldiz Frai Jeronimo karmeldarrak "euskeraz ezin kabi jendetzaz". Ostiral-larunbatez izan zuten "soldadu durrunda soinuba, haiek hemendik igarotzean", eta igandean aldegin zuten Durangotik. Igandean Pazko jaia.

Pazko giro berriak espirituak ernaitu dituela esan behar, mugimendu eta elkarte berri bat sortzen baita. Lehen aipamena ilun samarra da: "Don

Carlosi", Orueri noski, "euskerazko hitzaldia: Batasun Katolikoa". Bi egun geroago esaten zaigu noizko eta norako, aurretik eguraldiaren berri emanik: "euzki eder" zela "goizeko 5etan Berriz ezker gainetik". Deustun izatekoak dira nonbait *Batasun Katolikoakiko Ikasola-aldi agirikoak* eta hara doaz Durangotik A. Aranburu eta A. Aranaz gain jaun Larragan, Azurmendi, Jauregi eta Erañoko Alfonso. Jendetza handia, diosku Aranak, "erdia ta gehiagoko emakumeak". Askoz jende gehiagoren izenak ematen dizkigu eta orduko nor nolakoa zen jakiteko ongi dator zerrenda: "D<sup>a</sup> Teresa, Dolores, Madarini de Olaso (Plaza Circular 4,2<sup>o</sup>), Arias, Angel Agirre, Eizagirre, Txurruka, Belaustegi goitia, Hurtado Valdespina (José), Iturrino, Egidazu, Zugasti, Bazterra, Uribe, Arginzoniz, eta soinuazaleen artean Arrueko tiple ospatuba". Ez zen hor bukatu dena; hurrengo igandean "San Joseren Patroitza eguna; Begoñarako ibildonea Bilbon Batasun Katoliko oroimenean".

## 10. ARANA DEUSTURA LAU APEZPIKUGANA (1889)

Ikasturte hartako azterketak ikasleei ezarri eta gero, Deustura joateko abisua hartu zuen Aranak. Karmengo Amaren egunean, uztailaren 16an, abiatu zen hara, Aristegi bi ahizpak, Teresa eta Juana, ondotik zerraizkiola. Geroago ere izango ditu opor-egun beteagoak, baina egun hauetaz ere bainuak hartzeko baliatu zen, besteak beste: hain eguraldi ona ez denean, "mainu erdi beroa: 6 errial" Portugaleteko bainuetxean; baldin ona bada, Areetan. Dr. Camara, Salamankako Apezpikua hiri hartan agurtzen du Aranak. Betaurrekoak konpontzeko ere baliatu zen egun haietaz: "erlojuari kristala ezarri ta garbitzea 20 errial". D. Fidel Sagarminagaren liburutegira ere egiten du bisita bat, Julio Zejadorekin han topo eginik.

Dioena oker aditzen ez badugu, badirudi orduan hitz egin zuela bizian lehen aldiz telefonoz, berak inori deiturik; norekin eta D<sup>a</sup> Teresarekin: "urru-titz ontzibidez hemendik (Deustutik, alegia) Bilbora hizketa lehen aldiz D<sup>a</sup> Teresa Aristegirekin (Praxedes bere eguna)". Berak deiturik diogu, zeren ez baitu denbora asko D<sup>a</sup> Teresarekin halaxe hitz egin zuela, baina honek deiturik Loiolatik. Ondoko egunetan han dabilkio txakur otxana bezala, bere neskatxa Mariarekin batera.

Santiago egunean Bilboko Santiago elizara doa Meza Nagusia entzuterera. Nork emango eta nork "Santuaren doanditza" egingo, eta Don Resurreccion M<sup>a</sup> de Azkuek. "Atsaldean San Mames ondoko Novia Salcedoren kanpoetxera eta San Franziskoko kaputxinoetara eta Bilboko bizietxe edo Erresi-

dentzira" doala esaten digu eta biharamunean Ernaitik etorritako senar-emazte batzuen ustegabeko bisita izan zuela, Martzelino Soroa eta emaztearena.

San Inazio eguna hurbil zelarrik, parada ona zen hura, noski, zenbait Apezpiku jesuiten lagun gomitatzeke, Loiolara bidean egun pare bat Deustun geldi zitezen, Ikastetxe berria ezagutzeko. Esan dugu Salamankako Apezpiku Dr. Camara iadanik Portugaleta inguruan zebilela. Kubako Artzapezpiku Cos jauna ere, beste bi apaizek lagun eginik, egun haietako batean heldu zen "Santanderko urrunontzi Expresson"; bai eta Durangotik Aita Lasa ere, antzina Kuban bere ikasle izandako Cos Artzapezpikua agurtzera. Hau parada horretaz baliatu zen Santiago bezperan Segurako parrokia, non ikasi baitzuen mutikotan gramatika, sagaratzeko; Aita Aranak Oñatik igorri zituen neurtitz ederrak heldu zaizkigu. Hona hemen lehen zortziko txikia:

Ongi etorri bedi  
Madrillgo gortetic,  
Nola eguzqui eder  
Goizti sortaldetic;  
Eta nola atsaldean  
Santander aldetic  
Illaqui argui urrezcoaz  
Aitzgorri gañetic.

Kubakoaren egun berean iritsi zen Valladolidko Artzapezpikua ere, hau ere bi lagunekin; eta, honek Deustun hiru egun egin bazituen ere, ez zuen non-bait gure Aranak bere izena buruan hartu, ez baitigu behinere esaten.

Han ikuskatu zuten elkar hiru Apezpiku jaunek eta elkarrekin eta beste jende gehiagorekin bazkaldu. Gero, nor bere aldetik eta bi egun desberdinetan, bai Kubakoa eta bai Valladolidkoa, Loiolara abiatu ziren, han seguruenik abuztuaren lehen eguneko Meza Nagusia emateko, biek bakarrik edo beste gehiagorekin. Deustura San Inazio egun berean, eguerdian, iritsi zena Avilako Apezpiku Dr. Erramon Pierola izan zen. Bazkaria honekin egin zuten guztiek Deustun "1. mota, ta gero liburuteian kafia, zigarruak 2,30ak arte ta 6etan berakin da beste kanpotarrakin izotz goxo-eraria".

Aranak egun horietan Apezpikuen joan-etorriak kontatzearekin nahikoa du; bererik hauxe bakarrik esaten digu: "Aita Probintzialaren karta Aita Erretoreari, ni Aita Apraizekin San Inazio ondoren Beteluratzeko". Albiste hoberik nekez eman zekioken, ez baitu urtebete baino, han azken udako opor ezin ahantzizkoak eman zituela. Berehalaxe jartzen da harremanetan Aita Apraizekin eta Bergaran elkartzekotan gelditzen dira. A.Garzon ere haie-



kin egongo da Betelun; beraz hiru jesuita izango dira. D<sup>a</sup> Teresarekin jartzen da harremanetan. Honekin, Durangora abiatu baino lehen, "Bilbon San Nikolasen zeukan izkribu biltzea ta bere kontuben zuzentza". Horretan lagundu ziola esan nahi bide du. Biharamun arratsaldean Bilboratu, Egidazuren eskutik A. Aranbururentzat paperak eskuratu, bere "maleta edo gau-sakuz kotxian Atxuriko egondeira" joan, han D<sup>a</sup> Teresa eta Mariarekin topo egin eta elkarrekin Durangora 9etan iritsi ziren.

Egun bat bakarrik dauka bidaia prestatzeko. Anai laguntzaile diruzain "Juanek Betelun ibiltzeko 600 errial edo 30 duro edo hogeiko" ematen dizkio. Bergarako trena hartzen du eta bidean Jorge Indurrieta, Zornotzako apaiz, "gramatika erakuslea" aurkitzen du. Bergaran halaber jende ezagun asko: "Egaña Jose Joakin da etxeokak, Unzeta, Vicente Monzon, moja Inozentzia, Ignazia ta besteak". Handik Zumarragara eta "1. tokian trenian jende askorekin, da atzean lehenengoan Erregin Errejente, Donostiara datorrela". Tolosatik Betelura kotxian 9,30etarako.

Han dago beste jende askoren artean iaz bezala prinzesa edo "lehenenkoi Andre Cristina". Hurrengo goizean hartzen du lehen bainu beroa, 36º, eta gero Bonaparteri, d'Abbadieri eta Intxausperi idazten die. Hurrengoan Uztegi herritxora doa Errekaldeko seme gazte Anjelekin, eta atentzioa ematen dio "etxe aurre batean garbitua landa zaldiakin, bertan garie eltzitzeko (trillatze-ko)". Don Migel Pellejerok eta biek hitz-aspertu bat egiten dute, hark Aranari Uztegin predikarazi nahi dion bederatziru baten gainean.

Laster hartzen die usaina gure Aranak sakristiako liburu zaharrei: "Han Aita Mendiburu Sebastian zanak 1764ko abuztuaren 21ean jarri zuen Jesusen Bihotzarekiko bilera edo Kongregazio lehenengoa herri hartan. Han euskerazko liburu anzinakoak: A. Kardaberazen *Jesus, Maria ta Joseren debozioa*, 1763koa, Iruñen; ta *Kristauaren bizitza*, 1760koa, Iruñen, Ant. Castilla; Aita Mendibururen *Otoitz gayak* hiru zatitan edo tomo haunditan, 1760. Liburu eskuzkribituba, Obispo Gaspar Mirandaren ordena dantzen kontrakoa, *Sobre bailes*, 1750koa, eta hori bera argitaratu da "El tradicionalista"-n, 25 de Febrero 1888, Pamplona".

## 11. LARRAMENDIREN BASERRIAN (1889)

Han egoteko egunak ahitzen zaizkienean, Aranak handik doan eta hara datorren jendetik ezagunenak dituenen izen piloa ematen digu, guri batere axola ez zaiguna, eta egiten dituen ibilalditxoeri berri kontatzen; adibidez,

Beteluko herrira AA. Apraiz eta Garzonekin eta Villarroyo jaun diputatu izanarekin egin zuena. Igandean herriko Meza Nagusi 10etakoan berak egin omen zuen hitzaldia euskaraz eta atsaldean etxean "neskatxen aurrezko ta beste dantza Euskalerrikoak" izan omen ziren. Beste egun batean ere goiz-goizetik doa Tolosara eta han agurtzen ditu lehen agurtu ezin izan zituenak: Antia apaiza, zeinek bederatzireuren bat aipatzen baitio, D. Ladislao Zabala, D. Demetrio, Segura eta gainerakoak, guk aurreko orrialdeetatik ongi ezagutzen ditugunak.

Bainu-etxeko nerabe edo mirabeen izenak ikasi ditu: "Dama iturriko urzayak Maalen da Jacoba; mainuzaya Serapia, Bizenta, Martin; mahaizaya Alberto". Goiz batean Meza eman eta gero Tolosara jaisten da, D. Patrizio Orkaiztegi, Eusebio Lopez, Fco. Mugerza, Florentzia Zabala, Pilar Vedruna Bidegoiangoa eta abar agurtzera, eta gero Lizartzako kotxean Insalus-a bazkaltzera joaten. Han dauzka zain D<sup>a</sup> Teresa eta Maria neskatxa eta Mariano Fernandez "osagai irakaslea".

Hartzen dituen bainu "osoez" gainera (hala izendatzen ditu eta lau baizik ez ditu aipatzen), "urrunartze edo inalatzea" ere egiten du egun batean A. Apraizekin. Eguneroko konfesioen kopuruaren berri ematen digu zehazki, eta azken egunetan bi pasiera kontatzen dizkigu: bat, lehen egon zeneko Uztegi zaldiz, eta bi, Errazkina, "Eraso basarri anzinakotik gora", 12etan bainuetxean bazkaltzekotan. Betelu inguruan jaso esaera bat aldatzen du: "Aitua esaten ibilli gera; zer daon etheen e-bai; uste dut Mainasi juana dela; aita etorri zenean, ama joan zen", bai eta esaten "S. Joakingo markesari neurtitzak" egin dizkiola "gaur bere izen egunean". Arratsaldean etxe aurreko dantza euskaldunak izan omen ziren, ohi bezala.

Despeida egunean badaki esker oneko izaten: "goizean mainuteiko mirabeai propina ematen; sendagile ta erropazaleari pagatzen. Ezagunen agur azkenak: Antonina, Dolores, Carmen Irazu ta Guadalupe Urkizu, Bizente Balda, Zaragueta, Lazkano; jende askoren agurketa", eta arratsaldeko kotxean Tolosara. AA. Apraiz eta Garzon D<sup>a</sup> Demetria Etxandi, Zabaleko etxean gabaz; eta Aita Arana D<sup>a</sup> Florentzia eta D. Ramon Zabala, Kondekuan. Biharamunean ere ez dute batera bazkaltzen hirurak; Aita Aranak Andoainen, Lorenzo Gaztañagaren koinatuarenean, eta Garagorri alkatearekin eta beste bostekin batera kafea hartzen.

Hori baino lehen, ordea, "goizean D. Juan Inazio Munita parrokoaren etxean A. Larramendiren bi eskribu 1762koak" ikusten izan zen. Puntu honetan "1" zenbakitxo ipintzen du Aranak eta orripean honela idazten: "Hay en Andoain un libro de *Libramientos y Cuentas de 1762* sobre las obras del

arquitecto Francisco Ibero en la nueva parroquia y allí dos escritos o cartas a la Sra. Matilde (a Madrid), autógrafos del P. Larramendi". Eta gero bere baitatik dio: "Ayuntamentuban Lasa jaunak ez du ezer han tailu-iduri gainean". Arratsaldean bazkaltiarrekin eta parrokoarekin "Garagorri" baserrira doa, "nondik, edo ondotik, agiri dan "Larramendi" basarria barrenean". Hemen ere lehen bezala "2" zenbakitxoak ipini eta orripean honela dio: "Sobre las armas del caserío Garagorri con faja, árbol, toisón de oro" eta gero bost izen: Umerez, Guerra, Iztueta, Isasti, Gorosabel, etc.". Arratsaldean trenean Tolosara, Zabalatarren hamazortzi urteko seme Ladisen jaio-eguna ospatzera.

Biharamunean hiru jesuitak eguerdian iritsi ziren Loiolara eta arratsaldean Arana Aita Apraizekin Santa Krutzera joan. Astebete eman zuen han gauza berezirik egin gabe: betiko konfesioak entzun, Azpeiti-Azkoitietan ahaideak eta lagunak bisitatu edo agurtu; batez ere nor heldu den Loiolara eta nor atera den kontu hartu, egun gutxiren buruan ehun lagunek baino gehiagok han hasiko baitituzte gogojardunak. Berak, ordea, ez ditu haiekin batera egingo, baizik bere gisa, egun bat lehenago hasita. Horretarako bezperan, 28an, Zumaiara doa bustialdi bat hartzera: "itsas-mainua 10etan San Telmopeko mainutokian" eta bazkalondoan "9 lagun itxaso-pasiora 2,30etan D. Manuel Beobideren anayarekin". Eta 29an, esan bezala, hasten ditu gogojardunak. Aita Legarrarekin konfesatu ondoren, "asmo santuak hemen latinez: 1. Vincere me, Dei ope, ut ordinate, recte, pulchre in omnibus me geram secundum Societatis Iesu Institutum ac Regulas...". Beste bat ere bai, baina bego hor. Irailaren 6an bukatu eta oraindik beste astebete gelditzen da han.

Hamabost egun lehenago bezalako bizimodua darama astebete honetan ere Loiolan. Loiolako jesuita gazteek Irailaren 10ean izan zutelako "Lectio Brevis" esaten digu, D. Ignacio Aldalur organo jotzen entzuten du, Juana Aristegi eta Teresa (Aristegi) Gordon, Loiolan denbora pasa dauden ahizpen bisita hartzen du eta dakarkioten "argiduria", argazkia, pozik ikusten. Karta batzuk irakurtzen ditu, bai eta Azpeitira joaten "Martinezeneko kontua arautzeko", Baroikuak eta Santa Kruzko tornera haserretxo daudelako haien arteko pakezkoak egiten, Munateiko agure zahar Joane, 84 urtekoa konfesatzen eta Elizakoak ematen eta azkenean "prestaera ta diosal agurrak Durangorako" egiten.

## 12. GABONAK DURANGON (1889)

Bi hilabete dira juxtu handik atera zela eta beste ezer baino lehen etxeko diruzainari kontuak ematen dizkio: "abuztuaren 3an hartutako 600 erreal edo

30 hogeikotik bihurtu dira 13 hogeiko 30 peset-eunki gutxiago, edo 258 erre-al da 20 erre-al-eunki". Beraz 17 duro xahutu ditu, goiti-beheiti, bi hilabetean. Etxean, lehen bezala, hamar lagun bizi direla diosku: 5 apaiz, 2 ikasle maisu eta hiru anai Laguntzaile.

Gainerantzean ondoko hilabeteetako orrietan gehiena irakurtzen dena egiten dituen ibilaldien leku izenak dira: "Abadiñoko Aingeru ermitaraino" eta "Izurtzan gora karobi aldeko iturri-goriraino" eta "Astola aurrera" eta "San Roke aldetik"; baina askozaz gehiena "Tabiran gora", eta bidelagunetan dudarik gabe On Balbino lagunena. Hori bai, itzultzean gutxitan huts egiten dute gaixotegian sartu gabe. D. Balbino eta biak Berriza joan ziren batean, "Eliza Nagusiko sakristian apaiz Jose M<sup>a</sup> Bernaola ta parroko X-ekin 1745eko Jesusen Bihotz-bilera bula ikustea".

Ibilaldi batzuk oso probetxuzkoak gertatzen zaizkio eta gauza berri asko ikasten du. Oraingo honetan euskal hitz baten hiru aldaki ematen dizkigu. Baina entzun dezagun kontaera guztia: "Atsaldean D. Balbinorekin Mañari aldeko baso txokoa dagon anziñaeneko Etxaburu dorrera. Hango etxe-jau-regi-dorrearen barru inguruan haitz gainean, huntz artean, bere arma, ate ta leiho-begirala. Etxe gizon Esteban Telleria, bere ama, ume Kontxa ta besteak. Han diote Bikarian harrapatu dala jua dan astean azkonarra ("tasugo"), auskenarra edo auskonarru".

Beste batean Abadiñora doa arratsaldean D. Balbinorekin eta sakristiako liburu batean "Fray Juan Domingo Unzueta koaren jaiotz-bataio agiria" aurkitzen dute. Hurrengoan apaiz talde batek egiten du txangoa: "Atsaldian Yurretan gora Galindo mendira D. Balbino G., D. Leandro Zelayeta, D. Julian Aranako, D. Jose Amezolako ta D. Juan Lazpitakoakin. Tontor puntaraino D. J. eta A. Arana, biak bakarrik. Handik begiraldi eder asko itsasalde ta lurraldera. Bilbo aldeko Ibaizabalgo kia ta laino; Serantes, Jorano aldea, S<sup>a</sup> Kruz Bizkargiko, Momua basarridi edo auzote Ibarurikoak, herritxo ta mendi asko itsas aldera. Araba aldera Aizkorri, Aloñamendi, Anboto, Kanpazar". Geografia ikasteagatik bakarrik ere merezi zuen zati horrek hona ekartzea.

Iurretara doan beste aldi batean Bergarako aleman zahar eta bere emazte Bilbotarra topatzen dituzte, andre Amaya Berrizko neskamegai batekin, eta D. Telesforo Monzonen hilberria ematen diete.

Baditu ausiabantza handiko egunak ere: "A. Lezarekin atsaldean Santa Susanara... San Franziskon Ama Abadesa, Bikaria, Carlos Orue, Etxezarreta M<sup>a</sup> ta bere ahizpa ezkondua. Arginzonizen kapilan da basaurde loratikuan Teresa ta Guadalupe ahizparekin. Ampueronian D. Jose M<sup>a</sup> Milagro.

Oruenian Leona, Rosario, Juanito Orue, M<sup>a</sup> Etxezarraga, Natividad". Lauzpabost tokitan, alafede, arratsalde batean! Eta hortik aurrera berri gutxi ematen du: zein apaizekin egiten duten topo paseotik etxeratzean, eta hauek ere iadanik ezagunak ditugu.

Toledoko III. Batzarreko Agiriak itzultzeko Simonet jaunari eman zion hitza ez du jan, ez jateko asmorik ere gure Aranak: "Santa Susanako mojan liburuko 2<sup>o</sup> Toledoko Konziliotakua ekarri dirate". Granadara ere egiten dio eskutitza noizik behin, bai eta erantzuna hartu ere: "D. Franc<sup>o</sup> J. Simoneten karta luzea Toledoko Batzarrearen bihurtza atzera bialdurik", itzulpena itzultzaileari itzulirik, alegia. Bartzelonatik ere Franzisko Munsen probak, "Liberalkeria" liburuarenak txitean-pitean hartzen ditu multzo txikika. Behin oker igortzen dizkiote probak: "Barzelonatik proba latinak XX.-koak euskerara bialdu beharrean eta beren itzulera".

Jesuita Santuren baten egunean nekez utziko du D<sup>a</sup> Teresak goxokiak kolejiara bidaltzea; hala nola San Franzisko de Borja egunean "mojen bizkotxoia eta D<sup>a</sup> Teresaren bi botela txanpaina mahaian" eta San Alonso Rodrigenezenean "D<sup>a</sup> Teresaren botela anisekoa mahaian".

Teresa Aristegi de Gordon eta bere ahizpa Juana garai batean baino gehiago dabilta elkarrekin eta sarriago hurbiltzen batera Aranari; beste ahizpa Rosak berriz, Rafaelen eta Pedro Eduardoren ama denak, harreman gutxi du Aranarekin: "Hemen D<sup>a</sup> Juana Aristegi ta D<sup>a</sup> Teresa Gordon", "D<sup>a</sup> Teresa ta D<sup>a</sup> Juana Aristegi hemen", "Santa Teresa egunerako D<sup>a</sup> Teresaren konfesioa sakristian". Loiolako Munategi baserrian eman ditu egun batzuk eta "Dolores neska Munateikoarekin" dator handik. Dolores neskatxak Izagirre du deitura eta 15 urte ditu. Urduñara doaz biak han negua igarotzeko. Baina hilabete bat exkax irauten dute, zeren abenduaren 4an baitakusagu "D<sup>a</sup> Teresa de Aristegi Doloresekin gaixoteian iluntzean, Orduña ta Bilbotik makal etorrita". Biharamunean "D<sup>a</sup> Teresaren konfesioa kapilan da dihoa Bilbora 3,15etako trenian Doloresekin".

Novia de Salcedoren hiztegiak dabilta arras arretatuak Arana, Don Balbino, Ampuero Jose M<sup>o</sup> eta D. Jose Liñan: "Ampuero jauna Novia Salcedo gainean", "hizkera mahaian D. Balbinorekin ta D. Jose M<sup>a</sup> Ampuerorekin Novia gainean", "D. J. Liñan Novia euskaldun gainean", "D. Jose M<sup>a</sup> Ampuero hemen Deustotik etorrita Noviaren gainean", etab.

Eguraldia oraintsu arte oso ona izan dute: "Hil honen 7ko ostegunetik hasita bart arte", diosku azaroaren 25ean, "hau da 18 egun ileran, egualdi on, ederra ein du". Baina ez dira hiru egun igaro eta "euritsu ta ekaitz, txingorradak. Anboto mendietan elurra lehenbizi negu honetan". Hogeia egun geroago

zer esanik ez: "Bart eta goizean Svelerson-ek adirazi bezela ekaitza ta txingorrada, haize ta euri-bisuts jakak, turmoia egun guzian". Halaz ere Anai maisu Larrantek eta Mujikak eta Eigurenek paseoa egiten dute: Ermuraino joan-etorria 2,30etatik 6,30etara.

Osterantzean urte azkeneko kartak, diosalak, bisitak eta erregaliak noraezean. Hauek inork baino lehenago D. Carlos Oruek eta ama Leonak eta Errosario arrebak. D<sup>a</sup> Teresak "kapoi, dulce, botillak". Batak edo besteak egunero igortzen ditu bereak kolejiara; 24an "atzo ta baino gehiago askoz". Egidazurekin trukea egiten dute: "Egidazuren Gabon erregaloak ta hari kapoiak".

Urteari azkena emateko gaixotegiko gertari tristea. On Balbinok han konfesatzen du Leiza Naparroako gazte, Martin Astibia, 34 urtekoa, saldueroslea, aurreko gauan hiru tiro bere buruari egin eta hil nahi izan zuena. Ateratzen dizkiote bi bala eta biharamunean "Martin balazotua" hobetoxeago dago, baina bala bat barruan duela. Egun batzuen buruan, ordea, gaixoa-ego, eta abenduaren 23an "gaixotegian hil da Sakramentuak ondo hartuta Martin Astibia eritu Leizatarra (B.T.P.)" eta 24an "Martin Astibia zanaren lurpetzea"

### 13. DURANGON DANGA (1890)

Gertari triste horrekin bururatu bazuten Urtezaharra, izurrite txiki batekin hasi zuten Urteberria. "Danga" izenez deitzen du Aranak etxeko eta auzoko zenbait lagun jo dituen izurria. Maisuak eta ikasleak daude gaixo; mutikoetatik 21 hilaren 10ean. "Bat edo beste gehiago falta dira eskoletan danga edo trunkada elbarri minakgatik". Eta egun batzuk geroxeago Valladolidtik Aita Probintzialaren karta hartu duela eta "han ere danga asko".

Anai Mujika maisuaren eskolak eman beharrean da gure Aita Arana, hura eri dagoelako. "Hiru gaixo jaikita goizean; gero ohiratu dira Elorza ta Eiguren". A. Lasa zaharra ere ez zaio itzurtzen gaitzari: "A. Lasa gaixoago atzo baino; sendagile Elejoste hemen berakin bazkalondoan da iluntzean". Biharamunean ere bai. D. Balbinoren bi arreba ere oso gaixo daude eta handik pixkatera "D. Balbino ohian atzotik eta bere bi arreba". Okerrago dena: "D. Balbinoren arreba bati Elizakoak" 31an. A. Lasa aldiz gaur hobeto, bihar okerrago: "A. Lasa hobeto ta Meza ematen", baina bi egun geroago "A. Lasa gaixo Meza gabe".

Aita Arana bera sendo-itxurak egiten ari da, baina badakigu Meza 6etan eman zuela egun haietako batean gaixotegian, "nun nahigabez erori dan kapitan". Anai Elorzak ere makal xamar segitzen du. Aldiz otsailaren lehen astean jaikiak dira iadanik Aita Lasa eta Anai Eiguren, D. Balbino ere bai. Jaikiak eta ongi sendotuak batzuek, zeren arratsalde batean " AA. Arana ta Mujika, Anai Gogorza ta Eiguren Yurreta ta Goiuria gainetik Duña-etara" doaz. Duña-Urrestiko Arnaia edo Arnadia, erre zana ta 1880an egina berriztatzea" ikusten dute; "hango atsoa Duña-erdikoan, eta Duña-iturri ta Apukua ondolik (ura eranda), Sta. Katalina ta San Juan ermitetara" doaz "ta handik Baraikoatatik Yurreta eta Durangora 6etan".

Toledoko Batzarraren lehen probak urtarrilaren 21ean hartzen ditu Madrildik, Fortaneten moldiztegitik (Libertad, 21), eta bi egunen buruan itzultzen ditu zuzenduak, kartaz eta paper euskarazkoaz gain. Gero berriz "karta ta proba moldizkirakoak (Versión euskara) Simonet jaunari ta jaun Fortaneti Madrida". Laster hartzen ditu handik Simonet jaunaren obrako euskara proba azkenengoak eta, seinatuago dena: "etorri da Simonet jaunaren liburu haundi eder *Glosario de voces ibéricas y latinas*", bai eta "San Leandroren hitzaldiko moldizkira probak" ere. Aranak bere aldetik *San Inazioaren bizitza laburtua* igortzen dio, eta beste orrialdeak papertxo batzuekin.

Paristik, halaber, "Moniteur Bibliographique"-rako (rue Monsieur, 15) papertxo klaruen eske idatzi zion A. Burnichozek eta orduan berean igorri zizkionez gain, beste hiru papertxo egiten dizkio. Egun asko gabe erantzuten dio A. Burnichozek karta postala igorriarik. Tolosako Eusebio Lopez berriz bera dihoakio Durangora Aranari, *San Joseren zazpi igandeetako liburu euskerazkoa* A. Antiarrena eramanik.

Noviaganako grina ez zaie hoztu. Urteberria hasita gero ere: "Ampuero, Arbulo, D. Pedro, D. Balbino Novia gainean". Biharamunean berriz: "Ampuero, Arbulo ta Landazuri 3etan alkar, Novia gainean".

Garizuma gertu da eta Eliza edertu nahirik, San Franziskon pulpitu berria ipinarazten diote fraideek Arrese Beitiari. Anai Juan Elorzak astelehenan saldu omen zituen "etxeko txerri biyak; bat 15,30 arruekoa, bestea iya 12koa, eta urdai arruak 62 errialetan (1690 errial)". Eta handik hiru egunetara: "Anai Juan Elorzak erosi du gaur txerri txiki bat 8,30 duro edo hogeikotan".

Ostegun gizen (Eguben zuri) egunean egun osoan danbolina eta zezena herrian. Arratsaldean On Balbinokin Oromiño (Orobio)-ko elizatxo edo ermita San Markosa. Bidean eskola mutilak kantari:

"Eguben zuri eguna  
lendik oitura doguna  
eskol-mutilak ibiltzen dira  
batzen emoten deuskuna.

Asabien oitueria  
ez dala ondo galtzia  
orregaitik asmo artu dogu  
bedorregana etortzia".

Antzinasun arrasto bat aurkitu uste du Aranak San Markos Eliza ondo-ko edo azpiko Urrutia (Oromiñon)-n etxe zaharrenian: "Kapila izandako seinalea dago ta atalburu batean albuari urbedeinkatu ontzia zuala; diyo honela: Alavado sea el Hijo de Dios".

Inauteri asteartean ere kaleetan zezanak, "ikasleen soinulari mordoskak edo mozorroak, eta suziriak ezkontza bategatik, Sarraile Azpeitikoaren semea". Iaz bezala D<sup>a</sup> Leona Orueren urte betetzean, 77, Aita Aranak Aita Lasari laguntzen dio Oruetarren etxera, D<sup>a</sup> Leonari zorionak ematera. Han dira bere etxeokak eta Bilboko bere seme D. Juan eta Nieves, A. Vinuesa gaixoaren ama. Arratsaldean D. Balbinorekin Izurtzara doa tipi-tapa; han dira Mañuriko abadeak eta Frai Benantzio gaixoa jaikita. Tabira aldera hurbiltzen direnean, han bertan abade askotxo eta Orue hiru anaia, Carlos, Juan eta Jose M<sup>a</sup>, aurkitzen dituzte; eta gero gaixotegira iristean, ikasten dute betan hil dela Ampuero-eneko alaba txiki, bi urte eta erdikoa. Bi egun geroago dira Santa Anan M<sup>a</sup> Asuncion neska txikiaren hobi-meza eta kantak.

Gertaera mingarri hori etxekoei piska bat ez titzearren, Aranak bere paper batzuen artean aurkitu dugun olerkitxo fin-polit hau egin zien:

#### MARITXU ZERURA

- |                       |                        |
|-----------------------|------------------------|
| 1. Egarik odei zuri   | 2. "Durangon sortutako |
| Zuriyen ganetan       | Lora txit argia        |
| Uso polit eder bi     | Maritxu dozu bata      |
| Ebiltzen olgetan      | Aingeru garbia,        |
| Eguben arraztiko      | Bere onduan pozik      |
| Bost eta erdiyetan.   | Dakusun bestia,        |
| ¿Zer dira orren eder? | Ak aingeru zeruko      |
| Nagola itaunetan      | Eukan yaolia:          |
| Goitik entzun nituzun | Zeruben erdiraño       |
| Berba oneec batetan:  | Da euren egia".        |



3. Elduten diriala  
Zeru goyenera  
Milla aingeru taldak  
Eiñ deutze arrera,  
Eruanik Donzella  
Amaren aurrera  
Marichuri buruan  
Aroa ipintera,  
Aingeruchu ederrenen  
Artian jartera.

Paper muturrak oin-ohar hau du: "Fueron dedicados estos tres *Amarrecos medios* en bascuence al Sr. D. José M<sup>a</sup> de Ampuero y su Señora, D<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Milagro de Rio, con motivo de la temprana muerte de su angelical niña M<sup>a</sup> de la Asunción, que falleció al 20 de Febrero del presente año 1890..."

Iazko predikari egoki Frai Jeronimo karmelita hemen da berriz ere eta Garizumako "dotrin-hitzaldia" Andra Maria elizan egiten du 3etatik 4,30etara, eta ondoko igandeetan ere bai. Egun haietako batean ume gaixo bat bisitatzera doa Arana Iurretako baserri X-ra (ez zaio izena gogoratzen). Haur gaixoak Pilipe du izena. Berarekin eta bere ama eta arreba Maitonixorekin egon zen aldi bat berbatan eta alde egiterakoan bedeinkazioa eman omen zien. Ona Anastasia amari ez zaio gauza hoberik bururatu arkumetxo bat ematea baino San Jose egunerako. Berrizko mojek ere beste arkume bat ematen diete erregalo. Berebat Oruetarrei ez zaie itzurtzen martxoaren 25ean nork egiten dituen 78 urte, A. Lasak, eta han dute kafea, ardoa eta bizkotxo.

D. Balbinorekin Abadiñora joan zen batean "D<sup>a</sup> Juana etxian, alaba bat euzki hartzen", esaten digu Aranak martxoaren 3an. Lanak ditu sinesteak, baina zero estalkipean ez omen da gauza berririk, eta hara zer egia!

Carlos Esain aspaldiko adiskidea du Aranak, guk hemen zenbaitetan aditzera eman dugun bezala. Tarteka-marteka egiten diote karta elkarri eta bisita ere bai noizbait hark honi. Egin berria diote karta bana. Carlos nafarra da, Pitilaskoa, Iruñeko Miserikordiako eskola maisua.

Iurretako Pilipe txikia bezala Anai Elorza ere oraindik gaixo dago, danga menderatu ezinik: "Anai Juan Elorza ohian oraindik jaiki gabe", irakurtzen dugu maiatzean barrena sartu eta gero ere, eta iadanik urtarrilean hasiak ginen entzuten Eiguren eta biak ohiratuak zirela. Txerritxo pare bat saltzeko eta, hobealdi batzuk izan dituen arren, ez die etxekoei sendatuko delako esperantza handirik ematen.

#### 14. RIKARDO REINOLDS DOHATSUAREN FESTA AZKOITIAN (1890)

Ez da aspaldi esan genuela Abadiñoko sakristiako liburu batean Frai Juan Domingo Unzueta jaiotz-bataio agiria aurkitu zutela. Beste batean Tabiran gora joan ziren D. Balbino eta biak, eta Frai Zipriano 80 urtekoarekin batera aritu Frai Juan Domingo beraren berriak biltzen, bizitza idazten lehen bait lehen hasteko. Gero D. Antonio Arginzonzi joaten zaizkio Unzueta berri ematera, eta maiatzaren 9an badakigu On Pedro Alzagari ematen diotela kopiatzeko Frai Juan Domingo Unzueta bizitza.

Aldiz Aita Aranari Mendarotik D. Pedro Migel Urruzuno bera datorkio, lehen ere bizpahirutan bezala. Hura ez da musutruk etorri ohi: "eraman ditu A. Larramendiren bi liburuxo mojaenekoak". Don Balbinok berriz Bilbotik Uriarteren *Maiatzeko hila euskerazdakar*, 1885. urtekoa. Aita Peredaren karta ere hartzen du Loiolatik Aita Henaoren San Inazioanako eskuzkribu gainean, bai eta berak erantzuten, eta areago dena, hamabost egun baino lehen dauka "A. Henaoren liburua prest bihar Loiolara bialtzeko". Melchor Moraiz delako bati, Carnicería Vieja 27-n bizi omen denari, "Astete, Larramendi, Mogelen Doctrina eskuzkribua" uzten dizkio ikusteko.

On Balbinok martxoaren azken egunean bete ditu 33 urte eta egun horretan Aranak "hamarrekotxoak" kopiatu dizkio eta, gezurra badirudi ere, apirilaren 13an egin zuen On Balbinok lehen aldiz pulpitotik hitzaldia euskaraz San Franziskon. D. Jose Liñan han dela-eta, bospasei lagun bileran egiten dute harekin batera "Ampuero jaunaren burniolan, ta handik Antonio Astarbe, Unamuno, Obieta, Artealako butikazalea Mallagaraikin Kuruziagara; Isidoro Arbulo haien ondoren".

"Jesusen Zeruraltzatze jaiyan" D. Domingo Larraganek "hitzaldi euskerazko polita Andra Marian, Meza nausiyan" egiten du. Egun horretantxe arratsaldean hiru lagunekin "S. Roke ta S. Andres ondotik goora, Mañariko balkoitik goora, Arranoa-haitz ondotik, Mugerra landatik puntara. Handik Mundaka garaiko ta Bilbo aldeko ikuskera ederrak". Hara zer atsekabe iristean!: "betaurre txikien galtzea ia etxera aldean".

Are ibilaldi ederragoa handik zortzi egunera. Hau bi lagunek bakarrik egiten dute: Aita Aranak eta Anai Mujikak. "Jondone-mendiko tontor biribilkoira" abiatzen dira. "Murueta harzubitik eta basarri Elorrio, Gazteluzar, San Mamestik gora; Barrainkua, San Juan, S<sup>a</sup> Katalinatik gora. Mendi bi iraulita, iturri, txabola puskatu ta harrobi ondotik Jondone-mendiko gailurrera; handik ikuskai ederrak, San Kristobal ertzetik Bermeo-Mundaka itsaso aldera,

Portugaleteko itsas-adar urrun ontziz betea, itsasalde ta sart-eguart-sortaldeko mendi inguru guzietara. 6,30etan mendiz bera Duñetatik ta Yurretatik etxeraturik 8ak jota". On Balbino ez joateak ez gaitu harritu behar; bezperan izan baitzen "baba-merendatzen lagunakin Burniolan".

Egun gutxiren buruan da Aita Aranaren jaioteguna eta hiru egun lehena-go Lagundiko Dohatsu Andres Bobolaren festa. Ez zaizkio bata ez bestea itzuriko D<sup>a</sup> Teresari. Bigarren horretan aniseta-boteila eta bizkotxoak, eta eguerdian mahaiarako kopa eta pastel goxoak igortzen ditu Komunitade guztiarentzat. Lehenean, apirilaren 26an, Aranak 52 urte betetzeaz gain, Pentekoste astelehena suertatu zenez gero, egun horretan San Inazio Iruñean zauritu zen eguna ospatu ohi zen etxe guztietan eta bi boteila xanpaina eta eskutitzean neurtitzak igortzen dizkio Aranari. D. Balbinok neurtitzak egin eta D. Carlosek eta D. Jose M<sup>a</sup> Oruek aurrez-aurre eman zizkioten zorionak.

Baina kolejioko bizimodua aurrera doa betiko martxan eta Aranaren lantxoak ere bai. Samuel -hala dio, "Daniel" ordez?- Baertelek "atzera bialdu dizkigu Urruzuno jaunak ekarriazi zituen liburutxoetatik (*Bai, pekatu da liberalkeria*) 156". Aranak egun berean eskutitza egiten dio Pedro Miguel Urruzunori Mendarora.

Lehen ere izan zuen horrelako asmoa: "D<sup>a</sup> Teresaren zerratzia" aipatzen digu berriz Aranak. Bere bi neskatxak Loiolako Munategira bialtzen ditu eta bi egunen buruan Durangon aurkezten da bere lagun Angela-enean, biak Sor Ignaziarekin joateko. Ez dator ordea esku hutsik: "ekarri du manteo berri bat AA.-ntzat eta etxe hontarako emaitza 1000 errial. Juan da triste ta nahigabez 7,45eko trenian". Ez da harritzeko, ezin baita bizi ezein neskatxarekin. Bost egun geroago diosku Aranak D<sup>a</sup> Teresa gaixotegian izan zela "bere neska berri Ramonakin". Halaber ez da harritzeko Loiolako Munategiko andre Juana Izagirre eta Odriozolak karta bat egitea Aita Aranari bere bi alaba eta D<sup>a</sup> Teresaren gainean; eta, jakina, Aranak D<sup>a</sup> Teresari igorri zion. Beste batean "bere Salvadora xaharrarekin" azaltzen da gaixotegian. D<sup>a</sup> Dolores Eizmendi, "D<sup>a</sup> Teresaren laguna" Aranak deitzen duenarekin ere, askotxo dabil azkenaldi honetan. Halaz ere egun asko baino lehen irakurtzen dugu: "Dolores Eizmendi, etzi D<sup>a</sup> Teresagandik aldeiteko asmoakin". Ez bide du, ordea, alde egiten, zeren maiatzaren azken egunean D<sup>a</sup> Teresa eta Dolores Eizmendi D.Carlos Oruekin S. Franziskon zirela esaten baitzaigu. Areago maiatzaren hasieran "D<sup>o</sup> M<sup>a</sup> Teresaren etxe berria konpiteri gainean; han bizi dira bere Dolores Eizmendi eta Plazida atzotik". Plazida, neskame berria, Plazentziakoa da, Dolores bezala, eta honek idazten du "karta Plasentziara ostiraleko nere joate gainean". Badakite han izango dutela Aita Arana Loiolara bidean.

Ia ahaztuak geunden Azkoitiako Santa Kruzko Sor Saturnina S<sup>a</sup> Gertrudisen pertsonaz, Ama Andre nagusiaz, Aranak Loiolan bizi zenean hainbeste bisita egiten zionaz. Rikardo Reynolds dohatsuaren jaia gertu dela-eta, Azkoitian egin nahi dioten jaialdirako Aita Aranaren bertsoak nahi dituzte. Honek "karta ta berso ta papera B<sup>o</sup> Rikardoren onran S<sup>a</sup> Kruzerako" igortzen ditu. Baina zeren ekainaren 17an baita Dohatsu Rikardoren eguna eta orduko Arana bera Loiolan izango baita egun batzuk pasa joana, utz dezagun bera mintzatzen egun hartako jaiaz:

"S<sup>a</sup> Kruzen Elizpestarik haundienetakoak goiz da atsalde Dohatsu Errikardo Erreindsgatik. Eliz bete-betea; jende haundizki ta apaizak, goizean A. Pajaresen 50 minutuko hitzaldi gaztelaniazko ederrarekin; eta Meza Nausian On Joakin Zuazolak kantaririk, orkesta ta soinuketa egokienak, On Inazio Aldalurek Azkoitiarrakin zuzendurik. Atsaldean 5etan S<sup>a</sup> Kruzko Elizpestan goizean baino bi edo hiru aldiz jende gehiago, zelairaino. A. Aizkorberen hitzaldi euskerazkoa 50 minutu,"Te Deum" da Bedeinkazio Jaunaren aurrean. B<sup>o</sup> Errikardoren kantaera On Inazio Aldalurek antolatua. Gabeko Mojateiko argiortzitzea". Ez zaio azken ñabardura ere itzurtzen: "Goizean 9,15etan 10ak arte euzkiaren laurdenaren argigetza, ikus zeikeana".

#### 15. LOIOLA-DURANGO-ZUMAIA-LOIOLA-DURANGO (1890)

Anai Elorzaren osasunak kezkatzen ditu etxeko lagunak gero eta gehiago. Ekainaren 2an honela dio Aranak: "An. laguntzaile Juan Elorza jua dan asteen berriro gaixoagotu, ta ohira zanetik egunetik egunera makalago ta indargetuago dago". "An. Juan Elorza gaur larriago ta gaixoago; txintxarri alanbria jarri diote hotseiteko", diosku biharamunean, eta gabeko hamarretan Elizakoak eman dizkiotela, 8 lagun aurrean zirela, baina gaba-goizaldera hobetoxeago dagoela. Zortzi egun geroago "oso gaizki", baina "eramankizun haundiz" aurkitzen du Aranak, eta "bart berekin bi aldiz" egon zela esaten digu. Beste gau batean Anai Gogorza egon zela 12ak arte eta gero Arana 5,15ak arte: "beherakuakin indargetua Juan gaixua", esaten digu.

Hitz horiek dira Loiolara abiatu baino lehen Anai Elorzaz esaten dizkigun azkenak. Biharamunean, ekainaren 13an, "nere irteera Loiolarako 8,45etako trenian; han D<sup>a</sup> Dolores Eizmendi Ibarra; biletea Plazentziaraino 7,50 erreal". Jesusen Bihotzaren jaieguna da eta parroko Meza Nagusira doa D. Martin Luis Arangurenekin. Ia orduerdiko euskarazko hitzaldia entzun ondoren, D. Martin Luisekin eta D. Bernardo Zubizarretarekin bazkaltzen du

Maiztegin, etxeko Mikela eta Kontxa ahizpekin. Loiolara 7etan, hogeiegun igarotzeko; ez du esaten zertan.

Loiolan aldiz Jesusen Bihotzaren jaia bi egun geroagoko igandean ospatu ohi da, herriko jende xeheak, astegunean lanagatik ezin joan eta, beste aukera izan dezan. Beraz Aranak bi bider ospatu zuen jai hori. Goizeko hitzaldia gatzeleraz izan zen eta arratsaldekoa euskaraz, A. Legarrak egin "Eliz betearekin jendetzaz". Han ikusi zituen bere ahaide eta adiskide Juana Acha koinata, bere ume Errafaelekin, M<sup>a</sup> Azpiazu, Juana Eizagirre, Josepa Gogorza, Mikela Bereziartua, etab. Loiolara etorri eta astebetera jakiten du 19an, "atzo Durangon Juan Elorza, Anai laguntzailea hil danaren hilberria gaixoteian". Egun berean iritsi zen, Ameriketako Perun osasuna galduta Loiolan sendatzen, A. Pedro Osoro.

Jesuita gazte, junior direlakoek eta nobizioek, eskolak dituzte oraindik, ia San Inazio bezpera arte. Beste irakasle gehiagoren artean lau apaiz egin gabeak dira, Filosofia bukatu eta Teologia hasi baino lehen, beste edozein kolejiotan irakaskuntzan hiru urte eman beharreen, jesuita gazteei irakasten aritzen direnak; berak ere lauzpabost urte lehenago, latina eta gerquera ikasten nabarmendu zirenak. Larunbata arratsalde batean A. Astrain, Lagundiaren historiari famatuak, berekin hartzen ditu lau gazteak eta kotxean Oikina eta Zarautza daramatza kanpo egun ordez.

Aranak Loiolan ez dirudi zeregin handirik duenik eta ez zaio nabaritzen zertara joana den. D<sup>a</sup> Teresa eta D<sup>a</sup> Dolores Eizmendi Durangon daude eta handik idazten diote Loiolara. Lehenak Madrilerako joan beharra du bere ume Gregoriarekin eta Loiolan gau bat pasa ondoren, Aita Aranarekin elizan meza entzun eta konfesatu, hiztegian bere kontsultak egin eta "eguerdian Gregorikin kotxian Zumarraga ta Madrilerako". A. Arana Azkoitiko hilerria eta Baroiko baratzara doa arratsalde batean. Loiolan apaiz eta Anai laguntzaile, junior eta nobizio, samalda handia bizi zirela aditzera emateko, esaten digu San Pedro egunean 80 gaztek berritu edo berregin zituztela lehendik eginiko botoak; kontatu gabe, noski, azkenak eginak zituztelako, gehiago berritzen ez zituzten apaizak eta Anai laguntzaileak. Bai eta hilaren azken egunean Areiltza jauna han izan zela Donostiatik joanda bere bi iloba mutiltxorekin.

Agerre haundi eta Egibar baserriak bisitatu, hartuberrira duen Pedro Migel Urruzunoren eskutitza irakurri, Burnichoiz jaunari Parisa idatzi eta "prestaerak bihar Durangoratzeko" egiten ditu, "Anuarios Opúsculos" Anai Ramosi kopiatzeko utzirik. Etxe Santuko obrei azken begiratu bat eman gabe ezinalde egin eta "sukalde anzinakoaren subaje kedarrak, giltzak ta kainoi edo txapintaki zuloak" ikusi dituela esaten digu.

Abuztuaren 5ean ateratzen da Loiolatik 7etako kotxian Elgoibarreraino (12 errial): "etxera 10,45etan". Ohi bezala, etxeko diruzainari egin gastuen kontu ematen dio: "Loiolarako eramandako 80 errialdik 34 ta 10 ehunkiren atzera ematea". Batere luzatu gabe biharamunean berean hasten du On Balbinorekin betiko bizimodua: gaixotegira eta Tabirara edo Abadiñora edo beste herrixkaren batera. Ez du ordea egun handietan funtsezko gauzarik kontatzen: Madrildik D<sup>a</sup> Teresaren mezua hartu duela "bere iloba ia erdi hilaren gain" eta gero Loiolatik jiran heldu zaiola D<sup>a</sup> Teresak Madrildik igorritako "telegrama edo urrutizkira"; Deustuko irakasleak, hau, hura eta bestea, handik Elorriora eta Elorriotik Deustura dabiltzala, han bainuak hartuz; "atzo ta gaur Durango inguruko soluetan gari ebagitzen hasi" direla eta mahatsaren aleak ari direla loditzen. Badu haatik izkutatu nahi duen zerbait, aspaldian ez bezala zenbait hitzen silabak trukaturik ematen diguna: "amor-molio-chato-biribill-jiuts".

Don Resurreccion M<sup>a</sup> de Azkueren bisita hartzen du bere eskuzkribuak berekin dituela uztailaren 13an: "apaiz euskal irakaslea" deitzen du berriz ere. Gero gaixotegira doa harekin eta beste apaiz askorekin, eta guztiek laguntzen diote "burnibideko egondeira" 7,30etan. "Azkue jaunak ekarri du eramana zuben *Euskerazko Neurtzitatea*. Hurrengo egunean egondeira berriz Udalarekin, apaizekin eta jende askorekin, Gasteizko Apezpiku Pierola jaunari ongi-etorria ematera. Egun haietako batean On Balbino Zaldibarren izan omen zen eta "han On Juan Cruz Astarloakin A. Unzueta ta Mogelen hitzaldiak ikusten" aritu.

Uztailaren 20an ez zaie ahazten, eta A. Lasari batik bat ez zaio ahazten, nola hura bezalako egun batean berrogeita hamar urte lehenago Santa Susanako elizan egin zuen arratsaldean, Durangon inoiz egin zuen euskarazko lehen hitzaldia. Egun gutxiren buruan "A. Lasa makal eguerdian", baina behin-behineko makalaldia izan zen. Santiago egunean "goizeko 8etan danbolinak Santiago soinuba jorik ta suziri asko botarik Aiuntamentuak. Prozesioa kalerik-kale". Arratsaldean berriz Orozketara S<sup>a</sup> Polonia harrobitik gora Anai Eigurenekin. Han Santiagori bere Elizako festegun urterokoa". Hilabetea juxtu Madrilen igaro eta, berriz da "D<sup>a</sup> Teresa Aristegi hemen Madrildik eguerdian etorrira; gero gaixoteian". Bi egun geroago, San Inazio egunean, igerrri zioten kolejioko bazkaltiarrek haren etorrerari: "Vinuesa ta D<sup>a</sup> Teresaren erregaloak mahairako". Loiolan bilduek ere bai, ospatzen ari ziren egunari.

Abuztuko lehen hamabostaldia Durangon ematen du A. Aranak, betortzeko min handiarekin, bizpahirutan dioskunez. Azkeneko aldiz, asko ez dela aipatu dugu, Iruñeko Miserikordiako maisu Carlos Esein Pitilaskoaren bisita hartzen du eta, hori dela bide, ikasten dugu orain, lehen Aranak esan gabe utzi

ziguna: bere lagunari apirilean egin zion eskutitz luzean integristen eta leialisten gainean aritu zitzaioela. Gai horren berri gehiago jakitera-edo etorri bide zaio orain Durangora.

Aita Vinuesa jesuitaren arreba Nieves alargunak han igaro ditu egun batzuk eta berriro Donostiara itzultzean, "ematen dizkiogu Don Balbinok eta nik Arzaki paper batzuek bihar Donostiara eramateko. Han dihoaz *Fr. D. A. Unzueta*ren bizitza, "B<sup>o</sup> Rikardoren neurtitzak" eta "Euskalerra" pagamena urte erdi". Lasaitua hartu zuen A. Aranak "On Manuel hortz-ateratzaileak 10 errialian" betortza atera zionean: "bart hobeto hagineko min gabe".

Aurten ez da Betelurik Aita Aranarentzat, baina hango berri badaki; esate baterako, han egunak pasatzen zegoen Domingo Larragan jaun parrokoaren berri txarrak. Izan ere, D<sup>a</sup> Teresa Aristegi, Adela Vallejo eta alaba Emilia, Don Emilio Canovas del Castillo eta bere emazte-alabak, Betelun izanak, Durangon dira eta hauek jartzen dute hango kontuen jakinaren gainean. D<sup>a</sup> Adela Vallejo eta alaba Emilia arratsalde hartantxe Debara doaz. Haiek joan orduko, bisitari berriak ditu: Antonio Arginzoniz eta Fidel Sagarminaga. Horiekin eta On Balbinorekin Tabirara doa.

Biharamunean, hilaren 13an, hainbeste bisitarigandik ihes egitearren-edo, "kanpo eguna" eginez Mañaritik eta Iñuezuguna menditik Balzolako haizpe, zulo eta kobetara doa Mujika, Larrarte eta Gogorzarekin. Beste ezer baino lehen, 10,45etan, bazkari prestatzea "leku haundi eder bat einda Aizpedi sarrera zabalean bertan" eta baserriko mutiko Ziriakok metal-iturritik ura ekarrita. "2,30etatik 4,30etara leizezulo galeri asko ta asko ikusten, laurok kandela batekin ta mutiltxoarekin. 4,30etan Balzolan gora Iñuezugunetik etxerako; 8etarako etxean".

Biharamunean, Ama Birjinaren Zeruratze bezperan, "gaixoteian Betelutik etorrira bi ahizpa: D. Domingo Larragan Arzipretea han gaur goizeko ordubatean hil dala ondo". Osteguna zen eta ostiralean, 15ean, AA. Agirrek eta Aranak mezua hartzen dute Loiolara joateko igandean, bi egunen buruan. Jasokunde egunean Andra Mariako Meza nagusian, "Elizpesta nausi urterokoan", Unzilla durangoar San Agustindarrak egin zuen hitzaldi gaztelaniazkoa.

D. Domingo Larraganen gorpua gaixoteian ipini zuten 16an eta han koroia egin zioten Ahizpa Karidadekoek."Zazpitan Kurutziagan Elorrio bidian jende asko. Apaiz da Aiuntamentukoekin Domingo Larragan Arzipretea zanaren gorputza kotxetik jexita, prozesioan bere etxeraino eramanez; gero berri Eliz-ataira ta hilerri santu kanposantura Elizkarta doneaz".

Igandean Aita Aranak goizeko 5etan Santa Mariako parrokan jende askorekin eman zuen Meza, eta gero, Don Damaso erdian eta D. Liborio eta

D. Balbino alde banatan zituela, izan zen ordu eta erdiko Meza nagusia. AA. Agirre eta Arana egon ziren apaizen ondoan. Hura bukatzean, bazkari arin bat eginez, trenera Loiolarako. Plazentzian D<sup>a</sup> Dolores Eizmendi, Zumarragan D. Gabriel Leturia, Inozentzia Mendiaren senarra –horra nola ziren tartekoak Leturiatarrak eta Mendiatarrek– eta Urizar jauna agurtu zituzten. Agurtu eta "hoekin Aita biok zerbeza" edan. Loiolara 6etan.

Hilabete eta erdi da Loiolatik atera zela eta berriz ere Loiolara. Ez gainera bere gogoz, baizik Buruak A. Agirrerekin batera joateko esanez. Zertako ote? Hogeita lau ordu baino lehen, hartu Amenabar ostatu parean kotxea eta 3,45etan Zumaian. Izan dituzte lagunak bidaian: Fr. Daniel Baertel eta Aiako Erretore Barrena. Zumaiaiko ostatua ez da nolana hiko: "hemeretzi lagun nerekin" eta hemeretzien izenak ematen dizkigu. Ondoko egunetan batzuk joan eta besteak etorri dabilta txandaka.

Biharamunean 8etako Meza ematen du moja karmeldarren kolejoan eta hamarrak eta laurdenean lehen bainua hartzen, Zumaian emango dituen ondoko hamar egunetako hamarretan lehena. Etxerakoan han topatzen ditu On Domingo Agirre kapilaua, "euskerazalea", eta Karmelo Etxegarai. Hauek jesuiten beheko pisuan bizi dira, izan ere, Vitoriarenean; bai eta D. Kandido Zigorraga alarguna ere eta honen alaba Soledad. Behin gorakoan Karmelo Etxegarai bere pisuan Aita Larramendiren "Eskuzkribua" irakurtzen ari dela ikusten du Aranak. Beste egun batean Urruzunoren "liburu txiki *Iñauteetako*" hartzen du, bai eta Balentin Foronda, "akademiko edo ikasol-dar Madrilgoa" bidean topatzen eta Aita Fita akademikoaz mintzatzen.

Jende ezagun asko aurkitzen du hondartzan, Zuazola, Jauregi, Segura eta Elizgaraitarrak, eta "kanpotarren kotxe askotxo herrian" dagoela diosku. Arratsaldeetan egiten dute ibilalditxoren bat txalupan: itsasoan barrena eta Oikinara, esate baterako. Egun batean Txomin Agirre, apaiza, doa haraxe kolejioko moja eta neska ikasle batzuekin. Bai eta jesuita moltzo bat, 11 edo, On Manuel Beobide parrokoarekin; eta beste 8 jesuita "itsasgizonekin haren lantxan 3etan Debara itsasoz, iritsirik hara ni ta beste bat mariatuta 4,30etan. Handik 5,30etan itsasoz besteak eta A. Iglesias ta A. Arana oinez San Roken gora Iziarpetik Zumaiara, Aranberri basarri-tabernan ur-ardoa hartuta".

Beste batean Artadiko San Migelera edota Getarian barrena Zarautza. Getarian Martin de Larrazak eliza eta Elkanoren tailu-iduria erakutsi eta gero, bere Elkano ostatura eraman eta zerbeza eskaini zien. Zarautzen Aizpurua erretoreaz gain, jende ezagun asko, jakina, han eman zituen urteetan ezagutua, eta ahal zituenak agurtu zituen: Iburuzketa, Amilibia, Alzuru, Legarratarrak eta beste asko.



San Bartolome eguna igandean gertatu zen eta parrokian, hamarretako Meza nagusian, hitzaldi-doanditzak A. Aranak egin zituen. Gero egun gutxi-  
ren buruan hamar opor-egunak bukatutzat eman eta, Loiolara itzultzen da  
Migel Arozenaren kotxian.

Etorri orduko, lehen egunean "bisitalari askotxo hemen", eta herrestan  
hamabi lagun enizenak ematen ditu. Gau berean 117 lagunek hasten dituzte  
gogojardunak A. Garatek emanik "kapila haundi barrukoan". Haietako bat  
Arana da. Zortzi egun horietan ez digu gauza berezirik kontatzen, bidezko  
denez, bi izan ezik. Bat, hirugarren egunean bere espirituari dagokiona: "atzo  
ta gaur zenbait legortasun izpirituko ta tentaldi, baina gutxi" izan zituela.  
Bestea, etxeko obra txiki batena: "etxe zaharrak botata, gaur garbitoki denbo-  
razko teilaz estali da oso, eta berotzako garbitei teilatupe berrituan, garbiketa  
ta lisiba jotzen Agustinararen emakume langileak; behean zintzili". Eta hilabete  
bat lehenago ostatu handia eta ondoko kotxetegi eta garbitegi-etxe berria nork  
egin zituen agertzen digu: On Felix Barrenak.

Gogojardunak amaitu eta lau egun bakarrik gelditzen da Loiolan.  
Bisitariak ditu berriz eta ia guztiak emakumeak, ohi bezala. D<sup>a</sup> Teresa ezin  
falta: "jende asko hartutegi edo hiztokiyan. Kanpoan D<sup>a</sup> Teresaren ahizpa D<sup>a</sup>  
Rosa ta honen bi semeak Munategin esne hartzen". Biharamunean orobat:  
"hemen D<sup>a</sup> Teresa ta D<sup>a</sup> Rosa Aristegi, ta honen bi seme Rafael ta Pedro  
Eduardo etxe ikusten nerekin". Carlos Spinola dohatsu Lagundikoaren egu-  
nean, irailaren 11an, "nere erreguz kopa Aita ta irakasle edo maisubak, D<sup>a</sup>  
Rosa ta D<sup>a</sup> Teresa Aristegi ahizpen mandatuba". Eta kopa ordaintzeko dirua,  
noski, aipatzen ez badu ere.

Egun batzuk lehenago, abuztuaren 20an, egina zuten Spinola dohatsuaren  
eta Japongo gainerako martirien omenez Akademia bat. Han irakurri zuten  
hiru jesuita gaztek Aita Aranak eginiko "Euskal oda", honela hasten zena:

Luis: Ay Tomas, ez daquizu  
Gaur pasatu dana.  
Igez eguinda nator  
Corrica zugana.

Tomas: Cer dezu, Luis maitea?  
Atoz neregana.

Baroikora ere egiten du agertu bat eta biharamunean abiada Durangora-  
ko. Heldu eta, lehenengo lana "sobraten dan dirua Aita Nausi edo Olanori, 5  
erreal".

## VIII. ATALA ARANA KASTIGATUA (1891-1896)

### 1. MOJEN INSTITUZIOA BERRIZ? (1890)

Urduñan eman zituen urteetan ikusi genuen Aita Aranak halako bat sortu nahi izan zuela, bai eta "Bases y reglamento de la PIA UNION de Enfermeras de Pobres" antolatu ere, D<sup>a</sup> Casimira Herran zeritzan emakume bat kudeatzaile-edo zela. Gasteizko Apezpikuaren oniritzia beretzen ere saiatu zen, baina Lagundiko Nagusiek halako egitasmoak ez zitzaketen ikus begi onez eta, haien berri jakin bezain laster, ziztada batean dena bertan behera utzarazi eta Urduñatik aterarazi zuten.

Durangora iritsiz geroztik emakumeen bisitak hartzen eta konfesioak entzuten noiznahi ikusi izan dugu Aita Arana. Gaixotegia zen batez ere haiekin topo egiteko lekurik maizkoena. Etxeko atarian ere bai, eta baterako nahiz besterako, norbait Durangon zela adierazteko esaerarik usuena zen "Hemen halako eta halako". Bazituen lika baino itsaskorragoak, Poyannetik bertatik hasita. Ez gara hasiko hemen ordukoen izenak gogoratzen; aski dugu Durangoko itsatsienek biltzea, aurreko orrialdeetan atera zaizkigunak, eta ez guztiak.

Guztien gaindik askozaz D<sup>a</sup> Teresa da, inoiz Gordon abizena alboan duela aipatzen badu ere, egiatan Aristegi deitura duena, Gordon jaunaren alarguna, Juana eta Rosa ahizpak dituen. D<sup>a</sup> Teresa ez da Aita Aranaren adiskidea bakarrik, jesuita guziena dela esatera nindoan, edo askorena bederen; Durangon bizi direnena bai behintzat, eta are Jesusen Lagundiarena ere bai, osoa asko maitatzen eta estimatzen zuelako. Ez zaio itzurtzen jesuita santu edo dohatsu baten eguna, kolejiara opari edo erregaliren bat igorri gabe.

Elizarako ere jazkiak berritzeko edo mezak ateratzeko maiz samar ematen zion Aranari dirua. Oso emakume erlijiosoa da, ez da dudarik, garai hartan askok, eta emakumeek batik bat, erlijioa aditu edo bizi ohi zuten zentzuan, noski. Horrez gain oso aberatsa zen eta ikasia, letraduna. Euskal bertsoak maite zituen eta are egiten, bai eta egunkari edo aldizkariren batean artikulua idazten ere. Arana joaten zen ia toki guztietara segitzen zion eta ezin segi zie-zaiokeenean, eskutitzak parrastan egiten zizkion, bai eta Aranak hari ere. Ingelesa bazekien, zenbatetaraino ezin esan, baina moldatzen zela bai.

Beste izenen aipatze soila aski dateke: D<sup>a</sup> Vitoria Obieta, D<sup>a</sup> Dolores Eizmendi, D<sup>a</sup> Polonia, Agirrebengoa jaunaren emaztea, D<sup>a</sup> Guadalupe Urkizu, Modesta Alkorta, M<sup>a</sup> Kruz Goenaga, Dolores Ibarra, Agustina Kami-ruaga, M<sup>a</sup> Eskuza, Juana Juaristi, Carmen Abreu, Josepa Gogorza, naparra omen dena. Loiola inguruan ere baditu, hara joaten den oro, agertzen zaizkionak hitz egitera edo konfesatzera: M<sup>a</sup> Azpiazu, Juana Eizagirre, Mikaela eta Joakina Bereziartua. Hauek, esan bezala, Durangoratu gerozkoak dira, azken ordukoak.

Gaixotegian Sor Mariana eta Sor Ana Gorosabel ditu lagun ezin huts egi-nezkoak. Lehena batez ere ia haratzen den bakoitzean aipatzen du, harekin egon dela esateko. Nork pentsa ordea horrenbestez gure aita Aranak Instituto edo Kongregazio berri bat darabilela buruan, eta emakume horiek edo horie-tako batzuek izan daitezkeela mojavai! Ekainaren 6an ezartzen duen perpaus batek zerbaiten susmoa pizten digu, batez ere geroko gauzak jakinda. Honela dio: "Breve Instrucción de Postulantas Marianas". Aurrerago beste hitz labur hauek ere bai: "Ramona Mojas Marianagaia hemen".

Beste argibiderik ez bagenu, ezin atera hortik ezer; nik ere ez nuen atera, harik eta, duela urte mordoa Loiolako artxiboan kopiatu nituen eskutitz ba-tzuk, orain berriz irakurri ditudan arte eta garbi ikusi Arana lehengo hisian gogor dagoela. Zenbaiten zati batzuk hautatuko ditut, arazoaren garrantziaz oharraraziko gaituztenak.

Aita Sorondo, zeukan kargutik gauza bitxi asko ikusi eta ikasia zenez gero, ez zen arrazoiaren ertzik gabe 1890. ekaineko eskutitz batean Aranari honela idatzi zionean: "Supongo que no vendrá con V.R. esa aspirante a fun-dadora que tanto le molesta y que tanto da que hablar. Mire, aita Arana, si quiere no salir con la cabeza rota, no se meta a dirigir beatas".

Aita Luis Martinek, lehenik Aranaren Probintzial eta gero Erroman Jeneral izan zenak, Erromara baino lehen hau idazten dio 1890ko ekainaren 10ean:

"En cuanto a lo que me dice V.R. que está casi sin licencias por calumnias que le han levantado, yo, Padre mio, no tengo inconveniente en que confiese

a esos jóvenes y, de cuando en cuando, a algunas personas que se acerquen a V. R. Pero es cierto que no conviene que V. R. tenga confesadas habituales y que sea muy cauto en el hablar con mujeres, porque le han acusado gravemente... Ya recordará V.R. que hace tres años le hablé a V.R. de esto; pues han vuelto a hablarme de ello..."

Beraz urrun samarretik zetorren maiseaketa. Bi egun geroago Durangon hartu zuen eskutitz hori Aranak eta EGUNARIAn hauxe dio: "Aita Probintzial Luis Martinen karta Valladolidtik 10kua". Hor, egia, ez da oraindik ezertarako aipatzen Instituto edo Kongregazio berriren konturik. Hamar hilabete geroagoko beste bat ere, urriaren 22koa, badaukagu, gogorragoa, eta hemen bai aipatzen da. Honela dio zati batzuk harturik:

"...me hallo con nuevas quejas relativamente a la conducta de V.R. con D<sup>a</sup> Teresa en el negocio de la fundación que trae entre manos. Me consta que se murmura mucho de V. R. no sólo ahí, sino fuera de ahí con ocasión de ésa, y como yo he dicho ya varias veces a V. R. que se aleje de ese negocio y le he indicado que ni en confesión convenía oír a esa señora, por razones particulares que atañían a V.R., me extraña sobremanera que ese trato y comunicación no se corte por completo. Hágalo V.R. en el acto al recibir esta carta y dígale a esa señora que no le hable ni consulte, pues creen los Superiores que así conviene.

Mire, Padre mio, que ya antes, por el trato con otra persona así, se vió envuelto en un negocio malo, y traído y llevado con cosas muy graves, que a mí me dieron muy malos ratos. Tanto más que en ese negocio de que ahora se trata ni el P. Asistente ni yo hemos querido nunca entrar y así se ha dicho claramente a esa buena señora. Déjelo, pues, todo y no haga nada en esta materia. Si para eso cree V.R. conveniente o necesario cambiar de casa alejándose de ahí, yo estoy dispuesto a todo, hasta a traerle a vivir aquí, pues por todo pasará a trueque de evitarle lo que puede serle ocasión de gravísimos disgustos que le hagan daño al cuerpo y al alma".

Eskutitz honen hartzea Aranak 24an eman zuen aditzera EGUNARIAn honako hitz hauekin: "Aita Probintzial Martin-en eskutitza: D<sup>a</sup> Teresa ta Marianarren Bilera kontu dana lagatzeko". Ezin izkuta zekiokela pentsatu eta, D<sup>a</sup> Teresari agudo asko eman zion irakurtzeko: "Urriak 26. D<sup>a</sup> Teresa de Aristegi, Vda. de Gordon-i, erakustea eta aita Probintzialaren aginduen berri ta agurketa samingarria atsaldean". Biek, D<sup>a</sup> Teresak eta Aita Aranak, erantzun zioten dirudienez Aita Probintzialari nork bere aldetik, zeren Aita Martin Probintzialaren hurrengo eskutitza Aita Aranari egina abenduaren 7koa da eta honela dio:

"...puedo contestar brevemente a su larga carta. 1º El no convenir que V.R. confiese a esa buena señora no es porque los Padres no puedan hacerlo por Instituto y ayudar a fundar Congregaciones, sino por cerrar la puerta a quejas y murmuraciones graves, que con motivo de otra persona hubo ya antes con V.R., y habían comenzado de nuevo ahora con motivo de ésta. Con esta sola consideración caen por tierra la mitad de los hechos citados por esa buena señora... 2º es lo cierto que en el Instituto está expresa y frecuentemente prohibido confesar habitualmente a toda Congregación de mujeres y así nunca podemos oír las confesiones "ordinarias" de esa Congregación. 3º Supuesto que ella ha desistido de dirigirse por V.R. y aun salido de ahí, según oigo, no veo ya necesidad del cambio de V.R. y así podrá seguir ahí..."

Hori Aranari, baina D<sup>a</sup> Teresari ere kartatxoa egin ziola badakigu, Aranak berak hitz hauekin kontatuta bere EGUNARIAN: "En carta del Rdo. P. Luis Martín del 28 de Diciembre de 1890 se escribe a D<sup>a</sup> Teresa de Aristegui lo que sigue".

Garrantzizko gauzarik ez dio, baina hau bai:

"... y amando como ama Vd. a la Compañía, no dudo que ha de secundar, como lo ha hecho, las determinaciones de la santa obediencia".

Astebete igarotzen utzirik, D<sup>a</sup> Teresak Aita Aranari aski luzaz idatzi zion bere erreparoa ipiniaz eta iruzkinak eginaz, ez hainbeste Aita Jeneralak berari egiten zion gutunari, zuri eta leunari, baizik Aita Aranari egiten zionari, gordin eta latzari, eta honek, esan bezala, D<sup>a</sup> Teresari igorriari. Aita Jeneralak bai baitzekien nori zer esan. Luzea da eta mementuan D<sup>a</sup> Teresarenaren zati hauek bakarrik axola zaizkigu:

"... y me ha parecido (la verdad!) llena de contradicciones...; yo me estaré aquí por ahora y luego iré siempre donde Vd. no esté, pero cerca, para poderle hablar a menudo cuanto sea posible, y las más de las cosas las trataremos por escrito, pero hágame Vd. el favor de escribir sin olvidar que me he quedado ciega, es decir, letra grande... Secretos importantes me detienen en el negocio de los PP. franceses, de los cuales hablaremos a nuestra vista. Muy mal estoy sin confesarme ni comulgar. Es imposible que esta vez yo me confiese con otro, pues no conviene de ningún modo ni para mí ni para la obra de las Marianas"... "En su próxima carta de V. designe V. el Director de las Marianas"... "Y quede convenido que V. siga siendo mi director y mi confesor y sigue ayudándome a mí a fundar las Marianas"... "Leida otra vez la carta del Provincial no veo tampoco inconveniente en que V. siga siendo Director de la Congregación de Marianas... La fórmula de los votos de las Marianas también la modificaremos poniendo una exactamente igual a la de la Compañía de Jesús... En su próxima carta de V. designe V. el Director de las Maria-

nas... Y quede convenido que V. sigue siendo mi Director y mi confesor, y sigue ayudándome a mí a fundar las Marianas, pues según la última carta del Provincial se puede, con tal que cerremos la puerta a quejas y murmuraciones, y cuidemos de eso".

Orain badakigu besteak beste Kongregazio berri delako honek zer izen duen, eta D<sup>a</sup> Teresa ere hobeki ezagutzen dugu: berari komeni zaion eran aditzen du dena. "Marianas" izenaren etorkia, dirudienez, Beata Mariana de Jesusen gandik dute. Bi egunen buruan berri hauxe ematen digu Aranak: "D<sup>a</sup> Teresa Aristegi ohian triste, minkortua", baina horrek ez dio eragozten San Alonso Rodriguez Lagundikoaren egunean, urriaren 31an, bi kandela igortzea Santuari ipintzeko, ez eta Santu Guztien egunean, azaroaren 1ean, 28 errialeko botila Komunitadeari. Gertatuak gertaturik, Aita Probintzialari erantzun eta Durangotik alde egiteko gogoak eman zion D<sup>a</sup> Teresari, baina urrutira: Madrid, Malaga edo Paurara. Maria Goenagari eta Erramona Mojas-i eskapularioak ipintzen dizkie Aita Aranak eta handik bost egunetara diosku, "D<sup>a</sup> Teresa Aristegi Mariakin Gipuzkoara eguerdian jua dala; Erramona Bilbora".

Baina hiru egunen buruan berriz Durangon da: "bart etorrita Donostitik, hemen Aita Lasakin D<sup>a</sup> Teresa". Eta hara non iristen zaion biharamunean Zamorako Apezpiku Jaunaren baiezkoa sortu nahi duen Instituzioarentzat. Aranaren hitzak: "D<sup>a</sup> Teresak Zamorako Obispo Tomasen karta 15ekoa "Lagundi Mariana Jesusena" aprobaturik; pozik". D<sup>a</sup> Teresa Bilbora doa Mariarekin egun batzuetarako eta han, Joakina Rezolaren eskutitz adeitsua Irundik hartzen duelarik, etxeko gauzak saldu eta haratzeko prestatzen hasten da.

Aranak, D<sup>a</sup> Teresa Bilbora joan baino lehen, bi gauza utzi nahi ditu garbi. Bat: "Izan du Aita Probintzial Luis Martinen karta eranzulea". Horrez gain bidaiari ekin baino lehen, D<sup>a</sup> Teresa Aita Olanori eta Aita Lasari agur egiten izan zela eta gero On Balbinorenean; inork pentsa ez dezan ihesi edo izkutuan edo porrot eginik alde egin duela. Azkenik abenduaren 4an hau irakurtzen dugu: "D<sup>a</sup> Teresa Aristegi, Gordonen alargun gajo-triste (sic), bere neskame Mariakin 12,30etako trenian irten du Donostiarako (Garibay, 4) ta han bizitzeko Joakina Rezolaren etxian". Eguberriak gertu direlarik egiten diote elkarri zenbait karta ezinbestean eta, handiago dena, Urtezahar egunean "7etan hemen Donostitik etorrita D<sup>a</sup> Teresa ta bere Maria".

## 2. SABINO ARANA DURANGON AITA ARANAREKIN (1891)

Hurrengo egunerako utzi gabe, Aranak Durangora iritsi zen arratsaldean bertan Don Balbino, Don Carlos Orue, Leona, Rosario, Sofia eta abar agur-

tzen ditu. Deustuko irakasle eta Nobiziadutik hasita, A. Aranaren lagun min den Aita Mintegiaga, festa bereziren bat denean sermoia egitera Urduñara nahiz Durangora joan ohi dena, han da eta elkarrekin afaltzen dute, "berakin mahaian apari txiki denboran". Biharamunean Deustura berriz itzultzean Lardizabalen liburu *Kondaira* berekin duela doa eta "Agirrerena atzera bialtzea agindurik". Euskal liburuak irakurtzen zituen, alegia, adin handian ere. Mintegiagarena da, hain zuzen, gaztetan egin zituzten olerkietatik heldu zai-gun bat. Zazpiko eta seiko hemistikioz ondua da. Honela hasten da:

"Saya gaitecen noizbait euscaldun itzcuntzan  
Guere oimen andiak al deizquegun esan.  
Gaya ugari badet, urriago itzac,  
Pisu gueyeguicho du carga onec nitzat"

Kurutziaga eguna 14an ospatu eta 15ean eskolak hasten dituzte berriz ere. Ikasturte berria. Irlandan ikasita, Urduñan lan egiteko dator egun berean "Aita berri gazte Ramon Vinuesakoa; jun da bazkaltzera amarekin (Nieves), gabeen hemen izateko apaltzen ta lotan". Biharamunean Oruenekoen kaperan amarekin Meza eman eta Urduñara alde egiten du. Bergaratik On Tomas Eleizalde zenaren paper mordoxka dakarkio Aranari, haren anaia On Juan Jose Eleizaldekoaren partez. On Jose M<sup>a</sup> Ampuerok bestalde *Euskalerrri* liburu-a, t. XIII, 1885, eta XXIIIko n<sup>o</sup> 366 ematen dizkio ikusteko. Zumaia-tik Domingo Agirrereren eskutitza hartzen du eta bi egunen buruan erantzuten, eta han da On Migel Urruzuno ere Aita Lasarekin hitz egitera joana. Hori guz-tia aste baten barruan.

Egun pare bat geroago albiste ezusteko batekin itsumustuan hartzen gaitu Aranak: "Etorri dira Loiolan Jarduntza Santuak einda Sabino Arana, Rosario Orue, Paco Ampuero, Polonia, Motrikora joanik beste batzuek, On Balbino, Saratxo, Sofia, Natividad Oruekin. Sabinokin hemen Mikeldin". Aita Arana biharamunean Izurtzan da "hango, hemengo ta Mañariko apaizakin" eta On Damasok On Isidoro Arbulori 1888ko euskal paper handi "Gure Izarra" Pariskoa ematen dio, eta On Balbino Mutrikutik itzultzen da; Errosario Orue ere bai.

Loiolatik itzuli ondoren ez dugu Sabino Aranaren albisterik. Ez dakigu Bilbora itzuli den ala Durangon gelditu; 26an, hirugarrenean, bai: berriro azal-tzen dela D. Carlos Oruerekin, baina besterik ez. Hurrengo egunean ere gauza bera: "On Balbino ta Sabino Arana amarekin Tabiran" izan zirela esaten zaigu. Igandean, 28an, Aita Aranak ematen du "Meza S<sup>a</sup> Susanan 7etan, Ama Birjina Doloretako altaran, D<sup>a</sup> Carmen da batzuek komulgaturik, Sabino Arana eta Gaztaña abadearen anaia. On Balbinokin gaixotei ta Astolatik aurrera".

Orain arte gutxitan egon dira elkarrekin Aita Arana eta Sabino Arana. Behin bakarrik, agian: gogojardunak egin eta Loiolatik heldu zenean. Elkarri idatzi, bai, baina egon beti Don Carlosekin edo On Balbinorekin. Astelehenean, haatik, Iurretako festegunean, "atsaldean San Rokera On Balbino ta Sabino Aranakin"; Aita Arana, noski.

Egun horretan halabeharrez A. Apraiz iristen da gabaz Durangora eta biharamunean guztiek dute "A. Apraizekin kafia bazkalondoan". Halaber Biarritzko Villa Louisetik Mr. Intxauspere partez Mr. J. Z. Boyd jaunaren karta heltzen zaie. Arratsaldean A. Aranak egonaldia du "A. Apraizekin, D. Ascensio, D. Damaso, D. Balbino, Maria ta Gregoria, D<sup>a</sup> Teresa goikoan mandatuakin". Berebat gero "A. Apraizekin S<sup>a</sup> Susana, S. Franzisko; Ampuero Oruenian da Errosario ta D<sup>a</sup> Teresa-enian". Eta honako hitz hauekin amaitzen da irailleko berriematea: "Sabino Arana Elorrion". Urriaren lehen egunean aldiz beste honako hau idatzi du: "Hemen On Sabino Arana, 11etan Bilboratzeko. A. Apraiz Loiolarako irten da 7,32ko trenian". Ikus bienbitartean zer gauza gertatzen diren Durangon.

Gogoan dugu agian nola bildu edo sortu zen iazko udaberrian Deustun "Batasun Katolikoa" izeneko mugimendu bat. Han izan zen, besteak beste, gure Aita Arana. Orain Zaragozan da izatekoa, nonbait. Hiru Orue anaiak hara joatekoak direla esaten zaigu eta urriaren 5ean izango dela "Katolikoen 2. Batzar hasiera".

Aita Aranak bestalde Bilbora joateko baimena lortu du Agintariengandik "hortz berriak Deuston anai Fabian Cabakin ipinteko". Lan horretan ongi moldatzen dena da hori, dirudienez, eta D. Fermin Alegriarengana jo ordez, Anai Cabarengana joarazten diote. Elkarri idatzi eta hilaren 13an joatekotan gelditzen da.

Bienbitartean Olakueta azpiko Erramontar baserriko agure zahar baten aditzea du eta, hara joanik, 84 urteko Jose Bizente Zengotitabeitiarekin egiten du topo. Konfesatu eta solasean ari direla agertzen da, haren alabaren alaba, Anastasia, Poyanen izandako Txomin Mallabiaren andre gaztea dela. Hogei egunera berriro haraxe doa Arana A. Agirrerekin eta oraingoan jakiten dute Jose Bizenteren iloba Anastasia Apatamonasterioko Nikolasaren ama dela.

Apaizen toki eta kargu aldaketak dira Durangon: D. X. Gaztañaza -inoiz Gaztañazatorre izendatzen du- Arzipreste berria da eta D. Aszensio eta D. Adon Andre Mariako parroko eta koadjutore berriak; On Balbino berriz Santa Anako koadjutore berria.

Bilbora baino egun batzuk lehenago A. Aranak Sabino Aranaren eskutitza hartzen du (Ibañez 10, Abando, Bilbao) eta bertantxe erantzuten. Horrez



gain, D. Ezekiel Etxebarria "apaiz jakintsua" omen denaren "paper euskerazko "Izartalde" gainean, Obispo jaunaren partez ikustatzeko ta irizpetzeko" ekartzen diote. Horrekin batera On Andres Iturzaetakoaren liburu eskuzkribua, *Hitzaldiduna*, ere bai. Eta azkenik "J. P. Arbelbide aphezak eta aurtan Sille-n argitaratu duben liburu eder euskerazko *Erlisionea* deritzana".

### 3. AITA ARANA BILBON SABINO ARANAREKIN (1891)

Biharamunean, hilaren 13an, "atsaldean 2,52etako trenian Bilbo ta Deustorako" abiatzen da, eta hiru leku hauetan izan zela esaten digu: "Egidazuenian, Erresidenzi ta Sabino Arana-enian, Deustora baino lehen". Bi egun geroago Aita Mintegiaga eta biak Begoñako Karmelitetan dira goizean. Etixeratzean Sabino Aranaren karta aurkitzen du, esanaz "bihar etorriko dala". Arratsaldean Deustok mendi aldera zeukan behitegira doa tipi-tapa "erreza-tuaz". Han morroiek eta anai laguntzaile batek zaintzen dituzten "kanpo, behi, txerri, oiloak" ikusten ditu.

Handik bi egunetara kapera berriaren estrainatzea izango da Deustun eta bezperan "prestatzen trebeki diardute". Goizeko ordubietan, gero jakin zuten, askatu zuten "On Luis Borda, Elorrioko arimazaia, bart 2etan Bilboko presondeitik, Zugazaga lagunarekin batera". Ostiralea zen eta arratsaldean Abandora eta Begoñara joan zela esaten digu Sabino Aranagana A. Mintegiagarekin; eta iluntzean, esan bezala, kapera estrainatzea izan zela "Jauna agiriz, errosario, letani", Aita Anibal erretorea buru zutela.

A. Mintegiagarekin doa berriro biharamun arratsaldean Basurtoko kaputxinoen elizara, Castel-enian eta Salzedo Novia-enian sartu-irten bat eginenez. Goizean bera ikusten izanak ditu Deustun Ramona Mojas, "Marianagaia" deitu duena, Mikaela eta Francisca Eizagirre. "Hortzen ahogarbiketa osoa eguerdian Anai Caba-k" egin eta prest dago iada Durangora berriz itzultzeko. Hala egiten du urriaren 20an, "Lopez de Haroren taila-iduri haundi ederra Bilboko Plaza Berri erdiyan" miretsi eta bazkaltzera iritsirik; "atsaldean D. Balbinokin Tabirara" jira bat egitera eta biharamunean berriz eskolak ematera. Egun gutxiren buruan esaten zaigu "Bilboko probak "Disertación Ortográfica" gainean" hartu dituela.

Ez da aspaldi Jazinto Sagastizabalen aditzea izan dugula, Leitzako Soraluze ondokoa omen denarena. Aita Aranak ere berriki ezagutu bide du. Bigarren aldiz haren aipatzea Deustutik itzultzean egiten du eta da haren alabatxo Madalen oso gaixo dagoela esateko. Hirugarren aldiz, handik bost egu-

nera, 28an, "Santa Marian aingurutxo Madalentxo Sagastizabalen Eliz-erregu, Meza ta hobiratzeak" izatean. Baina ez da hori okerrera. Gezurra badirudi ere, "gaur hil zaio beste haur txikiena D. Jazinto Sagastizabal-enekoari", irakurtzen dugu biharamunean, 29an.

Neguari euri-jasa izugarriekin eman diote hasiera. Azaroaren 5ean, adibidez, "ekaitz berria, turmoi ta haize ta euri-zaparrada haundiakin egun guzian" egon dira. "Putzuan edo euri-neurtegian oin bi ta gehiagoko ura, egun hoetakoa bakarrik" bildu da. Ondoko egunak ere antzekoak dira eta laster egiten du agerpena elur piskak Oizen. Euria eta elurra tartekatuz dabilta zenbait egunetan, baina batbatean ia astebete irauten duen eguzki ederra ateratzen zaie, eta berriz ere mendi elurtea jaisten Galindo eta Santa Krutz tontorretaraino: "iletargi ta gero euzki ederra. Goizean goiz bero-neurria 6 maila zero-pean hemen etxean eta On Balbino-enian 8" eta goiz batean "egun-argiz agertu da Durango-Ibarzabal luzea, elurrezko estalki txuri lau-bat ontza lodikoaz estali ta zamautuba".

On Balbinori eta Aita Aranari ez zaie itzurtzen 1690. urtean sortu zen Manuel Larramendi handiaren bigarren mendeurrenean daudela eta urtea aurrera doala eta jaio zen eguna arte, abenduaren 25a arte, hilabete bat bakarrik falta dela. Orduko eskutitz pare bat egina die, bai, Andoaingo erretore Juan Inazio Munitak, baina ez diote erantzun; eta hilabete falta denean juxtu-juxtu, azaroaren 24an, bidaltzen dio On Balbinok bi eskutitzen erantzuna batera. Handik egun gutxitara Antonio Arzakek ere egiten die biei karta bat Aita Larramendiz eta, hori dela kausa, doa Aita Arana hilaren azken egunean "Tabiran gora On Balbinokin; gero On Jose M<sup>a</sup> Oruekin Larramendiren kartatxo gainean etxeraino".

Aita Mendibururen mendeurrenean gertatuaz oroitzen delarik, galdu du Aranak nonbait hilaren 28an –egun horretan izango baita jaialdia, igande delako– Andoaina joateko esperantza guzia, eta egun hartarako ondu dituen neurtitzak On Jose M<sup>a</sup> Orueri ematen dizkio eta honek Arzak jaunari igortzen "cuadro-retrato del P. Larramendi" batekin eta berak oratu duen "soinu-izkiera eder A. Larramendiri donkitua"-rekin batera. On Juan Inazio Munitak On Balbino bederen Andoaina joan dadin nahi du eta eskutitza idazten dio astebete falta denean, 28an joateko esanez. Mendeurren eguna heltzean, honela dio Aranak: "Karta ta EL BASCO bat Andoaingo batek jaun Juan Inazio Munitari Aita Larramendiren 2. Ehuntealdi gainean". Eta azkenik igandea iristean, hitz ezin laburragoko berri ematea: "Aita Larramendiganako festa ta jaialdiak gaur Andoainen". Eta kito. Ez Mendibururenera joaten utzi zioten, ez orain Larramendirenera. Zartada handiak horratio biak!





Aita Arana aise barkatzen duena da eta Gabon giroa darie haren hitzei Eguberri aurreko egunetan: "atsaldean On Balbinokin Abadiñoako elizan Lunotik ekarritako Jesus asto gainekoa ikusten". Hurrengo egunean "umien kantatxoa Elizan:

Gabon-gaboneta,  
bihar erosketa,  
Jesus jaio da-ta  
jo daigun krisketa".

Hurrengoan, igande delarik, "eguerdian bazkaltzen lau oilagor Arginzoniz jaunak emanak". Astelehenean D<sup>a</sup> Dolores Eizmendi Ibarren karta Plazentzitik. Asteartean "bakazio edo eskoleza ilbeltzaren 2raino" eta asteazkenean, Gabon gauan, kartzelara eta gaixotegira On Balbinorekin, Eguberri eguna ahalik ondoena ospatu ustez, eta Urtezahar iluntzean A. Agirrereren hitzaldi euskarazkoa Andra Marian, "Te Deum" aurrean. Ez dira urte horretan amaitzen, haatik, Sabino Aranarekiko harremanak; aurrera ere jarraitzen dira.

#### 4. "AMETS ZERUKOI ANTZEKO" (1892)

Urteberriarekin ez da batere hobetzen eguraldia. Lehen bezala etxean 6 maila zeropean eta On Balbinorenean 8 ez ezik, urtarrilaren 10ean 7,30 zeropean harrapatzen dute etxe barruan, eta are 9,30 ere bai, eta han berean 10 hilaren 12an. On Damaso Bernaola apaiz durangoarrak esateraino "bere bizian Durangon ez dubela bart aineko hotzik egin" eta "errotako txinga izoztuba" gelditzeraino. Arana eta On Balbino ez ditu haatik eguraldi txarrak atzeratzen eta "bart hiru edo lau onzako elurte berria lehengo izoztubaren gainean" egin badu ere, han doa "On Balbinokin Txamus eta Momotxo basarriko gaixoetara". Otsailaren erdialdean gauza pixka bat aldatu zen, zeren zortzi egunetan barrena eguneroko parte honela hasten baita: "Euzki eder", eta eguraldi on horren aitzindari gisa hiru egun lehenago hau dio: "Asteazken hautserre, gari-zumaren hasiera. Izotz zuriz beteak kanpo ta teilatuak", eta gero: "Benus, izar ederra, goizean egun haetan sortaldean. Euzki ederra", eta halaxe gertatu ere beste ia hamar egunetan.

Irakurgaiez eta liburuz ongi hornitua dago Larramendiren mendeurrenaz geroztik. Errege bezperan Donostiatik hartzen ditu Euskal Festetako bi liburutxo: *Arantzazuko Kondaira* eta Aita Larramendirena, On Domingo Agirrek egina euskaraz. Urte azkeneko EUSKAL-ERRIA, Aita Larramendiren gaine-

an ari dena ere igortzen dio Arzakek. Bilbon argitaratzen hasi berria den "Católico fuerista, la tradición euskara" ere hartzen du. Berak bere aldetik lagunei banatzen dizkie bere izkribuak eta edonondik hartuak, albisteak ahalik gehiena zabaltzearren. Hala D. Jose Izagirreri Gasteiza "A. Larramendi: ehunda-neurtzak"; On Ezekiel Etxebarria apaizari "Disertación Ortográfica Eúskara"; kalonje Intxausperi, Baionako Elizbarrutiko Bikario Jeneralari, *Euskalerría*-ren azken zenbakia, berari Arzakek igorria.

Badakigu lehendik iparraldetik heltzen zaiola hango *Eskualduna*. Gainera, dirudenez, ale bat baino gehiago helarazten diote lagunek, zeren abenduaren azkenaldean Sabino Aranari igorri baitzion ale bat eta hamar egun geroago, Tabiran On Balbino, On Damaso eta Antonio Arginzonizekin bildu zelarik, han ere azaldu baitzen "*Eskualduna* papera". Baliteke, egia, beste lagun horietako norbaitek hartua izatea. Dena dela, Sabino Aranak aldizkari hura hartzean, eskutitza egin zion (S/C Ibañez, 10) hilaren azken egunean.

Antonio Arginzonizi buruz bada albiste polit bat, euskararekin eta "*Euskara*"-rekin –berehala adituko da zergatik hitz joko hori– zerikusia duena eta orain arte nik bederen inoiz entzun ez nuena. Honela dio Aranak: "On Antonio Arginzonizekin hemen lehengoan Alemaniko EUSKARA –nahiz Aranak EUSKERA dioen– paperdiaren izkribalari, Donostian bakarki edo konsula" izan da. Nola zeritzan konsulari ez du esaten. Jakina da Alemanian, Berlingo Unibertsitatean konkretuki, munduko lehen gerratea arte argitaratu zutela *Euskara*, ez *Euskera*, izeneko aldizkari bat, eta han idatzi ohi zuen konsul alemana izan zuen nonbait Arginzoniz jaunak bisitan.

Albiste ematen jarraituz, esan behar otsailaren 7an jakin zuela Aranak kapitan Duvoisin, idazle lapurtar oparo eta apain, Bonaparteren laguntzaile eta zerbitzari leialaren, heriotzaren berri; eta, tristeago dena, egun batzuk geroago Azkoitian 42 urte zituela bere anaia maite Antonio Mariarena, izan zituen sei anaietatik gelditzen zitzaion bakarrarena. Ez zuen nahigabe txikia hartu! Zortzi senide izan eta bera bakarrik gelditzen munduan! Justa, Ciudad Realen moja urte asko zeramana, arrebatordea zuen, nahiz oso maitea, zeren sarri idazten baitzioten elkarri. Beste gehiagoren artean "Sabino Aranaren karta Antonio zanagatik" hartu zuen hamabost egun baino lehen, bai eta Aita Urrabururena ere Erromatik, Antonio Arzakena eta d'Abbadierena. Aita Urraburuk dolumina ez ezik, argitara berria zuen "Pilosophi edo Egokindearen II. liburu haundi, lodi Ontolojiakoa" helarazi zion.

Gehiegixko irudi dakiok irakurleari D<sup>a</sup> Teresa hainbestetan aipatzea, baina dagoeneko ikusi ez badu, falta diren orrialdeetan seguru nago ikusiko duela, zenbatetarainoko partaliertasuna izan zuen Aranaren azken urteetako

bizitzan eta Aranaren akaberan. Horregatik aipatzen dugu behin eta birritan idazti honetan, ez haatik inondik ere Aranak berak bere EGUNARIA-n adina.

Ikusi genuen Madrida edo Malagara alde egiteko asmoa izan zuela, baina azkenean Donostiarekin trukatu zituela. Han ere egun gutxi iraun zuela eta berriro Durangora eta Bilbora itzuli, dirudienez etxeko gauzak saltzeko eta erabat Donostiaratzeko, eta hala: "D<sup>a</sup> Teresa Aristegi bere neskatxa Mariarekin hemen agur einda, badihoa triste, samindu ta Mariakin hasarretuta eguerdiko trenian Donostiara". Hau urtarrilaren 5ean. Ia hilabete iraun zuen, zeren otsailaren 3an "D<sup>a</sup> Teresa ta M<sup>a</sup> Goenaga Loiola ta Donostiarako 4etako trenian" irakurtzen baitugu, eta dagoen lekutik "kartak eta 12 silu 15 zentimokoak" bidaltzen dizkiola, idatzi nahiko dizkion eskutitzetarako, noski.

Bost egun baino lehen, 14an, hara zer jakiten dugun: "hemendik igaro dira Deustorako Aita Probintzial Luis Martin eta Aita lagun Sorondo; berekin etorri dira honuntza D<sup>a</sup> Teresa ta bere neskame M<sup>a</sup> Goenaga". Egun horretatik hasi eta hilaren azkena, 28a, arte ez da egunik D<sup>a</sup> Teresaren berri ematen ez digunik: "D<sup>a</sup> Teresa hemen konfesatzen da komulgatzen", "Bilbora goizeko trenian gabian Durangoratzeko", "erdi gaixo", "hobeto baina ohian", "ohian gaur ere jaiki gabe", "eguerdian jaikita", "D<sup>a</sup> Teresa hemen 3etan, bere 1000 errial etxe honi", "hemen D<sup>a</sup> Teresa", eta hau biz azkena "D<sup>a</sup> Teresa gaur ere ohian hilekoakin". Hori da emakumearen barneko berri jakitea! Beste bost egun falta dira, baina bego!

Aita Aranak Loiolan hiru egun eman eta Durangora itzuli zenez geroz, hamabost egunetan ez da Durangon D<sup>a</sup> Teresaren arrastorik. Halako batean esaten zaigu "bart igaro dala Bilbora" eta biharamunean etorri eta Angelarenean direla; baina hirugarren egunean berriz: "dihoaz Azkoitira 4etako trenian".

Legagai berrien izenak azaltzen dira lehen baino ugariago: "Zornozako 24 urteko legagai Josefa Apraizen gainean Dominga Sagastizabal, Agustina Camiruaga", eta hurrengo egunetan ere berriz azalduko dira hauen izenak: "beste karta bat Larreara Fray Isidoro de la Cruz-i Josefa Apraiz mojavai gainean". "Agustina Camiruaga ta bere ama zaharra dendan". "Agustina Camiruaga Josefa Apraizekin hemen ta haren karta Ciudad Realera". Esanberri dugu Aita Aranaren arrebaorde Justa han dela moja eta badirudi "Mariana" Kongregaziokoak izan nahi dutenak ere hango konbentura igortzen dituztela postulantetza edo nobiziadua egitera, zeren aurki irakurtzen baitugu: "D<sup>a</sup> Agustina Camiruaga ta Josefa Apraiz hemen Ciudad Real-erako papelakin".

Anaia Antonio Mariaren heriotzaren berria jakin baino astebete lehenago, otsailaren 21ean, hona zer gertatu zitzaion gure Aita Aranari gauzez ame-

tsetan: "Bart eukitako ames zerukoi antzekoa, S<sup>a</sup> Gunegunda donzeilaren antzeko edernikoaren ikuskeraz eta hitzez. Beste donzeila zerukoien artetik nigana aurreratu; eskuberan edergarri zeraman zirizkoi txuriaz agur-ikutubatez, Ama Birjinaren oñean zerbait emeki mintzorik, desagertu zan besteetara; soineko txit eder txuri erregin modukoaz, kapatxo-mantalin urdina zabal zinzili sorbaldetan aizazturik ta buruban lora ta altiste txuri-gorriz nota-korroixit argitsuaz". Ez digu esaten baina, ez ote zion Aranak "ames zerukoi" hori astebete lehenago gertatu zen anaiaren heriotzari lotu?

## 5. IA MILA URTEKO HARITZA (1892)

Eta mila urteko haritza ez ote da berak ondoko egunetan beharko duen indarraren eta kemenaren sinboloa, laster erasotzen hasiko zaizkion ekaitzak eta enbatak jasateko? Inauteriak baino egun batzuk lehenago hauteskundeak dituzte eta liberalek irabazi, antza, zeren izan ziren "suziri edo koheteak, armador Lizana-tarrak botoak irabazi dituelako Ampuero jaunaren kontra" eta ostegun gizen egunean "10ak aldean berribileko egondeian umeak suziri edo suiak durbaka Lizana markesaren etorreragatik" erabili zituzten.

Osterantzean inauteriak betiko moduan izan dira; predikariak batzuk berriak, Domingotar Frai Ardanza eta Frantziskotar Frai Lukas Garteiz; batzuk iazkoak, Frai Jeronimo Karmendarra eta Aita Agirre jesulaguna. Aurten Frai Daniel Baertel falta. Kaleko giroari dihoakionez, hasteko igandean ibili ziren "zezen edo idia eta zenbait mozorroz jantziak plaza ta karriketan". "Astelen-inautian" Kurutziaigatik igaro zen soinu jotzen Bergarako fraide domingotarren txaranga, guztia bost edo sei fraiderekin. Idia, danbolina, suziri edo suiak aurreko egunean bezala. Asteartean ere "mozorroak atzoko modura".

Anaiaren heriotzaren berri jakitean Aita Aranak baimena eskatu zion Aita Probintzialari egun batzuk pasa Loiolara joateko, etxekoen samina pixka bat gozatzearren. Hiru egunerako eman zion eta martxoaren 3an abiatu zen. Badakigu Loiolan zirela D<sup>a</sup> Teresa eta bere mirabe Maria Goenaga. Loiolaraino On Carlos Oruek lagundu zion. Plazentzian eta Zumarragan lagunei oles egin zieten, Aranguren, Mendia, Ugalde, On Jose M<sup>a</sup> Lasa parrokoari eta besteri, 8,15etan Loiolara iristeko.

Hiru egun gutxi zen Azkoiti-Azpeitiko hainbeste lagun agurtzeko. Sinesgaitza bada ere, berrogeita hamar lagun, ikusien edo agurtuen edo konfesatuen, izenak ematen ditu. Batzuk aipatzeko, Baroikoko etxe berriko senitar-



teak, hamar: Juana koinata, Rafael, Isabel jostuna, Ines etab.; eta noski D<sup>a</sup> Teresa, Maria eta Bonifazia. Horiek lehen egunean, hamahiru. Bigarrean Santa Kruzko mojak ikustera eta arratsaldean hilobira bisita: "han D<sup>a</sup> Teresa ta Kandelaria Usabiaga". Gero Alberditarrak, Etxaniztarrak, Aranbarritarrak, Aldekoa eta bezperako bakarren bat; danera hogeita bi. Hirugarrean Elizan zenbait konfesio eta arratsaldean Azpeiti-Azkoitira, Agustin Jauregi erretorea, Maria Azpiazu, Manuel Elizgaray eta haren hiru alaba "Enparan kalia", dio. Hamazazpi orotara.

Larunbatean, San Inazio aldarean meza eman eta 5,15etako Azpeitiko kotxean, Azkoitiko "Aingeru Guardaraino" D<sup>a</sup> Teresa eta Bonifazia lagun dituela, abiatzen da Elgoibar aldera. "Eibartik Bidaurre parrokoakin Durangoraino" eta D. Carlos Orue hurrengo trenean joan omen zen. Hona lehen egunean hartzen duen albistea: "postulanta hiru ta Josepa Apraiz iritsi zirala atzo ondo", eta egun batzuk geroago Agustina Camiruagaren karta "Josefa Apraiz moja Ciudad Realen 12an sartu dala". D<sup>a</sup> Teresa bera Azkoititik Durangora hiru bider etorri da denbora gutxian, baina bina egun bakarrik igarotzeko; batean Kandelariarekin, bestean "bere mirabe M<sup>a</sup> Juakina Plazentzitarakin", bestean M<sup>a</sup> Azpiazurekin.

San Jose eguna egun handia zen Marianentzat edo Marianatarrentzat eta Aita Aranarentzat: "festegun haundi ederra", gaixotegian batez ere. Han hartu zuten Aranaren eskutik Jauna 5,45etan gaixoek; "gero 6etan meza kantatuba hitzalditxo euskerazkoz ta azkenean danak erantzunik *Etxadi Kristinauzkoan eskintzariya Famili Sagraduari* euskeraz".

Barneko mugida handiegia izan du Aita Aranak denboraldi honetan, Probintzialaren eskutitzak, D<sup>a</sup> Josefaren arazoak eta anaiaren hiltzea direla-eta. "Zerukoi antzeko ametsak" ere zirrara egin behar izan dio eta behar du atsedean hartu. Pazko egunean "konfesio askotxo" entzun ondoren, ongi bazkaldu eta ("mahaian 1<sup>a</sup> mota, kafe ta kopa"), arratsaldean Astola ondolik gora doa beste lau jesuita lagunekin, "1<sup>o</sup> Burgietako basarri aurrian pinu gazte haundi eder bat" ikustera, eta 2<sup>o</sup> "Arrieta basarritik pauso gutxiz gora, basoan haritz haundieneko, zaharreneko (iya mila urtekoa), bere gerria lotzeko edo jira bat emateko zazpi kana ta erdi lokarri bihar ditubena". Biharamunean D. Balbinorekin Iurretara eta Arandiara, non biltzen baitira beste hiruzpalau apaizekin.

Hilabete bat geroago Aita Zabala eta Anai Eigurenekin Galindo, edo Garilandako, harrobipeko gaztaina zahar handiena ikustera doa; "sei neurri edo metro, 20 ehunkai gutxiago dauzkana inguru guzira", eta aurreko hilean Arrieta ondoan Abadiñoako gaztelu alboko haritz zahar handiaz oroitzen da

eta hartaz esaten: "6 neurtza osoak ditu inguru guzian", gaztainak baino 20 zentimetro gehiago, alegia.

Bestelako euskal lanak ere baditu eskuarte. Badu alditxo bat, Tolosako Franzisko Mugerza inprimatzailearekin dabilela Añibarroren libururen baten (ez dio zeinen) argitaratze lanetan On Balbinorekin batera, probak elkarri sarri helaraziz. Añibarroren azken aipamena uztailaren 25ekoa da: "Mugerzari proba Añibarronak". On Balbinorekin Tabirara doan batean Frai Buenaventura Mendaturigoitia, Forueko Fraidetegiko euskaldunarekin egi-ten dute topo eta hark Añibarroren berri batzuk ematen omen dizkie. Beste "liburutxo Eliz-kantatxoarenaren gainean" ere badu solasaldi bat Mugerza bere-ekin. Madrilgo Fortanet-enetik, berriz, "Simonet-en *Poliglota* edo hizkuntza askoko proba euskerazkoak" hartzen ditu.

Apirilaren azkenaldera karlista sutsu izandako Juan Nepomuceno Orbe, Ermuako Markesa, hil delako albistea iristen zaio; geroxeago hilberri txartela ere hartzen du On Jose Maria eta Candido Orberen bidez. Hiletak ez dira, ordea, maiatzaren 12a arte: "Markes Ermuko zanaren Eliz-onrak Andre Maria Bezero-elizan (edo parrokian), musika Eslavarena. Apaiz, zaldun ta kanpotar asko bertan. Zerralbo, Olazabal, Cabezón, Liñan da beste karlista askoren (50 edo gehiago) bilera Ampuero-enian atsaldean. Elio apaiz jaun 85 urtekua Meza kantale. Aita Olano ta Lasa Elizpestan izan dira. Aita Lasakin atsaldean Oruenera Elio ta Olazabalen galdezka": "joan nintzen" bakarrik utzi du esan gabe. D<sup>a</sup> Teresa ere han izan zen hiletetan Azkoititik M<sup>a</sup> Azpiazurekin joanda, 4etako trenian berriz itzultzekotan. Zortzi egun geroago "suziri asko 4ak aldian; Tabirarantz Zerralbo ta Mella ta beste karlista Ampueroekin dabiltzan-akgatik, hemen pasatzean".

Handik hilabetera, beste lagun baten heriotzaren takatekoa hartu zuen Jose Inaziok. Otsailaz gero bazebilen herrian surmurra "Antonio pulmoniaz gaizki" zegoelakoa. Hiruzpalau hilabeteren buruan hil zitzaion Aita Aranari, Elizakoak harturik, "santukiro Aita Olanok lagundurik pulmoniaz" adiskide min bat, etxean meza behin baino gehiagotan eman izan ziona: On Antonio Arginzoniz. "Hil-elizkizun da obiratzea Santa Anan, jende txit asko".

Maiatzaren 26an, bere jaiotegunean, zapata berriak estrainatzen ditu. Hilaren 8an esan digu izan dela "Perran Legina zapatagilea neurri hartzen hemen, zapata berriak eiteko" eta 24an berriz "goizean Perran Leginak einda-ko zapata berriak estrainatzen" izan dela. Berrogeita hamahiru urte bete zituen egun hartan. Bi egun geroago orduarte ezagutzen ez zuen On Migel Antonio Iñarra, Oiartzungo apaiz berriaren bisita du. Lehen meza hantxe etxeko kapilan eman omen zuen, armonio eta guzti, "nik lagundurik komu-nioa". Egun berean beste apaiz batek Iurretan eman zuen meza berria, On

Demetrio Aranak, eta han elkartzen dira bi apaiz berriak Aita Arana eta On Balbinorekin. Ezin aproposago etorri zitzaizkion zapata berriak.

## 6. SAN INAZIOREN MENDEURRENA LOIOLAN (1892)

Joan den hilean ere aipatua zuen A. Aranak, guk zergatik jakin gabe, bezperan etorritako "soldadu tzarrak" Bilbo aldera goizean atera zirela, bai eta egun gutxiren buruan berriz igaro zela handik konpainia bat soldadu; are gehiago, izan zirela "errietak hoiak alojatzeko auzoko etxeetan". Orain ematen digu soldadu horiek Bilboratzearen arrazoia: "Lomarako (?) eta Donostiako zenbait soldadu talde Bilboratzea trenetan, hango atzoko tropa ta bihargiñan iskanbilagatik" izan zela.

Durangoko kaleetan ez zen halako iskanbilarik. Aranak kontatzen digu San Pedro jai inguruan "kalietan atzo ta gaur otso, tximu ta txakur zenbaitekin erbesteko zenbait gizon" ibili zirela kanta eta dantza; igertzen zitzaiea gutxi gorabehera nongoak ziren: "emakume ta haur kolore erdi beltzak Portugesan antzekoak" ematen zutela.

Urkiolako San Antonioren jaiak zirela kausa, urteroko jende uholdeaz gain, hiru egunetan Eibarko 34 mutilen soinu taldeek alaitu zuten hiria. Bai eta pilota partidu batek ere, baina txisteraz jokatuak, ez eskuz. Urkiolarantz abiatuen artean Azpeitiko bi apaiz, erretore On Agustin Jauregi eta On Modesto "Malluna" izan ziren. Lehenak Aita Arana bisitatu eta harekin mintzatzeko gogo handia izanagatik, ez zuten harekin topo egin eta Azpeitira itzultzean egin behar izan zion Erretoreak eskutitz bat. Honen edukia ez zen nolana hiko, "San Inazio festa gainean" aritu zitzaion.

San Luis eguna ere handikiro ospatu zuten, beste urteetan baino areago, orduan baitziren hil zeneko 300 urte. Egun hartan ohiko mezaz eta komunioaz eta prozesioaz gainera, Anai Larrartek eta mutilek jolasak eta jokoak antolatu zituzten; hala nola, "globo telazko haundiya bota nahiez, ilundu arte" jardun zuten, eta "beste txiki bat bota dute beste baratzatik". Ez zen aspaldi On Pedro Aldalurek Azkoititik karta egina ziola, eskatuz arren "S. Luisi neurtitzak egiteko". Bai laster asko egin ere, bi egun geroago esaten baitigu Aranak karta idatzi ziola On Pedro Aldaluri neurtitzak igorritz. Parisko jesuiten "Etudes" aldizkari sonatuaren zuzendariari (rue Monsieur, 15), ekainean egin zion bezala. On Andres de Iturzaeta Otxandioko apezak prestatua du liburu bat "hitzaldi euskerazkoen gainean" eta zensura Apezpikuaren erreguz Aita Aranak egina.

Franzisko Javier Simoneten eskutitza hartzen du Toledotik, harekin batera *Concilio de Toledo* (políglota) hiru liburu eder helarazten dizkiola. Eskuaratean egunero darabiltzan bere eta besteren paper guztien kopiak egiteko Arana ez da bera bakarrik gai eta, Abadiñon bizi dela lehendik dakigun gizon ondradu Gregorio Uria delako bati, Maria Arangurenen senarrari, ematen dizkio kopiatzeko orain. Sei hilabeteko ume bat Ana eta beste hazixeago bat Pilar ditu, baina halere D<sup>a</sup> Teresaren aginduz, "ohian baitago jaiki gabe gaur, Azkoitiko etxea San Luis egunean argiraztera" doa Gregorio Uria, emaztea bi ume txikiekin etxean utzita. Jende asko du D<sup>a</sup> Teresak bere mende eta etxe askoren da jabe! Orain Gregorio ere bai, eta hiru egun ematen ditu Azkoitian etxe garbiketara eta San Juan Bautista egun bezperan Abadiñon da berriz ere.

Egun gutxiren buruan beste neskak datorkio D<sup>a</sup> Teresari Loiolatik, Gregoriok limurtuta edo: "Munateiko Josepa Iñaxi etorri zaio D<sup>a</sup> Teresari Angela-enera 7,30etako trenian". Denen beharra du gajoak, zeren ekainaren 30 egunetatik haren izena 28tan ageri bada EGUNARIAN, horietatik bederatzitan da ohean dagoela eta bizpahirutan Aita Aranak ohean konfesatu duela esateko. Angela gajoa ere ez dago lantegi handietarako, egun gutxi baita "3etan haur-eitea, seme hildako bat erdirik" izan duela.

Hona kontakizun politagoa. Liburu zahar bila dabil beti gure Jose Inazio eta, badaki halakoak inon aurkitzekotan, liburutegi eta artxiboetatik kanpo, herri txikietako Eliza zaharretako sakristietan aurkituko dituela. Bernagoitiara, Arandiara eta Bernabeitiako Olatz gainera doa arratsalde batean On Balbinorekin eta Aita Zabalarekin. "Atso zahar M<sup>a</sup> Prudentzi, seme, iloba ta honen emazte Martina Urkiza" daude etxean. "Elizako obrak, hilerriko kapila gainean euskeraz. Gordeteiko liburutxo zaharra: *Libro de los bautizados en la Feligresía de S. Miguel de Bernagoitia de la Merindad de Zornoza: año 1492*. Mathias, Ana Mari. Gero Lorenza Atutxaren etxeokak. Etxera 8,30etan".

Bestea. Ohi bezala, "Izurtzako metaliturri erreka ondora ola-atzean" doa On Balbinorekin. "Aste bi hontan baratzako langile edo baratzazai dagoan X-k (ez dio izenik) udare arbolentzat zulo asko, neurri edo metro hondatsukoak, egitean, sortaldera lurpean "errek-harri" edo "grijo" ("cascajo", "piedra redonda") zenbait atera ditu.

Hirugarrena denbora gutxian. Deustutik etorriak dira Elorriora Aita eta Anai gehienak oporretara eta, eguzkia eta bero handia zen goiz batean, hor doaz "Urkiolako S. Antoniora Elorrion dauden Deustuko iya danak". Aita Egidazu eta Lezina oinez abiatu dira Aita Aranarekin, ia 11etan hara iristeko:

"Urkiolan kanpotar batzuek. Bazkaria arboladi zelaikoan eta bi apaiz, On Tomas Gojenzio ta On Felipe Otxandiotarra, han gurekin kafia hartzen". On Tomas elurtegi berria egiten ari omen da eta Elizarako armonio berria berriki erosia omen du. "Etixeronz gehienak 4,30etan Anboto atzetik, Aspe-ra 5etan. AA. Zabala, Egidazu, Lezina ta ni Abadiñoko kalzadatik behera. Atxarteko errota, Kristo ermita, Mandiola, Mendibelbat. Haiek Elorriora handik; ni Abadiñora (Mariana) ta Durangora 8etan".

Laster da beste mendeurren handi bat, Jose Inazio Aranak handikiro gogoratu gabe eta ospatu gabe igarotzea inola ere nahi ez lukeena, Loiolako San Inazioarena. Azpeitiko erretoreak berriki gogorazia zion kartaz, gainera. Orduan, urte hartan, beteko ziren 400 urte jaio zenetik. Apirilaren 5erako badauka iadanik lantxo bat oso aurreratua: "San Inazioren 4garren jaiotze-hunde gaineko izkribua gaur iya bukatua". Hamar egun geroago Azpeitiko Erretore On Agustin Jauregiri idazten dio eskutitz bat "ehunte-urtaldi" horren gainean eta honek posta-jiran erantzuten. Aranak orduan hau "A. Probintzialari kuaderno barruban nere kartatxoaz" igortzen dio. Hogeian Bilbora doan Aita Alarconez baliatzen da "zenbait eskributxo Loiolako ta nereak hara igortzeko".

Horrez gain apirilean hartua zuen Urduñatik, han apaiz izan aurretik iada hizkuntza klasikoen irakasle eta gero, umotu zenean, hizkuntza horietan oso trebea eta jakintsua izan zen Anai Blas Berazak igorrik, berak onduriko "Academia Lirico-Poetica-ren azalde molderatua" San Inazioren 4garren menderako. Egunek hertsatzen zutela eta, Aita Aranak Aita Probintzialari ekainaren 26an helarazi zion eskutitz bat Anai Blas Berazaren "ikasolako (akademiako) idea"-rekin batera eta erantzunaren zain gelditu zen. Uztailaren 16an "Franzisko Mugerzari euskera paperak S. Inazioren liburutxorako" helarazten dizkio.

Baina Aita Probintzialak Aita Aranaren pazientzia probatzeko-edo (ez zuen txikia!) uztailaren 27a arte ez zion erantzun, alegia ia San Inazio festa egun bera arte, eta gainera bere idazkariaren eskuz: "A. Sorondoren karta Aita Probintzialaren partez 26koa Loiolatik: Anai Bardakokin San Inazio ondoren hara juateko". Loiolara bai, baina San Inazio egun ondoren!

Arana aspaldixko etsitzen-edo hasia zen eta ez zuen karta hark ustekabe-an harrapatu, zeren uztailaren erdia baino lehen utziak baitzituen iada On Agustin Jauregiren eskuetan "karta ta bersoak". San Inazio eguneko EGUNARIAREN testuaren isiltasunak aski ongi adierazten digu zenbatetaraino zegoen egun hartan lur jota: San Inazioren festaz hitzik ez dio, ez eta Loiola aipatu ere. Bazuen zergatik egon nahigabetua, ikusi baitzuen Durango-

tik bertatik, bera bizi zen etxetik, atera zirela 28an Loiolarantz "AA. Muruzabal, Oyarzun, Olano ta jesuitagai Florentino Ogara" festetan parte hartzeko, eta bera etxean geldirik. Ondotxo zekien ez zela Agintarien gogokoa.

## 7. AITA ARANAREN "GETSEMANIKO BARATZEA" (1892)

Lehen Mendibururen eta Larramendiren mendeurreneko festetara joaten utzi ez bazuten, orain San Inazioenetara ere ez! Nor, eta bi lehenen alde orduarte Konpainian lanik gehiena egin zuena, eta hirugarrenaren alde, beti zerbait idorotzen eta idazten saiatu zena, ahal zuen neurrian, noski, ez baitzen Fita bat, ez Henao bat, ez baitzen bizi Madrileko artxiboen eta liburutegien ondoan haiek eskueran edukitzeko, ez eta Erromako Aita Jeneralaren baitan, 300 urte haietako milaka agiriz eta dokumentuz elikatzeko.

Ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzen da, haatik, lanean. Hamabost egunen buruan Sabino Aranaren bi eskutitz hartzen ditu; berak ez dio egun haietan erantzuten, ordea, aztoratuegi dago. Mugerzaren probak ia egun biz bat hartzen edo itzultzen ditu, Añibarroren liburuarenak, noski.

Iurretan izan behar zuten euskal jaiekin oso arduratua dago. Arandiara doa abuztuaren 5ean "Iurretako alkate On Julian Unamunzagari Basaurko abisu ematera ta Abbadieren kartatxua: Txibita (Azpitarte) ta beste langile batzuek pelota lekuko horma garbitzia ta prestatzia porlantzeko". Biharamunean biltzen dira berriz biak Durangon On Balbino, On Isidoro eta Arbulo jaunarekin, euskaljaien gainean mintzatzeko: "Hoen azaldea erderaz atsaldian alkateari". Handik laster "pelotaleku horma eskina atzo bukatu" zuten eta "gaur hasi dira ur-kare ta porlan nastez planiatzen".

Loiolara San Inazio eguneko festara joan ziren jesuitetatik A. Olano, nagusia, bakarrik itzultzen da Durangora abuztuaren 5ean. Aurpegi muzina dakar eta Aranari zer kontatu zion ez dakigu, ez baitigu esaten Aranak bere EGUNARIAN. Baina bi hilabete geroago, urriaren 23an, berak Aita Jeneral Antonio Anderledyri egin zion latinezko hamar orrialdeko karta luzearen fotokopia badugu eta horri eskerrak asma dezakegu gutxi gorabehera A. Olanok Loiolatik itzultzean Aranari esana; hots, Aita Probintziala oso haserre dago zurekin, zenbait salakuntza larri direla kausa, eta ez dut uste uda honetan Loiolara eta Zumaiara joateko baimena emango dizunik, nahiz duela gutxi San Inazio festa ondoren Loiolara joateko esan zizun; baina berak idatziko dizu laster.

Aranak Aita Olanogandik abuztuaren 5ean edo 6an hori jakitean, karta egiten dio Loiolara Aita Sorondori, Probintzialaren idazkariari. Aita Olanok bere gelara deitzen du Aita Probintzialaz hitz-aspertu luzeagoa egiteko. Baldin haren esanez dudarik bazuen, orain uxatzen zaizkio guztiak, hartzen baitu hilaren 10ean, San Lorenzo egunean –ez omen zaio sekula ahaztuko eguna–, A. Probintzialak eginiko "eskuzkribu ikaragarria", eta gau berean hasten erantzuna berak: "Aita Prob.-ren kartaren hasiera gabean. A.M.D.G.", eta bukaera 12an eta 13an, luzaz idatzi omen baitzion.

Handik bi egunetara gau txarra emana izan behar zuen, zeren izan baitu "bart amets bat: bi diabru beltz-zurigorriak. Jesusen kalizean karta, portaezi-na orazioan". Ez da tamalez ongi irakurtzen hitz hori, baina hitz guztien esanahia eta batez ere gertariarena bistan da: Getsemani bat jasaten ari da Aita Arana. Eskerrak bi egunen buruan Aita Mintegiaga datorren Deustutik. Hauxe dio Aranak: "hizketa, kafia, kopa berakin". Gehiago luzatu gabe "A. Probintzialari karta luzearen 2. partea" idazten eta igortzen dio.

Lehen ametsa 10ean izan da eta bigarrena 20an: "Bart ametsa: A. Probintzial Abad eta La Torre Asistentea: "¿No ha oído nada?". Ezin adieraz hitz gutxiagotan Aita Aranaren barneko laborria. Aita La Torre Erroman Asistente da; esan nahi baita, nazio oso bateko, Espainiako gure kasuan, Probintzial guztien burua eta hari doazkio bere Probintzian gertatzen diren eta Erroman jakin behar direla Probintzialesk uste duten gertari guztien albisteak. Ametsa orain ulertzen da: elkarrekin topo egin eta batak besteari galde-tzen dio: "Jakin al duzu?. Jakin al duzu, alegia, Aita Aranaz Durangon esaten dena?". Amets horrek iradokitzen dio Aranari Fiesole-Erromara zuzenean Aita Asistenteari idaztea eta harremanetan jartzea. Harentzat prestatzen du "liburu sorta bat izkira honekin: Para el R. P. Asistente de España S.J. en Fiesole. Dos libros y algunos opúsculos, en los cuales ha colaborado el P. José I. de Arana, S.J., desde 1866 a 1891".

Hilaren 25ean, A. Aranaren kartak irakurtzeko arreta hartu eta gero, "gabeko trenian Aita Probintzial Matias Abad-en etorrera A. Sorondo bere lagunarekin" Durangora, eta bertantxe hasten du etxeko guztien bisita, bana-ka gelara joaten zaizkiola harekin hitz egitera, ohi den bezala. Lehen egunean hartu zuen Aita Arana eta, esan gabe zenbat denbora aritu ziren elkarrekin, ez eta lazki ala samurki hartu zuen, hauxe ematen digu jakitera latin ulertzen errazez: "Ratio conscientiae more solito; communicatio calumniae et destinatio ad Oniense collegium. A.M.D.G.". Hots, neure barruaren berri ematea, ohi bezala; gezur beltz edo kalumnia aditzera eman dit eta Oñara destinatu nau. Jainkoari dela aintza!". Eta orduan hitzez adierazia, egun batzuk geroa-go karta batez zehaztu zion, honela mehatxatuz, "debekaturiko gauzaren batean huts egiten banuen, alegia, Lagunditik iraitziko nindutela".

Aita Probintzialak lehenik Aita Asistenteari eta gero honek, auziari larria baitzeritzan, Aita Jeneralari kontu guztia aditzera eman ondoren, honek bere gain hartu zuen auzia eta berak erabaki nolako zigorra eman behar zitzaion Aita Aranari. Alegia, Aita Probintzialak Durangon esan dionaren iturburua Erromako Aita Jenerala da, eta hala hilaren 31an Aita Probintzialak Aita Jeneralaren oniritziaz idazten dio lehen baino zigor handiagoak egotzirik. Geroxeago jakingo dugu zein ziren zehazki eskutitz hartako hitzak.

Ez dugu D<sup>a</sup> Teresaren izena kontaera horren barruan aipatu nahi izan eta ez zer esanik ez genuelako. Orain ordea esan behar, Aita Probintzialak 10ean Aranari "eskuskribu ikaragarria" delako hura egin zionetik, D<sup>a</sup> Teresa jakinaren gainean zegoela. Aranak bere barneko berri Aita Probintzialari eman eta, jakin zuen egunean zigorra Oñara urruntzea zela, honela dio: "D<sup>a</sup> Teresa hemen 9etatik 11etara", eta egun hartatik hilaren azken eguna arte, honek hari eta hark honi bederatzi karta egiten dizkiote danera. Ikus bati buruz dioskuna: "D<sup>a</sup> Teresari bartko karta, A. Sorondoren 19ko kartaren gainean". Bistan da Aita Aranak dakien guztia dakiela D<sup>a</sup> Teresak.

Bi egun eman zizkioten pardela prestatzeko eta prestamenak A. Olanorekin egin zituela esaten digu. Bai eta On Balbino eta D<sup>a</sup> Anastasia "ta beste bat" agur egiten izan zituela ere. Oraindik umore du kontatzeko "S<sup>a</sup> Susanako Elizatari erdikoaren gaineko urtokira andamioz jaso ta ipini dute nabarri txurizko (Larrea Bilbokoak egina) S<sup>a</sup> Susanaren tailu-iduri ederra oinpeko handitxoaz".

Biharamunean, San Agustin egunean, eliza hartakoxe Meza nagusia eta Aita Agirreren hitzaldia entzuteran Aita Olanok lagundu zion. Oñara baino lehen konfesatu nahi izan zuen, eta etxeko agure on, Aita Lasa zaharrarekin egin zen, eta 3,30etako trenan hartzera gelditokira horrek berorrek eta On Balbino lagun zintzoak lagundu zioten. Ez du gainerakoen agur-besarkadarik aipatzen.

Deustun igaro zuen gaua. Goizean, Aita Sorondorekin geltokira baino lehen, Aita Probintzialarekin eta Garziarenarekin minutu batzuk egon zen. Baditu bidelagunak bera bezala Oñara doazenak; haiek ikasketak egitera. Mirandan "bazkaldu degu Fonda Ramilan, On Laureano Troconizenean, bina pesetan". Bribiescara 4,30etan; "han itxodoten beste lau Oñarako". Ez diosku zer ordutan heldu ziren. Bai bertantxe egin ziola kartatxoa D<sup>a</sup> Teresari.

Erbestaldia salbu, bizi guztian Loiolan, Urduñan eta Durangon, euskal giroan eta euskaldunen artean, euskararen alde lan egiten bizi izanik, mila lagun egin dituen berrogeita hamar urte baino gehiagoko pertsonarentzat ez zen mokadu goxoa Oñako zokoratzea, izkutatzea. Ez ziren aski izan haren



bihotzeko samina gozatzeko oraindik irauten zuten gazteen opor eta jai egunen poz-oihuak eta garraxiak, haien eta irakasleen jatordu mardulak, jolasak, bainuak, etxeko liburutegi inon ezagutu zuen handiena. Han ditu lagun min izanak: filosofiako irakasle Aita Mendibe eta batik bat Aita Urraburu, erretorea, gozoki hartu zutenak. Baina dena alferrik: bost urte haietan Aita Jeneralari egin kartek erakusten digute zauri bizitik odolaren jariatzea ez zitzaiola inoiz agortu eta ezin zuela irentsi batez ere kartan egiten zitzaion mehatxu latz hura: debekaturiko zerbaitean huts egiten baduzu, kanpora.

Biharamunean kontaktzen digu olgeta handiko eguna izan zutela hango jesuita ikasle gazteek: "Aitak bazkaria Anai Pilosopo edo Egokinlariekin" eta lo-kuluxkaren ondoan "pelota partiduba 5etan hiru Anai laguntzaile Azpeitiarrak beste hiru ikasle trebeenaen kontra, haiek irabazirik". Gero etxea eta baratzea ikusten eman zituen ordu batzuk eta "atsaldeko 7etan hoekin da Komunitade guziarekin arboladi etxeko ondoan arratsalde-aparia, ta gero, barruban danok, tea, musika, kartak eta hizketa jolasa 9ak arte". Ohera baino lehen bi eskutitz: bata A. Olanori, bestea A. Lasari. Eta hilaren azken egunean, nola ez bada, "liburutei haundia ikustea" eta Aita Perez Arregi azpeitiarraren Loiolari buruzko liburua hartzea. Horrenbestez irailari ekingo dio "urdaileko gaitz" zerbaitekin, baina eguraldi bero eta eguzki ederrarekin.

Hil berriaren lehen egunak karta mingots bat dakarkio: "Atzo Bilbotik A. Prob. Mat. Abadek egin didan karta, A. G. A. Jeneralaren latin-hitz izugarriak bertan neretzat aldaturik. A. M. D. G.". Alegia, A. Probintzialak hitzez Durangon esan ziona honen laburpena baizik ez zen. Loiolako artxiboan kopiatua dut aspaldidanik Aita Jeneral Anderledy-k Aita Probintzial Mateo Abadi eginiko karta hori, eta guri axola zaigun azken zatiak, Aita Aranari Oñara helarazi omen zionak, honela dio, latinez tamalez. Ahalik zehazkiena itzultzen saiatuko naiz:

"Aita hark, zeinek diozunez hain krimen itzala egin baitu, ongi merezia luke bertantxe Lagunditik jaurtitzea, batik bat ia ziur dakigularik antzina ere honelakoak eginak zituela; baina zeren ez baita beti bere buruaren jabe osoro eta zeren Lagunditik jaurtikiz gero, ez bailuke bizibide segururik, hobe da azken irtenbide hau probatzea oraindik, Oñara igortzea, alegia, proba gisa. Ez bekio inola zilegi handik irtetzea, ez inor konfesatzea, ez ezein kanpotarrekin harremanik edo hizketaldirik izatea. Eta agintzen zaizkion gauza hauetako batean huts egiten badu, jakin beza segurki bertantxe Lagunditik kanpora jaurtikia izango dela. Ez bekio zilegi etxetik kanpora pasiara irtetzea ere, baizik balia bedi horretarako hango baratze zabalaz. Agian burutik egingo zaio, baina gaitz hori beretzat eta Lagundiarentzat desohore eta lotsakizun txikiagoa izango dira, bestela jokaturik baino".

Eta A.M.D.G. idazten du berriro bukaeran batere txintik, keixurik, arrenkurarik gabe. Hauek bai aita Probintzialari, bai aita Jeneralari eginiko eskutitzetarako uzten ditu. Horra esan dugun mehatxu Aranarentzat erdiragarria: gauza hauetako batean huts egiten badu, jakin beza segurki bertantxe Lagunditik kanpora jaurtikia izango dela. Bistan da gaztetango gaitz haiek zuhurtzia gutxitu bazioten, bertutea segurki handitu ziotela.

## 8. D<sup>a</sup> TERESAK IKUSI BAI, BAINA NOLA! (1892)

Ezin uka kartzela handi, eder, eguzkitsu batean sarrerazi dutela, baina kartzelan. Ongi tratatua, ongi lagundua, ongi hornitua milaka liburuz, zuhaitzez, landarez, txoriz, baina kartzela bateko bizimoduarekin. Baratze jori, emankor, zabalez inguratua, baina handik ateratzea debekatzen dioten hesolaz, atez eta katez hesitua dagoena. Aranaren espiritua, haatik, kontrajarrak jasaten eta gainditzen zaildua dago, eta azpiratuko al du baldinba hau ere gartsuki!

Esan dugu, Zeanuriko seme Aita Urraburu, Aranaren ikaskide eta lagun mina, zela Oñako Erretore, eta agian horregatik igorri zuten hara, hark leunkiro eta maitekiro hartuko zuelakoan. Harekin konfesatu zen behintzat Oñaratu eta hirugarren egunean, nahiz ez den egun asko gauza bera egin duela Aita Lasarekin Durangotik ateratzean, eta horrek asko esan nahi du beren arteko fidantziatz. Aita Mendibe ere, lagunek "el pinchón" deitzen zutena, Poyanneko urteetan Aita Aranari oso atxikia, han zegoen filosofoen irakasle. Ez da harritzeko, beraz, haratu eta hamar egunetara esaten badigu, "AAkin paseo ederra baratz mendira" egin duela; beste batzuetan bakarrik ibiltzen dela eta egiten duela "paseoa baratzeko San Jose, Jesusen Bihotz, teologoen baso, harrobi, mazusta plazatik jira". Baita Aita Urraburu berarekin bakarrik ere: "paseoa baratzan A. Erretorearekin".

Urraburu eta Mendibe bezala, hantxe bizi da, beste bat bakarrik aipatzeko, Aita Enbil ere, gaztetan eritasunak, Arana bezala, jo aurretik haren ikastalde bereko laguna eta Poyannen Euskal Akademiako ikaskidea izana. Aspaldian gaixo eta eri dago Oñan, eta ezin diezaioke laguntasun handirik Aranari eskain, egia esan. Hain dago gaixo eta eri, non giro hobeagoko lurraldeak on egingo ziolakoan, Velez-era eramatea erabaki baitzuten. Hara baino lehen, elkarrekin bizi izandako eta Enbilek egun batean gogorazitako aspaldiko pasarte bat kontatzen digu Aranak: "A. Enbil hobeto. Honen oroimena Debara 186?-an (ez daki zein urtetan) joan ginanekoa kanpo egunez anai

Txurruka, Enbil, Iñurrieta, Sorondo V., Zigorraga, Arana ta ..., soinuzaileak zazpirak. Bustitu, etxeraturik gabeko 10etan ta AA. Portes eta Balbino Martinen harrera Loiolan".

Iraila oraindik opor garaia da, baina ez uztaila bezala egun osoa opor duena, erdia baizik. Erdi horretan jokoak eta jolasak antolatzen dituzte hala teologoek nola filosofoek. Garaiz iritsi zen, halere, filosofoen opor handien azken egunerako: "Anai pilosofoak gaur bukatzen dituzte beren atsedentza edo barkazio nausi denborak. AA.k berakin 7,30etan atsalde-gosari-afaria, te, kopa, hizketa, bonba ta soinu ta kantaldiakin". "Bonba", goian esan bezala, deitzen zitzaion, inori txantxetan edo ziria sartu nahirik hitzetik hortzera egiten zitzaion bertso txikia, hark ondoren beste hainbatekoarekin erantzuten ahal ziona.

Horietaz gain badu Aranak oporretan ezin utzizkoa duen atsedebidea: bainuak. Oñan aukera ederra du horiek hartzeko. Bi lehenak noiz hartzen dituen ez digu esaten, baina hilaren 9an "3. mainu epela" hartu duela diosku. Aipatzen dituenetan azkena, bosgarrena, hilaren 20an.

Baina bihotza beste toki batean du; bakardade hura ez da harentzat egina. Etorri berrian "kartatxoa" D<sup>a</sup> Teresari eta kartak A. Lasari eta A. Olanori egin dizkiela ikusi dugu. Ez du asko luzatzen On Balbinori ere idaztea eta Bilboko Anai laguntzaile Jose Legaristiri "kofre haundiaren gainean" beste gutun bat egitea. Toki batetik bestera aldatzen dutenoro kezka bera du, kofre handia, non igortzen baititu bere liburu eta paperak, zein gabe ezin bizi baitaiteke Aita Arana (han ote doa EGUNARIA ere?). Lehenik taloia eta gero "nere kofre haundi pisua" 12an iristen zaion arte ez dago lasai. Hurrengo eskutitza, bi zor baitizkio, Sabino Aranari egina da; hurrengoa Aita Vinuesari "Bilbora, bihar-ko hiztun doneari Jesusen Bihotz ta S. Inazio gainean" eta "beste bat luzetxoa Azkoitira D<sup>a</sup> Teresa A.-ri" eta supituan hartzen du haren erantzuna. Iurretaz Abbadieri ere egiten dio bat eta handik egun gutxitara adierazten diote "Iurretara 1.000 franko Mr. d'Abbadie jaunak bialdu dizkala". Aita Pro-bintzialari eta Aita Sorondori egiten die eskutitz bana Valladolidera hilaren 10ean, ez dakigu zertaz. Ozta izango zen eskerrak emateko, lehen ez baitzioten erantzun ere egin.

Karten eta proben igortzaile eta hartzaile etengabeak dira inprimatzaileak, azken denboraldi honetan Tolosakoak batez ere: Mugerza eta Eusebio Lopez. Honen karta eta papertxo molderatu euskarazkoak hamargarren egunerako hasia da iadanik hartzen. Biharamunean Mugerzaren karta hartzen du. Biei idazten die eskutitz bana Aranak Tolosara hurrengo egunean.

Kartak bai, baina pertsonak ez ditu hartzen; hobeki esan, ez diote hartzen uzten, debekatua dauka. Hala zioen Erromatik Jeneralak, eta horrek ematen dio bihotzean pena. Ezin dezake ezekin etorkinen bisitarik har, ez eta harekin hitz aspertu bat egin. Oñaraino Arana bisitatzera joaten lehena Gregorio Uri izan zen, Aranaren papertxoan kopiatzaile abadinotar zintzoa. Ikus nola kontatzen digun Aranak gertakizuna: "Hemen (ikusi gabe) hiru egunean On Gregorio Uri Arostegi; juan da bi karta einda". Haietan hustuko zuen agidanean hitzez eta bihotzez esan nahiagoko ziona. Hiru egun zain egon eta berriz etxera: ez da gozoa! Handik hilabete baino lehen beste karta bat egin zion Abadiñotik: "larunbatian, 3an, goizeko 5etan Maria bere emazteak alaba Dionisiatxo ondo ein dubela". Lehendik bi zituzten, Ana eta Pilartxo: hiru neskatila orain, alegia.

Hori baino tratu hobea nahi izan zuen beretzat D<sup>a</sup> Teresak, zen bezalako dama eta Lagundiaren ongilea izanik. Bere bi neskatxekin joan eta Aita Urrabururekin elkarrizketa bat nahi zuela esanez, aurkeztu zen etxe handi hartako atarian, eta A. Arana ikusteko baimena eskatu. Nor zen jakin eta Erretorea bera jaitsi zen harekin mintzatzera, baina halako baimenik ezin eman ziezaiokeela erantzun zion nonbait. D<sup>a</sup> Teresak orde hain gogor egin zion bere aldetik, non Aita Urraburuk, eskeari materialki loturik, azkenerako baietz erantzun baitzion, elkar ikusteko modua erakutsiko ziola, haren baimenaren beharrik gabe. Eta harresiaren kanpoko aldetik mendi-hegalean gora metro batzuk igo behar zuela esaten zion bitartean, Aita Arana barruko aldetik, zergatik esan gabe, San Jose ermitatxo bat zegoen muinora bideratu zuen, nondik batek ederki ikus baitzezakeen harresiaren beste aldean zegoena, nahiz eta urruti samar. Ikus Aranak dioena: "San Joserren iduri parean baratzara ta neri begira 10etatik 11,15etara; gelditu da bihar arte Oñan. Gero biak San Jose aldean baratz ondoan". Jeneralari egin kartan Aranak honela dio, gutxi gorabehera, bisita hori zela-eta: "se las vió y deseó el P. Urraburu para justificar de modo convincente su negativa", eta azkenik esaten: "siento tristeza cuando veo desde una pequeña cima de la huerta salir de paseo a nuestros jóvenes estudiantes y estar yo sólo en aquella escarpada soledad".

Aita Aranak bitartean eskutitz sorta txiki bat idatzi zuen biharamunera-ko eta atezainari utzi, D<sup>a</sup> Teresari edo haren izenean eske zetorkeenari emateko: A. Olanorentzat, On Balbinorentzat, eta EL BASCO13 aldizkari-zenbakia d'Abbadierentzat; bai halaber Tolosako Pilar eta Azkoitiko Juanarentzat. Teresa Gardoki, bi neskatxetako batek, jaso zituen eskutitzak atarian, bai eta beste karta D<sup>a</sup> Teresari idatzia "S.Inazioren euskera-liburutxo batekin"; eta bienbitartean D<sup>a</sup> Teresa "bera M<sup>a</sup> Goenagakin San Jose aldean, agur egiten urrutitik eskuz" egon omen zen Aita Aranari. Batek ez daki zer dela esan,

komiko-farregarria ala negargarria; unkiagarria bai. Lasai gelditu ote zen horrenbestez Arana? Eta D<sup>a</sup> Teresa<sup>a</sup>?

## 9. "IZPIRITUKO POZALDI BEREZIA" (1892)

Bezperan hartu zituen Tolosatik Franzisko Mugerzak bidaliak "sei liburutxo berri ta IHS-1891" (urteko katalogoa, alegia), bai eta *San Inazio ta bere etxe santuba*. Orobat "Añibarroren euskera probak" Mugerza beraren karta-rekin; bai eta Abadiñotik Gregorio Uriaren karta. Aita Aranak bere aldetik A. Olanori idazten dio bat, latinezko bi izkriburekin batera, norentzat ez digu esaten, eta bidean gurutzatzen da berari A. Olanok eta A. Lasak egin dizkio-tenekin. "Mugerzari proba Añibarrorenak" egun berean helarazi omen zizkion. Ez zuen egiteko handirik egun osoan eta hogeita lau ordu askotxo zituen probak zuzentzeko.

Ez dirudi D<sup>a</sup> Teresa A. Urrabururen harrerarekin haserretu edo mingostu zenik. Eskerrak emateko-edo, egun hartantxe idatzi omen zion kartatxo bat Bribieskatik. Hurrengo hilean ere egin zion bestea bere erreglamentuaren kopia helaraziz. Areago, hamar egun geroago, Burgosen bere ahizpa Rosakin egon eta gero, Oñara joan zitzaion eta elkarrekin egon ziren solasean. D<sup>a</sup> Teresak hogeitaz egunen buruan beste eskutitza idazten dio A. Erretoreari "nere berri emanik", dio Aranak, "eta bialdurik arreba Justaren karta atzera, eskaturik Reglamentu Obispo Jaunarentzat". Eta Aita Urrabururen erantzunaren zain egon gabe, handik astebetara iristen omen zaio Aranak azaroaren 8an hartua, baina D<sup>a</sup> Teresak 6an idatzia omen zen "D<sup>a</sup> Teresaren karta luzea A. Erretoreari", ta bestea "neri Azkoititik".

Eskutitzak hartzea eta haiei erantzutea ez baitzitzaion debekatu, D<sup>a</sup> Teresak idazten dizkion guztiei erantzuten die Aita Aranak. Bribieskatik D<sup>a</sup> Teresak Erretoreari egin baina hamabi-bat egun geroagokoa da Aranak Azkoitira egiten diona, "Pilar Vedrunarena barruan bialdurik", eta beste bat, erantzunaren zain egon gabe, luzetsita-edo, "Azkoitira atzo junetorletik" egiten duena. Biharamunean hauxe dio: "Azkoitiko D<sup>a</sup> Teresa A.-ren berri onak, A. Erretoreari egin dion kartan"; eta 17an Aranak egiten dio hari bat eta 20an bestea. Ahaztu egin zaio nonbait, ordea, gauza batzuk igortzea eta "paper da erreglamentu ta kartak bihar D<sup>a</sup> Teresa Aristegiri bialtzeko moldatzen" aritzen da.

Gau hartantxe hasten ditu gogojardunak eta, egia esan, ongi baino hobeki etorriko zaizkio pixka bat baretzeko eta jabaltzeko, eman dioten zigorrari

ezinbestean ederresteko eta Durangoko gaixotegi inguruko zenbait emakumez pixka bat ahazteko. Badu zertan pentsa gizagajoak, ea zer izan zitekeen eta nondik sortua "krimen itzal" zelako surmur hura, etxeko edo auzoko norbaiten inbidia eta ezinikusi hutsa ala zerbait gehiago, adibidez Lagundiak ongi ikusten ez zuen leku izkutu edo bereiz batean emakumeren bat aitortzea. Edonola A. Lasa zuhur-burutsua eta A. Olano etxeko nagusia bere alde ditu eta, badirudi haientzat dena, edo gehiena bederen, inbidia eta susmo eta marmar hutsa dela. A. Bengoetxeak ematen dizkie "gomutatzeko puntuak" eta bere Santu gidari omen ditu Jesus, Maria, Jose, San Migel eta San Inazioz gain "B<sup>a</sup> Mariana de Jesus", bere gogoko Kongregazioari izena eman behar ziona.

Hirugarren egunean hau idazten du: "Goibeltxo, epel. Urte guziko aitorkizun donea egin ondoren, *izpirituko pozaldi berezia*, batez ere MAGNIFICAT esan aurrean, da gero Jaunari bere hotseitean (bokazioan, alegia) iraukor gauzkalako (eskerrak) emanik. Asmo santuen laburmena: Cura singularis in ordine rerum, in humilitate et obedientia, fidei, spei, charitatisque igne vivens".

Seigarren egunean ere gomutazioek bortizki erasan diote nonbait eta "barrunbeko sentiera Jainkozkoak, gero latinez jarri ta ezarri ditudanak" izan omen zituen. Bi egun geroago, hain zuzen, latinez ematen ditu sentiera horiek aski luzaki; baina funtsa lehengo euskarazkoa bera da, guk titulu gisa ipini duguna: "internam animi consolationem sensi". Badu azkenean beste latinaldi bat ere lehengoa baino luzeagoa. Hona muina: Sagarario aurrean Jesusek esanda, hau entzun uste izan zuela: "zenbat maite nauzun! zenbat!", eta Aranak erantzun: "Zuk maite nauzuna eta areago", eta gero ohartu omen zela zuhurtzia gutxiko hitzak zirela horiek, Maalenak eta San Tomasek esanak bezalakoak.

Egun berean hartu zuen Aranak Azkuek "erregalitzen didatan bere liburu berri eder baliozko *Euskal Hizkindea* edo *Gramatika euskara*". Biharamunean "bazkai-aparia danok 7etan. Azken aldean neurtitz, hitzalditxo, agurkada eta kanta soinu asko armonioz, batez ere A. Villadaren biharko joateagatik". Añibar rorena utzi gabe, azkenaldi honetan "San Migelen bederatzaurrena"-rekin ere ari da, zeren urriaren 1ean esaten baitigu "S. Migel beratzaurren probak" hartu dituela Mugerza jaunagandik. Hilaren 10ean eta 24an gauza bera.

Eusebio Lopezek etengabe bidaltzen dizkio liburuak, oraingo honetan hiru batera: "Lardizabal, *Kondaira*, eta bi Mendiburu, *Jesusen Bihotzaren Debozia*", hau bi tomotan, alegia. Mugerzak ere "hamabi liburutxo San Inazioarenak", hutsegiteak zuzenduak dituela, eta "proba Añibarrorenak" helarazten dizkio.

On Balbinoren eskutitz bat hartzean egiten duen iruzkinak harritzen gaitu, ez asko, egia esan, orduko eta geroagoko, eta are gaurko euskaldun askoren euskaltzaletasun hutsala ezaguturik: "D. Albino Garitaonaindiaren karta euskerazkoa". Beste behin ere uste dut iruzkin bera egin zuela. Eskuarki gaztelaraz egiten al zizkion, ala? Eta ibilaldiak egitera Durangon ia egunero ateratzen zirenean, gaztelaraz egiten al zuten elkarrekin, ala? Ez litzateke harritzekoa, nahiz eta gaur harritzeko samarra iruditzen zaigun. Azaroaren barnean Gregorio Uriaren bi eskutitz heltzen zaizkio.

Aita Probintzialari bi txandatan idatzi ziola karta luzea esana zigun EGUNARIAN, hark berari idatzi zion egun berean, baina Erromako Aita Jeneralari beste horrenbeste egin ziola ez. Ezin esan ere orain arte EGUNARIAN, zeren egunean eguneko kontuak kontatzen baitira hor, eta zeren urriaren 23an egin baitzion karta luze hori Aita Jeneral Anderledyri. Guk ordea, Aita Olanok Loiolatik itzultzean zer kontatu zion jakin nahirik, Erromatik igorritako kopiari eskerrak aipatu dugu karta hori hor goian, orain baino lehen. Hala egin ez bagenu, ez genukeen jakingo eskutitz haren muina, Aranek EGUNARIAN ez baitu idatzi duela baizik esaten, ez muina kontatzen.

Aita Jenerala, azken kartutxoa. Bestek ez ateratzen tulunbio beltzetik eta, gehiena ahal zezakearengana jo zuen laguntza eske. Baina hark horretarakoxe zituen Probintziala eta Asistentea mendean, behar bezala informa zezaten; eta informeen arabera zigorra zegokiola esan zioten. Eta ez zion barkatu, ez gutxitu, Aita Luis Martin Jeneral berriak, Soriako semeak ere, nahiz ikasketen garaitik elkar ezagutzen zuten.

Honetaz ari naizenean, gogora datozkit noraezean beste bi jesuita euskaldunek, Larramendik eta Orixek, jesuiten Erromako Agintari gorenekin izan zituzten xextra zakarrak, nahiz bestelakoak. Lurrean ez-jakina egin zitzairen, goian bai, egin zaie honezkero justizia.

#### **10. MAHATSA DOLAREAN BEZALA (1892) ("ipse calcat torcular", Apoc. 19, 15)**

Mahatsa biltzeko garaia da eta urriaren 26, 27 eta 28an argibide zehatzak ematen dizkigu Oñako kolejoak biltzen dituen mahats mordo piloez. Lehen egunean "herrikoen mahats biltze guztiena, urteoro bezela; etxeko kanpoko mahastian ere bai, nundi 7 gurdikada handi ekarrira, biharko gehiago ekarri beharrean gelditu dira". Beraz herrikoetan guztiena, Oñako jesuitena eta kan-

poko mahastian ere bai. Bigarren egunean "mahasti kanpokoak biltzen etxe-koak gaur ere, ta idiz ta zaldiz ekartzen, karriatzen 9 edo 10 gurdikada, bihar-ko zer biltze gutxi geldirik; 220-bat kantaro edo pitxar txakoli, diotenez". Hirugarren egunean, 28an, "gaur goizean etxeratu dira kanpoko mahastiko mahatsak; danak, dio Abaitua anaiak, 500-bat kantaro edo pitxarkada handi ardogai. Atsaldean baratzako mahastiak biltzen mirabe, langile ta anai zenbait" aritu omen dira. Handik egun batzuetara ardogiñean hasi eta gero, zenbat pitxarkada izango ziren hobeki kalkula zezaketenean, "1.500-bat pitxazar edo kantaro ustean" omen zegoen anai Abaitua.

Mahatsa bildu ez ezik, "axari haundi bat zepuan harrapatu" ere bai. Bai eta bi egunen buruan ere, azaroaren 1ean, "euzkiaren ezkututzea aurreko haitz-eskinak 3etan" egin omen duenean (Arana behatzailea!), "harrapatuba zepoan beste axari gazteago bat bizirik" eta hilaren azken egunean "Santo Toribio ondoko baso ertzean, gaur goizean harrapatu da zepoan basakatu gazte eder bat; larrua kendu diote saltzeko". Beste batean, hotz zegoen arren, baratzean omen zebilen paseoan zenbait AA.-rekin eta "han belardian 18 indioilo" ikusi omen zituzten. Hotza aurreko egunetan ere aipatu du; 8an esate baterako, "oskarbi, izotza", idazten du, "1,30 maila zeropian". Hamar egun geroago "eko edo Euzkialde basoan hasi sartako kentzen ta erretzen lasto-harrioloz". Modu bertsuan bi egun geroago "euzki basoan edo eko-eran Anai laguntzaile Etxegireusta Tomas Lizarralderekin egur kentzen ta bi zepo axarientzat ipinten"

Aita Jeneralari eginiko karta luzeak eragin txikia izan duela dirudi bai Erroman eta bai Probintzian. Hamabost egun baino lehen "Valladolidtik A. Sorondoren kartatxo bere ta A. Probintzialaren partez", seguru asko "Erroma" jakinaren gainean jarrita. Bitartean "Aita Erretoreari esan diotena" (kontakatituren batek) kontatzen digu Aranak: "D<sup>a</sup> Teresa San Jose aldean zan", eta Aranak egun haren data ipintzen du: "(Agorra 18)". Arana ez da isiltzen eta hogeitau egunen buruan Aita Probintzialari erantzuten dio. Bai laster asko erantzunaren erantzuna hartu ere: "Aita Prob. Matias Abad-en debekua pareta mendikoan pasiatzeko", San Jose aldean, alegia, D<sup>a</sup> Teresa eta biak elkarri begira egon zirenekoa.

Handik hiru egunetara "iluntzean Fiesoleko karta bi A. G. A. Jeneralarena latinez (23koa) eta Aita Luis Martin-ena gaztelaniaz" eskuratzen ditu. Bi horien irakurtzea hiru egun atzeratzen du, orduak pasatzen, barrena lasaitzen utzi eta bere buruaren jabeago izateko-edo. Baina bertantxe Aita Probintzialari idazten dio eta bi egun geroago egiten du "AA. Jeneral eta L. Martinen kartak irakurtzea ta nik Aita Probintzialari 24-27an egina, 9 orrialde" igortzea.



Bere eta Aita Probintzialaren partez A. Sorondok egin dion kartan esaten dio besteak beste "amaorde Maria Alberdi sokorritzeko Loiolara iskribatu duela". Aranaren amaordea zen, noski; oso zaharra, Aranaren maite-maitea, Azkoitira joaten zenetan ia beti bisitatu ohi zuena; eta bizitzeko modurik eta biderik ez zuenez gero, eskatua zien Agintariei diruz edo jatorduz lagun ziezaioten. Egun horretantxe gertatu zitzaion Aranari oker desegokia: "goizean arpegi garbitzean hortzaren erdibitza eskutik erorita". Bi egun geroago Loiolako bi nobizio iristen dira Burgostik Oñara bi egunean oinez, Anai Millan eta Laskibar-gaztea dira. Azkoititik albiste pozgarri bat heltzen zaio azaroaren 14an: "Azkoititik lehenengo Ahizpa Mariana".


## 11. AZKEN GABEKO AZKENA (1892)

Urte askotan Aranaren lagun mina eta, nahiz eta anai Laguntzailea izan, Aranak egin zuen liburu batean, *Claros Varones Guipuzcoanos*-en, partaide eta lankide izan zuen Anai Jose Ramon Lizargarate hil zitzaien Oñan abenduaren 1ean. Tolosan jaioa, naturak buru argiz eta zoliz hornitua izan behar zuen, zeren urte askotan Probintzialen idazkari eta are Erroman Aita Jeneralaren inguruko lan-talde, Curia deritzagunean, aritu izan baitzen lanean.

Añibarroren probek badirudi ia azkena jo dutela, zeren aste baten buruan bi bider irakurtzen baitugu "Añibarroren azkenengo euskera probak". Eusebio Lopezi Mendibururen *Dotrinatxo*a eskaturik egiten dio karta eta Gabon zahar egunean A. Mendibururen *Esku Liburu* bat eta *Astete Laburtu* euskerazko 12 helarazten dizkio, eta Franzisko Mugerzak egun berean *San Inazio* ta *Bere Etxe Santuba* liburutxo bana. Barzelonako Franzisko Muns-i, *Liberalkeria pekatu da* argitaratzen ari denari, 11an egiten dio karta eta 19an hartzen erantzuna "Sardá jaunaren zortzi hizkundetako liburu haundiaren gainean".

Gurutzeko Juan doneari neurtitz batzuk, egiteko gogoak eman zion egun haietako batean eta ondu ondoren Aita Sorondori igorri Valladolida begiratu bat eman ziezaien. Hala egin eta asko zuzendu gabe itzuli zizkion. Ez fio nonbait bere buruarekin eta aita Astrain, historialari famatuari, bidali zizkion Bilbora. Honek laster erantzun zion "Kurutzeko San Juanen neurtzaldian bi berso aldaturik". Orduan kartatxo egin zion Antonio Arzaki olerki hura "eta beste euskerazko izengabeak Gabonetarako bialdurik".

Etxeko, kolejioko, patroï handi San Franzisko Xabierkoaren festa apalki-ro ospatu zen bere egunean, ostirala zelako, eta handikiro gero hurrengo igan-



Aita Jose Inazio Arana Oñan eman zituen azken urteetako batean "Brebiarioa" errezatzen.

dean. Egun horretan D<sup>a</sup> Teresak eginiko karta luzea hartu zuen A. Urraburuk, non eskatzen baitzion, esateko Aranari A. Probinzialak 26an idatzi ziola bera-ri eta guk irakurtzeko igortzen zigula. Hori 6an. Hiru egun geroago erantzuten dio Aranak beste "karta luzea, Aita Probinzialarena barruban dihoakiola". Gabonetan, nola ez, "D<sup>a</sup> Teresa M<sup>a</sup> Ignacia" - , azkenaldi honetan Aranak izena luzatzen dio -- "Aristegik Aita Erretore Urraburu ta neri Pazkoak emanaz" karta.

Joan zen hilean hasi zen Arana negar eta lantu, inoiz edo behin "eskotezain haundiko mina" jarri zitzaiolako bat batean eta besteetan "zainetako minaz edo erreumaz" gauean lorik ezin egin izan zuelako. "Kokoteko mina" ere deitzen du eta oinazetik handiena izan zuen apika "meza 5etan Nobiziaduko kapillan min handiz lepa ondoan" eman behar izan zuenean. Eguberri egunean honela idazten du: "atzo hasita gerri atzeko ziltegi erdian erreuma min gogorak eta lan askotxo minez, Meza ematean 5etan". Gabon gauaz eman ohi ziren hiru Mezetatik bat bakarra eman zuen, Nobiziaduko kaperatxoan. Bi egun geroago gai berera itzultzen da eta "gerri atzeko hezur nausirako maratil-egurra eitia" iruditzen zaio onena. Eginahalak eginda iristen da, ordea, baratzen gora "San Jose-raino erreuma ta guzi".

Hori 29an, urtea bukatzeko eta guganaino heldu den EGUNARIARI azkena emateko, bi egun baizik falta ez direnean. Ez ahantzi, izan ere, hasieran esan genuena: beste bost urte Oñan biziko bada ere, bost urte horietan EGUNARIA egunero idazten zintzoki jarraitu zuela berak esanda badakigu ere, ez dugula hura ezagutzen damurik. Beharbada egunen batean han edo hemen azalduko da, ez jakin! Bitartean ipin ditzagun hemen guri heldu zaigun EGUNARIAREN azken hitzak, 31koak, Urtezahar egunekoak: "Gerri-hezur-reko erreuma haizetik hobetoxeago; ur beroa urontzian oinetarako".

Hala dago gure Aita Arana 53 urte dituela, pipiak jota pixka bat. Zigorrek, eta zigorrek berekin zekarren leku aldatzeak ere, erasango zion, dudarik gabe. Ez esanak ez du esan nahi hala ez zela. Ez da bere barneko kontuak, mugidak, onaldi edo txarraldiak kontatzen dituen. Barrena sakatzen dakiena da. On egin nahi handia du, baina inoiz onegiteak ere ondorio txarrak ditu eta horiexek ez zituen ikusten gure Aranak. Esango al dugu buru-gogor samarra ere bazela? Behin eta birritan esan emakume hura konfesatzen segitzea ez zitzaiola komeni eta debekatzen zitzaiola, eta burutik kentzeko Kongregazio berri bat sortzeko gogoeta eta gogoa, eta halere zinki-minkian berean egon! Horrek galdu zuen ikusi batera.

Zer egin zen eskuartean zituen euskal liburuez, argitaratzeko prestatzen aritu eta azken probak ere zuzenduak zituenez? Ez jakin!

## POST SCRIPTUM

Azken bost urteetako EGUNARIA-ren hutsartea nolazpait bete dezakeen bakarria Erromako Agintari Nagusiarekin izan zuen gutuneria dateke. Ez ziren izan bi edo hiru bakarrik; dozena bat edo gehiago izan ziren. Niri haietako bospasei bakarrik igorri dizkidate; ea argitasun handirik ematen ez zutela ikusita, aski nuen ala gehiago nahi nituen. Gehiagoren egartsua piztu dutela baino zuzenago dut esatea berdindu eta are ase nautela. Nork bere leloa errepikatzen du behin eta berriz. Batak merezi gabeko zigorra eman diotela; besteak ez dela zigorra izan, arriskutik ateratzea baizik bere onbeharrez.

Entzun ditzagun bataren eta bestearen esaldi batzuk. Osoaren zati txiki bat baizik ez dira izango, zeren nik hartu bospaseiek hamarna orrialde dituzte, bataz beste. Bestalde gogoan hartu Nagusien arrazoiak eta hitzak, Aranak bere eskutizetan kontatu bezala baizik ez ditugula ezagutzen; agian Nagusiek bestela adieraziko zituzketen.

Aranaren arrazoiak:

"...se me privó y destituyó como "ab irato", sin amonestarme antes, ni manifestarme una sola razón justificable de tal procedimiento contra mí, de muy principales derechos y facultades sacerdotales comunes a todos los PP. de la Compañía..."

"...se agrega la amenaza constante de inmediata expulsión de la Compañía, si una sola vez oyese de confesión o predicase o tuviese una sola conversación con una persona de fuera..."

"Cualquiera... que examine los hechos y sucesos tocantes a mi actual situación... se hallará a mi parecer sin una sola razón sólida que aconsejase ninguno de los terribles castigos y amenazas, bajo los cuales me hallo..."

"...bastaba alejarme sencillamente de aquellos lugares y personas que intervinieran en tal ocasión".

"... gracias al P. Urraburu... obtuve licencia de pasear y andar como los demás PP. toda la huerta y fuera de casa, pero el Provincial me escribió que no me podía facultar a salir de Oña por razones de salud (a otra casa, a baños, dentista...); mis reumatismos y otros achaques corporales se agravaron poco a poco, quedándome sin ninguno de los tres únicos dientes con que acá vine".

"...noticias falsas de que "en Loyola y Durango había cometido graves faltas de prudencia y discreción y principalmente de obediencia"; "que con ellas me ponía en ocasión de ofender a Dios", "que me habían acusado grave-

mente", "que en Loyola me ví envuelto en un negocio muy malo, y traído y llevado con cosas muy graves", ... y puedo asegurar ante Su Paternidad no haber pecado gravemente en toda mi vida... "Neque probare possunt tibi de quibus nunc me accusant"; hau da, ene kontrako salakuntza horiek ezin ditzakete proba.

El Provincial Matías Abad "me invitaba a que... pidiese dimisorias para ser despedido de la Compañía" y escribió a D<sup>a</sup> Teresa que "me hallaba flojo de cabeza, incapaz de dirigir a nadie"...

"yo debiera estar aquí como el P. Mendibe, sin más amenazas ni restricciones, sin ministerios con los de fuera"

"el P. Anderledy estaba mal informado de mí, como antes otros Superiores míos. Me he ofrecido para lo de Cuba", pues dice gozar de buena salud, pero fallece a los 4 meses.

"sea también para mí una Compañía de unión y caridad, de la cual debe estar muy lejos todo espanto y temor servil".

## NAGUSIEN ARRAZOIAK

Horien ondoan Nagusien arrazoiak, baina esan bezala Aranak kontatzen dituen eran, honen eskutitzetatik jalkiak; haiek deuseztatzeko eta gezurtatzeko asmoz gehiago, adierazi bezala azaltzeko baino:

... hayan pensado ser "medida que la prudencia y el deber les aconsejaron".

"¿Cuadra bien llamar Providencia paternal de los Superiores... el tenerle dos años seguidos tan castigado y amenazado, tan recluso y apartado de casi todo trato y sociedad...?"

"sigan aún en un grandísimo error particular..., (que) consiste en que hayan creído ser una verdad, el que había que probar el único medio eficaz..., que era apartarme de todo trato con personas de fuera y que para esto fuese yo mandado a Oña"

"En mi última atenta y larga respuesta del 28 de Junio hago ver cómo, ese principio aplicado prudentemente a la causa ya conocida y permanente de las murmuraciones y quejas contra nosotros (y era la casi diaria asistencia a nuestra Capilla pública y frecuentes confesiones y conferencias, de dos personas de fuera con un Padre), fué el único medio eficaz para atajar y quitar el daño de

las tales quejas... Y consistió el único remedio eficaz en alcanzar que aquellas dos personas fuesen voluntariamente (por no perjudicar a la Compañía y su buen nombre) a vivir lejos de la casa donde residía aquel Padre. Así quedó éste apartado de todo trato con aquellas dos personas y atajado y remediado..."

Azken hitz hauek berari gertatua kontatzen dutela esango nuke, nahiz ez duen bere izenik aipatzen eta besteri gertatua bezala kontatzen. Uste horretan sendotzen naute beste eskutitz bateko beste hitzok: "...con respecto a otros PP. y HH., y conmigo mismo ya en dos casos...". Ikus:

"... los Superiores... tienen a mano y ponen otros medios prudentes y más conducentes para defender y atender a la buena fama y vocación del tal súbdito y al buen nombre de la Compañía, como lo han hecho desde S. Ignacio acá con respecto a otros PP. y HH, Y CONMIGO MISMO YA EN DOS CASOS, ALCANZANDO FUESEN A VIVIR LEJOS DE NUESTRAS CASAS E IGLESIAS DOS PERSONAS, QUE AUNQUE MUY BUENAS, SE AVERIGUO ERAN OCASION Y CAUSA PERMANENTE DE LAS TALES HABLADURIAS, MURMURACIONES Y CALUMNIAS GRAVES"

"OBRAN lau bobeda einak; patio aldeko hiruna biko horman ilera bat eta erdi palta dira harri landubak kornisara iristeko; habe edo soliboak ere askotxo jarri dira; eskailera haundi barruan lau matxoi lehenengo bizitza ondokoak ia bukatuak daude; teilatuperako zubaje haritzezko haundi bat zelayan prestatzen diardute" (27).

## MARTXOA

"OBRAN patio aldeko hiruna bizko horma gaur iritxi da kornisa tokiraino" (1).

"Ostatu aurrian zeuden bi arbola ilera gaur ebakita kendu ditue" (3).

"OBRAN kornisa ilera haunditxoa jarri da, teilatua aurki ezartzeko eskuakin ibai aldera" (4).

"Sosuak eta beste txori batzuek udaberri kantatzen abiatu dira eta sahas misareak loratzen da beste zuhaitz batzuek kimutzen da ostrotzen hasi dira" (5).

"OBRARAKO zubaje ta harri ekarte askotxo aste hontan Goikoetxe ondoko harrobiya utzita; jun dan astetik honera Urreta ondoko harrobi Azpeitikoan bakarrik goiyan ari dira ateratzen eta Aizkiolapean, lehen beze-la, barruko manposterirako. 50 kornisa ibai aldekoak jarri dira 8garren leiho pareraino. Lau zoru-zapai edo bobeda bakarrak bukatuak dira, ta hoek dira sukalde aldetik kopuraturik 2, 3, 4, 5garren leiho parekoak lehenengo zoruan baratza aldera" (6).

"Torreko San Inazio izeneko kanpai pitzatuba urtzera berriz eramateko asmoekin kentzen hasi dira gaur" (11).

"OBRAN patio aldeko horma nausi harlanduzkoan hirunaka leiho dauzkanean kornisa harriyak jartzen hasi dira" (12).

"OBRAN atzo-gaur bitartian, patio aldeko hormagain hiruna leihokoan, bi ilera edo kornisa-harri guziak jarri dituzte. Etxe Santuban ate berria ipinteko ta estukatzeke Estanislaoaren kapilatxoan lanean diardute Anayak, eta aste hontan ere baratza aldeko atalburu gainean dauden arku-erdi hiruretan, kristal berri ederrak ipini dira. Aita Legarra etxeratu da. Obran 5garren zoru-zapaya edo bobeda buka dute gaur beheko zoruan iskina Santa Krutz aldekoan" (13).

"Oinatitik atzo etorri ziran obrarako 14 langile eta gaur beste bi Urrustildik aste hontan jan truke lan eiteko; gehienak gaur Urretako harrobian dira" (15).

"OBRAN igelseruak goiko zoru-zapaya eiten ai dira nobiziadu ta torre pareko pasadizo edo bizitzatei gayan. Langile asko Goikoetxeko ta Urretako harrobietan. Arotzak teiletuperako zubajea jarten ibai aldera" (17).

"Gaur da atzo Anai Laguntzaile batzuek kupula gainean lanean, Elizako itukinak kentzeko" (18).

"San Inazio kanpai eder igaz pitzatu zana ta Gipuzkoaren aginduz 1848. urtean Ora ta Mendozak hartuba, gaur eratxi dute behera Etxe Santu ta Eliza bitartetik poleadi katezkoakin errez, da eraman obran partera gurditxoan, Bitoriara urtutzeko eraman dezaten" (19)

"OBRAN hargin asko Oinatiarrakin harrobietan. 5 eta 6garren zorugoi-zapai edo bobedak etxe iskinak biyak bukatu dira goi ta behi, eta 7garrena behekoa hasi. Teiletupeko zubaje askotxo josi da" (20).

"OBRAN teiletu ibai aldekoa iritxi da gaur 7garren leiho pareraino. Karobi berri Azkiola harrobi ondokua askotxo jaso dute hargin da egileak" (24).

"OBRAN aste hontan danak 125-bat langile eta lehengoetan 125 inguru hori bera. Teilatu askotxo ipini da ibai aldera. Lehenbiziko gela bukatu da, ondoko beheko iskinako bi leiho dauzkana. Han aldatu da Anai Laguntzaile Olarra bere liburugiletzako gauzakin. Goyan ladriluzko arka bat harrizko hondar egin da ta bobeda bat eta beste bat hasi. Gaur eraman da Zumarragara gurditzar edo karruan Bitoriarako San Inazio izeneko kanpai pitzatuba" (27).

"OBRAN gaur Kiruri aldeko etxe iskina goiyan kornisa harriya ipini da, behekoa, eta Urola aldeko beste kornisa-harri gehienak ere bai egun hontan.

Karobi berriya sutan dago atzotik. Garbitu dira anzinako hormalandu gainak, Kolejio izango zanaren bazkaldeiko gaineoak, eta solibuak ipinten hasi, gero horma jasotzeko patio aldeko haundiena. Ai dira ere bobedaginan baratzalde-rako gelaetan zoru nausiyen; behekoan iskinako Anai Olarrarena bakarrik dago egina zerugoia" (31).

## APIRILA

"OBRAN iya-ya bukatu rik ibai aldeko kornisa-harri guzi-guziyak. Eskailera handi parian bat; hormaren da kanporatzen danaren luzeroa duen bat jarri da" (1).

"OBRAN gaur Urola aldeko kornisa-aldiya bukatzean, kornisarri haundiak edo goikoak etxe iskinako iyazko maiatzean bedeikatu zanaren parean jarri da(?); hau da, behekoa jarri zanetik 119 urtegarrenean. Harri iskina goiko hori landu du langile Xek" (2).

"OBRAN solibo asko ipini da aste hontan; harri berri bat edo beste ipini da gaur makinan jasota, patio aldeko horma-altubera hartzeko" (3).

"OBRAN atzo ta gaur hiru ilera harlandu patio aldera jarri dira iya" (6).

"OBRAN patio aldera hirugarren harlandu ilera bukatu eta laugarrena asko aurreratu da, zazpi leihoen lehenengoak ezarririk. Goiko bizitzan baratza aldera nobiziadu ondoko leiho ilera guzian, egun hoetan zurezko marko leiho-orpoak ipini dira" (7).

"OBRAN 7 leiho patio aldekoen harlandu ilera lau jarriak eta bostgarrena hasita; eta barru aldeko hiru ateen da pasadizu iskinako arkuen harlanduak atalburu edo hirugarren ilerara iritxi dira gaur. Ibai aldeko goiko bizitzan zerugoi asko zabaldu dute igelseroak" (9).

"OBRAN barruan hiru ate ta hormak hoi en gaineraino bukatu dira. Patio aldeko leihoen 8garren ilera bukatu da harlanduzkoa; hiru dira 7garren leihopekuak eta bost leihoetakuak; beheko ilera bakoitzak 60-bat harri" (10).

"Harginak gaur langabe egualdi txarragatik" (12).

"Iluntzean etorri da Aita franzes lehen hemen bisitan Aita Cros. Gaur zerbait min hartu dute obran bi mutil langilek; bat Garatekoa, bestea da Berrozueta-torrekoa" (13).

"OBRAN patio aldeko zazpi leiho gainetako lehen harrilandu ilera, iya oso jarriya gaur" (14).

"OBRAN gaur harginak langabe egualdi txarragatik eta hormak atzo bezela. Barruban ai dira bobedaginan goi zapai oholan, eta arotz batzuek ere bai ta gaixoteira jua" (15).

"OBRAN 7 leiho gainetako bigarren harrilandu ileraka bukatu da" (16).

"Artxiboko armarioetako ateak konpontzen arotz anayak. Obran hirugarren harlandu ilera 7garren leihoen gainean. Patio aldera oso gaur jarri dute; igeltseroak eta arotzak barruban askotxo lan ein dute. Errekondo etxekindaria atzo etorri zana obrak ikusi ta oniritzi ondoren (plano berri eskatuan) jua da gaur" (17).

"OBRAN igaro dan astean ipini dira baratz aldera bizitza nausi edo ikasleen klase pareko leiho marko gehienak. Patio aldera hiru harlandu ilera 7 leiho gainetakoak; igeltseroak zerugoi lauetan ta bobeda edo sapaigoetan asko lan ein dute; arotzak Nobiziadu pareko edo goiko bizitzako baratz leihoak daudenetan ohol-zoro gehiena edo 8 leiho parekoa oso ezarri ta josi dute. Kendu dute ere Nobiziadura igotzeko zegoan eskailera zurezkoa obra aldetik" (18).

"OBRAN laugarren harlandu ilera 7 leihoen gainean patio aldera gaur ipini da" (19).

"OBRAN solibuak edo habiak ipinten gaur; tronko askotxo ekarri dute egun hoetan kanpotik" (20).

"OBRAN soliboak ipini dira transitu gainean eta laugarren harrilandu ilera 7 leihoen gainekoa patio aldera hasi dira. Baratza aldeko leiho berriak beheko 8ez gainera ipiniak daude, baina oraindik kristalik gabe" (21).

"Artxibora erakarri da 3.070 metro edo neurritzako mahai berri kabitzeko mahai luze bat, eta kendu ta eraman dira lehen zeuden bi mahai xaharrak" (23).

"Langileak goizean obran hasi dira goiko 7 leihoetako lehenbiziko harlanduilera bukatzen, da iluntzean buka da. Hiru palta kornisaraino" (27).

"OBRAN zazpi leiho goiko edo txikien gainean harlandu ilera iya oso gaur patio aldera jarri dute; biharko giltza-harriak utzirik. Ladrilo, harri ta zubaje asko egun hoetan ekarri da" (30).

## MAIATZA

"OBRAN kornisapeko harlandu ilera 7 leiho txikien gainerako gaur bukatua, eta barru aldeko bost ate gainetan horma piska bat gooratuba, ta igeltseroak ere transituko zeru-uztaiginak asko aurreratu dira" (1).

"Agertu dira aurtengo txenara batzuek; kukuba kantari" (2).

"OBRAN 7 leihon gaineko kornisa beheko ilerako 44-bat harlandu gaur jarri dituzte ta ilera osorako azkenengo alde hontako bi leiho gainekoak falta dira" (4).

"Badijoa Errekondo jauna" (5).

"OBRAN edo lanteian patio aldeko 7 leiho gaineko kornisa oso guzia gaur bukatu da ta behian zero-zapaigan eta zelai aldera solibo ta andamio ipinten diardute" (6).

"OBRAN barruban horma ta zero-labe edo bobedaginan. Azkenengo iskinako gela nausian zorua oholdua dago oso" (8).

"OBRAN zeruko ohol ipinten da horma ta goilabeginan" (10).

"OBRAN goiko soliboak ipinten da baratza aldeko gela nausiyak ohol-tzen zoruetan; bobeda edo goilabeginan da andamioa kornisak zelai aldeko ateraino jartzen" (12).

"OBRAN makina lurrundua edo baporea aldatu da sarrera nausi aldera, alde hartan kornisa-lanak hasteko" (14).

"OBRAN atzo ta gaur zelai aldeko kornisa ileran ipini dira, Eliza aldetik hasita, 21 harlandu azpiko ta 20-bat gaineko edo kornisa haundi. Patio aldeko hiru leiho pare barruan goiko bobedak iya bukatubak gaur. Oñatik iritxi da hemen pintatzeko Anai Laguntzaile Etxaniz" (15).

"OBRAN hasi dira barruan eskailera nausiko U. arkupe ondoan harri-landu ipinten. Zelai aldeko kornisa erdi bukatua, harri landuak ein arte. Zero sapaie edo bobedaginan behian erremendei tokira arte" (20).

"OBRAN ai dira eskailera nausiko arkuetan harlanduakin eta barruan goizapai ta sur zorutzen" (22).

"OBRAN biharko eskailera haundikuak bukatuak. Gurdi berriari Azpeiti bidian bi gurgil irtenda, zaldiyak korrika Olaz parian minik gabe" (25).

"OBRAN zelai aldeki kornisa ilera palta zana ipinten hasi dira. Aste hon-tan postrean, bazkaltzen estraña aurten, gerisak eta marrubiak jan dira" (27).

"OBRAN gaur goizean 11,30etan azkenengo kornisa harrilandua ipini da zelai aldera. Atsaldean irrinarteak betetzen ai dira" (28).

"OBRAN Atiko zelaia aldekoaren hasiera, atsaldeko 7etan langileen merienda zelaiko legorpean" (29).

## GARAGARRILA

"OBRAN eskailera haundikoaren-ginan, transitu ta gela-gayetan goizapaitzen ta zoruak oholtzen aurrera dijoaz" (2).

"OBRAN aurrera eskailera nausikoaren ta hormak barruko goizapai ta zoru-oholtzeac, eta kanpoko harrobi bien ta zelaiko harlaunza lanak" (5).

"OBRAN zelai aldeko etxaldegoian Atikoaren lehenengo harlandu bi edo hiru ilera atzo ta gaur ipinten. Etxe Santuko kanpai atzean teilatu puska bat kendu ta zinc ipini dute gaur. Ibai aldeko teilatua bukatzeko zubaje ipinten ai dira arotzak eta barruban goizapaiginan igeltseroak (8).

"Etxe Santuko sakristiko ate berri eder biyen da paretetako damaskuko ipinte osoa gaur. Obran egun hoetan ibai aldeko teilatua, Atiko berriaren horma ondoraino oso ilera dana ipini dute arotzak, eta barruan ai dira igeltseroak eta harginak kanpoan" (12).

"Ipini da gaur bazkaltoki aurrian baratzara jeisteko ate berri on zurezko sendoa zaharraren orde" (17).

"OBRAN zelai aldeko Atikoa aurreratu da leihoen goeneraino, 6 harri landu ikerak ipinita egun hoetan. Barruan arotz da igeltseroak, ohi bezela, ta hargin da harrobizaliak lan galanta ta ondo" (19).

"OBRAN zelai aldeko Atikoan leiho gainean kornisatarainoko bi harlandu ilera oso ipini dituzte. Arotzak zoru ezartzen barruban; goiko bizitzan Nobiziadu parian, ibai aldeko 8 leihoen aldeko zoru dana bukatu dute eta beheko pasadizuan Elizaldera hasi" (23).

"OBRAN liburuteiaren atzeko Atiko berriaren kornisa gehiena ipini da ta bakarrik txoko Elizaldeko bi-biren gainekoa palta da; zoru oholdutzeko asko aurreratu da barruan" (26).

"Gaur min hartu dute obran bi langilek; batek eskuturrean, da bestiak bihatz txikarreen. Obran zelai aldeko Atikoko kornisa oso bukatu da ta barru aldea piska bat" (28).

## UZTAILA

"OBRAN Atikoko kornisa eskina oso bukagabe oaindik. Barruban arotz da igeltseruak aurrera zurezko eskailera berria gela-ilun tokietan gora ipinten hasi dira" (3).

"OBRAN Atiko zelai aldekoari teilatua ipinten hasi dira; baina eguerdi aldeko leihoa buka gabe handik zubajea sartzeko. Barruko harri ta igeltso lanak aurrera ondo; kristalak goiko leihoetan eta lotegi berrietako kortina berri ta tela oihalak ipinten. Eskailera berri zurezkoa gooraino iritxi dute" (10).

"OBRAN Atikoko teillatu ipinten. Id. patio aldeko kanpai torre partea pasadizuen 26 lotegitxotarako kortinak-burniyak jarri dituzte" (13).

"Gaur aldatzen dira bizitzera ikasle Anai erreterikoak obra berriko patio aldera, dorre parean dagoan 26 oheko lekura. Igeltsero X erorita tabloitik besoa atera du" (14).

"OBRAN gaur aldatu da karga pasatzeko lurrun-makina; handiko arku-  
dua haundia hasitzeko, parterra eta harri-iler bat jaso dute" (17).

"OBRAN Atiko handian 4. harlandu ilara jarten; barruan bobeda edo goi-zeruak eta zoru zurezkoetan aurrera. Harrobietan ta hargintzan lehen bezela" (20).

"OBRAN Atiko haundian bostgarren harri ilara edo leihotako bigarrena ipini dute. Zoruak oholtzen Urola aldeko beheko saloian eta pasadizo beheko torre parekoan" (21).

"OBRAN Atiko handiko leihoen hirugarren harri ilara ipinia" (22).

"OBRAN Atiko handiko leihoen 6. harri ilerara iritxi dira" (23).

"OBRAKO Atiko handian sei ilara harri leihokoak ipiniak oso edo leiho oso albokoak. Zurez zorutze osoa barruko pasadizo ta sala danetakoak, eskailera haundi ondorainokoak danak" (24).

"OBRAN bigarren harlandu ilara, leihoaz gainekoa, Atiko haundian ia bukatuba. Gaur azkenengo oholak josita, oso-oso bukatu da torre pareko ta tribuna pareko pasadizoaren zorutzea. Goi-zeruginan ere aurrera dihoaz ondo" (28).

"OBRAN gaur eguerdiraino bakarrik lanean; iritxi dira Atiko haundia-  
ren zazpi leihoen 4garren harrilandu ilararen erdia ipinteraino; barruban goi ta beheko patio inguruko bizitza guzien zoru bat, eta bobeda edo goizeru bat, bukatuak oso geldi dira, eskailera haundi egitekoaren ondoraino" (30).

## ABUZZTUA

"Gaur hasi dira lanean harginak; juan dan ostiral eguerditik langabe San Inazio jaiakgatik" (3)

"OBRAN Atiko haundian 7 arkubak bukatuak eta gaineko lehen harlandu ilera ia azkendua; eta bere leiho bat txikiagoa eskubi aldekoa egina ta 2. hasiya. Barruban igeltseroak aurrera dira askotxo, ta ipini da eskailera nausi ondoan igaz Obispo edo Apezpikua igotzeko ein zan eskailera zurezkoa" (7).

"OBRAN Atiko handi patio aldekoaren kornisarria oro iluntzerako bukatzen" (11).

"OBRAN Atiko haundiaren kornisaldi biak, haundi ta txiki, bi leiho gainekoak gaur bukatuak dirala" (13).

"OBRAN aste hontan hainbestian aurreratu dira barnean bobedaginan, ia bukatuak ibai aldekoak, eta bigarrena hasirik behian zelai aldera. Atikoan jardin aldeko kornisa danak akabaturik; pelotaleku aldera begiratzen duten bi leihoetatik bat bukatua, ta bestea erdi akabatua; eta atzeko hormen erdi harlanduzkoak leihoen ia goeneraino eta arkubak hasita dauze" (21).

"Gaur erori da langile bat obran bat edo 2 kana behera, ta saietsezur bat edo beste eritu da" (23).

"Atzo min hartu zuan Markos, hargina Arauzkoa, Etxarretan larritxo gaur atsaldean" (24)

"Markos gaixo Etxarretan, gaur okerxeago, larrixeago. Obrak eta etxe ikusten jende asko. OBRAN baratza alderako Atiko haundiaren seigarren edo azkenengo arkuaren itxitxe iya osoa ilunabarrean. Barruko igeltsero ta arotzak tailatupeko zubaje haundiyak prestatzen Atikorako" (26).

"Markos gaixoa zerbait hobeto" (27).

"OBRAN Atiko haundian gaur bukatu da Eliz-atzeko korutei aldera begira duen (sic!) bi leiho gainetako harri-kornisa ilera, eta ipini dira ere baratza aldera kornisa-harri batzuek. Barruko lanak lehen bezela aurrera" (28).

"OBRAN iluntzean kornisa harriztatua bat bakarra ipini gabe baratz aldean" (30).

"OBRAN Atikoaren azkenengo kornisa-harriya baratza aldera goizean jarri da eta atsaldean zubaje asko ipini da teilaturako. Iritxi da Bitoriatik kanpai berria "Jesus, Maria y José, ora pro nobis" izkribitua daukana, 44 arrobakoa eta San Inazio izenarekin Diputazio Gipuzkoakoak 1848an eragin zuanaren da pitzatu zanaren ordainekoa" (31).

## IRAILA

"OBRAN Atiko haundiyan zubaje ta olak teilaturako ipintea" (2).



"OBRAN euri ta guzi Atiko haundian teilatuaren parte gehiena ipini dute. Bart etorri zan kanpai Jesusen izeneko 60 arruakoa ta lehengo 40ko biyak jaso dira torre ondoko teilatura Etxe Santu ondolik. Zelaian arku, habe, sokadi-besta, ta ardanegi dendak ipinten jendea" (3).

"D. Agustin Jauregi ta X Beloki ta Fermin Odriozola izkira eske arraitarako. 10etan kanpai berria estrenaturik datoz bi kotxetan Apezpiku jauna, bere etxelagun X ta D. Andres Lasorekin, eta Aita Legarra ta D. Agustin Jaurekirekin. Azpeitiko txaranga zubitik eskailera etxekoraino soinu jorik, suziri koeteak botarik. AAK eta Anayak ate inguruetan... Obran goizean bukatu da baratzaldera Atiko Haundiko teilatu osoa ipintea; gero garbiketak" (4).

"OBRAN hasi dira eskailera nausiko pilareetan harlanduak ipinten. Barriolan kanpai-torrerako balanka haundi burnizko bi eiten" (11).

"OBRAN eskailera nausi harrizkuan gaur bukatu dira lehenengo bizitzara Eliza aldetik jotzen duten hiru arku harlanduzkoak" (16).

"OBRAN hiru arku lehenengo bizitzara, Elizaldera, jotzen duten gaineko horma ta alboko txispoak (?) egiten; eta barruan zubaje ta igeltseria aurretzen... OBRAN: Atiko haundiko solibo tartean bobedila dana bukatu da; zulo bat bakarra gaiak gora-beheratzeko utzita; eta handik ganbara aldera anzina zegoan atea irikia horman gelditu da urtegiaren ondoan" (18).

"OBRAN eskailera nausiyen bigarren bizitzarako arkuba ta alboetako bi leiho harlanduzkoak ia bukatuak. Barruan Katalango iskinako beheko sala iya oso oholez zorutuba" (20).

"OBRAN lehenengo bizitzan Katalan iskinako sala oso oholez zorutuba" (21).

"OBRAK: behi-etxe ondoan azpiko aldian ari dira hormaren zimenduak lau neurtza edo metro zabaleko, beste legorpe bat han eiteko. Zimendu-harri bat iskinan bi metroko granitoa" (22).

"OBRAN eskailera nausiko goiko arku ta bi leihoen gaineko horma iya bukatuba. Barruan Atiko haundiaren azpiko zero-lan ta bobediletan aurrera igeltseruak" (25).

"Etxe Santuan goiko San Inazioaren kapilan, Jesus da Mariaren bihotzen eta San Inazioaren etxetik irtetea ta Paristik Azpeitiratzea adirazten duten laurkain pintura kolorezkoak leihoetan gaur berriak jarri dira" (28).

"OBRAN eskailera nausi alboko lau hormak goratzen ai dira eta bi aldeetan goiko leiho biribilduen hasieraraino iritxi dira. Igeltseroak bobedaginan beheko transitu edo pasadizuan ta arotzak solibuak ta ate berriak ipinten alde

hartan; harginak kanpoan ta harrobietan, ohi bezela. Behitegipeko legorpean hormak asko goratu ditue" (30).

## URRIA

"OBTRAN eskailera nausirako goiko hormetan hiru leiho harlanduzkoak eiten hasiya; laugarren edo sartaldekoa hasi gabe" (2).

"Anai ikasle erretorikoak aldatu dira obra berritik lehengo gelaetara Ostatu ondoko kotxeteyari gaur teiletua kendu diote" (4).

"OBRAETAN eskailera haundiko lau leiho goikoen inguruko lau horma harlanduzkoak gooratzen; behi-etxepean parte berriko teilatupeko oholak ezarritzen eta ostatu ondoko kotxera paretak garbitzen. Egurtzako gizon batek gure harrobi Oruetakoan oinen min askotxo hartu omen du" (6).

"OBRAETAN behitepeko teiletua oso ipintia gaur; ostatu onduan atxurketan zimendu azpi horma zaharrarena bilatzen" (7).

"OBTRAN 7 oin lurpetik atxurturik zimendu ondoraino ez dira iritxi" (8).

"OBRETAN eskailera haundiko goiko lau leiho inguru hormetan lanian; ostatu onduan zimenduetan eta behitepeko zoru nausiya oholtzeko lanean arotzak" (9).

"OBRETAN eskailera haundiko horma-goi sartalde aldekoan kornisak jarriak gaur danak; beste hiru inguruetan lanian goi-goian. Behi-etxepian zoru-oholtzen hasi ta horma zerbait kanpo aldera planeiatzen eta ostatu ondoko obran harlandu batzuek arkuperako ipiniak eta zimendu gainean horma sortaldekoa hasiya" (13).

"OBRETAN eskailera nausiko lau albo-hormeen bukaera gaur, harlandu kornisak eguarte aldera ipinirik; eta hasi dira zubajea teilatuperako makinarekin jasotzen. Ostatu ondoko arkupe berri ta horma kana-pare bat goitua edo beheko leihoen erdiraino. Behitegipeko zoru berria oholez josten ta kanpotik leundu, planiatu ta txuritzen" (15).

"OBRETAN eskailera haundi gaineke teiletua ipinteko zubaje gehiena ipinita, oholak josten hasi dira alde batzuetan. Ostatuko obran kanpoko obren leihoak bukatu ta horma gooratzen eta arku berriaren lehenengo harlanduak ezarritzen. Igeltseroak patio aldeko lehenengo bizitzako nobiziadu azpiko goizeru edo zapai-bobedak egiten" (20).

"OBRETAN eskailera handiko goiko teiletua ta haren da Atiko zelai aldekoaren bitartekoa iya bukatubak. Arku 6garrena itxiya gaur ostatuban ta hormak piska bat gooratubak. Patio aldeko 2. bizitzako zapai bobeda eta lau leiho parzetenkuak eginak" (22).

"OBRETAN ezker aldeko ate nausiko sarrera goi-gainean teilatuba ipinten hasi dira. Ostatu ondoan hormak lehenengo bizitza parian; barruan igeltseroak bazkaltei txikiko kolejalaren zeritzaneko bobeda edo goi-zerua zapaia egiten" (26).

"OBRETAN atzo iluntzean bukatu zan sarrera nausi gaineko eskultura nausi goi ta erdikoa, eta konde edo dukeetxe bitarteko teilatuba adar bat da bi ipinirik; eta gaur estrainatu du euri zaparrada galantak bazkalondoan. Ostatuko obran lehenengo bizitzako leihoen erdiraino gora, igeltseroak beheko transitu haundia planiatzen eta arotz batzuek oholakin lehenengo bizitza nausiko transitu luzea zorutzen hasi dira. 130 langileak merinda edo aparilegea iluntzeko 6etan beheko transitu haundi luzean, 12 aulki luze ta harritan" (28).

"OBRETAN: Ostatu ondokoan leihoen gaineko leheneko harri ilera gaur ipinia. Barruan hiru gela berri bukatuak patioko eguarte aldera eta arotzak transitu luze lehenengo bizitzakoa oholez zorutzen" (30).

## AZAROA

"OBRETAN ostatuan leiho gaineko hirugarren harlandu ileran ai dira. Barruan transitu bi alkar gurutzatzen diranen zoru-oholak oso bukatzean gaur" (2).

"OBRETAN barruan solibuak ipinten sarrera nausiaren gaineko lehenengo bizitzagayan. Igeltseroak bi transitu haundien paretak planiatzen. Ostatuan leiho aurreko gainean 6garren harrilandu ilera ipinia" (5).

"Etxakindari Errekondo hemen egun hoetan bihar juteko asmoan" (7).

"Anai Laguntzaile bi kupulako zirrika kanpokoak itxitzen" (10).

"OBRETAN barruban lanian arotz ta igeltseroak zelai aldeko gela ta korredorietan. Ostatuko langintza aurrera. Teiletuaren parte bat kendurik aurreko kornisa, faja ta harrilandu batzuek leihotoki parekuak behera bigun-garriak ipinita bota dira, eta 6garren arku gainean bigarren bizitzako leiho gainean hirugarren harlandu ilera hasita. Goraberatzeko makina han ai da oraindik" (13).

"Jesus Maria, Jose ta San Inazio jardueretan Patroi, goartale, lagun, ikasle, anai" estrenatzen due eskola berria obra berriko eskin nausi baratzaldean. Ostatuban gaur ia bukatua bost leiho gain sartaldekoetan ipinten dan harlanduzko faja edo ilera aurrerazka" (15).

"OBRETAN ostatuko sartaldeko horman eguerdirako kornisa harlandu danak ipiniak eta etxe aurpegian bigarren bizitzako 5 leiho berriak hasiyak. Anzinako teiletua leiho hoen erdi alturan hasitzen zan. Barruban zelai aldeko bizitzean uztazapai edo bobedagintzan" (17).

"OBRETAN ostatuan aurreko goiko lau leihoen gainean harlandu lehenbiziko ilera gaur jarria; 5garrenaren gainekoa biharko utzirik. Barruan eskailera haundiaren goi-goiko arku haundi ladriluzkoa, bat Elizaldekoa iya bukatua zinbra gainean. Arotzak eta igeltsero batzuek zelai aldeko bizitzetan eta batzuek Atiko haundiaren azpiko bizitzetan lanian" (19).

"OBRETAN ostatuban hiru leiho goi-aurrekoen gainean fajaren harlandu ilera ipini da. Beste hiruen gainekoa kornisa aurreko osoarekin falta da" (22).

"OBRA ostatukoan etxe-arpegikoan goiko faja osoa ezarrita kornisa ere erdirainokoa ipini dute gaur" (23).

"OBRA ostatukoa. Gaur oso bukatuak daude bere kornisa harlanduzko biyak, Izarraitz alde edo aurrekoa eta sartaldekoa, eta kornisa pareraino horma-nausi zati bana egutera ta sortaldekoak. Lehengo teiletu zaharra gehiena kendu da" (24).

"OBRA ostatukoan teilatuko zubaje ta habiak jartzen hasi dira" (26).

"OBRA ostatukoan aurreko aldean teilatu parte haunditxoa ipini da. Ai dira leiho berriak eiten sortalde aldera" (27).

## ABENDUA

"Ostatuko OBRAN aurreko teilatu parte bat bakarrik oraindik, egualdi txarragatik utzita" (2).

"OBRA ostatukoan gaur lan pixka bat teiltupeko zubajietan; harmaila berriak eskailerarako etxe aldera eramaten hargina eta igeltseroak. Eskailera nausi izango danaren goiko arku ta zeru-zapaiganan" (3).

"OBRA ostatukoan teilatu piska bat sartalde aldera gaur ipini dute, bana gehiena gabe dago. Barruan Asrano-ego ezkerreko eskailera nausia igeltseroak ekin diote bigarren haren altubari" (4).

"Pedro Jose Beristain bekoki ezker aldean atzo ostatu obran min artuta lotua dabil" (5)

"Ostatuko OBRAN iya teiletuaren erdia aurreko aldian ipinia. Eguarte aldean euriak barruan kalte ein dute" (10).

"Ostatuko OBRAN gaur oso teiletua ipinten bukatu da. Barruan zuba-jietan solibo falta izan danak transietuan ipiniak daude; bi gela Atikopeko bizitza edo zoruan gehiago eginak, lehengo bi iskinakoaz gainera. Igeltseroak eskailera nausi goiko zeru zapaian bigarren arku ta bobedila ipar-aldekoa eiten. Juan dan astean ein dira iturri-azpi etxebarrukuan, ganaduen hiltegiya ta hesiya haren hurrian, etxean hiltzeko asmoan haragia Azpeititik ekarri gabe" (13).

"Ostatuko OBRAN bi edo hiru bakarrik anabasa kentzen, beste arotzak obra berrian zorutzen oholez biziteiak. Ostatuak barruz-barruz dauzka zabal-ian 71,30 oin eta luzean 116 oin, sortaldera 17 leiho, hegoaldera 14, sartaldera 14 ta iparraldera 12, azpian 6 arku haundirekin" (14).

"OBRAN zurezko oholez (pinuz) zorotuak gaur arkitzen dira, obra berriko bi bizitzetan baratza, ibai ta barruko patio edo atari lautuaren aldera datozen parte guziak; piska bat zorutze hori falta da zelai aldera, Atikopeko beheko bizitzan eta gainera pasadizo edo transito eskailera haundi inguruko bitan. Ostatuan lan gutxi ein da aste hontan" (18).

"Hargin askotxo etxeratu dira obratik Erregenak pasa arte" (20).

"OBRAN hargin batzuek barruko transitutako harlanduak pikatzen egun hoetan; arotzak ostatuban" (22).

"OBRAN hegal-ezkerrean Atikopeko bizitza goiko guzia oso pinuz zorutua gelditzeko gutxi palta da; han zelai aldera goian 6 gela berri ia einak arkitzen dira; eskailera nausiko goian bi arku teiltupean zapaitxoak bukatuak, erdikoa hasi gabe. Ostatuban arotz piska bat egun hoetan" (23).

"OBRETAN egun hoetan hiru langile bakar, bi baztar garbitzen da bat hargintzan, barruko arku-hormak launtzen. Eskailera nausi gainean teiletu-  
pian bi arku albokuak beren goi-zeru edo bobedatxoakin bukatuak daude, besterik ez ezer. Falta dira oholez zorutzia lehenengo bizitzan edo nausian bi pasadizu edo transito osoak eskailera haundi ondokuak; eta goiko bizitzan bi transito atzeko hoen gaineak, iya oso oholez zorutuak daude. Beste gainerako bi bizitza danak (Duke etxe lekuaz kanpora) dana oso zorutua arkitzen da urte azken hontan. Baratzako hilerri edo kanposantutxoan ere ermitatxoaren parean, aurrean sartaldeko hormaren erdian erdi sartua, ipini da neurritz edo metro bat altu dan harlandu 8 iskinaduna, han gainean burnizko gurutze

eder bat jartzeko. Atsaldean jarri du berak eindakoa hemen Anai Laguntzaile Izagirrek" (31).

## 1887

### URTARRILA

"OBRAN jun dan astean 5 edo sei langile gehienez garbiketa, harlauntza, igeltsero ta arotz; pintatzerakoan oholez zorutu dute goiko transitu edo pasadizuetan palta zana. Bakarrik geldi dira oraindik zorutu gabe oholez eskailera haundi inguruan beheko bisitei nausian dauden bi transitu edo ibiltoki, bata leihoa zelai aldera sarrera gainean duena ta bestea eskailera nausi ta zelai aldeko gelaen bitartekoa" (9).

"OBRETAN atzo ta gaur langile askotxokin (60 edo 80) lanean ekin diote. Ostatuko goiko bizitzan gaur erdiya baino gehiago oholez zorutua geldi da" (11).

### OTSAILA

"Ostatua ikustera Anai laguntzaile Lekandarekin. Loiolako OBRAK: eskailera haundian harmailak iristen dira lehenengo bizitza nausiraino; gainera goiko zapai edo bobeda ta haruzkoak bukatuak daude. Granada dukearen etxea deitzen diotena ezer ikutu ta egin gabe dago. Ostatuko etxe haundia asko aurreratu da; goiko bizitzan edo Jarduera Santuetaarakoan einak daude 28 gela onak haiantzako, ta eskailera berri eder galanta iristen da ia bizilekuraino, baina buka gabe oraindik. Hilerrri baratzakoan Gurutze burnizkoa horma ondoan ilera haundi baten gainean jarria dago" (20).

-----

OHAR 1: Hona hitz horien ondokoak, azkenak diruditenak, lerro berean: "Irteera Loiolatik Durangorako 12,30etako kotxian". Beraz hor goiko azken hitz horiek idazten dituenerako Arana Durangora destinatua dago eta Loiolatik harantz abiatzen den egun berean idatzi ditu horko hitz horiek, azken egunean. Baina, hara nun 1887ko uztailan berriz Loiolan aurkitzen dugun -- "31, asteazkena. Eguraldi ona. ... Zumarragatik Loiolara Marzelino Ugaldereen kotxe berezian (80 errialian) 9,30etarako" - eta, Beteluko bainu-etxean irailaren lehen hamabost egunetan oporrak harturik, bertan kokatzen

zaigun, ez oso egun askotarako, egia. Honela dio Loiolara iritsi eta hiru egunetara, irailean, noski:

"OBRAN ai dira ostatu ondoan nabarri lantzen aldare bi berri Elizakorako, batzuek ipinten; atrio haundian Itsasondoko harlosa-pizarraz dana zorutzea; Aizkiolapeko harrobian horma-modu bat eiten; baratza txoko-kuinaduko oneko ondoan lantegi berri bat moldatzen" (16).

"Anai laguntzaile batzuek lanean ai dira, Nobiziadu edo Berridi berriko Kapilatxo berria goiko bizitzako bigarren torre ondo azpiko bukatzeko eta beste batzuek zurgintzatei edo arotzlatzatei berria baratzako txokoan bukatzeko" (17).

"Atiko haundi berrian pizarra harlosa azkenengo ileran jartzen ai dira ta behitei etxearen atze sahasi aldekoan txerritegi berria bukatzen" (19).

"Baratzako kuinadutxo ondoan ai dira burdinola berria edo errementarritza moldatzen" (21).

"Kapila berria estrainatzea Jauna dagola, Nobiziadu berriko bizileku eskailera haundi ondoan goiyan. Atsalde erdian, bihar eguerdiko ordubatean Errejentea datorrelako, partea datorrelako, eta Anai laguntzaileak etxe garbitzen da prestatzen. Iluntzean hiru Anaik kupulako gurutzepeko bola gainera igorik eta bat gurutze berean goora, han lotu dute Espainia bandera zabal bat. Apaltzean adirazi da bihar gure bazkaria 11tan obra berriko jantegian dala gero Errejenta hartzera juateko" (22).

"OBRETAN aldare berri biyetarako ai dira. Oraindik ez da oso luzatu Atiko haundiko zoruba. Bi atetxo berri Eleizako ate haundiaren barru-alboetarako eiten ai dira" (30).

-----

OHAR 2: Hau da zinez obren kontaeraren azkena, zeren hamabost egunen buruan berriz ere Loiolatik ateratzeko agindua hartu baitzuen, oraingoan Durangora joateko.

## EPILOGOA

Liburu honentzat azken hitzak eskatu zizkidan Patxi Altuna egileak eta hala bada ere ez pentsa Jose Inazio Arana idazle azkoitiarrari buruz azken hitzak izango direnik. Beste biografoen lanetatik, berak egindako ikerketetatik eta azkoitiarraren *Egunariatik* Altunak bildutako datuekin beharrezkoa zen biografia osotu du. Baina hau baino gehiago da liburu honen edukia. Lerroz lerro agertzen dira gertaerak, harremanak, saminak eta pozak, arima eta gorputzaren nekeak, ikasketak eta irakasketak, liburu, idazlan eta bertsoen aipamenak, pertsonaiak, lehendik ezagutuak eta ezagutu berriak, zeinen biografiak aberasteko ematen dizkigun datak eta datuak, eta abar luze bat. Lerro bakoi-tzak ematen digu albiste bat eta uzten du bere lorratza zenbai gaitan ikerketa-rako zirikatzeke. Beraz, ez da biografia soila Patxi Altunak eman diguna, zer-bait gahiago baizik, gure kulturaren ildoetatik jarraitzeko ateak zabaltzen diz-kiguna. Horregatik ez dira nireak azken hitzak izango jesuita azkoitiarraren bizitza, lanak eta eraginak aztertzeke. Eta horregatik deitzen diot “epi-logos” idazlantxo honi, liburuan idatzitakoez gain, hainbat gauza berri esan ditzake-gulako. Liburua oihan bat da, beraz, mota askotako zuhaitzez betea.

Bidaide, eta gogaide izan nuen Patxi Altuna Azkoitian, 1996. abendura-ren 20an, Euskaltzaindiak Jose Inazio Aranari omenaldia eskaini zionean, haren heriotzaren mendeurrenean. Orain burutu duen biografiaz lehen urra-tsak eman zizkigun orduan Altunak. Nik jesuita azkoitiarraren alde adigarria azaldu nuen, hots, “Jose Ignazio Arana, bibliografoa”<sup>1</sup> Orain ere, nire deitura bera zuen idazle, ikerle, zientzia-gizon honen biografia eta lanez baliaturik, nahi adina gai izango nituzke azterketa lanean gozatzeko; baina liburua birri-tan zehatz irakurrita, gai bat dagoela bilakaeraren zain otu zait: Aranaren musika ingurua, edo hertsiago esateko, Aranaren bertso musikatuak. Liburuan zehar adinbat aldiz agertzen dira aipatuak Eleizgarai eta Aldalurtar euskal musikariak. Bestalde, argitaratu zituen olerki eta bertsoak irakurtzean, berehala zetozkidan burura doinu ezagunak, hala nola, maiatzeko loreetako

---

<sup>1</sup> *Euskera*, 1997, 1-2, 13-22 orr.



*Goazen goazen guztiok edo Agur Jesusen Ama.* Euskal Herriko musikaz adi-  
tuak direnek berehala esango dizuete Felipe Gorritirena dela. Doinua, bai;  
baina testua? Nik ere ez nekien oraintsu arte Jose Inazio Aranarena zenik.  
Interesgarria iruditu zitzaidan gai honetaz jardutea eta Aranaren oihanean  
zuhaitz hau aukeratu dut epilogoan arakatzeko. Gerokoak, gero.

Patxi Altunak dioskunez, Albizturren egin zituen lehen musika ikaske-  
tak, Felix Eleizgarai hango organistarekin. Honen semea ere Jose Inazio baino  
urtebete gazteagoa, Jose Toribio, aitaren ikaslea zen. Gure azkoitiarra musika-  
zalea zela ez dugu zalantzarik. Urduñako jesuiten Ikastetxean irakasle zelarik  
(1870-1873) aipatzen dizkigu *Egunarian* entzuten zituen piano kontzertuak  
eta data zehatza emanez esaten digu 1873.eko apirilaren 1ean ekarri zutela  
6.000 errealetan erositako piano ederra, zuzendariaren gelan kokatu zutena.  
Poyannen zegoela, 1875.eko abuztuaren 15ean Beethovenen koartetoak ent-  
zun zituela diosku, eta Loiolan, San Inazio egunean, “cantos con piano y vio-  
lín”. Berriz Urduñan zegoela, 1882an Manuel Miralles<sup>2</sup> eta abenduan Isaac  
Albeniz pianisten kontzertuak entzun zituen.

Euskal Herriko musikaz ere aditua zela badakigu, bereziki bertsogintza-  
ko doinuez, *Arte métrica bascongada* lanean erakusten baitigu gai hau mene-  
ratzen zuela eta doinu gabeko bertsoerik ez dagoelako. Bertsoen egitura era-  
biltzen zuen bere *kantatxoak* egikeran, nonbait doinu bati lotuak. Esate bate-  
rako, Agustin Basterretxea jesuitaren “Passioa” kantatzeko egile honek erabi-  
li zuen bertso moldeaz baliatu zen gure J. I. Arana, ikusiko dugunez, eta eza-  
gutzen ditugun doinuetatik bat izango zen, dudarik gabe, testuaren euskarria.  
Azpeitian Patxi Altunak amagandik ikasitako doinua ote zen?<sup>3</sup>

Hainbat liburu eta aldizkari arakatu ondoren, hauek dira nik aurkitutako  
Arana azkoitiarraren bertso eta olerki musikatuak:

### 1. Salve a la Virgen de Begonia en vascuence y castellano (1880)

Jon Bilbaok, *Eusko Bibliographian*, ematen digu honen berri. Egañaren  
alargunak eta semeak Gasteizen zeukaten moldiztegi inprimatu zela diosku,  
hiru orrialdetan, Jose Maria Ugartebururen musikarekin eta Aita Aranaren  
testuarekin. Orrialdeen neurriari buruz zerbaite gehiago aipatzen digu Jose

<sup>2</sup> Juan Gil Miralles (1823-1896) izan zen pianista famatua. Manuel izena ematen dio J.I.  
Aranak. Errakuntza ote? Beste Miralles bat izango zen Urduñan ari izan zena?

<sup>3</sup> ARANA MARTIJA, Jose Antonio. “Basterretxearen ‘Passioa’ kantatzeko erabili diren doi-  
nuak”. *Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección. Musica*, nº 4, 231-254.

Inazio Aranak berak, “en 4<sup>o</sup>” gehitzen baitu<sup>4</sup>. Bertsoa 1880. urtean argitaratu zen eta ez dut nik ikusi; baina badirudi Begoñako artxiboan gordetzen dela.

Begoñara erromesaldia antolatu zen 1880.eko irailean<sup>5</sup>. Aurretiaz hasi ziren prestakuntza lanak eta J. I. Aranak *Egunarian* dioskunez, Estanislao Jaime de Labayruk eskatu zizkion “las diez composiciones para Begoña”. Hauetarik bat izan zitekeen Ugartebururi musikatzeko eman ziotena. Jose Maria Ugarteburu, Urduñako organista izandakoa, Begoñakoa zen erromesaldiaren garaian, eta bertan hila 1885an. Silverio Echevarriak egiaztatu zuen<sup>6</sup> honako hau: “Cinco odas vascongadas son las que han concurrido a disputar el premio de la cítara de oro y además se han presentado dos cantares y una *Salve* en verso vascongado” eta gero, lehiaketaren sariak aipatzen dituenean, zera dio: “Otra mención honorífica al autor de dos cantares a María y una *Salve* en versos vascongados”. Ene ustez, bi “kantaerak” (izenburu hau erabiltzen zuen gure Aranak) eta *Salbea*, Labayruk aipatzen dituen “de las 10 composiciones para Begoña” dira. Begoñako artxiboa ikusita argitu beharko da zalantza.

Esan beharko da hemen, musikako lehiaketan lehen saria irabazi zuela Jose Maria Ugarteburuk lan honekin: “Un himno a cuatro voces, con letra castellana y vascongada, titulado *El Peregrino. Laudate eum in chordis et organo*”<sup>7</sup>. Hiru bertso ditu, zortziko txikian, baina idazkera ikusita, ez dirudi J.I. Aranarena denik testua, Patxi Altunaren ustez.

## 2. Ama Donzella Begoñakoari euskara kantia (1880)

Lehengoa (edo lehengo hiruak bezala) literatura lehiaketara aurkeztua izan zen Begoñan 1880.eko irailean 22 ahapaldiko kanta hau, eta lehen saria irabazi ere. Iruñeko *Euskara* aldizkariak argitaratu zuen<sup>8</sup> erdarazko itzulpenarekin, eta gero *Euskal-Errian*<sup>9</sup>. Lema luze honekin, eta egilearen izenik gabe aurkeztu zuen J.I. Aranak: “Cuncta Pater Nato, Natus dedit omnia Matri, Virginea miseris distribuenda manu”. Epaimahaikoek irailaren 6an hartu zuten erabakia eta zilar eta urrezko zitara eman zioten egile ezezagunari.

<sup>4</sup> Arana, Jose Ignacio. Bibliografía bascongada. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan dagoen eskuizkribu argitaragabea, II, 20.

<sup>5</sup> ECHEVARRIA, Silverio Francisco. *Crónica de la Peregrinación a Nuestra Señora de Begoña en septiembre de 1880, por ... con un Prólogo del Dr. D. Estanislao Jaime de Labayru, Presbítero*. Vitoria, Cecilio Egaña, 1881.

<sup>6</sup> ECHEVARRIA, Silverio Francisco. *Crónica*, op. cit. 114-115.

<sup>7</sup> ECHEVARRIA, Silverio Francisco de. *Historia del Santuario e Imágen de Ntra. Sra. de Begoña*, por ... Presbítero. Tolosa, Eusebio López, 1892.

<sup>8</sup> EE, 1882, V, 105-116.

<sup>9</sup> EE, 1887, XVII, 102-104.

Egunarian irakurri dugu, Patxi Altunaren eskuz, irailaren 11an edo jaso zuela Aranak aipatu zitara hori. Beraz, ezkutuan zegoen egilearen izena azaldu zen nonbait, behar bada irailaren 8an Urduñatik erromes joan ziren jesuitek iragarrita. Silverio Echevarriak argitaratu zuen berri hau 1881ean<sup>10</sup> zera esanez: “Después se supo que era el insigne vascófilo P. Jose Ignacio de Arana, jesuita, Profesor del Colegio de la Compañía en Orduña”. *Euskal-Erriak* aha-paldiak argitara eman zituenean jarri zuen azkenean “Jose Ignazio Arana-koak”. Iruñeko *Euskarak*, ordea, ez zuen egilerik aipatu; gomendatzen zuen *Erromesaldiko Boletina* begiratzea, 13. zenbakia, irailaren 12koa (igandea), hain zuzen.

Literatura sarian, eta doinurik gabe, aurkeztu zen bertso sorta hau, nola sailkatu musikatuaren artean? Lehen aipatu *Euskara* aldizkariak (1882) 105. orrialdeko azpioharrean zera diosku: “Esta clase de estrofa de a siete versos, se usa principalmente en bascuence, desde que a mediados del siglo pasado publicó el P. Agustin de Bazterrechea su poemita sobre la Pasión, que empieza así: “Jesucristo-ri kendu ezkeru Bekatuakin bizitza”. Aita Aranak doinu gabe aurkeztu bazuen “Euskara-kantia”, ehun eta hogeitamar urte lehenagotik zeukan bertso molde honek zegokiona jarria. Jaialdien azken egunean hitzaldi bat eman zuen Estanislao Jaime de Labayruk, eta ostean irakurri zen Aranaren Oda.

Lehiaketa honetan Luis Iza Agirrek, Santurtziko maisuak, irabazi zuen bigarren saria “Salus infirmorum, consolatrix afflictorum, ora pro nobis” lema zeraman odarekin, eta Felipe Arrese Beitia otxandiarrak bi ohorezko aipamenak bertso hauekin: “Ama Virgiña Begoñacuari canta laburcho bat” eta “Ama Virgiña Begoñacuari erromes batec ipiñinico Cantaac”.

Labayruk aipatzen dituen hamar idazlanak idazten hasi baino lehen, ez ote zion bidaliko Aranak Jose Toribio Eleizgarai adiskideari Gasteiza Begoñarako bertso sorta bat? *Euskal-Erriak*<sup>11</sup> irakurtzen da: “Se ha publicado en Vitoria un *Himno para la peregrinación a Begoña*, debido a la inspirada pluma del reputado compositor musical don Teodoro (sic) Eleizgaray” Txikitatik adiskideak zirelarik, ez ote zion honek hari bidali himno baterako testua? Badago zinez zer ikertu.

### 3. Ama Birgiña Begoñacuari Guernicaco erromesen cantia (1880)

*Egunarian* irakurri dugu Aita Arostegik Aita Aranari ekarri zizkiola Bilbotik “iadanik inprimatuak Begoñako Amari egin bertsoak”: “Ama Birjiña

<sup>10</sup> Echevarria, Silverio Francisco. *Crónica*, op. cit. 114, 10. azpioharra.

<sup>11</sup> EE, 1880, I, 158.

Begoñacuari Guernicaco erromesen cantia”<sup>12</sup>. Zazpi ahapaldi dituela diosku Jon Bilbaok *Eusko Bibliographian* eta zazpietatik bat ematen digu. Beste ahapaldi bat ematen digu Silverio Echevarriak<sup>13</sup>. Jon Bilbaok, gainera, egiletzat jartzen digu “T. de O.”

Ezin dut, oraingoz, frogatu, baina Aranarenak direla bertsook sumatzen dut, Gernikako bizkaieraz idatziak. Egunarian bertso hauek inprimatuak jaso dituela esateak, interes berezia azaltzen du, egilearena omen.

Gernikan bizpahiru aldiz egona zen J.I. Arana, eta Arratzuraino heldua ere bai, Goiriena jauna, jesuita izandakoa, ikustera. Gernikan ezagutu zituen adiskideen artean Altubetarrak zeuden. Eta hara hor, Begoñako erromesaldia baino lehen agertzen diren Urduñako Ikastetxean Lucas eta Carmen Altube, Margarita amamarekin. Gernikan bizi arren, Azpeitian jaiok ziren Lucas Altube y Albiz de Mendoza y Ruiz de Murueta (1861-1925), idazlea eta historiagilea<sup>14</sup> eta Carmen arreba (1863-1935). Lehendik ezagutuak zituen, jaioterrian noski, eta gero Gernikan. Eta zertara etorri zitzaizkion Urduñara? Begoñarako kanta baterako bertsoen bila? Baliteke.

Eta zer egiten dugu T. de O. laburduraz izendatukoarekin? Eusebio Obieta Beitia, Markinan jaiok, Gernikako organista zen garai hartan eta honen anaia, Teodoro Obieta Beitia (T. de O.), Markinako artzipretea, eta musikaria hau ere. Honek musika jartzeko asmoetan eskatu zien Altubetarrei Aita Aranaren testua? Utz dezagun oraingoz zalantzan egiletasun hau.

#### 4. Ama Birgiña Arantzazukoari (1881)

Begoñako erromesaldia amaituta, Arantzazukoa antolatzen hasi ziren frantziskotarrak, 1881.eko irailaren lehen egunetan ospatu zena. Eta erromesaldi honetarako himnorik ederrena, eta Euskal Herri osoan ezagunena, Jose Inazio Aranarena da: “Arantzazuko Ama Birgiña zeruko Erregin haundia”.

Gaztetan Arantzazun ikasle izana zen J.I. Arana, Domingo Albeniz frantziskotarrarekin (1827-1885) giza-zientziak edo humanitateak ikasten jardunaz. Oroipen ona zeukan han egondakoaz eta ikasitakoaz, eta ez zituen inoiz frantziskotarrekin sortutako harremanak eten. Poyannen zegoela eta 1879an Arantzazura erromesaldi bat antolatzen zebiltzala jakinik, hango guar-

<sup>12</sup> Imp. A. Emperador, Cruz 5 dio testuak. Errata dela uste dut, Agustin Emperaile izan baitzen moldiztegi honen izena (1868-1889).

<sup>13</sup> ECHEVARRIA, Silverio F. de. *Historia*, op. cit. 273.

<sup>14</sup> ALTUBE y ALBIZ, L(ucas). *Ensayo Histórico y Apuntes para la Historia de la Villa de Guernica*. Guernica, Goitia y Compañía, 1913.

diana zen Jose Esteban Epelde Larrañaga azkoitiarrari (1842-1886) gutun bat idatzi zion 1879.eko martxoaren 18an; honako hau adierazi zion: San Inaziok Arantzazura egindako bisitaldia gogoratzeko elizaren atarian oroitarri bat jartzea komeni zela. Hiru hizkuntzatan idatzitako testua ere bidali zion<sup>15</sup>.

Aita Epeldek, bertso batzuekin batera, bidaltzen dio *Arantzazuko Historia*<sup>16</sup>. Eta J.I. Aranak hain ezagunak ditugun bertsoak idazten ditu 1881.urteko erromesaldirako, nahiz eta urte berean M. Letamendiaren izenarekin inprimatuak agertu Tolosan. Bertsoak aita Aranarenak direla diosku Jose Adriano Lizarralde<sup>17</sup> eta orrialdepeko oharrean gehitzen du: “El himno verificado por el P. Arana no carece de mérito literario: alguna de sus estrofas puede considerarse como lo mejorcito que ha producido la musa vasca. El P. Arana afirma que en Aranzazu ‘tuvieron principio los primeros albores de su vocación religiosa’. Correspondencia al P. Epelde, 26 de junio de 1885”.

Aita Aranaren bertso entzutetsuek Modesto Letamendia Erasunek (1819-1887) jarritako doinua daramate, Euskal Herrian oso ezagutua. *Egunarian* irakurtzen da inoiz Tolosako Eskolapioen Ikastetxera joan zela J.I. Arana. Ez du zertara esaten, baina badugu erantzuna. Modesto Letamendia abokatua zen eta musikaria ere bai, aipatu Ikastetxe horretan kantu eta piano irakaslea baitzen. Olerkariak eta musikariak elkarlanean sortu zutela Arantzazuko himno eder hori argi dago. Felipe Arrese Beitiak ere erromesaldirako idatzi zituen “Arantzazuko Amari” izenburuko bertsoei Letamendiak jarri zien doinua. Biok, Arana eta Arreserenak, argitaratu zituen Eusebio Lopezek Tolosan 1881.ean.

Begoñako Ama Birjiñaren Koroatze jaietan, 1900.eko irailean, Letamendiaren doinu hau erabili zuten, aita Aranaren testua erromesaldi berri honentzat egokituz, Durango eta Arratikoek irailaren 4an eta Oñatikoek 16an. Azken hauek, gainera, gero ikusiko dugun “Agur Jesusen Ama” ere kantatu zuten<sup>18</sup>. Hurrengo urtean, 1901.eko ekainaren 2an, “Nescachen erromeriarako itz neurtu batzuec” argitaratu zituen Bilboko Erruki Etxeak. Aita

<sup>15</sup> LIZARRALDE, Adrian de. *Historia de la Virgen y del Santuario de Aranzazu*. Oñate, Ed. Aranzazu, 1950. 212.

<sup>16</sup> PASTOR Y RODRIGUEZ, Julian de. *Historia de la Imágen y Santuario de Aranzazu. Por el Doctor... Catedrático y Decano que fue de la Universidad de Oñate*. Madrid, M. Tello. 1880. Gero gehiago idatzi da Arantzazuko Ama Birjiñaz, baina orduan hau zen bigarrena eta erabilgarriena, Luzuriagaren *Paraninfo Celeste* oso arraroa zen eta. Beraz Historia hau, atera berria, izango zen aita Epeldek Aranari bidalitakoa.

<sup>17</sup> LIZARRALDE, Adrian de. *Historia*, op. cit. 418.

<sup>18</sup> ARTIÑANO Y ZURICALDAY, Aristides. *Coronación Canónica de Nuestra Señora de Begoña* Barcelona, J. Thomas, 1901. 69-71, 76-77.

Aranaren bertsoen beste aldaera bat agertzen zaigu bertso-papertxo honetan. Ikus ditzagun hiru testu ezberdinak:

Arantzazu 1881	Begoña 1900	Begoña 1901
Arantzazuko Ama Birjiña Zeruko Erregin aundiya Kendu pekatu danen arantzak eman Jaunaren graziya.	Andra Mariya Begoñacua Euskal-errico gloriya zure egapean artu eguizu Euskaldun gente guztiya.	Ama Birjiña Begoñacua Ceruco Erreguin aundia; Quendu gugandi pecatu danac Eman Jaunaren gracia.
Agur zeruben edertasuna arrosa zuri gorriya apainduriyen lore bikañez Jaungoiko berak jantziya; Arantza artean arantza gabe arantzan gora jaikiya, agur Amacho biyotz biguna Grazi beraren jargoya.	Zeru altuan Goiaingueruac Coreo eder bat dabe landu, Manto urdiña zidar ta perlaz orfinco urrez apaindu; Ama Donzella Begoñacuari ule albiñac orraztu aro ederraz nai dabelaco Aita Eternua arotu.	Agur ceruen edertasuna arrosa zuri gorria, apainduriyen lore bikañez Jaungoico berac jantzia. Zu bakarrikan izandu zera sortzetic garbi garbia, agur Virjiña graciazcoa Graci beraren jar-goia.

Arantzazukoarekin antz gehiago dauka 1901en “neskatxek” kantatu zutenak, arantzen aipamenak bakarrik aldatu baititu; besteak aldaera gehiago ditu, koroatze ospakizunarekin hurbilago loturik dagoelako. Ez dakiguna da nork egin zituen, aita Aranaren testua oinarritzat hartuz, egokitze aldaketak. R.M. Azkuek, Musika batzordekoak? Ortografia ikusita, ez dirudi hau izan zenik. Aita Daniel Baertel, frantziskotar durangarrak, Durango eta Oñatiko erromesak gidatu zituenak? Dena den, Letamendiaren doinu hau Ama Birjiñaren lorietara mugatua dela dirudi. Karmengo Amari Mariano Planak bere bilduman zuzentzen dion himnoan erdal testuarekin agertzen da: “Salve, Maria, Flor del Carmelo”<sup>19</sup>

## 5. San Inazioaren Marcha berria (1882)

*San Ignacio Loyolacoaren bizitza laburtua, euskaraz eta gaztelaniaz* 1872. urtean argitaratu zion Larunbek, Bilbon, aita Aranari. Urte berean itzuli zuen Aranak gaztelaniara hogeitau urte baino lehenago Agustin Pascual Iturriagak (1778-1851) euskaraz idatzi zuen *Marcha*<sup>20</sup>. Itzulpen hau

<sup>19</sup> PLANA, Mariano. *Selección de Cantos Religiosos Populares por el R.P. ... Sacerdote de las Escuelas Pías. Prólogo del R.P. Jose Antonio de Donostia (S.S.) O.M. Cap.* Tolosa, Gráficas Laborde y Labayen. 1931. nº 165, 217-218.

<sup>20</sup> Donostia, Jose Antonio. “Apuntes de Folklore Vasco” BRSBAP, 1951, I, 25-39.

(Iturriagaren euskarazko originalaren ondotik) agertzen da *Euskal-Erria* aldizkarian<sup>21</sup>. Eta Iturriagaren “Ibilneurria edo marcha” piano laguntzarekin argitaratu zuen aldizkari berberak eta urte berean (81-83 orr.) B. de E.k para-tua. Bartolome de Ercilla musikagile durangarraren siglak ikusten ditut nik hemen.

San Inazioaren bizitza idazten zebilenean eta Iturriagaren Martxa itzuli zue-nean, San Inaziori zuzendutako “Erreguzko kanta” eta “Kantatxoak”, “Kantaerak” eta abar idatziko zituen, gero *Euskal-Erria* aldizkarian argitara-tuak. Baina “San Inazioen Marcha berria” lehenagokoa da. Jose Inazio Aldalur Iriarte musikariak (1828-1890) “soiñuz ipiña” 1868an kantatu zen Loiolan San Inazio egunean eta irailaren lehen egunetan, komentuko nagusiak baimena eman ondoren, Azpeitiko Pablo Martinez inprimatzaileak bidalitako probak zuzen-tzen ari zela esaten digu *Egunarian*. Bertso-paperetan agertu ziren gero dozena erdi inprimaki, eta ortografia aldatuta (k, g, z) eman zigun azkenean, 1882. urte-an<sup>22</sup> “San Inazioen Marcha berria, Jose Ignacio Aldalur apaiz jaunac Soñuz ipi-ña”, Ramon Garcia jesuitaren gaztelaniazko itzulpenarekin. Hasierako “Cantaurrea” (sic) eta “Azkena” zortziko txikietan ematen dizkigu eta bitarte-an 6/5 silabako lau ahapaldi sartzen ditu. Beraz laburra dugu martxa hau. Aldalurren doinua ez dut ezagutzen. Loiolako artxiboan ote dago?

## 6. S. Inazioen Marcha berriya (1886)

